

Gaur egungo munduaren historia 1945-2009

Fernando Martínez Rueda
Mikel Aizpuru Murua



GAUR EGUNGO MUNDUAREN HISTORIA, 1945-2009

Fernando Martínez Rueda
Mikel Aizpuru Murua

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2011



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Fernando Martínez eta Mikel Aizpuru

Mapen jatorria: GEOTLAS ® eta *Munduko eta Euskal Atlas*a, Elhuyar Fundazioa,
2006 © liburuko mapan oinarritua.

ISBN: 978-84-8438-382-6

Lege-gordailua: BI-0220-2011

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo

Azalaren diseinua: Igor Markaida

Irudien egokitzapena: Andoni Santiago

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Juan Gracia maisu eta lagunari

Aurkibidea

SARRERA	9
1. MUNDU BIPOLARRAREN SORRERA ETA GERRA HOTZAREN BILAKAERA.....	11
2. EKONOMIA ETA GIZARTE KAPITALISTAREN BERRERAIKUNTZA, HAZKUNDEA ETA KRISIA	55
3. AMERIKETAKO ESTATU BATUAK.....	81
4. EUROPAR BATASUNAREN ERAIKUNTZA-PROZESUA	109
5. SOBIETAR BATASUNA ETA EKIALDEKO EUROPAKO «HERRI-DEMOKRAZIAK».....	125
6. TXINA, IRAULTZATIK PRAGMATISMORA.....	161
7. HIRUGARREN MUNDUA: DESKOLONIZAZIOA ETA AZPIGARAPENA.....	195
8. LATINOAMERIKA, AZPIGARAPENAREN ETA IRAULTZAREN ARTEAN.....	231
9. EKIALDE HURBILA, AMAIERARIK GABEKO GATAZKA.....	265
10. AFRIKA, KRISIAN MURGILDUTA.....	287
11. GLOBALIZAZIOAREN GARAIA (1991-2009), ITXAROPENAK ETA ARRISKUAK.....	321

Sarrera

Gaur egungo historiari buruz euskaraz irakurri nahi duenak ezer gutxi aurkitzen duela ikusita, unibertsitateko ikasleak izan ditugu gogoan liburu hau idazteko. Egungo munduaren historiari buruzko oinarritzko informazioa, azalpenak, bibliografia eta testuak eskaintzea izan da gure helburua, arlo hau ikasi nahi edo behar duen orok euskaraz idatzitako materiala izan dezan eskura.

Oso errealitate konplexua eta era askotakoa da gaur egungo mundua. Hori dela-eta, liburuaren egitura zehazterakoan hiru eratako irizpideak erabili ditugu. Lehenengo eta behin, zenbait gaitan oinarriturik, horien bilakaera aztertu dugu. Ildo horretan, nazioarteko harremanen historiari eskaini diogu lehenengo gaia, bigarren gaia gizarte eta ekonomia kapitalistari eta azkena globalizazioari, ikasleak egungo munduaren ikuspegi orokorra beregana dezan. Geografikoa izan da bigarren irizpidea, baina mundua kontinenteka banatu duen banaketa klasikotik harantzago jo dugu (Estatu Batuak, Europar Batasuna, Ekialdeko Europa, Txina, Hirugarren Mundua, Latinoamerika eta Ekialde Hurbila), egungo munduan oso mundu desberdinak eratu baitira, eta bakoitzak bere egiturazko ezaugarriak eta bilakaera berezia izan ditu: mundu kapitalista garatua, mundu komunista eta, azkenik, Hirugarren Mundua. Hiru errealitate horien historia hurbila aztertzen dugu liburuo hainbat gaitan, ezaugarri komunak zein kasu partikular nagusiak azaldu ditugu, eta gaurdaino luzatu dugu analisi historikoa, ahal izan dugun neurrian. Bilakaerak aztertzean, irizpide kronologikoa ere erabili dugu lana antolatzeke. 1945ean kokatu ohi dugu historialariok aro berri baten hasiera, II. Mundu Gerraren ostean ezarri baitziren egungo munduaren oinarrietako batzuk: Europak gunea izateari utzi zion, deskolonizazio-prozesua garatu zen, mundu bipolarra eratu zen, eta abar. Baina 1945ean sortzen hasi zen mundua errotik aldatu zen batez ere 1980ko hamarralditik aurrera: sistema komunista erori zen, mundu bipolarra amaitu zen, nazioarteko ordena berria eraikitzeke saiakerak egin ziren, eta gorantz hasi zen globalizazioa. Beraz, bi garai bereizten ditugu egungo munduaren historian: bata 1945etik 1989ra doana, eta bestea urte horretatik gaurdaino heltzen dena. Hori dela-eta, azken garai horretan izandako munduko eraldaketa nagusiak izan ditugu aztergai gure liburuaren azken gaian.

Lan hau burutzeko Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzaren diru-laguntza izan genuen 2009. urtean. Mila esker beraiei eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari argitaratzen laguntzeagatik.

EGUNGO MUNDUA ETA ANALISI HISTORIOGRAFIKOA

Posible ote da egungo munduaren historia egitea? Garai batean historiografia akademikoak bereizketa edo muga zehatza ezarri ohi zuen iraganaren eta orainaldiaren artean, eta iragana ikertzea zegokion historiografiari. Denboran hurbil zeuden prozesuak ezin zirela modu historiografikoan aztertu pentsatzen zen, eta lan hori beste zientifiko sozial batzuei (ekonomialariei, soziologoei edo politologoei, alegia) zegokien, pentsaera horren arabera. Gainera, prozesu historikoak ikuspuntu objektibotik aztertzeke, esaten zen beharrezkoak zirela denborazko perspektiba eta urruntasuna; horrela izan ezean, historialariaren ideologiak kutsatuko zuelako lana, batzuen iritziz.

Hori horrela izanez gero, honako galdera hau egin genezake: denbora historikoaren zein unetan isildu behar du historialariak? Edo bestela itaunduz: noiz amaitzen da denbora historikoa eta historialariaren lana? Gure ustez ez dago argudio sendorik baieztatzeko ezinbestekoa dela denborazko urruntasuna gutxieneko objektibotasuna lortzeko. Egia da historia aztertzeke beharrezkoa dela nolabaiteko urruntasun epistemologikoa, baina horrek ez du zerikusirik urruntasun edo hurbiltasun kronologikoarekin. Aitzitik, zerikusi zuzena du historialariaren jarrerarekin eta metodoarekin. Edonola ere, eztabaida horrek beste itaun sakonago batekin du erlazio estua: zer da historia? Batzuek esango lukete iragana aztertzen duen zientzia dela historia, baina gu ez gatoz bat definizio horrekin. Gure ustez, historia da denboran zehar gizarteetan gertaturiko aldaketak aztertzen dituen zientzia soziala; eta eraldaketa horiek eta denbora historikoa ere gaurdaino heltzen dira. Horixe da liburu honen oinarritzko planteamendua, eta horrexegatik saiatu gara aztertzen lan honetan azken sei hamarkadotan munduan izan diren aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak, egungo errealitate nahasi eta ulergaitza konprenitu ahal izateko.

1. Mundu bipolarraren sorrera eta Gerra Hotzaren bilakaera

1.1. NAZIOARTEKO OREKA GEOPOLITIKO BERRIA

II. MUNDU GERRAREN ONDOREN

II. Mundu Gerraren amaierak errotik aldatu zuen nazioarteko politika, beste arlo batzuetan gertatu zen bezala. Aldaketa horren tamainaz jabetzeko, gogora dezagun 1945. urtera arte, europar potentzien arteko orekan eta lehian (*balance of power*) oinarritua zela nazioarteko sistema. XIX. mendearen azken hamarraldietatik aurrera, munduan zehar hedatu zen europar eremuko sistema hori, Europako estatuek itsasoz haraindiko lurralde berriak menderatu zituztenean zabalkuntza kolonialistaren bitartez. Lehenengo aldiz, elkarren artean erlazionaturik zeuden munduko lurralde gehienak eta mendekotasunezko harremanak zituzten, betiere munduko erdigunea Europa izanik. Europako estatuek mundua menderatzen bazuten ere, nazioarteko potentzia berriak agertu ziren Europatik kanpo. Batetik, Ameriketako Estatu Batuak ditugu; XIX. mende-bukaeran hasi ziren Monroe doktrinaren irakurketa erasokorra («Amerika amerikarrentzat») indarrean jartzen, eta horren ondorioz areagotuz joan zen Latinoamerikan AEBren eragina. Bestetik, Japonia dugu; Europa hedatzea haientzat mehatxua zela ikusita, egoerari aurrea hartzeko, mendebaldarren ereduari jarraitu zion (Meiji iraultza, 1868) Japoniak, eta Ozeano Barean zehar zabaldu zen era inperialistan.

Bestalde, XX. mende-hasieran, areagotu egin zen, nabarmen, nazioarteko tentsioa. Bi arrazoi nagusi izan ziren. Batetik, aldatu egin zen Europako potentzien arteko oreka, potentzia handi berri bat sortu baitzen (Alemania, 1871), eta geroago, Gilen II.a kaiserraren garaian (1888-1918), eragina izan zuen Alemaniak indarrean jarritako kanpo-politika espantsionistak. Bestetik, lasterketa kolonialistak areagotu egin zuen europar potentzien arteko lehia. Testuinguru horretan, bi itun militarren bitartez, elkarren etsai izango ziren bi alderditan banatu zen Europa. Ingalaterraren eta Frantziaren inguruan eratu zen alderdi bat; eta Alemania eta Austria-Hungariako Inperioa zituen ardatz besteak; I. Mundu Gerra izan zen azken emaitza.

Hiru hamarraldi iraun zuen garai ezegonkor, gatazkatsu eta bortitza hasi zen 1914an; bitarte horretan gertatu ziren inoiz izandako bi gerra krudelenak eta hildako gehien eragin dutenak. Lehenengo Mundu Gerra amaituta, nazioarteko harremanak baketze aldera, erakunde eta printzipio berriak erabili ziren: Nazioen Elkarte sortu zuten segurtasun kolektiboaz eta nazioarteko bakeaz arduratzeko;

eta nazioen autodeterminazioaren printzipioa erabili zen Europako mapa berria diseinatzeko. Baina porrot egin zuten konponbide berriek, eta II. Mundu Gerra piztu izana da horren adierazgarri. Edonola ere, 30 urteko garai nahasiaren amaieran erabat aldatuta zegoen mundua. Aldaketen artean esanguratsuena eta iraunkorrenetakoa, beharbada, honako hau dugu: Europak munduan nagusi izateari utzi izana.

Izan ere, II. Mundu Gerraren ondorioz, erabat desberdina zen potentzien arteko oreka. Potentzia global bilakatu ziren Ameriketako Estatu Batuak (ordura arte batik bat Ameriketara mugatzen zen haien eragin-esparrua). Inolako zalan-tzarik gabe, munduko potentziarik indartsuena zen 1945ean, alde handiz eta arlo guztietan gainera. Munduko ekonomiarik aberatsena zuen; halaxe islatu zen Bretton Woods-eko akordioetan (1944): nazioarteko diru-sistemaren muin bihurtu zen dolarra. Arlo militarrean ere Ameriketako Estatu Batuen nagusitasunak ez zuen lehiakiderik, bonba nuklearraren monopolioa baitzuen garai hartan. Egoera berrian, estatubatuar agintariek bi aukera zituzten kanpo-politikari zegokionez: bakartzeko joerara itzultzea, I. Mundu Gerraren ostean egin zuten bezala, edo nazioarteko buruzagitza eta ardura beren gain hartzea. Jakina denez, Estatu Batuen etorkizuna ez ezik, mundu osoarena ere baldintzatuko zuen haien erabakiak. Bestalde, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna bilakatu zen munduko bigarren superpotentzia, II. Mundu Gerra amaitutakoan. Ahalmen militar ikaragarria erakutsi zuen Alemania naziaren kontrako borrokan, bai eta lurralde gehiago lortu ere. Lehenengo, gerra aurrean alemaniarrekin egindako akordioen bitartez (Hitler-ek eta Stalin-ek elkarri ez erasotzeko eginiko hitzarmena) eta gero, gerra-garaian, nazien kontrako borrokan Ekialdeko Europan.

Hori guztia gertatzen zen bitartean, lehenagoko sistemako botere zaharren ekonomia suntsituta zegoen, eta haien egoera politikoa guztiz ahula zen. Nahiz eta munduko hirugarren potentzia izan, gainbehera handia izan zuen Erresuma Batuak: batetik, ezin zion inola ere eutsi garai batean nazioartean izandako buruzagitzari; bestetik, kanpoko laguntza behar zuen barne-ekonomia berreraikitzeke. Kanpoko zein barneko beharrei aurre egiteko, Ipar Amerikara begiratzen zuen, laguntza eske. Frantziak, bere aldetik, kanpo-potentzia izateari utzi zion 1940ko porrot iraingarriaren ostean, eta Europaren bozeramailea izanik bakarrik berreskura zezakeen nazioarteko protagonismoa. Bien bitartean, erabat suntsituta eta politikoki desagerturik zeuden potentzia galtzaileak (Alemania eta Japonia), aliatuen kontrol militarren mendean gelditu ostean.

Nazioarteko oreka erabat aldatuta, sistema berria ezin zitekeen oinarritu europar potentzien arteko denduan, ordura arte gertatu zen bezala, hots, Aro Berritik hasita, 1648ko Westfaliako Hitzarmenetik aurrera, hain zuzen. Europar nagusitasunaren eta potentzien arteko orekaren orde, bi superpotentzien (AEBren eta SESBren) arteko oreka dugu ezaugarri nagusia sistema berrian. Sistema bipolar horren eraketa, bilakaera eta amaiera izango dugu aztergai hurrengo kapituluan.

1.1. 1945 Europako mugetan izandako aldaketak.



Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo Goitia, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Madril, Istmo, I., 105. or.

1.2. ALIANTZA HANDIA ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA

II. Mundu Gerraren eraginez, itun militar eta politiko berezia sortu zen: Aliantza Handia. Ordura arte etsaiak izan arren, Sobietar Batasuna eta potentzia anglosaxoiak (Erresuma Batua eta Ameriketako Estatu Batuak) izan ziren Aliantza Handiko kide nagusiak. Itunaren berezitasuna ulertze aldera, gogora dezagun iraultza boltxebikearen garaitik aurrera, sobietar erregimena boteretik kentzen saiatu zirela Mendebaldeko potentziak (AEB barne), eta, horretarako, XX. mendeko 20ko hamarraldiaren hasieran «armada zuri»ei lagundu zirela. Sobietar estatua finkatu bazen ere, AEBk ez zuen 30eko hamarkadaren bukaerara arte onartu. Potentzia kapitalisten eta sobietarren arteko etsaitasunezko testuinguruan kokatu behar dugu 1939an Hitlerrek eta Stalinek elkarri ez erasotzeko sinaturiko hitzarmena. Gerrak berak eta etsai komunari (faxismoari eta ardatzeko potentziei) aurre egiteko premiak bihurtu zituzten arerioak lagun. Etsaitasun zahar hori dela-eta, zenbait historialarik (A. Fontaine-k eta R. Powaski-k, besteak beste) 1917an kokatzen dute Gerra Hotzaren jatorria.

1941etik 1942ra eratu zen Aliantza Handia. Prozesu horretan azpimarratzekoak dira gertakari batzuk. Lehenengoa Atlantikoko Gutuna dugu: 1941eko abuztuaren 14an (AEB artean ez zen potentzia beligerantea) sinatu zuten Winston Churchill Erresuma Batuko lehen ministroak eta Franklin D. Roosevelt Estatu Batuetako presidentek. Gerraren osteko mundua arautu behar zuten zenbait printzipio aldarrikatu zituzten: herrien eskubidea beren gobernu-sistema aukeratzeko; herrialdeen arteko lankidetzak ekonomikoa eta itsasoz nabigatzeko askatasuna; gerraren bidez lortutako lurralde-aldaketak errefusatzeko zituzten; eta etorkizunari begira, indarkeriari uko eginda, segurtasun kolektiboko sistema berria proposatzeko zen. Atlantikoko Gutuna sinatu zen urte berean, Sobietar Batasunari eraso zion Alemaniak (ekainaren 22an) eta Estatu Batuen armadari egin zion eraso Japoniak Pearl Harbor-en (abenduaren 7an). Ondorioz, etorkizuneko bi superpotentziak sartu ziren gerran. 1942ko urtarrilaren 1ean, 26 estatuk (SESBk ere bai) izenpetu zuten Nazio Batuen Adierazpena. Atlantikoko Gutunaren printzipioak berresten zituen adierazpen horrek. Azpimarratzekoa da Sobietar Batasuna ere bat etorri zela adierazpen horrekin. Lehendabiziko aldiz, egitasmo komuna bultzatuz elkarrekin egiten zuten lan sobietarrek eta Mendebaldeko potentziek. Giro horretan, 1944. eta 1945. urteetan, bazirudien Sobietar Batasunaren eta AEBren lankidetzan oinarrituriko nazioarteko sistema berria ezarriko zela.

1941. urteaz geroztik, bi helburu lortzeko hasi zen garatzen aliatuen arteko lankidetzak: batetik, gerra irabaztea eta, bestetik, bakea antolatzea —alegia, gerraren osteko segurtasuna eta nazioarteko sistema berria eratzea—. Helburu horiek lortzeko eta aliatuen elkarlana bideratzeko, konferentzia- edo bilera-sistema erabili zen; Teherango Konferentzia (1943) eta Yaltako eta Postdam-eko bilerak (1945) izan ziren esanguratsuenak. 1945eko otsailaren 4tik 11ra bitartean, gerra amaitzear zegoela, Yaltan (Krimeneko penintsulan, Ukrainan) Winston Churchill, Franklin D. Roosevelt eta Josif Stalin bildu ziren. Une hartan nabaria zen Sobietar Batasuna-

ren eta haren Armada Gorriaren indarra, 1944. urtean zehar garaipen militar handiak lortu ostean, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialde gehienak bere mende jarri baitzituen.

Potentzia bakoitzak bere helburuak eta interesak defendatu zituen Yaltako Konferentzian. Esate baterako, Rooseveltek uste zuen gerra osteko mundua antolatzekoan, behar-beharrezkoa zela Sobietar Batasunarekin lankidetzan aritzea; hori lortze aldera, nahi zuen Nazio Batuen Erakundearen egitasmoa (Atlantikoko Gutunean iragarri bezala) aurrera ateratzea eta Japoniaren kontrako gerran sobietarrek beste fronte bat zabaltzea. Stalinen helburu nagusia, berriz, Sobietar Estatu finkatzea eta haren segurtasuna bermatzea zen. Gerraren emaitzak eskaini zion abagunea aprobetxatu nahi zuen xede hori lortzeko. Churchillek, ostera, Europako egonkortasuna zuen kezkarik handiena. Haren ustez, Sobietar Batasuna kontinenteko potentzia nagusi bilakatu zero eta komunismoa hedatuz gero, egonkortasunaren kontrako mehatxuak izan zitezkeen. Hori dela-eta, Europako oreka berri baten alde egin zuen lan, eta bide horretan, Frantzia indartzearen alde jokatu zuen. Yaltako Konferentzian harturiko akordioek batzuen eta besteen kezka eta interesak islatu zituzten.

Gerraren ondoren, gai korapilatsuak eztabaidatu ziren nazioarteko sistema berria diseinatzerakoan. Alemaniarekin zer egin izan zen lehenengo auzia, hari leporatzen baitzioten gerraren errua aliatuek. Alemaniako lurraldea okupatzea erabaki zuten irtenbide gisa. Horretarako, lau zatitan banatu zuten Alemania¹. Zati bana administratuko zuten SESBk, AEBk, Erresuma Batuak eta Frantziak, eta Aliatuen Kontrol Batzordea eratu zen administrazioa koordinatzeko. Sobietarren aldean geratzen zen Berlin, baina lau zatitan banatu zuten.

Poloniaren auzia ere eztabaidatu zuten Yaltako Konferentzian. Stalinen ustez, segurtasun-arazoa Polonia zen, zeren eta historian zehar Errusiari erasotzeko bidea izan baitzen Polonia, eta bide hori itxi nahi zuten behin betiko. Stalinek mugak aldatzea proposatu zuen, 1919. urtean (I. Mundu Gerraren ondorioz) marraztutako Curzon lerroaren arabera (ikus mapa). Berrantolaketaren ondorioz, Ekialdeko Poloniako lurraldeak (Bielorrusiako eta Ukrainako lur jendetsuak) SESBren eskuetara pasatuko ziren. Horren truke, Poloniako mendebaldeko muga aldatzea proposatu zuen Stalinek: Alemaniaren kaltean, Poloniak Silesiako eta Pomeraniako eskualde aberatsak eskuratuko zituen. Churchillek ez zuen Stalinen proposamena onartu, baina, azkenik Postdameko Konferentzian² onetsi zen. Gainera, Polonian

1. Hasieran, Alemania hiru eremutan banatzea proposatu zen, baina, Churchillek hala eskatuta, Frantziaren kontrolpean geldituko zen laugarren eremu bat sortu zuten.

2. Postdameko Konferentzia 1945eko uztailaren 17tik abuztuaren 6ra bitartean egin zen. Buruzagi berriek hartu zuten parte: F.D. Roosevelten ordez Harry Truman presidente berriak, eta Churchillen ordez Clement Attlee lehen ministro hautatu berriak. Honako hauek izan ziren erabaki nagusiak: Alemaniako eta Poloniako mugak aldatzea eta zehaztea; Alemaniari kalte-ordainak ordainaraztea; Alemania naziz garbitzea eta gerra-kriminalen kontrako epaiketak egitea.

1.2. 1945 Alemaniaren lehen banaketa II. Mundu Gerra amaitu ondoren.



Iturria: <<http://luisvia.org/?p=380>>.

ezarri beharreko gobernu ere eztabaidagai izan zen. Horretan ere bi jarrera kontrajarri mahaigaineratu ziren: Stalinek Lublineko Batzorde Nazionalari (komunistek kontrolatua) ematen zion babesa; Churchill, aldiz, Londresko gobernu erbestera-tuaren aldekoa zen (mendebaldarren aldeko joerakoa). Azkenik, akordiora heldu ziren: batasun nazionaleko gobernu eratuko zen; ardatza Lublineko batzordea bazen ere, beste joerako kide batzuk ere sartuko ziren gobernuan. Eta, horrez gainera, hauteskundeak lehenbailehen egitea erabaki zen.

Nola antolatu eta egonkortu Europako kontinentea ere erabaki behar zuten aliatuek Yaltako bileran. Herrialde asko atzerriko tropek okupaturik zituztenez (Ekialdeko Europan Armada Gorria zen nagusi eta Mendebaldean AEBren tropak), premiazkoa zen politika eta ekonomia berreraikitzea. Prozesu hori bideratzeko, Europa Askatuaren Adierazpena adostu zuten Hiru Handiek. Adierazpen horretan, aliatuek hitzematzen zuten berreraikuntza-prozesua elkarrekin gidatuko zutela eta bitarteko demokratikoak erabiliko zituztela, baina eperik edo neurririk zehaztu gabe. Gainera, Mendebaldekoek eta sobietarrek modu zeharo desberdinean uler-tzen zuten demokrazia kontzeptua. Baina, azkenean ez zen bete Europa Askatuaren Adierazpena, eta horren inguruan sortu ziren gerra osteko lehenengo tirabirak Mendebaldekoen eta sobietarren artean. Beharbada, jarrera horretan oinarriturik, eta geroagoko bilakaera ezagututa, superpotentzia berriek Yaltako Konferentzian Europa (eta geroago mundua) eragin-esparrutan banatu zutela interpretatu da, eta mundua bi bloketan banatzearen metafora bihurtu da Yalta. Nahiz eta horixe izan urte batzuk geroagoko emaitza, helburua ez zen Europa sobietarren eta estatubatuarren artean banatzea, kontinente ezegonkor batean ordena ezartzea baizik. Yaltako Konferentziak berak baino gehiago gerraren emaitzak banatu zuen Euro-pa: ekialdekoa sobietarren kontrolaren mendean geratu zen, eta anglosaxoiak izan ziren nagusi mendebaldean. Bestela esanda, Stalinek ez zuen Yaltan ezer irabazi, gerran zehar jadanik irabazia baitzuen. Gainera, artean ez zen bi superpotentzien arteko lehia sortu, eta aliatuen arteko lankidetzaren geraldian zegoen. Halaxe adie-razten du konferentzian harturiko beste erabaki garrantzitsu batek: Nazio Batuen Erakundearen sorrera.

Arestian esan bezala, Churchillek eta Rooseveltek Atlantikoko Gutunean adierazi zuten nazioarteko bakea eta segurtasun kolektiboa zaintzeko erakunderen bat sortu beharra zegoela. Yaltako bileran, erakunde hori sortzea erabaki zuten Hiru Handiek, eta horretarako, San Frantziskoko Konferentzia antolatu zuten. Horrela, 1945eko ekainaren 26an, Nazio Batuen Erakundea sortu zen, eta orduan onetsi eta zehaztu zen haren gutuna edo araudia. Bigarren aldiz sortzen zen nazioarteko bakea eta segurtasun kolektiboa zaintzeko erakunde bat. Nazioen Elkarteak izan zen aurrekoa, 1919an eratua, I. Mundu Gerraren ostean. Baina bere jaiotzatik bertatik erakunde ahula izan zen Nazioen Elkarteak, ez baitziren Estatu Batuak sartu, nahiz eta Woodrow Wilson (AEBko presidentea) izan egitasmoaren bultzatzaile nagusia. Nazioen Elkarteak egindakoa aztertzen badugu, agerian gelditzen da ahulezia. Izan

ere, Nazioen Elkartek ezin izan zituen nazioarteko gatazkak ekidin, ez eta nazioarteko bakea mantendu ere: 1930eko hamarraldian, Japoniak Txina inbaditu zuen; Italiak Abisiniari eraso zion; Hitlerrek Txekoslovakiako Sudeteak okupatu zituen... Eta gatazkaz beteriko testuinguru horretan, potentzietako batzuk irten egin ziren Nazioen Elkartetik: 1933an Japonia eta Alemania, 1937an Italia eta 1939an SESB (Finlandia inbaditzeagatik). Azkenik, II. Mundu Gerra pizteak agerian utzi zuen Nazioen Elkartearen gaitasunik eza nazioarteko bakeari eusteko. Horregatik, 1945ean, erakunde berria eta eraginkorragoa eratu nahi izan zuten aliatuek, batez ere Estatu Batuek, beste araudi eta bitarteko batzuk izango zituen.

Izan ere, San Frantziskoko Konferentzian, 51 estatuk sinatu zuten Nazio Batuen Erakundearen Gutuna. Agirian, erakundearen helburuak eta antolamendua zehaztu zituzten. Nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea zen erakundearen helburu nagusia. Horretarako, era askotako erabakiak har zitzakeen NBEk: negoziatzeko deiak egitea, nazioarteko zigorrak ezartzea edota indarra erabiltzea, besteak beste. Herrialdeen arteko adiskidetasun-harremanak eta lankidetzak ekonomiko, sozial eta kulturala sustatzea zen bigarren helburua, eta horretarako, erakunde espezializatuak sortu zituzten (FAO, UNESCO eta abar). Estatu kide guztiek printzipio batzuk onartu zituzten, besteak beste, kide guztien berdintasun subiranoa eta estatuen arteko gatazkak bitarteko baketsuak erabiliz konpontzeko agindua, indarra erabiltzeari uko eginez.

Nazio Batuen xedeak lortzeko gutunean zehaztu ziren erakundearen antolamendua eta egitura. Nazio Batuen Batzar Nagusia zen eztabaidagune gorena, estatu kide guztien ordezkariak osatua. Baina benetako botere betearazlea Segurtasun Kontseiluan zetzan, eta hari zegokion nazioarteko bakea zaintzea. Bost kide iraunkorrek osatzen zuten Segurtasun Kontseilua: AEBk, Erresuma Batuak, Frantziak, Txinak eta SESBk. Horiexek zuten beto-eskubidea. Baina, horietaz gain, beste hamar kide zituen Batzar Nagusiak, bi urterik behin hautatuak. Idazkaritza zen Nazio Batuen erakunde administratiboa, eta idazkari nagusia arduratzen zen erakundearen koordinazioaz. Kontseilu bat sortu zen Nazio Batuen jarduera ekonomiko eta sozialak koordinatzeko, Batzar Nagusiak hiru urterako hautatutako 54 kidek osatua. Deskolonizatzeaz arduratzen zen erakundea Tutoretza Kontseilua zen, baina deskolonizatze-prozesua gauzatu ahala haren eginkizuna murriztuz joan zen. Azkenik, Nazioarteko Justizia Auzitegia dugu, bederatzi urterako hautatutako 15 epailez osatua. Estatuen arteko auziak epaitzea izango zuen eginkizun.

Ikuspegi historikotik begiratuta, Aliantza Handiaren emaitza eta lorpen nagusietakoa izan zen Nazio Batuen Erakundea. Baina aliantza apurtzeak eta Gerra Hotza hasteak geldiarazi egin zuten, Segurtasun Kontseiluko kideek zuten beto-eskubidearen ondorioz. Izan ere, NBEren egitura potentzia nagusiek elkarrekin lan egiteko asmatua zen, eta Segurtasun Kontseilua zuzendaritza kolektiboaren modukoa zen. Horregatik, lankidetzak amaitu zenean, blokeatu egin zen, eta Gerra Hotzaren garaian, bi superpotentzien arteko lehiaren agertoki bihurtu zen. Hala ere, garai

horretan deskolonizatzeko-prozesuaren ondorioz jaio berri ziren herrialdeek, Batzar Nagusian gehiengo izanik, NBE erabili zuten beren eskakizunak plazaratzeko eta beren ahotsa nazioartean entzunarazteko. Gerra Hotza amaituta, bazirudien NBek protagonismo handia hartuko zuela, baina itxaropenak zapuztu egin ziren, AEBren kanpo-politika aldebakarraren ondorioz. Edonola ere, P. Kennedy-k zioen bezala, NBE, nazioarteko gobernu-erakunde guztiak bezala, subiranotasunaren eta nazioartekotasunaren arteko dialektikan mugitzen da, eta potentzien gobernuen babesean bakarrik funtziona dezake eraginkortasunez.

1.3. ALIANTZA HANDIAREN HAUSTURA ETA EUROPAREN BANAKETA

1946. urteaz geroztik, etengabe ugaltu ziren aliatuen arteko desadostasunak, eta hainbat modutan gauzatu zen tentsioaren gorakada. Batetik, nazioarteko buruzagien adierazpenek argiro islatu zuten Aliantza Handiaren haustura. Esate baterako, oihartzun handikoa izan zen 1946ko martxoaren 5ean Churchillek Fultonen emandako hitzaldia. Moskuk Ekialdeko Europan ezartzen zuen kontrola salatu zuen bertan, eta Europa banatzen zuen «altzairuzko oihal»aren eraikuntza leporatu zien sobietarrei. Stalinen erantzun gogorak (1946ko martxoaren 13koa) Gerra Hotzaren hizkera apokaliptikoa iragarri zuen, eta mundua menderatzeko asmoa leporatu zien anglosaxoiei.

Bestalde, 1945etik 1947ra bitartean aliatuen arteko lehenengo tentsioguneak sortu ziren. Iran izan zen lehenengo auzigaia, alde batetik balio geostrategiko handiko herrialdea zelako Ekialde Hurbilean eragiteko eta, bestetik, petrolioak indar ekonomiko handia ematen ziolako. XIX. mende-bukaeratik aurrera, errusiarrak eta britainiarrak lehian ibili ziren beren eragina ezartzeko Iranen, eta II. Mundu Gerraren garaian, bi herrialdeak jabetu ziren Iranez; britainiarrak hegoaldeaz eta sobietarrak iparraldeaz. Gerra amaitutakoan, bi armadak egin behar izan zuten alde, baina lurraldea kontrolatzeko lehia piztu zen bien artean. Ipar-mendebaldeko Azerbaijaneko probintzian hasitako matxinada separatista aitzakiatzat hartuta, sobietarrek ez zuten alde egin, eta honako eskakizun hauek egin zizkion Moskuk Irango gobernuari: Azerbaijanen autonomia onartzea, sobietarren tropak Irango iparraldean mantentzea, eta petrolioa ustiatzeko lankidetzak. AEBren eta Erresuma Batuaren protesta eta presio diplomatikoa eragin zuten sobietarren eskakizunek. Azkenik, 1946ko maiatzean, jarrera aldatu zuen Sobietar Batasunak eta alde egin zuen armadak. Lehenengo aldiz jarri zen praktikan Mendebaldekoen Sobietar Batasunaren aurkako politika tinkoa, Sobietar Batasunaren eraginpean eror ez zedin Iran.

Turkia izan zen bigarren auzigaia; hori ere garrantzi geostrategiko handiko herrialdea zen Ekialdean Mediterraneo itsasoa kontrolatzeko. Sobietar Batasunak, lehen Errusiak bezala, Itsaso Beltzetik Mediterraneora irteteko aukera ikusten zuen Turkia aldean. Beharbada, horregatik lehiakide historikoak izandakoak ziren Errusia eta Turkia. Gerra amaitu berritan, Sobietar Batasunak handitu nahi zuen bere eragina eskualde horretan. Batetik, Turkiako Kars eta Ardahan probintziak

berreskuratu³ eta mugak aldatu nahi zituen bere mesedetan. Bestetik, Bosforoko eta Dardaneloetako itsasarteak kontrolatzeko asmoz, turkiar eta sobietar defentsa komuna proposatu zion Ankarako gobernuari. Izan ere, Errusiak iraganean izandako pribilegioak edo eskubideak berreskuratu nahi zituen Stalinek, II. Mundu Gerraren emaitza aprobetxatuz. Turkiak errefusatu egin zituen Sobietar Batasunaren eskakizunak, eta AEBren babesa lortu zuen.

Grezia ere Mendebaldekoen eta sobietarren arteko tentsiogune bihurtu zen II. Mundu Gerra amaitu zenean. Kasu horretan, gerra zibil batean murgildurik zegoen herrialdea. Alde batean, monarkiaren eta gobernuaren aldeko indarrak ari ziren, britainiarren laguntzaz, eta bestean gerrilla komunista, inguruko herrialde komunista berriek (Jugoslaviak, Albaniak, Bulgariak) babestua.

Testuinguru horretan, bitan banatu zen Europa urte horietan: batetik, Mendebaldeko Europa, AEBren buruzagitzapean, eta, bestetik, Ekialdekoa, Sobietar Batasunaren eraginpean. Ekialdeko Europan ez ziren Yaltako akordioak bete (Europa Askatuaren Adierazpena) eta Sobietar Batasunak bere satelite egin zituen inguruko herrialdeak. Herri-demokrazia izeneko erregimen berriak ezartzea izan zen sobietarren estrategiaren emaitza. Hautsi egin zen aliatuen koalizioa, eta, Gerra Hotza piztu zenean, Sobietar Batasunak muturreraino eraman zuen inguruko herrialdeen sobietartze-prozesua. Aldi berean, bilakaera horrek areagotu egin zuen SESBren eta AEBren arteko haustura.

Era berdintsuan garatu zen sobietartze-prozesua Ekialdeko Europako herrialde gehienetan. Hasieran, 1945.-1946. urteetan, herri-fronteko gobernuak ezarri ziren: arlo politikoan, pluralismoa eta alderdi anitzeko gobernuak bultzatu ziren, eta sistema mistoa ezarri zen ekonomian. Bigarren etapan, komunistek kanporatu egin zituzten gobernutik beren etsai politikoak, eta alderdi komunistan integratu ziren ezkerreko alderdiak. Une horretan berrikuntza sakonak egin ziren egitura ekonomikoan; hots, nazionalizatu egin ziren bankuak eta industria nagusiak, eta nekazaritza ere berregituratu egin zen. Azkenik, 1948. urterako, herrialde guztietan zeuden ezarrita alderdi bakarreko sistema politikoa eta ekonomia planifikatua, sobietar ereduari jarraituz.

Europan gertaturiko banaketa hori bereziki nabarmendu zen Alemanian, eta lehenago aliatuak izandakoen artean, oraingoan desadostasun nagusia zen Alemaniaren auzia. Arestian esan dugunez, Yaltako eta Potsdameko konferentzietan, aliatuek Alemania behin-behinean lau okupazio-eremutan banatzea erabaki zuten, bake-hitzarmena sinatu arte, alegia. Baina, Mendebaldekoek eta sobietarrek politika desberdinak jarri zituzten indarrean okupaturiko eskualdeetan, erabakiak guztien artean koordinatu barik. Sobietarrek herri-demokrazia eraikitzeke oinarriak (alderdi komunistaren nagusigoa eta eraldaketa ekonomikoak bultzatuz) jartzen

3. Errusiak Kaukasoko lurralde horiek anexionatu zituen 1878an, baina Turkiak berreskuratu zituen I. Mundu Gerraren ostean.

zituzten; Mendebaldekoek, aldiz, erakunde liberal eta kapitalistak ezartzen zituzten. Gerrako kalte-ordainei zegokienez ere, nabarmenak ziren desadostasunak. Helburuak eta politikak hain desberdinak izanik, anglosaxoiek beren eskualdeak batu zituzten 1947ko urtarrilaren batean (*bizona* izenekoa). Zalantzarik gabe, Europa banatuan Alemania banatzeko urratsak ere ari ziren egiten, eta prozesu horrek iragartzen zuen mundua bi bloketan banatuko zela.

1.4. GERRA HOTZAREN HASIERA ETA BLOKEEN ERAKETA

1947an, mundua Gerra Hotzera eraman zuten ekimenak plazaratu zituzten Ameriketako Estatu Batuek zein Sobietar Batasunak. AEBren aldetik Truman doktrina dugu nabarmenena, hots, Harry Truman AEBko presidenteak 1947ko martxoan Kongresuaren aurrean aurkeztutako diskurtsoa.

1947ko otsailean, Erresuma Batuko agintariak iragarri zuten ezin zutela jarraitu babes militarra eta ekonomikoa ematen Greziari eta Turkiari. Une horretan, beldurrez ikusten zen Estatu Batuetan komunismoa hedatzeko arriskua (Grezia eta Turkia; Ekialdeko Europa; Txina, Vietnam; Mendebaldeko Europan alderdi komunisten indarra...). Testuinguru horretan aurkeztu zen Truman doktrina. Kanpo-politika berria abian jarri zuen iparramerikar presidenteak. Batetik, Estatu Batuek, potentzia global bilakatuta, alde batera utziko zuten parte ez hartzeko joera tradizionala. Bestetik, Gerra Hotzaren ikuspegia jasotzen zuen, argi eta garbi, doktrina berriak: bi bloketan banatuko zen mundua, eta AEBk hartuko zuen «mundu aske»aren buruzagitza. Trumanen esanetan, mehatxu totalitarioaren aurrean herrialde libreei laguntzea zen AEBren eginkizuna, eta, horretarako, komunismoaren hedapena ekidin behar zuten (*containment* edo euste-politika).

Marshall plana izan zen Truman doktrinaren ondorio ekonomikoa; hots, estatu-idazkari George Marshall jeneralak 1947ko ekainaren 5ean aurkeztu zuen Europari laguntzeko plana. Gerra ostean, oso larria zen Europako egoera ekonomikoa: hondatuta zegoen azpiegitura ekonomikoa; finantza-arazo larriak zeuden jarduera ekonomikoa berpizteko (inflazio ikaragarria, ordainketa-balantza defizitarioa eta, ondorioz, dibisarik eza), eta kanpo-merkataritza etenda zegoen. Egoera latz horretatik arin irtengo bazen, behar-beharrezkoa zuen Europak kanpo-laguntza. Arrazoi ekonomikoengatik zein politikoengatik hartu zuten Estatu Batuek Europari laguntzeko erabakia. Alde batetik, Europako ekonomia berreraikitzeak truke-bide normalak berriro irekitzeko aukera eskaintzen zuen. Bestalde, komunismoa hedatzearen kontrako (*containment* edo euste-politika) baliabideetako bat zen laguntza ekonomikoa, zeren pobrezia eta goseteak giro egokia sortzen omen baitzuten komunismoa hedatzeko. Azken finean, bikoitza zen planaren helburua: Europako kapitalismoa berreraikitzea eta sistema politiko liberala salbatzea, eta, aldi berean, iraultza-arriskua uxatzea. Teorian, Europako herrialde guztiek har zezaketen parte Marshall Planean, baina sobietarrek eta haien eragin-eremuko herrialdeek estatuen subiranotasunaren aurkako zela salatu zuten, eta uko egin zioten laguntzari. Beraz,

Ipar Amerikak 16 herrialderi laguntza eman zien, eta kanpoan gelditu ziren Espainia, Finlandia eta Sobietar Batasunaren mende zeuden herrialdeak. 1948tik 1952ra egon zen indarrean Plana, eta 13 mila milioi dolar jaso zituen Europak tarte horretan. Britainia Handia (% 23,5), Frantzia (% 20,5), Italia (% 11) eta Alemaniako Errepublikak (% 10) izan ziren laguntzarik handienak jaso zituzten herrialdeak. Planari esker, Europako ekonomia berreraikitzea eta bizkor garatzea lortu bazen ere, Europaren banaketa finkatu zuen Marshall planak, Mendebaldea AEBren nagusigoaren azpian eta Ekialdea Sobietar Batasunaren mende.

Truman doktrinaren aplikazioa arlo ekonomikoan Marshall plana izan zen; arlo militarrean, berriz, Washingtoneko Itunean gauzatu zen (1949ko apirilaren 4an). Itun horren bidez, NATO (Ipar Atlantikoko Ituna) izeneko aliantza militarra sortu zuten Estatu Batuek eta Mendebaldeko Europako haren aliatuek. Aliantza militarrek hamabi kide zituen: Europako hamar herrialde (Erresuma Batua, Belgika, Danimarka, Frantzia, Islandia, Italia, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak eta Portugal), AEB eta Kanada. Itunaren bosgarren artikulua zen aliantzaren gakoak: kide baten kontrako eraso guztien kontrako erasotzat hartzen da, eta guztiek erantzungo dute militarri. Esan beharrik ez dago sobietarren ustezko mehatxuari aurre hartzea zela helburua.

Sobietar agintariek ere beren kanpo-politika berria aurkeztu zuten publikoki 1947an. Kominform-en lehenengo bileran (Szklarska Poreba hirian, Polonia, 1947ko irailaren 22an) plazaratu zuen Dianov sobietar agintariak bere txosten famatua. Bi bloketan banatuta zegoela mundua baieztatzen zen bertan. Dianov txostenaren arabera, SESBri zegokion mundu «aurrerakoi»aren buruzagi izatea eta iperialismo iparamerikarrari aurre egitea.

Bloke komunista sendoa eraikitzeko eta bloke kapitalistari aurre egiteko ekimen zehatzetan gauzatu ziren kanpo-politikaren planteamenduak. Arlo politiko-ideologikoan, esate baterako, Kominform sortu zuten, hots, Alderdi Komunisten Informazio Bulegoa (zenbait herrialdetako alderdi komunistak biltzen zituen elkar-tea). Sobietar Batasunak ideologia-garbitasuna mantentzeko eta desbiazionismoak saihesteko erabili zuen erakunde hori, batez ere 1952ra arte, estalinismoaren garaian, alegia. Bestalde, testuinguru horretan, Sobietar Batasunak azken muturreraino eraman zuen Ekialdeko Europako herrialdeen sobietartze-prozesua, eta erabateko kontrola ezarri zuen haien gainean. Prozesu horretan, blokearen kohesio ekonomikoa sendotzeko Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (COMECON⁴) sortu zuten 1949an, eta, geroago, itun militarra eratu zuten (Varsoviako Ituna, 1955ean). Horretaz gain, Sobietar Batasunak iraultza-prozesu batzuei (Txina, Vietnam...) laguntza luzatu zien, bloke komunista zabaltzeko eta indartzeko asmoz. Bestalde, arlo militarrean parekotasun nuklearra lortze aldera,

4. CAEM (Council for Mutual Economic Assistance) edo CAME (Consejo de Ayuda Mutua Económica) ere deitua.

handitu egin zuten aurrekontua eta, azkenik, 1949ko irailaren 23an, Sobietar Batasunak lehen aldiz lehertu zuen bonba atomiko bat, eta horrekin eman zien hasiera arma-lasterketari eta disuasio atomikoari.

Beraz, 1947an piztu zen Gerra Hotza. Baina behin prozesu historikoa azalduta, zehaztu ditzagun kontzeptu horren esanahia eta gatazka berezi horren ezau-garriak. Bi superpotentzien eta haiek gidatzen zituzten bi blokeen arteko nagusitasuna lortzeko lehia eta tentsio iraunkorreko egoera izan zen Gerra Hotza. Lehia horretan, superpotentziek mota guztietako bitartekoak (espioitza, gerra periferikoak, propaganda, arma-lasterketa eta abar) erabili zituzten bat izan ezik, bien arteko zuzeneko gerra, zeren eta horrek bi superpotentziak sunsituko baitzituen arma nuklearraren ondorioz. Hori dela-eta, Gerra Hotzean, gakoa dira bi kontzeptu hauek: disuasio nuklearra eta terrorearen oreka. Gerra berezi horretan («bakea ezinezko, gerra gertagaitz», R. Aron-en esanetan), bi superpotentzia eta horien inguruko blokeak ez ezik, gizartea bera eta estatua antolatzeko bi eredu ere bazeuden aurrez aurre, zeren kapitalismoaren eta komunismoaren arteko gatazka ideologikoa izan baitzen Gerra Hotza.

Gerra Hotzaren logikan, superpotentzia bakoitzak bere blokea sendotzea eta hedatzea zuen helburu. Behin superpotentzia batek eragin-eremu bat bereganatuta eta menderatuta, beste superpotentziak onartu ohi zuen banaketa. Arau hori bete ez zenean eta, bereziki, bi superpotentzien segurtasungunean kokaturiko lurraldeetan gertatu zenean, zuzeneko liskarraren arriskua sortu eta nabarmen areagotu zen tentsioa (Kubako misilen krisian, besteak beste). Gerra Hotzaren lehenengo gatazkak eta tentsioak Europan gertatu ondoren (Pragako kolpea, Berlingo blokeoa eta Alemaniaren banaketa), bi blokeen arteko liskarra Hirugarren Mundura hedatu zen. Hegoaldean, deskolonizatze-prozesuaren ondorioz, estatu berriak sortu ziren, eta, eragin-esparruak zehaztu barik zeudenez, horiek kontrolatzeko lehian ibili ziren bi superpotentziak.

Logikoa denez, Gerra Hotzaren jatorriari buruz zenbait interpretazio historiografiko eman dira. Kronologiari dagokionez, historialari gehienok 1947. urtean kokatzen dugu hasiera, nahiz eta batzuek iraultza boltxebikean ikusi gatazkaren jatorria edo aurrekariak behintzat. Bestalde, autore batzuek 1947tik 1953ra mugatzen dute Gerra Hotzaren iraupena, horixe izan baitzen tentsio handieneko garaia, superpotentzien arteko harreman diplomatikoa erabat etenda egon zen eta. Hala ere, historialari gehienok harekin batera sortutako nazioarteko sistema bipolarrarekin identifikatzen dugu Gerra Hotza. Beraz, 1989ra arte luzatzen dugu Gerra Hotzaren iraupena, nahiz eta garai luze horretan zenbait une historiko bereizi (bakezko bizikidetasuna, distentsioa, bigarren gerra hotza...). Baina eztabaida historiografiko nagusiak Gerra Hotzaren jatorri, arrazoi edo «erantzule»en ingurukoak izan dira, eta hiru interpretazio nagusi bereiz daitezke. Batetik, interpretazio ortodoxoa dugu. Horrek Sobietar Batasunari leporatzen dio Gerra Hotzaren hasiera, SESBk II. Mundu Gerraren ostean izaniko politika espantsionistagatik. Komunis-

moaren zabalkuntza hori geldiarazteko, *containment* izeneko politika jarri zuten indarrean; hau da, erreakziozko erantzuna soilik izan zen. Bestetik, interpretazio errebisionista dugu, 1960ko hamarraldian plazaratu zena, Vietnamgo krisiaren garaian, alegia. Interpretazio horren arabera, AEB izan zen Gerra Hotzaren erantzule nagusia: arrazoi ekonomikoak tarteko, iparramerikar superpotentziak mundu kapitalista eraiki nahi zuen, baina Sobietar Batasunak oztopatzen zuen egitasmoa. Interpretazio horren arabera, AEBren politika espantsionistari emandako erantzuna baino ez zen izan SESBren politika Ekialdeko Europan. Azkenik, 1970eko hamarraldian argitaratu zen errebisionismoaren osteko interpretazioa dugu. Azalpen horren aldeko autoreek (J.L. Gaddis-ek edo D. Yergin-ek, esaterako) bi superpotentziei leporatzen diete gatazkaren dinamika.

Dena den, «errudun»ei buruzko debatea alde batera utzita, Gerra Hotzaren zergatiak ulertzeko zenbait faktore hartu behar ditugu kontuan. Lehenengoa, II. Mundu Gerraren ondorioz sortutako botere-hutsunea: Japonia, Alemania, Ekialdeko Europa, inperio kolonialak... Zeinen kontrolpean geldituko ziren lurralde horiek? Egia esanda, bi superpotentziek bete zezaketen botere-hutsune hori, baina biek errefusatzeko zuten bestearen protagonismoa. Bestalde, Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen sistema sozioekonomikoak eta politikoak antagonikoak ziren, eta horrek bien arteko lankidetzaz oztopatzen zuen. Gainera, lehenago bi superpotentzien arteko harremanak gatazkatsuak izanak ziren. Horrek ere areagotu egin zuen mesfidantza, bai eta bestearenganako beldurra ere. Faktore horien guztien ondorioz piztu zen, besteak beste, Gerra Hotza.

1.5. GERRA HOTZAREN BILAKAERA (1947-1985)

Arestian esan dugun bezala, 1947. urtean hasi zen Gerra Hotza, eta lau hamarraldi inguru iraun zuen. Tarte luze horretan, hainbat «aurpegi» erakutsi zituen, tentsio handiko uneak barealdiekin tartekatu baitziren; halaber, negoziazioak eta gatazkak gurutzatu ziren. Bilakaera konplexu eta ez-lineal hori azaltzea da, hain zuzen, hurrengo lerroen helburua. Horretarako, Gerra Hotzaren zenbait aldi⁵ bereiziko ditugu, eta argituko dugu zein diren aldi bakoitzaren ezaugarriak, zer gatazka nagusi izan ziren eta norantz hedatu zen Gerra Hotza.

1.5.1. «Lehenengo gerra hotza» Trumanen eta Stalinen garaian (1947-1953)

Gerra Hotzaren lehenengo aldiak 1947tik 1953ra arte iraun zuen, Josiv Stalin eta Harry Truman zirela superpotentzien agintari nagusiak. Ikusi dugun bezala,

5. Aduitu guztiak ez datoz bat Gerra Hotzaren aldiak zehazterakoan eta sailkapen kronologiko desberdinak (baina antzekoak, oro har) aurki ditzakegu Gerra Hotzari buruzko bibliografia zabalean. Edonola ere, sailkapen horiek guztiak bilakaera historiko konplexua ezagutzeko eta ordenatzeko tresna baino ez dira.

garai horretan piztu zen Gerra Hotza, eta blokeak eratu ziren. Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko harreman diplomatikoa erabat hautsita, tentsio-maila handienetako garaia izan zen. Europa, lehenengo, eta Asia, geroxeago, izan ziren Gerra Hotzaren agertoki urte haietan, garaiko bi gatazka nagusiek erakusten dutenez (hau da, Berlingo blokeoak eta Koreako Gerrak).

Gerra Hotza hasita, egoera bitxian gelditu zen Berlin: sobietarren administrazioari aldean kokaturik bazegoen ere, mendebaldeko Berlin Frantziak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek administratzen zuten; hots, bloke komunistan kokaturiko uharte kapitalista bihurtu zen. Mendebaldekoek, diru-erreforma egiteko asmoz, beren okupazioguneak batu zituztenean, sobietarrek mendebaldeko Berlin blokeatuz erantzun zuten 1948ko ekainaren 24an, bideak itxiz eta, ondorioz, hornidura eragoztiz. Bloke komunistan zegoen enklabe kapitalista desagerraraztea zen Stalinen helburua. Baina AEBk *containment* edo euste-politika jarri zuen indarrean mendebaldeko Berlinen kontrolari eusteko. Xede horrekin, airetikoko operazio handi bat antolatu zuten, bi milioitik gora berlindar janari eta erregaiz hornitzeko. 1949ko maiatzaren 12an altxatu zuen blokeoa Sobietar Batasunak, ordura artekoa alferrekoa zela ikusita. Gatazka horren ondorioz bizkortu egin zen Alemaniaren banatze-prozesua: 1949ko maiatzaren 23an Alemaniako Errepublika Federala sortu zen, eta urriaren 7an Alemaniako Errepublika Demokratikoa. Munduaren banaketaren ikur bihurtuta, Gerra Hotzeko tentsiogune izaten jarraitu zuen Berlinek. Berlingo auzia alde batera utzita, 40ko hamarraldiaren bukaerarako zehazturik zeuden bi superpotentzien eragin-eremuak Europan. Gerra Hotza egonkortua zen kontinente zaharrea, eta *statu quo* horrek 1989ra arte iraun zuen. Baina gatazka beste eremu batzuetara hedatu zen berehala, Asiara hain zuzen ere.

1949an, Mao Zedong-ek Txinako Errepublika Demokratikoa aldarrikatu zuen. Gerra zibil luze baten ostean, iraultza maoistaren garaipenak aldatu egin zuen Asiako oreka geopolitikoa. 1950. urtean Maok eta Stalinek Adiskidetasun, Aliantza eta Elkarrekiko Laguntzako Ituna sinatu zuten. Gatazkako beste eremu bat zegoen Asian: Vietnam. Han, Ho Chi Minh-en buruzagitzapean, komunistek gidatzen zuten Frantziaren metropoliaren kontrako guda koloniala. Baina gatazka belikoa, Gerra Hotzeko lehenengo gerra beroa alegia, Korean piztu zen 1950. urtean.

1910etik aurrera, Japoniaren kolonia zen Korea. 1945ean, sobietarren armadak Koreako iparraldea kontrolatu zuen eta AEBko tropek hegoaldea, eta bi armaden arteko muga 38. paraleloan ezarri zen behin-behinekoz. Baina bi superpotentzien arteko tirabirak hasi zirenean, bi gobernu ezarri ziren: AEBk kontrolatzen zuen lurraldean Mendebaldekoen aldeko Syngman Rhee-ren gobernu eta SESBren lurraldean, Kim Il Sung-en gobernu komunista. 1948an, bi estatu (Hego Koreako Errepublika eta Ipar Koreako Errepublika) sortu zituzten, baina biek kontrolatu nahi zuten Korea osoa. Ikusten denez, Asiako Alemaniaren itxura hartzen ari zen Korea.

Testuinguru horretan, 1950eko ekainaren 25ean, Ipar Koreako Armadak Hegoaldea inbaditu zuen. Berriro ere, Ameriketako Estatu Batuek *containment*

1.3. 1950-1953 Koreako Gerra.



Iturria: <http://www.warchat.org/pictures/korean_war_map.jpg>.

izeneko politika jarri zuten indarrean. Baina, kasu honetan, aipatzekoa da NBEren protagonismoa. Segurtasun Kontseiluan sobietar ordezkariarik ez zegoela⁶ aprobe-txaturik, Estatu Batuek Nazio Batuen banderapeko armada bat eratu eta Koreara bidaltzeko onespena lortu zuten. Estatu Batuek gidatzen zuten armadak, Ipar Koreakoak Hego Koreatik kanporatu ez ezik, iparraldea ere eraso eta inbaditu zuen. Orduan, Txinak hartu zuen esku gatazkan, eta hegoaldean atzerantz egitera behartu zituen NBEren tropak. AEBko armadaburuak, McArthur jeneralak, Txinaren kontra bonba nuklearra erabiltzea proposatu zion Trumani, baina honek uko egin zion, superpotentzien arteko zuzeneko gatazkaren beldurrez. Beraz, gerra mugatuaren kontzeptua nagusitu zen; hots, superpotentziak edo beren ordezkariak eremu mugatuan bakarrik borrokatuko ziren Gerra Hotzean, erabateko gerra ekidin beharra baitzegoen, elkar erabat suntsitzeko gaitasuna zuten eta. Azkenik, 1953an sinatu zen armistizioa; 1950ean bezala gelditu zen muga, 38. paraleloan. 3 milioi hildakotik gora eragin zuen gerrak, baina ez zen inolako lurralde-aldaketarik izan. Gaurdaino iraun du Koreako banaketak, eta, beharbada, hura da gaur egun Gerra Hotzaren hondar bakarra. Dena den, Asiara hedatu zen mundu bipolarra; izan ere, han ere blokeak eraiki ziren eta itun militarrik egin ziren. Esate baterako, SEATO (*Southeast Asia Treaty Organization*) eratu zen 1954. urtean, hots, aliantza sortu zuten Australiak, Frantziak, Zeelanda Berriak, Pakistanek, Filipinek, Thailandiak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek.

1.5.2. *Bakezko bizikidetzeta (1953-1962)*

Koreako Gerraren ostean, garai berria zabaldu zen bi superpotentzien arteko harremanetan. Aurreko haustura diplomatikoa gainditu zuten, eta harremanak berregin zituzten Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek. Horregatik, 1953tik 1962ra bitarteko tarteari Bakezko Bizikidetzaren garaia deitzen diogu. Beste agintari batzuek hartu zuten boterea Estatu Batuetan eta Sobietar Batasunean. Ipar Amerikako superpotentzian, Dwight David Eisenhower-ek (Ike Eisenhower) irabazi zituen 1952ko hauteskundeak eta 1960. urtera arte izan zen Estatu Batuetako presidente. John Foster Dulles izendatu zuen estatu-idazkari, eta horrek diskurtso gogorra⁷ planteatu bazuen ere, Trumanen planteamenduari jarraitu zion haren politikak, *containment* izenekoa, alegia. Garrantzitsuagoa izan zen Sobietar Batasunean izandako buruzagi gorenaren aldaketa. Izan ere, 1953an Stalin hil egin zen, eta trantsizio-garai baten ondoren, Nikita Khrustxov-ek hartu zuen alderdi komunistaren agintaritza. Buruzagi berriak estalinismoaren gehiegikerietako batzuk salatu zituen SBAKaren XX. Biltzarrean. Kanpo-politikari zegokionez, berak proposatu

6. NBEk ez zuen Txinako Herri Errepublikari Txinako ordezkari zilegitzat hartu 1971. urtera arte. Horren kontrako protesta modura, Segurtasun Kontseiluko bileretara joateari utzi zion sobietar ordezkariak 1950ean.

7. Honako honen alde egin zuen: *roll back* (sobietarrak atzera egitera behartzea) eta errepresalia masiboko doktrina (sobietarrek eraso eginez gero, masiboa eta nuklearra izan zitekeen Estatu Batuen erantzuna, eta ez erasoaren araberakoa).

zuen arestian aipaturiko *bakezko bizikidetz*a kontzeptua. Haren ustez, sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko lehiakortasunak bazirauen ere, superpotentzien arteko gatazkak ez ziren gerraren bidez konpondu behar, bide diplomatikoak erabiliz baizik. Khrustxoven iritziz, bestelako bideetatik garaituko zen sozialismoa: proiektu ekonomikoen arteko lehiaren bitartez eta ideologia komunista zabalduz. 1959. urtean sobietar buruzagiak Washingtonera egindako bisita izan zen jarrera berriaren adierazlea.

Nazioarteko politikaren giro berrian, Bakezko Bizikidetzak fruituak eman zituen lehenengo urteetan: 1953an, Koreako Gerra bukatu zuen armistizioa erabaki zen; 1954an, Vietnamgo Gerra koloniala bukatzeko helburuz, Genevako Ituna hitzartu zuten; urte berean, II. Mundu Gerraren ondoren, artean ebatzi barik zegoen Austriako bake-hitzarmena onetsi zuten, eta herrialde horren neutraltasuna bermatu zuten Europa banatuan. Hala ere, 1959az geroztik, ez zuten akordiorik lortu bi superpotentzien arteko elkarrizketetan. Adostasunezko kanpo-politikaren ordez jarrera tinkoa erabili zuen Khrustxovek, eta bakezko bizikidetzak norgehiagokari eta tentsioari eman zien bidea. Berlingo bigarren krisiak garbi islatu zuen superpotentzien arteko harremanen bilakaera. Eisenhowerrek eta Khrustxovek auziaz urteetan eztabaidatu eta akordiorik ez zegoela ikusita, Berlingo harresia eraikitzea erabaki zuen Walter Ulbricht Alemaniako Errepublikak Demokratikoko presidentek 1961eko abuztuan, mendebalderanzko emigrazioa ekiditeko. Munduaren banaketaren ikur bihurtu zen harresia. Winston Churchillek 1946an erabilitako metafora, «altzairuzko oihala» alegia, errealitate fisiko bihurtu eta gauzatu egin zen.

Bakezko bizikidetzaren garaian, Gerra Hotzaren geografiak hedatzen jarraitu zuen munduan zehar. Arestian esan dugun bezala, Europan zehaztuta zeuden eragin-eremuak eta bi superpotentziek errespetatzen zituzten, 1956. urteko Hungariako gertakariak erakusten dutenez. Izan ere, desestalinizazioaren testuinguruan, Ekialdeko Europako zenbait herrialdetan mugimendu erreformistak sortu ziren, eredu estalinista aldatzeko asmoz. Hungarian, esate baterako, 1956ko urrian, protesta-mugimendu bat sortu eta zabaldu zen. Egoera hartan, alderdi komunistaren zuzendaritza aldatu zen eta, matxinada baretzeko asmoz, Imre Nagy komunista erreformista jarri zuten buruzagitzan. Nagy, oposizioko indarrekin batera, erreforma sakona proposatu zuen, eta alderdi komunistaren botere-monopolioari uko eginda, koalizio-gobernua osatzeko prest azaldu zen. Sobietar bloketik irtetea planteatu zuenean, Moskuren erantzuna jaso zuen: armada bidali eta matxinada zapaldu zuen; bitartean, Mendebaldekoak geldi zeuden gertaeren aurrean. Bestela esanda, ez Mendebaldekoek, ez sobietarrek ez zuten esku hartuko beste blokearen eragin-eremuan. Egonkortuta zegoen Gerra Hotza Europan.

Baina Europatik kanpo bestelakoak ziren gauzak, eta beste herrialde batzuk sartu ziren bipolarismoaren dinamikan. Halaxe gertatu zen Ekialde Hurbilean. Jakinaenez, Lehen Mundu Gerraz geroztik europar potentzia kolonialek (Frantziak eta Erresuma Batuak) kontrolatzen zuten Ekialde Hurbila, lehenengo kolonia-

lismoaren bidez eta geroago neokolonialismoaren bitartez. Esate baterako, Egiptok 1922an independentzia lortu bazuen ere, britainiarrek eragina izaten jarraitu zuten. 1952an aldatu zen mendekotasun-egoera, *Ofizial Libreak* izeneko taldeak estatu-kolpea eman zuenean. Gamal Abdel Nasser koronela izan zen mugimenduaren buruzagia. Arabiar nazionalista izanik, arabiar guztien batasuna aldarrikatzen zuen. Arabiarren benetako independentzia lortzea zuen helburu («independentzia duintasunez» zen haren ikurretako bat), Mendebaldearekiko mendekotasuna eta neokolonialismoa ezabatu nahirik. Nasserren pentsaeran, benetako independentzia politikoa lortzeko, behar-beharrezkoa zen ekonomia modernizatzea. Estatu eta arabiar sozialismoa ziren funtsezko tresnak helburu hori lortzeko. Kanpo-politikari zegokionez, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduaren buruzagi nagusietakoa izan zen Nasser, eta prest zegoen sobietarren zein estatubatuarren laguntza ekonomikoa eskatu eta negoziatzeko. Egoera horretan, lehendabiziko aldiz, sobietarrek zalantzan jarri zuten Mendebaldekoen nagusitasuna Ekialde Hurbilean.

Giro horretan kokatu behar dugu 1956. urtean piztu zen Suezko kanalaren krisia. Modernizazio ekonomikoa bultzatzeko, Asuango presa erraldoia eraikitzea proiektatu zuen Egiptoko gobernuak. Egitasmo hori finantzatzeko, Estatu Batuekiko negoziazioek porrot eginda⁸, Suezko kanala nazionalizatzea erabaki zuen Nasserrek, Frantziaren eta Britainia Handiaren interesen kaltetan (britainiarrenak eta frantziarrenak ziren kanala kudeatzen zuen enpresaren akzio gehienak). Horren aurrean, Frantziak eta Erresuma Batuak, Israelen laguntzaz, eraso egin zioten Egiptori. Baina superpotentzia biek gaitzetsi zuten interbentzio militarra, eta alde egin behar izan zuten tropa frantziarrek eta britainiarrek. Suezko krisiak agerierian utzi zuen, batetik, bi superpotentziek zeharo menderatzen zutela nazioarteko ordena, eta, bestetik, potentzia kolonial ohien ahultasuna.

Harrezkero, Ekialde Hurbilean ere superpotentziek bete zuten Europako potentziek utzitako hutsunea, eta bien arteko lehiaren agertoki bihurtu zen. Herrialde arabiar sozialistek, Egiptok besteak beste, sobietarren laguntza izan zuten; Estatu Batuek, aldiz, Israeli eta Mendebaldekoen aldeko monarkiei eman zieten babesa. Eisenhowerrek Ekialde Hurbilerako doktrina aurkeztu zuen 1957an. Horren arabera, AEBk Ekialde Hurbileko herrialde aliatuen alde esku hartuko zuen, baldin eta nazioarteko komunismoak edo barne-iraultzak bertako herrialderen bat mehatxatzen bazuen. Eta Mendebaldearen aldeko gobernuak kolokan egon zirenean esku hartu zuten Estatu Batuek; Libanon 1958. urtean, esate baterako.

Latinoamerikara ere heldu zen Gerra Hotza garai hartan. Europan edo Asian ez bezala, Estatu Batuen nagusitasuna eta interbentzionismoa ez zen Gerra Hotzaren garaian hasi Hego Amerikan; XIX. mendekoak dira hegemonia horren aurrekariak: 1823an plazaratu zen Monroe doktrina (Amerika amerikarrentzat) eta XIX.

8. Nasserrek bloke komunistatik laguntza militarra jasotzen zuelako erabaki zuten Estatu Batuek laguntza ekonomikorik ez ematea Egiptori, Asuango presa eraikitzeko.

mendearen bukaeran jarri zuten praktikan, 1898. urtean hain zuten (Kuba, Puerto Rico eta Karibe itsasoko alde osoa menderatuz; ikus 8. GAIA). II. Mundu Gerraren ostean, AEBk hegemoniari eutsi zion eta baldintza berrietara (blokeen politika, Gerra Hotza, komunismoaren aurkako jarrera) egokitu zuten. Beraz, 1950eko hamarraldiaren bukaerara arte Latinoamerika ez zen Gerra Hotzeko tentsiogune izan; izan ere, eztabaidaezina zen Estatu Batuen nagusitasuna eta sobietarrek ez zuten Latinoamerikan zabaltzeko interesik erakutsi. Baina Kubako Iraultzak eta haren bilakaerak erabat aldatu zuten egoera 1959. urtean.

Jakina denez, 1898tik aurrera, Kuba, Erdialdeko Amerika eta Karibeko alde osoa AEBren sasikoloniak ziren (*de facto*, ez *de iure*), eta iparramerikarren interesen aldeko gobernu eskuindarrak babesten zituen AEBk. Egoera horren adibide ziren Nikaraguan Somoza, Dominikar Errepublikan Trujillo, edo Kuban Batistaren diktadurak. Azken kasuan, Fidel Castroren buruzagitzapean, gerrilla ezkertiarra eta nazionalista sortu zen Batistaren erregimenaren kontra. 1959. urtean, boteretik Batista kendu eta Iraultza nagusitu zen.

Iraultzaren ondoren, Kubaren eta Estatu Batuen arteko harremanek okerrera egin zuten etengabe. Fidel Castroren politikak eragina izan zuen iparramerikarren interes ekonomikoetan: nekazaritzaren erreforma bultzatu zuen (1959ko maiatzaren 17ko Legea), AEBko konpainien interesen kaltean. Fidel Castroren diskurtso politikoak gogor salatzen zuen iparramerikar inperialismoa. Gainera, Washingtoneko administrazioak mesfidantzaz ikusten zuen komunisten eragina gobernu iraultzailean. Ohikoa zenez, Estatu Batuek erabakiak hartu zituzten gustukoa ez zuten auzoko gobernu boteretik kentzeko. Lehenengo eta behin presio ekonomikora jo zuten. Azukrea zen Kubako ekonomiaren oinarria eta Estatu Batuak bezero nagusia; egoera horretan, merkataritza-harremanak murriztea erabaki zuen iparramerikar administrazioak 1960ko uztailen. Geroago, harreman diplomatikoa (1961eko urtarrilean) eten zen, eta, azkenik, presio militarri ekin zioten. 1961eko apirilaren 17an, CIAk antolatuta, Castroren aurkako errefuxiatuen talde bat Cochinos badiatik sartu eta irla inbaditzen saiatu zen, baina porrot egin zuten. Kubaren eta Estatu Batuen arteko harremanek txarrera egiten zuten neurrian, Castrok SESBren laguntza ekonomikoa (Kubako azukrearen bezero bihurtu zen Sobietar Batasuna) eta babes militarra bilatu eta lortu zuen; lehendabizikoz hedatu zuten sobietarrek beren eragina Latinoamerikara. Izan ere, Kubako Iraultzak sobietar eredia (alderdi bakarreko sistema eta ekonomiaren planifikazio zentrala) ezartzeko politika bultzatu zuen; bide horretan, 1962. urtean, errepublika demokratiko eta sozialista bihurtu zen Kuba, Sobietar Batasunaren babesean. Kubako iraultza-prozesuaren emaitza porrot ikaragarria izan zen Estatu Batuentzat, SESBren satelite bat ezarri baitzen iparramerikarren atarian.


Egoera nahasi horretan, Kubako misilen krisia piztu zen 1962ko urrian. Estatu Batuek Turkian ezarrita zeuzkaten arma nuklearrak parekatzeko, sobietarrek Kuban misilak kokatzea erabaki zuten. Operazio horretaz jabetuta, Kennedyk Kuba

itsasoz blokeatu zuen, sobietarrei Kubarako itsas bidea moztuz, misilak ezartzeko operazioa eragozteko. Gerra Hotzeko une arriskutsuena izan zen hori, lehenengo aldiz bi superpotentzien arteko talka benetan gerta zitekeela ematen zuen eta. Azkenik, urriaren 28an atzera egin zuen Moskuk. Horren truke, Kennedyk Turkian ezarritako misilak kendu eta Kuba ez inbaditzeko hitza eman zuen. Misilen krisiak garbi erakutsi zuen Gerra Hotza Latinoamerikara ere hedatu zela. Bestalde, krisiak eta erabateko gerra pizteko arriskuak agerian utzi zuten superpotentzien arteko komunikazioa hobetu beharra zegoela. Krisiaren ondoren, gehitu egin ziren harremanak, eta Gerra Hotzak garai berri bati eman zion hasiera, distentsioari, alegia.

1.5.3. *Distentsioa (1962-1975)*

Distentsioaren garaian, aurkakotasun bipolarrak jarraitu bazuen ere —superpotentzia bakoitzak bere blokearen indarra eta eragina handitu nahian segitu zuen—, elkarrizketaren eta negoziazio diplomatikoen bitartez bideratu ziren Sobietar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko harremanak, eta horrela desagertu zen erabateko gerra pizteko arriskua. Horregatik diote autore batzuek Gerra Hotzaren bideratze diplomatikoa dela distentsioa. Ildo horretan, Bakezko Bizikidetzaren garaia aurrekaria izan zen, baina, distentsioaren sasoian, aurreko etapan ez bezala, negoziazioek fruituak eman zituzten eta akordio garrantzitsuak lortu ziren, batez ere 1968tik 1975era (distentsioaren geraldian, alegia). Esate baterako, 1968an onetsi zen superpotentziek bultzaturiko Arma Nuklearrak ez Ugaltzeko Hitzarmena; gaur egun 189 estatuk dute berretsita. Arma nuklearrak potentzia gutxi batzuen esku uztea zen Hitzarmenaren helburua (AEB, SESB, Erresuma Batua, Frantzia eta Txinaren esku). Horretarako, artean arma nuklearrik ez zuten herrialde sinatzaileek aurrerantzean ere ez izateko hitza eman zuten; eta potentzia nuklearrak, aldiz, agindu zuten ez zutela salduko ez emango armarik edo gerrarako teknologia atomikorik. Arma-lasterketa gelditzeko, 1972an SALT (*Strategic Arms Limitations Talks*) izeneko akordioa erabaki zuten SESBk eta AEBk. Itunaren arabera, bi handien arma nuklear estrategikoak maila zehatz batera mugatzen ziren. Aipaturiko akordioek erakusten digutenez, Estatu Batuek zein Sobietar Batasunak arma-lasterketa kontrolatu beharra eta arma nuklearrak mugatu beharra ikusten zuten, eta horixe izan zen distentsioaren faktoreetariko bat. Europari zegokionez, nazioarteko giro berria piztu zen Europako Segurutasunari eta Lankidetzari buruzko Konferentzian (1973-1975). Europako herrialde guztiak (ekialdekoek zein mendebaldekoek), Kanadak eta AEBk hartu zuten parte, eta Europako herrialde kapitalisten eta komunisten arteko harremanak normalizatzen hasi ziren. 1975ean Helsinkin sinaturiko Konferentziako azken agirian, estatu guztiak onartu zituzten II. Mundu Gerraren osteko mugak edo *statu quo*, eta giza eskubideak errespetatuko zituzten hitza eman zuten. Distentsioaren garai horretan, merkataritza-harremanak ere izan zituzten bi handiek; Gerra Hotzaren barealdiaren beste seinale bat izan zen urrats hori.

1.4. 1945-1990 Gerra Hotzaren gune nagusiak.



- | | | |
|-----------------------------------|---|-------------------------|
| 1 Guatemala (1954) | 9 Grezia (1945-49) | 17 Afganistan (1978-89) |
| 2 Kuba (1961-62) | 10 Jugoslavia (1946-53) | 18 Tibet (1960) |
| 3 Sto. Domingo (1966) | 11 Turkia (1945-47) | 19 Korea (1950-53) |
| 4 Berlin (1948-49, 1953, 1958-62) | 12 Siria-Libano (1958) | 20 Himalaia (1960-62) |
| 5 Polonia (1958) | 13 Iran (1958) | 21 Vietnam (1964-73) |
| 6 Finlandia (1948) | 14 Irak (1945-48, 1951-53) | 22 Indotxina (1948-54) |
| 7 Txekoslovakia (1948) | 15 Jordania | 23 Bangladesh (1971) |
| 8 Hungaria (1958) | 16 Arabiarren eta israeldarren arteko gatazka (1918-19, 1953, 1967, 1973) | 24 Kongo (1960-64) |

GEOATLAS ®

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo Goitia, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Madril, Istmo, I., 105. or.

Baina distentsioaren garaian ez ziren desagertu gatazkek. Arestian esan dugun bezala, bi superpotentzien lehiak bizirik zirauen. Azken finean, tentsioa eta distentsioa ziren Gerra Hotzaren berezko ezaugarriak. Garai hartan, Hirugarren Mundua izan zen norgehiagokaren agertoki: Ekialde Hurbila (Sei Eguneko Gerra 1967an eta Jom Kippur-ekoa 1973an), Afrika (Angola eta Mozambiqueko deskolonizazio gatazkatuak, besteak beste) eta batez ere Indotxinako eta Vietnamgo Gerra luzea.

Frantziak, XIX. mendearen azken herenean, Indotxinako penintsulako lurraldeak (gaur egungo Kanputxea, Laos eta Vietnam) kolonizatu zituen. II. Mundu Gerraren garaian, Japoniak Indotxina konkistatu zuen. Aldi berean, *Vietminh* (Independentziaren aldeko Liga) sortu zen. Ho Chi Minh komunista zen gerrilla horren buruzagia. 1945ean, Japoniak kapitulatu zuenean, *Vietminhek* independentzia aldarrikatu zuen, baina Frantziak ez zuen Vietnamen burujabetasuna onartu, eta kolonia ohia berreskuratzeko gerra kolonialean borrokatu zen metropolia. Gerraren ondorioz, iparraldean errepublika komunista finkatu zen; hegoaldean, aldiz, gobernu txotxongilo bat ezarri zuen Frantziak (Bao Dai enperadore ohia). 1949an, Txinan iraultza komunista nagusitu zenean, Ipar eta Hego Vietnamen arteko muga blokeen arteko muga bihurtu zen. 1954. urtean amaitu zen gerra koloniala. Frantziaren metropoliak porrot eginda (Dien Bien Phu-ko porrota), Genevako bake-akordioa sinatu zuten: su-etena ezarri zen eta Ipar eta Hego Vietnamen arteko behin-behineko muga 17. paraleloan kokatzea erabaki zuten; Vietnamgo batasuna berrezartzeko, 1956. urtean hauteskundeak egitea erabaki zen.

Baina akordioa ez zen Estatu Batuen gustukoa izan. Orduan, gerra kolonial izatetik Gerra Hotzeko gatazka izatera igaro zen. Ez zen bete Genevako Ituna eta ez zen erreferendumik egin. Gainera, komunismoa gehiago ez zabaltzeko, AEBk Hego Vietnam tapoi-estatu bihurtu nahi izan zuen. Horregatik, Hego Vietnamgo Errepublika babestu zuten. Vietnamen ere europar potentziek utzitako hutsunea bete zuten amerikarrek. Hego Vietnamgo diktadura ustelaren kontra, gerrilla komunista antolatu zen, *Vietcong* izenekoa, Ipar Vietnamen laguntzaz. Hego Vietnamgo Errepublikako egoera politikoa oso ezegonkorra zenez, AEBk zuzenean militarri esku hartzea erabaki zuen. Kennedyk 1961etik 1963ra 17.000 «aholkulari militar» bidali zituen, eta haren ondorengoak, Lyndon Johnson-ek, ezer ezkutatu gabe esku hartzea erabaki zuen. Jakina denez, amerikarrek ezin izan zuten gerra irabazi, nahiz eta gero eta soldadu gehiago (1967an 500.000 soldadu) bidali Indotxinara. Gainera, gatazkaren krudeltasunak (AEBko armadak arma kimikoak erabili zituen eta Ipar Vietnamgo hiriak bonbardatu zituen) gerraren kontrako protestak eragin zituen Amerikan eta mundu osoan. 1973an alde egin zuten AEBko soldaduek. Hala ere, Hego Vietnami laguntza ekonomikoa eta militarra ematen jarraitu zuen Nixon-en administrazioak; izan ere, gatazkaren *vietnamizazioa* proposatzen zuen Nixonek, AEBren esku-hartze zuzena murriztea, alegia. Dena den, gerrak 1975. urtera arte iraun zuen, Vietnamgo Errepublika Demokratikoak Hego Vietnam mendean hartu zuen arte. Porrot militarra ez ezik, porrot sozial eta politiko iraingarria ere izan zen Vietnamgo Gerra Estatu Batuentzat.

1.5.4. Distentsioaren amaiera (1975-1980) eta Bigarren Gerra Hotza (1980-1985)

1975etik aurrera, nazioarteko harremanen distentsioa agortzen hasi zen. Superpotentzien arteko aurreko akordioek ez zuten jarraipenik, negoziazioek ez baitzuten fruiturik ematen. J. Carter-en agintaldian (1977-1981), AEBren gain-behera erlatiboa hauteman zitekeen munduan, Nikaraguako iraultza sandinistak (1979) edo Irango iraultza islamikoak (1979) islatzen zutenez. Bitartean, Sobietar Batasunak bere eragina zabaldu zuen Hirugarren Munduko zenbait herrialdetan: Asiako hego-ekialdean (Vietnam bateratuarekiko adiskidetasun-hitzarmena 1977an) eta Afrikan (Mozambiken eta Angolan 1975ean erregimen komunistak ezarri ziren; eta baita Etiopian ere, 1977an). Horrez gain, sobietarrek esku hartu zuten Afganistanen 1979an, bertako erregimen komunistari eusteko. Gertakari horrek argi eta garbi adierazi zuen aurreko etapako distentsioaren amaiera. Sobietarren armada hamar urtez borrokatu zen Afganistanen, 1989ra arte, baina ezin izan zituzten gerrilla taldeak (AEBren laguntza zuten) menderatu. Dena den, distentsioa amaitu zela erakutsi zuen Afganistanera tropak bidaltzeak.

Testuinguru hartan, Ronald Reaganek (1981-1989) Estatu Batuetako kanpo-politika aldatu zuen. Sobietarrekiko distentsioa bultzatu beharrean, Estatu Batuak nagusitzea lortu nahi zuen Reaganen administrazioak. Berrito ere politika gogorra

eta, H. Trumanen garaian bezala, diskurtso antikomunista sutua plazaratu zuen. Garai hartako (1980-1985) nazioarteko tentsioaren gorakada adierazteko erabiltzen dugu «bigarren gerra hotza» esapidea, Gerra Hotzaren hasierako tentsio-mailara heldu zela adierazi nahian. AEBren buruzagitza berreskuratze aldera, politika gogorra eta erasotzailea aukeratu zuen Reaganen administrazioak: Nikaraguaren kontrako ekimenak (1981-1990) sandinistak boteretik kendu arte; gobernu komunista botatzeko Granada irlaren inbasioa 1983an; Libiaren kontrako bonbardaketak, Gadafiren erregimena terrorismoaren laguntzailea zela argudiatuz; edo «intentsitate txikiko gatazkak» Hirugarren Munduan; eta abar. Hautsi egin ziren bi superpotentzien arteko negoziazioak eta elkarrizketak, eta areagotu egin zen armalasterketa. 1980tik 1985era, % 64 igo zen AEBren defentsarako aurrekontua, eta abian jarri zuten Defentsa Estrategikoko Ekimena edo «Izarretako gerra». AEB arlo militarrean nagusitzea zen helburua, oreka nuklearra hautsiz amerikarren mesedetan. Horretarako, misilen kontrako ezkutua eraiki nahi zen espazioan, sobietarren misilak indargabetzeko. Aitzitik, Gorbaxov agintera heldu arte, ez zen zehaztu Sobietar Batasunaren politika Reaganek luzaturiko erronkaren aurrean. Eta politika horrek Gerra Hotzaren bukaera ekarriko zuen.

1.6. BLOKEEN ARRAILAK

Gerra Hotzaren garaian bi superpotentzien nagusitasuna mantendu bazen ere, bloke kapitalistan zein komunistan arrailak sortu ziren, hots, superpotentzien buruzagitza kolokan jartzen zuten bloke barneko desadostasunak. Gainera, deskolonizazioaren ondorioz, joko bipolarrean parte hartu nahi ez zuten indar berriak sortu ziren nazioartean. Blokeen barnean zatiketak gertatu baziren ere, bipolaritateak jarraitu zuen izaten nazioarteko harremanen ezaugarri nagusia 1985era arte; baina polizentrismorako joera garatu zen eta beste aktore batzuek ere (Txinak, Mendebaldeko Europak, lerrokatu gabekoek) protagonismoa lortu zuten nazioartean.

Bloke komunistako lehenengo pitzadura Jugoslavian sortu zen. II. Mundu Gerran, Ekialdeko Europako herrialde gehienetan ez bezala, bertako partisano komunistek askatu zuten herrialdea, eta errepublika komunista ezarri zuten Tito-ren gidaritzapean. Harrezkero, politika autonomoa jarraitu zuen Jugoslaviak, Stalinen esanak bete barik, baina betiere gizarte komunista eraiki nahian. Jarrera horren aurrean, traidorea, nazionalista eta inperialisten aliatua zela leporatu zion Stalinekin Jugoslaviari, eta bota egin zuen *Kominformetik* eta bloke komunistatik. Tito izan zen Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduaren bultzatzaile eta buruzagi nagusietakoa.

Gerra Hotzaren bilakaeran, ondorio garrantzitsuagoak izan zituen Txinaren eta Sobietar Batasunaren arteko hausturak. 1949tik 1957ra aliatuak izan ziren Sobietar Batasuna eta Txina, eta sozialismoa eraikitzerakoan eredu sobietarrari jarraitu zion Txinak. Baina 1950eko hamarkadaren bukaeran, okertzen hasi ziren

bien arteko harremanak. Txinak, Asiako potentzia izanik, ez zuen SESBren mendeko izatea onartzen. Bestalde, Maok kritikatu egin zuen Khrustxoven desestalinizazio-prozesua, eta sozialismoa eraikitzeko txinatar bidea proposatu zuen: *Aurrerako Jauzi Handia*; horrela, sobietar eredutik urrundu egiten zen Txina. Giro horretan, harremanak eten zituzten Txinak eta SESBk 1960. urtean. Ondorioz, munduko mugimendu komunista bi joeratan banatu zen: maoista eta sobietarra; elkarren lehian, nazioarteko mugimendu komunista gidatuko zuten. Gauzak horrela, beste potentzia handi bat zegoen nazioarteko harremanetan eragiteko: 1964an arma nuklearra lortu zuen; 1971n NBE-n sartu zen eta Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorra izan zen. AEBk eta Txinak beren arteko harreman diplomatikoak berrezarri zituzten eta lankidetzan hasi ziren. Nixonek 1972an Pekinera egin zuen bisitak erakusten du hartutako bidea. Horrela, hiru aldeko diplomazia edo, bestela esanda, diplomazia triangeluarra (AEB, SESB, Txina) eta polizentrismorako joera garatu ziren nazioarteko harremanetan.

Ekialdeko Europako herrialde batzuetan ere —Hungarian (1956) eta Txekoslovakian (1968)— egin ziren ahaleginak politika autonomoa garatzeko, baina Sobietar Batasunak indarrez zapaldu zituen saiakerak. Sozialismoa eraikitzeko bide nazionalen eta sobietarren nagusitasunaren arteko tentsio iraunkorra adierazten dute aipaturiko bi kasuek, hots, Hungariak eta Txekosloveniak. Tentsio horren aurrean, SESBren jarrera plazaratu zuen 1968an Breznev-ek: *subiranotasun mugatuko doktrina* edo *Breznev doktrina*. Horren arabera, herrialde komunistetan esku hartzeko eskubidea zuen Sobietar Batasunak, herrialde horretan sozialismoa (sobietar eredu, alegia) arriskuan egonez gero.

Bloke kapitalistan ere AEBren erabateko nagusitasuna zalantzan jartzen zuten ahotsak entzun ziren. Esate baterako, 1960ko hamarkadan, aipatzekoa da Charles De Gaulle Frantziako V. Errepublikako presidentearen politika. Bi blokeen artean, Europaren (eta Frantziaren) eragina indartzea zuen helburu De Gaullek; horretarako, murriztu egin behar zen Europan AEBren ahalmen militarra. Bide horretan, 1966. urtean Frantzia irten egin zen NATOren aginte integratutik. Europaren defentsa-egitura bultzatzeko keinu bat izan zen. 1970eko hamarkadan, Alemania Federaleko sozialdemokratek ere *ostpolitik* (Ekialdeko Europarako politika) deituriko kanpo-politika jarri zuten praktikan: Ekialdeko Alemaniaren eta Europaren arteko harremanak normalizatzea zen helburua. Testuinguru horretan, Sobietar Batasunarekin eta bloke komunistako beste herrialde batzuekin sinatu zituen akordioak Alemaniako Errepublika Federalak. Beraz, Europako agintari batzuek nazioarteko politika autonomoa garatzeko ahaleginak egin zituzten eta AEBren erabateko nagusitasuna murriztu nahi izan zuten, Gerra Hotzaren distentsioaren garaian batez ere. Gainera, 60ko hamarkadatik aurrera, ekonomiari zegokionez, ahuldu egin zen AEBren nagusitasuna mundu kapitalistan; gero eta pisu handiagoa zuten lehiakide berriek (Japoniak, Alemaniak, Europako Elkarrekin Ekonomikoak) nazioarteko ekonomian.

Deskolonizatzeko-prozesuaren ondorioz, estatu berri asko sortu zen. Jakinaenez, arestian ikusi dugun bezala, herrialde horiek mundu bipolarrean jaiotzen ziren eta, kasu askotan, lurralde horietan jokatu zen superpotentzien norgehiagoka, hain zuzen. Independentzia lortuta, zeinen alde jokatuko zuten estatu berriek? Norekin lerrotatuko ziren? Bazirudien superpotentzia baten edo bestearen mendeko izatera kondenatuta zeudela; hau da, kolonialismo-egoeratik bestelako inperialismoren batera pasatuko zirela Gerra Hotzean. Baina jarrera politikoa berria plazaratu zuten herrialdeetako batzuek; ez lerrotatzea ez bloke kapitalistan ez bloke komunistan, eta elkarrekin lan egitea nazioartean talde berri gisa, Hirugarren Munduaren izenean. Horrela, Herrialde Ez Lerrotatuen Mugimendua sortu zen 1955ean Bandungeko (Indonesia) Konferentzian. Mugimenduaren printzipio nagusiak plazaratu zituzten biltzarrean: kolonialismoa eta neokolonialismoa salatzea; ekonomia garatzeko neurriak eta aldaketak; eta, azkenik, blokeen arteko tentsioaren ordean, desarmea eta bakezko bizikidetzak. Beraz, bipolarismoaren logika kolokan jartzen saiatu zen Bandungeko egitasmoa. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan mugimenduak itxaropen handiak sortu bazituen ere, ezer gutxi lortu zuten Hirugarren Munduko herrialdeek (ikus 7. gaia. Hirugarren Mundua, deskolonizazioa eta azpigarapena). Indonesian bertan, 1965ean, Suharto-ren estatu-kolpeak legez-kanpo jarri zituen komunistak, eta milaka lagun hil zituzten militarrek bertan.

1.7. MUNDU BIPOLARRAREN AMAIERA (1985-1991)

Ustekabean, inork gutxik aurreikusita, berrogei urtez iraun zuen nazioarteko ordena bipolarra deuseztatzen hasi zen 1985az geroztik, Gorbatxov Sobietar Batasuneko agintari nagusi izendatu zutenetik aurrera, hain zuzen. Sei urte geroago, Gerra Hotza ez ezik, superpotentzia sobietarra ere desagertua zen. Zenbait interpretazio argitaratu dira prozesu historiko horren eragilearen inguruan. Mendebaldeko ikuspegi triunfalistaren arabera, aditu batzuek Reaganen administrazioaren politika hartu dute eragile nagusitzat. Bestela esanda, Reaganek *containment* ordez «gaizkiaren inperioaren» aurrean garaitzea bilatu zuelako amaitu zen Gerra Hotza; hots, Sobietar Batasunak ezin izan ziolako erantzun Reaganen erronkari. Beste aditu batzuen ustez, berriz, Gorbatxovek abian jarritako kanpo-politika izan zen prozesuaren erantzule nagusia.

Estatu Batuek irabazi zuten Gerra Hotza ala Sobietar Batasunak galdu zuen? Gure ustez, Sobietar Batasuneko barne-krisia izan zen Gerra Hotzaren amaieraren arrazoi nagusia. Arazo ugari egin behar izan zion aurre Gorbatxovek agintera heldu zenean. SESB nazio-koheren txikiko estatua zen, etnia anitz baitzeuden, eta desorekak zeuden sobietar errepublikaren artean. Breznevengaraian (1962-1982), geldialdia izan zen sistema sobietarraren ezaugarri nagusia arlo guztietan; kanpo-politikan ere arazo larriak izan zituen Gorbatxovek 1985ean; aipagarrienak Afganistango Gerra, Reaganek bultzaturiko arma-lasterketa eta «Izarretako gerra».

Gainera, sobietar ekonomia egiturazko krisi sakonean murgilduta zegoen, 1960ko hamarkadatik aurrera gero eta motelago hazten ari zen eta. Egoera horri aurre egiteko, Gorbatxovek *perestroika* (birmoldaketa) izeneko egitasmo erreformista proposatu zuen. Helburu nagusia, hasieran behintzat, sobietar ekonomia berpiztea zen; baina erreforma ekonomikoa gauzatzeko, kanpo-politika aldatu beharra zegoen, hots, defentsako gastu handiak murriztu behar ziren (barne-produktu gordinaren % 15 baino gehiago gastatzen zen defentsan 1980ko hamarkadan). Bestela esanda, sobietar ekonomiak ezin zion sobietar inperioari eutsi. Horretaz jabetuta, superpotentzien arteko lehia eta Gerra Hotza indargabetzeko politika jarri zituen abian Gorbatxovek. Sobietar buruzagi gorenak bere «pentsaera politiko berria» aurkeztu zuen: Gerra Hotzaren ordeztu, potentzien arteko lankidetzeta, elkarrizketa eta adostasuna.

Sobietar Batasunaren kanpo-politikaren ideia berriak ekimen zehatzetan gauzatu ziren, zenbait arlotan. Batetik, desarmarako negoziazioak izan zituzten bi superpotentziek, eta akordio garrantzitsuak lortu zituzten. Esate baterako, 1987ko abenduaren 8an Washingtoneko Ituna (INF) sinatu zuten: irismen ertaineko misilak (euromisilak) kentzea erabaki zen. 1991n START (*Strategic Arms Limitations Talks*) izeneko akordioa lortu zuten. Horren arabera, arma nuklear estrategikoak gutxitzea ebatzi zuten superpotentziek. Bestalde, gero eta txikiagoa zen sobietarren eragina munduko hainbat herrialdetan. 1988. eta 1989. urteetan sobietar soldaduek alde egin zuten Afganistanetik. Horrez gain, Hirugarren Munduko aliatuei laguntza ekonomikoa eta militarra murriztuko zuela jakinarazi zien. Ekialdeko Europari zegokionez, *subiranotasun mugatuko doktrinari* uko egitea erabaki zuen Gorbatxovek. Horren ondorioz, 1989. urtean zehar herri-demokrazia guztiak jausi egin ziren bata bestearen atzetik. 1989an deuseztatu zen bloke komunista, eta horren adierazgarri izan zen Berlingo harresia erortzea. Hala ere, Sobietar Batasuna desagertzea izan zen prozesuaren azken urratsa.

Izan ere, perestroikak porrot egin zuen. Gorbatxoven agintaldiko sei urteetan arazoak larriagotu egin ziren etengabe. Tentsio nazionalistak ere areagotu egin ziren, eta ekonomia kolapsatu egin zen. Erreforma politikoak Kremlin-en boterea ahuldu egin zuenez, Gorbatxoven agintea gero eta makalagoa zen. Azkenik, 1991ko abuztuan, laguntzaile kontserbadoreek estatu-kolpea eman zuten, erreformak geldiarazteko asmoz. Kolpeak porrot egin bazuen ere, Gorbatxoven behin betiko gainbehera politiko eragin zuen. Errusiar Federazioak (Boris Jeltsin-en buruzagitzapean) eta beste errepublikek ere independentzia aldarrikatu zuten 1991ko abenduan. Sobietar Batasuna desagertuta, mundu bipolarra ere amaituta zegoen.

TESTU-ERANSKINA

1941, ATLANTIKOKO GUTUNA

Ameriketako Estatu Batuetako presidentek eta Erregeren gobernuaren Erresuma Batuko ordezkariak, Mr. Churchillek, bildu ondoren, egoki ikusten dute ezagutaraztea bien herrialdeetako politika nazionaletan berdinak diren zenbait printzio, horietan oinarritzen baitute beren itzaropena, munduak etorkizun hobea izan dezan.

Haien herrialdeen helburua ez da ez lur gehiago berenganatzea, ez beste ezer berenganatzea.

Ez dute ikusi nahi inolako aldaketarik lurraldeetan, ez badator bat lur horietako herriek askatasunez adierazitako borondatearekin.

Errespetatzen dute herrialde guztiek beren lurraldeetan izango duten gobernatzeko modua aukeratzeko eskubidea, eta itzuli nahi dizkiete eskubide subiranoak eta askatasunez gobernatzeko aukera, lehenago bortxaz kendu zitzaizkienei.

Ahalegina egingo dute, dituzten betebeharrak erabat errespetatuz, estatu guztietara zabaltzen (handi nahiz txikietara, garaile nahiz garaituetara) merkataritzan berdintasunezko baldintzetan aritzeko aukera eta munduko lehengaiak eskuratzeko aukera, haien herrialdeek aurrera egin dezaten.

Nazio guztien arteko lankidetzarik handiena bultzatu nahi dute, ekonomia menderatze aldera, guztiek izan ditzaten lan-baldintzarik onenak, ekonomiak aurrera egin dezan eta babes soziala izan dezaten.

Nazien tirania erabat desegin ondoren, nazio guztietan bakea ezarriko den eguna ikusi nahi dute, bakoitza bere mugen barruan seguru biziko den eguna eta nazio guztietako gizaki guztiek libre, beldurrik gabe eta pobreziarik gabe bizitzeko aukera bermaturik izango dutena.

Horrelako bakeari esker ibili ahal izango dira gizaki guztiak itsaso eta ozeanoetan.

Haien ustez, munduko nazio guztiek uko egin behar diote indarkeria erabiltzeari, bai arrazoi praktikoengatik, bai eta espiritualengatik ere. Izan ere, ezin zaio eutsi etorkizuneko inolako bakeari, mehatxatzen duten nazioek lureko, itsasoko edo aireko armak erabiltzen badituzte, edo mugetatik kanpo egindako erasoen bitartez mehatxatzeko gai badira; uste dute segurtasun-sistema orokor, zabal eta egonkor bat ezarri arte, funtsezkoa dela nazio horiek desarmatzea. Era berean, herri bakezaleentzako mehatxu diren armen pisua arintzeko neurriak suspertzen eta bultzatzen lagunduko dute.

Franklin D. Roosevelt - Winston S. Churchill, 1941eko abuztua.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 45-47.

1945, EUROPA ASKATUAREN ADIERAZPENA

SESBko Herri Komisarioen presidentek, Erresuma Batuko lehen ministroak eta Ameriketako Estatu Batuetako presidentek elkarrekin aztertu dituzte haien herrialdeen eta Europa askatuaren interes komunak. Aitortzen dute ados jarri direla: Europa askatuan ezegonkortasun politikoak irauten duen bitartean hiru estatuak hartu dituzten jokabideak koordinatzeko, eta Ardatzaren antzinako sateliteetako herriei European laguntzeko bide demokratikoen bitartez konpontzen arazo politiko eta ekonomiko premiazkoenak.

European ordena berrezartzeko eta bizitza ekonomiko nazionalak berregiteko erabili beharreko bitartekoek lagundu behar diete askatutako herriei nazismoaren eta faxismoaren azken arrastoak ezabatzen, eta horretarako berek askatasunez aukeratutako erakunde demokratikoak sortu behar dira. Atlantikoko Gutuneko printzipioetariko baten arabera, herri guztiek dute bizitzeko nahi duten gobernu mota aukeratzeko eskubidea, eta erasotzaileek bortxaz kendutako subiranotasuna eta autonomia eskubideak berriz indarrean jartzekoa.

Askatutako herriek eskubide horiek gauzatzeko behar dituzten baldintzak ezartzeko, hiru gobernuak batera lagunduko diete European askatutako estatueta herriei edo Ardatzaren antzinako sateliteetako, behar den beste aldiz eta helburu hauekin:

1. Herrialde barneko bakea ziurtatzea.
2. Kaltetutako herriei laguntzeko premiazko neurriak hartzea.
3. Behin-behineko gobernuak ezartzea (herritarren elementu demokratiko guztiak ordezkaturik egon daitezen) hauteskunde libreen bitartez, herri-borondatearen arabera jokatu duten gobernuak ahalik eta arinen era daitezen.
4. Beharrezkoa izanez gero, hauteskunde horiek egiten laguntzea.

Hiru gobernuak iritzia eskatuko diete Nazio Batuei eta Europako gainerako gobernuak (behin-behinekoei edo besteei), zuzenean dagozkien arazoaren kasuetan.

Hiru gobernuen iritziz, European askaturiko estatu bateko egoerak edo Ardatzaren antzinako estatu satelite bateko egoerak behar izanez gero, berehala eskatuko da iritzia hartu beharreko neurriak buruz, adierazpen honetako erantzukizun komunak bete daitezien.

Horrela, Atlantikoko Gutuneko printzipioetan dugun fedea berresten dugu; Nazio Batuen adierazpenean hartutako konpromisoak berresten ditugu; halaber, beste nazio bakezaleekin batera arituz munduko ordena berria eraikitzeko asmoa berresten dugu, zuzenbidea nagusituko den munduko ordenaren eta bakearen, segurtasunaren, askatasunaren eta goraldi komunaren interesen alde egingo duena.

Adierazpen hau argitaratzean, hiru potentziek aitortzen dute Frantziako Errepublikako behin-behineko gobernua laster elkartuko zaien itzaropena dutela, goian azaldutako programa gauza dadin.

Wiston S. Churchill, Franklin D. Roosevelt, Josiv V. Stalin. 1945eko otsaila.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 48-50.

1945, NAZIO BATUEN SORRERA-GUTUNA

I. KAPITULUA: asmoak eta printzipioak.

1. artikulua. Honako hauek dira Nazio Batuen asmoak:

1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea. (...)
2. Eskubide-berdintasunaren printzipioari eta herrien determinazio librerako eskubideari errespetuan oinarrituriko adiskidetasunezko harremanak sustatzea nazioen artean. (...)
3. Nazioarteko lankidetzan aritzea nazioarteko arazoak konpontzeko, nahiz ekonomikoak, sozialak, nahiz kulturari edo gizarteari dagozkienak. Halaber, nazioarteko lankidetzan aritzea giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak garatzen eta bultzatzen, bereizketarik egin gabe arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioetatik. (...)

2. artikulua. 1. artikuluan adierazitako asmoak gauzatzeko, ondoko printzipioen arabera jokatuko dute Erakundeak eta horko kideek:

1. Kide guztien arteko berdintasun subiranoan oinarrituta dago Erakundea. (...)
3. Erakundeko kideek bide baketsuei jarraituz konponduko dituzte beren arteko nazioarteko gatazkak.
5. Gutun honetako betetzeko egindako ekintza guztietan emango diote Erakundeari beharrezko laguntza bertako kideek. (...)
6. Erakundea saiatuko da Nazio Batuen Erakundeko kide ez diren estatuak ere aipaturiko printzipioen arabera joka dezaten, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko behar den neurrian.
7. Gutun honetako xedapen batek ere ez dio Nazio Batuen Erakundeari baimenik emango estatuaren barne-jurisdikzioko arazoetan sartzeko, eta ez ditu behartuko kideak arazo horiek Gutun honen araberrako prozeduren bitartez konpontzen; baina ez daude kontraesanean printzipio hau eta VIII. kapituluan agindutako neurri hertsagarrien aplikazioa. (...)

II. KAPITULUA: organoak.

7.1 artikulua. Honako hauek izango dira Nazio Batuen organo nagusiak: Batzar Nagusia, Segurtasun Kontseilua, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Administrazio Fiduziariorako Kontseilua, Nazioarteko Justizia Gortea eta Idazkaritza.

(...)

III. KAPITULUA: Batzar Nagusia.

KIDEAK

9.1 art. Nazio Batuen Erakundeko kide guztiek osatuko dute Batzar Nagusia.

FUNTZIOAK ETA ESKUDUNTZAK

10. art. Edozein gai edo arazo eztabaida daiteke Batzar Nagusian, betiere Gutun honen muga barrukoa bada, edo Gutun honek sortutako organoen botereei eta funtzioei dagokiena; eta, 12. artikuluan xedatutakoa salbu, gai edo arazo horiei buruzko gomendioak eman diezazkieke Nazio Batuen Erakundeko kideei edo Segurtasun Kontseiluari, edo horri eta haiei.

11. art. 1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko lankidetzaren printzipio orokorrak azter ditzake Batzar Nagusiak. (...)

14. art. 12. artikuluan xedatutakoa salbu, Batzar Nagusiak neurriak gomenda ditzake edozein egoeraren irtenbide baketsua aurkitzeko, arazoaren iturria kontuan izan gabe, Batzarraren ustez ongizate orokorra edo nazioen arteko adiskidetasun-harremanak kaltetu daitezkeenean; bai eta Nazio Batuen printzipioei eta asmoei buruzko Gutun honetako xedapenak urratzearen ondorioz sorturiko egoeretan ere.

(...)

IV. KAPITULUA: Segurtasun Kontseilua.

KIDEAK

23. art. 1. Hamabost kide izango ditu Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak. Kide iraunkorrak izango dira: Txinako Errepublika, Frantzia, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna, Britainia Handiko Erresuma Batua eta Ipar Irlanda, eta Ameriketako Estatu Batuak. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Nazio Batuen Erakundeko kideen artean beste hamar kide, ez iraunkorrak. (...)

FUNTZIOAK ETA ESKUDUNTZAK

24. art. 1. Nazio Batuen Erakundeak bizkor eta modu eraginkorrean joka dezan, Erakundeko kideek nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko ardura nagusia ematen diote Segurtasun Kontseiluari, eta aitortzen dute haien izenean jokatzeko duela Segurtasun Kontseiluak ardura horren ondoriozko funtzioak betetzean.

(...)

BOZKETA

27. art. 1. Boto bana izango du Segurtasun Kontseiluko kide bakoitzak.

2. Bederatzi kideren baiezko botoarekin onartuko dira prozedurari dagozkion erabakiak.
3. Bederatzi kideren baiezko botoarekin edo kide iraunkor guztien botoekin onartuko dira gainerako arazo guztiei buruzko erabakiak. (...)

VII. KAPITULUA: bakea urratzeko arriskua egonez gero, bakea urratuz gero edo erasoaldia izanez gero egin beharrekoa.

39. art. Segurtasun Kontseiluak erabakiko du noiz dagoen bakea urratzeko arriskua, noiz urratu den edo erasoaldirik gertatu den; halaber, gomendioak emango ditu edo zein neurri hartuko den erabakiko du.

40. art. Egoera larritu ez dadin, gomendioak eman baino lehen edo 39. artikuluko neurriak hartu aurretik, Segurtasun Kontseiluak eska diezaieke alderdi interesdunei behin-behineko neurriak betetzeko, beharrezkoak edo gomendagarriak direla uste dutenak. (...)

41. art. Segurtasun Kontseiluak erabaki ahal izango du indar armatua eskatzen ez duten zer neurri hartu, Kontseiluak erabakitakoa bete dadin, eta Nazio Batuen Erakundeko kideei eskatu ahal izango die hartutako neurriak aplika ditzatela; neurri horien artean egon daiteke harreman ekonomikoak eta komunikabideak (trenbideak, itsasokoak, airekoak, postazkoak, telegrafikoak, irratia eta beste komunikabide batzuk) erabat edo partzialki etetea edo harreman diplomatikoak etetea.

42. art. Segurtasun Kontseiluak erabakiko balu 41. artikulua araberako neurriak desagokiak izan litezkeela edo garbi geratu dela desagokiak direla, aireko, itsasoko edo lurreko indarren bidez esku har dezake nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo ezartzeko. (...)

43. art. Nazio Batuen Erakundeko kide guztiak konprometitzen dira, nazioarekiko bakea eta segurtasuna mantentze aldera, Segurtasun Kontseiluaren esku jartzen indar armatuak, laguntza eta erraztasunak, igarotzeko eskubidea bera ere bai, Kontseiluak hala eskatzen duenean eta itun berezi batek edo gehiagok arauturikoari jarraituz.

(...)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 60-64.

1946, W. CHURCHILLen HITZALDIA

Aukera eder eta paregabea dute orain gure herrialdeek. Hori onartu ezean edo pasatzen utziz gero, etorkizunak luzaroan aurpegiratuko liguke galdutako aukera. (...) Zientziaren hego distiratsuetan ezkutatuturik hel daiteke harri aroa. (...) Ibil zaitezte tentuz, benetan diotsuet, beharbada ez da ia denborarik geratuko...

Altzairuzko errezela jaitsi da kontinente gainera, hasi Baltikoko Stettin-etik eta Adriatikoko Triesteraino. Haren atzean daude Erdialdeko eta Ekialdeko Europako antzinako estatuen hiriburu guztiak (...) eragin-eremu sobietarrean daude —horrela deitu behar diot— hiri ospetsu horiek guztiak, era berean inguruko herriak eta denek batera osatzen dituzten herrialdeak; eta eraginpean ez ezik, Moskuren kontrol izugarriaren azpian ere bai, eta, kasu askotan, areagotzen ari da kontrola. (...) Gure lagun errusiarrek gerran izan zuten jokabidea ikusita, konbentzitura nago ez dutela ezer miresten indarra baino gehiago; halaber, ez dutela ezer errespetatzen ahultasuna baino gutxiago. Berehala elkartu beharra dago ingeles hizkuntza duten herriak, errusiarren abenturarako eta gutiziarako tentazioak eragotziko badira.

Westminster College, Fulton, Missouri, 1946ko martxoaren 5a.

Iturria: <http://www.historiasiglo20.org/TEXT/fulton-churchill.htm>

1946, J. STALINen ERANTZUNA

(...) gerrazaleen bidea ari da hartzen Churchill, eta bide horretan, Churchill ez dago bakarrik. Britainia Handian ez ezik, Ameriketako Estatu Batuetan ere lagunak ditu Churchillek.

Zehaztasun bat adierazi behar da Churchill eta lagunei buruz; izan ere, Hitlerren eta haren lagunen antz handia du egoerak. (...) Badirudi Churchillek gerra eragin duela arrazari buruzko bere teoriarekin, ingelesa hizkuntzatzat duten nazioak beste gainetik daudela eta horren ondorioz mundu osoaren etorkizuna erabakitzeke ardura dutela esanez. (...)

Ezin dira ahaztu honako gertaera hauek: Finlandia, Polonia, Errumania, Bulgaria eta Hungariaren bitartez inbaditu zuten alemaniarrek SESB. Eta hori horrela izan zen, herrialde horietako gobernuak Sobietar Batasunaren aurkakoak zirelako. Alemaniarren inbasioaren ondorioz zazpi milioi lagun galdu zituen guztira Sobietar Batasunak. (...) Bestela esanda, Sobietar Batasunak galdutako bizitzak, Britainia Handikoak eta Estatu Batuetakoak batera baino gehiago izan ziren. Seguru asko, Hitlerren uztarripetik Europa askatze aldera sobietar herriek egindako sakrifizio handi horiek ahazteko joera dago tokiren batzuetan. Baina Sobietar Batasunak ezin ditu ahaztu. Eta harrigarria da Sobietar Batasuna kritikatzeko, etorkizun seguruaren egarri, herrialde horietan Sobietar Batasunaren jarrerei leial izango zaizkien gobernuak bultzatzen aritzeagatik. Nola esan daiteke, sentimendu horiek kontuan hartu

gabe, Sobietar Batasunaren helburu baketsuak gure Estatuak zabaltzea eta hedatu nahiaren ondorio baino ez direla?

Ez dakit (...) hark eta haren lagunek lortuko duten Ekialdeko Europaren kontrako kanpaina armatu bat antolatzea Bigarren Mundu Gerraren ostean; baina, lortuz gero, uste osoz esan dezakegu orain dela hogeita zazpi urte bezala zapalduko direla.

Stalinen diskurtsoa. 1946ko martxoaren 13a.

Iturria: <http://www.historiasiglo20.org/TEXT/stalin1946-2.htm>

1946, TRUMAN DOKTRINA

Ameriketako Estatu Batuen kanpo-politikaren helburu nagusietako bat honako hau izan behar da: baldintza egokiak sortzea bai geuk, bai eta beste nazio batzuek ere inoren indarpean bizi gabe aske izateko aukera izan dezagun. Horixe izan zen, hain zuzen ere, Alemaniaren eta Japoniaren aurka izandako gerraren oinarritzko arrazoietariko bat. Beren borondatea eta bizimodua beste nazio batzuei inposatu nahi zieten herrialdeei gerra irabazi genien.

(...) Ez ditugu geure helburuak lortuko, herrialde libreei lagundu ezean erregimen totalitarioak inposatu nahi dizkieten mugimendu erasotzaileei aurre egiten, beren erakunde libreei eta integritate nazionalari euts diezaieten. Bestela esanda, zintzasunez aitortzen dugu herrialde libreei ezarritako erregimen totalitarioek —zuzenean edo zeharka erasoz lortutakoek— nazioarteko bakearen oinarriak zulatzen dituztela eta, beraz, Ameriketako Estatu Batuen segurtasuna.

Berriki, erregimen totalitarioak onartzera behartu dituzte munduko erresuma asko eta askotako herriak, beren borondatearen kontra. Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak sarritan egin du protesta hertsatzearen eta larderiitzearen aurka, Jaltako Hitzarmena haustearren kontra, hain zuzen, Polonian, Errumanian eta Bulgarian besteak beste. Azpimarratu behar dut herrialde askotan jazo direla antzeko gertaerak.

Munduaren historiako une honetan, bizitzeko zein aukera nahi duen hautatu behar du herrialde bakoitzak, Baina sarritan erabakia ez da libre hartzen.

Gehiengoaren erabakian oinarritzen da bizitzeko aukeratariko bat, eta honako ezaugarri hauek izateak bereizten dute: erakunde libreak, ordezkari osaturiko Gobernuak, hauteskunde libreak, norbanakoaren askatasuna bermaturik izateak, adierazpen- eta erlijio-askatasunak, eta mendekotasun politikotik askatua izateak.

Gutxiengoaren nahia gehiengoari indarrez ezartzean oinarritzen da beste aukera. Funtsezkoak izaten dira beldurra eta zapalkuntza, irрати eta komunikabideen kontrola, iruzurra hauteskudetan eta norbanakoaren libertateak kentzea.

Nire ustez, Ameriketako Estatu Batuek lagundu egin behar diete gutxiengo armatuen aurka borrokan ari diren herriei eta indarrez menderatu nahian kanpotik egindako presioei aurre egiten ari direnei.

Nire ustez, berek hautatutako etorkizuna beren erara gauzatzen lagundu behar zaie herri libreei.

(...)

Greziari eta Turkiari laguntzeari utziko bagenio, une erabakigarri honetan, eragin handia izango lukete ondorioek bai Mendebaldean, bai eta Ekialdean ere.

Erabakitasunez eta berehala jokatu behar dugu.

Greziari eta Turkiari laguntzeko baimena eskatzen diot Kongresuari; hori bideratzeko 400.000.000 dolar behar dira 1948ko ekainaren 30era bitartean.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 102-104.

1947, JDANOV TXOSTENA

Bigarren Mundu Gerra amaitzeak aldaketa nabarmenak eragin ditu munduaren egoeran, oro har.

Horren ondorioz, sistema kapitalistak kolpe latza jasan du berriz ere. (...) Erdialdeko eta Hego-ekialdeko Europako hainbat herrialdetatik sistema kapitalista aldentzea izan da azken gerraren emaitza; faxismoa menderatu da, munduan izan duen lehentasuna galdu du kapitalismoak eta sendotu egin da faxismoaren aurkako mugimendua. Gerra ostean nabarmen areagotu dira SESBren garrantzia eta autoritatea. SESB izan da buru eta eragile nagusia Alemania eta Japonia militariki zapaltzen. Sobietar Batasunaren inguruan elkarturik daude mundu guztiko indar aurrerakoiak.

Amerikar espantsionismoaren bitartez mundua menderatzea da Ameriketako Estatu Batuetako korronte espantsionista berriaren helburua. Korronte berri horrek sendotu egin nahi du Ameriketako Estatu Batuek duten monopolioa nazioarteko merkatuetan. Lehiakide nagusi biak —Alemania eta Japonia— desagertu direlako eta bazkide kapitalistak ahuldu direlako sortu da Amerikaren aipatutako monopolioa.

Baina mundua menderatzeko harturiko bidean, SESBekin egin dute topo Ameriketako Estatu Batuek; nazioartean duten gero eta eragin handiagoa izan dute aurrez aurre. Izan ere, faxismoaren eta inperialismoaren aurkako politikaren gotorlekua da SESB, angloamerikar inperialismoaren kontrolpetik ihes egin duten demokrazia berriko herrialdeen politikarena, hain zuzen ere. Bestalde, herrialde guztietako langileekin egin dute topo, bai eta Ameriketako bertakoekin ere, zapaltzaileek beren probetxurako egindako gerra inperialistatik nahi ez duten langile guztiekin. (...)

Inperialismoaren eta faxismoaren aurkako indarrek eratzten dute beste alderdia. SESB eta demokrazia berriko herriak dira funtsa. Inperialismoa baztertu eta erabakitasunez demokraziaren aldeko hautua egin duten herriek eratzten dute, hain zuzen, alderdi hori; horiez gainera, Indotxina eta Vietnam sartu dira taldean.

Iturria: Martínez Carreras, J. U. *et al.* (1996): *Historia del mundo actual*, Marcial Pons, Madril, 57-58.

1956, SUEZKO KANALAREN NAZIONALIZAZIOA, G.A. NASSERREN HITZALDIA

Herritarrok:

Iraultzaren bosgarren urtea hasiko dugu gaur. Lau urte eman ditugu borrokan. Iraganaren hondarrak baztertzeko egin dugu borroka, inperialismoarenak eta despotismoarenak, atzerritarren okupazioaren arrastoak eta barne-despotismoarenak baztertzeko.

(...)

Borrokan ari gara eta irabazi egingo dugula sentitzen dugu; beti gure duintasunaren printzipioak sendotzeko, halaber askatasunaren printzipioak eta handitasunarenak; eraiki dezagun estatu independente bat, benetako independentzia izango duena, bai politikoa, bai eta ekonomikoa ere.

Etorkizunera begira, oso garbi ikusten dugu gure borroka oraindik ez dela amaitu. Ez da erraza gure potentzia eraikitzea helburu inperialisten artean eta nazioarteko konploten artean. Ez da erraza gure independentzia politikoa eta ekonomikoa lortzea, borrokak jarraitu ezean. Borrokaldi asko dugu aurrez aurre, duintasunez biziko bagara.

Duintasunaren eta askatasunaren oinarriak ezartzeko aukera dugu gaur, eta etorkizunean oinarri horiek sendotzea izango da gure etengabeko helburua; aldi berean, gehiago indartzea eta tinkotzea.

Gure nazionalismo arabiarraren kontra jotzen saiatu da inperialismoa, eskura izan dituen bide guztiak erabiliz. Sakabanatzen eta banatzen saiatu da, eta horregatik sortu du Israelgo estatua, inperialismoaren emaitza. (...)

Ez dugu ahaztu independentzia ekonomikoa; izan ere, oso garbi dugu hori dela independentzia politikoa lortzeko bide bakarra.

(...)

Gaur negoziazioei buruzko guztia kontatuko dizuet. 1952tik aurrera, eta iraultzak arrakasta izan ondoren, gurekin harremanetan hasi ziren Ingalaterra eta Amerika, eta haiekin batzeko eskatu ziguten; baina guk beti erantzun dugu inoiz ez gure keela itun batean parte hartuko arabiar estatu guztiak bertan izan ezean. (...)

Gure eskubide guztiak berreskuratuko ditugu, funts horiek guztiak geureak direlako eta Egiptorena delako kanal hori. Elkartea Anonimo egiptoarra da Konpainia, eta 120.000 egiptoar hil ziren kanalaren bidea egiten. Suezko Kanalaren Elkartea, Parisen egoitza duena, esplotazioaren estalgarria baino ez da; izan ere, Eugene Black-ek Lesseps-en asmo bera izan zuen Egiptora etorri zenean. Presa handi bat eraikiko dugu eta galdutako eskubide guztiak lortuko ditugu. Geuk jasoko ditugu Konpainiak kobratzen dituen 35 milioi liberak eta Egiptoren onerako erabiliko ditugu.

Herritar maiteok, gaur diotsuet, presa eraikiz ohorezko eta loriazko gotorleku bat eraikiko dugu eta umiliazioa eraitsiko dugu. Egipto osoa fronte bakarra eta batua dela aitortzen dugu, eta bloke nazional banaezina. Egipto osoak egingo du borroka herrialdea eraikitzeke, azken odol tanta isurtzeraino. Ez diegu emango beren planak gauzatzeko aukerarik herrialde okupatzaileei, eta geure eskuekin eraikiko dugu Egipto indartsu bat; horregatik aurkezten dizuet gaur kanalaren konpainia nazionalizatzeari buruzko gobernu-akordioa.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 282-284.

1959, BAKEZKO BIZIKIDETZA, KHRUSTXOVen HITZETAN

Proposatzen dizuegun bakezko bizikidetzarako politikak benetan «banatu» egingo lukeela mundua irakurri dut zuen egunkarietan. Bakezko bizikidetzaz zehazki zer den ulertzeko era ezin okerragoa da interpretazio hori. Guk, berez, kontrakoa lortu nahi dugu: bakezko bizikidetzaz eta gero eta harreman zabalagoak herrien artean, ekonomiaren eta kulturaren arloetan. Aitzitik, kontrakoa gertatzen da bizikidetzaz eta kompetentzia ukatuz gero, ukatze horrek herrialdeen arteko harremanak etenarazten baititu eta «gerra hotza» bultzatzen baitu.

Errealitatea den moduan ikusi nahi dutenek onartu beharra dute garai honetan arazoak eta liskarrak negoziazioaren bitartez konpontzea dela arrazoizko bide bakarra nazioarteko harremanak garatzeko. Gure Amerikarako bidaiak eta Eisenhower presidentek Sobietar Batasunera laster egingo duenak, biek lagunduko dute —hori pentsatu nahi dugu, behintzat— auzitan dauden arazoei buruzko iritzizintzoak elkarri adierazten, hobeto ulertze aldera.

Sobietar Batasuna eta Estatu Batuak aukera baten aurrean daude: bakean bizi edo beste gerra baterantz jo (...)

Khrustxoven hitzaldia New Yorkeko *Economic Cluben* 1959ko iraila.

Iturria: <http://www.historiasiglo20.org/TEXT/kruschevcoexpacif.htm>

1975 (HELSINKI), EUROPAKO SEGURTASUNARI ETA LANKIDETZARI BURUZKO KONFERENTZIAREN AZKEN AGIRIA

Estatu parte-hartzaileek,

bake, segurtasun, justizia eta etengabeko adiskidetasun eta lankidetzaren harremanekiko ardura berretsiz;

ardura hori, herrien interes eta nahien isla izanik, estatu parte-hartzaile bakoitzarentzat —iraganeko eskarmentuak indartuta— oraingo eta etorkizuneko erantzukizuna dela aitortuz;

Nazio Batuen Erakundearen kide izanik eta Nazio Batuen helburu eta printzipioekin bat etorritik, Nazio Batuei erabateko laguntza aktiboa berretsiz (...);

Jarraian esaten diren printzipioei —printzipiok Nazio Batuen Gutunarekin bat etorritik— guztion atxikimendua eta guztion borondatea adieraziz lan egiteko printzipio horien aplikazioan (...);

Adierazten dute honako printzipio hauek errespetatzeko eta beste estatu parte-hartzaileekiko harremanetan indarrean jartzeko erabakia, kontuan hartu gabe estatuen sistema politiko, ekonomiko edo soziala, tamaina, kokapen geografikoa edo garapen maila (...):

1. Berdintasun subiranoa, eta subiranotasunari dagozkion eskubideen errespetua. (...)
2. Indarkeriaren erabilera edo mehatxuari uko egitea. (...)
3. Mugen bortxaezintasuna. (...)
4. Estatuen lurralde osotasuna.
5. Eztabaidak bitarteko baketsuak erabiliz konpontzea. (...)
6. Barne-arazoetan ez esku hartzea. (...)
7. Giza eskubide eta funtsezko askatasunen errespetua, pentsaera, kontzientzia-, erlijio- edo sinesmen-askatasuna barne. (...)
8. Herrien determinazio askea eta eskubide-berdintasuna. (...)
9. Estatuen arteko lankidetzaren. (...)
10. Nazioarteko eskubidearen arabera harturiko betebeharrak borondate onez betetzea. (...)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 145-146.

1987, REAGAN DOKTRINA ETA HIRUGARREN MUNDUA

1981ean Etxe Zurian sartu zenetik, Hirugarren Munduko iraultza sozialen oso aurkako politika jarraitu du. Hirugarren Munduko matxinadak Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko auziarekin lotu dituzenez, auzi horretan jarrera tinkoa izateak beste arazoetan ere hor bezain tinko jokatu behar dela erakutsi du. Horretan oinarriturik, indartu egin du Hirugarren Munduan Ameriketako Estatu Batuek parte hartzeko gaitasuna, eta hainbat neurri (militarrak, ekonomikoak eta politikoak) bultzatu ditu estatu erradikalen aurka.

Reagan doktrina: bost osagai

Alde bakarreko ekonomiaren babesean eta Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko auziaren testuinguru zabalagoan, Reagan doktrina Hirugarren Munduko matxinadei aurre egiteko doktrina izan zen, matxinadei aurrea hartzeko, edo hasita bazeuden ahuldu eta «odolusteko»; eta posible zenean desegiteko. Reagan doktrina iraultzaren aurkako programa merke bihurtu zuen 1970eko iraultzei Washingtonek zuen erantzun beharrak; hau da, berehala iparramerikar indarrak bidali gabe, matxinadak itzaltzeko operazio garestiak egiteak. Jakina, Amerikako Estatu Batuentzat merkea zen: ez zegoen baxarik jendearen artean eta saihestu egin zen Sobietar Batasunaren erantzun diplomatikoa, Hirugarren Munduko estatu independenteena eta OCDEko gainerako herrialdeen iritzi publikoarena. Espazio estrategiko horretan, bost osagai zituen doktrinak: lehenengoa, gerra-doktrina berria, intentsitate baxuko auzia esaten zaiona; bigarrena, borroka militarra eta Hirugarren Munduko erregimen iraultzaileei aurka egiteko beste modu ezkutu batzuk bultzatzea; hirugarrena, egoera iraultzaileetan parte hartzea matxinadak desbideratzeko eta indarrean zeuden erregimenei eusteko, ahal zen neurrian; laugarrena, terrorismoaren aurkako kanpaina bat hastea; bosgarrena, piztear zeuden iraultzetan edo garaitu arren, ahulak ziren kasuetan, zuzenean parte hartzeko eskumena azkeneraino gordetzea Estatu Batuentzat.

Intentsitate baxuko auziak

Reagan doktrinaren elementu militar nabarmenena intentsitate baxuko auziak ziren. (...) Teorialarien arabera, CBik hiru eratako operazioak biltzen zituen: matxinaden aurkako borroka, hau da, gobernu aliatuentzat mehatxu diren mugimenduak desegitea; komunismoaren aurkako matxinoei laguntzea, hau da, sobietar aliatuen porrota babestea; eta, azkenik, iraultzaren aurkako ekintzak. Hori horrela izanik, badirudi, 1980ko hamarkadan kontzeptuz eta praktikaz osaturiko gida osoa eskaintzen zuela teoriak, Hirugarren Munduan eusteko iraultzaren aurkako borrokarentzat.

Iturria: Halliday, F. (1987): “La Doctrina Reagan y el Tercer Mundo”, *Papeles para la Paz*, 20, 5-10. Aipatua: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 155-156.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Barbé, E. (2007): *Relaciones Internacionales*, 3. argit., Tecnos, Madril.
- Kennedy, P. (2007): *El Parlamento de la Humanidad. La historia de las Naciones Unidas*, Debate, Bartzelona.
- Keylor, W.R. (2005): *The Twentieth-Century World. An International History*, 5. argit., Oxford University Press, Oxford.
- Larres, K.; Lane, A. (argit.) (2001): *The Cold War. The Essential Readings*, Blackwell, Oxford.
- Leffler, M.P. (2008): *La guerra después de la guerra. Estados Unidos, la Unión Soviética y la Guerra Fría*, Crítica, Bartzelona.
- Lundestad, G. (2005): *East, West, North, South. Major Developments in International Relations since 1945*, 5. argit., Sage publications, Londres.
- Martínez Carreras, J.U., et al. (1996): *Historia del Mundo Actual*, Marcial Pons, Madril.
- Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril.
- Pereira, J.C. (2001): *Historia de las Relaciones Internacionales Contemporáneas*, Ariel, Bartzelona.
- Powaski, R. (2000): *La guerra fría. Estados Unidos y la Unión Soviética, 1971-1991*, Crítica, Bartzelona.
- Swift, J. (2008): *Atlas histórico de la Guerra Fría*, Akal, Madril.
- Veiga, F.; Duarte, A. eta Ucelay, E. (1997): *La paz simulada. Una historia de la Guerra Fría*, Alianza, Madril.
- Zorgbibe, Ch. (1997): *Historia de las relaciones internacionales. Del sistema de Yalta a nuestros días*, Alianza, Madril.
- Zubok, V.M. (2008): *Un imperio fallido: la Unión Soviética durante la Guerra Fría*, Crítica, Bartzelona.
- Historia de las relaciones internacionales durante el siglo XX* <<http://www.historiasiglo20.org/RI/index.htm>> [Kontsulta: 2010-12-27].

2. Ekonomia eta gizarte kapitalistaren berreraikuntza, hazkundera eta krisia

2.1. SARRERA

Gai honetan, elkar hartuta dauden bi atal jorratuko ditugu. Alde batetik, herrialde garatuetakoen ekonomiaren bilakaera 1945. urteaz geroztik eta, bestetik, gizartearen izandako hainbat aldaketa, baita garai hartan azaldu ziren zenbait fenomeno ere. Bi mundu-gerren arteko garaian kapitalismoak krisi larrienetakoa jasan bazuen ere, 50eko eta 60ko hamarraldietan «urrezko aroa» bizi izan zuen. Izan ere, II. Mundu Gerraren ondorengo hamarkadetan herrialde garatuetakoen ekonomia kapitalistak sekulako hazkundera izan zuen. Erreferentzia moduan 1980. urteko munduko barne-produktu gordina hartzen badugu, 1950. urtekoa kopuru horren % 25ekoa baino ez zen. Ekonomiaren hazkundera kuantitatiboak gizartearen aldaketa sakona ekarri zuen. E. Hobsbawm historialariak dioenez, garai hartan benetako «gizarte-iraultza» eta «kultura-iraultza» gertatu ziren. Eraldaketa ekonomiko, sozial eta kultural sakon horiek aztertuko ditugu datozen lerroetan.

2.2. EKONOMIAREN BIRMOLDAKETA ETA BERRERAIKETA (1945-1950)

1945ean munduko ekonomia birmoldatu beharra zegoen. Birmoldatzeko beharra ulertzeko, honako bi faktore hauek hartu behar ditugu kontuan: 1929. urteko krisi ekonomikoaren ondorioak (protektzionismoa eta autarkiarako joera, nazioarteko lankidetzaren ekonomikoaren ordez; nazioarteko ordainketa-sistemaren krisia eta nazioarteko merkataritzaren beherakada) eta II. Mundu Gerrak ekarritako harreman eta egitura ekonomikoaren hondamendia eta munduko hierarkia ekonomiko berria.

Gerra ostean nazioarteko harreman ekonomikoak berpiztu nahi zituzten herrialde kapitalista garatuak, bai eta 1930eko hamarkadako autarkiarako joerak alboratu ere. Asmo horren sustatzaile nagusia AEB zen, bere ekonomia mundura zabaltzeko beharra baitzuen, eta munduan ordena liberala ezarri nahi baitzuen bere gidaritzapean. Testuinguru horretan, nazioarteko kapitalismoa garatzeko ekonomia-araudi eta erakunde berriak diseinatu ziren Bretton Woods-eko Konferentzian (1944). Honako hauek izan ziren Konferentzian harturiko erabaki nagusiak:

- Nazioarteko diru-sistema berritzea. AEBko dolarra, munduko ekonomiari indartsuena izanik, sistemaren muin bilakatu zen; eta diru hori urretan alda zitekeen (35 dolar ontza bakoitzeko; ontza bat 31,10 gramo ziren). Beste diruek dollarrarekiko parekotasuna izan behar zuten. Sistema horrek 1971. urtera arte funtzionatu zuen, eta nazioarteko finantzen egonkortasuna lortzea zen helburua. Horrez gain, eta finantza-egonkortasun hori mantentze aldera, bi erakunde sortu zituzten: Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankua.
- Nazioarteko Diru Funtzak (*International Monetary Fund*) bi helburu nagusi zituen: batetik, diruen arteko parekotasuna gainbegiratzea; eta, bestetik, finantza-arazo larriak zituzten herrialdeei laguntza ematea (atzerriarekin zorpetuta zeuden herrialdeei, eta ordainketa-balantza desorekatua zutenei) maileguen bidez. Herrialde kide bakoitzak diru kopuru bat ematen zion funtsari, eta poltsa hori maileguak emateko erabiltzen zen. Baina mailegu horiek lortzeko, herrialdeak ordaintzeko zituen arazoak konpondu behar zituen, eta NDFk ezarritako baldintzak bete; hau da, politika ekonomiko liberala ezarri behar zuen. Egun (2009an) 186 herrialde dira NDFko kide, baina erabakiak herrialde bakoitzak jarritako diru kopuruaren arabera dira; hau da, munduko bost herrialde aberatsenek (AEBk, Japoniak, Alemaniak, Erresuma Batuak eta Frantziak) botoen % 40 inguru kontrolatzen dute.
- Munduko Bankua (*The World Bank*). Bigarren Mundu Gerraren ondoren, herrialde askotako azpiegitura ekonomikoa hondatuta geratu zen. Gerra osteko berreraikuntza ekonomikoari aurre egiteko eta, gero, herrialde azpigaratuen garapena bultzatzeko, Munduko Bankua sortu zuten Bretton Woods-eko Konferentzian.

Nazioarteko sistema ekonomikoa zuzentzeko beste erakunde bat ere sortu zen: GATT (*General Agreement on Tariffs and Trade*). Hogeita bost herrialdek sinatu zuten akordioa 1947. urtean, eta nazioarteko merkataritzaren % 80ren ardura zuten herrialde sinatzaileek. Nazioarteko merkataritza arautzea zen zeregina, liberalismo ekonomikoa bultzatuz, truke askearen bidean. Bestela esanda, nazioarteko merkataritzaren oztupoak murriztu nahi zituzten: muga-zergak, kuotak, diru-laguntzak eta abar. Hau da, behin nazioarteko ordainketaren arazoa (NDFren bidez), eta hazkundearen finantziazioa (Munduko Bankuaren bidez) konponduta, beharrezkoa zen estatuek beste jarrera bat hartzea nazioarteko merkataritza garatzeko eta bultzatzeko, eta horretarako eratu zen GATT. 1948. urteaz geroztik zortzi aldiz bildu da GATT nazioarteko merkataritza arautzeko, eta bilera horietan estatuek nazioarteko merkataritzaren arauak negoziatu dituzte. 1994. urtean, erakunde berri bat eratu zen GATTen ordean: Munduko Merkataritzarako Erakundea

Munduko hierarkia ekonomiko berria osatzen lagundu zuten aldaketa horiek, baina ez ziren arrazoi bakarrak izan. Izan ere, aurreko garaian oso bestelakoa izan zen ekonomia nazionalen bilakaera, eta oso desberdinak II. Mundu Gerraren

ondorioak, herrialdearen arabera. Guztiz hondatuta gelditu ziren Japonia eta Alemania. Britainia Handiak eta Frantziak galdu egin zuten antzinako nagusitasun ekonomikoa, eta Estatu Batuek bete zuten toki hori. AEBren nagusigoa erabatekoa zen une hartan. 1953. urtean, esate baterako, munduko industria ahalmenaren % 44,7 AEBren esku zegoen; hango dirua zen munduko finantza-sistemaren muina eta nazioarteko merkataritza kontrolatzen zuen. AEBk arazo handirik gabe egin zuen gerra-ekonomiatik bake-ekonomiarako igarobidea, estatuaren inbertsioei, diru-laguntzei eta eskari pribatua berreskuratzeari esker. Bestalde, Mendebaldeko Europak kanpo-laguntza behar izan zuen ekonomia berreraikitzeke (Marshall Plana; ikus 1. gaia). Bi ondorio izan zituen Planak: Mendebaldeko Europako ekonomia suspertu zen eta Ipar Amerikaren nagusitasuna sendotu zen.

2.3. URREZKO AROA (1950-1973)

Ekonomiaren arlo guztietan izandako hazkunde egonkor eta orokorra izan zen garai honetako ezaugarri nabarmenena. Nahiz eta une batzuetan hazkundera moteldu, ez zen eten urte haietan. Hainbat arrazoi edo faktore daude fenomeno hori azaltzeko, eta garrantzitsuenak sailkatu ditugu segidan:

- *Produktibitatearen hazkundera.* Etapa horretan mailaz maila, etengabe, gora egin zuen lanaren produktibitateak. Hobekuntza teknologikoak eta lanaren antolakuntzan izandako aldaketek eragin zuten gorakada. Metodo fordistak hedatu eta nagusitu ziren, eta hasieran etsai gutxi zuen metodoak (langile batzuk besterik ez). Dena den, garapen horrek areagotu egin zuen herrialdeen arteko aldea; izan ere, gero eta garestiagoa zen teknologia berriak asmatzea eta ekoiztea. Teknologia berriek diru gehiago eta langile gutxiago behar zuten, eta herrialde gutxi batzuen eskura zeuden. Faktore berri bat ere agertu zen: ikerketan aritzeko ez zen beharrezkoa lehengai garrantzitsuak izatea eta heziketan inbertitzen zuen herrialde orok zuen aukera aurrera egiteko.
- *Merkatu berriak agertzea.* Kapitalismo klasikoak merkatuak babestera jo zuen krisi-garaietan. Gerrak eta merkatuen banaketa izan ziren horren ondorioa. 1945. urteaz geroztik, aldiz, beste batzuk izan ziren bide nagusiak. Aipatu dugunez, arindu egin ziren estatuen arteko muga komertzialak eta, bestetik, merkatu berriak bilatu zituzten, bai nazioartean, bai eta barnermerkatuan ere. Horretarako, beharrezkoa zen langileen soldatak eta bizi-maila igotzea, kontsumitzeko aukera izan zezaten. 1946. urtean, Estatu Batuetan 3.000.000 auto pribatu zeuden eta lau urte geroago 8 milioi ziren auto-jabeak. Etxetresna elektrikoak edota telebistak ere ugaritu egin ziren. Horrek guztiak bat egin zuen denbora libre gehitzearekin; batetik, oporraldiak luzeagoak ziren eta, bestetik, lan-ordutegiak murriztu egin ziren, bai eguneko lanordu kopurua, bai eta asteko lanegun kopurua ere.

Toki zabala eskaini zitzaien publizitateari eta iragarkiei, jendeak eros zezan; eta kolokan jarri zen aurrezkiaren ideia, ideia zaharkituztat hartu eta baztertu egin zen, langileak jasotako dirua berehala itzul zezan merkatura. Etengabeko kontsumoa bilakatu zen sistemaren oinarri.

- *Banku-maileguak eta banku-sistemaren garapena.* Etapa honetan, kontsumorako banku-maileguk ere hazkunde nabaria izan zuten (eskaria eta kontsumoa igotzea eragiten duen beste faktore bat). Soldata errealak igotzeari eta maileguei esker, langileek ondasun berriak eros zitzaizketen: etxebizitza, autoa, etxetresna elektrikoak, eta abar. Aldi berean, banku-sistema garatzeak inbertsioaren gorakada ahalbidetu zuen.
- *Produkzio-prozesuaren kontzentrazioa.* Enpresen tamaina haztea izan zen garaiko ezaugarrietako bat. Ezaugarri komunak zituzten punta-puntako enpresek: kapital handia behar izatea sortzeko eta garatzeko, langile kopuru altua eta ekoizten zituzten produktuen askotarikotasuna eta ugaritasuna. Ezaugarri horiekin batera, garrantzi handia eman zitzaien teknologia aurreratuei, ikerketari, lan-antolaketa eraginkorrari eta langileen eta stock-en kudeaketari. Enpresa horietan desagertu egin zen norbanako ugazaba, kudeatzaileak edo managerrak ordezkatu zuen, eta nazioartera zabaldu zen kudeatzeko esparrua. Horregatik jaso zuten multinazional izena askok eta askok. Leku bat baino gehiagotan kokatu zituzten produkzio-unitateak eta prozesua bera zatitu egin zen, toki bakoitzaren abantailez baliatze aldera. Prozesu horren ondorioz areagotu egin zen lanaren nazioarteko banaketa. Zenbait arlo eta esparrutan jaitsi egin zen enpresa kopurua, eta horrek lehiakortasuna murriztu zuen.
- *Lehengai eta, batez ere, erregai merkeak.* Horietako zati garrantzitsua Hirugarren Munduko herrialdeetan zegoen. Herrialde horiek kontrolatzea izan zen, neokolonialismoaren bidez, hazkundearen beste faktore bat. Etapa horretan petrolioa izan zen energia-iturri nagusia (ikatzaren ordeztu) eta, gainera, oso merkea zen.
- *Estatuaren zeregina ekonomia kapitalistan.* Estatuaren esku hartzea edo interbentzionismoa izan zen ekonomia hazteko beste faktore bat. Inbertsio publikoa eta kontsumoa bultzatu zituen estatuak; nabarmen egin zuen gora gastu publikoak. Aurrerago ikusiko ditugu esku-hartze horiek zabalago.

Mundu osora zabaldu zen hazkunde ekonomikoa, baita herrialde sozialistetara ere, eta gerran zeuden estatuetan salbu, ia-ia desagertu egin zen gosea; (albo batera utzi behar da Aurreranzko Jauzi Handian estropezu egin zuen Txina). 1950. urtetik aurrera, garapenaren onura materialak jasotzen hasi zen jende arrunta, eta ez zien arretarik eskaini garapenarekin batera etorri ziren beste aldaketa batzuei, kalteei alegia: kutsadura areagotzea, horrek eragindako hondamendi ekologikoa, edota biztanleria lekuz aldatzeko garatu zen hirigintza basatia.

2.4. ZIKLO EKONOMIKO BERRIA (1973-1990)

1970eko hamarkadatik aurrera aldatu egin zen egoera ekonomikoa. 1973. urtea inflexio-puntua izan zen herrialde kapitalista garatuetakoen ekonomietan; «petrolioaren krisi» moduan ezagutzen dugu une hura: Israelen garaipen militarrei erantzun politikoa emanez, izugarri igo zuten petrolioaren prezioa herrialde arabiarrek, laukoiztu egin ziren prezioak lau hilabeteetan. Aurreko garaiko energia-eredua apurtu zuen igoera horrek. Horren ondorioz, industria-produktuen prezioa ere igo egin zen. Petrolioaren prezioak beste astindu bat izan zuen 1979. urtean, Iraneko islamiar iraultzaren eta Iranen eta Iraken arteko gerraren ondorioz, eta beste krisi handi bat sortu zen. Neurri horrekin batera ekonomiaren zenbait aje azaleratu ziren: AEBk 1971. urtean dolarraren eta errearen arteko parekotasuna (bihurgarritasuna) bertan behera uztea erabaki zuenez, Nazioarteko Diru Sistema krisian murgildu zen. Garai bertsuan edo apur bat lehenago, 1960ko hamarkadaren bukaeran, Mendebaldeko Europan hazkundera moteltzen hasi zenean, ezinezkoa izan zen soldaten eta prezioen igoerak kontrolatzea; izan ere, lan-eskaera eta ondasunen eskaera zegoen, eta inflazioa izan zen ondorioa. Zenbait egilek beste barne-faktore batzuk ere aipatzen dituzte: geldione teknologikoa, langileak berregokitzeko gaitasun mugatua, edota inbertsio-tasaren jaitsiera.

Moteldu egin zen ekonomiaren hazkundera eta, aldi berean, inflazioa eta langabezia hazi ziren; hau da, *estanflazioa* gertatu zen. Ekonomia gutxi ari zen hazten eta era ezegonkorrean, gainera; une batzuetan geratu egiten zen. Aurreko hamarkadetan ez bezala, gora egin zuen langabeziak eta amaitu egin zen enplegu beteko egoera. Krisi-urteetan galdu ziren lanpostu asko ez ziren berreskuratu hazkundera bere onera itzuli zenean. Izan ere, ekonomia berreskuratu zenean, oinarri berriak zituen, eta aldaketa teknologikoek, askotan, beste langile mota bat eskatzen zuten.

Urrezko Aroan adostasun zabala egon zen politika ekonomiko keynesiarraren inguruan; krisi ekonomikoak, aldiz, kontsentsua desegin zuen. Oro har, 1970eko hamarkadan mantendu egin ziren politika keynesiarrak, baina, gehienetan, porrot egin zuten inflazioaren kontrako borrokan eta mantendu egin zen langabezia. Hau da, estatuaren esku-hartzea ez zen krisiak ekiditeko gauza izan eta sektore kontserbadoreek zalantzan jarri zuten politika ekonomiko hura. Horregatik, 1980ko hamarkadan, politika ekonomiko neoliberalak jarri ziren gauzatu ziren praktikan, (batez ere Erresuma Batuan, Thatcher gobernuburuaren eskutik, eta AEBn, Reaganen eskutik). Politika horien lerro nagusiak ekonomia liberalizatuz estatuaren interbentzioa gutxitzea bilatzen zuen. Inflazioaren kontrola eta defizit publikoaren kontrola ziren funtsezko helburuak, eta horretarako murriztu egin behar zen gastu publikoa. Aurreko garaian kontrakoa egin zen, orduan estatuak gehiago gastatu baitzuen, inbertsioa eta eskaria bultzatzeko. Defizit publikoa murrizteko, estatuak gutxitu egin behar zuen gastua; horretarako, alde batetik gastu sozialak murrizten saiatu ziren eta bestetik enpresa publikoak pribatizatzen. 11. gaian ikusiko ditugu politika horren emaitzak eta ondorioak.

2.5. ONGIZATE-ESTATUA

2.5.1. Estatuaren esku-hartzea

Estatuaren interbentzionismo ekonomikoaren oinarri teorikoa John Keynes britainiar ekonomialariaren (1883-1946) ideia da. Keynesek estatuaren esku-hartzea proposatu zuen, merkatu libreak sortzen zituen gorabeherak eta desorekak gutxitze aldera. Zer egin behar du estatuak? eskaria eta inbertsioa suspertu gastu publikoaren bidez, enplegu beteko egoera lortzeko. Hau da, gastu publikoa funtsezko tresna zen krisi ekonomikoak ekiditeko eta hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzeko. Herrialde kapitalista garatuek praktikan jarri zuten politika ekonomiko keynesiarra Bigarren Mundu Gerraren ostean. Beraz, etapa horretan estatuak zeregin ekonomiko garrantzitsua hartu zuten beren gain, hainbat modutan:

- Batetik, inbertsio publikoa indartu zuten kapital pribatuaren kostuak gutxitzeko. Azpiegiturak eraiki zituzten, ikerkuntza zientifikoa eta teknologikoa bultzatu, errentagarriak ez ziren sektore estrategikoak nazionalizatu (ikatz, burdina, argindarra eta ura), lanbide-heziketa eta oinarritzko hezkuntza doan eskaini, enpresa pribatuei zerga-laguntzak eman eta abar.
- Bestetik, eskaria handitzeko hartu zuen esku, erraztasunak emanez biztanleei alde batetik aurrezturikoa bestean gastatzeko. Gizarte-segurantzaren bidez diru-laguntzak eman zitzaizkien langabetuei, erretiratuei eta abarri. Estatuak erosketak areagotu zituen zenbait arlo bermatzeko (zerbitzu sozialak, hezkuntza, osasuna edota etxebizitza), zerga-politikaren bidez (zergak murriztuz, inbertsioa eta kontsumoa handitzeko) eta diru-politikaren bidez (maileguak erraztuz eta interes-tipoak jaitsiz).
- Azkenik, estatuak bere gain hartu zuen zuzendaritza ekonomiko orokorra eta lan-harremanak arautu zituen.

Esku-hartze horren ondorioz, kapitalismoaren izaera aldatu egin zen, eta ekonomia mistoa (estatu eta ekimen pribatua) sortu zen. Baina, 1973. urteko krisia hasi zenean, zalantzan jarri zen estatuaren interbentzionismoa, eta apurtu egin zen ordura arte politika ekonomikoaren eta ongizate-estatuaren inguruan izandako kontsentsua.

2.5.2. Ongizate-estatuaren sorrera eta garapena

Herrialde kapitalista garatuetao gizartea eraldatu duen elementu garrantzitsuenetakoa dugu ongizate-estatu: bizi-baldintzak hobetu zituen, langileriaren integrazioa ahalbidetu zuen sistema kapitalistan, lan-harremanetako bake soziala bermatu zuen eta egonkortasun soziala ziurtatu zuen.

- *Zer da ongizate-estatu?* Bigarren Mundu Gerraren ostean, herrialde kapitalista garatuetao gauzaturiko politika multzoa adierazten du kontzeptuak;

politika multzo horrek XIX. mendeko estatu liberal klasikoa eraldatu zuen. Ongizate-estatuan, botere politikoa erabili zen merkatuaren indarrak eta merkatu librearen jokoa mugatzeko, moldatzeko edo osatzeko. Beraz, ongizate-estatuak (*Welfare Statek* edo Estatu Sozialak) honako hau dakar: estatuak bere gain hartzen du herritarren babes sozialaren ardura, eta onartzen du herritarrari gutxieneko zerbitzu sozialak eman behar dizkiola bizitza duina bermatzeko. Hiru arlotan hartu du esku ongizate-estatuak:

- Ekonomian, enplegu betea lortzeko edota langabezia gutxitzeko (politika ekonomiko keynesiarra).
 - Estatuak izaera unibertsaleko zenbait gizarte-zerbitzu (hezkuntza, osasun-zerbitzua, pentsioak, familiarako laguntzak, eta abar) eskaini behar dizkie herritar guztiei, errenta-maila kontuan hartu gabe.
 - Gutxieneko bizitza-maila bermatu behar du estatuak herritar guztientzat: herritarren eskubide sozialak (soldata soziala, pentsio ez kontributiboak, eta abar).
- *Ongizate-estatuaren oinarriak*. Hiru izan ziren: ekonomikoa, intelektuala eta politikoa. Keynesek bultzatutako politika ekonomikoa izan zen oinarri ekonomikoa. Oinarri intelektuala, berriz, 1942. urtean W. H. Beveridge ekonomialari eta administratzaile britainiarrak idatzi zuen, eta bere izena daraman txostenean aurki daiteke laburbilduta. Txosten horretako proposamena eredu izan zen Europako herrialde gehienetan; oso sinplea zen txostenaren filosofia: herritarrak, eskubide politikoez gain, eskubide sozialak ere baditu. Beraz, estatuak herritar guztiei eskaini behar die babes (arriskuan edo ezbeharrean daudenean, gaixorik, lan-istripua gertatzen denean, zahartzaroan, langabezia...). Horretarako, gizarte-segurantzako sistema global bat eratzea proposatu zuen Beveridgek. Horrez gain, zerga-politikaren bidez politika soziala garatu behar zuen estatuak beste arlo batzuetan: etxebizitzarako laguntzetan, familiarako laguntzetan, enplegu betea lortzeko politikan eta abarretan. Beraz, desberdintasun sozialak gutxitu nahi zituen errenta-banaketaren bitartez.

Oinarri politikoa, azkenik, indar politikoen arteko kontsentsua izan zen. 1945etik aurrera, gerra ostean, demokrazia liberalean oinarritu zen berreraikuntza politikoa, baina aldaketa sakonak izan zituen. Faxismoa eta nazismoa menderatuta, sistema demokratikoa nagusitu zen Mendebaldeko Europan (salbuespenak, Espainia eta Portugal izan ziren). Baina orduan ezarri zen sistema demokratikoak balio sozialak ere hartu zituen kontuan eta ongizate-estatu edo «estatu soziala» izan zen horren emaitza. Sistema berri hori eraikitzeko orduan, indar politiko nagusien (liberalen, kontserbadoreen eta sozialisten) arteko adostasuna egon zen puntu batzuen inguruan: sistema demokratikoa eta parlamentarioa eratu behar zen, batetik, eta, bestetik, merkatu-ekonomia bai, baina estatuak esku hartuta. Kontserbadore eta liberalentzat, estatuak ekonomian eta gizartean parte hartzea sistema kapita-

listaren funtzionamendua hobetzeko tresna zen (1929ko krisia); sozialistentzat, aldiz, errentaren eta aberastasunaren banaketa lortzeko tresna, berdintasun sozialerako hurbilketa, alegia.

Ongizate-estatuaren bilakaeran bi etapa bereiz daitezke: ongizate-estatuaren garapena 1950etik 1973ra bitartean, eta ondorengo urteak. Urrezko Aroan, hazkunde ekonomikoaren garai paregabea garatu zen ongizate-estatua: ikaragarri handitu ziren gastu publikoa eta gastu soziala. Gastu soziala lau arlo nagusitara bideratu zen: pentsioetara (batez beste % 33,65), hezkuntzara (% 22,7), osasun-zerbitzuetara (% 22,4) eta langabetuentzako diru-laguntzetara (% 4,4). 1970eko hamarkadako krisi ekonomikoa lehertu zenean, ongizate-estatua ere krisian eta eztabaidan sartu zen. Bi fenomeno gertatu ziren, aldi berean. Batetik, estatuaren diru-iturriak gutxitu edo eten egin ziren; kontuan hartu behar da ongizate-estatua, azken finean, ekonomia kapitalistaren etekinen bitartez finantzatzen dela. Bestetik, asko igo zen gastu soziala. Urrezko Aroan hasi zen igoera, gizarte-zerbitzuak hobetu eta hedatu zirelako; baina 1973tik aurrera, beste faktore batzuek igoarazi zuten gastu soziala. Biztanleria zahartzearen ondorioz igo egin ziren pentsioen gastuak eta osasungastuak, eta krisi ekonomikoaren ondorioz langabeziak gora egin zuen; eta egoera horretan zeudenei laguntzeak igo egin zuen gastu soziala. Ondorioz, ikaragarri hazi ziren defizit publikoak, eta estatuaren krisi fiskalaz hitz egiten hasi ziren. Egoera horretan, ongizate-estatuaren inguruko adostasuna apurtu zen. Neoliberalismoaren bozeramaileen ustez, ekonomia hazteko oztopo zen ongizate-estatua, defizit publikoa eta inflazioa igoarazi zituelako eta lehiakortasuna ahultzea zekarrelako. Beraz, estatuaren gastua murriztu egin behar zela proposatu zuten neoliberaliek. Planteamendu berri horiek eragin handia izan zuten 1980ko hamarkadan, batez ere AEBn (Reaganen garaian) eta Erresuma Batuan (Thatcherren agintaldian).

2.6. GIZARTE KAPITALISTA GARATUETAKO BIZTANLERIAREN ERALDAKETA NAGUSIAK

Aurreko puntuetan ikusi ditugun aldaketek benetako gizarte-iraultza ekarri zuten, bai herrialde garatuetan (hasita zegoen II. Mundu Gerraren aurretik), bai eta munduko beste toki askotan ere. Atal honetan, herrialde kapitalistetako bilakaera aztertuko dugun arren, bi aipu labur egin nahi ditugu munduko biztanleriaren bilakaeraren inguruan. Lehena biztanleriaren hazkundearekin lotuta dago. Munduan 1990. urtean 5.200 milioi lagun inguru bizi ziren; berrogeita hamar urte lehenago, aldiz, 2.500 inguru. Hazkundeak, gutxi gorabehera % 130ekoa izan da, gizateriak ezagutu duen handiena eta bizkorrena. Urte hartan, 1990. urtean, Asia zen kontinente jendetsuena, 3.100 milioi biztanle baitzuten; ondoren, Amerika (725 milioi), Europa (SB barne) (721 milioi), Afrika (622 milioi) eta zerrendaren azken lekuan Ozeania (26 milioi).

Munduko biztanleriaren hazkundera-tasa

	1950-55	1960-65	1970-75	1980-85	1990-95
Mundua	1,78	1,99	1,95	1,72	1,48
Herrialde garatuak	1,21	1,10	0,79	0,57	0,40
Herrialde azpigaratuak	2,05	2,36	2,37	2,08	1,77

Bigarrena bizi-itxaropenarekin lotuta dago. Bizi-kalitatearen ikur nabarmena dugun faktore horrek izugarritzko aldaketa positiboa izan du azkeneko ehun urteetan. 1900. urtearen inguruan, munduko batez besteko bizi-itxaropena 35 urtekoa zen, eta 1998. urtean, berriz, 66 urtekoa. Orduan bezala, alde handiak daude herrialde batetik bestera edota herrialde bateko eskualde batetik bestera, aberastasunarekin gertatzen den moduan; zorionez, aldea ez da hain handia bizi-itxaropenaren kasuan. Herrialde garatuetan jaiotako bizi-itxaropena 75 urtekoa da gizasemearentzat eta 81 urtekoa emakumearentzat. Indian 62 eta 63 urte dira, hurrenez hurren, eta Saharaz azpiko Afrikan 46 eta 47 urte. Diruaren aldeak askoz ere handiagoak dira: 2000. urtean, herrialde garatuetan per capita errenta biztanleko 27.000 dolar zen, Indian 450 eta Afrikako hegoaldean 470. Are gehiago, bizi-itxaropenaren datuak hurbildu badira ere, errentaren kasuan gero eta zabalagoa da aldea, nahiz eta herrialde askotan hobekuntza gertatu.

Bizi-itxaropena

	1950-55	1960-65	1970-75	1980-85	1990-95
Mundua	46,5	52,3	57,9	61,3	64,3
Gizonezkoak	45,1	51	56,4	59,4	62,2
Emakumezkoak	47,8	53,7	59,4	63,3	66,5
Herrialde garatuak	66,5	69,8	71,2	73	74,2
Gizonezkoak	63,9	66,7	67,2	69,2	70,4
Emakumezkoak	69	72,7	74,7	76,7	78
Herrialde azpigaratuak	40,9	47,7	54,7	58,6	62,1
Gizonezkoak	40,1	47	53,9	57,3	60,6
Emakumezkoak	41,8	48,4	55,4	59,9	63,7

2.6.1. Populazioaren bilakaera

Biztanleriaren bilakaerak hiru garai izan ditu herrialde garatuak: lehenengoan hazkundera izan zen ezaugarri nabarmena; bigarrenean geldialdirako joera nagusitu zen; eta hirugarrenean zahartze-prozesua da nabarmentzekoa. II. Mundu Gerraren osteko hamarkadetan (1960tik 1970eko hamarkadara arte), hazi egin zen biztanleria. Hazkunde horren arrazoi nagusia gerra osteko jaiotza-tasaren gorakada izan zen, *baby boom* izenekoa. Baina jaiotza-tasaren igoera horrek ez zuen luzaroan iraun, eta herrialde gehienetan 1950eko hamarkadaren bukaeran behera egiten hasi zen. Harrezkero, jaiotza-tasek jaisten jarraitu dute. Arrazoi asko daude horre-

tarako: ezkontzeko adina igotzea, ikasketak eta lan-baldintzak direla medio; anti-sorgailuen erabilera orokorra; legedia aldatzea (dibortziazteko eta abortatzeko eskubidea); portaera sozial berriak sortzea; eta emakume ezkondua lan-merkatuan sartzea, besteak beste. Beraz, 1970eko hamarkadatik aurrera moteldu egin da hazkundera, eta kasu batzuetan geratu; horrek zahartu egin du biztanleria.

Jaiotza-tasa (1950-1995)

	1950-55	1960-65	1970-75	1980-85	1990-95
Mundua	37,4	35,3	30,9	27,5	24,1
Herrialde garatuak	22	19,6	16,1	14,5	12,4
Herrialde azpigaratuak	44,5	41,8	36,3	31,5	27,2

Emankortasun-tasa (1950-1995)

	1950-55	1960-65	1970-75	1980-85	1990-95
Mundua	5	4,95	4,48	3,58	2,96
Herrialde garatuak	2,77	2,67	2,11	1,84	1,68
Herrialde azpigaratuak	6,17	6,01	5,42	4,14	3,30

Hilkortasun-tasa (1950-1995)

	1950-55	1960-65	1970-75	1980-85	1990-95
Mundua	19,8	15,6	11,7	10,3	9,3
Herrialde garatuak	10,2	9,4	9,4	9,6	10,1
Herrialde azpigaratuak	24,2	18,2	12,5	10,5	9,1

2.6.2. Nekazari-exodoa, hirigintza-prozesua eta populazio aktiboaren banaketa

Hazkunde ekonomikoa eta hazkunde demografikoak aipatu ditugu, baina bi fenomeno horiekin batera oso esanguratsuak izan ziren biztanleria aktiboan gertatutako aldaketak. Gerraosteko garapenak industrializazio klasikoa indartu bazuen ere, oso laster nagusitu zen hirugarren sektorea, hots, zerbitzuena. Estatu Batuetan, esate baterako, 1950. urtean langileen % 14 ari zen lehen sektorean, % 42 bigarreanean eta % 54 hirugarrenean. Hogeiren bat urteko atzerapenez, ibilbide bera jarraitu zuten herrialde aurreratu gehienek: nekazari-gizarte izatetik zerbitzu-gizarte izatera pasatu ziren, industria-gizartetik igarota. Produktibitatearen eta eskariaren araberakoa izan zen sektore bakoitzaren bilakaera. Argi dago zein izan zen gizarte garatuetakoa joera Urrezko Garaian: hirugarren sektorearen gorakada. Nekazaritzako langile kopuruak beherantz egin zuen (biztanleria aktiboaren % 10 izatera jaitsi zen); nekazaritzako produktibitatea, aldiz, igo egin zen hobekuntza teknikoari eta mekanizazioari esker. Baina, elikagaien eskariak muga fisikoa duenez —herritarren premiaren araberakoa—, beste sektore batzuetara bideratu behar da pro-

dukzioa. Industria-jardueretan ere geldialdiaren edo beherakadaren hasiera gertatzen ari zen, hots, biztanleria aktiboa % 30 ingurura jaitsi zen produkzioaren automatizazioaren eta berrikuntza teknologikoen ondorioz —hor ere produktuen eskaria mugatua da—. Zerbitzu-sektorean, ordea, kontrakoa gertatu zen: % 60 inguru izatera heldu zen hirugarren sektoreko langileria, sektore horretan eskariak ez duelako mugarik eta, bestalde, produktibitatea oso astiro igotzen delako, une jakin batzuetan izan ezik. Murriztu egin zen artisauen eta norbere kontura lan egiten zutenen kopurua, eta ugaritu emakumeen lan ordaindua. Horrekin batera, mugikortasun profesionala eta fisikoa zabaldu ziren; lanpostuz aldatu zen jende asko eta bizitzeko edota lanerako tokiz aldatu beharrean egon ziren asko eta asko.

Europako populazio aktiboaren bilakaera (1910-1980)

		1910	1930	1950	1960	1980
	I	49	39	21	14	5
Suedia	II	32	36	41	45	34
	III	19	25	38	41	61
	I	9	6	5	4	3
Erresuma Batua	II	52	46	49	48	42
	III	40	48	46	48	56
	I	41	36	27	22	8
Frantzia	II	33	33	36	39	39
	III	26	31	37	39	53
	I	55	47	42	31	11
Italia	II	27	31	32	40	45
	III	18	22	26	29	44
	I	50	54	51	56	37
Grezia	II	16	16	21	20	28
	III	34	30	28	24	35

I. Lehen sektorea. II. Bigarren sektorea. III. Hirugarren sektorea.

Prozesu horien beste ondorio esanguratsu bat nekazarien exodoa izan zen; landan bizi eta lan egiten zuten biztanle askok alde egin zuten hirira. Autore batzuek «nekazarien heriotza» esamoldea asmatu zuten fenomeno hori adierazteko. Bi adibide baino ez ditugu jarriko: Japonian biztanleriaren % 52,4 ari zen 1947. urtean nekazaritzan, eta % 9 baino ez 1985. urtean. Espainiarren % 50 inguru zen nekazaria 1950. urtean, eta ez zen heltzen % 10 izatera 2000n.

Barne-migrazioaren ondorioz, gora egin zuen urbanizazio-prozesuak, eta hiri-aglomerazio handiak sortu ziren, kasu askotan planifikaziorik gabe. Era horretan, Lehen Mundutik kanpora ere hiri handiak sortu ziren: Tokio eta New Yorkekin (33 milioi eta 21 milioi biztanle, hurrenez hurren) batera hazi ziren Mexiko (22 milioi), Sao Paulo (19 milioi) eta Kairo (15 milioi). Herrialde garatuetan, komunikazio-

sareak garatu eta hobetzeak eta automobila gehiago erabiltzeak hirien erdialdeak hustea eragin zuen.

2.7. MASA-GIZARTEA ETA KOMUNIKABIDEAK

Jende gehiago bizi zen, tokiz aldatu ziren, bizi-itxaropena luzatu egin zen eta bizikalitatea ondu. Ekonomia hobetzeak bultzatutako iraultza teknologikoak eraldatu egin zuen eguneroko bizitza, eta produktu berriak eskaini ziren edota jakien hornikuntza ziurtatu zen. Adibide bat: antibiotikoen garapenak, gaixotasun arruntak sendatzeaz gain, sexu-harremanetan sortzen ziren gaitzei ere eraso egin zien. Gertaera horrek eta antisorgailu berriak asmatzeak sexu-harremanerako garai berri bat ekarri zuen pertsona guztientzat.

1950. urtetik aurrera, kontsumo-gizartea dugu lehen aldiz historian, langabezia-tasa oso txikia eta gizarte-segurantzaren babesba dituela. Eraldaketa horien ondorio zuzena izan zen klase ertaina haztea eta aldatzea: gizarte garatuetak sektore nagusi bilakatu zen, gutxienez 1980ko hamarkadara arte. Tarte horretan, murriztu egin ziren gizarteko desberdintasunak. Zaila da klase ertaina definitzea, nahiz eta haren ezaugarri batzuk erraz asko identifika daitezkeen: klase zabala da kopuruari erreparatuz gero, heziketari zor dio bere ongizatea, eta kontsumo-ondasunak erosteko ahalmena dauka. Klase ertain berria, zaharra ez bezala, soldatapekoa zen, eta horrek eragina izan zuen gizarte-ohituretan, kulturen eta jarrera politikoetan. Produktuak saltzeko eta zerbitzuak eskaintzeko erreferentzia bilakatu zen klase ertaina, bai merkataritzaren ikuspuntutik, bai eta alderdi politikoen aldarrikapenei dagokienez ere.

Garaiko beste ezaugarri bat dugu gazteria kategoria edo gizarte-talde independente moduan agertzea. Ordura arte haurren eta helduen arteko multzo aldakorra zen eta, Aro Garaikidean bereziki, soldadutzarekin edota ezkontzarekin amaitzen zen gaztaroa. Mundu-gerraren ostean, gizarte-bizitzako garairik onenentzat hartu zen gaztaroa, hain justu ere, zaharren kopuruak gora egin zuen sasoian. Ezinbesteko erreferentzia bilakatu zen gazteria, bereziki bizimodu bat markatu zuelako, baina bai eta kontsumo-ondasunen saltzaileen helburu garrantzitsu bilakatu zelako ere. Nagusitu zen gazte-kulturaren ereduak hainbat ezaugarri zituen eta horien artean lau nabarmenduko ditugu: 1) merkatu-ekonomiarekin zuen lotura, nahiz eta haren aurka azaldu behin baino gehiagotan; 2) nazioarteko ereduak erabiltzen zituen, irati-musikari eta turismo-bidaiei esker; 3) aurreko belaunaldien balioekin apurtzen saiatu zen; eta 4) kultura-eredu berria sortu zuten, sexua bizitzeko modu berria ere bai; drogak goraiatu zituzten eta ezinbesteko bihurtu zen musika. Antisorgailuak zabaltzeak aukera eman zuen sexua eta amatasuna bereizteko; LSDak, marihuanak edota heroinak alkoholak edota tabakoak ez zituzten konnotazioak zituzten belaunaldi gazteentzat, nahiz eta askori heriotza ekarri. Garaiko ikur nagusi bilakatu zen rock musika, aurreko munduarekin apurtzen zuelako.

Komunikabideek hartu zuten lekua izan zen beste aldaketa esanguratsu bat. Komunikabideen mendea izan zen XX. mendea, eta lehen aldiz informazioa berehala eta zuzenean lortzeko aukera garatu zen. Prentsa idatziak baliabide tekniko berriak garatu zituen, baina batez ere, irratiaren, zinemaren eta telebistaren aroa izan zen. 1920ko hamarkadan hasi ziren zabaltzen irrati komertzialak, eta soinua-ren transmisioak aukera eman zuen gertakarien kontaketa urrutira zuzenean bidaltzeko. Lehenengo telebista-katea New Yorken ireki zen 1928. urtean, eta gerraostean oso azkar zabaldu zen telebista. 1946. urtean Estatu Batuetan 600.000 aparatu zeuden, eta 7.500.000, lau urte geroago. Tresna berriak sinesgarritasun handia lortu zuen irudiek ikuskizuna gertakari erreal bihurtzen zutelako. Era horretan, gure garaiko komunikazio-tresna garrantzitsuena bilakatu da irudia. Komunikabide modernoak hedatzeak ondorio zuzenak izan zituen kultura komuna garatzeko, gizarteko homogeneizatzeko-prozesuetan eta merkatu bateratuak eratzean. Izan ere, merkatu zabala behar da masa-gizartea sortzeko.

2.8. MENDEBALDEKO KULTURAREN KRISIA

XX. mende-hasieran egoera paradoxikoa bizi zuen munduak. Europako herrialdeek kontrolatzen zuten mundua. Modernitatea zen nagusi: bizitzaren aurrean ikuspegi baikorra izatea, arrazoiaren gizartea defendatzea, natura menderatzeko gaitasuna goraiatzea, edota gizakiaren askatasunean sinestea ziren ezaugarriak. Lehen Mundu Gerraren ondoren, kolokan jarri zituzten balio horiek European bertan. Krisiaren lehen adierazpenak ikusi ziren arte plastikoetan (surrealismoan edota espresionismoan), baina baita filosofian edota literaturan ere, itxaropen eza edo absurdoa defendatzen zuten idazleen eskutik. Bigarren Mundu Gerraren ostean, areagotu egin zen krisia eta horren aitzindari izan ziren zibilizazioaren egonezina eta munduaren zentzugabetasuna adierazten zuten zenbait korrante filosofiko eta literario; existentzialismoa, besteak beste, edo Pollock pintorearen espresionismo abstraktua.

1960. urtetik aurrera, iraultzen hasi zen kultura. Aldaketa garrantzitsuak izan zituzten ordura arteko moralak eta pentsaerak, giza harremani dagokienez eta norberaren betebeharrak eta eskubideak finkatzeko orduan. Aldaketa horiek, gehiago edo gutxiago, mundu osoan izan zuten eragina. Zientzian eta tekniketan gertatutako berrikuntzek gizakiaren bizitza errotik aldatu zuten, eta ezagutzaren oinarri teorikoak berriz aztertu beharra erakutsi zuten. Garai hartako jakintza-arlo garrantzitsuenak Fisika, Biologia eta Informatika izan ziren. Fisikaren begirada bi muturretara zuzendu zen: unibertsoa behatzera eta atomoa aztertzerara. 1964. urtean quark-ak definitu ziren, hots, neutroien eta protoien oinarritzko osagaiak, eta agerian geratu zen ezagutzak beste muga bat gainditu zuela. Biologian, bizitzaren jatorria izan zen helburua eta bi aurrerapen garrantzitsu lortu ziren: kodifikazio genetikoren hastapena, 1956an ADNren osagaiak eta egitura aurkitu zirenean, eta

manipulazio genetikoa zabaltzea. Garai berean eman zuen informatikak lehen emaitza esanguratsua: 1944. urtean eraiki zen *Mark I* kalkulagailu elektromekanikoa eta hari esker izugarri handitu zen kalkulatzeko ahalmena. Unibertsoa, materia eta gizakia ulertzeko bide berriak zabaldu ziren. Zientziaren garapenak errotoik astindu zituen botere politikoa, militarra, soziala eta ekonomikoa, eta ordura arte pentsaezinak ziren berrikuntza ugari ahalbidetu ziren.

Hainbat ondorio sozial izan zituen aldaketak. Bi baino ez ditugu nabarmenduko hemen: familia-egituretan gertatutako aldaketak eta sekularizazio-prozesuak. Munduko herrialde gehienetan familia-ereduak hainbat ezaugarri komun zituen: gizonaren eta emakumearen ezkontzaren ondoren sortutakoa izatea, senarraren agintea emaztearen gainetik egotea, gurasoek zuzentzea seme-alaben norabidea, eta zaharrenek gazteenak bideratzea. Eredu hori kolokan jarri zen XX. mendearen amaieran, erritmo batean herrialde bakoitzean, baina norabide berean. Gutxitu egin ziren ezkontzak eta ugaritu dibortzioak. Britainia Handian, esate baterako, 1985. urtean, bi bikote ezkondu eta bat dibortziatu egiten ziren. Ume kopurua ere jaitsi egin zen, eta sexu-joera desberdinak (homosexualitatea eta lesbianismoa) onartzeko erraztasun handiagoa dago XX. mende-bukaerako Mendebaldeko gizarteetan. Horren trukean, jendea gero eta bakartiago bizi da, bereziki hiri handietan, eta toki askotan umeak haztea emakume ezkongabeen ardura da. Hala gertatzen da, adibidez, Estatu Batuetako familia beltzen % 58ren kasuan.

Erligioaren eragina jaitea da garai hartako beste fenomeno sozial esanguratsu bat. Gero eta jende gutxiago hasi zen elizara joaten, nahiz eta garai hartan oraindik lotura mantendu erlijioarekin, bizitzako zenbait une garrantzitsu ospatzeko: bataioa (jaiotza), ezkontza eta heriotza. Ipar European, biztanle gehienek beren burua protestante aitortzen zuten, baina oso gutxi ziren praktika erlijioso publikoari eusten ziotenak edota ateo moduan azaltzen zirenak. Fenomeno nahiko orokorra izan zen herrialde garatuetan, beharbada Estatu Batuen salbuespenarekin, baina nabarmenagoa herrialde katolikoetan, erlijiotasuna abiadura handiagoan jaitsi baitzen urte horietan. Egoera paradoxikoa gertatu zen urte horietan: Eliza Katolikoak ahalgin handia egin zuen mundu modernora hurbiltzeko, bere ekintzak eta filosofia berritzeko eta eguneratzeko. Joan XXIII. Aita Santuak bultzatutako Vatikanoko II. Kontzilioa (1962-1965) izan zen lan horien bilgune, baina berandu zen. Eliza Katolikoak karitatea, bakea eta ekumenismoa lehen mailan jarri zituen unean, kristau bakoitzaren ardura aldarrikatu zuenean, milioika lagunek eman zieten bizkarra erlijio-egiturei eta Eliza Katolikoak egoera berrira ezin egokituta geratu zen.

Paulo VI.aren (1963-1978) eta Joan Paulo I.aren (1978) agintaldien ondoren, Poloniatik etorri zen Aita Santu berria, Karol Wojtyła. Harena izan zen Eliza Katolikoaren ardura 1978tik 2005era bitartean. Haren aitasantutza paradoxiko moduan definitu du batek baino gehiagok. Kanpora begira egin zuen lan Aita Santuak komunikabideen laguntzarekin, eta herritarrekin harreman zuzena bilatu zuen

ekitaldi jendetsuetan. Kalera atera zituen Eliza Katolikoaren jarraitzaileak, baina haren mezuek jarrera kontrajarriak sorrarazi zituzten. Alde batetik, herrien eta pertsonen askatasunaren alde mintzatu zen, komunismoa erori zenean paper garrantzitsua izan omen zuen, kapitalismoaren eta kontsumismoaren alderik ilunena salatu zituen, Hirugarren Munduarekiko hurbiltasuna erakutsi zuen eta, herrialde asko mutu geratu zirenean, Estatu Batuen zerbitzura, Irakeko Gerraren aurka azaldu zen. Bestetik, bere aurrekoak baino kontserbadoreagoa izan zen eta nagusikeriaz jokatu zuen Elizaren barruan: apaizen ezkongetza defendatu zuen, emakumeen apaiz izateko eskubidea ukatu zuen, jaiotza-kontrolaren aurka azaldu zen, eta teologiaren irakurketa tradizionalena bultzatu zuen. Bere ahaleginak gorabehera eta sortzen zuen miresmena gorabehera, katoliko askok uko egin zieten haren mezuei; Elizaren doktrinaren aginduen artean aukeraketa egin eta erlijio pertsonala eraiki zuten.

2.9. EMAKUMEEN EGOERA BERRIA HERRIALDE GARATUETAN

Emakumeen egoerak izandako onerako aldaketa da garai horretako beste ezaugarri garrantzitsu bat. XX. mende-hasieran, mugimendu sufragistak borroka luzea bultzatu zuen emakumeentzat boto-eskubidea lortzeko, eta hala gertatu zen herrialde askotan. Itxuraz, alta, eskubide berria ez zen gauzatu gizarte-aldaketa esanguratsuetan. II. Mundu Gerrak eragindako eskulanaren premiaren ondorioz, emakume asko ohiko jarduera eta guneetatik atera eta gizonen parean jarri ziren, orduko hartan itzulerarik gabe. Dena den, aldaketa horrek muga bat zuen: emakumea ezkontzen zenean, salbuespenak salbuespen, lan-merkatutik kanpo gelditzen zen beriz. Egoera iraultzeko ez zen nahikoa emakumea jarduera berrietan aritzea; izan ere, Sobietar Batasunean, esate baterako, iraultzatik aurrera emakume ezkonduak lan egiten zuten, baina ez zen gizartea aldatu.

Berrikuntza, beste arlo askotan bezala, Estatu Batuetan gertatu zen. Datuak oso esanguratsuak dira: 1940. urtean, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeen % 14 ezkondua zen, 1980. urtean, % 50. Prozesuak hiru hanka izan zituen: proposamen teorikoa, aukera soziala eta lehentasun eta berrikuntza ekonomiko-teknologikoak (ez halabarrez hurrenkera horretan). Azkenekoaren aipamen laburra baino ez dugu egingo. Emakumeek indar fisiko handia behar zuten lanean aritzeko XIX. mendera arte, eta iritzi zabaldua zen lan astunak gizonen kontua zirela. Berrikuntza teknologikoei eta zerbitzu-sektorearen garapenari esker, indar gutxiago behar zuten lanpostuak sortu ziren eta emakumeak errazago sartu ziren ordaindutako lan-merkatura. Gainera, kontsumoa hazteak beharrezko egin zuen, kasu askotan, bi soldata izatea etxean, bizitza-mailari eutsi ahal izateko.

1949. urtean Simone de Beauvoir frantziar idazleak argitaratutako *Bigarren Sexua* liburua izan zen emakumeen askapen-mugimenduari aitzindari berria. Bertan, legearen aurreko berdintasunaren orde, gizonen eta emakumeen egune-

roko bizitzan egon beharreko berdintasuna aurkeztu zuen Beauvoirrek eta, gizona-
ren erreferentziaren orde, emakumezkotasuna aldarrikatu zuen. 1963. urtean
Betty Friedan estatubatuarrek *Feminitatearen Mistika* idatzi zuen; gizarte garaiki-
dean emakumeek zuten papera kritikatu zuen, erabat baztertuta zeudelako. Hiru
urte geroago, NOW erakunde sortu zen (*National Organization for Women*) eta
AEBko talde feminista ugari bildu zituen bere baitan. Erakunde horrek garrantzi
berezia izan zuen abortuaren aldeko legeak onartzeko, emakumeen lana arautzeko
eta, oro har, emakumeak beren eskubideen alde mobilizatzeko. Doktrinazko oinarri
horiek gorabehera, mugimendu feministak hainbat iturritatik edan zuen eta taktika
desberdinak erabili zituen, lortu nahi zituen helburuak eta bidaideak ere
askotarikoak zirelako.

Planteamendu teorikoa bezain interesgarria da ikustea nola gauzatu zen
errealitatean ibilbide hori. Klase ertaineko emakumeak izan ziren prozesu horren
protagonista; izan ere, emakume pobre ezkonduak lan egin behar izan zuten
nahitaez, XX. mende-hasieratik umeen lana debekatu zenez geroztik. Klase
ertaineko emakumeek, aldiz, egoera berria zuten. Etxetresna elektrikoak zabal-
tzeak (garbigailuak eta hozkailuak, bereziki) etxeko lanak arindu zituen, eta horri
esker emakumeak denbora gehiago zuten etxetik kanpo lan egiteko. Nola bilbatu
emakumeen lana eta familia-bizitza? Norberaren askatasuna lortzeko eta senarra-
rengandik autonomia lortzeko aukera gisa ikusten zuten hasieran lana, nahiz eta
oso laster ekarpen ekonomikoa ezinbestekoa izan bizitza-mailari eutsi ahal izateko.
Ordura arte, emakumeen kezka nagusia gizonetik berdintasuna lortzea zen; or-
duan, ordea, ezberdintasuna eta horri zegozkion eskubideak aldarrikatuko zituzten;
esate baterako, haurdunaldi- eta amatasun-baimenak lortzea. Bestalde, etxetik
kanpo lan egin ahal izateko haur gutxiago izateko eskubidea aldarrikatu zuten:
antisorgailuak edota abortatzeko eskubidea. Klase ertaineko feminismoak feminis-
mo orokorra bultzatu zuen, emakume guztien kezkak plazaratu zituelako. Haien
eskaeren eragina, kalean eta lantokian ez ezik, familia-giroan eta etxean ere ikusi
zen. 1990. urtean, herrialde industrializatuetan, lanean ari ziren 100 gizoneko ia 80
emakumek zuten ordaindutako lanpostu bat.

2.10. GIZARTE-HARREMANAK ETA GATAZKAK

2.10.1. Langileria, klase-gatazka eta lan-harremanak

1945. urteaz geroztik izandako aldaketen artean bat nabarmenduko dugu
hurrengo lerroetan: eskulangileen bilakaera. Nahiz eta gizarte-talde horretako
kideen kopuru absolutua handitu, murriztu egin zen biztanleria aktiboaren
proportzioa; % 30era heltzen zen batez beste herrialde aurreratuetan eta, hori
gutxi balitz, ekoizpen-sistemek izandako berrikuntzek barne-aldaketa sakonak
eragin zituzten. Herrialde aurreratuetan, langileen bi sektore klasikoek (mea-
tzariek eta burdingintzan ari zirenek) behera egin zuten nabarmen. Mende-

bukaeran, Estatu Batuetan soldatapeko gehiago ari zen Macdonald jatetxeetan lanean siderurgian baino. Urrezko Aroan langileen lan- eta bizi-baldintzak aldatu eta hobetu egin ziren, lehenago ikusi dugun prozesuari esker. Klase ertainak ere soldatapeko lana egiten zuen. Talde horren lan- eta bizi-baldintzak eta eskulangileenak desberdinak ziren; promoziorako aukera gehiago zuten lehenengoek. Langileriaren aniztasun etnikoa gehitu zitzaion aniztasun horri, migrazioen gorakadaren ondorioz.

1970eko hamarkadatik aurrera eta krisi ekonomikoaren ondorioz, aldaketa gehiago gertatu ziren; beste azpiklase bat sortu zuten pobreek eta baztertuek, hau da, merkatu-ekonomian lekurik ez zutenek (pobreak, epe luzeko langabetuak, gutxiengo etnikoak eta abar). Errealitate sozial konplexu hori adierazteko, *bi hereneko gizartea* esamoldea erabili dute autore batzuek: sistema kapitalistak nahiko ondo funtzionatzen du gizartearen bi herenentzat (langileak barne), baina beste herena baztertua gelditzen da. Aldaketa horiek guztiek ahuldu egin zuten langile-kontzientzia, «gu kolektiboa»ren ordez, «ni»a nagusituz joan baitzen.

Halaber, lan-harremanak ere aldatu egin ziren: klase-borrokararen ordez negoziazioaren bidea gailendu zen lan-harremanetan. Sindikatuak izaera politikoa galdu zuten kasu gehienetan eta batasun sindikalerako joera zabaldu zen; hobekuntza zehatzak lortzera bideratu zen sindikatuen estrategia. Maila ekonomikora mugatu zen klase-gatazka eta ez zuen gizartearen eta ekonomiaren eredia aldatzea planteatzen. Sindikatuak gero eta indartsuagoak izan arren, gero eta integratuago zeuden sistema kapitalistan —langile-alderdiak ere bai—. Esaldi bakarrean esanda, langile-mugimenduak galdu egin zituen garai batean izandako izaera eta helburu iraultzaileak, eta instituzionalizatu egin zen.

2.10.2. Gizarte-mugimendu berriak

Prozesu kontrajarriak bultzatu zituen gizarte garatuen bilakaerak. Hemen aipatuko duguna gizarte-protestekin lotuta dago. Gerraostean zegoen barne-egonkortasun politikoak politika klasikotik aldendu zituen zenbait lagun eta talde. Haien ustez, alderdi politikoak (baita ezkerrekoak ere) elitistak eta burokratikoak ziren, eta haien jarduera hauteskundeak irabaztera eta boterea kudeatzera mugatzen zen. Horretarako, klase ertainaren babesa bilatzen zuten eta, ondorioz, apaldu egin zituzten eskaerak. Egoera horri aurre egiteko, XIX. mendean, alderdi sozialistak eta masa-alderdiak garatu aurretik, hain ohikoak ziren gizarte-mugimenduen (alkoholismoaren edota esklabotzaren aurkakoak, emakumeen eta haurren eskubi-deen aldekoak) antzeko mugimenduak agertu ziren berriz ere. XX. mendean lehen erdian ezkutuan edo bigarren mailan egon zirenez, 1960ko hamarkadan azaldu zirenei deitzeko «gizarte-mugimendu berriak» kontzeptua erabili zen; halaber, mugimendu haiek eta langile-mugimendua desberdinak zirela adierazteko. Zertan bereizten ziren gizarte-mugimendu horiek? Gizarte-mugimendu berrien

protagonismoa klase desberdinetako kideen esku zegoen. Haien eskakizunak ez ziren, zuzenean behintzat, ekonomikoak eta ez zituzten gizarte-klase jakin baten interesak defendatzen, gizarte osoarenak edo identitate berezi baten arabera gorpuzten zen gizarte-talde batenak baino. Oso helburu desberdinak zituzten: arrazakeriaren aurka borrokatzea, sexu-diskriminazioa amaitzea, militarismoa desagertzea, kutsaduraren eragin kaltegarria deuseztatzea, makinismoari aurre egitea, multinazionalen gehiegizko boterea salatzea, eta abar. Antolatzeko moduak ere ez zion jarraitzen alderdi klasikoaren ereduari: elkarte handiak eta hierarkizatuak sortu beharrean, antolaketa-maila txikiko taldeak agertu ziren eta bat-batekotasuna nagusitu zen kideen arteko harremanetan. Ekintza kolektiboek ere bide eta era «berriak» erabiltzen zituzten: batzarrak, okupazioak, sinadura-bilketak, jaialdiak, ekintza ikusgarriak eta abar.

AEBn, beltzen eskubide zibilen aldeko borrokan eta, bereziki, 1960ko hamarkadako ikasle-mugimenduan dago mugimendu horien jatorria. Izan ere, aipatu ditugun aldaketek eta goi-mailako hezkuntza hedatzeak gizarte-talde bihurtu zuten unibertsitateko ikasleen multzoa; besteak beste, XX. mende-hasieran baino askoz ere gehiago zirelako. Frantzian, adibidez, 1968an milioi erdi ikasle zegoen, 1950ean baino bost bider gehiago. Gizarte-talde berria eta gatazkatsua izaki, ikasleria bere nortasun eta indar sozialaz jabetu zen, eta 1939 baino lehen zenbait lekutan izan zuten protestatzeko ohitura berreskuratu zuten. Ikasleak ez ezik, gazteria, oro har, indar sozial berri gisa gorpuztu zen eta protagonismo handia eskuratu zuen bizitza kulturalen zein politikoa.

Kontrakultura oso bat sortu zen giro horretan (mugimendu *hippya*, eta abar): garapen kapitalistaren ereduaren kontra eta kontsumo-gizartearen kontra zegoen, eta bizimodu alternatiboak proposatzen zituen (komunak —familia klasikoaren kontra—, hierarkiarik gabeko bizimoduak, sexu-askapena, estetika berria...). Kontrakultura horrek eragin handia izan zuen gazteen artean, balioen eta ohituren iraultzan hain zuzen. Hori gutxi ez eta, hamarkada hartan nazioarteko hainbat gertaerak eragin zuzena izan zuten mugimenduaren garapenean eta bereziki mugimendua erradikal bihurtzean: Algeriako independentziaren aldeko gerra (1962an lortu zuen independentzia); Kubako Iraultza (1959); Vietnamgo Gerra... Itxaropen berriak sortu ziren Hirugarren Munduan eta, horren eraginez, Lehen Munduan ere bai. Testuinguru horretan, borroka horien alde azaldu zen gazteriaren zati bat eta jarrera tinkoa erakutsi zuten iparramerikar inperialismoaren aurka. Vietnamgo Gerraren kontrako mugimendua izan zen adibiderik argiena.

Komunismoaren aurkako kritikak ere izan ziren, baina askoz ere apalagoak izan ziren, alde batera utzita 1968ko Poloniako eta, bereziki, Pragako protestak. Mendebaldeko herrialdeetan, ezker erradikalaren sorrera izan zen kritika horien ondorioetako bat. Sobietar komunismoa alde batera utzita, talde berriak troskismoaren edo maoismoaren inguruan lerratu ziren, eta gizarte-babes urria ordezkatzeko

kideen dinamikotasuna erabili zuten. Geroago esan denaren aurka, talde horien ezaugarri komun garrantzitsuena kapitalismoaren eta burgesiaren aurkako herra izan zen, nahiz eta talde horietako asko izan gizarte-klase horretako kide. Garaiko gauzak hobetzeko itxaropenak mugiarazten zituen, eta ez zituzten kontuan hartu belaunaldi zaharragoen hitzak (aurreko garaiak askoz ere txarragoak izan zirela azpimarratzen zutenak, edota hauteskunde bitartez aukeratutako erakundeak direla demokraziaren bermerik onena adierazten zutenak). Baketsuak ziren hasierako ekintzak, baina hamarkadaren bukaeran indarkeriaz nahasiriko protestak nagusitu ziren: grebak, manifestazioak eta kale-erreboltak.

Testuinguru horretan piztu zen 1968ko ikasle-mugimendua. AEBko unibertsitateetan protesta handiak izan ziren Vietnamgo Gerraren kontra, baina fenomeno Alemaniara, Italiara eta beste herrialde batzuetara ere zabaldu zen; Frantzian izan zuen, batez ere, eragin handiena.

Nahasia izan zen Frantziako mugimendua eta eskakizun bat baino gehiago zeuden atzean: unibertsitate-sistemaren kontrako protesta (masifikazioaren, irakaskuntza zaharkituaren, hierarkiaren eta diziplinaren kontra); Frantziako sistema politikoaren aurkako mugimendua —De Gaulle jeneralaren presidentzia kontserbadurismoarekin, nazionalismoarekin eta autoritarismoarekin lotzen zen—; antiimperialismoaren eta «hirugarrenmundutarrismoaren» defentsa eta, oro har, gizarte kapitalistaren balioen kontrako jarrera. 1968ko maiatzeko mugimenduak oihartzun berezia izan zuen Frantzian, beste herrialdeetan ez bezala ikasle-mugimenduak eta langile-mugimenduak bat egin zutelako eta protestek krisi politiko sakona sorrarazi zutelako. Nanterreko Unibertsitatean hasi zen gatazka, Pariseko kanpoko aldean, baina Sorbonako ikasleek bat egin zuten haiekin eta unibertsitatean sartu zen polizia. Orduan zabaldu egin zen ikasleen matxinada eta ugaritu egin ziren manifestazioak, bai eta poliziaren eta ikasleen arteko istiluak ere, hilabete osoan. Istiluen ikur bihurtu ziren barrikadak, baina gertaerak eta enfrentamenduak oso gogorrak izan arren, polizia neurritz aritu zen eta ez zen hildakorik egon Parisen istiluek iraun zuten bitartean. Maiatzaren 13an sindikatuek bat egiten zuten mugimenduarrekin, errepresioaren aurka protestatzeko eta lan-eskaerak egiteko. Greba orokorrerako deia egin zuten eta Frantzia osoa gelditu zen. Sindikatuek lan-eskakizunak (soldata-igoera, gutxieneko soldata eta eskubide sindikalak) negoziatzeko erabili zuten garaipena, eta maiatzaren 25ean akordio batera heldu ziren gobernuarekin eta enpresaburuekin. Astebete geroago, 600.000 frantziarrek Pariseko kaleak hartu zituzten De Gaulle jeneralaren alde azaltzeko. Mugimenduaren amaiera izan zen. Presidenteak hauteskundeak deitu zituen eta, uste zenaren aurka, eskuineko alderdiek garaipen nabarmena lortu zuten.

Asko idatzi da 1968ko maiatzari buruz eta, bereziki, haren ondorioei buruz. Pariseko matxinadaren buru izan zen Daniel Cohn-Bendit-ek irabazi egin zutela baieztatu zuen berrogeigarren urteurrenean, egungo bizitza-estiloak bat egiten

duelako 1968ko aldarrikapenekin, pertsonen arteko harremani dagokionez. Garbi dago, ordea, epe motzera porrot politikoa izan zela. Ikasleek bakarrik ezin zuten iraultza egin, eta beste inork ez zuen inolako iraultzarik nahi. Hurrengo urteetan azaldu edo indartu ziren fenomeno asko 68ko ondorio moduan aurkeztu dira: feminismoaren indarra, bizimoduaren eta ohituren liberalizazioa, ekologismoa, mugimendu bakezaleak eta globalizazioaren kontrako mugimenduak, besteak beste; baina, maiz, zerikusi gutxi izan dute orduko bultzatzaileen helburuekin.

Zenbait tokitan, 1968ko protesten harira, indarkeria politikoa agertu zen berriz eta ezker muturreko talde batzuek armak hartu zituzten, estatuetako buruzagiei eta kapitalismoaren ikurrei eraso egiteko (Frantzian *Action Directe*, Alemanian *RAF* taldea —Baader-Meinhof izenez ere ezaguna— eta Italian *Brigate Rosse* taldea). Italian, eskuin muturrekoak ere agertu ziren. Zaila da lerro gutxitan azaltzea terrore politikoa berriz agertzeko arrazoiak, eta nekez bidera daitezke faktore bakarrera. Aurreko belaunaldien konformismoa astintzeko nahia eta Hirugarren Munduan arrakastaz erabiltzen ziren metodoen imitazioa dira, seguru asko, une hartako arrazoi garrantzitsuenak. Ahaleginek porrot egin zuten eta ez zuten arrasto positiborik utzi. Aitzitik, segurtasun-indarren ahalmena eta estatuaren kontrol-gaitasuna haztea erraztu zuten.

1970eko hamarkadatik aurrera, aurreko urteetako ahaleginen porrotak beste aldaketa filosofiko bat bultzatu zuen, postmodernitatea, alegia. Baikortasunaren orde, eszeptizismoa eta kritika izan ziren nagusi, eta desagertu egin zen irtenbideak proposatzeko gaitasuna, erlatibismoaren izenean. Gilles Lipovetsky-ren esanetan, «hustasunaren aroa» hasi zen. Norbanakoaren garrantzia da, kolektiboaren kaltetan, joera berrien beste euskarri bat. Baina 1968ko jarraitzaileek pentsatzen zutenaren aurka, nahi horrek politikoki eskuina indartu zuen. Ahaidetasuna, auzotasuna eta komunitatea ustez desagertu ziren garai horretan, bakoitzak bere burua salbatu behar zuen. Filosofia horren adierazpen politikoa Margaret Thatcher lehen ministro britainiarrak azaldu zuen, gizarterik ez zuela ezagutzen azaldu zuenean, norbanakoak baizik.

TESTU-ERANSKINA

1936, KEYNESEN PLANTEAMENDUAK

Azaldutako teoriaren ondorioak nahiko kontserbatzaileak dira arlo batzuetan; izan ere, gaur egun ekimen pribatuaren esku uzten diren arlo askotan Gobernuak zenbait kontrol ezarri beharra azpimarratzen du, baina jardueraren beste arlo askotan ez du inolako eraginik. Estatuak, zerga-sistemaren bitartez, bideratu egin behar du kontsumitzeko joera; interes-tasak finka ditzake edo beste bide batzuk erabil ditzake orientatzeko bide horretan. Bestalde, badirudi berez ez dela nahikoa banku-politikaren eragina interes-tasan, inbertsio hoberenaren tasa ezartzeko. Beraz, nire ustez, ia inbertsio guztiak sozializatzea izango da erabateko okupazioa lortzeko bide bakarra; baina horrek ez du baztertzen agintaritza publikoa ekimen pribatuarekin batera lankidetzan aritzeko beste edozein bide, transakzio edo modu. Hortik kanpora ez da inola ere bultzatzen elkarrearen jarduera ekonomiko gehiena bere gain hartuko lukeen estatu-sozialismoa. Estatuari ez zaio komeni produkzio-bideen jabe izatea. Nahikoa da produkzio-bide horiek areagotzeko errekurtsioak zenbat diren zehazteko gai izatea, eta horien jabeek zenbat irabazten duten jakitea. Gainera, sozializatzeko hartu beharreko neurriak gutxika-gutxika har daitezke, gizartearen tradizioei bizkarra eman gabe.

Orain arte onartutako teoria ekonomiko klasikoa kritikatu dugunean, ez ditugu bilatu azterketaren ondoriozko akats logikoak; honako hau azpimarratu dugu: teoria klasikoak oinarritzat hartzen dituen taktika-hipotesiak ez direla ia inoiz edo inoiz egokiak, eta horretan oinarriturik ezin direla konpondu mundu errealeko arazo ekonomikoak. [...]

Iturria: Keynes, J.M. (1936): *Teoría general de la ocupación, el interés y el dinero*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1956, 362-364.

1954, BIZTANLE LANGILEEN BANAKETA SEKTOREKA

Jean Fourastié-k, Colin Clark-ek eta A.G.B. Fisher-ek honela formulatu zuten beren hipotesi ospetsua, hiru sektoreen hipotesia, alegia: aldaketa saihestezina da nekazaritza-gizartetik zerbitzu-gizartera edo industria ondokora igarotzea, gizarte industrializatutik igarota. Ekonomia-sistema modernoaren logikan oinarritu zuten beren hipotesia:

- 1) Muga fisiko bat du elikagaien eskaerak; horren ondorioz, ongizatea handitu ahala, industria-gaietara eta zerbitzuetara lerratzen da etxe barruko premien egitura.
- 2) Mekanizazioak eta industrializazioak, batez ere industria-ekoizpenarenak, hirugarren sektoreko zerbitzuak garatzea eskatzen du, esate baterako bigarren mailako salgaiak saltzeko eta mantentzeko.
- 3) Aurrerapen teknikoek asko igotzen dute produktibitatea lehenengo sektorean eta bigarrenean eta, beraz, eskulana libre uzten dute; hirugarren sektorean, aldiz, askoz astiroago egiten du gora produktibitateak. Hirugarren mailako gai gehiago eskatzeak igoarazi egiten du, orain arte, sektore horretako langile kopurua.
- 4) Batez ere barne-merkatua zerbitzatzeko egiten du lan hirugarren sektoreak; beraz, nazioarteko merkatuak eta atzerritarren lehiak lehenengo sektorean eta bigarrenean baino eragin txikiagoa dute hirugarren sektorearen bolumenean eta zabaltzeko aukeran, eta gutxiago mugatzen dute.

Badirudi, Europari dagokionez behintzat, datu enpirikoek baieztatu egiten dutela aipatutako tesia; baina, garapen erreala ez da guztiz bat etorri ereduarekin. Nazioarteko konparazio batek agerian uzten du baldintza geografikoen eta historikoen garrantzia, orobat, ezaugarri nazionalena: Europatik kanpoko herrialde oso garatu guztietan —AEBn, Kanadan, Japonian, Australian—, nahiz eta industrializazioak indar handia izan, industrian baino gero eta langile gehiago aritu dira zerbitzuetan. Herrialde horietan, zuzenean igaro ziren nekazaritza-gizartetik zerbitzuen gizartera. Europan bertan ere, herrialdearen arabera ezberdina izan zen egituren aldaketa gertatu zen unea eta aldaketaren hedadura.

Iturria: Ambrosius, G. eta Hubbard, W. H. (1992): *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Alianza, Madril, 76-77.

1968, «MARTXOAREN 22KO MUGIMENDUAREN» PANFLETOA, PARIS

Ikasleak eta langileak: zuen borroka geure borroka da!

Guk fakultateak hartzen ditugu, zuek fabrikak hartzen dituzue. Denok ari gara borrokan gauza beraren alde? [...]

Pariseko eskualdean 1.000 liberako gutxieneko soldata eskatzen duzue, 60 urterekin erretiratzea, eta berrogei orduko astea, oraingo berrogeita zortzikoa bezala ordainduta.

Bidezkoak eta antzinakoak dira eskabide horiek. Hala ere, badirudi ez dutela loturarik gure helburuekin. Dena dela, fabrikak hartzen dituzue, ugazabak bahitzen dituzue, aurretiaz abisatu gabe egiten dituzue grebak. Borrokatzeko modu horiek posible izan dira enpresetan luzaroan jarraikitasunez egindako borrokei esker, bai eta ikasleen duela gutxiko iskanbilei esker ere.

Gure zilegizko eskabideak baino erradikalagoak dira borroka horiek; izan ere, sistema kapitalistan, langileen egoera hobetzea ez ezik, sistema hori suntsitzea dute helburu. Hitzaren zentzurik estuenean dira politikak; ez zarete borrokatzen lehen ministroa aldatzeko, ugazabak enpresan nahiz gizartean boterea gal dezan baizik. Zuen borrokatzeko moduak ekintza benetan sozialisten eredia eskaintzen digu ikasleoi: langileak ekoizpen-bideez eta beren erabakitze ahalmenez jabetzea.

Elkartu egiten dira zuen borroka eta gurea. Beharrezkoa da batzuk besteengandik bakartzen gaituzten gauza guztiak suntsitzea (ohiturak, egunkariak, eta abar). Loturak ezarri behar dira enpresa eta fakultate okupatuen artean.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 299-300.

1980, M. FRIEDMAN, NEOLIBERALISMOAREN APOSTOLUA

XIX. mendeko gobernuak oso mugatuak ziren eta botere gutxi zuten; egoera hartan, ez zuten erdi mailako gizonak mehatxatzeko gaitasunik. Bestalde, gizalegeko jendeak on egiteko ere botere gutxi zuen gobernuak; zer konpondu asko zegoen mundu ez perfektu hartan. Gainera, gizarteak berak aurrera egin ahala, salagarriago bihurtu zituen agerian ziren injustiziak. Beti bezala, jendeak ez zituen zalantzan jarri aurrerapen mesedegarriak, eta ahaztu egin zitzaion zer arriskutsua izan zitekeen gobernu indartsu bat askatasunaren kaltetan. Hori ikusi ordez, jendearentzat erakargarriagoak ziren gobernu indartsu batek egin zitzakeen gauza onak, betiere gobernuak esku «onetan» egonez gero.

Britainia Handian, XX. mendearen hasieran hasi ziren ideia horiek eragina izaten estatuaren politikan. Estatu Batuetako intelektualen artean ere harrera ona izan zuten, baina oso eragin eskasa gobernuaren politikan, 30eko hamarkadako lehenengo urteetako Depresio Handira arte. Depresio horretan, talde askok ikusi zuten merkatu libreko sistema kapitalistaren porrota. Mito horrek bultzatu zuen herritar arrunta intelektualen erara pentsatzera, norbanakoari eta gobernuari dagozkien ardurei buruz. Aldatu egin zen norbanakoaren ardurei buruzko ikuspegia. Hau da, etorkizuna erabakitzeko norberak duen eraginari ematen zitzaion garrantzia lehenago; orain, aldiz, norbere kontroletik kanpo dauden indarrek bultzatuta mugitzen da norbanakoa, ikuspegi berriaren arabera. Estatuaren zereginari buruzko ikuspegia ere aldatu egin zen. Lehenago pentsatzen zen arbitrolana egin behar zuela Estatuak herritarren arteko borrokak saihesteko. Orain, berriz, aita gisa ikusten da Estatuak, hots, batzuek besteei laguntzera behartu behar dituen erakunde gisa.

Iritzi horiek nagusitu dira Estatu Batuen bilakaeran, azken berrogeita hamar urteetan. Haien eraginez, areagotu egin da ekimen publikoa maila guztietan eta, aldi berean, tokian tokiko estatu eta erakundeek boterea transferitu diete estatu federalari eta Washingtongo burokratei. Estatuak gero eta gehiago arduratu da batzuei kentzeaz, beste batzuei emateko, betiere segurtasunaren eta berdintasunaren izenean. [...]

Baina azken urteotako eskarmentuak —hazkunde txikiagoa eta produktibitatearen jaitsiera— zalantza sorrarazten du: irudimen pribatuak jarrai ote dezake gobernu-kontrolaren ondorio kaltegarriak estaltzen, orain arteko bide beretik jarraituz gero? (hau da, estatuari gero eta botere handiagoa emanez gero, eta funtzionario «klase berri» bati baimena emanez gero, gure diru-sarreraren gero eta zati handiagoa gasta dezaten, teorian, gure onerako). Arinago edo geroago —eta, beharbada, gutariko gehienok uste baino lehenago— sektore publiko gero eta interbentzionistagoak suntsitu egingo ditu merkatu libreari zor diogun aberastasuna eta Independenziaren Aldarrikapenean garbi adierazita dagoen gizakiaren askatasuna. [...]

Iturria: Friedman, M. eta Friedman, R. (1980): *Libertad de elegir*, Orbis, Bartzelona, 1983, 19-23.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Aldcroft, D.H. (1999): *Historia de la economía europea, 1914-1980*, Crítica, Bartzelona.
- Ambrosius, G. eta Hubbard, W.H. (1992): *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Alianza, Madril.
- Berzosa, C. (koord.) (1994): *La economía mundial en los 90. Tendencias y desafíos*, Fuhem-Icaria, Madril.
- Berzosa, C.; Bustelo, P. eta Iglesia, J. (2001): *Estructura económica mundial*, Síntesis, Madril.
- Christian, D. (2005): *Mapas del tiempo. Introducción a la «gran Historia»*, Crítica, Bartzelona.
- De La Dehesa, G. (2002): *Comprender la globalización*, Alianza, Madril.
- Hobsbawm, E. J. (1995): *Historia del siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- Judt, T. (2006): *Postguerra. Una Historia de Europa desde 1945*, Taurus, Madril.
- Kurlansky, M. (2005): *1968. El año que conmocionó al mundo*, Destino Bartzelona.
- Livi Bacci, M. (2008): *Historia mínima de la población mundial*, Ariel, Bartzelona.
- Maddison, A. (1992): *La economía mundial en el siglo XX*, Fondo de Cultura Económica, México.
- Nash, M. (2004): *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*, Alianza, Madril.
- Núñez Florencio, R. (1993): *Sociedad y política en el siglo XX. Viejos y nuevos movimientos sociales*, Síntesis, Madril.
- Pérez Ledesma, M. (2007): «La sociedad burguesa», in M. Artola, (zuz.), *Historia de Europa*, 2, Espasa, Madril, 648-674.
- Pollard, S. (1992): *Los cambios económicos. Riqueza y pobreza*, Aguilar, Madril.
- Rubio Lara, M. J. (1991): *La formación del Estado Social*, Ministerio de Trabajo, Madril.
- Tilly, C. (2004): *Social Movements*, Paradigm, Boulder.
- Vallin, J. (1995): *La población mundial*, Alianza, Madril.
- Wee, H. van der (1986): *Prosperidad y crisis, 1945-1980*, Crítica, Bartzelona.

3. Ameriketako Estatu Batuak

3.1. SARRERA

XX. mendearen bigarren erdiko gertaera politikoetan, ekonomikoetan, sozialetan eta kulturaletan Estatu Batuek izandako garrantzi eta eragin handiaren ondorioz, «mende amerikarra» deitu zaio garai osoari. Izan ere, munduaren bilakaera ulertzeko biztanle guztiak garrantzitsuak diren arren, ezinbestekoa da Estatu Batuen jokabidea ezagutzea azkeneko hirurogei urteak azaltzeko. Are bitxiagoa da egoera, kontuan hartzen badugu hango biztanle askorentzat nazioarteko politikak eta haien lurraldetik kanpo gertatzen denak ez dutela inongo garrantzirik. Lurraldearen tamaina handiak eta biztanle kopuru altuak ia-ia kontinente bilakatu dituzte Amerikako Estatu Batuak; horren ondorioz, bi ikuspegi izan behar dira kontuan Estatu Batuen historia aztertzeko orduan: barne-dinamika eta kanpo-dinamika. Kanpo-dinamikari dagokionez, zenbait ataletan ikusiko eta aztertuko dugu. Hirugarren gai honetan, Estatu Batuetako barne-politikan murgilduko gara bereziki; horretarako, sistema politikoaren ezaugarri nagusiak azaldu ondoren, 1945. urtetik aurrera izandako bilakaeraren berri emango dugu: garai bakoitzeko gertaera eta gizarte-aldaketa garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu, izandako presidenteen agintaldietan oinarrituz.

3.2. SISTEMA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK

Egonkortasuna da Estatu Batuetako sistema politikoaren ezaugarri nagusia. Alderdi politiko ugari egon arren, gizartean aldaketa sakonak izan arren, eta nahiz eta deialdiren batean hautagai independenteren batek babes esanguratsua jaso, bi alderdi baino ez dira aritu benetan presidentea aukeratzeko lehian azken hirurogei urteotan; biak dira (Alderdi Errepublikanoa eta Alderdi Demokrata) XIX. mendean sortutakoak. 1787ko Konstituzioak ere ez du izan funtsezko aldaketarik urteotan guztietan, eta, ondorioz, botere politikoa banatzeko egiturak ere ez. Hainbat arrazoi daude egonkortasuna azaltzeko, eta laburbiltzen saiatuko gara ondoko lerroetan.

Bi dira arrazoi garrantzitsuenak: Estatu Batuak sortu zituzten pentsalari eta politikoen malgutasuna eta botere-kontzentrazioari zioten mesfidantza. Konstituzioak esklabotza eta indioen mendekotasuna onartzen zituen, eta esklabotzaren abolizioak eta estatuen arteko harremanak ulertzeko era desberdinek gerra zibil odoltsua piztu zuten 1860tik 1864ra bitartean. Harrezkero, ordea, tentsio handiko

uneak gertatu arren, gai izan da bere egitura politikoa berritzeko, Konstituzioaren testuan funtsezko aldaketarik egin gabe, 1919an emakumeek boto-eskubidea lortu zutenetik aurrera.

Konstituzioak bi oinarri ditu: batetik, estatuaren autogobernua (hasieran, eman-tzipatu ziren 13 koloniena; gaur egun, 50 estatuena) eta agintaritza zentrala era-ztea; bestetik, botereen banaketa, hiru botere (legegilea, betearazlea eta judiziala) eta horien arteko oreka kontrolatuz.

Estatu Batuek egitura federala dute: estatu bakoitzak bere konstituzio-legedia du eta erakunde-sistema propioa. Oro har, konstituzio eta erakunde-sistema horiek konstituzio federalaren printzipio politikoetan oinarritzen dira. Esate baterako, botereen banaketari dagokionez, estatu bakoitzak du botere legegilea; sufragio uni-bertsalaren bidez hautaturiko gobernadoreak ordezkatzan du botere betearazlea; eta jurisdikzio federaletik kanpo gelditzen diren delituak epaitzen ditu estatuaren espa-rruko sistema judizialak. Zenbait gaitan, desberdintasunak daude estatuaren legedien artean: heriotza-zigorrean, ezkontzan eta abarretan. Halaber, estatuak eskumen za-balak dituzte hezkuntzari, justiziari eta errepide-sareari dagokienez, besteak beste.

Botereen arteko banaketan, orekan eta elkarren kontrolean oinarritzen da ad-ministrazio federala. Kongresuak (botere legegileak) ezin du presidentea kargutik kendu, baldin eta delitu larririk egin ez badu, eta presidenteak (botere betearaz-leak) ezin du Kongresua desegin. Presidenteak izendatzen ditu Auzitegi Nagusiko epaileak, Senatuaren oniritziarekin; baina behin izendatuta, bizitza osorako kar-guak dira eta independentzia osoa dute; besteak beste, legeen konstituzionaltasuna epaitzen dute.

Botere legegile federala bi ganberatan banatuta dago; bakoitzak bere eskumen bereziak ditu, eta biek dute botere legegilea, biek onartu behar baitituzte lege-proiektuak eta aurrekontu federala. Batetik, Ordezkarien Ganbera dago: bi urterako hautatutako 435 kidek osatzen dute. Kopuru hori aldatu egin da populazioaren bi-lakaeraren arabera. Ordezkarien Ganberaren eskumen azpimarragarrienak honako hauek dira: zerga-politika finkatzea; barne-politika, oro har; eta nolabaiteko botere konstituziogilea, haren esku baitago Konstituzioaren emendakinak onartzea. Horretarako, gehiengo kualifikatua eskatzen da, Kongresuaren bi herenen eta estatuaren asanblada legegileen hiru laurdenen onespena lortu behar baita.

Senatua da bigarren ganbera. Estatu bakoitzak bi senatari hautatzen ditu sei urterako, eta ganberaren heren bat aldatzen da bi urterik behin. Era horretan, oso gutxitan izaten du erabateko gehiengo alderdi bakar batek Ordezkarien Ganberan eta Senatuan. Senatuaren eskumen garrantzitsuenak honako hauek dira: gobernuko karguak izendatzea (presidenteak Senatuaren oniritzia behar du zenbait kasutan) eta kanpo-politika kontrolatzea (nazioarteko hitzarmenak berrestea, besteak beste).

Lau urterako hautatutako presidentearen esku dago botere betearazlea. Zeharkako sufragio unibertsalaren bidez hautatzen da: lehenengo, alderdi bakoitzak bere batzarrean izendatzen du presidentegaia; bigarrenik, sufragio unibertsalaren bidez, hautesleak hautatzen dira eta, azkenik, hautesle horiek presidentea izendatzen dute. Presidentearen eskumenak oso zabalak dira: administrazio federalaren burua da eta kanpo-politika zehazten du. Estaturburua denez, nazioaren boterearen ikurra da, indar armatuen burua, eta gerra-garaian, gainera, indartu egiten dira presidentearen eskumenak. Baina egunoroko erabakiak, legeak eta aurrekontuak aurrera ateratzeko, bi ganberen babesa bilatu eta lortu beharrean izaten da.

Auzitegi Gorena da botere judizialaren erpina: Senatuaren oniritzia jaso ondoren, presidenteak izendatutako bederlatzi epailez osaturik dago. Ospe handiko erakundea da: batetik, azken auzitegia (azken instantzia) da eta, bestetik, epaitegi konstituzionala, estaturen legeen zein lege federalen konstituzionaltasuna aztertzen duena. Zenbait kasutan, haren erabakiek eragin handia izan dute Estatu Batuetako gizartean, haurdunaldiak eteteko eskubidea berretsi zenean, esate baterako.

Egonkortasuna azaltzeko bigarren arrazoi multzoa lotuta dago Estatu Batuetan nagusi izan diren balio ideologikoekin. Aspaldi azaldu zituen Alexis Tocqueville frantziar pentsalariak Estatu Batuetako biztanleen arteko berdintasun soziala (ez ekonomikoa) eta bizitzari aurre egiteko zuten baikortasuna. Antzeko hausnarketa egin zuen, mende erdi geroago, Manfred Sombart alemaniar soziologoak; haren ustez, mende-hasieran, Estatu Batuetan oinarritzko kontsentsu zabala zegoen estatua eta gizartea ulertzeko moduan. Liberalismo politikoa izan da nagusi Estatu Batuetako pentsamenduan, eta orain ere hala da, bai arlo politikoan (estatuaren eginkizunak mugatuak dira: gizabanakoaren eskubideak bermatu behar dira gizabanakoaren garapena lortu ahal izateko), bai arlo ekonomikoan (lehiakortasunaren eta merkatu askearen defentsa). Herrialde industrializatua izanik, ez sozialismoak, ezta Europar indar handia izan duten bestelako korrante ideologiko batzuek ere (tradizionalismoak edo faxismoak), ez dute ia eraginik izan hango bizimoduan. Adostasun zabal horri esker, ez du zilegitasun-krisirik pairatu, Europak ez bezala (faxismoa, mugimendu iraultzaileak, eta abar).

Liberalismoarekin batera indibidualismoa da nagusi Estatu Batuetan. Gizabanakoa arduratu behar da bere buruaz eta jardun horrek muga gutxi ditu. Pertsona bakoitzaren ahaleginaren ondorio da gizartea, bakarka edo Eliza, erakunde eta fundazioen bitartez. Gizabanakoaren uste, sinesmen edo mito horrek garrantzi handia du estatubatuar gizartean hasiera-hasieratik, gizabanakoaren borrokak natura menderatu eta zibilizazioa hedatu baitzuen. Hortik eratorri dira mugako bizitzaren mitoa eta Mendebaldearen konkistaren mitoa, Estatu Batuen ikur bilakatu direnak. Sentimendu horien —ez hainbeste liberalismoaren— ondorio logikoa da hango biztanle gehienek duten sentimendu nazionalista berezia eta nagusitasun-sentimendua: harrotasun amerikarra; lehenago babesgabea edo bizitzeko desegokia zen lurraldea askatasunaren, garapenaren eta aurrerapenaren lurralde bihurtu dutela

sinesten dute amerikarrek. Historian zehar nazionalismo berezi horrek hainbat aterabide izan ditu. Une batzuetan, AEBk misio berezi bat zuela munduan sinetsi dute estatubatuarrek, esate baterako, arrisku komunistatik salbatzea; eta beste garai batzuetan, aldiz, isolamendurako joera bultzatu dute eta indar eta kezka guztiak barnera begira jarri dituzte. Erljioa ulertzeko moduan ere nabaritzen da joera hori. Biztanle gehienak kristauak izan arren, eliza eta sinestunen talde ugari sortu da bertan, eta harreman estuak izan dituzte Bibliako Itun Zaharreko erlijioaren eta aberriaren artean.

Nekeza da, Europatik begiratuta, nazionalismo-sentimendu hori ulertzea, kontuan hartzen badugu kultura eta arraza anitzeko gizartea dugula estatubatuarra. 1820. urtetik aurrera, 60 milioi etorkin baino gehiago hartu ditu AEBk. XIX. mendean zehar WASP (anglosaxoi protestante zuriak) taldearen nagusitasun kulturala ezartzen eta mantentzen saiatu ziren «melting pot» edo «arrazen arragoa»ren bitartez, hots, bertara heltzen zirenei arestian aipatutako balioak zabalduz eta onarraraziz. Gaur egun, kultura anitz dira Estatu Batuetako gizartean, eta horietako talde askok beren berezitasunak baieztatzen dituzte: afroamerikarrek, juduek, hispanoek, asiar jatorrikoek, eta abarrek. Hau da, talde etniko bakoitzak diferentziaren eskubidea eskatu eta aldarrikatzen du, nor bere modura garatzeko («melting pot»aren orde, multikulturalismoa). Dena den, aldarrikapen horien atzean, sarritan, integrazio-arazoak eta gatazka etnikoak ezkututzen dira. Hainbat egileren aburuz, Samuel Huntington-en eta Robert Kaplan-en hitzetan esaterako, gehiegizko aniztasunak eta oinarritzko kontsentsua ahultzeak arrisku larriak ekarriko lizkiokete Ipar Amerikaren batasunari. Hala ere, badirudi 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondoren berpiztu zen iparramerikar nazionalismoak baztertu egin duela aukera hori.

3.3. AMERIKETAKO ESTATU BATUEN BILAKAERA POLITIKOA ETA SOZIALA (1945-2001)

1945etik 1990era bitartean, Estatu Batuetako historia lotuta dago Gerra Hotzaren nondik norakoekin. Komunismoaren kontrako borrokaren ondorioz, AEBk bi gerratan (Koreakoan eta Vietnamgoan) hartu zuen parte. Txarra izan zen emaitza estatubatuarrentzat eta ahalegin ekonomiko eta militar handia egin zuen AEBk; baina, hala ere, garaile atera zen komunismoren aurkako lehian, Sobietar Batasunak ezin izan baitzion eutsi arma-lasterketari 80ko hamarkadan. Beraz, antikomunismoa izan zen kanpo-politikaren ardatza, baina etxeko politikan ere izan zuen isla. Dena den, egonkortasuna dugu barne-politikaren ezaugarri nagusia: bi alderdi handiak (demokratik eta errepublikanoak) txandakatu ziren agintean. Bestalde, gobernu federalaren eginkizunak handitu ahala, administrazio federala eta burokrazia ere handitu egin ziren. Ekonomiari dagokionez, Ameriketako Estatu Batuen urrezko garaia izan ziren 1945etik 1970era bitarteko urteak, munduko kapitalismoaren zutabe nagusi bilakatu baitzen AEB, eta 70eko hamarkadara arte hazi egin zen

ekonomia, parekorik gabe. Hala ere, 70eko hamarkadako krisi ekonomikoaren ondorioz, ahuldu egin zen AEBren nagusitasuna munduko ekonomian, indartu egin baitziren lehiakide berriak (Japonia eta Europa, batez ere). Testuinguru horretan kokatu behar dugu nazioarteko diru-sistemaren eta dolarraren krisia. Hiru aro bereiz daitezke garai horretan, eta aro bakoitzeko presidenteen agintaldiak aztertuko ditugu.

a. 1945-1961: Gerra Hotzaren mende

Lehen faseak gerraondoa eta Gerra Hotzaren lehen aldia hartzen ditu. Arazo larri eta berriei erantzun behar zieten Estatu Batuak. Batetik, gerratik bakera igaro behar ziren eta igarobide horretan ekonomia egokitu behar zuten (1929. urteko krisitik ateratzeko lehenengo, eta Bigarren Mundu Gerraren ostetik irteteko geroago); bestetik, nazioarteko sistema berria antolatu behar zuten eta Gerra Hotzari egin behar zioten aurre. Bi presidente ditugu etapa honetan: Harry Truman (1945-1953) eta Dwight Eisenhower (1953-1961).

Harry Truman Franklin Roosevelten presidenteordea zen eta, Roosevelt hiltzean, II. Mundu Gerra amaitzeaz zegoela, presidente bihurtu zen. Berak ezarri eta zehaztu zuen AEBren nazioarteko politika berria eta, beraz, protagonismo handia izan zuen Gerra Hotzaren sorreran (ikus 1. gaia). Garrantzi berdina, edo handiagoa, izan zuen haren barne-politikak, oharkabean pasatu bazen ere. Lau erronka izan zituen aurrez aurre: 1929ko krisitik ateratzeko ibilbidea sendotzea; gerrak eta industria-hazkundeak ekarritako gizarte-aldaketei eustea; soldaduei, etxera itzultzean, bizimodu duina eskaintzea; eta, oro har, gerra-ekonomiatik bake-ekonomiarako bidea egitea. Hori guztia egiteko, *Fair Deal* izeneko politika proposatu zuen; hau da, nolabaiteko Roosevelten *New Deal*en jarraipena, baina izaera aurreratuagoarekin: babes sozialeko programak sortu, gutxieneko soldata igo, nekazaritzarako diru-laguntzak eskaini, estatuaren esku-hartze ekonomikoa bultzatu, batez ere etxebizitzak eta azpiegiturak eraikiz, eta abar; politika ekonomiko keynesiarra landu zuen, hots, gastu publikoa erabili zuen krisi ekonomikoa gainditzeko. Horrekin batera eskubide zibilen, bestela esanda, beltzen eskubideen aldeko neurriak proposatu zituen. Egitasmo horrekin 1948. urteko hauteskundeak irabazi zituen, baina ezin izan zuen bere politika erabat aurrera eraman, Kongresuan errepublikanoek zutelako gehiengoa 1946. urteaz geroztik. Gainera, bere alderdiko hainbat kide ere, bereziki hegoaldekoak, politika horren aurka azaldu ziren.

Errepublikanoen gehiengoak eta, oro har, Gerra Hotzak komunisten edo ustezko komunisten kontrako errepresioa bultzatu zuten, histeria giroan. Joseph McCarthy senatari errepublikanoak (ultranazionalista eta ultraeskuindarrak) eman zion izena 1950etik 1954ra bitarteko garaiari, maccarthysmoari, alegia. Kanpo-politikan egindako aldaketak justifikatzeko, Trumanek puztu egin zuen mehatxu komunistaren arriskua, eta Sobietar Batasunak eta nazioarteko komunismoak AEBko segurtasun nazionala arriskuan jartzen zutela azpimarratu zuen. Giro

horretan, 1947an hasi zen ustezko komunisten kontrako errepresioa: funtzionario federalen jarrera ideologikoak ikertu ziren eta kaleratu egin zituzten batzuk. Gainera, garai hartako zenbait gertakarik areagotu egin zuten komunismoaren beldurra amerikar gizartean: Txinako iraultza komunistak, 1949an sobietarrek bonba atomikoa lortzeak, eta 1950ean Koreako Gerra hasteak. Une hartan azaldu zen, hain zuzen, McCarthy senataria. Trumanen jarrera bigunegia zela salatu zuen, eta komunistak botere- edo eragin-esparruetan infiltraturik zeudela baieztatu zuen. Hori dena ikertzeko, Amerikarren Aurkako Ekintzen Batzordea erabili zuen Senatuak, McCarthyren zuzendaritzapean.

Inkizizioaren metodoak erabili zituen batzordeak eta elkarte edo pertsona susmagarrien jarrerak ikertu zituen. Sindikatuetan, zinemaren industrian eta administrazioan komunisten ustezko infiltrazioa deuseztatzea zen batzordearen helburua. Intelektual, profesional eta politikari progresista asko akusatu zituzten, eta ospea eta izen ona —kasu askotan lana— galdu zuten (Chaplinek, Hemingwayk, B. Brechtek...). Aipatzekoa da Hollywooden kasua; zinema-industriak eredia eskaini behar zionez iparramerikar gizarteari, garbiketa gogorra egin zen arlo horretan (zerrenda beltzak). 1952ko hauteskundeak Eisenhower errepublikanoak irabazi arren, McCarthyk bere lanari eutsi zion, boterea eta eragin-eremua handitu nahian; baina Armadaren kontra kritikak egin zituenean, haren aurkako jarrera nagusitu zen. Gainera, orduko errepublikanoei ez zitzairen interesatzen McCarthy bezalako politikari bat. 1954an, Senatuak berak gaitzetsi zuen McCarthyren jokabidea.

Truman presidentearen ondoren, Dwight Eisenhowerrek bete zuen postua (1953-1961), 1952. urteko hauteskundeak irabazi baitzituen. Nor zen Eisenhower? Eskarmentu politiko txikiko gizona zen, baina eskarmentu militar handikoa (tropa aliatuen burua II. Mundu Gerraren garaian), eta hortik zetorkion ospea. Hauteskunde-kanpainan, Koreako Gerra amaituko zuen hitza eman zuen. Haren agintaldiko gertaerarik garrantzitsuenak honako hauek izan ziren: nazioarteko politikari zegokionez, baretu egin zen Gerra Hotza Sobietar Batasunean izandako aldaketen ondorioz (desestalinizazioa) eta bakezko bizikidetzara nagusitu zen (ikus I. gaia); barne-politikan, maccarthysmoa amaitu zen. Beste gauza guztien gainetik, Estatu Batuen hamarkada mitikoa izan zen 1950eko hamarkada: gora egin zuen ekonomiak eta kontsumo-gizartea eratu zen. Sasoi hartan, eredu bihurtu zen amerikarren bizimodua (ongizate ekonomikoa eta kontsumo-maila), eta geroago, 60ko hamarkadan, Mendebaldeko European ere antzeko eredia nagusitu zen. Aise nabaritzen da iparramerikarren ereduaren nagusitasuna musikan edo zineman, baina rock and rollaren garapenak eta haren estetika apurtzaileak gauzak aldatzen ari zirela erakusten zuten; nagusien eta gazteen belaunaldien artean irekitzen ari zen lubakiaren lehen lekukoa izan zen rock and rolla.

Gobernuaren politikak ere eragin zuzena izan zuen eredu aldaren zedin hurrengo urteetan, liskar eta gatazken artean. Trumanek bezala Eisenhowerrek ere herri-lanak bultzatu zituen: bizitza bakarrekotik urbanizazio ugari egin ziren hirietatik kanpo eta autopistak eraiki ziren, automobilen bitartez hiriak eta bizitokiak lotzeko. Gizartearen segmentazioa izan zen horren ondorio bat, klase ertainek erdiguneak utzi baitzituzten, kanpoko auzoetara jotzeko. Orduan agertu ziren merkataritza-gune erraldoiak. Talderik txiroenak baino ez ziren gelditu hirien bihotzetan, eta horrek indartu egin zuen ghetizazio-fenomenoa. Garai hartakoak dira, halaber, beltzen eskubide zibilien aldeko lehen ekintza entzutetsuak: 1955ean Alabamako Montgomery hirian egindako autobusen boikota eta 1957an Arkansas estatuko Little Rock eskolako istiluak, ikasle beltz batzuek bertan ikasteko eskubidea erabili nahi izan zutenean gertaturikoak, hain zuzen.

b. 1961-1981: amerikar ametsaren gailurra eta krisia

Garai kontrajarria izan zen hogeitaz hamar urte horien artekoa. Aldaketaren itxaropenarekin hasi zen, eta historiako egoera kritikoenak bizi izan zituzten Estatu Batuetan, presidente baten hilketak eta beste baten dimisioa tarteko. Horretaz gain, Vietnamgo Gerrak eta gizarte-krisiaren ondorioek bortizki astindu zuten iparramerikarrek beren buruaz zuten irudia.

J. F. Kennedy (1961-1963) eta Lyndon B. Johnson (1963-1969)

Irudi berria zen Kennedy AEBko agertoki politikoan. Belaunaldi berrien aldatzeko nahia islatzen zuen eta, beraz, Eisenhowerren hamarkada kontserbadorearen amaiera. Bere egitasmoan *muga berri baten konkista* proposatzen zuen (paralelismoa eginez Mendebaldearen kolonizazioarekin). Dena den, okerra izango litzateke pentsatzea amerikar gizartearen erabateko iraultza gertatu zela. Kennedy demokrotak botoen % 49,7 lortu zuen, 68.895.628 boto-emaitzen artean Richard Nixon errepublikanoak baino 92.727 boto gehiago. Edozein kasutan, bere irudiak (gaztetasunak, itxura aurrerakoia) garaiaren ikur bilakatu zuen Kennedy; askoren ustez, telebistan eskainitako irudiak egin zuen garaile Estatu Batuek orain arte izan duten presidente katoliko bakarra.

Oparotasun ekonomikoa aprobetxatuz, baztertuak gizartearen integratzea zen Kennedyren barne-politikaren helburua; pobrezia kontrako programak eta arrazakeriaren kontrako politikak (arrazakeria eta pobrezia lotuta daude) bultzatu zituen horretarako. Izan ere, eztanda egin zuen arrazen arteko arazoak 60ko hamarkadan.

Askok aldatu zuen beltzen egoera II. Mundu Gerraren ostean. Estatu Batuetako industria indartu zuen gerrak, eta beltz askok nekazari-eremuak utzi eta hirietara jo zuten lan bila. Baina, hala ere, lehendik bizi zuten mendekotasunean jarraitu zuten askok. Munduko herririk aberatsenean, beltzak baztertua bizi ziren maila guztietan (ekonomian, politikan, kulturen eta gizartearen) eta eguneroko bizitzako arraza-

bereizkerian gauzatzen zen (autobusetan, jantokietan, ikastetxeetan eta abarretan). Esate baterako, 1954. urtera arte Auzitegi Gorenak ez zuen Konstituzioaren aurkakotzat jo eskoletako arraza-diskriminazioa. Edozein modutan, halako legeak eta epaiak ez ziren kasu askotan indarrean jartzen, batez ere hegoaldeko estatuetan. Ikusi dugunez, Eisenhowerren garaian hasi ziren beltzen protestak eta hirurogeiko hamarkadan areagotu egin ziren; batetik, lehenago ez bezala, mugimendu antolatu bat prestatzeko gai izan zirelako, agintarien eta elizetako taldeen laguntzari esker eta, bestetik, helburu zehatzagoak zituzten buruzagi karismatikoak agertu zirelako.

Bi joera nagusi gertatu ziren beltzen mugimenduaren barruan: M. Luther King-ek zuzendutakoa eta Malcom X buruzagi izan zuena. M. Luther Kingek ordezkatzan zuenak joera bakezalea zuen eta beltzen eta zurien arteko integrazioa bilatzen zuen (ikus testu-eranskina). 1950eko hamarkadaren amaieran eta 60ko hamarkadaren hasieran nagusitu zen M. Luther Kingen mugimendua. Beste joera 1960ko hamarkadan zehar joan zen hedatuz; erradikalagoa zen, bai metodoetan bai edukietan, eta beltzen arteko elkartasuna —beltzen artekoa bakarrik— aldarrikatzen zuen (ikus testu-eranskina). Joera horren buruzagi nagusia Malcom X izan zen (1965ean eraila), eta bereziki Luther Kingen hilketaren ondoren hartu zuen indarra (1968tik aurrera). Talde erradikal berriak sortu ziren, *Black Panthers*ak (nazionalismo erradikal beltza, borroka armatuaren aldekoa); lelo berriak plazaratu ziren (*black power*) eta, amerikar kulturaren ordeztan, afroamerikar kultura aldarrikatu zuten joera horien bultzatzaileek.

Eskubide zibilen aldeko mugimenduak hainbat aurrerapen lortu zituen legearen esparruan (Kennedyren garaian eskubide zibilen legea prestatu zen, eta Johnsonen garaian onartu zen), baina horrek agerian utzi zuen legediaren eta errealitatearen arteko aldea. Ez ziren desagertu ghettoak eta beltzen pobrezia; gaur egun ere, konpondu gabeko arazoa da AEBko gizartean beltzen arraza-integrazioa. Egoera deigarria da, kontuan hartuz gero beltzak baino geroago heldutako beste talde batzuek (korearrek, vietnamdarrek edo hinduek, esate baterako) arazo gutxiago izan dutela Estatu Batuetako gizartean murgiltzeko. Esklabotasunaren itzalak eta beltzen familia-egiturek (ezkondu gabeko amen kopuru altuak, adibidez) badute zerikusia egoera horretan.

Kanpo-politikari zegokionez, Kennedyk sendotu eta finkatu egin nahi izan zuen AEBren buruzagitza nazioartean. Zenbait ekimen bultzatu zituen helburu horrekin, baina arrakasta eskasa izan zuen kasu gehienetan. Hego Amerikan «Alianza para el Progreso» bultzatu zuen; garapen ekonomikoa sustatzeko eta iraultzaren arriskua uxatzeko egitasmoa zen, baina porrot egin zuen. Sobietar Batasunaren aurrean, hedapen komunistaren kontrako politika gogorrari eutsi zion: Cochinos badiako inbasioa baimendu zuen (Eisenhowerren garaian prestatutakoa), Kubako misilen krisian tinko mantendu zen, eta Vietnamgo Gerra hasi zuen, berak erabaki baitzuen hango gobernuari laguntza militarra eskaintzea.

Heriotzak bihurtu zuen mito Kennedy: 1963. urtean atentatu batean hil zuten Dallasen; oraindik eztabaida asko sorrarazten duen hilketa izan zen.

Haren politika jarraitu zuen hurrengo bost urteetan Lyndon Jonhson presidenteordeak; 1964an erraztasun handiz irabazi zituen hauteskundeak, botoen % 61arekin. Garaipen horrek bultzatuta, Kennedyk amaitu gabe utzitako proiektu batzuk gauzatu zituen, batez ere politika sozialean eta arrazen auzian: eskubide zibilen legea onetsi zuen, arraza-bereizkeria debekatu zuen, eta beltzek botoa emateko eskubidea bermatu zuen. Lehendabizikoz epaile beltz bat izendatu zuen Auzitegi Gorenerako eta, pobrezia desagerrarazteko asmoz, hainbat egitasmo bultzatu zituen, hala nola hezkuntzarako laguntzak, adinekoentzako osasun-aseguruak eta etxebizitza merkeak. Lan horiekin guztiekin, aukeren berdintasunean oinarritutako gizarte berria sortzea zen Jonhsonen asmoa; *Great Society* deitu zion berak gizarte berriari. Baina Luther Kingen eta Robert Kennedyren erailketek eta, bereziki, Vietnamgo Gerraren ondorioek erakutsi zituzten amets horren mugak. Batetik, ezin izan zutelako gerra irabazi; bestetik, gerran gertatutako bidegabekeriek eta gehiegikeriek (telebistak zuzenean zabaldutakoek) Ipar Amerikako gizartearen protestak eragin zituztelako. Izan ere, garai hartan nahitaezkoa zen soldadutza, eta milaka lagunek egin zioten uko Vietnamera joateari. Ikasle-mugimendu indartsua antolatu zen gerraren aurka. 50.000 iparramerikarrek eta ia bi milioi vietnamdarrek galdu zuten bizia gerran.

Bestalde, demokrata zuri askok adierazi zuten egonezina beltzen aldeko neurriak zirela-eta. Giro hartan, presidenteak zeharo galdu zuen gizartearen konfiantza. Herriaren egonezin horrek errepublikanoen itzulera ekarri zuen, eta Nixonek irabazi zituen 1968ko hauteskundeak, botoen % 60arekin.

Nixon (1969-1974) eta Ford (1974-1977)

Richard Nixonen agintaldiak presidente baten ahalmenen alderik onenak eta txarrenak erakutsi zituen. Hasierako kanpo-politikak aurreko presidenteen bideari jarraitu zion: Vietnamgo Gerra Kanbodiara zabaldu zen, eta Hego Amerikan Txileko estatu-kolpea babestu eta bultzatu zuen, besteak beste. Ondoren, aldaketa esanguratsuak ere egin zituen: Vietnamen zuzenean esku harteari utzi zion (1973); giro berria sortu zuen nazioarteko harremanetan (distsentsioa lortu zen Sobietar Batasunarekin) eta elkarrizketak eta akordioak bultzatu zituen Txinako Herri Errepublikarekin. Barne-politikari zegokionez, aldiz, gastu militarra eta soziala etengabe igotzeak bat egin zuen bestelako arazo ekonomiko batzuekin: krisiarekin, estagflazioarekin, dolarraren ahultasunarekin eta merkataritzaren defizitarekin, besteak beste. Eta egoera horrek eraginda amaitu zen dolarraren eta errearen arteko parekotasuna.

Hori gutxi balitz, krisi politiko larriak bizi izan zituen; haren laguntzaile talde bat atxilotu zuten Alderdi Demokrataren Watergate egoitzan espioitza-lanetan, eta

Nixonek, presio-kanpaina luze baten ondoren, kargua utzi behar izan zuen. Haren ordeztu, Gerald Fordek hartu zuen presidentetza. Krisia sentitu eta konfiantza galdu zuen AEBko gizarteak: Vietnamgo porrota, ustelkeria politikoa, krisi ekonomikoa... Aldaketa nahi zuten estatubatuarrek eta hor kokatu behar dugu James Carter.

James Carter (1977-1981)

Alderdi Demokratiko hautagaiak ez zituen erraz irabazi 1976ko hauteskundeak; errepublikanoen kudeaketa txarra gorabehera, Gerald Fordek botoen % 48 lortu zuen eta % 50,1 Carterrek. Presidentea gizon berri gisa aurkeztu zuten; hau da, *establishment* politikoen kanpotik zetorren hautagaia zen. Hizkera berria eraman zuen Washingtonera: giza eskubideekiko konpromisoa, balio demokratikoen aldeko jarrera, eta abar; baina, oro har, haren politikak porrot egin zuen. Ekonomiari zegokionez, ezin izan ziren aurre egin langabeziari eta inflazioaren gorakadari. Nazioarteko politikari zegokionez, ahuldu egin zen AEBren boterea munduan; sobietarren eragina, aldiz, handitu egin zen (Nikaraguako iraultza sandinistak arrakasta izan zuen, Iraneko iraultza islamikoak AEBren aliatua kanporatu zuen, sobietarrek Afganistan inbaditu zuten, eta abar).


c. Iraultza kontserbadorea (1981-1993)

Botoek halakorik erakutsi ez arren, iraultzat hartzen da Ronald Reagan presidentea hasi zuen garaia (1981-1989). Izan ere, aurreko hauteskunde askotan gertatu zen bezala, botoen % 50 baino ez zuen eskuratu 1980. urtean hautatu zutenean; baina lau urte geroago, 1984. urtean, askoz nabarmenagoa izan zen haren garaipena; botoen % 58,8 eskuratzear gain, 48 estatutan irabazi zituen hauteskundeak.

Ronald Reagan (1981-1989)

1960ko eta 1970eko hamarkadetako krisiari (hain zuzen, herrialdean nabari zen desmoralizazioari, krisi ekonomikoari eta AEBren nazioarteko gainbeherari) aurre egiteko, bestelako erantzun bat proposatu zuen Reaganek: Amerika tradizionalako balioak berreskuratzea (indibidualismoa, erlijioa, moral tradizionala eta harrotasun nazionala); politika ekonomikoan, estatuaren interbentzionismoa murriztea eta horretarako gastu publikoa jaitea (defentsakoa izan ezik), zergak gutxitzea eta, aldi berean, gizarte-laguntzak murriztea; nazioarteko politikan, komunismoari aurre egitea izan zen Reaganen lehentasuna, edonon eta edonola. Alderdi errepublikanoak, gainera, bere erakundea berrantolatu eta sendotu zuen.


3.1. 1996 AEBko biztanleriaren banaketa.



Iturria: Lemarchand, P. (1999): *Atlas de Estados Unidos*, Acento, Madril.

Bestalde, Reaganen garaiak bat egin zuen Estatu Batuetako gizarteko egituren eta ekonomiaren berrantolaketa sakonarekin. Hitz gutxitan esateko, bizitokiz aldatu ziren estatubatuarrak eta lanpostu berriak bete zituzten. Ekonomia berria martxan hasi zen 1980ko urteetan, eta hurrengo hamarkadan sendotu zen. Desager-tzen hasi zen industria tradizionala eta gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen informazio-teknologiekin lotutako sektoreak. Arlo horretako enpresa nagusiek, herrialdearen ekialdean (industria tradizionalako esparruetan) finkatu ordez, mendebaldeko kostaldea (Kalifornia eta Seattle) aukeratu zuten egoitzak jartzeko, eta biztanleriaren zati batek harantz jo zuen bizitzera eta lan egitera. Horretaz gain, immigrazioari atea irekitzeak igo egin zuen biztanle kopurua; beste herrialde garatu batzuetan, aldiz, kontrakoa gertatzen ari zen une hartan, biztanleriaren haz-kundea nabarmen geldotzen ari zen eta.


3.2. 1980-1990 AEBko biztanleriaren hazkunde-tasa.



Iturria: Lemarchand, P. (1999): *Atlas de Estados Unidos*, Acento, Madril.

Reaganen politikak hainbat emaitza izan zituen. Alde batetik, gorantz egin zuen ekonomiak, eta nahiz eta agintaldiaren hasieran langabeziak azkeneko berrogeita hamar urteetako mailarik altuena izan, jaistea lortu zuten —horregatik hautatu zuten Reagan berriro ere 1984an—. Baina, beste alde batetik, desoreka ekonomikoak sortu zituzten. Gora egin zuen defizit publikoak: zergak gutxitu zituzten, baina,aldi berean, asko handitu ziren gastu militarrek. Gizarteko desorekak ere areagotu egin ziren, hots, handitu egin zen aberatsen eta pobreen arteko aldea. Kanpo-politikari zegokionez, *bigarren gerra hotza* bultzatu zuen —garai bateko hizkera berreskuratuz—: komunismoaren aurkako jarrera indartu zuen, Gaitzaren Inperioa baitzen Sobietar Batasuna Reaganen hitzetan. Arma-lasterketari ekin zion berri («Izarretako gerra») eta, aurre egin zitzaion ustez komunismoa zabaltzeko ahaleginei. Laguntza militarra eman zitzaion El Salvadorreko gobernuari, eta Karibeko Granada uharte txikia inbaditu zuten Kubaren mende erortzeko zegoelakoan. Dena den, Nikaraguakoa eta Afganistanekoa izan ziren kasurik nabarmenenak. Bi kasuetan, nazioarteko eta Estatu Batuetako legeak urratuta, komunismoaren aurkako gerrilla bultzatu eta armatu zuten Estatu Batuetako inteligentzia-zerbitzuek. Lehenengo gaian ikusi dugunez, komunismoaren aurkako tinkotasuna galdu gabe, 1985etik aurrera Gorbatxovekin harreman onak izan zituen Reaganek; eta presidentetza utzi eta hilabete gutxira, bere ametsa gauzatuta ikusi zuen: bloke komunista desegitea, alegia.

3.3. 1996 AEBko diru-sarrerak biztanleko. Batez bestekoa 100.



Iturria: Lemarchand, P. (1999): *Atlas de Estados Unidos*, Acento, Madril.

George Bush (1989-1993)

Reaganen presidenteordeak hartu zuen haren tokia: familia aberatsekoa zen eta esperientzia politiko zabala zuen. Kanpo-politikan, Gerra Hotza amaitzeak eta AEB munduko superpotentzia bakar bihurtzeak ez zizkioten erraztu gauzak hauteskundeetan; botoen % 53,4 lortu zuen, Michael Dukakis demokrataren aurrean (% 45,6). Demokratek, ordea, gehiengoa lortu zuten Kapitolioko bi ganberetan. Garaipenaz gozatzea zen Bushen asmoa: Sobietar Batasunarekiko harremanetan bake-garaia hastea eta Reaganen garaiko barne-neurri gogorrenak indargabetzea, baina politika ekonomikoan aldaketarik egin gabe —hauteskunde-kanpainan behin eta berriz esan zuen ez zituela zergak igoko—. Ez zen horrelakoa izan, ordea, errealitatea.


Baikorra izan zen kanpo-politikari buruzko balantzea. Desegin egin zen Sobietar Batasuna, eta Bushek laguntza eskaini zion Errusia berriko Jeltsin presidenteari, egonkortasuna lortzeko. 1990. urtean Irakek Kuwaiti eraso egin zionean, Bushek gidaturik nazioarteko koalizio zabal bat eratu zen, eta gerra labur baten bidez Kuwait askatzea lortu zuten. Jugoslavian sortutako gerran jarrera neutrala erakutsi zuen eta, Sobietar Batasuna desagertzearen ondorioz, Hego Amerikan ahuldu egin ziren gerrillak eta ezkerria.

Aitzitik, barne-politikan, egoera ekonomikoa okertzeak eragotzi egin zion Bushi bere asmoak betetzea, hau da, hezkuntza hobetzea eta lehiakortasuna bultzatzea; izan ere, defentsako aurrekontua mantentzeak handitu egin zuen defizit fiskala eta agerian geratu ziren Reaganen garaian sorturiko desoreka ekonomikoak. Atzerantz egin zuen ekonomiak, langabeziak gorantz, defizit publikoa kontrolatzeko zergak igo beharra izan zuten (hauteskunde-kanpainan emandako hitza jan zuten) eta sendotu egin zen gizarte duala (hiritako ghettoak, langabezia, droga,

konpromisoarekin aurkeztu zen, eta Kennedyren espiritua eta mezua berreskuratu zituen. Garai bereko beste herrialde batzuetako buruzagien antza zuen, bereziki Britainia Handiko Tony Blair-ena; batetik, biak aritzen zirelako etengabe inkestei begira eta, bestetik, gero eta mezu kontserbadoreagoa erakutsi zutelako hainbat gaitan.

Clintonen garaipena *Boboen* garaipena izan zen, hau da, «Bohemian bourgeois»ena, aurreko hamarkadan eta urte horietan Estatu Batuetan aberastu ziren gizarte-talde liberalena.

3.5. 1980, 1992, 2000 eta 2008ko lehendakaria aukeratzeko hauteskudeen emaitzak estatutika.



Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/United_States_presidential_election

1990eko hamarkadan, AEBk buruzagitza ekonomikoa finkatu zuen, nagusi baitzen *ekonomia berriko* sektoreetan (Interneten, informatikan, eta abarren). Kontzentratu egin ziren enpresak eta,aldi berean, ugaltu egin ziren gizarte-diferentziak. Garai horren ikur ditugu aberastasuna, materialismoa, kontsumismoa, urbanizazioaren hazkundera eta gizarte-nahasketa. Immigrazioaren hazkundera dugu garaiko beste ezaugarri bat: bederatzi milioi lagun heldu ziren AEBra 1990. eta 2000. urteetan. Horren ondorioz, biztanleriaren % 10,4 kanpoan jaiotakoa zen eta kopuru horrek aldaketa demografikoak, geografikoak, ekonomikoak eta kulturalak eragingo zituen —etorkin gehienak hispanoak eta asiarrak ziren—. Garaiaren arabera, gorabeherak izan zituen immigrazio-politikak; hainbeste etorkinen aurrean, indartu egin zen biztanle zurien kontserbadorismoa eta, erreakzio horren ondorioz, zenbait mementotan gogortu egin zen AEBra sartzeko kontrola.

Kanpo-politika ez zen, berez, Clintonen ardura nagusia, baina hainbat unetan oso garrantzitsua izan zen haren esku-hartzea. Bakea eta egonkortasuna segurtatzea izan zen Clintonen helburua eta, horren haritik, haren ahaleginak lagungarriak izan ziren munduko hainbat tokitan gertatzen ari ziren istiluetan: Haitin, Rwandan, Bosnian, Irlandan edo Kosovon, besteak beste. Beste herrialde batzuk geldi zeuden bitartean, Clintonek (maiz berandu eta erdizka) emaitza onak lortu zituen esku hartzeko eskubide humanitarioa aldarrikatzean eta parte hartzean. Gainera, kontuan izan behar da Estatu Batuek aldatu egin zutela beren politika, Somaliako krisian izandako porrotaren ondoren. Horren aurretik, Israelen eta Palestinaren arteko bake-akordioak babestu zituzten, baina ez ziren gai izan terrorismo islamikoaren gorakada eta Ben Laden-en agerpena eragozteko.

Barne-politikari zegokionez, aurpegi asko izan zituen Clintonen politikak. Ekonomiak gorakada handia izan zuenez eta politika egokia jarraitu zutenaz, defizita kontrolatu ahal izan zuten eta gizarte-gastuen hazkundera bideratu. 1995ean aurrekontuaren % 60 bideratu zen gizarte-gastuetara. Baina lehenagoko arazoak ari zitzaizkion pilatzen presidenteari. Errepublikanoak nagusi ziren Kongresuan, eta gogor saiatu ziren Clintonen ahaleginak mugatzen. Esate baterako, eragotzi egin zuten hark egin nahi zuen osasun-zerbitzuen erreforma. 1995ean eskuin muturreko bi kidek eraikin federal bat leherrarazi zuten Oklahoman; 168 pertsona hil ziren. Tentsio politikoz beteta egon ziren Clinton presidentearen azkeneko urteak, herrialdean zegoen eztabaida ideologikoaren eta ekonomikoaren ondorioz. Hori gutxi ez, eta 1998. urtean, Clintonek Etxe Zuriko emakume bekadun batekin (Monica Lewinsky-rekin) sexu-harremana izan zuela zabaldu zen; gertaera horren inguruko zalapartak bultzatu zituen errerepublikanoak presidentearen *impeachmenta* (kargugabetzea) eskatzera. Ez zuten lortu helburua, baina erabat mugatuta gelditu zen presidentearen lana.

Horrela, 2000. urteko hauteskundeak heldu zirenean, bero-bero zegoen giroa. Honako hauek ziren hautagai nagusiak: Al Gore demokrata (Clintonen presidenteordea, haren politika jarraitu nahi zuena, baina kanpaina osoan Clinton aipatu ere egin ez zuena) eta George W. Bush errerepublikanoa. Zergen jaitsieran, sektore publikoaren pribatizazioan eta balio moralak berreskuratzean oinarritu zuen kanpaina Bushen. Biak ziren elite politikoen ordezkari, baina herritar arruntengandik hurbilago zegoen Bush. Bi horiekin batera aurkeztu zen Ralph Nader legegizona, independente ekologista moduan. Herritarren % 55,6ak hartu zuen parte hauteskunderetan eta emaitzek kolokan jarri zuten sistema politikoa. Naderrek 2.882.955 boto lortu zituen, Al Gorek 50.992.335 boto eta 266 hautesle, eta Bushen 50.455.156 eta 246 hautesle. Floridako estatuan, nahasketa handia gertatu zen botoak kontatzean eta zalaparta ugari egon zen hurrengo asteetan. Ez zen hauteskunde-sistemaren hutsuneak salatzen ziren lehenengo aldia, baina inoiz ez ziren hain nabarmen plazaratu. Azkenean, Epaitegi Gorenak gelditu egin zuen kontaketa berria, eta bertako hogeita bost hautesleak Bushentzat izan ziren. Beraz,

hura izan zen 2001eko urtarriletik aurrera presidente, Al Gorek baino boto guxtiago bereganatu arren. Urte horretako irailaren 11n New Yorkeko Dorre Bikien aurka izandako atentatu islamistak egoera berria ireki zuen Estatu Batuen eta munduaren historian.

Zaila da lerro gutxitan berrogeita hamar urte luzetako historia laburbiltzea; paradoxak eta kontraesanak dira, beharbada, ongien egokitzen diren hitzak. 1941etik 1945era bitartean nazismoaren aurka borrokatzeko askatasunaren berme nagusia izan zenak diktadurak babestu zituen, komunismoari aurre egiteko, bai eta gerra odoltsuak bultzatu ere. Berdintasunaren jatorrizko herrialdean ez da desagertu arrazakeria. Mundu guztiko jendea erakartzeko gaitasunari eutsi dio, eta horrek bikoiztu egin du biztanleria; 1940ko 132 milioiak 2001ean 282 milioi ziren, baina, hala ere, oraindik mesfidati begiratzen dio atzerritarrari AEBk. Gure mundua den bezalakoa egin duten berrikuntza teknologiko gehienek izan dute iturburua Estatu Batuetako ikerketa-zentroetan, baina bertako askok uko egiten dio zientziaren aurrerapenari. AEBren sistema ekonomikoak sortu du munduko aberastasunaren zati handi bat, baina pobrezia aurki daiteke non-nahi hango kale eta lurretan, 37 milioi inguru behartsu bizi baita egoera horretan eta milioika dira erabat zorpetuta bizi direnak edota osasun-laguntzarik ez dutenak. Kanpoko diru-maileguez eta dolarraren erreferentzialtasunak mantentzen dute, neurri batean, Estatu Batuen nagusitasuna. Horren guztiaren ondorioz, gero eta gehiagok iragartzen dute «inperioa»ren gainbehera; Emmanuel Todd-ek, besteak beste. Edozein modutan, ezin da baztertu herrialde horrek duen gaitasuna eraberritzeko eta egoera zailenetatik indartuta ateratzeko, liberalismoan eta praktika demokratikoetan oinarrituta, eta bere «botere biguna» erabiliz. Baina, zalantzarik gabe, beste mundu batean aritu beharko du.

TESTU-ERANSKINA

1947, MARSHALL PLANA: EUROPA BERRERAIKITZEARI BURUZKO G. MARSHALL JENERALAREN HITZALDIA

Europa berreraikitzekeo premien azterketa egitean, egoki balioetsi ziren bizitzak galtzea edota hiriak, lantegiak eta meategiak suntsitzea; baina azken hilabeteotan nabarmen ikusi da, beharbada, aipaturiko suntsiketa ikusgarria baino garrantzitsuagoa izango dela Europako ekonomiaren egitura desegin izana. [...]

Egia da Europak gaur egun duen ordaintzeko gaitasunarekin ezin izango diela aurre egin premia guztiei datozen hiruzpalau urteetan; izan ere, kanpotik —batez ere Amerikatik— ekarri behar dituen elikagaiak eta oinarritzko beste zenbait produktu ordaintzeko, laguntza gehigarri handia behar du; bestela hondamendi ekonomiko, sozial eta politiko oso larria pairatuko du.

Etengabeko soka hori moztea da erremedioa, europarrek konfiantza berreskura dezaten beren etorkizun ekonomikoan eta Europan, oro har. Fabrikatzaileak eta nekazariak gai izan behar dira —eta horretarako borondatea izan behar dute— beren produktuak eremu zabalean trukatzeko; truke horretako diruaren balioa egonkorra izan behar da, kezkarik sor ez dezan uneoro.

Egoerak munduan sor lezakeen pesimismoa eta kaltetutako jendearen egonezinak eragin litzakeen liskarrak alde batera utzita ere, edozeinek ikusten du argi eta garbi zein eragin izan dezakeen egoera latz horrek Estatu Batuetako ekonomian. Munduaren egoera ekonomikoak normala izan behar du, egonkortasun politikoa eta bake segurua lortuko badira; eta logikoa da Estatu Batuek beren eskuetan duten guztia egitea hori lortze aldera.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 243. or.

1949, S. TRUMANEK EGINDAKO HITZALDIA, HAUTESKUNDEAK IRABAZI ETA KARGUA HARTZEAN

Gure historia nazionalaren garai bakoitzak erronka bereziak izan ditu. Gaur egun aurrez aurre ditugunak iraganekoak bezain garrantzitsuak dira. Gaurko egunak, administrazio berriaren hasiera ez ezik, garai gorabeheratsu baten hasiera ere mugatzen du; beharbada garai erabakigarria izango da, bai geuretzat, bai eta munduarentzat ere.

Beharbada, gizadiaren historia luzeak izan duen aldaketarik garrantzitsuena bizitzeari egokituko zaigu, eta hein handi batean, guk geuk eragingo dugu. Mende honen lehenengo erdian, inoizko erasorik handiena egin zaie giza eskubideei, eta historiako bi gerrarik latzenak gertatu dira. Elkarrekin bakean eta harmonian bizitzen ikastea da gure garaiko gizonaren premiarik larriena.

Munduko biztanleek zalantza beteta begiratzen diote etorkizunari; batetik, itxaropen handiz eta, bestetik, beldur handiz, erdi eta erdi. Duda-mudako garaiotan, orain arte ez bezala, Estatu Batuetarantz begiratzen dute borondate onaren bila, indar bila eta zentzuzko buruzagitzaren bila. Beraz, une egokia dugu munduaren aurrean bizi gaituen fedearen funtsezko oinarriak aldarrikatzeko, eta gure asmoak mundu guztiari ezagutarazteko.

Amerikar herriak tinko jarraitzen du nazio hau hasieratik bertatik suspertu duen fedea. Sinesten dugu gizon guztiak dutela justizia berdinerako eskubidea legearen aurrean, eta guztien ondasuna partekatzeo aukera izateko eskubidea. Sinesten dugu gizon guztiak dutela iritzi-askatasuna eta adierazpen-askatasuna izateko eskubidea. Sinesten dugu gizon guztiak berdinak sortu direla, Jainkoaren irudira sortutakoak baitira.

Amerikar herriak nahi du, eta horren alde lan egiteko prest dago, mundu bat non nazio eta herri guztiak libre izango diren beren burua gobernatzeko berek erabakitako eran, eta mundu guztiak lortuko duen bizimodu dezente eta gogarakoa. Horren guztiaren gaineratik, gure herriak nahi du, eta horren alde lan egiteko prest dago, mundu guztirako bakea —bake bidezko eta iraunkorra—, berdinen artekoa, askatasunez lortutako benetako akordioan oinarritutakoa.

Asmo horiek guztiak lortzeko bidean, Estatu Batuek eta iritzi bereko beste nazio batzuek aurrez aurre eta aurka dute kontrako asmoak eta bizi-eredu erabat ezberdina dituen erregimen bat. Filosofia faltsu baten aldekoa da erregimen hori, askatasuna, segurtasuna eta aukera handiak eskaintzen dituen filosofia baten aldekoa. Filosofia horrek engainaturik, herri askok beren askatasuna sakrifikatu dute minaren truke, irabazpide bakarra iruzurra eta engainua, pobretasuna eta tirania direla ikasteko.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 352-354.

1963, ARRAZISMOA. M.L. KING: «AMETS BAT DUT» DISKURTSOA

Pozik nago gaur zuekin batera, hemen, gure nazioaren historian gertatu den eta historiara pasatuko den askatasunaren aldeko manifestazio handiaren

Orain dela ehun urte, Emantzipazioaren Aldarrikapena sinatu zuen amerikar handi batek; gaur haren itzalean babesten gara. Injustizia kiskalgarriaren garretan erre ziren milioika esklabo beltzentzat, itxaropenaren argia piztea izan zen dekretu garrantzitsu hura. Gau luzea amaitzeko goizeko argi gozagarria heltzen den bezala heldu zitzaizen izpi hura gatibualdiko iluntasuna urratzeko

Baina ehun urte geroago ere beltza ez dago libre; ehun urte geroago, segregazioaren bilurrez lotuta dago beltza, diskriminazioaren kateek lotzen dute; ehun urte geroago, pobreziaz betetako irla bakarti batean bizi da, oparotasun materialez beteriko itsaso zabalaren erdian; ehun urte geroago, oraindik ere, amerikar gizarteko bazterretan makaltzen da beltza eta erbesteturik bizi da bere herrian

Beraz, egoera lotsagarri baten berri ematera etorri gara hona. Nolabait, txeke bat dirutzera etorri gara gure nazio hiriburura. Gure errepublikaren arkitektoek Konstituzioko eta Independentziaren Aldarrikapeneko hitz ederrak idatzi zituztenean, amerikar guztien herentzia izango zen pagakizun-agiri bat sinatu zuten. Agiri horretan agintzen zen gizaki guztiek, beltz nahiz zuri izan, bermatuta izango zituztela kendu ezin diren bizitzeko eskubidea, askatasuna eta zoriontasunaren bila aritzea.

Garbi dago Amerikak ez duela bete agindutakoa koloreko herritarrekin, ez diela ordaindu. Betebehar sakratu hori gauzatu beharrean, kobratzeko aukera gutxiko txeke bat eman dio Amerikak herri beltzari; «funts faltagatik» itzuli duten txekea. Ez dugu sinetsi nahi nazio honen aukeren kutxetan ez dagoela funts nahikorik. Eta, beraz, txeke hura dirutzera etorri gara, geuk eskatu ondoren, askatasunaren aberastasuna eta justiziaren segurtasuna emango digun txekea.

[...]

Adiskideok, gaur diotsuet, gaurko eta biharko zailtasunak eta frustrazioak gorabehera, oraindik amets bat dudala. Amerikar ametsen sakon errotutako ametsa da. Egunen batean, nazio hau altxatu eta bere kredoaren benetako zentzuaren arabera biziko dela amesten dut: «gizon guztiak berdin sortu zirela baiesten dugu ziurtasun osoz». Amesten dut, egunen batean, Georgiako muino gorrixketan, esklabo zaharren seme-alabak eta esklabo trafikatzailenak elkarrekin eseri ahal izango direla anaitasunaren mahaiaren inguruan. Amesten dut, egunen batean, Mississippiko estatua bera ere, injustiziaren bero-sapak itotako estatua izanik ere, askatasunaren eta justiziaren oasi bihurtuko dela. Amesten dut, egunen batean, nire lau seme-alabak biziko direla nazio batean non ez dituzten epaituko azalaren koloreagatik, haien nortasunagatik baizik.

Amets bat dut, gaur!

Amesten dut, egunen batean, han Alabaman —arrazista suminduak dauden hartan, gobernariaren ezpainenetik eragozteko eta deuseztatzeko hitzak sortzen diren hartan—, egunen batean, hantxe bertan, Alabaman, mutiko eta neskato beltzek eskua eman ahal izango dietela mutiko eta neskato zuriei, neba-arreba gisa.

Amets bat dut, gaur!

Gaur amesten dut, egunen batean, «bailara guztiak goratuko direla, muino eta mendi guztiak berdindu egingo direla. Lautu egingo dira toki aldapatsuak eta zuzendu bide bihurriak; eta, orduan, Jainkoaren aintza azalduko da eta gizateria guztia lekuko izango da».

Iturria: King, M.L. (1977): *Discursos*, Leongo Unibertsitatea, León, 43-51.

1963, ARRAZISMOA. MALCOLM X-EN «BELTZA IZATEA» DISKURTSOA

Gau honetan denok gaude ados, hitz egin dugun guztiok pentsatzen dugu Estatu Batuek arazo handi bat dutela. Estatu Batuek ez ezik, geure jendeak du arazo handia. Geu gara Estatu Batuen arazoa. Geu gara haien arazoa. Arazoaren arrazoi bakarra da ez gaituztela gu hemen eduki nahi. Eta zuetariko bakoitzak bere buruari begiratzen dionean, nahiz beltza, nabarra, gorria edo horia izan, alegia, beltz deitzen zaiona, Estatu Batuentzat arazo handia den pertsona bati begira dago, ez baitzaituzte zuek hemen izan nahi.

(...)

Etsai bera dugu. Honako hau dugu denon etsai: zapaltzaile komuna, esplotatzaile komuna eta diskriminatzaile komuna. Eta etsai bera dugula konturatzen garen bakoitzean, komunean dugun horretan oinarriturik elkartzen gara. Eta beste gauza batzuen gaineratik, arerio hori da komunean duguna: zuria. Badakit zuetariko batzuek uste duzuela haietariko batzuk ez direla gure etsaiak. Denborak esango du.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 375-376.

1964, LYNDON B. JOHNSONEN GARAIA. «GIZARTE HANDIA» DISKURTSOA

Hiriburuko nahaste-borrastetik zuen campusaren lasaitasunera nator, zuen herrialdearen etorkizunari buruz hitz egitera.

Gure herriaren zorientasuna lortze aldera, ahalegintzen gara gure nazioaren bizitza babesten eta gure herritarren askatasuna begiratzen. Bilatze-lan horretan arrakasta badugu, nazio gisa arrakasta izan dugun seinale izango da. Mende batean zehar egin dugu lan kontinente bat jendeztatzeko eta menderatzeko. Mende erdian zehar, mugarik gabeko asmamenari eman diogu bide, eta industria nekazinean aritu gara oparotasunezko estatua sortzeko gure herri guztiarentzat.

Datozen berrogeita hamar urteetako erronka honako hau izango da: oparotasun hori guztia gure bizitza nazionala aberasteko eta hobetzeko erabiltzen jakitea, horrela gure amerikar zibilizazioaren kalitatea igo dadin.

Zuen irudimenak, zuen ekimenak eta zuen haserreak erabakiko dute zer gizarte eraiki. Aurrerapena gure beharrezko zerbitzura egongo den gizarte, edo balio zaharrak eta ikuspegi berriak kontrolik gabeko hazkundearen azpian lurperatuko direna. Izan ere, gaur egun, gizarte aberats eta gizarte boteretsu baterantz jotzeko aukera izateaz gainera, Gizarte Handira jotzeko aukera dugu.

Guztien oparotasunean eta askatasunean oinarritzen da Gizarte Handia; pobrezia eta arrazakeria desagertzea eskatzen du; erabatekoa izan behar da hori guztia lortzeko gure konpromisoa, eta hasi baino ez gara egin.

Gizarte Handiaren esparruan, ume guztiek aurkituko dituzte beren burua aberasteko eta talentuak hobetzeko ezagutzak. Esparru horretan, eraikitzeko eta gogoetan aritzeko aukeratzat hartzen da aisia; ez aspertu egonezinak sorraraziko dituen iturri beldurgarritzat. Esparru horretan, hiriak ez dira izango oinarritzeko premiak asetzeko eta merkataritzaren eskakizunei erantzuteko soilik; edertasuna ere hor bilatuko da eta elkartzeko egarria hor aseko da.

Naturarekiko harremana berritu ahal izango du gizakiak esparru horretan; omenaldia egingo zaio kreazioari bere izaeragatik eta gizakia ulertzen laguntzeagatik. Esparru horretan, beren helburuen kalitatea lehenetsiko dute gizakiek, dituzten ondasunen kantitatearen gainetik.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 383-384.

1985, REAGAN-EN IRAULTZA KONTSERBADOREA. BIGARREN AGINTALDIKO PRESIDENTETZAZ JABETZEKO HITZALDIA

Orain dela lau urte kargua zin egin nuenean, tentsio ekonomikodun garaia zen. Ingurutik esaten zitzaigun atzerantz egin behar zela handitasuna eta loria aurkitzeko. Baina, gu, gaur egungo amerikarrak, ez gara atzerantz begiratu zaleak. Lur bedeinkatu honetan, beti egongo da hurrengo egun hobe bat.

PRINTZIPIO BERRI BAT

Orain dela lau urte, printzipio berri bati buruz hitz egin nuen eta gauzatu egin dugu, betiere beste zentzu bat emanda. Gure printzipio berria orain dela bi mende sortutako haren jarraipena da. Orduan, lehenengo aldiz, herriak ebatzi zuen gobernu ez zela gure ugazaba, zerbitzaria baizik, eta herriak berak emandako boterea baino ez zuela izango aurrerantzean.

Inoiz ez digu hutsik egin sistema horrek, nahiz eta sasoi batean geuk huts egin sistemari. Gobernuak ezin zituen eman eskatu genizkionak. Gobernu nazionalari eman genion agintea, baina, berez, estatuei, tokian tokiko gobernuari edo herriari berari zegokien.

Zergen eta inflazioaren bidez, gure irabaziak eta aurrezkiak ostu ziezazkiguten utzi genuen. Munduko herri produktiboena bihurtu gintuen makina industrialaren erritmoa galtzen ikusi genuen eta, era berean, langabeak gehitzen.

1980an ulertu genuen gure fedea berritzeko unea zela; geure indar guztiekin borrokatu behar genuen norberaren askatasun-maila gorena lortzeko, zuzenbidearen printzipioak gidatutako gizartearen arabera.

Orduan sinesten genuen, eta orain ere sinesten jarraitzen dugu: gizonak eta emakumeak libre izanez gero, ez dago mugarik gizakia hazteko eta aurreratzeko, ez beren ametsak betetzeko. Eta zuzen genbiltzan hori sinetsi genuenean. Gutxitu egin dira zergak, inflazioak beherakada izugarria izan du, eta inoiz baino lanpostu gehiago dago. Nazio kartsu, sendo eta bizia sortzen ari gara; baina oraindik mendi asko dugu eskalatzeko. Ez dugu atsedetik hartuko ahalik eta askatasun handiena, duintasun handiena eta aukera gehien izatea eskubide kenduezin bihurtu arte amerikar guztientzat. Errepublikari handi honetako herritar garen aldetik, jaiotzetik ditugun geure eskubideak dira.

Erronka hori gauzatzea lortzen badugu, garai hau izango da amerikarrek aurrerapenean duten konfiantza eta tradizioa berreskuratu zuten garaia.

Komunitatea, familia eta fedea (guztiak gure balio) aro modernorako birformulatu ziren garaia izango da; orobat, ekonomia behingoz gobernuaren kontrolpetik askatu zenekoa.

Iturria: Hernández Alonso, J.J. eta González, L. (argit.) (1998): *Documentos históricos de los Estados Unidos*, Ediciones Colegio de España, Salamanca, 157-160.

1993, CLINTONEN GARAIA. KARGUA HARTZEKO DISKURTSOA

Herritarrok, amerikarren berrikuntzaren misterioa ospatzen dugu gaur. Negu-neguan ari gara ospakizuna egiten, baina udaberria eragingo dute gure hitzek eta munduari erakusten dizkiogun aurpegiek. Munduko demokraziarik zaharrenaren udaberrian agertuko den argiak erakutsiko du Amerikaren ikuspegi berria eta Amerika berriz asmatzeak duen balioa. Gure fundatzaileek, ausardiaz beteta, munduaren aurrean eta Ahalguztidunaren aurrean independentzia aldarrikatu zutenean, bazekiten Amerikak aldatu egin beharko zuela iraungo bazuen. Ez da aldatu aldatzeagatik, Amerikaren helburuei eusteko baizik: bizitza, askatasuna eta zoriontasunaren bila aritzea.

Gaur egungo musikaren erritmoan bagabiltza ere, betierekoa da gure misioa. Gure nazioaren izenean, nire agurra aurrekoari, Bush presidenteari, Amerikaren zerbitzuan aritu izan den mende erdiagatik; eta eskerrak milaka emakume eta gizon-zezkeri, haien jarraitutasun eta sakrifizioei esker egin zaielako aurre depresioari, arrazismoari eta komunismoari.

Gaur egun, Gerra Hotzaren itzalean sortutako belaunaldiak hartu ditu ardura berriak, askatasunaren argiak epeltzen duen munduan; baina oraindik lehengo gorrotoen eta izurrite berrien mehatxupean gaude. Aurkaririk gabeko oparotasunean sorturik, orain ere munduko ekonomia sendoena izaten jarraitzen duenaren oinordeko gara; baina ahultzen ari da zenbait arrazoirengatik, hots, enpresarien akatsengatik, soldatak ez aldatzeagatik, eta *geure herrian bertan* hazten ari den desberdintasun eta zatiketa handiagatik.

Oraintxe egin dudan bezala, George Washingtonek bere kargua zin egin zuenean, albisteak astiro ibiltzen ziren zaldiz lurrian eta itsasontziz itsasoan. Gaur egun, aldiz, ospakizun honetako irudiak eta hotsa bat-batean zabalduko zaizkie milioika laguni, mundu guztira. Globalak dira komunikabideak eta merkataritza. Mugikorra da inbertsioa, ia magikoa teknologia, eta unibertsala bizimodu hobea nahi izatea.

Gaur egun, lurreko toki guztietako pertsonekin lehia baketsuan irabazten dugu bizimodua. Indar sakonak eta botereitsuak ari dira gure mundua astintzen eta berregituratzen; garaiotako arazorik premiazkoena ea gure laguna aldatzerik dagoen jakitea da, ez gure etsaia. Mundu berri honek milioika amerikarren bizitza aberastu du, eta lehiatzeko eta irabazteko gai dira amerikarrak. Baina gehiengoak gutxiagoren truke lan gehiago egiten duenean, beste batzuek lanik egin ezin dutenean, osasungintzako gastuak gehiegizkoak direnean familientzat eta enpresak (handiak nahiz txikiak) hondatzeraino hel daitezkeenean, delinkuentziari zaion beldurak askatasuna ebasten dienean legearekiko leial direnei, eta milioika ume pobrek ezin dutenean irudikatu ere egin guk haientzat eskatzen dugun bizimodua, orduan, lagunok, ez da aldaketarik egon.

Badakigu egia gogorrei egin behar diegula aurre, eta urrats handiak egin behar ditugula, baina egiteke dauzkagu. Aitzitik, arrastaka eraman gaitzaten utzi dugu, eta gure baliabideak agortu ditu jarrera horrek, pitzatu egin du gure ekonomia eta zulatu gure konfiantza. Gure erronkak izugarriak badira ere, gure indarrak ere halakoak dira. Amerikarrok beti izan gara ekintzaileak, herri borrokalaria eta itxaropentsua; geure egin behar ditugu gure aurrekoen ikuspuntua eta borondatea. Gure iraultzatik hasita, Gerra Zibilera arte, Depresio Handira arte, Eskubide Zibilen aldeko mugimendura arte, gure herriak beti erabaki du gure historiaren zutabeak ezartzea krisi horietan oinarrituta. Thomas Jeffersonek uste zuen gure nazioaren zutabeak babesteko aldaketa gogorrak egin behar zirela noizean behin. Beno, bada, herrikideok, heldu da *gure ordua*. Hel diezaiogun.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 407-409.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Adams, W. P. (1987): *Los Estados Unidos de América, Siglo XXI*, Madril.
- Boorstin, D. J. (1989): *Los Estados Unidos: una civilización*, Alianza Editorial, Madril.
- Chomsky, N. (1994): *Repensando Camelot. John F. Kennedy, la guerra de Vietnam y la cultura política de Estados Unidos*, Libertarias/Prodhufi, Madril.
- Degler, C. N. (1986): *Historia de los Estados Unidos*, Ariel, Bartzelona.
- Guardia Herrero, C. (1992): *Proceso político y elecciones en Estados Unidos*, Eudema, Madril.
- Guardia Herrero, M. de la (2009): *Historia de Estados Unidos*, Silex, Madril.
- Hughes, R. (2001): *Visiones de América. La historia épica del arte norteamericano*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona.
- Jones, M. A. (1995): *Historia de los Estados Unidos, 1607-1992*, Cátedra, Madril.
- Kaplan, R. (1999): *Viaje al futuro del imperio. La transformación de Norteamérica en el siglo XXI*, Ediciones B, Bartzelona.
- Lemarchand, P. (1999): *Atlas de Estados Unidos*, Acento, Madril.
- Micklethwait, J. eta Wooldridge, A. (2006): *Una nación conservadora. El poder de la derecha en Estados Unidos*, Debate, Bartzelona.
- Palomares Lerma, G. (1999): *Política y gobierno en los Estados Unidos (1945-1999). Historia y doctrina de un espíritu político*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Patterson, J. T. (2006): *El gigante inquieto. Los Estados Unidos de Nixon a G. W. Bush*, Crítica, Bartzelona.
- Rorabaugh, W. J. (2005): *Kennedy y el sueño de los sesenta*, Paidós, Bartzelona.
- Todd, E. (2003): *Después del imperio. Ensayo sobre la descomposición del sistema norteamericano*, Foca, Madril.
- Vilaro, R. (1984): *EE.UU. Más allá de la hamburguesa y los pantalones vaqueros*, El País-Aguilar, Madril.
- Zinn, H. (1999): *La otra historia de los Estados Unidos*, Hiru, Hondarribia.

4. Europar Batasunaren eraikuntza-prozesua

4.1. SARRERA: MENDEBALDEKO EUROPA

II. MUNDU GERRAREN OSTEAN

Ikusi dugun bezala, Bigarren Mundu Gerra amaitzeak hasiera eman zion garai historiko berriari. Aldaketa historiko horrek Europan izan zuen beste inon baino tamaina eta sakontasun handiagoa, eta horregatik hitz egin dezakegu benetako haustura historikoaz. Ikuspuntu materialari dagokionez, kontinente hondatua zen gerrak utzitako Europa, eta arazo larriei egin beharko zien aurre, ekonomia berre-raikitzeke. Nazioarteko politikari zegokionez, Gerra Hotzarekin batera, banaturik gelditu zen Europa: Ekialdeko Europan sobietar eredia ezarri zen eta bloke komunistaren barnean geratu zen; eta Mendebaldeko Europa, AEBren buruzagitzapean, bloke kapitalistaren barnean. Gerra osteko munduak ez zuen gunea Europan, ez zen eurozentrikoa, eta superpotentzien mendean gelditu zen Europa. Gainera, orduan hasi zen Europako inperio kolonialen krisia, eta hurrengo hamarkadetan koloniak galdu zituzten Europako metropoliek; galera horiek argi eta garbi erakusten zuten Europaren gainbehera nazioartean. Beraz, Bigarren Mundu Gerra amaituta, mundua mendean izan zuen *Europa zaharrak* ez zuen bizirik eta bestelako Europa bat eraiki beharra zegoen, estatu bakoitzaren barnean zein nazioartean.

Barne-politikari zegokionez, bi mundu-gerren arteko garaiko ezezagortasuna gaintitze aldera, eredu politiko eta sozioekonomiko berria eratu beharra zegoen Mendebaldeko Europan. Faxismoaren mendean egondako herrialdeetan sistema politiko demoliberalak berrezarri ziren. Italian, monarkiaren ordeztan, errepublika aldarrikatu zen. 1949an sortu zen Alemaniako Errepublika Federala eta hamar *lander* edo estatu federaletan antolatu zen. Frantzia, IV. Errepublika aldarrikatu zen. Estatuaren botereak zehazterakoan bi eredu proposatu ziren: batean, legebiltzarrak izango zen sistema politikoaren erakunde nagusia; bestean (Charles De Gaullek proposaturikoa) botere betearazlea indartu nahi zen botere legegilearen gaitetik, egonkortasun politikoaren bermatzeko helburuz. Lehenengo aukera nagusitu zen 1945ean, baina 1958ko krisi politikoaren ondorioz V. Errepublika ezarri zen, eta presidenteari botere handia eta agintaldi luzea eman zitzaizkion. Erresuma Batuan, gerra aurreko sistema politikoaren mantendu bazen ere, «iraultza isila» izenekoaren bitartez errotik aldatu zen. 1945etik 1950era bitartean, laboristek aldaketak bultzatu zituzten ekonomian zein gizartean: nazionalizazioak (ikatz-meategiak,

garraioak, siderurgia...), erreforma sozialak (gizarte-segurantza, osasun-sistema publikoa herritar guztientzat, errenta banatzeko politikak). Ongizate-estatuaren lehenengo urratsak izan ziren horiek, eta eredu bihurtuko ziren hurrengo hamarraldietan Europako beste estatu askorentzat. Izan ere, kapitalismoaren urrezko aroan (1950-1973) *estatu soziala* eraiki zuten Mendebaldeko Europako estatu nagusiek. Honakoak izan ziren oinarriak: demokrazia liberala, merkatuko ekonomia eta estatuaren interbentzionismo handia ekonomian zein gizartean. 1970eko hamarraldira arte indar politiko nagusiak ados egon ziren estatu-eredu horren inguruan, baina 1973ko krisi ekonomikoaren ondorioz eztabaida sortu zen ongizate-estatuaren inguruan (ikus 2. gaia). Europa mediterraneoko herrialdeek ez zioten bide horri jarraitu: Espainian, Portugalen eta Grezian diktadurak nagusitu ziren eta ez zen benetako ongizate-estaturik eraiki.

Nazioartean ere, Mendebaldeko Europak berriz definitu behar izan zuen bere zeregina. Gerra Hotzaren lehenengo garaian, Ameriketako Estatu Batuek buruzagiaren lekua hartu zuten Mendebaldeko Europan; Europaren ahulezia nabaria zenez, eztabaidaezina eta erabatekoa zen amerikaren buruzagitza, Marshall planak (1947) eta NATOren sorrerak (1949) erakutsi zuten bezala. Baina denborak aurrera egin ahala, erabateko nagusigo hori murriztuz joan zen, eta bidea eman zien beste era bateko lankidetzari eta zenbait kasutan lehiari. De Gaullen politika, Alemania Federalaren *ostpolitik*a, edo Ipar Amerikako eta Europako ekonomien arteko konkurrentzia izan ziren harreman orekatuago horien erakusgarri (ikus 1. gaia). Bestalde, Europako estatuen arteko erlazioetan ere modu berriak asmatu behar ziren gatazkak ekiditeko. Eta hor kokatu behar dugu Europako historia aldatu duen prozesurik garrantzitsuenetakoa, Europar Batasunaren eraikuntza, alegia.

4.2. *EUROPAKO INTEGRAZIO-PROZESUAREN ERAGILEAK ETA EZAUGARRIAK*

Zenbait faktorek bultzatu zuten europarren arteko batasuna, Europako segurtasuna bilatzeak besteak beste. Aro garaikidean, Europako potentzien (batez ere Alemaniaren eta Frantziaren) arteko orekan eta nagusitasuna lortzeko lehiari oinarritu zen nazioarteko sistema. Baina, XX. mendean, bi mundu-gerra eta Europaren hondamendia eragin zituen sistema horrek; eta, hori ikusita, horrelako gatazkak ekiditea izan zen batasun-prozesuaren helburu nagusietakoa. Aurreko norgehiagokaren ordeztu, lankidetzan oinarritutako sistema bat ezartzea izango zen irtenbidea. Gerra Hotzaren hasierak baldintzaturiko testuinguruan, 1949an, Alemaniako Errepublika Federala sortu zenean, proposatu zen Europaren integrazio-prozesuaren lehenengo ekimen garrantzitsua: Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa. Izan ere, hasieran, Europaren batasuna bera baino gehiago bilatzen zen Alemania nazioartean integratzea eta Europako potentzien arteko lehia gaintzea.

Bestalde, mundu bipolarrean, sobietarren aurrean Europa indartzeko bidea izango zen Mendebaldeko Europako herrialdeen arteko lankidetzeta, hasieran behintzat. Eta, geroago ikusi zuten Estatu Batuen buruzagitza eta eragina Europan murrizteko tresna ere izango zela europarren arteko batasuna.

Aipaturiko arrazoiez gain, arrazoi ekonomikoek bultzatu zuten prozesua, eta arlo horretan eman dira aurrerapauso handienak Europako integrazio-prozesuan. Alde batetik, enpresa handiek interesak zituzten merkatu zabaletan aritzeko. Bestetik, Ameriketako Estatu Batuek lankidetzeta ekonomikoa bultzatu zuten II. Mundu Gerraren ostean. AEBk eredu ekonomiko liberala defendatu eta hedatu nahi zuen. Horregatik, Mendebaldeko Europako estatuetakoa ekonomiak irekitzea eta lankidetzeta eskatzen zuen Marshall planak.

Europarren arteko batasuna eraikitzea prozesu luzea, konplexua eta zaila izan da, eta gaur egun ere oraindik bada, amaitu gabeko prozesua baita. Aurrerapausoak, geldialdiak eta atzerapausoak tartekatu dira. Estatuak erabateko subiranotasuna galdu behar izan dute estatuz gaindiko erakundeen mesedetan, eta horrek erresistentziak sorrarazi ditu. Izan ere, estatuak beren independentzia nazionalari eutsi nahi izan diote, baina batasuna eraikitzeko subiranotasun zati bat galdu beharra zuten. Kontraesan horrek baldintzatu du prozesua hasieratik, eta gaitz eta korapilatsu bihurtu du. Erresistentzia horiek gainditzeko bidetzat proposatu da batasuna, eta bide hori sektoreka egin da. Arlo batzuetan, estatuak erabateko subiranotasunari uko egin eta mailaz maila utzi dituzte erabakiak Europako erakundeen esku. Funtzionalista edo Monnet metodoa deitu zaio bide horri.

4.3. LANKIDETZATIK INTEGRAZIORA: EUROPARREN ARTEKO BATA-SUNAREN ERAIKUNTZAREN LEHENENGO URRATSAK (1945-1951)

1945etik 1950era bitartean, europarren arteko lankidetzaren lehenengo urratsak egin ziren arlo ekonomikoan eta politikoan. Ekonomiari dagokionez, Marshall plana koordinatzeko eta kudeatzeko, Europako Lankidetzeta Ekonomikorako Erakundea (*Organisation Européenne de Coopération Économique*, OEEC) sortu zen 1948an. Arlo politikoan, II. Mundu Gerra amaitutakoan, zenbait politikok (Churchillek, Adenauer-ek, Monnetek, De Galtieri-k, eta abarrek) Europaren batasunaren beharra adierazi zuten. Egia esan, bi mundu-gerren arteko garaian ere, jadanik zabaldurik zegoen europar batasunaren ideia. II. Mundu Gerraren ostean, indar handia hartu zuen egitasmoak, baina Mendebaldeko Europa mugaturik. Testuinguru horretan, Sobietar Batasunaren eraginpean ez zeuden Europako estatu gehienek (Belgikak, Danimarkak, Frantziak, Erresuma Batuak, Irlandak, Italiak, Luxenburgok, Norvegiak, Herbehereek, Suediak, Greziak, Turkiak, Islandiak eta Alemaniako Errepublika Federalak) Europako Kontseilua sortzea erabaki zuten 1949an, eta horixe izan zen Europako lehenengo erakunde politikoa. Estatuak arteko harremanak estutzea eta elkarlana bultzatzea zen helburua, baina Europako

Kontseiluak ez zuen eskumen politiko zehatzik. Ezin zuen arazo militarretan esku hartu —horretarako sortutakoa zen NATO 1949an—, ez eta ekonomikoetan ere —OECE zegoen horretarako—. Beraz, Europako hainbat parlamenturen arteko topagune baino ez zen izan Europako Kontseilua, eta zuzenbidearen eta kulturaren alorretara mugatu ziren jarduerak. 1950. urterako, lankidetzat politikorako zein ekonomikorako Europako lehen erakundeak sortuak baziren ere, ez zen integrazioarako inolako aurrerapausorik egin, hots, ez zen estatuz gaindiko erakunderik sortu.

1950ean, aurreko egitasmoen emaitzak ikusita, bestelako prozedura bat proposatu zen batasuna eraikitzeko: arlokako integrazioa. Prozedura hori, helburuetan xumeagoa bazen ere, askoz eraginkorragoa izan zen; eta horixe izan da azken bost hamarraldiotan erabilitako estrategia europarren arteko batasun-prozesua garatzeko. Sektorekako integrazioaren lehenengo urratsa Ikatzen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (IAEE) sortzea izan zen. 1951. urtean sortu zuten Alemaniako Errepublika Federalak, Frantziak, Italiak, eta Beneluxeko estatuak (Belgikak, Herbehereek eta Luxenburgok), ikatzen eta altzairuaren produkzioa kontrolatzeko eta produktu horien merkatua batzeko.

IAEEren bitartez, Frantziaren eta Alemaniaren arteko harremanen arazo historikoa konpondu nahi zuten. 1949an Alemaniako Errepublika Federala sortzeak kezka eragin zuen Frantzian; bi potentzien arteko harremanak konpontzeko eta behin betiko adiskidetzat lortzeko proposatu zen erkidego berria. Ikatza eta altzairua ahalmen militarren oinarriak zirenez, agintaritzak komun baten mendean jartzeak Frantziaren eta Alemaniaren arteko gatazkak eragotzi behar zituen. Beste alde batetik, IAEEren beste helburuetako bat integrazio ekonomiko sektorialaren bidez Europa batzeko prozesua bultzatzea zen. Aurreko ekimenek, esaterako Europako Kontseiluak, agerian utzi zuten ezinezkoa zela batasun politiko bat-batean eratzea; beharrezkoa zela lehenago benetako elkartasuna sortzea eta herrialdeen arteko interesak batzea. Beraz, IAEE sortzeak batasunari ekiteko beste bide bat proposatzen zuen: sektore ekonomiko batzuen integrazio ekonomikoa, alegia. Gainera, Europako siderurgia garatu nahi zuen egitasmoak, protekzionismoa erabat alboratu eta zenbait abantaila ekonomiko lortu: harmonizatu egin ziren muga-zergen tarifak. Kapital handiko enpresa handiak sor zitezkeen merkatu handi horretan, eta berrikuntza teknologikoak edota merkataritza-politiken koordinazioa ahalbidetuko ziren.

IAEEren antolamenduari dagokionez, lehendabizi konpetentziak galdu zituzten estatuak nazioz gaindiko erakundeen mesedetan. Goi Agintaritza sortu zuten (egungo Europako Batzordearen aurrekaria), Parlamentarien Biltzarra (aholku-emailea), Ministro Batzordea eta auzitegi bat. Beraz, garai hartan, integrazio ekonomikorako lehenengo aurrerapauso handia egin zen. Baina batasun politikoaren aldeko ekimenek porrot egiten zuten. Adibidez, 1950. urtean Europako herrialdeetako armadak integratzea proposatu zen, IAEEren eredua alor militarra

hedatu nahian. Horrela, Europako Defentsako Erkidegoa sortzea eztabaidatu zen; baina egitasmoak porrot egin zuen, Frantziako Legebiltzarrak ez baitzuen onetsi.

4.4. EUROPAKO ERKIDEGO EKONOMIKOTIK EUROPAR BATASUNERA (1957-1992)

Integrazio militarrek eta politikoak porrot eginda, argi gelditu zen integrazio ekonomikoa zela europar batasunaren prozesuan sakontzeko bidea. Eta bide hori bultzatu zuten IAEEko kideek Erromako Hitzarmena (1957) sinatu zutenean, horixe baitzen Hitzarmenaren filosofia, alegia, integrazio ekonomikoaren bidez heltzea europar batasunera. Erromako Hitzarmenaren hitzaurreak zioen Europako herrien artean gero eta batasun estuagoa lortzea zela helburua. Prozesu horretako lehenengo urratsa izan zen aduanak bateratzea, merkantzien zirkulazio librea, eta kanpo-tarifa komuna ezartzea. Orduan, hamabi urteko epea aurreikusi zuten merkatu komun hori eratzeke. Geroago, merkatu bakarra sortu behar zuten, hots, salgaiena ez ezik produkzio-faktore guztien (kapitalaren, langileen eta zerbitzuen) joan-etorri librea. Hurrengo urratsa ekonomia eta dirua bateratzea izango zen. Eta, teoriarik behintzat, batasun politikoa izango zen prozesuaren helmuga.

Beraz, Erromako Hitzarmenak Europako Ekonomia Erkidegoa sortu zuen merkatu bateratua garatzeko eta Nekazaritzako Politika Bateratua aurrera eramateko. Honako hauek izan ziren Europako Ekonomia Erkidegoaren erakundeak:

- a. Ministroen Kontseilua. Estatu kide bakoitzeko ordezkari batek osatua. Aztertu beharreko gaiaren arabera (ekonomia, nekazaritza, kanpo-arazoak eta abar), arlo horretako ministroak batzen ziren. Erabakiak aho batez hartu behar ziren. Benetako botere betearazlea erakunde honetan zetzan, berak hartzen baitzituen erabaki politikoak, baina Batzordearen laguntzaz lan egiten zuen.
- b. Batzordea. Gobernuak lau urterako izendatutako ordezkariak osatzen zuten. Proposamenak lantzen eta aurkeztzen zizkion Kontseiluari, eta horren erabakiak betearazten zituen. Aurrekontua ere kudeatzen zuen.
- c. Europako Parlamentua. Hasieran, estatuetako parlamentuek izendatzen zituzten 142 kide; baina 1979. urteaz geroztik sufragio unibertsal bidez hautatzen da. 1985. urtera arte Parlamentuak oso eskuduntza mugatuak zituen, eta aholku-emailea zen.
- d. Justizia Auzitegia. Estatuek sei urterako izendatutako hamahiru epailez osatzen da, eta hari dagokio erkidegoko legeak eta arauak bermatzea eta interpretatzea.

Horrela hasi zen eraikitzen *Seien Europa* (Alemaniako Errepublika Federala, Frantzia, Italia, Luxenburgoko Herbehereak eta Belgika). Erresuma Batuak Europako Ekonomia Erkidegoan ez sartzea erabaki zuen, bere subiranotasunari eusteko

eta *Commonwealth*eko herrialdeekin harreman bereziak izateko. 1959. urtean Europako Merkataritza Askeko Elkarte (EFTA, *European Free Trade Association*) eratu zuen, Danimarka, Suedia, Norvegia, Portugal, Suitza eta Austriarekin batera. Elkarte horretan ere kideen arteko aduana-zergak desagertu egiten ziren, baina herrialde bakoitza subiranoa zen bere merkataritza-politika zuzentzeko. Beraz, merkataritzaren alorrera mugatzen zen elkarte, bestelako helbururik ezarri gabe.

Lehenengo hamar urteetan, Europako Ekonomia Erkidegoak arrakasta ekonomiko nabaria lortu zuen eta urrats handiak egin ziren integrazio ekonomikoaren bidean. 1968. urterako, aduanak bateraturik zeuden, hazkunde ekonomiko handiak zituzten estatu kideek, eta haien esportazioak ere asko igo ziren. Hala ere, lehenengo desadostasunak eta oztopoak sortu ziren europarren arteko batasuna lortzeko prozesuan. Izan ere, Erromako Hitzarmenak bide bat (integrazio ekonomikoaren bidezko batasuna) proposatzen zuen, baina ez zuen bide hori nola jorratu behar zen zehazten. Gainera, 1958an, Frantziak, Charles De Gaulle izendatu zuten V. Errepublikako presidente eta De Gaulleren Europarako egitasmoa «herrialdeen Europa» zen (ikus testu-eranskina). Ez zuen Frantziak subiranotasuna galtzea onartzen, eta ez zuen Europa federal baten eraikuntza sinesten. Testuinguru horretan, batasun politikoaren bidean ez zen aurrerapausorik eman garai hartan, ez eta *Seien Europa* zabaltzeko ere. Izan ere, Erresuma Batuak, Erkidegoaren arrakasta ekonomikoa ikusita, Merkatu Bateratuan sartzeko eskaera egin zuen 1961ean eta 1967an; baina sartzearen kontrakoa zen De Gaulle, eta betoa ezarri zion, Erresuma Batua Estatu Batuen Troiako zalditzat hartzen baitzuen. Europako Ekonomia Erkidegoa ez zen zabaldu 1973ra arte; urte horretan sartu ziren Irlanda, Erresuma Batua eta Danimarka (*Bederatzien Europa*).

1973tik 1980ra bitartean, europar batasunaren eraikuntza gelditu egin zen. Europako ekonomia krisi sakonean sartu zen (ikus 2. gaia). Behin aduanen batasuna lortuta, merkatu eta diru bakarra ezartzeko bidea jorratu behar zen, baina egoera ekonomikoa ez zen egokia erronka horiei aurre egiteko. Petrolio-krisiaren aurrean, Europako Ekonomia Erkidegoko herrialdeek ez zuten politika komunik erabaki. Gainera, Erkidegoa zabaldua zen 1973an (*Bederatzien Europa*), baina estatu kide berriek, batez ere Erresuma Batuak, ez zuten batasunerako prozesuan sakondu nahi. Hala ere, Europako Ekonomia Erkidegoko erakunde batzuen erreforma egin zen garai hartan: 1974an Europako Kontseilua instituzionalizatu zen (estatu kideetako gobernuburuek egin beharreko urteroko bilera) eta, 1979. urtetik aurrera, parlamentua sufragio unibertsalaren bidez hautatzea erabaki zen.

1980ko hamarkadatik aurrera, berriz, aurreko garaiko geldialdia gainditu eta Europako Erkidegoko estatuek azkartu, berritu eta sakondu egin zuten batzeko prozesua. Alde batetik, estatu kide berriak sartu ziren, Mediterraneoko Europara zabaldu zen Erkidegoa: 1979an Grezia sartu zen, eta Espainia eta Portugal 1986an. *Hamabien Europa* sortua zen. Mediterraneoko herrialde horientzat integrazioak

onura ekonomikoak ekartzeaz gain, beren demokrazia berriak finkatu eta sendotzeko modua ere izan zen. Bestalde, zabaltze horrek oreka berria eraman zuen Erkidegora: hegoaldeko herrialdeek indar handiagoa hartu zuten baina, aldi berean, arazo ekonomiko berriak sortu ziren. Handitu egin ziren estatu kideen arteko aldeak garapenari zegokionez, eta desoreka horiek murrizteko politikak jarri behar ziren indarrean; konkurrentzia-arazo berriak sortu ziren, batez ere nekazaritzako ekoizpenean. 1995. urtean beste zabaltze bat izan zen: Suedia, Finlandia eta Austria sartu ziren Europar Batasunean eta *Hamabosten Europa* eratu zen.

Garai horretan, erakundea handitzeaz gain, aurrera egin zuen batasunerako bidean hitzarmen gehiagoren bitartez. 1985ean Europako Aginte Bakuna onetsi zuten Europako Erkidegoko kideek, integrazio ekonomikoa areagotzeko eta erakundeak berritzeko. Ekonomiari zegokionez, epe zehatza ezarri zuen (1993. urtea) Merkatu Bakarra (merkantzien, langileen, kapitalaren eta zerbitzuen zirkulazio librea) indarrean jartzeko. Erakundeei zegokienez, kasurik gehienetan erabakiak gehiengo kualifikatuaz hartuko zirela erabaki zen, eta ez aho batez. Horrez gain, indartu egin ziren Parlamentuaren eta Batzordearen eskumenak. Kanpo- eta segurtasun-politikan ere gobernuen arteko lankidetza estutzea erabaki zuten kideek Europako Aginte Bakunean.

Hurrengo urratsa Maastrichteko Ituna izan zen, 1992an. Europako Erkidegoak izen berria hartu zuen: Europar Batasuna. Izena aldatuz integrazio-prozesua garai berrian sartzen zela adierazi nahi zuten estatu kideek, hots, Europako herrialdeen arteko batasun estuagoa eratu nahi zutela. Hitzarmenak hiru zutabe zituen: ekonomia, kanpo- eta segurtasun-politika, eta barne-politika eta justizia. Arlo ekonomikoan, diru- eta ekonomia-batasuna onetsi zen, Europako Banku Zentralaren kontrolpean egongo zen eta diru bakarra ezarriko zen. Beraz, estatuek subiranotasuna galdu zuten arlo horretan. Beste bi arloetan, gobernuen arteko lankidetza indartu eta estutu zuten estatu kideek, baina subiranotasuna galdu gabe. Azkenik, erakundeei zegokienez, Parlamentuaren boterea sendotu zen, eta politika berriak proposatu ziren Europa soziala indartzeko. Bestalde, Europar Batasuneko herritartasuna onartu zen.

MAASTRICHEKO ITUNAREN BERRIKUNTZAK

		Europar Batasunaren hiru oinarriak. Maastrichteko Ituna.
		I. EUROPAKO ERKIDEGOAK
		BATASUN POLITIKOA (BP) – EUROPAR BATASUNEKO HERRITARTASUNA – BOTERE HANDIAGOA EUROPAKO PARLAMENTUARI – ESKUALDEEN BATZORDEA – SUBSIDIARIOTASUNA – POLITIKA BERRIAK Europa soziala: hezkuntza, osasun-sistema, kultura, kontsumitzaileak, garraio- eta komunikazio-sareak; garapenerako laguntza; ekonomia- eta gizarte-koheresia; egitura-funtsen erreforma; Kohesio Funttsaren sorrera.
		EKONOMIA ETA DIRU-BATASUNA (EDB) – Hiru fasetan, DIRU BAKARRA eta EUROPAKO BANKU ZENTRAL bat lortu arte
		EUROPAKO EKONOMIA-ERKIDEGOIA (EEE) – ADUANA BATASUNA – MERKATU BAKARRA – PERTSONEN, SALGAIEN, ZERBITZUEN ETA KAPITALEN JOAN-ETORRI ASKEA – ERKIDEGOEN POLITIKAK: Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB); merkataritza-politika; lehia askea; garraioak; ingurumena; ikerketa eta garapena (I+G).
		II. KANPO-POLITIKA ETA SEGURTASUN KOMUNAREN POLITIKA
G O B E R N U E N A R T E K O	L A N K I D E T Z A	– OROKORRA. Kanpo- eta segurtasun-politikaren esparru guztiak hartzen ditu. – PROGRESIBOA. Defentsa barne duela garatuko da. – HELBURUAK. Balio komunen defentsa eta Europar Batasunarekiko independentzia. Segurtasuna eta bakea mantentzea. EBko segurtasuna sendotzea. Nazioarteko lankidetzaz suspertzea. Demokrazia finkatzea. – BALIABIDEAK. Ekintza komunak, erakundeak indartzea. – DEFENTSA KOMUNA ETORKIZUNEAN.
		III. JUSTIZIA ETA BARNE-ARAZOAK
		– KANPOKO MUGAK PERTSONEK IRAGATEKO ARAU KOMUNAK. – IMMIGRAZIO-POLITIKA. – DROGA-MENDEKOTASUNEN AURKAKO BORROKA. – JUSTIZIA-LANKIDETZA ARLO ZIBILEAN ETA PENALEAN. – ADUANA-LANKIDETZA. – TERRORISMOAREN ETA DROGA-TRAFIKOAREN AURKAKO BORROKA. – EUROPOL SORTZEA, POLIZIAREN EUROPAKO BULEGOA.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 342. or.

4.5. **EKIALDEKO EUROPARA ZABALTZEA ETA EGUNGO EUROPAR BATASUNA: ERRONKAK ETA ARAZOAK**

Europa batzeko prozesua ez da oraindik amaitu. Azken bi hamarkadotan Ekialdeko Europako herrialdeen integrazioa izan da erronka nagusia. 1989an Berlingo harresia erori ondoren, ekialdeko herrialdeek Europar Batasunean sartu nahia adierazi zuten. 2003ko apirilaren 16an zabaltze-hitzarmen bat sinatu zen eta hamar estatu kide berri (Txekia, Txipre, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Eslovakia eta Eslovenia) sartu ziren 2004ko maiatzean (*hogeita bosten Europa*); eta 2007an Errumania eta Bulgaria. Ekialdera zabaltzearen ondorioz beharrezkoa izan zen Europar Batasuneko erakundeak berriztatzea, estatu kide gehiagorekin ezin baitzen funtzionatu ordura arte bezala. Berriz aztertu behar ziren erabakiak hartzeko moduak, beto-eskubidea zein kasutan erabiliko zen eta abar. Erakundeak berriztaturik, 2001eko otsailean Nizako Ituna sinatu zen ekialdeko kide berrien Europaratzea errazteko. Bertan, besteak beste, honako erabaki hauek onetsi ziren:


- *Lankidetzaren indartuak*, hau da, estatu kide multzo batek, nahi izanez gero, aukera du batasunerako bideetan aurrera egiteko, betiere Europar Batasuneko erakundeak eta hitzarmenak errespetaturik.
- Ministro Kontseiluko botoen banaketa: estatu bakoitzak boto kopuru jakin bat zuen biztanleriaren arabera, baina bozketetan kontuan hartuko zen estatu kopurua ere, estatu txikien mesedetan.
- Batzordea gehienez 27 kidek osatuko zuten.
- Beto-eskubidea eta erabaki bat blokeatzeko bideak zehaztu ziren.

Baina Nizako Ituna behin-behineko konponbidea baino ez zen izan. Europar Batasunaren funtzionamendu politikoa hobetzeko eta zehazteko, Europako Konbentzio bat eratzea erabaki zuten estatu kideek. Konbentzio horren buru Valery Giscard d'Estaing Frantziako presidente ohia izan zen, eta estatu kideen gobernuak, parlamentuek eta Europako Batzordeak izendatutako 108 kidek osatu zuten. Europako konstituzio moduko zerbait proposatzea zen Konbentzioaren eginkizuna. 2003an eztabaidatu zen Konbentzioak aurkezturiko egitasmoa: hasieran ez zen estatuen arteko akordiorik lortu, Poloniaren eta Espainiaren oposizioagatik, baina 2004ko ekainean gobernu guztien arteko adostasuna erdietsi zuten. Europako «hitzarmen konstituzionalak» ezarri nahi zituen berrikuntza nagusietako batzuk honako hauek izan ziren:

- Erabakiak hartzeko modua: *gehiengo bikoitza* (estatuen % 55 eta biztanleen % 65).
- Kargu berriak sortu ziren: *Europar Batasunaren presidentea* eta *Atzerri eta Segurtasunari buruzko politika bateratuko goi-ordezkarria*.

- Prozedura legegilea: aurrerantzean bi erakunderen onspena beharko zen arau nagusiak erabakitzeko, hau da, Europako Kontseiluarena eta Parla-mentuarena.

4.1. 1957-2007 Europar Batasunaren bilakaera.



Iturria: *Berria* egunkaria.

Europako «hitzarmen konstituzionala» berresteko erreferendumak egin ziren Europako zenbait herrialdetan, baina prozesua gelditu egin zen, Frantzian eta Herbehereetan ezezkoa nagusitu baitzen. Urte batzuetako geldialdiaren ondoren, Europako «hitzarmen konstituzionala»ren ordezkari Lisboako Ituna sinatu zuten Europako herrialdeek 2007. urtean; dena den, hitzarmen konstituzionalak proposaturiko berrikuntza nagusiak mantendu egin ziren. Luzea eta zaila izan da berrespen-prozesua, nahiz eta kasu honetan erreferendumik egin ez —Irlandan izan ezik—. 2009an amaitu zen berresteko prozesua eta abenduaren batean jarri zen indarrean Lisboako hitzarmena.

Ikusi dugun bezala, oraindik eraikitzen ari da Europar Batasuna. Azken hamarkadetan, Europa federal bat eratu ez bada ere, arlo batzuetan behintzat bateratze handia lortu da. Beste batzuetan, berriz, estatuak lankidetzara mugatu dute beren arteko harremana, baina norik bere subiranotasuna galdu gabe. Hainbat zailtasun sortu dira prozesu konplexu horretan. Beharbada, garrantzitsuena herritarren atxikimendu eskasa izan da, eta agerian geratu da azkenetan egin diren erreferenduetan eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan. Ez da europar nortasun-sentimendurik errotu herritarren artean. Eta batzuetan badirudi europarrek galdetzen dutela zertarako eraiki behar den Europa. Beharbada, bi horiek izan dira Europaren eraikuntza-prozesuaren gabezia nagusietakoak, hau da, helburu sozial zehatzik ez izatea eta europarren parte-hartze eskasa. Baina eztabaida horiek zabalik daude oraindik, eta Europar Batasunaren eraikuntza ere bukatu gabe dago.

TESTU-ERANSKINA

1950, SCHUMAN ADIERAZPENA ETA IKATZAREN ETA ALTZAIRUAREN EUROPAKO ERKIDEGO

Munduko bakea babestuko bada, mehatxatzen duten arriskuen arabera ahalegin sortzaileak egin beharko dira.

Harremanak baketsuak izan daitezten, ezinbestekoa da Europa antolatu eta biziak zibilizazioari eskaini diezaiokkeen laguntza. Orain dela hogeitun urte baino lehenagotik izan da Frantzia Europa batuaren aldeko txapelduna, bakearen zerbitzuan aritzea izan da beti haren funtsezko helburua. Europa ez da eraiki, eta gerra bat izan dugu.

Europa ez da kolpe batean egingo, ezta eraikuntza orokor baten bidez ere; ekintza zehatzen bitartez egingo da eta ekintza horiek egiteko elkartasuna sortuko dute batez ere. Alemaniaren eta Frantziaren arteko mendeetako aurkaritza desagertzea eskatzen du Europako nazioen batasunak: lehenengo eta behin Frantziarengan eta Alemaniarengan izan behar du eragina hasitako jarduerak.

Helburu horrekin, Frantziako gobernuak proposatzen du berehala jokatzeko puntu mugatu baina erabakigarri bati dagokionez.

Frantziako gobernuak proposatzen du Frantziak eta Alemaniak ekoizten duten ikatz eta altzairu guztia Goi Agintari komun baten ardurapean uztea, Europako beste herrialde batzuek ere parte hartu ahal izango duten erakunde ireki baten ardurapean.

Ikatz- eta altzairu-ekoizpena komunean jartzeak berehala segurtatuko du garapen ekonomikorako oinarriak ezartzea, Europako Federaziorako lehenengo etapa, eta aldatu egingo du aspalditik gerrarako armak fabrikatzen aritu diren —beroriek izan dira biktimarik iraunkorrenak— lurraldeen etorkizuna.

Horrela sortuko den ekoizpenaren elkartasunak erakutsiko du pentsaezin ez ezik ezinezko bihurtzen dela Frantziaren eta Alemaniaren arteko gerrarik gertatzea. Batasun ekonomikoaren benetako oinarriak ezarriko ditu ekoizpen-unitate indartsu hori ezartzeak; parte hartu nahi duten herrialde guztiei irekia izango da, eta bere baitako herrialde guztiei aukera emango die industria-ekoizpenerako oinarritzko gaiak baldintza berdinetan hornitzeko .

(...)

Horrela batuko dira, era erraz eta azkarrean, zatiketa odoltsuek luzaroan elkarren aurka jarri dituzten herrialdeen interesak, erkidego zabalago eta sakonago bat ezartzeko beharrezko direnak.

Oinarritzko ekoizpenak komunean jarritz eta Goi Agintaritza berria eratuz —zeinaren erabakiek Frantzia, Alemania eta elkartzen diren herrialdeak men

egitera behartuko dituzten—, proposamen horrek ezarriko ditu bakea begiratzeko behar den Europako Federazio baten lehenengo oinarri zehatzak.

(...)

Proiektuko erakundea (banaketa suspertuz eta irabazi handiei eusteko jokabide murriztaileak bultzatuz) merkatu nazionalak ustiatzeko sorturiko nazioarteko kartelen kontrakoa izango da, eta merkatuen arteko batasuna eta ekoizpena zabaltzea ziurtatuko du.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 313-314.

1964, DE GAULLEREN EUROPAREN IKUSPEGIA

Helburua Europa denean eta zer izan behar duen argitu behar denean, beti aztertu behar da zer den mundua.

Azkeneko Mundu Gerra amaitutakoan, munduko indarren banaketak ematen zuen oso sinplea eta gogorra bezain gauzagarria zela. Bat-batean ikusi zen hori Yaltan. Amerikak eta Errusiak soilik jarraitu zuten potentzia izaten; aintzat hartu beharrekoak ziren, lehen beste edo gehiago. Beste guztia, aldiz, loka zegoen: garaituak, beren baldintzarik gabeko porrotean hondatuta; europar garaileak, erabat abailduta.

Mundu libreko herrialdeei —Sobietar Batasunaren anbizioak mehatxaturik—, orduan, ezinbestekoa iruditzen zitzairen amerikarren buruzagitza. Mundu Berria zen gerrako garailea —haien guztien artean—. Estatu Batuen agintepean —bonba atomikoak zituen eta—, Aliantza Atlantikoak bermatzen zuen haien segurtasuna. Marshall planari esker suspertzen zen haien ekonomia. (...) Aldi berean, ikusten zen mundu libreak sobietarren ekintzen eragin zuzenarekin edo zeharkakoarekin harremana zuten eskualdeetan, Amerikak bere kontura zuzentzen zituela eskualde horietako auzietako estrategia eta politika. Bera alde bakarra izanik jokaten zuen, eta, praktikan, tokiko nazioarteko erakundeen bitartez erabakitzen zuen. (...)

Garbi dago aldatu egin direla gauzak. Gure Kontinente Zaharreko mendebaldeko estatuak berregin dute beren ekonomia. Ari dira berriz indar militarrik eraten; horietariko batek, Frantziak, indar nuklearra eskuratu du. Batez ere beren arteko lotura naturalen kontzientzia hartu dute. Hitz batean, Mendebaldeko Europak erakunde nagusi bat izateko aukera du, balio eta bitartekoz betea, bere bizitza bizitzeko gai, benetan Mundu Berriaren aurka egon gabe, baina bai haren ondoan.

Bestalde, desegiten ari da mundu totalitarioaren monolitismoa. Txina, Moskuren-gandik banatuta, munduaren agertokian sartu da; tamaina izugarria du, premia eta baliabide handiak, aurrerapenaren egarri eta bera aintzat noiz hartuko zain dago. Sobietarren Inperioak, gure garaietako potentzia kolonialik handienak eta azkenak, ikusten du auzitan jarri dutela (lehenengo eta behin txinatarrek) Asiako eskualde zabalak mendean izatea; halaber, ikusten du gutxika-gutxika urruntzen ari zaizkiola Europako sateliteak —indarraren bidez bereganatutakoak—. Aldi berean, Mendebaldeko Europan aplikatutako sistema (zuzendaritza eta askatasuna bateratzen dituen) ikusita, Errusiak porrot egin du bizi-mailari dagokionez eta gizon-emakumeen asetasunari eta duintasunari dagokienez (nahiz eta ahalegin izugarria egin orain dela mende erditik hona eta zenbait eginkizun masibotan emaitza onak izan). Azkenik, Hirugarren Munduko estatuei errotik eragiten diete dituzten asmo handiek eta eragozpen izugarriek.

Datu berri nahasi eta konplikatatu horiek guztiak kontuan hartuz gero, ondorioztatzen da ez dela errealitatearen erakusgarri Washingtonek eta Moskuk zuzendutako bi aldeetan banatzea unibertsoa.

Garbi dago oraindik aurrera Europa bera izango dela bere jokabidearen zuzendari, hala nahi izanez gero, mundu totalitarioari (gero eta pitzatuagoari) dagokionez, edo Txinak aurkezten dituen arazoei dagokienez, edo Asiako, Afrikako, eta Latinoamerikako zenbait herrialderekin jarraitu beharreko jokabideari dagokionez, edo Nazio Batuen Erakundea (...) berritzeari dagokionez, edo mundu mailan era guztietako aldaketak berriz antolatzeari eta beste abarri dagokienez.

Inolako zalantzarik gabe, komeni da Amerikarekin ituna izatea, batari eta besteari interesatzen baitzaie Ipar Atlantikoan sobietar mehatxuak irauten duen bitartean. Baina egunez egun ari dira ezabatzen Europak ituna mendekotasun gisa ulertzeko arrazoiak. Arduren bere zatia hartu behar du Europak. Bestalde, badirudi gertakizun hori bat etorriko litzatekeela Estatu Batuen interesarekin, edozein izanik ere haren balioa, potentzia eta asmo onak. Izan ere, eginbeharrak hain ugari eta konplexuak izateak gaintu egiten ditu Estatu Batuen baliabideak eta gaitasunak, eta, beharbada, era arriskutsuan gaintu ere. Horren ondorioz, berek aitortzen dute Kontinente Zaharra batzen eta antolatzen ikusi nahi dutela, eta, galiarren, germaniarren eta latinoen artean askok aldarrikatzen dute «Egin dezagun Europa».

Baina, zein Europa? Horixe da eztabaidagaia. Izan ere, orain arteko erosotasunak, nahita uko egitea, eta bigarren mailako asmo iraunkorrek ez dira erraz desegiten. Frantziarron arabera, Europa europar izateko egin behar da. Europa europarrak esan nahi du bere kabuz eta beretzat bizi dela; hau da, munduaren erdian berak bere politika izango duela. Bada, hain zuzen ere, hori gauzatzea nahi duten batzuek, kontzienteki edo konturatu gabe, uko egiten diote helburu horri. Azken batean, gaur egun oraindik, normala eta asegarria iruditzen zaie Europa (berez bere politikarik izan ezean) Atlantikoaren beste aldetik emanda datorrenaren mende aritzea. (...)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 326-328.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Ahijado, M. (2000): *Historia de la unidad europea. Desde los precedentes remotos a la ampliación al Este*, Pirámide, Madril.
- Artola, M. (zuz.) (2008): *Historia de Europa*, Espasa, Madril.
- Bru, C.M. (zuz.) (2001): *Diccionario sobre la Unión Europea*, Universitas, Madril.
- Cabrera, M., et al (1992): *Europa, 1945-1990*, Pablo Iglesias, Madril.
- Fullbrook, M. (argit.) (2002): *Europa desde 1945*, Crítica, Bartzelona.
- García Picazo, P. (2008): *La idea de Europa: historia, cultura, política*, Tecnos, Madril.
- Judt, T. (2006): *Postguerra. Una historia de Europa desde 1945*, Taurus, Madril.
- Laqueur, W. (1994): *La Europa de nuestro tiempo. Desde el final de la Segunda Guerra Mundial hasta la década de los 90*, Javier Vergara, Buenos Aires.
- Mammarella, G. (1996): *Historia de Europa Contemporánea desde 1945 hasta hoy*, Ariel, Bartzelona.
- Martín de la Guardia, R.M. eta Pérez Sánchez, G.A. (2001): *Historia de la integración europea*, Ariel, Bartzelona.
- Moreno, A. eta Palomares, G. (1999): *Textos básicos de la construcción europea*, Acento, Madril.

5. Sobietar Batasuna eta Ekialdeko Europako «herri-demokrazia»

5.1. SARRERA

Sistema komunistaren hedapena eta geroagoko krisia dugu Egungo Munduaren historiaren prozesu nagusietako bat. Sistema komunista amaitzeak (Kuban eta Ipar Korean baino ez da mantentzen) garai oso baten amaiera adierazi zuen, neurri batean. Herrialde komunisten ezaugarri nagusi komunak (tokiko desberdintasunak alde batera utzita) honako hauek izan dira. Alderdi Komunistaren botere-monopolioa zen eredu politikoaren oinarria. Sistema politiko horretan, zentralizaturik eta alderdiaren eskuetan zeuden botere guztiak (legegilea, betearazlea eta judiziala). Alderdiak kontrolatzen zuen estatua (governua eta bestelako erakundeak); era berean, gizartea ere alderdiaren kontrolpean zegoen. Alderdiak zuen herritarren sozializazio-bideen, hezkuntzaren, komunikabideen eta abarren monopolioa, eta gizarte zibila egituratzeko beharrezkoak diren erakundeena ere bai (sindikatuena, gazte-erakundeena, kirol-taldeena eta abarrena). Eredu ekonomikoari zegokionez, produkzio-baliabideen nazionalizazioa eta ekonomiaren planifikazio zentrala ziren ezaugarri nagusiak. Oinarri horien gainean, estalinismoak garapenerako eta industrializaziorako bide berria (ez kapitalista) proposatu zuen, industrializazio azkarra lortze aldera. Sistema osoak irauteko, funtsezkoak izan ziren askatasun eza eta oposizioak jazartzea. Baina okerra litzateke errepresioan finkatzea sozialismoaren iraupenaren arrazoi bakarra; beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira: herrialde horietan aurretik zeuden gizarte-diferentzia handiak, sistemak eskainitako garapena eta onurak, eta zenbait talderen artean gizarte hobea osatzeko itxaropenaren indarra. Edozein kasutan, eredu politiko-ekonomiko horrek ekarri zituen gizarte-kostuak oraindik neurtu gabe daude osotasunean.

5.2. SOBIETAR EREDUA STALINEN GARAIAN (1928-1953)

Bigarren Mundu Gerrak ez zuen aldaketa handirik eragin Sobietar Batasuneko barne-politikan, eta gerra aurreko sistema estalinistak jarraitu zuen. Honako hauek izan ziren ezaugarri nagusiak:

Arlo politikoan. Alderdiaren diktaduraren ordeztu, Stalinen diktadura pertsonala (alderdi komunistan barne-eztabaida eta debatea desagertu ziren, Stalinen beraren boterearen mesedetan). Diktadura horri zilegitasuna emateko nortasunari

eskaintako kultura erabili zen, alderdia garbitzea eta arerioak zapaltzea. Estatuak kontrol zorrotza ezarri zuen talde guztien gainean. Intelektualen eta artisten kasuan, hasierako espermentalismoa, berrikuntza formala eta gizartearekiko kritikotasuna alde batera utzita, *errealismo sozialista* ezarri zen (artearen eta literaturaren doktrina ofiziala). Idazleak eta artistak erregimenaren esanetara jartzea zen helburua. Intelektualek nahitaez jarraitu behar zieten gobernuak finkatutako irizpideei. Talde nazionaleri eta etnikoei zegokienez, Stalinek —georgiarra izan arren— errusiar nazionalismoa indartu zuen eta gogor zigortu zituen ustez leialtasun nahikorik erakutsi ez zuten taldeak.

1930etik 1936ra bitartean, hamabi milioi sobietar pasatu ziren kontzentrazio-eremuetatik, *gulag* moduan ezagutzen den sisteman. Preso egoteaz gain lan egin behar zuten, burujabe izan zitezen espetxeak. 1936. urtean, aldiz, «Terrore Handia» zabaldu zen eta areagotu egin zen errepresioa, bai populazioaren kontra, bai alderdikideen kontra: gutxi gorabehera 120.000 hilketa politiko gertatu ziren 1936tik 1939ra bitartean, Stalinen aginduz; tartean egon ziren Alderdi Boltxebikeko buruzagi historiko gehienak. 1941. urtean, ia bi milioi lagun zeuden preso Sobietar Batasuneko kontzentrazio-eremuetan.

Arlo ekonomikoan. Stalinek ahalegin erraldoia egin zuen Errusia tradizionala eraldatzeko eta lehen mailako potentzia industrial bihurtzeko. Nekazaritzaren kolektibizazioa izan zen lehen urratsa, eta 1930. urtean jarri zen martxan: granja kolektiboetan bildu behar izan ziren laborariak nahitaez, eta galdu egin zituzten lehen zeukaten jabegoa eta produzitzeko eta merkaturatzeko askatasuna. Prozesuak erresistentziak sortu zituen laborarien artean, baina errepresioak eta goseak isilarazi zituzten (5 milioi laborari Siberiara bidali zituzten, kolektibizazioaren kontra azaldu zirelako, eta beste 7,5 milioi hil ziren jaki faltaren ondorioz). Bi motatako abeletxe kolektiboak ezarri ziren: *koljozia* eta *sobjozia*. *Koljoziek* teoriarik autonomia zuten produkzioa antolatzen eta lurraz balia zitezkeen laborariak, baina ez zuten merkaturatzeko askatasunik. 1935ean *koljoziko* laborariei nork bere lursaila edukitzeko baimena eman zitzaion, haren onuraz jarduteko. *Sobjoziak*, aldiz, estatuen nekazari-enpresak ziren, estatua zen jabea eta industria-enpresa estatalizatuek bezala funtzionatzen zuten. Eraitza ekonomiko txarrak izan zituen kolektibizazioak. Laborarien erresistentzia aktiboaz gain, nekazaritza-ustiategi asko handiegia ziren, gehiegizkoa zen zentralizazioa, nekazariak ez zuten suspergarri ekonomikorik produktibitatea gehitzeko eta, beraz, ez zen lortu produkzioaren hazkunde nabarmenik.

1928. urtean, industrializazio-eredu estalinista jarri zen indarrean, lehenengo bost urteko planaren bidez. Garai hartan, Sobietar Batasuneko industrializazio-maila eskasa zen: errenta nazionalaren % 30 ematen zuen industria-sektoreak. Egoera hartan, herrialdea industrializatu beharra planteatu zuen Stalinek. Mendebaldeko herrialde industrializatuen maila ekonomiko eta teknologikoa lehen-

bailehen lortzea zen helburua. Horretarako, industria astunera (produkzio-ondasunen ekoizpena) bideratu behar ziren baliabideak, industria-sektore hori hartzen baitzen industrializazio-prozesuaren motortzat, Stalinen ustez. Industria astunak kapital handiak behar ditu, eta laborarien etekinetatik lortu behar zen kapitala metatzea. Ondorioz, eskasak ziren gizarteko gehiengoaren bizitza-maila eta erosteko ahalmena, eta horrek areagotu egin zuen kontsumo-ondasunen industriaren garapen eskasa. Asmo hori aurrera eramateko plangintza zentralizatu erabili zen; hots, merkatuaren arabera izan beharrean agintaritzaren zentralak erabaki zuen inbertsioak non egin, eta kontrolpean izan zituen mekanismo ekonomiko guztiak: prezioak ezartzea, enpresen produkzioa eta kudeaketa zuzentzea, eta abar. Sistema ekonomiko horrek, funtsean, Sobietar Batasuna desagertu arte iraun zuen. Hazkunde ekonomiko paregabea eta azkarra ahalbidetu zuen estrategia horrek, baina desorekatua izan zen prozesua. Industria-sektore batzuetan (siderurgian, argindarrean, eraikuntzan eta defentsan) sekulako hazkundera gertatu zen; baina motela izan zen kontsumo-ondasunen hazkundera eta txikia nekazaritza-produkzioa, inbertsioak industria astunera bideratu baitziren. Kasu askotan ez ziren erabiltzen ekoizpen-teknika egokienak, eta beste asko zaharkituta geratu ziren, bereziki ordurako Mendebaldean erabiltzen zirenekin alderatuta. Edozein modutan, egitura ekonomikoa aldatzea lortu zuten planek, eta jarduera ekonomiko nagusia izatera iritsi zen industria.

Bigarren Mundu Gerrak eragin handia izan zuen Sobietar Batasunean: giza galera handia eragin zuen (ikerketa batzuen arabera, hogeit hamar milioi hildako egon ziren militarren eta zibilen artean) eta azpiegitura ekonomikoa, neurri handi batean, guztiz hondatuta utzi zuen gerrak. Hondamendi horrek pisu handia izan zuen ondorengo urteetako SBren historian. Bestalde, guztiz aldatu zen Sobietar Batasunaren toki munduan, gerratik atera ziren bi potentzia berrietako bat bilakatu zelako. Gerra Aberkoi Handiak (horrela esaten zaio oraindik Errusian), azkenik, Stalin eta errusiar nazionalismoa indartu zituen, hasierako hutsegiteak ahaztu ondoren, bera azaldu zelako erresistentziaren eta garaipenaren arduradun bakar moduan, eta Stalinen jarraitzaile leial gisa azaldu zirelako errusiarak. Gerra amaitu bezain pronto amaitu zen gerra-garaiko barne-baretzea eta Stalinek gizartearen eta eliteen kontrola berreskuratu zuen Gerra Hotzaren dinamikaren zerbitzura jartzeko. 1949tik 1952ra bitartean, bi milioi eta erdi preso zegoen Sobietar Batasuneko kontzentrazio-eremuetan.

Bost Urteko Plan (1946-1950) berriaren helburuak ekonomia berreraikitzea, gerra-ekonomia birmoldatzea eta garapen ekonomikoa bultzatzea izan ziren. Horretarako, aurreko egitasmoen ildo nagusiak mantendu zituzten: ekipo-ondasunei eta gerrarako materialari emandako lehentasuna, eta kontsumo-ondasunei toki mugatua eskaintzea (% 12). Arrakastatsua izan zen plana, egindako ahalegin handiari esker, eta horren ondorioz, lan- eta gizarte-baldintzak hobetu ziren: gutxieneko soldata finkatu zen, sari sozialak hobetu ziren, eta aurrera egin zuen hezkuntza-

sareak. Betiko gabezia mantendu zen: nekazaritzaren hazkunde urria. Azken finean, gerra irabazteak erregimena eta Stalin bera sendotu eta indartu zituen, eta Sobietar Batasuna superpotentzia bilakatu zen.

Kanpo-politikari eta nazioarteko harremanei zegokienez, aldaketa sakona eta garrantzitsua gertatu zen; izan ere, Sobietar Batasuna herrialde handi izatetik inperio izatera pasatu zen. Stalinek, gerra amaitu baino lehen, tsarren garaiko lurraldegosea berreskuratu zuen, SB babesteko segurtasun-gerrikoa osatuz; eta horri sozialismoaren izaera internazionalista eta iraultzailea gehitzen badiogu, ez da arraroa SBko komunistek pentsatzea munduan zeregin garrantzitsua eta erabakigarria zutela. Bide horretan, Stalinek bi helburu lortzeko tresna moduan planteatu zuen kanpo-politika: Sobietar Batasunaren (Errusiaren) boterea handitzeko bitartekoa eta komunismoa mundu zabalean ezartzeko baliabidea. Horretarako, Britainia Handiarekin eta Estatu Batuekin egindako Teherango, Yaltako eta Postdameko konferentzietan, Sobietar Batasunak bere lurraldea handitzea lortu zuen (Poloniako eta Errumaniako lurralde batzuk; Errepublika Baltikoak, eta abar); eta, gainera, Ekialdeko Europan Stalinek Sobietar Batasunaren mendean egongo zen «eragin-esparru» bat eratzea lortu zuen, Sobietar Batasunaren defentsa-eremua eraikitzeko. Beraz, nazioartean, Sobietar Batasuna ikaragarri indartuta irten zen gerratik, superpotentzia bilakatuta, AEB bezala; nazioarteko sistema bipolarra sortu zen, eta bere eragin esparruan «herri-demokraziak» izenekoak sortu zituen.

5.3. *HERRI-DEMOKRAZIAK STALINEN GARAIAN: KONTZEPTUA ETA ERAKETA*

Bigarren Mundu Gerraren ostean, eta Gerra Hotzaren hasieran, errealitate geopolitiko berria sortu zen. Ekialdeko eta Erdialdeko Europako herrialde multzo batean eredu ekonomiko eta politiko sobietarra ezarri zen eta, geostrategiari zegokionez, Sobietar Batasuneko segurtasun «glazis» bihurtu zen eskualdea, Gerra Hotzaren testuinguruan.

Eraketa. II. Mundu Gerraren garaian, Armada Gorriak askatu zuen eskualde hori; Jugoslavia izan zen salbuespena, Titoren partisano komunistek askatu baitzuten. Aliatuen arteko konferentziek (Teherangoak, Yaltakoak, Potsdamekoak) bide eman zuten Europa «eragin-esparruetan» banatzeko superpotentzien artean: AEBren hegemonia ezarri zen Mendebaldeko Europan, eta Sobietar Batasunarena Ekialdekoan.

5.1. 1945-1949 Ekialdeko Europaren sobietartze-prozesua.



Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, I., 107. or.

Zenbait faktorek handitu zuten komunismoaren eragina: Armada Gorriak eta partisano komunistek (Polonian baita katolikoek ere) irabazi zuten Alemaniaren aurkako gerra; gatazkaren ondorioz, elite politiko-ekonomikoa desagertu egin zen; komunisten proposamenek inoiz baino erakargarritasun handiagoa zuten eta Sobietar Batasunak babesa eta laguntza eskaini zien bere jarraitzaileei sozialismoa ezar zezaten. Aliatuen arteko lankidetzaren eten zenean eta horrekin batera Gerra Hotza piztu zenean, Sobietar Batasunak ahalegin berezia egin zuen eskualdea sobietartzen, eta hainbat herrialde (Ekialdeko Alemania, Polonia, Txekoslovakia, Hungaria, Errumania, Bulgaria, Jugoslavia eta Albania) sozialismoaren bidean jarri zituen.

Zenbait etapa izan zituen sobietartze-prozesuak. 1945etik 1946ra bitartean Fronte Popularreko gobernuak ezarri ziren: pluralismo politikoa onartu zen eta ekonomia mistoa jarri zen indarrean, baina gobernuko ministerio nagusiak (polizia, justizia eta armada) komunistek kontrolatu zituzten. Bigarren etapan, 1947 eta 1948 urteetan, komunistek gobernutik kanporatu zituzten etsai politikoak, eskuinteko alderdiak debekatu zituzten, eta ezkerreko alderdiak Alderdi Komunistan integratu ziren. Une hartan, egitura ekonomikoa ere birmoldatu zen: bankuak eta enpresa handiak nazionalizatu eta nekazaritza birmoldatu egin zen. 1948. urterako herrialde guztietan nagusitu zen alderdi bakarreko sistema, sobietar ereduari jarraituz sistema politikoan zein ekonomikoan (nekazaritzaren kolektibizazioa, industriaren nazionalizazioa, plangintza zentralizatu eta industrializazio azkarra, industria astunari lehentasuna emanez). Ezberdintasun garrantzitsuena izan zen nekazaritzan eragin txikiagoa izan zuela kolektibizazioak, lurjabe txikien jardura baimenduta baitzegoen. Sobietar Batasunaren premiak asetzeko erabili zen ekonomia zati handi bat. Funtsezko desberdintasun bat zegoen herri-demokrazien eta SESBren artean: barne-iraultzaren emaitza zen Sobietar Batasunaren erregimena; herri-demokraziak, aldiz, neurri handi batean, kanpotik ezarritako sistemak ziren. Ondorioz, zilegitasun arazo handiagoa zuten. Alderdi Komunistek ere Sobietar Batasunekoak baino kide gutxiago zituzten, eta horrek ere ez zuen lagundu herritarren atxikimendua handitzen.

Gerra Hotzaren hasierako testuinguruan (Truman doktrina, Marshall plana eta abar), Sobietar Batasunak nazioarteko erakundeak sortu zituen inguruko herrialdeak estuago kontrolatzeko eta bloke sozialista eratzeko: Kominform, 1947an; Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua, 1949an; eta Varsoviako Ituna, 1955. urtean. Bestalde, Sobietar Batasunean bezala, herrialde horietan ere Stalinekin depurazio-prozesua gauzatu zuen, herrialde horietako alderdi komunistak kontrolatzeko; eta konfiantzazko buruzagiak jarri zituen agintean. Estatu «berrien» kanpopolitika ere SESBren mendean zegoen. Ez bakarrik hori; Sobietar Batasunak erreparorik gabe aitortu zuen herrialde horietan esku hartzeko eskubidea mantentzen zuela, «sozialismoa» arriskuan izanez gero.


Jugoslavia eta Albania izan ziren salbuespenak, hainbat arrazoi zirela medio. Jugoslavian, Tito mariskalak bide propioa eraiki zuen autokudeaketaren bitartez, eta 1948an Kominform-etik kanporatu zuten desbiazionista eta Sobietar Batasunaren etsai izateagatik. Kontrakoa izan zen Albaniaren kasua: Stalin hil ondoren, uko egin zion desestalinizazioari eta Txinara hurbildu zen, komunismo ortodoxoa mantendu nahian.

5.4. KHRUSTXOV-EN GARAIA (1953-1964)

Stalin 1953. urtean hil zen, eta haren heriotzarekin aro berria zabaldu zen Sobietar Batasunaren historian. Alderdi Komunistaren barneko sektoreak boterea lortzeko lehian hasi ziren eta, zuzenean edo zeharka, horretarako egitasmoak plazaratu zituzten alderdiko buruzagiek (Malenkov-ek, Molotov-ek eta Khrustxovek). Lehia horretan Khrustxov atera zen garaile, eta 1964. urtera arte kontrolatu zuen boterea; baina ordurako ez zen diktadura pertsonalean oinarritutako erregimena, zuzendari-tza kolektiboan baizik, hots, alderdiaren diktaduran. Garai hartan, bi joeraren arteko desoreka agertu zen. Khrustxovek erreformak eta aldaketak bultzatu zituen; baina, Stalinen garaian eratutako inperioa eta botere-egiturak ukitu gabe, Sobietar Batasunaren boterea eta nagusigoa mantentze aldera. Beraz, erreforma politikoa egin nahi zen, baina Stalinen sistemaren funtsak ukitu gabe. Prozesu horren buruzagiak, gainera, Stalinen lankide ohiak ziren eta Stalinen politikaren pieza garrantzitsuak izandakoak. Khrustxov, adibidez, Ukrainan gertatutako milaka heriotzen arduraduna zen.

Alderdi Komunistak, bere XX. kongresuan (1956an), estalinismoaren kritika plazaratu zuen Khrustxov idazkari nagusiaren bidez; haren gehiegikeriak eta alderdikideen garbiketarik salatatu zituen. Salaketa horren asmoa zen, alderdia berpizte aldera, alderdikideen segurtasuna bermatzea eta aurreko praktika errepresiboak ez zirela berriro ere gertatuko adieraztea. Khrustxov bere tokiaz baliatu zen etsai politikoak alboratzeko. Desestalinizazioak muga garbia zuen: ez zen sistema politikoa kritikatzeko, ezta alderdia ere, agintari baten (Stalinen) gehiegikeriak baizik; alderdikideen kontrako errepresioa bakarrik gaitzetsi zen, eta ez populazioaren kontra zuzendutakoa; esate baterako, kolektibizazioa ezartzeko zapalkuntza erabili zen; are gehiago, goraiatu egin ziren Stalinen kolektibizazio- eta industrializazio-ahaleginak. Khrustxoven ustez, Stalinen garaian izandako errepresioa eta purgak gizon baten erantzukizuna ziren, eta inolaz ere ez botere-sistema batena; beraz, ez zen sekula eztabaidatuko alderdiaren botere-monopolioa.

5.2. 1953 Sobiet Batasunaren gune ekonomiko garrantzitsuenak.



Iturria: Kinder, H. eta Hilgemann, W. (1971): *Atlas Histórico Mundial*, 1985, Madril, 244. or.

Bestalde, desestalinizazioak aukera eman zuten neurri gogorrenak biguntzeko eta kultura-alorrean, esate baterako, apur bat irekitzeko: adierazpen-forma berriak (errealismo sozialista jarraitzen ez zutenak) baimendu ziren, baina zentsura ez zen desagertu; hau da, liberalizazioa bai baina alderdiak kontrola galdu gabe. Arazo nazionalari zegokionez, Stalinekin nazioekin jarraituriko politika ere kritikatu zuen Khrustxovek 1956ko XX. Kongresuan; eta errusiartze-prozesuari uko eginez, nazionalitateen arteko desberdintasunak ez zirela ezabatu behar aldarrikatu zuen. Horrekin batera, kultura-tolerantzia handiagoa izan zuten eta errepublikei autonomia handiagoa eman zitzaizkien hasieran. Egoera hartan, ugaltu egin ziren nazioen hizkuntzari eta kulturari zegozkien aldarrikapenak, eta mugimendu nazionalistak indarberritu ziren, batez ere Baltikoko errepubliketan. Baina eskaera horiei erantzuna eman ordez, aurreko politika zentralistara itzuli zen erregimena. Dena den, desagertu egin ziren Stalinen garaiko terrorea, errepresio bortitza eta zabala, eta askoz handiagoa izan zen herritarren lege-babesa.

Ekonomiari zegokionez, Khrustxoven garaian artean asko hazi zen ekonomia, baina sobietar eredu ekonomikoaren mugak eta arazoak azaltzen hasi ziren. Horregatik saiatu ziren sobietar agintariak lehenengo erreforma ekonomikoak indarrean jartzen. Ekonomiaren plangintza zentralizatuak zekartzan zurruntasuna, burokratizazioa eta eraginkortasunik eza izan ziren konpondu nahi izan zituzten arazo

nagusiak. Horretarako, plangintza-prozesua deszentralizatzen hasi ziren, eskualde-mailako erakundeen mesedetan. Bestalde, nekazaritzaren atzerapen erlatiboa zela-eta, Khrustxoven garaian arreta handiagoa eskaini zitzaion sektore horri, eta indarrean jarri zen nekazaritza suspertzeko politika. Esate baterako, Asiako «lur birjinen» operazioa antolatu zen, landu gabeko lurak soro bilakatze aldera. Ahaleginak ez zituen arazoak konpondu, eta nahiz eta produkzioa handitu, SESBk laboreak kanpoan erosten jarraitu behar izan zuen. Industriari zegokionez, sektore berriak bultzatu zituzten (kimikarekin lotutakoak); beste sektore batzuk, ordea, kontsumo-ondasunen industria adibidez, gutxi garatu ziren. Izan ere, arlo horretan ere ahulegiak izan ziren erreformak: ez zituzten sistemaren oinarriak aldatu eta ez zien aurre egin benetako arazoei (produktibitate eskasari, langileen sustapen-neurri faltari, enpresen autonomiarik ezari eta, oro har, kontsumitzailea aintzat ez zuen sistema ekonomikoari).

Khrustxoven garaian kontzeptu berri bat agertu zen kanpo-politikan: «bakezko bizikidetasuna»k adierazi nahi zuen sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko gatazkak bide diplomatikoak erabiliz konpon zitezkeela, elkar onartuz eta ez elkar suntsituz. Baina Khrustxoven ustea zen indar-posizioetatik baino ezin zela negoziatu eta, hamarkadaren aurreneko urteetan tentsioak baretu baziren ere, azken urteetan inoiz baino gogorragoa izan zen lehia. Beste krisi batzuk piztu zirenean (Kuban eta Berlinen), arma-lasterketak jarraitu egin zuen eta oso hurbil egon zen gerra nuklearra. Bestalde, handitu egin zen Sobietar Batasunaren eragina Hirugarren Munduan: estutu egin ziren herrialde horiekiko harremanak eta lotura ekonomikoak (Egiptorekin, Indiarekin eta Indonesiarekin, besteak beste), nahiz eta ez izan erregimen komunistak. Khrustxoven garaiko beste gertaera garrantzitsu bat Txinarekin harremanak haustea izan zen 1960. urtean, Moskuren monopolio ideologikoa ahuldu zuelako sozialismorako bide berrien mesedetan.

Desestalinizazioak ondorio garrantzitsuak izan zituen Ekialdeko Europan: erreforma-egitasmoak bultzatu ziren herrialde batzuetan. Jugoslaviarekin harremanak berrezarri ziren; hori ikusita, bazirudien Sobietar Batasunak sozialismorako bide nazionalak onartuko zituela eta sobietar kontrola ahuldu egingo zela herrialde horien gainean. Testuinguru hartan, 1953an mugimendu erreformistak sortu ziren Ekialdeko Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian; kasu askotan, herrialde horietako alderdi komunisten barnean eredu estalinista eraldatu nahi zutenek bultzatu zituzten aldaketak, baina arrakasta handiegirik gabe. Hala ere, hainbat buruzagi aldatu ziren. Protesten adibiderik azpimarragarriena eta muturrekoena Hungaria izan zen, 1956. urtean, herri-mugimenduaren eta alderdi komunistaren zuzendari-tza berriaren eskutik. Alderdiko buruak, Imre Nagy, erreforma sakona proposatu zuen eta erabaki ausartak hartu zituen: gobernu-koalizioa osatzea eta alderdiaren botere-monopolioari uko egitea. Sobietar Batasunak ez zituen erreformak onartu, eta Nagy sobietar bloketik irtetea proposatu zuen. Armada bidaliz erantzun zuen Moskuk eta 2.800 lagun hil ziren liskarretan. Fusilatu egin zuten Nagy bera.

Hungariako matxinadak eragin handia izan zuen Mendebaldean, agerian utzi baitzuen Sobietar Batasunaren izaera errepresiboa, baina Estatu Batuek ez zuten ezer egin esku-hartzea eragozteko, Hungaria bloke sobietarrean zegoen eta. Khrustxoven erreformak eta desestalinizazio-prozesuak eragin eskasa izan zuten Ekialdeko Europan; izan ere, Sobietar Batasunak liberalizazioa eta erreformak zapuztu zituen, herrialde horiek bloke sozialistatik irteteko arriskua saiheste aldera. Gorbatxoven garaian ez zen gauza bera gertatuko.

Hamar urtean agintean egon ostean, Khrustxovek ez zuen politika erreformista koherenterik gauzatu; baina, Armadaren eta Administrazioaren talde batek Khrustxoven politikaren aurkako jarrera garatu zuen. Gainera, haren erabaki politiko batzuek porrot egin zuten. Horren guztiaren ondorioz, SBAKeko komite zentralak kargutik kendu zuen Khrustxov 1964. urtean.

Batzuen ustez, sobietar sistema garaiz aldatzeko azken aukera izan zen Khrustxoven agintaldia. Eta aukera hori galdu egin zen. Baina beste historialari batzuek azpimarratu dute oso mugatuak izan zirela Khrustxovek bultzaturiko erreforma asko, azalekoak, beste batzuek (ekonomia aldatzeko erreformek) ez zutela helburua lortu, eta beste batzuek koherentzia falta zutela, zatika jarri zirelako eta gero bertan behera utzi zirelako. Funtsezko desberdintasun bat zegoen Gorbatxoven *perestroikarekin* konparatuz gero: Khrustxoven garaian ez zen sistema demokratizatzeko inolako saiakerarik bultzatu.

5.5. BREZNEVEN GARAIA (1964-1985)

1964tik 1982ra bitartean, hiru lagun (troika) esku egon zen Sobietar Batasunaren gidaritzan: Kosygin arduratu zen gobernuaz, Podgorny Sobiet Goreneko zuzendaritzaz, eta Leonidas Breznev izan zen alderdiko idazkari nagusia eta botere gehien bildu zuena bere baitan. Hirurak ziren nomenklaturaren ordezkari beteranoak, hots, Stalinen garaitik ekonomiaren eta administrazioaren ardura izan zuen taldearen ondorengoak. Epe luzea izan zen eta, maiz, azkeneko urteetako geldotasun eta dinamikotasun falta aro osora hedatu zen, aldatzeko ahaleginak aipatu ere egin gabe.

Buruzagi berriek oso garbi zuten beren eginbearra: politika birmoldatzeko asmoei atak ixtea. Desagertu egin ziren estalinismoaren aurkako kritikak eta disidenteak jazarri zituzten, nahiz eta ez itzuli inondik inora Stalinen garaietara. 10.000 preso politiko inguru zegoen 1970eko hamarkadaren erdialdera kontzentrazio-eremuetan edo psikiatrikoetan. Erakunde politikoak gelditu eta zaharkitu egin ziren. Esate baterako, agintarien artean oso gutxi aldatzen ziren postuz, eta pertsona berberak luzaroan irauten zuten agintean; horrela *gerontokrazia* sorrarazi zuten. Egoera hori ezin hobea zen burokraziak bere boterea eta eragina finka zezan. Brezneven garaian, burokraziak (*nomenklatura*) pribilegio handiak lortu zituen: haien bizi-baldintzak hobetu egin ziren, eta gainerako biztanleek baino askoz

bizitza-maila hobea izan zuten. Azken finean, Brezneven boterearen oinarri nagusia burokrazia edo *nomenklatura* zen, hau da, Alderdia eta Estatuaren aparatuek zuzentzen zituzten bi milioi lagun inguru. Horregatik egin zuen gora Alderdi Komunistako militante kopuruak: 1964an hamaika milioi zituen eta lau milioi gehiago 1973. urtean. Baina bilakaera horrek ez zion erantzuten erregimenarekiko atxikimenduari, SBAK promozio sozialerako bide nagusia baino ez baitzen. Ordu-rako, herritarrek ez zuten sinesten komunismoa epe laburrean gauzatu zitekeen sistema zenik, eta oposizio lausoa sortuz joan zen; Alexander Solzhenitsyn idazlea, Andrei Sajarov fisikaria eta Roy Mevdevev historialaria izan ziren oposizioko ezagunenetako batzuk. Biztanleriaren gehiengoa isilik mantendu zen, eta azaleko itxuraren eta benetako sentimenduen artean hipokresiaz, zinismoz eta etsipenez betetako horma eraiki zen.

Jarraitu beharraren eta geldialdi politikoaren arteko tentsioaren beste adibide bat 1977ko Konstituzioa dugu. Konstituzio horrek berresten zuen sistema politikoaren ardatza Alderdi Komunita zela; eta eskubideak onartzen baziren ere, estatuaren interesak gaineratik geratzen ziren. Nazionalitateekiko politikari dagokionez, areagotu egin zen zentralizazioa: aurreko etapan sorturiko eskualde-mailako erakunde ekonomikoak bertan behera utzi ziren, eta Konstituzioak handitu egin zituen Moskuren kompetentziak, errepublikan autonomiaren kaltean. Hala ere, zentralismo hori ez zen gai izan errepublikan arteko desberdintasun ekonomikoak ezabatzeko —alde handiak zeuden—. Baltikoko errepublikak ziren garatuenak; eslaviar errepublika handiak (Errusia, Ukraina eta Bielorrusia) eta Georgia eta Moldavia erdiko taldean zeuden; azkenik, askoz okerragoa zen Armenia, Azerbaijan eta Erdialdeko Asiako bost errepublikan egoera. Beraz, Sobietar Batasunean ere iparraren eta hegoaren arteko nolabaiteko desoreka zegoen, eta faktore hori garrantzitsua da geroago lehertuko ziren tentsio nazionalak ulertzeko.

Ekonomiari zegokionez, lehenengo urteetan *troika* saiatu zen hainbat aldaketa bultzatzen Kosyginen eskutik, enpresei autonomia handiagoa emanaz eta langileei soldatak igoz. Baina azaleko erreformak izan ziren eta, ezintasun produktiboa zela medio, beste behin, porrotean amaitu zuten. Horren ondoan, aldi berean, enpresen arteko negoziazio zuzenak hasi ziren, eta asko hazi zen ekonomia informala.

Honako hauek ziren sobietar ekonomiaren arazo nagusiak: pizgarri falta zuten enpresen zuzendariek eta langileek; plangintza zentralizatuaren zurruntasuna eta eraginkortasunik eza, *Gosplanek* (egitasmoak egiten zituen erakundeak) gehiegizko kontrola ezartzen baitzuen ekonomia guztiaren gainean; ekonomia kontrolatzeko adierazle kuantitatiboak erabiltzea, kalitatea kontuan hartu gabe; atzerapen teknologikoa eta nekazaritzaren produktibitate eskasa. Salbuespen bakarra industria militarren sektore estrategikoak ziren; izan ere, sobietarrek aurrea hartu zieten estatubatuarrei espazioko lasterketan, eta Yuri Gagarin errusiarra izan zen 1961. urtean espazioa zeharkatu zuen lehen gizakia. Hala ere, armagintza-industria

handiegia zen, eta baliabide ugariegi (BPGren % 15) bideratu ziren sektore horretara AEBrekiko lehiari eusteko. Amerikarrek, ordea, BPGren % 6 baino ez zuten zuzentzen defentsa-gastuetara.

Ekonomiaren gainbeheraren ondorio sozialak oso nabarmenak izan ziren: biztanleriaren bizitza-mailak txarrera egin zuen. Datu demografikoak oso adierazgarriak dira: umeen hilkortasun-tasa igo egin zen 1970eko hamarkadatik aurrera, eta bizi-itzaropena jaitsi. Elikagaien urritasuna eta etxebizitzaren arazoak ere nabariak ziren. Arazo sozialak hedatzen joan ziren, eta horrek populazioaren lehenengo protestak eragin zituen.

Brezneven taldearen kanpo-politikaren helburu nagusia bloke sozialista sendotzea zen, eta bloke horren barnean Moskuren buruzagitza eta nazioarteko mugimendu komunistaren zuzendaritza indartzea. Horretarako, zorrotz kontrolatu behar zituzten aliatuak, batez ere Ekialdeko Europan. Adibiderik argiena 1968ko Pragako Udaberria dugu: herritarrek, ikasleek eta intelektualek zuzenduta eta egoera ekonomiko txarrak bultzatuta, eskubideak eta askatasunak eskatu zituzten han. Protesta horiek eragina izan zuten Alderdi Komunistan eta, joera erreformistak nagusitu zirenez, Alexander Dubcek izendatu zuten alderdiaren idazkari nagusi. Dubcekek neurri ausartak proposatu zituen: adierazpen-askatasuna, erlijio-askatasuna, Eslovakiarentzako autonomia-estatutua eta aniztasun politikorako lehenengo urratsak egitea. Hango agintarien hitzetan, «aurpegi gizatiarreko sozialismoa» eraiki nahi zuten. Sobietar Batasunaren erantzuna, ordea, betiko bidetik etorri zen. Pragako aldaketak bloke komunista osoaren kontrako eraso zirelakoan, Varsovia-ko Itunaren tropak bidali, herri-mugimendua zapaldu eta Txekoslovakiako Alderdi Komunistaren «garbiketa» bultzatu zuen.

Bestalde, SESBk bere eragina handitu nahi zuen Hirugarren Munduan (Afrikan eta Ekialde Hurbilean). 1979. urtean Afganistan inbaditu zuen Sobietar Batasunak hango gobernu komunista babesteko, eta hamar urtez luzatu zen operazio militar labur gisa aurreikusita zegoena. Izandako giza galerek eta gerraren kostu ekonomikoek are gehiago larritu zuten Sobietar Batasunaren zuzendaritzaren egoera, eta herritar asko azaldu ziren gerraren aurka. 1982an hil zen Breznev, luzaroan gaixo egon ondoren. Yuri Andropov izan zen ordezkoa, zerbitzu sekretuen buru ohia. Baina bi urte geroago, 1984an, Andropov ere hil egin zen, eta gauza bera gertatu zen hurrengo urtean ordezkorekin, Konstantin Chernenko-rekin. Bazirudien bi buruzagi zaharrek egitasmo erreformista gauzatu nahi zutela, baina ez zuten denborarik izan asmoak aurrera eramateko. Andropovek, esaterako, bere egin zuen 1983an ekonomialari talde batek idatzitako Novossibirsk-eko Txostena. Merkatua garatu beharra eta zentralismoak langileen pasibotasuna bultzatzen zuela esaten zen txostenean, bai eta erreforma horiek bultzatzeko beharrezkoa zela gizarte-babesa ere. Berehala azaldu zen nomenklatura, proposamen horien aurka.

5.6. ERREFORMEN PORROTA GORBATXOVEN GARAIAN (1985-1991)

Andropoven eta Chernenkoren heriotzen ondoren (71 eta 74 urteko buruzagiak, hurrenez hurren), Alderdi Komunistako Buruzagitzak idazkari orokor gazteagoa aukeratzea erabaki zuen, 54 urteko Mijail Gorbaxov. Izendapenak, Sobietar Batasunaren jarraipena bermatu ordez, amaieraren hasiera eragin zuen. Izan ere, Gorbaxovek kargua hartu orduko erreforma-egitasmo bat (*perestroikaren* birmoldaketa) iragarri zuen eta, egitasmoa garatzean izandako porrotaren ondorioz, Sobietar Batasuna desegin egin zen sei urte geroago.

Hainbat interpretazio, eta kasu batzuetan kontrajarriak, daude *perestroikaren* inguruan. Honako hauek dira nagusi. Batzuen ustez, Gorbaxov benetako erreformista zen eta Alderdi Komunistaren sektore kontserbadoreek oztopatu zuten haren politika. Berez, Gorbaxoven helburua sistema zaharra deuseztatzea zen, eta sistema politiko eta ekonomiko berria ezartzea, demokrazia parlamentarioan eta merkatu-ekonomian oinarriturikoa. Beste batzuek, ordea, (Zubov historialariak, besteak beste) uste dute Gorbaxoven helburua ez zela sistema zaharra guztiz aldatzea, ahal zen neurrian mantentzea baizik, burokraziari irteera duin bat eskainiz. *Perestroikak* beste proiektu bat eraiki nahi zuen: Mendebaldeari aurre egiteko gai izango zena hainbat esparrutan (ekonomian, armagintzan edo erakar-garritasunean). Gorbaxovek demokrazian eta sozialismoan sinesten zuen. Horregatik, une askotan kontserbadoreen edo erreformen kontrakoen laguntza eta sostengua ere jaso zuen. Baina ibilbide horretan, «gaixoa» hil egin zen, zarata gehiegirik atera gabe, diziplinaz.

Bi erataria sailka daiteke garai historiko hura: kronologikoki eta gaika, arazo nagusien arabera. Hiru aldi bereiz daitezke *perestroikaren* garapenean. Lehenengoan, (1985-1987) azaleko erreformak proposatu ziren (diziplinaren, ustelkeriaren eta alkoholismoaren kontrako kanpainak). Hala ere, bi aldaketa garrantzitsu gertatu ziren: batetik, kanpo-politika berria gauzatu zen, arma-lasterketa deuseztatu zuena; bestetik, *glasnosta* (gardentasuna), hots, komunikabideetan eztabaida askea garatzeko aukera onartu zen eta horretarako adierazpen-askatasuna baimendu zen. Bigarrenean (1987-1990), erreforma-egitasmo zabalagoa hasi zen, bai ekonomian (estatuaren enpresen legea), bai sistema politikoan (hauteskundeak eta bide demokratikoaren lehenengo urratsak). Aldi berean, tentsio nazionalak azaldu ziren (Kaukason eta Baltikoan). Azkenik, hirugarren aldi (1990-1991), apurto egin zen ordura arte sobietar zuzendaritzan kontserbadoreen eta erreformisten artean izandako oreka.

Aldaketa politikoen ikuspegitik, oso garrantzitsua izan zen 1986. urtea. Apirilaren 23an, Ukrainako Txernobileko zentral nuklearrean eztanda larria gertatu zen eta inguru guztia kutsatu zen. Giza hondamendi izugarria izan zen, eta milaka hildako eta milioika kaltetu izan ziren; horrek guztiak agerian utzi zituen sistemaren gabeziak. Urte hartan hasi ziren lehenengo kale-protestak, herritar batzuek prentsan idatzitako artikuluetatik ekintza kolektiborako urratsa egin zutenean. Ez zuten jende asko bildu (legez kanpokoak zirelako, besteak beste), baina pixkanaka-pixkanaka gero eta talde gehiago osatu ziren Sobietar Batasun osoan. Horietako batzuk oso erradikalak ziren eta sistema politiko osoa deuseztatzea eskatzen zuten. 1988. urtera arte itxaron behar da sistema politikoaren liberalizazioa ikusten has-teko. Giza eskubideei errespetu handiagoa bermatzen zietenak eta 1989an Herri Diputatuen Kongresua osatzeko egin ziren hauteskundearen deialdia izan ziren erreforma garrantzitsuenak. Sobietar Batasunean, lehendabiziko aldiz, alderdi komunistakoak ez ziren hautagaiak aurkez zitezkeen; baina, hala ere, eserlekuen herena erreserbatuta zegoen Alderdi Komunistaren erakundeentzat. Hurrengo urtean, hauteskunde-sistema bera erabili zen errepubliketan eta tokian tokiko era-kundeak hautatzeko. Erreforma horiek ireki zituzten aukeren ondorio izan zen zen-bait alternatiba politiko agertzea hiri handietan eta mugimendu nazional indartsuak zituzten zenbait errepublikatan. Horretaz gain, boteregune berriak azaldu ziren, batez ere errepublika batzuetan, eta horiek zalantzan jarri zuten Moskuren agintaritza. Gorpuzten ari zen oposizio politikoa, baina era askotarikoa zen: sistemaren kanpotik komunismoaren aurka zeudenak; Alderdi Komunistaren barnetik erreforma erradikalagoak eskatzen zituztenak (Jeltsin); errepubliketako oposizio nazionalista (Baltikoko eta Kaukasoko herrialdeak edo Ukraina); eta erreformen kontrako taldeak, nagusiki Alderdi Komunistaren barnekoak.

Aldaketa horiek gauzatu ahala, Sobietar Batasuneko sistema ekonomikoa berritzen saiatu zen Gorbatxov. Lehenengo etapan, 1985etik 1987ra bitartean, ez zen gauzatu erreforma ekonomiko sakonik; azaleko neurriak hartu ziren produkti-bitatea gehitzeko asmoz (lan-absentismoa murrizteko neurriak, aparatu administra-tiboa murrizteko, alkoholismoaren kontrako kanpainak, eta abar), baina sistemaren oinarriak ukitu gabe. 1987. urterako begi-bistakoa zen neurri horiek ez zutela lortu ekonomiaren gaitzak zuzentzerik eta ekonomia krisi larrian murgilduta zegoela. Urte hartan beste egitasmo bat aurkeztu zen, ekonomia suspertzeko asmoarekin: estatuaren enpresen legea izenekoa (Kosyginen erreformaren antzekoa). Plangintza zentralizatuari eustea eta, aldi berean, aldaketa batzuk ezartzea zen erreformaren filosofia: autonomia enpresentzat, errentagarriak ez zirenak ixteko aukera, kanpo-merkataritzaren liberalizazioa eta prezio-sistemaren erreforma. Lege horren emaitzak txarrak izan ziren: ez zen bete-betean indarrean jarri (prezioen erreforma atzeratu egin zen, errentagarriak ez ziren enpresak ez ziren itxi, eta abar). Gero eta okerra-goak ziren emaitza ekonomikoak. Izan ere, aurreko sistema krisian murgilduta bazegoen ere, ez zen ordezeko sistemarik eratu. Are okerrago, atzerrian, nazioarteko politikan gauzaturiko lasaitasunarekin eta hobekuntzarekin lotzen zuten Gorba-

txov, baina, Sobietar Batasunaren barruan, egunetik egunera handitzen ari zen krisi ekonomikoarekin identifikatzen zuten herritar askok.

Gorbatxoven hirugarren arazo multzoa —haren etorkizunerako, beharbada, garrantzitsuena— nazionalitateen auziarekin zegoen lotuta; izan ere, *perestroikak* eta *glasnostek* ustez desagertuta zegoen kontua eraman zuten berriz mahai gainera. Urte horietako nazionalismoaren pizkunde handiak faktore askori erantzuten zion. Lehenik eta behin, Sobietar Batasuneko egitura politikoa ez zen egokia, zeharo zentralizaturik zegoen berez etnia anitzeko eremua zena. *Glasnostek* errepublikaren historia berraztertzea ahalbidetu zuen, eta sinbolo historikoak eta ikur nazionalak berreskuratu ahal izan ziren. Sistema komunistaren sinesgarritasuna eta oinarri ideologikoa krisian zeuden aspaldian, eta hutsune hori (ideologiarena eta egitasmoena) nazionalismoak bete zuen kasu askotan. Lau nazionalismo bereiz daitezke, nahiz eta haien arteko mugak maiz lausoak izan. Historikoki independente izandako errepubliketan (esaterako, herrialde baltikoetan eta Georgian) sortutakoa dugu lehena, behetik gora garatu zena, nahiz eta toki batzuetan tokiko buruzagien babesaren izan. Mugimendu horiek sortzeko garrantzitsua izan zen aurretik estatu independentea eratu izana, baita biztanleriak masa kritiko jakin bat gainditzea, milioi bat lagunetik gora (Sobietar Batasunaren barruan bizi ziren talde etniko askok oso jende gutxi biltzen zuten), hiritartze-maila egokia eta hizkuntza nazionalari eustea. Asiako errepubliketakoa dugu bigarren nazionalismo mota: hango buruzagiek, botere-zilegitasun berria lortze aldera, herrialdeen harreman-sare tradizionalaletatik sortutakoa. Tadjikistanen, adibidez, Emomali Rakhmonov presidentea kargua betetzen ari da, etenik gabe, 1992. urtetik aurrera. Herri txikiago batzuk ere, Kaukaso inguruan edota Asiako aldean, saiatu ziren mugimendu nazionalistak gorpuzten, baina kasurik onenean autonomia zabalagoa baino ez zuten lortu. Beste bi nazionalismo motak Errusiarekin lotuta daude. Bat zilegitasuna lortzeko eta botere-guneak eskuratzeko garatu zen, Jeltsinek ordezkatu zuena, esaterako; Errusia independentea eraikitzea zen asmoa, haren politikaren ondorioa behintzat. Azkenik, beste nazionalista multzo bat eskuin muturrean kokatu zen eta tsarren garaiko Errusiaren itzulera eskatu zuen: juduen kontra, Mendebaldearen aurka eta Errusiako Errepublikaren barnean ziren beste nazionalitateen aurka oldartu ziren. Errusiar Federazioaren barneko beste herri batzuen eskakizunei aurre egiteko balio izan zuen errusiar nazionalismoak, tartaroen, txetxeniarren eta abarren aurka egiteko, hain zuzen.

Aipatu dugun giro politiko eta ekonomiko horretan, gatazka nazionalistak piztu ziren errepublika askotan. Tentsiogune nagusiak hiru eremutan kokatu ziren: Baltikoko errepubliketan, Kaukaso inguruan eta Erdialdeko Asian. Herrialde baltikoek (Estoniak, Lituaniak eta Letoniak) ezaugarri bereziak zituzten: garapen-maila altuagoa zuten eta independenteak izan ziren 1918tik 1939ra bitartean. Errusiar asko bizi ziren herrialde baltikoetan, sentimendu nazionalistak isilarazteko esperantzarekin bidalitakoak batzuk edota, besterik gabe, egoera ekonomiko onak

erakarritakoak. Dena den, Alderdi Komunistaren tokiko erakundeen babesarekin, pixkanaka antolatu egin zen biztanleria eta, Sobietar Batasuneko konstituzioko autodeterminazio-eskubideaz baliatuz, independentzia eskatu zuten. Kaukasoko hegoaldean (Armenian, Azerbaijanen eta Georgian) lehenago hasi ziren gatazkak, errepubliken arteko lurralde-arazoak baitzeuden askoz lehenagotik. Adibidez, Armeniaren eta Azerbaijanen artean dagoen Nagorni-Karabajen kontrola zela-eta, gerra ez-ofizial bat gertatu zen bi errepubliken artean. Erdialdeko Asiako errepubliketan ere, Batasuneko eskualderik atzeratuenean, etnien arteko gatazkak gertatu ziren, arazo erlijiosook, nazionalistak eta boterea eskuratzeko edo mantentzeko ahaleginak zirela tarteko.

Mugimendu nazionalisten indarra ikusita, 1990. urtean politika aldatu behar izan zuten agintari zentralek. Sezesio Legea eta Batasunaren Hitzarmen Legea (errepublikekin negoziatu beharrekoa) onartu zituen Sobietarren Kongresuak. Sezesio Legeak autodeterminazio-eskubidea onartzen bazuen ere, erreferendumean independentzia lortzeko boto kopuru altua eskatzen zen; gainera, prozesua atzeratu zitekeen gutxiengo etnikoak babesteko, eta azken erabakia botere legegilearena zen. Batasunaren Hitzarmenaren asmoa deszentralizazioa bultzatzea zen, konpetentzia asko errepubliken esku utzita, baina horretarako independentzia lortzeari uko egin behar zioten errepublikek. 1991ko erreferendumean onetsi zen Hitzarmena, baina gatazkaguneetan (Baltikoan eta Kaukason) abstentzioa izan zen nagusi; berriro ere hitzarmena negoziatzeko prest azaldu zen Gorbaxov, errepublikei konpetentzia gehiago emateko, baina urte horretako estatu-kolpeak akordio berria galarazi zuen.

Egoera zeharo nahastu zitzaion Gorbaxovi 1989. urte amaieratik aurrera. Sobietar Batasunak sekulako krisi ekonomikoa eta politikoa bizi zuen. Gorbaxovek, erreformisten babesa galtuta zuenez, 1990eko irailetik 1991ko apirilera kontserbadoreen sostengua bilatu zuen politikaren norabidea aldatuz. Aurreko orekan Gorbaxov erdigunean zegoen, batzuetan kontserbadoreen sostengua bilatzen zuen, eta beste batzuetan erreformistena. Egoera berrian (oreka hautsi ondoren), Gorbaxov alderdiaren joera kontserbadorean babestu zen: bertan behera utzi zituen erreforma ausartak (Shatalin plan ekonomikoa) eta politika kontserbadorea garatu zuen. Ildo horretan, Baltikoko mugimendu nazionalistaren kontrako errepresioa bultzatu eta errepubliken autodeterminazio-eskubidea oztopatuko zuen Batasun Hitzarmen berria proposatu zuen. Bestela esanda, ahuldu egin ziren erreformak. Egoera horretan (krisi ekonomiko larria, herri-protestak, mugimendu nazionalistak indartuta, eta abar), Errusiar Federazioko buruak, Boris Jeltsin erreformistak, gero eta ospe handiagoa bereganatu zuen. Ondorioz, botere-bikoiztasuna edo dualitatea eratuz joan zen: sobietar boterea batetik, eta errusiarra bestetik.

Gorbaxoven politika-aldaketak ez zuen emaitza onik lortu, eta berriro ere bide erreformistara makurtu zen presidentea. Estatu-kolpea prestatzea izan zen

kontserbadoreen erreakzioa —1991ko abuztuaren 18rako—. Honako hauek presatatu zuten estatu-kolpea: alderdiaren sektore kontserbadoreak (tartean Yanaev, Gorbaxoven presidenteordeak, eta Defentsa eta Barne ministroak), zenbait buruzagi militarrek eta KGBko kideek. Kolpea oso gaizki antolatu zen. Gorbaxov oporretan Krimean zegoela, udako egoitzan konfinatu zuten; kolpistek gaixorik zegoela esan zuten eta ez zela gobernatzeko gauza. Horregatik aurkeztu zuten zuzendaritza berria, eta salbuespen-egoera ezarri zuten legea eta ordena salbatzeko. Oposizioak, Jeltsin eta Errusiako Parlamentua buru zituela, ez zuen onartu kolpezaleen argumentua, eta kalera irten zen Moskun armadaren zati baten laguntzarekin. Errepubliketako presidenteez ere gaitzetsi egin zuten kolpea, eta gauza bera egin zuten nazioarteak. Egoera hartan, kolpistek amore eman zuten eta egoera normaltasunera itzularazten saiatu ziren.

Ez zen horrelakorik gertatuko. Jeltsinek irabazi zuen ordura arte izandako bi botereen arteko lehia. Gorbaxov askatu zuten, baina politikoki oso ahulduta gelditu zen (haren laguntzaileak izan ziren kolpistak). Errepublikak Gorbaxoven kontra azaldu ziren eta independentzia aldarrikatu zuten batak bestearen atzetik. Gorbaxovek abenduaren 25ean dimititu zuen eta urte bukaeran Sobietar Batasuna ez zen jada existitzen; haren tokian hamabost estatu berri zeuden. Errusiar Federazioak (estatu handienak) jaso zituen biztanleriaren erdia, barne-produktu gordinaren % 60 eta lurraldearen hiru laurdenak eta, horren ondorioz, nazioarteko tratatuetan Sobietar Batasunak zuen tokia berak jaso zuen, baita armagintza nuklearra kudeatzeko ardura ere. Herrialde baltikoek izan ezik, beste hamabiek Estatu Independenteen Erkidegoa osatu zuten beren arteko lankidetzaz bermatzeko. Hala ere, Estatu Independenteen Erkidegoa egitura politiko ahula izan da. Batetik, ez du nazioz haraindiko eskumenik izan eta, bestetik, desadostasunak sortu dira estatu kideen artean; adibidez, Georgiak, Ukrainak, Uzbekistanek, Armeniak eta Moldaviak talde bat osatu zuten —GUUAM— errusiar eraginetik aldendu nahirik. Vladimir Putin-ek esan zuen bezala, Estatu Independenteen Erkidegoa dibortzio zibilizatua bideratzeko tresna baino ez da izan.

Zergatik desagertu zen hain arin eta istilu edo erresistentzia handirik gabe ustez hain sendoa zen inperioa? Ez da erraza galdera horri erantzutea, baina bi faktore multzo bereiz daitezke. Lehenak egoera ekonomikoarekin zuen lotura. Laurogeiko hamarkadan oso nabaria zen eredu ekonomiko komunistak huts egin zuela, ez zela gai aurreko garaietako hazkunde-tasari eusteko eta, gainera, atzeraka ari zela inbertsio faltaren ondorioz eta erabilitako teknologia zaharkituta geratu zelako. Gehiegizko burokrazia, ustelkeria eta lagunkeria ziren sistemaren oinarriko elementuak. Herritarrak oso haserre zeuden; izan ere, bazuten estatu kapitalisten garapenaren eta onuren berri eta bazekiten bizitza-kalitateari zegokionez nolako aldeak zeuden SB bertan eskualde batetik bestera. Ezinezkoa zen aurrera egitea errotik aldatu gabe, eta inork gutxik defenda zezakeen Sobietar Batasuna bere horretan mantentzea. Are gehiago, pribilegiatu batzuk askoz ere hobeto bizi

zitezkeen erregimen kapitalista batean, komunismoak nomenklaturari eskaintzen zizkion abantailekin baino.

5.3. 1991 Errusiar Federazioaren barne-banaketa.



GUTXIENGO ETNIKOAK ETA BERAIEN PORTZENTAJEAK

1 Karelia %74	8 Bashkortostan %59	15 Dagestan %9
2 Komi %58	9 Adigei %68	16 Kalmikia 38%
3 Mordovia %61	10 Karatxai-Kerkesia %42	17 Altai %60
4 Txuvasia %27	11 Kabardino-Balkaria %39	18 Khakasia %79
5 Mari %47	12 Ipar Osetia %30	19 Tuva %32
6 Tatarstan %43	13 Ingushia %23	20 Buriatia %70
7 Udmurtia %59	14 Txetxenia %23	21 Yakutia %50

Iturria: Overy, R. (2001): *Atlas Ilustrado de Historia Mundial*, Reader's Digest, Mexico.

Bigarren faktore multzoa sistemaren oinarri ideologikoekin lotuta zegoen. SB diktadura bat zen, baina ez zion inoiz uko egin jatorrian zegoen pentsamendu iraultzaileari. Horren arabera, desberdintasunaren, esplotazioaren eta zapalkuntzaren aurka borrokatu nahi zutela aldarrikatzen zuten sobietar buruzagiek. Arrazakeriaren eta kolonialismoaren biktimekiko elkertasuna adierazten zuten, eta langileriaren bizi-baldintzak erabat hobetzearen alde ari ziren lanean. 1977ko Konstituzioak, aurrekoek bezala, helburu horiek guztiak zehazteaz gain, nazionalitateei auto-determinatzeko eskubidea aitortzen zien nazionalitateei eta errepublikaren eskumen formalak xehatzen zituen. Marko juridikoak erraztu egin zuen banatu nahi zuten nazionalitateen ibilbidea; ideologia sozialista oztopo zen, nahiz eta ez erabatekoa, askatasuna eskatzen zutenen aurka oldartzeko eta, aldiz, erraztu egin zien azken horiei ortodoxia sozialistaren antza izan zezakeen diskurtso bat eraikitzea. Errusian historikoki agintariekiko egon zen mendekotasun- eta diziplina-jarrerak, azkenik, lagundu egin zuen Gorbaxovrek eta haren jarraitzaileek erreformak aurrera atera zituzten. Horien aurkakoez erreakzionatu nahi izan zutenean, beranduegi zen.

5.7. DEMOKRAZIA HERRITARREN KRISIA

Sobietar Batasuna desegin aurretik, 1989. urtean, Ekialdeko herri-demokraziak ere deuseztatu egin ziren; oso prozesu labor eta arin batean jausi ziren erregimen komunista guztiak. Eraldaketa hori bultzatu zuten faktore orokorrak honako hauek izan ziren: *perestroika*, tokiko agintarien zilegitasun eza, komunismoaren sinesgarritasun falta, eta egoera ekonomiko larria. Baina nazioarteko beste eragile batzuek esku hartzeak ere erraztu zuen aldaketa; Mendebaldeko Alemaniak edo Estatu Batuek izan zuten esku hartzeak, esaterako. Gorbaxovek uko egin zion Ekialdeko Europan Subiranotasun Mugatuko politika ezartzeari, eta herrialde bakoitzeko bilakaera errespetatu zuen. Faktore horrek egoera ekonomiko txarra (sobietarren antzeko arazoak zituzten) eta nagusi zen ezinegon-sentimendua eragile politiko bilakatu zituen. Hasierako eskari nagusiak bidaiatzeko askatasuna eta erreformak izan ziren; baina denborak aurrera egin ahala, askatasun demokratikoak, hauteskunde libreak, komunismoa amaitzea, Sobietar Batasunarekiko mendekotasunetik askatzea eta norbere nazioa goraiatzea eskatu zituzten. Bestalde, herrialde batean gertatutakoa erreferentzia bilakatzen zen ondoko estatuentzat. Gobernuak eta alderdi komunistak, oposizioko taldeak, kultura eta elizako elkarteak eta jende arrunta izan ziren protagonistak. Dena den, herrialde bakoitzeko prozesuak indar, abiadura eta eragin desberdina izan zuen. Kasu batzuetan, herri-mugimenduaren tamaina handiak, iraunkortasunak eta ekintzak asko zabaltzeak bultzatu zuten aldaketa.

Horren adibiderik argiena Polonia dugu. 1970eko hamarkadatik aurrera, erregimen komunistaren kontrako herri-mugimendu indartsua zegoen Polonian, *Solidarnosc* sindikatuaren inguruan antolatua. Langile-mugimendu horrek intelektualen eta Eliza Katolikoaren babesa zuen, eta buruzagi karismatiko bat (Lech Walesa elektrikaria) ere bazuen. 1980ko eta 1981eko greben ondoren sortu zen sindikatua, baina negoziatzeko ahaleginak egin ondoren, gogor jazarri zituzten agintariak. Errepresioak ez zituen Poloniaren arazo ekonomikoak konpondu eta, azkenean, 1988. urtean, negoziazioak hasi ziren gobernuaren eta *Solidarnosc* sindikatuko ordezkarien artean. Elkarriketetan demokratizazio-prozesua adostu zuten eta, ondorioz, hurrengo urtean, 1989ko ekainean, hauteskundeak egin ziren. *Solidarnosce*k erabateko garaipena lortu zuen, eta gobernu berriaren zuzendaritza hartu zuen. Beraz, Poloniako trantsizio-prozesua, batetik, itundua izan zen eta, bestetik, gizarte zibilak bultzatua.

Hungariako kasuan, Alderdi Komunistak berak bultzatu zituen erreformak eta sistema politikoaren demokratizazioa, arazo ekonomikoak konpontzeko tresna modura. Oposizioak sinbolo nazionalak eta eskakizun ekologistak erabili zituen jendea protestara biltzeko. 1990. urtean hauteskundeak egin zirenean, komunisten bi alderdiek botoen % 13 baino ez zuten lortu. Antzeko zerbait gertatu zen Bulgarian, baina herritarrek protagonismo txikiagoa izan zuten.

Hungariako aldaketak eragina izan zuen Alemaniako Errepublika Demokratikoan. Gobernuaren zurruntasunak eragindako etsipenak bultzaturik, Mendebaldeko Alemaniara ihes egiten saiatu ziren asko 1989ko udaran, Hungariako migrazio-askatasunaz baliatuz edo zenbait estatutako enbaxadak okupatuz. Zenbaiten esanetan, Mendebaldeko Alemaniako gobernuaren diru-laguntzaren truke ireki zen Hungariako muga. Ekialdeko Alemaniako beste biztanle batzuk, aldiz, aldaketak aldarrikatzen hasi ziren, Leipzig hirian bereziki, eta pixkanaka gero eta jende gehiago bildu zuten bertako eliza batean egiten ziren mezen inguruan. Urrian, poliziaren jarrera zalantzatia ikusita, kalera atera ziren herritarrak; eta Alderdi Komunistaren buruzagitzak —Sobietar Batasuneko zuzendaritzarik gabe— aldatu egin zuen Honecker presidentea urrian, eta hainbat erreforma agindu zituen herri-mugimendua geldiarazteko. Erreforma horietako bat izan zen Alemania Demokratikotik irteteko eskubide arautua; baina gaizki-ulertu batek aditzera eman zuen eskubide hori berehala gauza zitekeela, eta 1989ko azaroaren 9an herritarrak Berlingo harresia zeharkatzen hasi ziren inongo oztoporik gabe. Hurrengo egunean jausi zen Berlingo harresia. Oposizioko talde batzuek sozialismo demokratikoa eraiki nahi bazuten ere, herritarrek bi Alemanien arteko batasuna eskatu zuten. 1990ean hauteskundeak egin, eta kontserbadoreak nagusitu ziren; Alemaniako Errepublika Federalean integratu zen Ekialdeko Alemania.

Txekoslovakian, are laburragoa izan zen prozesua (Belusezko Iraultza). 1989. urte hasieran hainbat mobilizaziok huts egin ondoren, azaroan berriro hasi ziren mugitzen, inguruko herrialdeetako aldaketek girotuta. Poliziaren ustezko jarrera gogorrek suspertu egin zuen ordura arte intelektual eta ikasle gutxi batzuen mugimendua zena, eta ehun mila lagun baino gehiago bildu ziren protestetara. Azaroaren 27an, greba orokorrak izandako oihartzunak erakutsi zuen txekoslovakiarren borondatea; eta abenduaren 31n, gobernuak Vaclav Havel disidentearen esku utzi zuen Errepublikaren agintaritzza, modu baketsuan.

Errumaniako prozesua, ordea, bortitza izan zen, eta nahasia, Ceaucescu-ren erresistentziagatik. 1989ko abenduaren 19an herritarrek poliziari aurre egin zioten Timisioara herrian (Hungariatik gertu) eta, hiru egun geroago, presidentearen aldeko batzar bat izan zen haren agintaldiaren amaiera: komunista talde batek oposizioarekin bat egin, Ceaucescu atxilotu, eta handik bi egunera hil egin zuten. Gobernu berriaren zati handi bat erregimen zaharreko goi-mailako kargu ohiek eratu zuten. 1.000 hildako baino gehiago izan ziren egun horietan.

5.4. 1989-2008 Ekialdeko Europaren mapa berria.



Iturria: Veiga, F. (2009): *El desequilibrio como orden. Una historia de la posguerra fría 199-2008*, Alianza Editorial, Madril, 21. or.

Antzekotasun ugari daude hurrengo urteetako herrialde horien bilakaeran. Arlo politikoari dagokionez, garrantzitsuenak honako hauek dira: aurreko ordena politikoarekin eta ekonomikoarekin apurtzea, nahiz eta zenbait tokitan alderdi komunistek pisua mantendu; sistema parlamentario edo presidentzialistak eratzea; hauteskunde libreak egitea; hasieran behintzat, alderdiak ugaritzea; herritarren atxikimendua aldatzea hauteskunde-deialdi batetik bestera; abstentzioa haztea eta politikarekiko urruntasuna areagotzea. Ekonomiari dagokionez, ekonomia sozialistatik merkatu-ekonomiara iragateko aldaketa sakonak egin behar ziren. Ondasunak eta ekoizpen-baliabideak pribatizatu behar izan ziren, baina herrialde bakoitzean indar, abiadura eta eragin desberdinarekin gauzatu zen aldaketa. Pribatizazioek, Mendebaldean gertatu zen moduan, lagunkeriarako aukera eman zuten: talde txikiak asko aberastu ziren, baina herritarren gehiengoa pobretu egin zen. Arinegi egin ziren aldaketak eta hausnarketa gutxi egon zen trantsizioak ekar zitzakeen arazoengatik. Giro horretan, kapitalismoa sartzeak ondorio latzak utzi zituen toki askotan. Beherantz egin zuen produkzioak, bereziki industrian eta nekazaritzan, eta, oro har, ekonomiak une latzak igaro zituen hasieran herrialde guztietan. Horren ondorioz, asko hazi zen langabezia eta areagotu egin ziren gizarteko desberdintasunak. Urteak pasatu ahala, herrialde batzuk ongi integratu dira Europar Batasunean, eta beste batzuek, aldiz, burua altxatu ezinik jarraitzen dute.

5.8. *ERRUSIA BERRIA: JELTSINEN ETA PUTINEN GARAIA*

Sobietar Batasunaren trantsizioa Ekialdeko Europako herrialdeena baino zailagoa izan zen, hainbat arrazoiren ondorioz. Lehena, beharbada, sistema komunista ez ezik, estatua bera ere ia-ia desagertu egin zela hasierako urteetan. Bestetik, askoz ere handiagoak ziren lurraldea eta arazoak, aniztasun etnikoa ere bai, eta komunismoak denbora gehiago iraun zuen. Kapitalismoak eta demokraziak sustrai eskasa izan zuten tsarren garaian ere, eta komunismoaren ondorengo kaosak ez zuen lagundu igarobide baketsua, lasaia eta antolatua izan zedin. Beraz, ez da harrizkeoa komunista ohiak berrindartzea, eta zenbait unetan politika ultranazionalistek arrakasta izatea. Eremu postsobietarrean hainbat gatazka etniko eta nazionalista sortu ziren, edo jarraitu egin zuten. Errusiar Federazioan, Txetxeniako Gerrak (1994-1996 eta 1999-2009) dira adibiderik ezagunenak. Baina horietaz gain, beste gatazka garrantzitsu batzuk lehertu ziren sortu berri ziren estatuen barnean edo estatuen artean; esate baterako, Georgian Abjaziako eta Hego Osetiako gatazkak, Errusiaren eta Georgiaren arteko gerra (2008), Armeniako eta Azerbaijaneke gatazkaren jarraipena, Moldavian Transnitriako auzia, eta abar. Sobietar Batasunaren armagintza nuklearraren ardura osoa Errusiar Federazioak hartu zuen. Kalkulu batzuen arabera, 6.700 buru nuklear geratu ziren agintari berrien eskura, nahiz eta Estatu Batuekin izandako negoziazioen ondorioz 1.600era mugatu 2008. urtean.

Errusiar Federazioak bi erronkari egin behar izan ziren aurre: alderdi bakarreko sistematik demokrazia baterako igarobideari eta planifikazio zentralizatutik merkatu-ekonomiarako trantsizioari. Bi erronka horietan, Jeltsinen garai ezegonkorrean (1991-1999) sistema berriaren oinarriak jarri ziren, eta Putinen aroan (1999-2008) finkatu egin ziren egitura berriak. Aldaketa politikoari dagokionez, Jeltsinek, parlamentuaren eta presidentearen arteko gatazka amaitzeko, armadaren indarra erabili zuen legebiltzarraren oposizioa isilarazteko 1993.ean, eta presidentearen ahalmenak indartzen zituen konstituzio berria onartzea lortu zuen urte hartan bertan.

Ekonomiari zegokionez, era asistematiakoan gauzatu zen enpresen pribatizazioa. Ekonomiaren liberalizazioa oso arin egin zen, modu traumatikoan, eta gizarte-ondorio larriak izan zituen. Arduradun politikoak etengabe aldatzen ziren bitartean, enpresa errentagarrienak gutxi batzuen esku geratu ziren. Kasu askotan, komunismoaren garaiko nomenklatura politiko eta ekonomikokoak izandakoak ziren enpresario berriak. Talde mafiosoak ere nonahi aritzen ziren. Alde batetik, antolaketarik eta epe luzerako ikuspeirik ez izateak eta, bestetik, Jeltsinen inguruko lankideen gehiegizko botereak eta ustelkeriak hondamendiaren bidera eramane zuten Errusia. Oso argigarriak dira datuak eta guztiek adierazten dute Errusiaren okerreranzko bilakaera. Biztanleriari zegokionez, % 1,3 gutxitu ziren biztanleak, 145 milioiraino; oso baxua zen jaiotza-tasa eta jaitsi egin zen bizi-ixaropena (1991. urtean 69 urte, 1999. urtean 64). Bizi-kalitateari dagokionez, ugaritu egin ziren dibortzioak eta alkoholismoak eragindako osasun-arazoak. Ekonomiari dagokionez, hainbat datuk erakusten dute herrialdearen sinesgarritasun falta, orobat kanpoko inbertsioak eta laguntzak eskuratzeko gaitasun eza. Errenta erori zen (3.220 dolar 1991. urtean; 2.740, 1997an), produkzioa jaitsi, inflazioak gora egin zuen (% 25 1992. urtean, % 35 1999an), langabeziak ere gorakada handia izan zuen (% 2 1991n, % 12 zortzi urte geroago), eten egin ziren ordainketak eta hondoratu errubloa.

Lotsagarriak izan ziren Jeltsinen azkeneko urteak: arazoak izan zituen alkoholarekin (beste osasun-kontu batzuekin batera), eta inguruko esku utzi zituen ardura nagusiak. Maiz aldatu zituen gobernuko arduradunak eta ez zen gai izan berak askatutako indarrak berriro kontrolatzeko. Dena den, ekonomiaren hondamendia izan zen arazo nagusia; baina kritikak isilarazteko, txetxeniarren aurkako gerrari ekin zion berriro 1999. urtean, jatorri iluneko atentatu terrorista batzuk abiapuntutzat hartuta. Urte hartan bertan dimititu egin zuen Jeltsinek, eta Vladimir Putin izendatu zuen ordeko; Errusiako historian lehen aldiz, buruzagi batek bere borondatez egin zion uko botereari. Zerbitzu sekretuetako kide ohia zen presidente berria, eta ordura arte guztiz ezezaguna iritzi publikoaren aurrean. Marketing kanpaina erraldoi bati esker, 2000. urteko hauteskundeak irabazi zituen Putinek, eta bera izan zen presidente hurrengo bi agintaldietan, 2008. urtera arte.

Putinen gobernuaren eraginkorrakoa izan zen; izan ere, egoera ekonomikoa hobetu egin zen lehengaien eta energia-iturrien prezioek izan zuten gorakadari

esker. Putinen agintaritzak neurri herrikoiak eta autoritarioak bildu zituen, asmo politikoekin monopolizatu zituen komunikabideak, eta bera aukeratzeko lagundu zitoten zenbait oligarkari aurre egiteko erabili zituen. Horrekin batera, Parlamentua kontrolatu zuen, bai eta tokiko agintarien jarduna ere. Armada indartu zuen eta Txetxenian Gerra amaitu, txetxeniarren artean sarraski handia sortu eta gero. Aldaketa horiek indartu egin zuten Errusia eta hurbileko herrialdeetan eragina handitzen saiatu zen Putin (besteak beste, petrolioaren trafikoa zaintzeko), baina ez ziren izan aldekoak emaitza guztiak. Oposizioa kexu zen gobernuaren aurka hitz egiten zutenek arazoak izaten zituztelako agintariekin. Anna Politkovskaya kazetari eta giza eskubideen defendatzailearena izan zen kasurik ezagunena: 2006ko urrian hil zuten Moskun, Putinek Txetxenian zeraman politika agerian uzteagatik.

5.9. JUGOSLAVIAKO GERRAK

1990eko hamarkadan, gatazka etnikoak eta gerrak piztu ziren Jugoslaviako estatuan. Ondorioz, desagertu egin zen Jugoslaviako estatua bera, eta estatu independente bihurtu ziren hura osatzen zuten lurraldeak (Eslovenia, Kroazia, Bosnia-Herzegovina, Mazedonia, Serbia, Montenegro eta Kosovo), nazioarteko beste estatuak onartu ez zuten bilakaera gatazkatsuen ondoren.

Balkanetako penintsula Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko nolabaiteko muga izan da historian zehar. Aro Berrian, eskualde batzuk Otomandar Inperioaren mendean egon ziren, eta horren oroigarri geratu da islama erlijio nagusi gisa zenbait lurraldetan. Beste eskualde batzuk, aldiz, Austria-Hungariako Inperioaren partaide izan ziren. Lurraldeak kulturantzitasun handia eskaintzen du: hiru erlijio (ortodoxoa, katolikoa eta musulmana) eta hizkuntza asko (serbokroaziera, esloveniera, albaniera, eta abar). I. Mundu Gerraren ostean sortu zen Jugoslaviako estatua. Otomandar Inperioa eta Austria-Hungariakoa desegin ostean, hegoaldeko eslaviarren erreinua (1918) sortu zen: serbiarren, kroaziarren eta esloveniaren erreinua, alegia. Monarkia zentralista izan zen Jugoslaviaren lehenengo antolamendu politikoa: serbiarrak ziren nagusi eta ezegonkortasuna zen arau. 1945ean, II. Mundu Gerra amaituta, berriro ere Jugoslavia eratu zen, bestelako antolamendu politikoa: sistema komunista eta eredu federala. Hiru ziren federazio horren batasunerako elementu nagusiak: buruzagia (Tito), Partisanoen Armada eta Alderdi Komunista. Berez oso sistema deszentralizatu zen, eta aurrerantz egin ahala areagotu egin zen deszentralizazio hori. Hala ere, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, tentsio nazionalak azaldu ziren eta, sistema komunista krisian sartu zenean, eztanda egin zuten tentsio horiek.

Ekialdeko Europako beste herrialdeak bezala, Jugoslavia ere krisi ekonomiko handian murgildurik zegoen; baina, horrez gain, oso handiak ziren errepublikan arteko aldeak, garapen ekonomikoari zegokionez. Gainera, asko gurutzatu ziren etniak, eta errepublikan arteko mugak ez ziren komunitate etniko homogeneoen

arteko muga. Adibidez, Kroazian gutxiengo serbiar garrantzitsua bizi zen, edo Bosnia-Herzegovinan, 1991eko erroldaren arabera, populazioaren % 31 serbiarra zen, % 43 musulmana eta % 17 kroaziarra. Bestalde, Jugoslaviako Estatu Federalaren Armadak bi ezaugarri zituen: batetik, Armadako goi-mailako postu gehienak serbiarren esku zeuden —baldintza egokia Jugoslaviako Armada Federala serbiarren Armada bihurtzeko—; baina, bestetik, eta deszentralizazioaren ondorioz, errepublika bakoitzak bazituen bere defentsa-indar armatuak, eta horrek eragin handia izango zuen gero sortuko ziren krisietan.

Estatu Federalaren ahultasuna areagotu egin zen Tito hil zenean, 1980. urtean. 1986. urtetik aurrera, nabaria izan zen serbiar nazionalismoaren gorakada. Slobodan Milosevic errepublikaburua izan zen buruzagia. Milosevic serbiar guztien defendatzaile azaldu zen, eta bertan behera utzi zituen Kosovoren eta Vojvodinaren autonomiak. Estatu federala berregituratzeko egitasmoa plazaratu zuen, estatu zentralizatuago baten alde, eta presidentzia federala aukeratzeko errotazio-txandakatzearen aurka azaldu zen. Azken batean, arriskuan jarri zituen errepubliken arteko harremanak eta Estatu Federala bera ere bai. Beste errepublikek (Esloveniak, Kroaziak, Bosnia-Herzegovinak eta Mazedoniak), serbiarren agintarien jokabidea ikusita, egitura politiko berri bat proposatu zuten, hau da, Estatu Independenteen Konfederazioa; baina Serbiak ez zuen onartu. Slobodan Milosevicek Federazioan Serbiaren boterea indartzea bilatzen zuen; bestela, Serbia handi bat eraiki nahi zuen, serbiarrak bizi ziren beste errepubliketako lurraldeak eskuratuz.

5.5. 1991 Jugoslavia ohiaren banaketa etnikoa.



Iturria: <http://dubravko.kakarigi.net/homeland/maps/nations.htm>

Serbiarren nazionalismoa indartu ahala, beste errepubliken independentzia-zaletasuna gogortu zuen. Horrela, Esloveniako eta Kroaziako parlamentuek beren independentzia aldarrikatu zuten 1991n. Eslovenian, laburra izan zen Armada Federalaren eta errepublikako defentsarako unitateen arteko borroka, eta Serbiak berehala onartu zuen, *de facto*, Esloveniaren independentzia, bertan serbiarrik bizi ez zelako. Kroazian, aldiz, 1992ra arte luzatu zen gerra; izan ere, Kroaziako bi eskualdetan, Eslavonian eta Krajinan, gehiengo ziren serbiarrak. Eskualde horietan, serbiar miliziak kroaziarren garbiketa etnikoa⁹ egiten saiatu ziren, baina alde egin beharra izan zuten, 1995ean Kroaziak lurralde horiek berreskuratu zituztean. Esloveniak eta Kroaziak berehala lortu zuten nazioarteko babes, Alemaniak errepublika berriak onartu ondoren. Mazedoniaren independentzia askoz ere era bareagoan eskuratu zen 1991. urtean, eta antzera gertatu zen 2006an Montenegron.

Hirugarren gatazka armatua Bosnia-Herzegovinan piztu zen 1992. urtean. Urte horretan erreferenduma egin zen errepublika horren etorkizuna erabakitzeko; Bosnia independente eta etnia anitzekoaren aldeko jarrera nagusitu zen. Serbiak eta Armada Federalak ez zuten onartu erabakia eta, Bosnian bizi ziren serbiarren bitartez, gerra irregularra hasi zuten bosniar musulmanen aurka, bereziki. Handik gutxira, erabateko gerra hasi zen eta oso jokabide krudela izan zuten serbiarrek: lurraldearen garbiketa etnikoa bultzatu zuten (Srebrenican, adibidez, hiriko gizon gehienak, 8.000 inguru, hil zituzten), eta errepublikaren hiriburua zen Sarajevoren kontrako setioan gogor zigortu zuten biztanleria zibila. Aurrekoekin alderatuz gero, gerra luzea izan zen, 1995. urtera arte iraun baitzuen, eta asko izan ziren errefuxiatuak eta hildakoak (250.000 inguru); gutxi gorabehera populazioaren bi herenak lekualdatu ziren garbiketa etnikoaren ondorioz. Borroken gogortasunak eta Balkanetako eskualde osoaren ezegonkortzeko arriskuak era aktiboan esku hartzera bultzatu zituen nazioarteko erakundeak; NATOren eskutik hartu zuten parte, baina kalte gehiena egina zegoen ordurako. 1995eko abenduan Dayton-eko Akordioa sinatu zen: Bosnia-Herzegovina estatu subiranoa zela aitortu zen, baina bi zatitan banatua. Lurraldearen % 51 izango zuen musulmanen eta kroaziarren arteko federazioak, eta lurraldearen % 49 egokituko zitzaion serbiarren eta bosniarren arteko federazioari. Zuzendaritza kolektiboa izango zuen Errepublika Federalak, komunitate nazional bakoitzeko ordezkari banarekin presidentzian (kroaziarra, musulmana eta serbiarra). Akordioak, nolabait, zilegi bihurtzen zuen irizpide etnikoen arabera egindako estatuaren banaketa, bai eta gerran zehar egindako garbiketa etnikoa ere.

Kosovoko Gerra izan zen Jugoslaviako azken gatazka, gehiengo albaniarra zuen Serbiako eskualde autonomoan. Titoren heriotzaren ostean eta Jugoslaviako

9. Nazio Batuek honela definitzen dute garbiketa etnikoa: indarrez edo beldurrez ezarritako lurralde baten homogeneizazioa, beste talde etniko edo erlijioso bateko pertsonak kentzeko. Jugoslaviako kasuan, serbiarrek hasi zuten garbiketa etnikoa Kroaziako Gerran 1991n, eta gero Bosniako Gerran sistematikoki erabili zuten; baina kroaziarrek ere egin zuten Bosnian zein Kroazian.

estatuaren krisiaren testuinguruan, mugimendu nazionalista albaniarra indartu eta hedatu zen Kosovon. Mugimenduari aurre egiteko, Serbiak bertan behera utzi zuen Kosovoko autonomia. 1990eko hamarkadaren bukaeran, indartu egin zen tentsioa, eta istilu armatuak gertatu ziren armada jugoslaviar-serbiarraren eta gerrilla albaniar-kosovoarraren artean. 1999an, lurraldeaz jabetu zen Jugoslaviako Armada, gerrilla menderatzekotan; baina urte bereko apirilean, NATOk esku hartu zuen Serbiaren kontra. Kosovoko garbiketa etnikoa izan zen Milosevicen erantzuna, baina ezin izan zien aurre egin NATOren aireko erasoei, eta azkenean alde egin zuen Serbiako Armadak. KFORen (Kosovoko bake-indarren) esku geratu zen lurraldearen administrazioa, NBERen kontrolpean. Zortzi urte geroago, 2008ko otsailaren 17an, bertako Parlamentuak aho batez onartu zuen Kosovoren independentzia zehazten zuen erabakia. Baina Errusiaren oposizioak egoera berezian kokatu zuen estatu berria, ez baitu ez ordezkariarik Nazio Batuetan, ez armadarik (NATOk tropak baino ez ditu) ez eta polizia eta epailerik ere. Nazio Batuetako 192 herrialdeetatik, 54k bakarrik onartu zuten Kosovoren independentzia.

TESTU-ERANSKINA

1933, STALINEK SOBIETAR BATASUNEN ALDERDI KOMUNISTARI AURKEZTUTAKO TXOSTENA.

Zein da industriaren bost urteko planaren azken lau urteotako balantzea? Garaipena lortu al dugu alor horretan? Bai, lortu dugu. Eta ez hori bakarrik, espero genuena baino gehiago egin dugu, gure alderdiko bururik adimentsuenek espero zezaketena baino gehiago.

(...)

Ez genuen siderurgiarik (industrializazioaren oinarria). Orain badugu.

Ez genuen traktoreak egiteko fabrikarik. Orain bai. (...) Ez genuen nekazaritzarako makina modernoak egiteko industria egokirik. Orain bai.

Ez genuen aeronautika-industriarik. Orain bai.

Energia elektrikoaren ekoizpenean azkenak ginen. Orain, lehenbiziko postuetan gaude.

Gauza bera gertatzen da petrolio- eta ikatz-ekoizpenari dagokionez: azkenak ginen. Orain lehenetakoak izatea lortu dugu. (...)

Industria berri eta handi horiek eraiki ditugunez, hainbeste eta hain handiak eraiki ere, barregarri utzi dugu Europako industriaren eskala eta proportzioa.

Eta, gainera, kontuan izan behar dugu elementu kapitalistak ezabatu ditugula, behin betiko eta atzerabiderik gabe.

Eta horrek guztiak ondorio nabarmena izan du: gure nazioa nekazaritzan oinarrituta bazegoen ere, industrializatzea lortu dugu. Industria-ekoizpenak ondoko bilakaera izan du nekazaritza-ekoizpenarekin alderatuta: bost urteko planaren hasieran [1928an] % 48 izatetik, bost urteko planaren laugarren urtearen amaieran [1932] % 70 izatera pasatu da. Horrek guztiak esan nahi du, bost urteko planaren laugarren urtearen amaierarako, bost urterako ezarritako industria-ekoizpen guztiaren programaren helburuak lortu ditugula, aurreikusitakoaren % 93,7ra iritsi baikara. Gainera, industria-ekoizpenaren bolumena gerra aurreko bolumenarekin alderatzen badugu, hiru aldiz baino gehiago handitu dugu, eta 1928ko mailarekin alderatzen badugu, gutxienez bi aldiz baino gehiago. Industria astunaren ekoizpen-programari dagokionez, plan hori % 108an bete dugu. (...)

Sobietar Batasuna, defentsa ikuspegitik, gaizki prestatutako estatu ahula izatetik indartsua izatera pasatu da. Prest gaude edozein gertakizunetarako; gai gara defentsarako beharrezkoak diren bitarteko moderno guztiak masan sortzeko, eta baita armada behar bezala hornitzeko ere, kanpoko erasoei aurre egiteko.

Iturria: Villares, R. eta Bahamonde, A. (2002): *Gaur egungo munduaren historia*, Zubia Santillana, 200. or.

1956, DESESTALINIZAZIOA. KHRUSTXOVEN TXOSTEN SEKRETUA SBAK-EN XX. BILTZARREAN.

Argi dago Stalinen aginduei jarraituz egin zirela gehiegikeria asko, Alderdiaren arauak eta sobietar legezkoatasuna bortxatuz. Stalin ez zen inorekin fidatzen, bere mesfidantza gehiegizkoa zen. Norbaiti begiratu eta ondokoa esateko gai zen: Zergatik da gaur hain iheskorra horren begirada? Edo, zergatik ematen dit bizkarra eta ez dit begietara zuzenean begiratzen? Gaixo-izaerako errezelo horrek erabateko mesfidantza sortzen zuen harengan, baita aspalditik ezagutzen zituen alderdiaren baitako goi-mailako langileenganakoa ere. Toki guztietan eta une oro «etsaiak» ikusten zituen, aurpegi bikoitzeko lagunak, «espioiak». Mugarik gabeko boterea zuenez, erabaki bidegabeak hartzen zituen eta pertsonak moralki zein fisikoki txikitzen zituen. Horren guztiaren ondorioz, inork ez zuen iritzirik ematen. [...]

Arazo hori seriotasunez eta behar bezala aztertu behar dugu (pertsonalitateari aintza), Stalinen bizitzan gertatu zen bezalakorik berriro ere gerta ez dadin. Berak ez zuen inondik inora ez zuzendaritzarik, ez talde-lanik onartzen, eta indarkeria beldurgarritz baliatu zen, ez soilik aurka zegoen edonoren aurka, baita bere izaera despota eta apetatsua zalantzan jartzen zuen edonoren aurka ere. [...]

Stalinek sortu zuen «herriaren etsai» kontzeptua. Esapide horren arabera, alferrik zen arazo baten erdian harrapatuta zeuden lagunak akats ideologikoaren proba bilatzea. (...) Funtsean, eta egia esateko, arau juridiko guztiei muzin eginez, erruduntasun-proba bakarra akusatuaren «aitorpena» zen eta, ondoren egin diren ikerkuntzek erakutsi dutenaren arabera, «aitorpenak» akusatuak fisikoki presionatu ondoren lortzen zituzten.

Iturria: Wolfe, B.D. (1957): *Khrushev y el espectro de Stalin*, Sudamericana, Buenos Aires, 91. or.

1968, PRAGAKO UDABERRIA

TXEKOSLOVAKIAKO ALDERDI KOMUNISTAREN «EKINTZA-EGITASMOA» (1968ko apirilaren 5ekoa)

(...)

Oinarrizko produkzio-baliabideen jabetza kolektiboa. Hau da, erabat herriarena den jabetza; estatuarena, ekoizleen elkarreana edo kooperatibena izanda ere, langileek parte hartuko dute zuzendaritza eta plangintza ekonomikoan eta gainbalioaren banaketan. Industria txikian, merkataritzan, artisautzan eta zerbitzuetan ekimen pribatuak jarraituko du, baina betiere kontrol publikoarekin.

Jabetza kolektibo horretan oinarriturik, sistema pluralista bat sortu, non alderdi politikoak herritarren era ezberdinetako interesen ordezkariak izango diren. Alderdi Komunistak jarraituko du zuzendaritzan, baina lehiakortasun demokratiko baten barruan.

Herritarrari demokrazia parlamentarioetan edo burokrazia estalinistan baino eskubide gehiago eta askatasun eta eragiteko gaitasun handiagoa emango dion demokrazia sozialista bat garatu. Demokrazia ordezkatzailaren bidez izango du agintea herritarrak —isilpeko sufragioaren bitartez aukeratuko dira ordezkariak—, bai eta demokrazia zuzenaren bitartez ere —eskualdeetan, udaletan, auzoetan eta abarretan, herritarrak kontrolatuko du boterea langileen kontseiluen eta autokudeaketako beste formula batzuen bitartez—.

Sindikatuaren askatasuna eta greba-eskubidea bermatu...

Independentzia handiagoa enpresei, ekoizpena handitzeko eta herritarren premiak asetzeko —«merkatu sozialistaren presioa»— eta, aldi berean, ziarra ditzala plangintza zientifiko baten bitartez gizartearen interes orokorrak, lan-eskubidea, bizi-maila hobetzea eta erretiro duina.

Kanpo-politikari dagokionez, harremanak izan Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunarekin eta harremanak izaten jarraitu Varsoviako Itunekoekin.

Txekiarren eta eslovakiarren arteko federazioa...

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 124-126.

1990, KRISIA GORBATXOVEN ARABERA

[...] Balazta-mekanismo antzeko bat sortu zen, eta horrek ekonomia- eta gizarte-garapenean eragin zuen. Hori guztia, noiz eta, zientzia- eta teknologia-iraultza aukera berriak irekitzen ari ziren unean gizarte eta ekonomia arloan aurrera egiteko.

Sortzen ari zen egoerak ez zuen ez hanka ez buru. Sobietar Batasunak, altzairu-, lehengai-, erregai- eta energia-ekoizlerik handienak, baliabide horien eskasia zuen, behar ez bezala eta xahukeriaz erabiltzen ari zirelako bereziki. Nahiz eta jateko zereal-ekoizle nagusietako bat izan, urtero-urtero milioika tona erosi behar izaten zuen pentsuak egin ahal izateko. Mila biztanleko mediku eta ospitale-ohere proportziorik handiena dugu eta, aldi berean, gure osasun-zerbitzuek hutsune nabarmenak dituzte. Gure koheteek Halley kometa aurki dezakete edo Artizarreraino hel daitezke hutsik egin gabe; baina lorpen zientifiko eta teknologiko horiekin batera, nabarmena da izugarritzko eraginkortasun falta dugula, lorpen zientifiko horiek ez baititugu erabiltzen gure behar ekonomikoak konpontzeko. Esaterako, sobietar etxeetako tresna gehienek kalitatea oso eskasa da. [...]

Horrekin guztiarekin batera, gure herriaren balio moralak eta ideologikoak urratzen hasi dira pixkanaka-pixkanaka [...]; balazta-mekanismoak gero eta erresistentzia handiagoa eragin zuen ideia berriak onartzeko eta baita azaltzen ari ziren arazoei konponbidea era positiboan bilatzeko ere. (...) Zurikeria eta lausengua erraztu ziren; eta, aldi berean, langile arruntaren eta, oro har, herritarren beharrei eta iritziei ez zitzaion jaramonik egiten.

Iturria: Gorbaxov, M. (1990): *Perestroika. Mi mensaje a Rusia y al mundo*, Círculo de Lectores, Bartzelona.

1990, BALKANAK HISTORIAN ZEHAR. ISMAEL KADARE

Milurtekoaren amaieraren inguruan hainbat zorigaitzeko iragarpen egin dituzte eta, hala ere, gaur egun Balkanetan gertatzen ari dena inork inoiz pentsatutakoa baino askoz okerragoa da. Europa erdian, sarraski ikaragarriak egiten ari da herri batean beste herri bat. Sarraski hori Gengis Khanek, Hitlerrek eta Stalinek egin zituztenen oso antzekoa da, eta betiko metodoak erabiltzen ditu: sunsiketak, hilketak, deportazioak. Solidario gaixo batzuek esku hartzen dute sarraskian: batzuetan ortodoxoek, beste batzuetan eslaviarrek edo komunistek, eta beste batzuetan, hirurek batera. [...]

Ez da hain harritzekoa nazioen hilketa Balkanetan birsortzea. Izan ere, lurralde txiki horretan gogor jotzen du zorigaitzak. (...)

Baina egia da, sarri, Europak Balkanak ahaztu edo gutxietsi egin dituela. Otomandarrek Balkanak beren esku izan zituzten bost mendeetan, Europak ez zion jaramonik egin lurralde horri. Poetak izan ziren, Lord Byron buru zutela, grekoen, albaniarren, errumaniarren eta hegoaldeko eslaviarren adur txarraz gupidatu zirenak eta alarma hotsa zabaldu zutenak.

Bien bitartean, pisu ilun-beltza metatzen ari zen, zulo sakonetan eroriko bailiran, herri horien memorian. [...] Ezin da ahaztu, penintsula itzel honetan, bertako herriek osatzen duten nahas-mahasa nahikoa ez balitz bezala —denek baitute beren hizkuntza, erlijioa eta kultura— hiru inperio handiren aurriak daudela: Erromatar Inperioarenak, Bizantziararenak eta Otomandararenak. Eta jakina da, batzuetan, aurriek aparteko eragina izaten dutela herrien historian. [...]

Ez legoke gaizki, gainera, gauzak zehazki jakitea. Esaterako, penintsulako herririk jendetsuena errumaniarrek osatzen dute; eta beste lau herrik ere (grekoek, serbiarrek, albaniarrek eta bulgariarrek) antzeko hedadura dute. Hori jakinda, orain arte izan den gaizki-ulertua saihestu ahalko dugu. Izan ere, Serbia Balkanetako herri handitzat daukagu, eta uste dugu hainbeste herriren artean arbitro-lanak egin ditzakeela; baina errealitatean, Errumania baino hiru aldiz txikiagoa da.

Ezjakintasun hori, ordea, orokortu egin da, eta Balkanei buruz dugun uste osora zabaldu. Batzuentzat, penintsula honetan eslaviarrak dira nagusi, baina hori ez da horrela: Balkanetan bizi diren hirurogeita hamar milioi biztanleetatik, eslaviarrak herenak baino ez dira. Eslaviarrek berek, zeharka bada ere, zabaldu duten gaizki-uste hori dela-eta, Errusiak Balkanetan esku hartzeko eskubidea duela uste izan du; eta hala uste du, oraindik ere.

[...] Egoera horretan, alegia, uste ustelak nagusitzen direnean eta begi bistakoak diren beste zenbait gauza (esaterako, geografia, ordena politikoa eta erlijioa) ikusten ez direnean, erraza da Balkanetako historiarekin zer egin dezaketen imajinatzea. Balkanetako historia goitik behera, modurik ankerrean, faltsifikatu dute, krimen arrazistak egiten jarraitzeko.

Europako penintsula handienaren patua bestelakoa izango zen, ez hain iluna, Europa lehenago kezkatu izan balitz. Interes falta ezjakintasunaren ondorio da, eta ezjakintasuna, gehiegizkoa bada, mentalitate kolonialista zaharkituarekin nahasten da: okupatzailearen mentalitatea da, besaulkian eserita, herriak huskeriengatik borrokan nola ari diren begira dagoenaren mentalitatea.

Iturria: Kadare, I. (1990): «Balkanak europar egiteko beharra», *Le Monde* egunkarian kaleratua, 1999ko apirilaren 10ean.

2000, GUTXIENGO ERRUSIARRAK ANTZINAKO SOBIETAR BATASUNEAN

1922an Sobietar Batasuna sortu zen unetik beretik, arazo nazionala da sobietar buruzagien kezka nagusietako bat. [...]

Batetik, arazo nazionala berezko arazo gisa azaltzen eta aztertzen ahalegindu ziren, Mendebaldean gertatutako gainerako prozesu nazionalistekin zerikusirik izango ez balu bezala. [...] Bestetik, sobietar identitate berria herri eta errepublika guztietan berdin hedatzea nahi zuten, desberdintasun nazionalak gaindituko zituela uste baitzuten. [...]

Gaur egun, gutxiengo errusiar ugari dago Errusiar Federakundeko mugetatik kanpo. Sobietar Batasuna desagertzeak gutxiengo horiekin zuzen-zuzenean lotutako bi fenomeno eragin ditu. Batetik, Errusian identitate-krisi garrantzitsua eragin du, Errusiako herritarrak eta erakundeak Sobietar Batasunarekin oso sakon identifikatuta zeudelako. [...]

Bestetik, nazio berriak sorrarazi ditu, gehienak inolako tradizio historikorik gabe, hau da, erabat artifizialak. Estatu berri horietan errusiar biztanle ugari dagoenez, kanpo-arazo larriak sortu ditu, bereziki Errusiarekiko harremani dagozkienak. Baina baita barne-arazoak ere, hau da, sarritan estatu horien zati azpimarragarria izanik, nola jokatu biztanle horiekin?

Zenbait errealitateri erreparatuta, sarritan, Sobietar Batasuna antzinako Errusiar Inperioaren jarraipen soiltzat hartu izan da. Hiru arrazoi nagusi daude hori esateko:

Errusiaren nagusitasuna SESBren baitan, errepublika ohietan saiatutako errusiar-tze-prozesuak, eta tsarraren inperioaren baldintzatzaile estrategikoen herentzia. (...) Zalantzarik gabe, Leninentzat oztopo handia zen nazionalismoa (errusiarra zein inperioko gainerako nazioetako edozein) ideologia marxistaren garaipena erdies- teko. Nazionalismoak, kapitalismoaren ustezko beste edozein ondorio bezala, estratifikazio etnikoa eta ekonomikoa gainditu beharra zuen. (...) Arazo hori gain- ditzeko hainbat kontzeptu bateratzen zituen sistema asmatu zuen: autodeter- minazio-eskubidea —ez zuen esan nahi praktikan sustatzen zutenik—, herri guztien berdinketa, eta lurralde-autonomia. (...) Administrazio- eta hizkuntza- autonomia handia zuten erregimenetan; Leninek Alderdi Komunistaren aparatu zentrala inposatzen zuen. [...]

Hogeiko hamarkadan, Stalinen iritziz hiru ziren arazo nazional nagusiak: errusiar nazionalismoa, tokian tokiko nazionalismoak, eta tsarraren inperiotik oinordetzan hartutako desberdintasun nazionala. Parekatze hori errepublika berrien indigeniza- zio formalaren bidez lortzen ahalegindu zen. Politika horren porrot nabarmenaren ondoren, jarrera aldatu zuen hogeita hamarreko hamarkadan. Orduz geroztik, tokian tokiko nazionalismoak oinarrizko arazo bilakatu ziren. [...] Errusiar-tze- politika ezkutuari ekin zitzaion eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, komunitate osoak deportatu zituen, eta errusieraren irakaskuntza inposatu toki guztietan. [...]

Stalin nazioak zatitzen hasi zen, logika geopolitiko izugarri gutxietsiz, eta tokian tokiko lehiak pizten ahaleginduz. Bistako adibide dira Transkaukasiako errepublikak, bakoitzaren baitan enklabe autonomo bat edo gehiago sortu baitzituzten. (...)

Horrek azaltzen du, independentzia bat-batean lortzean, zergatik izan dituzten hainbeste tentsio. (...) Nahiz eta sobietar erregimenak errusiar nazioa ere zapaldu zuen, egia da errusiarrek errealitate pribilegiatua bizi izan zutela. Gainera, SESBko gainerako nazioentzat oso zaila zen bereiztea zer zen errusiarra eta zer sobietarra. [...] Nazio berriak eraikitzeko beharrak hainbat sustrai edo jatorri historiko bilatzea eragin du. Horren ondorioz, errusiarren irudia goitik behera aldatu da; gaur egun, okupatzailatzat edo kolonizatzailetzat hartzen dituzte, toki batzuetan besteean baino gehiago.

Iturria: Pérez González, A. (2001): «Minorías rusas en la antigua URSS», *Revista Cidob d'Afers Internacionals*, **51**, 28-29.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Applebaum, A. (2005): *Gulag. Historia de los campos de concentración soviéticos*, Debate, Bartzelona.
- Blanc Altemir, A. (2004): *La herencia soviética: La comunidad de estados independientes y los problemas sucesorios*, Tecnos, Madril.
- Carrere D'Encausse, H. (2001): *Rusia inacabada. Las claves de la caída de un sistema político y el resurgir de un nuevo país*, Salvat Editores, Bartzelona.
- Funder, A. (2009): *Stasiland. Historias del otro lado del Muro de Berlin*, Roca Editorial de Libros, Bartzelona.
- Holzer, J. (2000): *El comunismo en Europa: movimiento político y sistema de poder*, Siglo Veintiuno de España, Madril.
- Lewin, M. (2006): *El siglo soviético: ¿qué sucedió realmente en la Unión Soviética?*, Crítica, Bartzelona.
- Martín de la Guardia, R. eta Pérez Sánchez, G. (1995): *La Europa del Este, de 1945 a nuestros días*, Síntesis, Madril.
- eta —————, (1997): *La Europa Balcánica. Yugoslavia, desde la segunda guerra mundial hasta nuestros días*, Síntesis, Madril.
- Oberschall, A. (1999): «Oportunidades y creación de marcos en las revueltas de 1989 en el Este de Europa», in D. McAdam, John D. McCarthy, eta Mayer D. Zald, *Movimientos sociales: perspectivas comparadas*, Istmo, Madril, 143-181.
- Poch de Feliu, R. (2003): *La gran transición. Rusia, 1985-2002*, Crítica, Bartzelona.
- Politkóvskaya, A.: *Diario ruso*, Debate, Bartzelona.
- Service, R. (2000): *Historia de Rusia en el siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- , (2005): *Rusia, experimento con un pueblo: de 1991 a la actualidad*, Siglo XXI de España, Madril.
- Taibo, C. (argit.) (1991): *De la Revolución de octubre a Gorbachov. Una aproximación a la Unión Soviética*, Fundamentos, Madril.
- , (1993): *La Unión Soviética (1917-1991)*, Síntesis, Madril.
- , (2000) *La explosión soviética*, Espasa, Madril.
- Veiga, F. (1995): *La trampa balcánica. Una crisis europea de fin de siglo*, Grijalbo, Bartzelona.
- , (1999): *El bloc de l'Est. L'Europa oriental (1945-1991)*, Grao, Bartzelona.
- Zubok, A. M. (2008): *Un imperio fallido: la Unión Soviética durante la Guerra Fría*, Crítica, Bartzelona.

6. Txina, iraultza maoistatik pragmatismora

6.1. SARRERA

Egungo munduaren historiaren mugen eta aldakortasunaren ispilu ezin hobe dugu Asiako historiarekin gertatu dena. Berez, Asia da munduko kontinente jendetsuena, hala izan da datu demografikoak ditugunetik, eta hala da gaur egun ere: munduko biztanleriaren % 55 bizi zen kontinente horretan 1950ean, eta % 60tik gora bizi da gaur egun azken azterketen arabera. Gizakia Afrikan azaldu bazen ere, Txinakoa dugu ezagutzen dugun iraupen luzeko inperiorik garrantzitsuenaren. Giza-kiok erabiltzen ditugun asmakizunetako asko han sortu ziren: gurrupila Mesopotamian; bolbora, papera eta iparrorratza Txinan. Hala ere, Aro Berrian izandako gainbeheraren ondorioz, toki eskasa izan du munduko historiari buruzko liburuetan. Datozen urteetan aldatuko da egoera hori, kontinente hori hartzen ari den garrantziaren ondorioz.

Bada, gainera, bigarren paradoxa bat. Duela urte batzuetako historia, geografia edo ekonomiako edozein liburu aztertuz gero, Japoniak berebiziko tokia zuen lan horietan; egun, aldiz, Txinak hartu du toki hori eta aurrerantzean ere nekeza izango da egoera hori aldatzea biztanleriaren eta garapen ekonomikoaren ondorioz. Indian gertatzen ari diren eraldaketek arrakasta izan arren ere, badirudi ez diola Txinari protagonismoa kenduko. Horrela, eskuliburu hau duela hamabost urte idatzi izan balitz, Japoniaren mundu-potentzia izaerari buruz hitz egingo genukeen, II. Mundu Gerran jasandako porrotari buruz eta gerraosteak ekarritako «mirakulu ekonomikoari» buruz. Japoniak ez ditu galdu garai batean ezagun egin zituen ezaugarriak (egitura ekonomiko modernoa, industria-kontzentrazioa, eskulan gaitua, teknologia aurreratuen erabilera eta aurrezki-tasa altua); baina murriztu egin da Txinarekin zuen alde ekonomikoa eta alde handia dago bien artean biztanle kopuruari dagokionez eta, bereziki azken urteetan, eragin eta ahalmen politikoei dagokienez. Horregatik izango da Txina hurrengo orrialdeen helburua, jakin arren Japoniaren botere ekonomikoak oso handia izaten jarraitzen duela, Indiak azkeneko urteetan eraberritze nabaria bizi izan duela, eta gure albistegietan, lurrikara eta tsunamiengatik ez baldin bada, ia inoiz azaltzen ez den Indonesiak 228 milioi biztanle dituela (ia-ia Alemaniako, Frantziako, Italiako eta Espainiako biztanle batura).

6.2. TXINAKO HISTORIAREN ARDATZ NAGUSIAK

George Santayana espainiar-iparramerikar filosofoarena da maiz irakurri den esaldi ospetsua: «Bere historia ezagutzen ez duen herriak, errepikatu egingo du». Txinaren kasuan bestelakoa da esaldia: «Bere historia ezagutzen du eta ez du errepikatu nahi». Izan ere, Txinako egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa da hango historia ezagutzea. Ibilbide laburra egingo dugu, geldiuone gutxirekin. Lehenengoa Konfuzioren garaia da (K.a. VI. mendea). Garai nahasia izan zen, bortizkeriaz eta gerraz betetakoa. Pentsalari horren inguruan bildu eta finkatu ziren Txinako pentsamenduan behin eta berriz agertu diren balio nagusiak. Gure intereserako, hiru dira Konfuzioren irakasgai nagusiak: 1) Herritarrek errespetua zor diote hierarkiari eta agintariekiko mendekotasuna erakutsi behar dute. 2) Gizartearen egonkortasunak du lehentasuna, garapenaren aurretik, eta ordenak berrikuntzaren gainetik. 3) Bakoitzak bere bideari jarraitu behar dio, familia eta arbasoak ahaztu gabe. Gobernaria hiru irizpide horiek kudeatzeko gai baldin bada, mundua era baketsuan antolatuko du, indarkeria erabili beharrik gabe. Esapide horien inguruko filosofiak gaur egunera arte jarraitu du Txinan, nahiz eta ikusiko dugun moduan, zenbait unetan eraso gogorak jasan. Bestalde, ezin da ahaztu, oso interpretazio kontra-jarriak egin direla Konfuzioren hitzen inguruan. Bi mende geroago, K.a. III. mendean, Qin dinastiak Txinaren lehen bateratzea lortu zuen. Ordukoak dira Xian-en aurkitutako terrakotazko gerlari ezagunak. Qin Shi Huangdi lehen enperadoreak estatu zentralizatua, autoritarioa eta burokratikoa sortu zuen. Ez zen beti horrela izan, baina irudi horrek sekulako indarra du egungo Txinan ere.

Bigarren geltokia XIX. mendearen erdialdetik XX. mende-hasierara bitartean dugu. Europa bere mugetatik kanpo ateratzen hasi zen une bertsuan (XV. mendean), ateak itxi zituen Txinak eta, Qing dinastiaren erdialdera (XVIII. mendean), maldan behera abiatu zen. Hazkunde demografiko handia eta zergak biltzeko gaitasunik eza izan ziren krisiaren abiapuntua, baina europar kolonialismoari aurre egin ezin izanak eta herria babestu ezin izanak, inperioa ez ezik tradizio konfuzionista ere indargabetu egin zuen eta ideia berriei eman zien bidea. Matxinada askoko garaia izan zen, Taiping izenekoa (1851-1864) izan zen ezagunena eta garrantzitsuena. Antzinako sinesmenak eta kristautasunaren irakurketa propioa nahasi zituen mugimenduak: lurraren banaketa, nekazari-komunismoa eta sexuen arteko berdintasuna eskatzen zituen. 20 milioi inguru hildako behar izan omen zituen gobernuak altxamendua zapaldu ahal izateko. Ia ehun urte geroago, bere mugimenduaren eta Taiping matxinadaren arteko loturak azpimarratu zituen Mao Zedong buruzagi komunistak.

Garai berean, mendekotasun koloniala pairatzen hasi zen Txina. Txinako merkaturia Europako merkataritzari zabaltzeko presionatu zuten Mendebaldeko potentzia nagusiek. Erresuma Batuak Opiorearen Gerraren bitartez (1839-1841) lortu zituen Hong Kong kolonizatzea, bost portu irekitzea eta zenbait merkataritza

eskubide. Geroago, Frantziak eta Estatu Batuek ere zenbait frankizia eta merkataritza-hitzarmen lortu zituzten. Indarrez edo indar-mehatxuz lortzen ziren akordioak, eta kaltegarriak ziren Txinako produkzioarako. XIX. mende-bukaeran, oso ahulduta zegoen Txinako inperioa: Mendebaldeko potentziek (Frantziak, Erresuma Batuak, Alemaniak, Japoniak eta Errusiak) kontrolatzen zituzten lurralde batzuk botere militar eta komertzialari esker, eta Txinak subiranotasuna galdu zuen zenbait lurraldetan. Kolonialismo berezia zen: lurralde guztia okupatu beharrean, Europako potentziek itsas portuetan zituzten guneak (kontzesio izenekoak) merkataritza-ustiaketarako. Sistema politikoari zegokionez, inperio-sistema mantentzen zen eta Qing dinastiak kontrolatzen zuen boterea. Hala ere, Inperioaren gainbehera eta krisi nabaria ekarri zuen menderatze kolonialak.

6.1. 1945-1951 Komunismoaren kontrolaren hedadura.



Iturria: Sellier, J. (2002): *Atlas de los pueblos del Asia meridional y oriental*, Paidós, Bartzelona, 158.

Inperialismoaren kontrako matxinadak ere egon ziren (1898an eta 1900-1901ean, *boxeren* altxamenduak); baina atzerriko indarrek zapaldu zituzten, eta trukean Txinako gobernuari baldintza gogorak ezarri zizkioten (kalte-ordainak eta atzerriko armaden presentzia onartzea). Mugimendu horiek porrot egin zuten,

baina ondorio garrantzitsuak utzi zituzten. Epe laburrera, eztabaidagai bilakatu zen konfuzionismoaren egokitzeko gaitasuna. Izan ere, Japoniaren kasuan, Mendebaldearekin izandako harremanek indartu egin zuten hango enperadorea eta herrialdea bera, baina Txinan aurkakoa gertatu zen. Egon zen konfuzionismoaren irakurketa berria egiteko ahalegina, aldaketaren aldekoa, Kang Youwei filosofoaren eskutik, baina tradizio politikoa eta intelektuala desagerrarazi nahi izan zuten berritzaile gehienek.

Ildo horretan, 1911n Qing dinastia boteretik kendu —gainbeheran zegoen— eta Errepublikak eratu zuten; iraultza moderatua izan zen, Inperioaren aurkako nazionalismoan oinarritua, eta Txina modernoa eta demokratikoa eraikitzeko helburua zuen. Sun Yat-Sen doktorea izan zen mugimendu iraultzailearen buruzagi, Aliantza Iraultzailearen burua, eta Alderdi Nazionalista edo *Guomindangen* sortzailea. Sun-ek adierazi zuen Txina eraberritua hiru printzipioren inguruan antolatu behar zela: Batasun Nazionala, Demokrazia eta Herriaren Ongizatea. Gaur egunera arte heldu da lelo horien oihartzuna.

6.3. TXINA, IRAULTZA KOMUNISTAREN GARAIAN: IRAULTZAREN PROZESU LUZEA (1911-1949) ETA GERRA ZIBILA

Oso nahasia izan zen Errepublikaren hasiera. Hainbat sektore sozialek eta politikok hartu zuten parte altxamenduan, eta kontserbadoreenak nagusitu ziren. Diktadura militarra ezarri zen (Yuan Che-kai buru, 1912-1916). Erregimen horren kontrako borrokek gertatu ziren nonahi eta oso egoera ezegonkorra sortu zen. Mongoliak independentzia lortu zuen, baita Tibetek ere, nahiz eta azken kasu horretan inork ez aitortu estatu burujabe moduan. 1927. urtera arte gobernu sendorik ez zuen izan Txinak, eta lurraldearen arabera aldatzen zen agintaritza. Batetik, *gerrako jauntxoak* zeuden: jaun feudalen antzekoak ziren, armada pribatuak zituzten eta lurralde handiak kontrolatzen zituzten. Bestetik, Pekingo gobernuak iparraldea baino ez zuen menderatzen. Azkenik, hegoaldean, Guomindangen gobernuak zegoen. Garai hartako Txinaren egoerak antz handia zuen X. mendean izan zuenarekin. Berrogeita bost urtean bost dinastia txandakatu ziren boterean, eta hegoaldean hamar erresuma sortu ziren.

Garai hartan bi gertakizun garrantzitsu jazo ziren. Lehena 1919. urteko maiatzaren 4ko mugimendua dugu. Egun horretan, Beijingeko unibertsitateko irakasleek eta ikasleek bultzatuta, jende asko elkartu zen, tartean merkatariak eta hiriko langileak; eta kaleak hartu zituzten, Versailleseko bake-tratatuetan Alemaniak Txinan kontrolatzen zituen lurraldeak Japoniaren esku utzi zituztelako, Txinari itzuli ordez. Mugimendu horrek Txinako nazionalismoa indartu zuen, eraso egin zien balio tradizionalei eta erraztu egin zuen Mendebaldetik zetozen hainbat ideologiaren zabalakundea, marxismoarena besteak beste. Gainera, herria hobeto prestatu beharra zegoenez, hizkuntzaren idazkera berria bultzatu zen, alfabetatzea errazteko asmoz.

Bi urte geroago (1921ean), Komintern-aren aginduei jarraituz, Txinako Alderdi Komunista (TAK) sortu zuten 50 lagunek. Alderdi Komunistak hiru baldintza izan zituen bere alde: hirietako langileriaren hazkundera, anarkismoaren porrota eta errepresioaren aurkako herri-erreakzioa. Hala ere, denbora behar izan zuen alderdi egituratu eta batua bilakatu arte, langile gutxi bildu baitzen erakunde berrira. Bi eratako arrazoiak egon ziren. Alde batetik, alderdiaren elitismo sozialak —unibertsitateko irakasleak eta ikasleak ziren gehienak— eta teorikoak —helburu bakarra iraultza egitea zen— lan sindikala oztopatu zuten. Bestetik, talde politikoen eta sindikalen —eta elkarte sekretuen— lehiari, lankidetzarako deiei edo errepresio-ekintzei egin behar izan zien aurre. 1923an Guomindang-ekin elkartu zen Alderdi Komunista, Sobietar Batasunak bultzatuta; izan ere, Sobietar Batasunaren ustez, Txinan artean feudalismoa zegoenez, beharrezkoa zen alderdi burgesekin bat egitea kapitalismoa ezartzeko. Guomindangen iritziz, Leninek garai hartan bultzatutako Politika Ekonomiko Berria eredugarria zen Txinaren ongizatea bermatzeko.

Hurrengo etapan, 1927tik 1937ra bitartean, Guomindangek lortu zuen Txinako lurraldearen kontrola: hiri nagusiak eskuratu zituen eta bere agintepean jarri zituen lehen aipaturiko *gerrako jauntxoak*. Chiang Kai-She-k alderdiaren buruzagi berriak autoritarismorantz jo zuen, nekazariak eskaturiko lur-jabetzaren erreforma alde batera utzi zuen, eta komunisten kontrako errepresio gogorra zuzendu zuen. Milaka lagun hil zituen Shangain.

Egoerak behartuta, jokabidea aldatu zuten libre geratzen ziren buruzagi komunistek. Estrategia iraultzaile berri bat jarri zuten praktikan: nekazarien sostengua bilatu zuten eta Armada Gorria sortu zuten. Bitarteko horiekin Alderdi Komunistak Errepublikakomunista ezarri zuen Txinako hegoaldean (Kiangsi-n). Gobernuaren erasoaldien ostean, komunistek ihes egin behar izan zuten eta horrela hasi zen bi urte (1934-1935) iraun zuen «Martxa Luzea». 150.000 lagun atera ziren eta 10.000 baino ez ziren heldu iparraldeko Shaanxi probintziako gune berrietara. Berez porrota zena garaipen bihurtu zuen TAKek: Armada Gorria ez zuten guztiz menderatu; estutu egin zituen Alderdi Komunistako kideen arteko harremanak eta hil arte iraungo zituzten loturak sortu ziren; eta Txina guztian hedatu zen komunisten ideologia, nekazarien aurrean portaera abegikorra erakutsi zutelako eta lurrak banatu zituztelako. Gerrillaren mistika ere sortu zuen, berehala Japoniaren aurka erabiliko zena. Bestalde, ekintza horrek buruzagi berria ekarri zion alderdiari, Mao Zedong. Berea izan zen, neurri handian, estrategia berriaren ardura, eta irakasgai bat atera zuen pasarte horretatik; ondorengo urteetan erabili zuen irakasgai hori, batzuetan era arrakastatsuan eta, besteetan, aldiz, giza hondamendiak sorrarazirik: borondatea eta etengabeko borroka dira garaipenaren giltzak. Hala ere, une hartan bazirudien gobernuak mugimendu komunista menderatzea lortua zuela, iparraldean bakarturik baitzegoen. Orduan, Japoniak inbaditu zuen Txina, eta hango komunistek isolamendutik irtetea lortu zuten.

Japoniak Mantxurian, Txinako ipar-ekialdean, *Mantxukuo* izeneko estatuan gobernu txotxongilo bat ezarri zuen: Qing dinastiako azken enperadorea jarri zuten boterean, eta pixkanaka ia kostalde guztiaz jabetu zen. Txinaren barne-oreka politiko-militarra aldatu zuen gerrak, Guomindang ahuldu zuelako, finantza-oinarriak eta militarren kokaguneak galtzean kaos ekonomikoa eta politikoa nagusitu zelako, eta Guomindangen eta TAKen arteko batasuna bultzatu zuelako etsai atzerritarrari aurre egiteko. TAKEk, bere aldetik, botere-hutsuneaz baliatuz, nekazaritzaren erreforma areagotu zuen: gogor egin zuen lurjabe kolaborazionisten aurka eta beste asko desagerrarazteko aprobetxatu zuen. Guomindangen ustelkeriaren eta ahuleziaren aurrean, berak hartu zuen japoniarren kontra sortutako nazionalismoaren zuzendaritza. Hala ere, Japoniak Txinaren kontrola lortu zuen 1938. urterako, tartean sarraski handiak eginez; Nanjing hirian esaterako, japoniarrek 300.000 lagun inguru hil zituzten 1937ko abenduan. Bigarren Mundu Gerra piztu zenean, fase berri batean sartu zen Txinaren eta Japoniaren arteko gerra, eta mundu mailako gatazkaren elementu bihurtu zen. Japoniak kapitulatu zuenean, 1945ean, gerrak jarraitu egin zuen Txinan, baina Guomindangen eta komunisten arteko gerra zibila izan zen.

Lehenagotik zetorren Guomindangen eta komunisten arteko gatazka, baina 1945. urteaz geroztik beste ezaugarri bat izan zuen: elkarren lehian zeuden etsaiek gerra osteko bi korrante ideologiko nagusiak ordezkatzeko zituzten; hau da, txinatarren arteko gatazka AEBren eta SESBren arteko gatazkaren testuinguruan kokatu zen. Estatu Batuek laguntza zalantzatia eman zioten Guomindang alderdiari, ezagutzen baitzuten haren ustelkeria eta egitasmo falta. Sobietar Batasunak TAK babestu zuen, baina kasu horretan ere, sobietarrek zalantzak zituzten, Txina indartsuaren beldur baitziren. Komunistek gerra irabazi zuten eta Guomindangen jarraitzaileak Taiwan uhartean babestu ziren. Haien mantendu zuten 1971. urtera arte Txinaren nazioarteko zilegitasuna. 1949ko irailean, garaileak *Txinatar Herriaren Biltzar Aholkugilean* bildu ziren Beijingen. Hainbat sektorek hartu zuten parte (nekazarien eta langileen sindikatuak, nazionalisten kontrako alderdi politikoak, gutxiengo etnikoak eta Alderdi Komunistak), baina komunistena zen gidaritza. Biltzarrak Herri Errepublikan aldarrikatu zuen, kontzentrazio nazionalerako gobernu batek zuzendua, eta Mao izango zen gobernuburu. 1949. urtean, urriaren lehen, osatu zen formalki egitura berria. Komunisten garaipenaren arrazoiak horrela laburbil daitezke: komunistek kolonialismoaren aurkako nazionalismoaren eta iraultza sozialaren helburuak uztartu zituzten, eta nekazarien laguntza lortu zuten; helburu horiek praktikan jarri zituzten boterea zuten lurraldeetan, bai japoniarren kontra borrokatuz, bai lurra banatuz nekazarien artean; horrez gain, Armada Gorria erakunde indartsua, diziplinatua eta eskarmentu handikoa zen, garaipenerako ezinbesteko tresna.

6.4. MAO ZEDONG, TXINAKO BURUZAGIA

6.4.1. Erregimen berriaren ezarpena (1949-1954)

Txinako Herri Errepublikaren gidari nagusiak, Mao Zedongek, hainbat helburu zituen: lehenik eta behin, eskuratu berri zuen boterea kontrolatzea eta mantentzea; bigarrena, gizarte berria eraikiz sozialismoaren bidean jartzea Txina; hirugarrena, Txina benetako estatu bilakatzea, lurraldetasunari eta haren kontrolari zegokionez. Ez zen erraza aurrean zeukan desafioa. 1953an 582 milioi biztanle zituen Txinak; % 41ek 18 urte baino gutxiago zituen; milako 37 zen jaiotza-tasa eta milako 17 hilkortasuna. Txinatarren % 91,2 nekazari-eremuetan bizi zen.

Lan horiek aurrera eramateko bi tresna garrantzitsu zituen: Armada Gorria eta, bereziki, Txinako Alderdi Komunista. Armadak menderatu zituen Guomindango azken erresistentzia-taldeak; Tibet (1912an lortu zuen independentzia) eskualdea konkistatu zuen —1959. urtean beste altxamendu bat gertatu zen— eta Xinjiang eta Mantxuriako eskualdeetan estatuaren kontrola berritu zuen. Maok Armada Gorria zaindu eta indartu zuen («boterea fusilarekin lortzen da» esaldia berea da), eta 1967. urteaz geroztik armamentu nuklearra lortu zuen. Berak eta ondorengo buruzagiek eskuratu zituzten karguen artean zegoen Armadaren Batzorde Zentralaren buruzagitza. Dena den, eztabaidan dago zer mailataraino izan zen iraultzaren bermatzaile Armada Gorria; hau da, Maoren aginduetara lehenik eta erreformisten aurrean ondoren, iraultzaren aldeko jokabidea izan zuen edo, besterik gabe, munduko armada gehienen moduan, ordena babestea (kasu horretan ordena iraultzailea) eta herrialdearen defentsa bermatzea izan zituen helburu.

Maok egindako aurreneko lanen artean alderdiaren berrantolaketa eta garbiketa zeuden. Beste erregimen komunistetan bezala, alderdiak estatuarekiko boteresare paraleloa eraiki zuen eta Maoren lerroarekin bat egiten zutenek osatu zuten zuzendaritza. 1945ean 1,2 milioi kide zituen alderdiak, 1956an 10,7 milioi ziren alderdikideak, eta 71 milioi 2007. urtean. Lehenengo unean ez zen ezarri «proletarioen diktadura»rik (alderdi bakarreko sistema). Helburua zen sektore sozial desberdinak (Guomindangoak izan ezik) erregimen berriaren inguruan biltzea, sektore sozial guztiek har zezaten parte gizartea eraldatzen —horregatik deitu zion Maok «demokrazia berria» etapa horri—. Hala ere, Alderdi Komunista zen boterearen ardatza, bizitza politikoa kontrolatu eta gizartea zuzentzen zuena. Esparru guztietan azaltzen zen haren nagusitasuna: administrazioan, lan-arloan (lantegietan, sindikatuetan), oro har, gizartean (gazte-erakundeetan, herrixketan, kultura-taldeetan). Laster hasi zen iraultzaren kontrako elementuen (Maoren borondatearekin bat egiten ez zuen edonoren) aurkako jazarpena eta, 1952tik aurrera, TAK izan zen legezko alderdi bakarra. Baina ez dirudi Stalinek zuzenduriko errepresioaren maila hartu zuenik Txinakoak, ez behintzat alderdiko kideen aurkakoak.

Ordurako, 1950. urtean, Sobietar Batasunarekin «Adiskidantza, aliantza eta elkarren arteko laguntza» ituna sinatu zuten Maok eta Stalinek. Testuinguru horretan, Koreako Gerran esku hartzea erabaki zuen Maok, eta horrek sentimendu nazionalistak eta atzerritarren kontrakoak piztu zituen berriz ere herritarren artean. Munduaren aurrean potentzia handi gisa agertu zen Txina, nahiz eta gerra hasi zen bezala amaitu, hau da, garaipenik gabe.

Sistema ekonomikoari zegokionez, gobernu berriak ekonomia mistoko sistema bultzatu zuen. Gerra luzearen ondoren, herrialdea suntsituta zegoenez, berreraikuntza ekonomikoa zen helburu nagusia. Nekazaritza-erreforma dugu neurririk garrantzitsuenetakoa: lurjabe handien lursailak desjabetu eta laborarien artean banatu ziren; 300 milioi lurjabe txikiko taldea sortu zuen banaketa horrek. Gizarte tradizionalaren oinarriak deuseztatu eta balio berriak ezarri nahi izan ziren. Hiru izan ziren neurri garrantzitsuenak. Alfabetatzea eta irakaskuntza garatzea izan zen lehena; horretarako idazkera batzen eta errazten ahalegindu ziren, Bejingeko dialektoa lehenetsi zuten eta hegoaldekoa (Kantonekoa) baztertu. Bigarrenak sexuen arteko berdintasuna aldarrikatu zuen, baita senar-emazteak aukeratzeko eskubidea ere, eta atzeratu egin zen ezkontzeko adina; debekatu egin ziren bigamia eta ohaidetza. Erljio-kontuetan, hirugarren neurria, errespetatu egin ziren kristautaldea, beti ere kontrolpean, baina konfuzionismoaren aurkako kanpaina gogorrak bultzatu ziren, herritarren artean etsipena eta mendekotasun-sentimenduak sortu zituelako. Laburbilduz, lau botereren aurkako kanpaina izan zen: politikoko ekonomikoaren aurkakoa, familiaren kontrakoa (iraultzaren aurkako ahaideak salatu egin behar ziren), erlijioaren aurkakoa (arbasoen kultuaren orde, Maoren kultua zabaldu zen), eta gizasemearen boterearen aurkakoa (aita, senarra, anaia edo semea izan). Txinatarren leialtasuna Alderdi Komunistara eta Maorengana zuzentzea izan zen kanpainaren helburua.

Sobietar Batasunean gertatu zen bezala, iraultzaren mesedetan jarri zen artea, eta errealismo sozialista hartu zen erreferentziazat. Horrekin batera ideologia berriaren aldeko kanpaina ugari garatu ziren: epaitu egin ziren iraultzaren aurkakoak, doktrina ideologikoa zabaldu zen eta gizaki komunista berriaren eredia goraiatu zen.

6.4.2. Sozialismoaren eraikuntza sobietar bideari jarraituz (1954-1958)

1954. urterako, Bejingeko gobernuak agintea ezarria zuen herrialde osoan; Alderdi Komunistak buruzagitza ideologikoa eta politikoa ezarri zuen Txinako gizartean; ekonomiaren arazo nagusiak konponduta zeuden eta egonkorra zen egoera ekonomikoa. Baldintza horiek guztiak kontuan hartuta, Maoren ustez benetakoa iraultza sozialista aurrera eramateko garaia zen. Sozialismoaren eraikuntza horretan, hasieran Maok sobietarren sistema hartu zuen eredutzat, baina bigarren fasean, Sobietar Batasunarekiko harremanak eten ostean, bide berezia hartu zuen; ekimen bereziak bultzatu zituen, baina porrot egin zuten azkenerako.

Hasieran, harreman onak izan zituen Sobietar Batasunarekin baina, hasierako laguntza teknikoaren eta finantzarioaren ondoren, tentsioa zabaldu zen. Hiru izan ziren arrazoi nagusiak. Eztabaida teorikoa izan zen lehena, hots, nor zen iraultza-ren subjektua erabaki behar zen, langileria edo nekazariak. Sobietar Batasunaren eta Txinaren lurralde-interesen arteko talka izan zen bigarrena. Azkenik, munduko komunismoaren zuzendaritza nori zegokion argitzeak urrundu zituen bi herrialdeak elkarrengandik. Stalin hil ondoren areagotu egin ziren ezberdintasunak, eta 1960tik aurrera apurketa ia erabatekoa izan zen; izan ere, iraultza burgestearen eta Sobietar Batasunaren eta bizikidetzeta baketsuaren aurkakoa zen Mao.

Sobietar ereduari jarraituz antolatu zen lehenengo bost urteko plana (1953-1957). Hiru helburu nagusi zituen planak: lurra kolektibizatzea laborariak nekazaritza-granja kolektiboetan bilduz (1956. urterako lurraren % 90 kolektiboa zen), industriako produkzio-baliabideak nazionalizatzea, eta industrializazio azkarra bultzatzea. Industriari zegokionez, emaitza onak izan zituen planak. Industria asko haztea lortu zen: urte gutxian bikoiztu egin ziren altzairuaren, petrolioaren eta elektrizitatearen ekoizpenak. Industria haztearen ondorioz, urbanizazio azkarra garatu zen, nahiz eta elikadura- eta etxebizitza-arazoak ere gertatu zenbait hiritan. Nekazaritzan, ordea, kaskarrak izan ziren emaitzak. Produkzioa hazi bazen ere, hazkundea motelegia izan zen biztanleriaren hazkundera aurre egiteko, eta elikatzeko arazoek iraun egin zuten. Gainera, nekazaritza ez zen gauza ez industria-sektorea (ehungintza, nekazaritzako elikagaien industria, eta abar) lehengaiz hornitzeko, ez eta esportatzeko ere (dibisak beharrezkoak ziren ekipo-ondasunak erosteko). Konponbide zaileko arazoaren aurrean zeuden txinatarrak: nekazaritzaren atzerapenak oztopa zezakeen hazkunde industrialaren jarraipena; baina inbertsioak industriara bideratzen ziren bitartean ezinezkoa zen nekazaritza modernizatzea. Egoera eta desoreka horiek konpontzeko «Aurreranzko Jauzi Handia» izeneko estrategia ekonomikoa jarri zen praktikan 1958. urtean.

Barne-egoera politikoan ekimen garrantzitsuak bultzatu ziren Maok iraultzaren izaera iraunkorraren inguruan zuen ikuspuntuaren bidetik. Maoren ustez, iraultza ez zen ekintza isolatua, prozesua baizik, eta beharrezkoa zen noizean behin astintzea bide egokian jarraitzeko. Ildo horretan, 1952. urtean, ustelkeriaren, xahutzearen eta burokratismoaren aurkako kanpaina bat bultzatu zen, eta 1956-1957 urteetan «Ehun loreen kanpaina». Letren eta artearen esparruan eztabaida askea bultzatzen zuen kanpaina izan zen, intelektualak eta zientzialariak iraultzaren alde jartze aldera. Porrot egin zuen. Maok deialdi bat egin zuen intelektualek askatasun-adierazpenaz baliatuz kritikak egin zituzten. Hasieran kritikak ahulak izan baziren ere, 1957. urtean areagotu egin ziren erregimen berriaren kontrako kritikak. Baina kritikoen aurkako errepresioa izan zen agintarien erantzuna, eta intelektual asko landa-eremuetara bidali zituzten «heziketa» egokia jaso zezaten. Batzuek hogeitau urte igaro zituzten kontzentrazio-esparruetan, bortxazko lanak egiten.

6.4.3. Aurreranzko Jauzi Handia

1958. urtetik aurrera, sobietar eredutik urrutiratzen hasi zen komunismo txinatarra. Orduan sozialismoa eraikitzeko txinatar bide berezia azpimarratu zuen Maok. Burokraziaren kontrako komunismoa, herri-masaren protagonismoa, laborarien lehentasuna iraultza aurrera eramateko orduan, iraultza iraunkorra eta eten-gabea omen ziren txinatar sozialismoaren ezaugarriak. Are gehiago, arestian aipatu dugunez, Maok sekulako garrantzia ematen zion borondateari iraultzak aurrera egin zezan. Hala, sobietar eredu ekonomikoa albo batera utzita, Aurreranzko Jauzi Handia bultzatu zuen, txinatar bide ekonomiko sozialistaren lehen urrats gisa, nekazaritzaren atzerapenari eta industria astunaren produkzioaren gabeziei aurre egiteko. Arazo horiek konpontzeko garapen-eredu berria proposatu zuen Maok: industriarekin batera, nekazaritza ere bultzatu behar zen; eta teknika modernoekin batera prozedura tradizionalak erabili behar ziren. Are gehiago, nahasi egin behar ziren eskulana eta buru-lana, gizartea burgestu ez zedin. «Aurreranzko Jauzi Handiaren» helburu nagusia garapen ekonomiko azkarra lortzea zen, eta 15 urtean herrialde industrializatuekin parekatzea, horretarako industria-sektore moderno, eta industria- eta nekazaritza-sektore tradizionalak batera garatuz. Kapital-eskasia zuen arazo nagusia, eta biztanleak mobilizatzearekin eta laborarien lan intentsiboarekin (hau da, boluntarismoan oinarritutako estrategia ekonomikoa erabiliz, eta ez arrazoizko plangintza) konpondu nahi zen arazo hori.

Herri-komuna zen ahalegin ekonomiko horretako oinarritzko zelula. Bertan, lurrak eta tresneria kolektibizatzeaz gain, eguneroko bizitza eta familia-bizitza ere elkarrekin egiten ziren. 24.000 herri-komuna sortu ziren, bakoitzak 20.000-40.000 lagun zituela (landako populazioaren % 90), baina, maiz, tokiko errealitatea kontuan hartu gabe. Laborariek, Maoren arabera, uztak biderkatu, etxegintza ugaltu eta industria-produkzioaren unitateak nonahi garatu behar zituzten; komunak landarra mobilizatu behar zuen lan hidraulikoak egiteko eta jarduera industrialak bultzatzeko (oinarritzko industria, industria bakuna eta deszentralizatua); eta komuna bera hornitzeko ekoizteaz gain, nekazaritza-produktuen kopuru finakoak eman behar zizkioten estatuari salneurri baxuan. Landa-industrializazioari zegokionez, etxeetako metalezko tresneria hartu zen eskuz egindako labe garaietan urtzeko, estatuak eskatutako burdina eta altzairu kuotak osatu ahal izateko, nahiz eta gero erabiltzerik ez izan.

Porrot itzela izan zen emaitza, aldaketak bat egin zuelako eguraldia okertzearekin, lehorteekin eta uholdeekin. Berrito agertu zen gosea eta 20 bat milioi lagun hil ziren ondorengo urteetan. Hala ere, dakigunaren arabera, hondamendiak ez zuen eragin erresistentzia handirik, Alderdiaren eta Maoren ospea oso handiak baitziren; gainera, komunak ezartzeak jarrera autonomoak eragotzi zituen eta estatuaren eta administrazioaren zabalkundea erraztu zuen. Hori bai, puztu egin ziren estatistikak, ondorioen beldur eta propagandaren garrantziaren eraginez.

Jauzi Handiak proposatzen zuen garapen-sistema ez zen batere errealista; eskulan gehiegik utzi zuen baserriko lana —nekazaritzako produkzioak atzera egin zuen— produktibitate gutxiko jarduera industrialetan aritzeko; handiegiak ziren komunak eta tamaina oztopo zen lana antolatzeko eta kontrolatzeko. Egoera larria areagotu egin zen 1960. urtean, sobietar adituek Txinatik alde egin zutenean; eta, ondorioz, proiektu ekonomiko asko bertan behera gelditu ziren. Txinak galdu egin zuen kanpoko laguntza zientifikoa eta teknikoa.

6.4.4. Berrezarkuntza moderatua 1960-1966

Jauzi Handiaren porrotak ondorio politiko garrantzitsuak ere izan zituen. Alderdi Komunistaren baitan gogor kritikatu zuten Maoren proposamena eta, ondorioz, 1959. urtean Maok uko egin zion Errepublikako presidente-karguari, nahiz eta TAKen presidentziari eutsi. Bi joera azaldu ziren alderdian. Bata pragmatikoa (Liu Sao-Chi presidente berriak eta Deng Xiaoping idazkari orokorrak zuzentzen zutena), ortodoxia marxista eta moderazioaren itzulera, Alderdiaren protagonismoa, kooperatibak indartzea eta estatuaren plangintza bultzatzen zuena. Sozialismoa artean urruti zegoen helburua zen. Bigarrena Maoren jarrera, «iraultzailea» edo «erradikalagoa». Testuinguru hori hartu behar da kontuan Iraultza Kulturala aztertu eta ulertzeko.

Txinako botere-aldaketa horrek ez zuen eragin positiborik izan Txinaren eta SESBren arteko harremanetan, nabarmen okertu baitziren. Zatiketak eragin handia izan zuen munduko mugimendu komunistan; bi bide proposatzen ziren sozialismoa eraikitzeko, eta ez ordura arte bezala eredu bakarra, sobietarra, alegia. Bestalde, hausturaren ondorioz, Txinaren eta Mendebaldeko herrialdeen arteko harremanak hobetu egin ziren, Gerra Hotzaren testuinguruan Sobietar Batasuna ahultzea baitzen helburua. 1964. urtean, Frantziak aintzat hartu zuen (gobernu zilegitzat) Txinako Herri Errepublika; hurrengo hamarkadan Nazio Batuen Erakundean onartu zen Txina, eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko harreman diplomatikoak hasi ziren.

Liuk eta Dengek, jarrera zentzuzkoagoak erabiliz, politika ekonomikoa aldatu zuten. Nekazaritzari eman zitzaion lehentasuna (inbertsio gehiago), industria astunaren kaltetan. Aldatu egin ziren herri-komunak: tamaina txikitu zitzaien eta protagonismoa galdu zuten produkzioa antolatzeko orduan. Bestalde, laborariak berriz hasi ziren nor bere lursaila lantzen; lur berriak landu ziren eta, oro har, modernizatu egin zen nekazaritza (ureztatze-sistemak, mekanizazioa, ongarriak, eta abar). Horren guztiaren ondorioz, nabarmen egin zuen gora elikagaien produkzioak baina, aldi berean, ia neurri bereko hazkunde demografikoa gertatu zen. Horri aurre egiteko, jaiotzak murrizteko politikak ezarri ziren eta 1979an seme-alaba bakarrera mugatu zen familia bakoitzaren haur kopurua, bereziki hiriguneetan. Nekazaritzako guneetan, aldiz, lehen haurra neska bazen, ez zegoen

hainbeste oztopo bigarrena izateko. Neurri horiek eta haurraren sexua aukeratzeko praktikak ondorio nabariak izan zituzten epe ertainera, eta gaur egun bistakoak dira. Emakumeak baino 50 milioi gizon gehiago bizi dira Txinan, eta oso familia-harreman urria dute, ez baitute ez anai-arrebarik, ez osaba-izebarik, ez lehengusurik.

6.4.5. Iraultza Kulturaletik Mao hil arteko garaia (1965-1976)

Maoren itzalaldiak ez zuen asko iraun. 1964. urtean *Liburu gorria* kaleratu zuen, haren lanetako aipuez osatutako lana, arrakasta asko izan zuena; bi urte geroago, Langileriaren Iraultza Kultural Handia izendatu zen ofentsiba hasi zuen. Ekimen horrek hiru helburu zituen. Maok boterea berreskuratzea izan zen garrantzitsuena, baina ez agerikoena, mundu guztian izan zituen jarraitzaileek ez baitzuten ikusi. Beste biak agerikoagoak izan ziren: TAKeko sektore moderatuak eta intelektualek ordezkatzeko zuten desbiazionismo burgesa eta iraultzaren kontra-ko ezabatzea, eta iraultza iraunkorra bultzatzea. Horrela, Iraultza Kulturalaren bitartez belaunaldi gazteei heziketa iraultzailea emango zitzaien. Iraultza Kulturala 1966. urtean hasi zen eta 1969an amaitu, baina ondorioek denbora gehiago iraun zuten. Hiru tresna nagusi izan zituen, hasieran behinik behin: Armada Gorria, aipatu berri dugun *Liburu gorria*, eta liburu hori itun berri gisa hartu zuten ikasle eta gaztetxoak osatutako —asko batxilergoko ikasleak ziren— guardia gorria.

Bi mugimendu uztartu zituen kanpainak: bata berez sortu zen Beijingeko ikasleen artean, hezkuntzaren baldintzak salatzen zituena, eta bestea, Mao 1965eko udazkenetik bultzatzen ari zena, garbitasun iraultzailearen aldekoa zen. Maok ikasleen kritikak aprobeztatu zituen, baita bere inguruko militanteek egindakoak ere, 1966ko abuztuan Alderdiaren gehiengoa bere aldera makurtzeko, eta Biltzar Nazionalak 16 puntuko adierazpena onar zezan. Bertan, besteak beste, honako puntu hauek onartu ziren: herritarrek Alderdiko kideak kritikatu zitzaizketen, baita aldatu ere. Alderdiko buruzagiek alderdiak egindako hanka-sartzeen kritika bultzatu behar zuten. Alderdiak herritarrak hezi behar zituen politikoki, eta horretarako denbora eskaini behar zen lantokietan. Langileak, nekazariak eta ikasleak elkarrekin nahasi behar ziren iraultzaile hobeak izateko. Alderdiaren babesarekin, Maok bere jarraitzaileak «burokrazia»ren kontra, hots, Alderdiko eta administrazioko agintarien aurka, borrokatzera bidali zituen.

Agintari guziak geratu ziren «herria»ren kritikaren mende, Mao izan ezik. Horrek anabasa zabaldu zuen Txina osoan. Alderdiaren zuzendaritza gorenaren babesean, denaren eta denen aurka aritu ziren guardia gorriak. Buruzagi askok beren postuak galdu zituzten, batzuk kartzelara eraman zituzten, beste batzuk landa-eremura eta hil egin zituzten zenbait. Gobernuko buruzagitzatik kendu zuten Liu Shaoqi 1966. urtean, urtebete geroago atxilotu egin zuten eta kartzelan hil zen 1969ko azaroan. Deng Xiaoping Xinjiango eskualde urrunera bidali zuten fabrika batean eskulagile moduan aritzeko. Nahikoa zen zerbaitegatik nabarmen-tzea (ondasunen bat edukitzea edo orrazkera berezia izatea) herriaren etsai

bilakatzeko. Mendebaldeko kulturarekin zerikusia zuen edozerk zuen arrisku bera. Herritarrengandik bereizita aritzen ziren intelektualak ere arriskutsuak ziren eta, ondorioz, zatiketa hori ere amaitu behar zen. Horretarako, langileak bezala janztera behartu zituzten eta asko lantegi arruntetara edo soroetara bidali zituzten, lanaren bitartez hobenak zuzentzeko. Erljioa herritarren opioa zenez eta zaharra txarra, makina bat tenplu eta artelan suntsitu zuten guardia gorriek. Garai berean, 1968. urtearen inguruan, Mendebaldean gertatzen ari zen matxinadarekin parekatu izan ohi da Iraultza Kulturala; asmoak eta helburuak beste batzuk izan arren, aurrekoarekin apurtzeko gogo nabari zen bietan. Beijingeko kemen berdinarekin aritu ziren Pariseko talde maoistak, Frantzian benetan existitzen zen burgesiaren aurka.

6.2. 2008 Txinako Herri Errepublikaren banaketa politikoa.



Iturria: *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 8. liburukia, Donostia, Harluxet, 3.080. or.

Giro horretan, lehenengo urteetan, anarkia eta anabasa arriskutsua zabaldu zen Txina guztian; Alderdia eta Armada zatituta zeuden, iraultzaileen artean ere hainbat talde sortu ziren; baina 1969. urteaz geroztik mugimendua kontrolatzen hasi zen Armada, eta baretu egin zuen egoera. Ez dago garbi Maoren aginduak bete-

tzeko hartu zuten esku, edo armada bere kabuz aritu zen, egoera erabat kontrol-petik kanpo geratu baino lehen. 1969ko apirilean bildu zen Alderdi Komunistaren IX. Kongresua, eta Maoren eta Armadaren garaipena berretsi zituen: Alderdiaren komite berrian aulkien ia erdiak militarrek lortu zituzten. Hala ere, Mao hil arte jarraitu zuten barne-tirabirek Alderdi Komunistaren baitan.

Bitxia eta adierazgarria da Maoren azken urteak aztertzea. Iraultza Kulturala ustez ezkertiarren garaipenarekin amaitu bazen ere, 1974an Deng barne-desterrutik itzuli zenean, lehen ministroorde izendatu zuen Maok berak —bi urte geroago berriro izan zituen arazoak Dengekin—. Agintari berriek zuzendu zuten politika ekonomikoak ez zion jarraitu kolektibizazioaren bideari; izan ere, nork bere lursaila edukitzeko aukera eman zitzaien nekazariei eta soldaten igoera produktibitatearen arabera izan zen. Nazioarteko politikan, 1971. urtean Txinak Nazio Batuen Erakundean sartzea lortu zuen eta, beraz, Segurtasun Kontseiluko eserlekua betetzea Taiwanen ordeztatu zuen. Hurrengo urtean, Estatu Batuetako Nixon presidentea Beijing bisitatu zuen, bi herrialdeen arteko harreman onak bermatzeko. Azalpen bitxia eman zuen Mao Zedongek: 1956ko testu bat berreskuratu zuen, non jartzen zuen paperezko tigrea zela iparramerikar inperialismoa eta benetako etsaia, arriskutsuena, Sobietar Batasuna zela. Handik gutxira, 1976ko irailaren 9an hil zen Mao Zedong, 83 urterekin. Jarririk utzi zituen Txina berriaren oinarriak, baina ondorengo ez zen izan berak uste zuena; aldaketa dezente gertatu ziren hurrengo urteetan.

6.5. DEN XIAOPINGEN GARAIA, 1978-1993: «HERRI BAT, BI SISTEMA»

Mao hil zen urte berean hil ziren Alderdiko beste bi buruzagi garrantzitsu: Zhou Enlai lehen ministroa eta Zhou De militarburua. Botere-hutsunea geratu zen, eta ondorengo borrokek ongi asko erakusten dute Iraultza Kulturala amaitzearekin batera ez zirela inondik inora amaitu eztabaidak. Bi talde jarri ziren aurrez aurre: boterea eta bereziki Txinaren etorkizunerako estrategia zituzten lehian. Lehen taldea Maoren alargunak eta beste hiru buruzagik osatu zuten, eta «Lauren banda» izenarekin egin ziren ezagun; Maoren alde erradikalenari eustea zen asmoa. Bigarren taldea Deng Xiaopingeng inguruan gorpuztu zen; eraginkortasun ekonomiko eta modernizazioa zituzten helburu nagusizat, printzipio ideologikoak eta maoismoa bigarren mailan utzita. Trantsizio-etapa interesgarri baten ostean, joera pragmatikoa nagusitu zen: maoista erradikalak baztertuta geratu ziren, giltzapean, eta Deng Xiaoping, 74 urterekin, Txinako buruzagi goren bilakatu zen. Beraz, politika erreformista izan zen garaiaren ezaugarri nagusia, batez ere arlo ekonomikoan. Dengen abiapuntua oso sinplea izan zen: aberastasuna banatu ahal izateko, aurrena aberastasuna sortu behar zen.

Hainbat aldaketa gauzatu zituzten Dengek eta haren jarraitzaileek. Desestalinizatzeko moduko erreforma batzuk egin ziren, nolabaiteko «desmaoizatzeko» prozesu

bat; hau da, egitura politikoaren funtsa ukitu gabe, maoismoaren zenbait gehiegikeria salatu ziren, batez ere nortasunari eskainitako kultura eta jarraituriko politikaren akatsak. Iraultza Kulturalaren gehiegikeriak salatu ziren, eta orduan zigortutako hainbat lagunek beren lanpostuetara itzultzeko aukera izan zuten. Horrekin batera, Alderdiko karguak berritu ziren: militar gutxiago eta teknikari gehiago, eta agintari berri eta gazteagoak sartu ziren. Zhao Ziyang lehen ministroa eta Hu Yaobang izan ziren horien artean garrantzitsuenak.

Kanpo-politikan ere pragmatismoa nagusitu zen eta bigarren mailan utzi ziren printzipio ideologikoak. Ezin zen bestelakorik egin. Izan ere, Txinan bertan Iraultza Kulturalak frustrazio handia utzi zuen, garbi zegoen Sobietar Batasunaren eredu ekonomikoak ez zuela balio eta, gainera, Estatu Batuen aliatua zen Txina. Mendebalderako irekitze-prozesu bat garatu zen: Estatu Batuekin akordio berriak sinatu ziren 1985ean, energia nuklearra eta laguntza teknikoa lortzeko; Britainia Handiarekin ere akordio garrantzitsua izenpetu zen 1984. urtean eta, horri esker, Txinak Hong Kongen gaineko subiranotasuna berreskuratu zuen 1997. urtean, nahiz eta lurralde horretan lehengo sistema sozioekonomiko kapitalista mantendu beharko zuen Txina komunistak hurrengo 50 urteetan. Sobietar Batasunarekin ere harreman diplomatikoak eta ekonomikoak berrezarri ziren garai hartan. Dena ez zen arrakastatsua izan. Dengen diplomatikoez ez zituzten konpondu Tibeteko eta Taiwaneko arazoak, eta 1979an gerra labur bat gertatu zen hegoaldean Vietnamen aurka; txinatarren artean 20.000 hildako eta zauritu eragin zituen, eta ez zen garai-epenik lortu.

Ekonomiaren esparruan gertatu ziren Deng Xiaopingek aldaketa nabarmenak eta esanguratsuenak. Txinako Alderdi Komunistak bere eskutik garatzeko eta modernizatzeko estrategia berria eta oso berezia proposatu zuen: mekanismo ekonomikoak liberalizatzea, albo batera utzirik estalinismoaren eta «sozialismo errearen» printzipio ekonomikoak. Ateak ireki zitzaizkion atzerriko kapitalari eta esportazioak indartzera bultzatu zituen Txinako enpresak. Egin beharrekoa «Lau eraberritzeen» programan laburbildu zuen buruzagi berriak.

1. Nekazaritzan hasi zen erreforma ekonomikoa. Herri-komunen sistema desegin zen eta erabilera pribatua bultzatu zen, baina ez jabetza. Lursailak eman zitzaizkien laborariei libre ustiatzeko, eta aldi berean produktuak hurbileko azoketan merkaturatzeko askatasuna eskaini zitzaien. Oso positiboa izan zen emaitza: asko igo zen nekazaritzako produkzioa, 1980. urtetik aurrera urteko % 8 —aurreko hazkunde-tasa ez zen heltzen % 3ra—. Egia esan, aldaketa horiek nekazariak berek hasi zituzten bizi zuten egoera penagarria konpontzeko; baina gobernuaren babesak erreforma orokortu egin zuen, eta nekazariak izan ziren Dengen garaiko lehen onuradunak eta ez hirietako biztanleak. Denborak aurrera egin ahala, aldatu egin zen egoera, zerga-politikaren helburu nagusia nekazariak izan ziren eta.


2. Ekimen pribatua onartu zen industrian, enpresa txiki eta ertainetan (denda txikietan, ostalaritzan, artisautzan). Estatuaren enpresetan, kudeaketan autonomia eta pizgarri ekonomikoak erabiltzen hasi ziren, baina pribatizatu gabe; atzerriko kapital pribatuarekin eta estatuaren finantzaketarekin sortutako enpresa mistoak bultzatu ziren. Neurri horiek ere produkzioaren hazkunde nabaria ekarri zuten, batez ere industria arinean, kontsumo-ondasunen ekoizpenean, eta beste aldaketa batzuei zabaldu zieten bidea.
3. Zientziari eta teknologiari zegokienez, lehen mailako zazpi ikerketa-arlo finkatu ziren energiaren ustiaketa hobetze aldera eta goi-mailako teknologia eskuratzeko; aurrerapen horien bitartez beste hainbat sektoretan ere aurrera egiteko.
4. Defentsari zegokionez, murriztu egin zen armadako kideen kopurua, profesionalizazioa bultzatu zen eta teknologia militarra garatu zen Txinaren ahalmen militarra indartzeko.

Txinako ekonomia atzerrira zabaltzea eta kanpoko kapitala eta teknologia erakartzea lortu zuten proposamen horiek. 1979tik aurrera, bost Eskualde Ekonomiko Berezi sortu ziren kostaldeko beste hainbat hiriren inguruan, eta arau fiskal eta lan-legedi bereziak (malguagoak) onartu ziren industria eta merkataritza garatzeko. Dena den, lehen unean, kanpoko enpresek industria arina ezartzeko eta produktu merkeak eskulan merkearekin ekoizteko erabili zituzten Txinak eskaintzen zituen abantailak. Ekialdeko Asiako beste herrialde batzuek (Japoniak, Koreak, Taiwanek...) egindako ibilbide berari jarraitu zion Txinak. Denbora behar zen buruzagiek nahi zuten aldaketa gauzatu arte. Edozein kasutan, 1980ko hamarkadan hazkunde ekonomikoaren tasa % 10 izan zen, eta prozesu horren ondorioz indartu egin ziren lehenagoko arazo batzuk. Eskualdeen arteko desoreka izan zen nabarmenena, bereziki kostalde aberatsaren eta barnealde pobreen artean. Gauza bera hasi zen gertatzen desberdintasun sozialak zabaltzearekin batera, klase ertaina agertu ondoren. Lantegietako beharginek landan baino gehiago irabazten zuten, baina ez zuten inongo eskubiderik, ez sindikatzeke edo lan-baldintzak negoziatzeko ere. Horretaz gain, ustelkeria hedatu zen, Alderdiko zuzendaritzako kideak baitziren jarduera berrietarako baimenak ematen zituztenak edota, zuzenean edo zeharka, lantegi berriak irekitzen zituztenak. Ingurumenaren narriadura ere une horretan hasi zen nabarmentzen.

Ekonomiaren liberalizazioak ez zuen parekorik izan arlo politikoan, muga-tuak izan baitziren erreformak. Alderdi Komunistak zuzendu zuen prozesua hasieratik, eta ez zuen izan inongo asmorik beste batzuen esku uzteko. 1979. urtean bertan Deng Xiaopingek laburbildu zituen zein ziren garai berrirako irizpidetakoak. Lehenengoa, sozialismoaren ideiei leialtasuna izan zen. Bigarrena, proletarioen diktaduraren teoriaren garrantzia. Hirugarrena, Alderdi Komunistaren zuzendaritzaren beharra. Eta laugarrena, marxismo-leninismo-maoismoaren nagusita-

sun berrestea, errealitatea aztertzeko eta eraldatzeko tresna gisa. Kritika egin zitzaion Maoren kultuari, baina ez zen izan erabateko deskalifikazioa. Garai hartan ospetsu egin zen esaldiaren arabera, Maok arrazoi zuen egindako gauzen % 70ean eta nahasi egin zen % 30ean. Dena dela, Dengkek ez zuen argitu zein zen zati bakoitzaren muina. Komunikabideetako adierazpen-askatasun handiagoa izan zen aldaketa esanguratsu bakarra.

6.3. 2004 Txinako diru-sarrerak biztanleko dolarretan.



Iturria: Veiga, F. (2009): *El desequilibrio como orden. Una historia de la posguerra fría 1990-2008*, Alianza Editorial, Madril.

Askatasun ekonomikoa bai, askatasun politikorik ez. Kontraesan horren ondorioz, herri-mugimenduak eta protestak azaldu ziren, baita komunista ortodoxoen aldetik ere. Ildo horretan, 1983an TAKek «espirituen kutsaduren» aurkako kanpaina hasi zuen, rock-and-rollak, pornografiak edota ile luzea erabiltzeak ekarriko zituen arriskuen beldur. 1986. urtean ikasleen manifestazioak hasi ziren askatasun gehiago eskatzeko, eta Hu Yaobang Alderdiko idazkari nagusiak baimendu egin zituen, erreformen aurkakoak ahultzeko asmoz. Aitzitik, Alderdiko buruzagiek ongi gogoratzen zuten Txinako historian ikasleen protestek izandako eraginkortasuna

1919an eta 1966an, eta Hu postutik kentzea lortu zuten. Hiru urte geroago hil zen Hu, 1989an, eta protestarako beste aitzakia bat izan ziren haren aldeko ospakizunak. Larriagoak izan ziren urte hartako maiatzeko gertakariak, ikasle multzo handi batek Beijingeko plaza nagusia, Tiananmengoa, hartu zuenean beren eskakizunak plazaratzeko. Bi eskakizun mota zituzten: gizarte-gaiekin lotura zutenak eta kutsu politikoa zutenak. Lehen multzoko protestek lotura zuten gizarte-desberdintasunak areagotzearekin eta erreforma ekonomikoen ondorioekin, inflazioaren igoerarekin, ustelkeriaren hazkundearekin eta gizarte-zerbitzuak ahultzearekin. Bigarren multzoko eskakizunek esanahi politiko nabarmenagoa zuten, baina bereziki erreformak indartzea eskatzen zuten, besteak beste, hilabete horretan bertan kendu zituzten buruzagi erreformistak beren postuetara itzultzea. Baina ez zuten biztanleriaren babes handirik izan. Hala ere, egunetik egunera jende gehiago hurbildu zen plazara, langile ugari tarteko, eta gero eta handiagoa izan zen tentsioa. Agintariak ez ziren ausartu indarra erabiltzen Gorbaxov Beijjingen zegoen bitartean, Lege Martziala ezarri arren. Baina errusiarrak alde egin ondoren, ekainaren 4an, plaza husteko agindu zuten, eta Armada gogor oldartu zen bertatik irten berri zirenen aurka. Ez dakigu zehazki zenbat hildako izan ziren; batzuek ehunka batzuk aipatzen dituzte, beste batzuek 3.000 inguru. Dena dela, ikasleen protesten errepresioak garbi erakutsi zuen non zegoen erreforma politikoen muga. Bestalde, Txinak nazioartean zuen posizio berriaren erakusle ere izan zen; izan ere, Beijjingen gertatutakoari Mendebaldeko potentziek emandako erantzun bigunak erakutsi zuen Mendebaldekoek ez zutela haserretu nahi sortzen ari zen botere eta merkatu berriarekin.

Txinari dagokionez, honako hauek izan ziren ondorio nagusiak: erreforma politikoa liberala gelditu egin zen, eta aldaketa ekonomikoak eta sozialak, aldiz, areagotu egin ziren. Egoera berria deskribatzeko, azken ehun urteetan aurrez aurre egondako bi termino bateratu eta kontzeptu berria asmatu zuten agintari komunistek. 1992tik aurrera Txina ez zen herrialde sozialista bat, «merkatuko ekonomia sozialista» zuen herrialdea baino. Deng Xiaopingek, bere aldetik, pixkanaka-pixkanaka utzi zuen boterea, eta Jiang Zemin-ek hartu zuen Dengen tokia. Shangaiko alkate izandakoa zen Jiang eta alderdiko idazkari nagusia zen 1989tik. Haren eskuetan geratu ziren Errepublikako presidentzia eta Alderdiko Idazkaritza Nagusia 1992an egindako TAKen XIV. Kongresuaz geroztik; eta, handik gutxira, Batzorde Militar Zentraleko presidentzia ere eskuratu zuen. Kongresu hartan erabaki zen, besteak beste, haren jarduna gehienez jota bi agintalditara mugatuko zela. 1926an jaio zen Jian, eta belaunaldi berri baten ordezkaria izan zen, Martxa Luzean edo Herri Errepublikaren sorreran parte hartu ez zuten komunistena hain zuzen.

6.6. GAUR EGUNEKO TXINAREN BILAKAERA, 1992-2009

Deng Xiaopingek boterea eskuratu zuenetik pasatu dira hogeita hamar urte, eta hainbat arlotan errotik aldatu da Txinaren egoera; beste batzuetan, aldiz, ez hainbeste. Egungo helburu nagusiak (eraberritzeak eta garapen ekonomikoak) ez du desberdintasun handirik 1949koekin alderatuta, baina zeharo aldatu dira lortzeko bideak. Erreformatik eta irekiera-prozesuak nazioarteko protagonisten artean lehen lerroan kokatu dute Txina, lortutako botere ekonomikoari esker, baina politikoki ere ezinbesteko eragile bilakatzen ari da, Asian ez ezik, baita beste kontinente batzuetan ere.

Txinan izan den garapen ekonomikoa da garai honetako daturik deigarriena, bi arrazoiengatik. Benetako iraultza baten aurrean gaudela adierazten du Txinaren neurri demografikoak; eta hazkundearen tamainak eta iraupenak inpresio hori berretsi baino ez dute egiten. Izugarriak dira kopuruak eta gutxi batzuk baino ez ditugu aipatuko. 540 milioi izatetik 1.330 milioi izatera igaro zen biztanleria 1949tik 2008ra bitartean. Tarte berean, hirietan bizi zirenen portzentajea % 20tik % 44,9ra igo zen; bizkoiztu egin zen bizi-itxaropena eta ia boskoiztu alfabetatzea, % 95era heldu arte. Ekonomiaren hazkunde-tasa ere oso deigarria da: 1980ko hamarkadan % 15era heldu zen; hamarkadaren bukaeran % 4ra jaitsi zen, eta 2000. urtetik aurrera % 8ren inguruan dabil urtero. 500 milioi lagun inguru aterata da miseria-egoeratik, 13.000 milioi biztanle dituen herrialdean. Hala ere, Mendebaldeko herrialdeek duela berrogeita hamar urte zuten egituraren antza dauka gaur egungo ekonomiaren egiturak. BPGren % 6 nekazaritzatik dator, nahiz eta oraindik biztanleriaren gehiengo bertan aritu; % 71 industriak sortzen du eta % 23 baino ez zerbitzu-sektoreak. 1980an BPG buruko 67 dolar zen, 2008an 3.325 dolar. Ehun herrialde ditu aurretik herrialde aberatsenen zerrendan, pertsona bakoitzaren batez besteko errenta aztertzen badugu.

Jiang Zeminek herrialdearen zuzendaritza hartu zuenetik, egonkortasuna izan da egoera politikoaren ezaugarri nagusia, baina nabaria da buruzagien kezka hainbat konturen aurrean. Horien adibide dira 2009ko ekainean Tiananmen-go gertaeren hogeigarren urteurrenaren aurrean hartutako neurriak, inongo protestarik gauzatu ez zedin. Aitzitik, disidentziak ez du erakutsi antolatzeko ahalmen handirik, oso zorrotza baita gobernuaren kontrola; Internet askatasunez erabiltzeko oztopoak dira horren lekuko. Hainbat lagun daude kartzelan hauteskunde libreak eta demokrazia eskatzeagatik, estatuaren boterearen aurka oldartzea leporaturik. Bitxia bada ere, arazo gehien sorrarazi duen taldea erakunde erdierlijioso bat izan zen, Falun Gong izenekoa; izan ere, haren ekintzak eremu publikoan tokia eska-

tzen zuen eta gobernua, antza denez, XIX. mendeko Taiping matxinadarekin gogoratu zen. Agintariek oso gogor jo zuten talde horren aurka eta, protesta moduan, hainbat lagunek bere buruaz beste egin zuten 2001. urtean. Ez da ahaztu behar, azkenik, Txinak erreparorik gabe erabiltzen duela heriotza-zigorra, bereziki, delitu arrunten kasuan.

Jiang Zeminen ekintza arrakastatsuen artean Hong Kong (1997) eta Macao (1999) berreskuratzea dago. Orduan bota zuen ospetsu egingo zen esaldia: «Herrialde bat, bi sistema», Txinak zenbait tokitan sistema ekonomiko-politiko desberdina onar zezakeela adierazteko. Jiangen beste esaldi famatua «hiru ordezkariak» kontzeptuaren inguruan osatu zen. Haren ustez, Alderdi Komunistak ekoizpen-indar aurreratuenak, kultura aurreratuena eta masa handien oinarriko interesak ordezkatu behar zituen, hau da, enpresarioak, intelektualak, langileak eta nekazariak, hurrenez hurren. Definizio bitxia da bere burua komunistatzat hartzen zuen erakunde batentzat. 2001. urtean Txinak Munduko Merkataritzarako Erakundean integratzea lortu zuen; hartutako garrantzi ekonomikoaren ordaina izan zen. Jiangen garaian, azkenik, herri txiki-txiki udal-agintariak aukeratzeko hauteskunde zuzenak antolatu ziren, Alderdiari eta Estatuari egiten zitzaizkien kritikak arintzeko asmoz.


2002. urteko azaroan egin zen Alderdi Komunistaren XVI. kongresua eta, bertan, Jiang Zeminek Hu Jintao-ri utzi zion bere tokia; 2004. urtera arte, ordea, Batzorde Militar Zentralaren buruzagitzari eutsi zion, Dengek egin zuen bezala, trantsizio-prozesua era kontrolatuan gerta zedin. Beste era batera esanda, ingurukoek botere-postuak gal ez zituzaten eta buruzagi berriek haren iritzia kontuan har zezaten. Huk 59 urte baino ez zituen eta beste belaunaldi bat ordezkatzeko gobernuan gero eta garrantzi handiagoa zuten teknokratena. Dena den, aldaketak ez zuen kolokan jarri Alderdi Komunistaren nagusitasuna. Garapen ekonomikoa izan zen Jiang Zeminen kezka nagusia; Huk, aldiz, gizarte harmoniotsuaren ideia defendatu zuen. Horretarako, garapenak eragindako desorekak zuzendu behar ziren eta aurreko oinarri juridikoa eguneratu behar zen.

Azken puntuari dagokionez, 2004ko martxoan konstituzioa aldatu zuen Txinak. Onbidez lortutako jabetza pribatua legeztatzea izan zen berrikuntza esanguratsua. Beste artikulua batek azpimarratzen du enpresariak herrialdearen eraikuntzan duten garrantzia. Horrela, agur esan zitzaion ekonomia planifikatuari. Bestalde, giza eskubideen aldeko aipamena gehitu zitzaion Konstituzioari, baina zein ziren zehaztu gabe. Aldaketak gorabehera, marxismo-leninismoaren eta maoismoaren balioa berresten jarraitzen du Konstituzioak.

Dena den, garapen ekonomikoak sortutako desberdintasunei eta estatuaren gabeziei aurre egitea zen Huren kezka nagusia. Kontuan izan behar da ongizatea dela Alderdi Komunistaren zilegitasunaren oinarri nagusia, eta hori galduz gero, kolokan egon daitekeela boterearen monopolioa. Botere-iturria da Alderdia, baina

baita gizarte-kontrolaren tresna eta protesta guztien erreferentzia bakarra ere, onerako eta txarrerako. Gabeziak agerian geratu ziren Huk boterea eskuratu eta handik gutxira. 2003. urtean izurrite bat zabaldu zen Txinan, Asiako pneumonia; gobernuak hasieran ez zuen gaixotasunaren berri eman, baina azkenean publiko egin behar izan zuen, ez baitzen gai kontrolatzeko, eta nazioarteko laguntza eskatu zuen. Urte batzuk lehenago ere antzeko jarrera izan zuen HIESa zabaltzen hasi zenean. Huren gobernuak arreta handiagoa eskaini zion landa-eremuari eta Txinako barnealdeari, eta inbertsioak handitu zituen horretarako. Bi emaitza lortu nahi zituen: nekazarien pobrezia arintzea eta hirietarako exodoa eragoztekoa. Izan ere, azken urteetan nekazari askok (ehun milioi baino gehiagok) jo zuten hirietara, nahiz eta horretarako baimenik ez izan, hango lanpostu merkeak betetzera; baina 2008. urtean 20 milioi lagun lanik gabe geratu zirenean, masa arriskutsu bilaka zitekeen gobernuak aldarrikatzen zuen egonkortasunarentzat. Beste alde batetik, zenbait zerbitzu indartu egingo zituela agindu zuen, gizarteko desberdintasunak leuntzeko estatuak eskaintzen zituenak, besteak beste.

6.4. 2004 Txinako biztanleriaren banaketa.



Iturria: http://www.mapcruzin.com/free-maps-thematic/china_population_83.jpg

2007ko Alderdi Komunistaren kongresuak berretsi egin zituen aipaturiko kezka, gizarte-justizia babesteko eta ongizatean zeuden akatsak eta hutsuneak (osasun-kontuetan, hezkuntzan, langabezia, zahartzaroan eta abarretan) zuzentzeko eskatu baitzuen. Kongresu horretan bertan, bide demokratikoan sakontzea proposatu zuen Hu Jintaok. Horrek zera esan nahi zuen: gizartearen parte-hartzea bultzatu behar zela (hauteskunderik deitu gabe), estatuaren administrazioa eraginkorrago bihurtu behar zela gizartearen zerbitzura eta, azkenik, eskualdeen arteko desberdintasunak murrizteko, zenbait tokitan, barnealdean bereziki, inbertsio gehiago egin behar zirela.


Ekonomiaren garapenak eragindako hutsuneek egonkortasun soziala, eta, ondorioz, politikoa, kolokan jar zezaketela zen Alderdi Komunistaren kezka nagusia; izan ere, gero eta ugariagoak ziren protestak, 80.000 baino gehiago 2008an, betiere informazio ofizialen arabera. Bost multzo nagusitan sailka daitezke protesta horiek: estatuaren nagusikeriak, agintarien gehiegikeriak eta ustelkeriak osatzen dute lehen multzoa; kutsaduraren eta kontrolatu gabeko isurketen aurkako protestek bigarrena; eta azpiegituren eraikuntzen ondorioz gertatutako jabetza-galerek hirugarrena. Hiru Arroilen urtegia eraiki zenean, lau milioi lagun aldatu behar izan ziren lekuz; era berean, eskualde askotan, lantegiak edota etxe berriak eraiki behar zirenean, hango nekazariak zuzenean kanporatzen zituzten edo lurra prezio merkean saltzera behartzen zituzten. Protesten arrazoiekin jarraituz, industriaren birmoldaketaren ondorioak eta langabezia batzen dira arrazoen laugarren multzoan, eta bizitza-baldintza kaskarrak eta pobreen eta aberatsen arteko aldeak bosgarrenean. Kontuan izan behar da hiritartze azkarrak biztanleak hirietan pilatu zituela. Milioi bat biztanle duten 100 hiri baino gehiago daude Txinan, eta etxe-orratzekin batera, txabolak ere azaldu ziren; nahiz eta ez hartu Hirugarren Munduko toki batzuetako garrantzia, gehitu egin ziren eskaleak, elbarriak eta prostituzioa ere; giro horretan, erraza da gizarteak eztanda egitea.

Nazionalismoa da egungo Txinako gobernuaren beste ikur bat, eta hainbat aurpegi ditu. Lehenak eztabaida asko sortzen ditu; izan ere, azterlari askoren ustez, nazionalismoak komunismoa ordezkatu du Txinako gobernuaren zilegitasunaren oinarrian, nortasun kolektibo indartsua ahalbidetu duelako, komunismoa gainbeheran dagoen bitartean. Bide horretan, gobernuak toki garrantzitsua eskatu du nazioarteko politikan, iraganean Mendebaldearen eskutik Txinak jasotako umiliazioak ezabatuko dituen. Harrotasun nazionalaren beste erreferentzia bat Japonia da, eta haren aurkako kritikak izan dira horren ispilu, Japoniak ez baitu onartu 1930eko eta 1940ko hamarkadetan Txinan sarraskiak egin zituela. Giro horretan kokatu behar da 2008ko Joko Olinpikoen ospakizuna. Txinako agintarien asmoa zera zen: herritarrei erakustea benetan berreskuratu zutela nazioarteko estatusa; eta munduari erakustea, 1978az geroztik Deng Xiaopingeng zuzendaritzapean egindako ibilbidearen ondorioz, herrialde aberatsa, modernoa eta atzerriari irekia zela. Alde horretatik, txinatar askok oso gaizki hartu zituzten Mendebaldean Txinaren aurka

egindako kritikak, eta Txina berriak Mendebaldearen gehiegikeriak mugatzeko duen gaitasunak sorrarazten duen beldurraren erakusgarritzat hartu zuten.

Nazionalismoaren bigarren aurpegiak barnerantz begirutzen du. Txinako biztanle gehienak, % 91 inguru, *han* etniakoak dira eta haien kultura da nagusi estatu osoan. Beste 56 etnia ere badaude Txina osoan barreiaturik. Zein izan da Txinaren agintarien jarrera horien aurrean? Formalki, Txinako buruzagiek ez diete erreparatzen arraza-kontuei; txinatarra izatea kultura kontu bat omen da eta, beraz, edozein integra daiteke bertan. Txinaren batasuna ez denez eztabaidagarria, prest daude kultura bereziak errespetatzeko, baldin eta izaera politikorik ez badute, folklorea-remuan gelditzen badira, alegia. Hortik gorako eskakizunek ezezko biribila jaso dute edota errepresio gogorra jasan behar izan dute. Agintarien ustez, gainera, garapen ekonomikoak eta sozialak ezabatu egingo ditu izaera berezi horiek. Sobietar Batasunak ez bezala, Txinak ez du onartu ez autodeterminazio-eskubiderik, ez eta federazioen sorrerarik ere. Horrekin lotutako arazo nagusiak hiru tokitan sortu dira: Tibeten, Xinjiangen eta Taiwanen.

6.5. 2004 Txinako banaketa etnikoa.



Iturria:

http://www.lib.utexas.edu/maps/middle_east_and_asia/china_ethnolinguistic_83.jpg

Tibetek eta Xinjiangek, desberdintasunak izan arren, antzekotasunak ere badituzte beren artean kulturari, erlijioari eta hizkuntzari dagokienez. Biak daude Txinako mugetan, lurralde atzeratuak dira eta oso harreman ahula izan dute Txinarekin, XVIII. mendean inperioaren zati egin zituztenetik. Mao Zedongen garaian, indarraren bitartez Txinaren kontrolpean jarri ziren bi lurraldeak, eta Dalai-Lama Tibeteko buruzagi nagusiak Indiara egin zuen ihes. Azkeneko urteetan hazi egin da tentsioa, gobernuak integrazioa indartzeko, garapen ekonomikoa bultzatzeko eta baliabide naturalak ustiatzeko hartutako neurrien ondorioz. Neurri horiek eta komunikazio-sarea eraikitzeak (2006. urteaz geroztik tren berezia heltzen da Lhasa Tibeteko hiriburura, 5.000 metroko mendiak zeharkatu ondoren) *han* etniako milioika lagun eraman dituzte lurralde horietara, eta etorrera hori kanpo-erasotzat hartu dute bertakoek. Zenbait tokitan, dagoeneko gehiago dira *han* etniakoak tibetarrak edo *uigurak* baino. Basoak ustiatzeak, hondakin erradiaktiboak metatzeak, erreserba naturalen erabilera basatiak eta herri horien sinesmen eta ohituren aurkako kanpainak bertakoen haserrea bultzatu dute eta zenbait kasutan eztanda bortitzak gertatu dira. Azken urteetako gatazka aipagarrienak 2008ko martxoan Tibetean eta 2009ko martxoan Xinjiangen gertatu ziren. Kasu bietan, *han* bizi ziren txinatarren aurka oldartu ziren tokian tokikoak eta gobernuaren errepresio gogorra jasan behar izan zuten erantzun gisa; ehunka hildako gertatu ziren istiluen ondorioz. Konponbide zaila du auziak, tibetarrak eta uigurak ahulegiak baitira Txinaren irizpideak aldatzeko; eta, nahiz eta txinatarrek pentsatu arazoarekin amaitzea denbora-kontua dela, errealitateak erakutsi du bi herri horiek ez dutela erraz onartuko norberaren kultura desegingo duen atzerritik eragindako modernizatzerik.

Bestelakoa zen Taiwanen egoera. Txinako Herri Errepublikaren arabera, eskualde matxinoa da Taiwan eta ez, inondik inora, beste herrialde bat. Azkeneko urteetan baretu egin dira antzinako tentsioak, nahiz eta noizean behin berriz piztu, Taiwaneko gobernu aldaketan ondorioz. Chiang Kai-Shek hil ondoren, Chiang Ching-Kuo semeak indartu zuen Taiwanen nortasuna, eta liberalizazio politikoa bultzatu zuen. Komunismoa ahuldu den neurrian, hobetu egin dira harremanak. 1991. urtean, Lee Teng-Hui presidente berriak bertan behera utzi zuen komunismoa saihesteko zuten salbuespen-egoera. Harrezkero, beste forma bat hartu zuen tentsioak, indartu egin baitziren Taiwanen bizi ziren bi taldeen arteko desberdintasunak. 1949an Txinatik ihesi heldu zirenek Txina bakarra zela aldarrikatzen zuten; jatorriz uhartekoak zirenek, aldiz, independentzia aitortzea nahi zuten, nazioarteak Taiwan normaltasunez onar zezan. Azken horiek irabazi zituzten 2000. urteko hauteskundeak, eta berriro gora egin zuen tentsioak. Beijingeko gobernuak, bere aldetik, Bereizketaren Aurkako Legea onartu zuen 2005ean, independentzia aldarrikatzea eragozteko. 2008. urtean, aldiz, Guomindang alderdiak gobernura itzultzea lortu zuen. Dena den, egoera ekonomikoaren bilakaerak botoak alde batera edo bestera biltzen zituen. Edozein kasutan, areriotasun militarra lasaitu egin zen, integrazio ekonomikoa indartu (Taiwaneko industria askok Txinan inbertitzen dute) eta gaitasun gutxiko lanpostu asko Taiwanetik kontinentera pasatu dira.

Nazioarteko politikari dagokionez, Txina harreman baketsuak mantentzen saiatzen da beste herrialde batzuekin. Bere eragina zabaltzen lagundu diote Txinari iragan kolonialik ez izateak, orain arteko gatasketan parte hartu ez izanak, Mendebaldeko potentziek ez bezala besteen barne-arazoetan ez sartzeko joerak eta duen botere ekonomikoak (militarra ahaztu gabe). Horrek ez du esan nahi tentsiorik ez dagoenik. Afrikako hainbat lekutan, gero eta garrantzi handiagoa dauka Txinaren esku-hartzeak, hango merkatuak garatzen laguntzen baitu; baina, aldi berean, lehia handia egiten dio industriari. Txinaren diru-laguntzekin batera Txinako langileak agertzen dira; bigarren tokian geratu da tokian tokiko eskulana. Lehengaien premiak indartu egin du parte-hartzea. Politika horri esker etekin handia ari da lortzen Txina epe motzean, baina ustelkeria duten edota gehiegikeriak egiten dituzten herrialdeekin ezer gertatuko ez balitz bezala aritzeak ez dio mesederik egingo epe luzera eta, bereziki, kalte handia egingo die Txinarekin harremana duten dikta-duretako biztanleei.

Pisu ekonomikoak eta demografikoak eragina dute nazioartean, eta dagoeneko lehen mailako potentzien artean dago Txina, ezinbesteko erreferentzia da munduko auzi askotan. Are gehiago, garapen-bidean dauden beste herrialde batzuekin batera (Indiarekin eta Brasilekin esaterako) beste polo bat osatzen ari da, AEBren eta Europaren aurrean, haien iritzia kontuan har dadin liberalizazio ekonomikoa edo berotegi-efektua saihesteko kutsadura murriztea eztabaidatzen denean. Jarrera horren beste lekukoa Shangaiko Elkarkidetzarako Erakundea da, Erdialdeko eta Iparraldeko Asiako estatuak biltzen dituena, Errusiako Federazioa tartean. Poloaniztasunaren beharra da, hain zuzen, Txinako buruzagiek behin eta berriz aipatzen duten leloa beren kanpo-politika laburbiltzeko orduan. Nazioarteko lankidetzan eta garapen-bidean ari diren herrialdeei laguntzea dira politikaren beste bi ardatzak. Dena den, ezin da ahaztu Txinak duela munduko armadarik handiena, bi milioi soldadurekin; bera da Estatu Batuen atzetik (nahiz eta nahiko urruti) gastu militarrean gehien gastatzen duen herrialdea; eta gastu hori igotzen ari da (% 18 2008an), armada goi-mailako teknologia militarrez hornitzeko.

6.7. TXINAREN INDARRAK ETA AHULEZIAK

Milaka lan idatzi dira azkeneko urteetan Txinari buruz, egungo egoerari buruz, haren izaerari edo etorkizunari buruz. Ezinezkoa da azken lerro hauetan denak laburbiltzea, eta hainbat zertzelada baino ez ditugu emango. Bi joera baztertzen saiatuko gara: miresmen itsua plazaratzen du batak eta, hango testuingurua ahaztuta, Mendebaldeko irizpideen arabera neurtzen du bigarrenak. Txina ongi ezagutzen duten egileek azpimarratzen dutenez, kanpotik begiratzen dugunok ez dugu kontuan hartzen herrialdearen tamainak hango arazoei ematen dien izaera berezia; eta, beste alde batetik, maiz ez gara konturatzen guk, europarrok, prozesu bera (ekonomia modernizatzea eta demokrazia sendotzea) gauzatzeko bi mende

inguru behar izan genituela eta Txinari ibilbide bera hogeita hamar urtean egitea eskatzen diogula. Bestalde, Txinaren historia luzeak beste ikuspegi bat ematen omen die hango agintariei, eta horregatik entzun diegu sarritan hogei edo berrogei urte beharko direla egungo gabeziak eta hutsuneak konpondu ahal izateko.

Asko falta zaio munduaren lokomotor ekonomikoa izateko: Txinako BPGk 3.700.000 milioiak gainditu zituen 2008. urtean, baina orduan Europar Batasuneko 17.000.000 milioi zen, AEBkoa 14.000.000 milioi eta isilpean dabilen Japoniakoa 3.500.000 milioi. Garapen horren zati garrantzitsu bat kanpoko kapitalari esker lortu da (Hong Kongekoari esker, bereziki) eta, praktikan, mendeko eskulan merkearen erabilerari lotuta dago. Historikoki hazkunde mota horrek ibilbide laburra badu ere, Txinaren kasuan, dagoeneko hogeita hamar urte iraun du. Miresmena eta beldurra sortu du aldaketa horrek, baina ikusteko dago Txina gai izango ote den epe laburrean goi-mailako teknologia sortzeko eta erabiltzeko —hori da asmoa eta horretarako ari omen da lanean—. Zenbait adituk aldaketaren garrantzia azpimarratzen dute, eta laster munduko lehen potentzia ekonomiko bilakatuko dela baieztatzen dute. Eskulan gaitua eta merkea dauka urrats hori egiteko, azpiegituretan inbertitzen ari da eta, Hirugarren Munduko herrialdeetako merkatuez gain, garatu gabeko barne-merkatu erraldoia dauka produkzioaren zati handi bat bertara zuzentzeko. Gainera, hiritartzearen bilakaerak —oraindik ez da erdira heltzen— aukera berriak eskainiko ditu eraikuntzan, azpiegituretan eta zerbitzu-sektorean.

Beste batzuen ustez, aldiz, orain arte Txinak bere egin duen eredu ekonomikoak energia asko xahutzen du, gehiegizko kutsadura sortzen du —ingurumen hauskorra duen lurraldea da—, eraginkortasun eta produktibitate mugatua dauka, eta kanpoko eskaeraren eta baliabideen mendekotasuna erakusten du. Horretaz gain, gehiegi berotzeko arriskua dauka, kostuak (jendea, lurra, teknologia) handitzen ari dira eta egiturazko bi arazo garrantzitsu ditu: nekazaritzan langile gehiegi aritzea —hala ere, ez dira biztanleria elikatzeko gai— eta estatuaren esku dauden enpresak (erdiak gutxi gorabehera) produktibitate gutxikoak izatea. Birmoldatu egin behar dira enpresa horiek, baina estatua zeregin hori atzeratzen ari da protestak saihesteko. Goizegi da oraindik bi ikuspegi horien artean zein nagusituko den esateko.

Txinak diktadura izaten jarraitzen du: alderdi bakarrak kontrolatzen du bote-rea, ezin da alderdi politiko edo sindikatu alternatiborik sortu, oposizioa adierazi dezaketen ekintzak, mezuak eta pertsonak zapaltzen ditu, ez ditu errespetatzen gutxiengo etnikoen eskubideak, ez dago adierazpen-askatasunik, ezin da toki batetik bestera libre joan, ez eta norberaren erlijioa presiorik gabe praktikatu ere; eta egonkortasunaren izenean egiten da hori guztia. Mendebaldeko herrialdeak, gehienetan, isilik egoten dira egoera horren aurrean Txinako merkatuak eskaintzen dituen aukerak galtzeko beldur. Txinatarrak beren erak dituzte gauzak egiteko eta

ez dute zertan jarraitu Mendebaldearen irizpiderik; baina jarrera horrek ez du errealitatea aldatzen; izan ere, jendeak ezin badu iritzirik plazaratu, hor ez dago askatasunik. Beste gauza bat da nola lagundu egoera hori aldatzen.

Aspaldiko eztabaida da garapen ekonomikoak eta nazioarteko erakundeetan eta sareetan integratzeak Txinaren demokratizazioa bultzatuko ote duen, baina ez dago erantzun garbirik. Une honetan izaera sozialista aitortu arren, praktikan demokratizaziorik gabeko kapitalismo basatia ezarri du Txinak eta ez dirudi egoera hori azkar aldatuko denik. Gainera, beste herrialde batzuek 2008an eta 2009an jasan duten krisiak ere badirudi eragin txikiagoa izan duela Txinan, eta horrek ez du gobernua behartuko aldaketa politikoak egitera.

Txinaren alde indartsuena sistema politikoaren egonkortasuna da: ez dago Txinako Alderdi Komunistaren alternatibarik eta erakunde horrek zorrotz kontrolatzen ditu armada eta polizia. Ez dirudi epe motzera eliteen arteko adostasuna apurtuko denik, nahiz eta 2007ko kongresuan diferentzia txiki batzuk azaltzen hasi. Ondorioz, bide erreformistak jarraipena izango du erregimenaren aldaketarik gauzatu gabe. Honako hauek dira agintarien helburu funtsezkoenak: TAKen nagusitasunari eustea, Txina herrialde aberats bilakatzea eta lurraldea bateratzeko prozesua amaitzea; Taiwan biltzea, alegia. Azken puntu horrek garrantzi berezia izan dezake begirale batzuen ustez. Izan ere, TAKen eta Guomindangen artean uste baino antzekotasun handiagoak daude eta, Taiwanen bezala, kontinentean ere boterea kontrolatzen duen alderdiak zuzendu dezake liberalizazio politikoaren prozesua, barne-protestak eta gizarte zibilaren protagonismoa era egokian bideratuz gero. Beraz, Taiwanen gertaturikoak, ikasgaia izateaz gain, bi lurraldeen arteko batasuna erraztuko luke. Horrela, beharbada, Maoren ametsak baino gehiago Sun Yat-Senenak gauzatuko lirateke. Ehun urte baino ez dira iragan proposatu zituenetik.

TESTU-ERANSKINA

1920-1922, MUTIKO LANGILEA

Bizitza latza zen eta hamabi urterekin hasi behar izan nuen nire mantenua irabazten. 1920ko urtarrilean hasi nintzen lanean Wang Gouhe izeneko etxejaun baten etxean. Oilarrak jotzean iratzartzen ninduen. Ura eta gorozkiak kargatu behar izaten nituen. Denetik egin behar izan nuen. Udako egun batean, meloiak heltzeko garaia zenean, lurrera erori eta lehertu egin zitzaidan bat. Ustekabekoa besterik ez zen izan, baina Wang Gouhek amorru bizian aitzurra hartu eta buruan jo ninduen. Hona oraindik zauri-arrastoa. Zerraldo gelditu nintzen lurrean, konorterik gabe eta, atzera nire baitaratu nintzenean, iluna zen ia.

Inork ere ez daki zenbaterainokoak ikusi behar izan zituen pobre-jendeak. Nik hamabi urte nituen eta praka pare bat ere ez nuen janzteko; eta etxagunak jo egiten ninduen; eta askotan jo ere. Dena nire erru zen. Askotan bost edo sei aldiz jotzen ninduen egunean. Etxagun aberatsa zen, 600 mu izango zituen gutxienez, ibarrean eta mendialdean. (...)

Hurrengo urtean, hamahiru urterekin, Zhou Guanyu izeneko lurjabe baten kontura lan egin nuen. Artzain ibili nintzen. Eramangarriagoa zen hura. Lau aldiz bakarrik jo ninduten urte osoan. Baina belarrondokoak ematen zizkidaten. (...)

Hogei urte nituela, gosete handia zabaldu zen. 1928a zen. Anaietako bat hil zitzaidan. Ni, aita eta nire hiru anaia txikiak Shenxi-ra aldatu ginen. Han bizimodu hobea zegoen. Han bi anaia txikiak saldu genituen. Saldu beharrean aurkitu ginen, biziko baginen. 28 zilar-dolar eman zizkiguten batagatik eta 20 besteagatik. Ez dakit nora joan ziren. Geroztik ez dut haien berririk izan. (...)

Han jornalari lan egin nuen. Pixkana-pixkana, Armada Gorriaren berri entzuten hasi ginen. Nahikoa ondo zegoela esaten zuten. Aberatsen lurrez, animaliez eta aleaz jabetzen omen zen, horiek gero herriko jendearen artean banatzeko. (...)

1938an komunista bat ezagutu nuen. Wu Shenzai zuen izena. Hogeita hamarren bat urte izango zituen. Yan'an-dik etorria zen han propaganda egitera. Hala esan zidan behin: «Urte osoan madarikatu batek bezala lan egiten duzu lurjabearentzat, baina beti eta beti errukarri bizi zara. Aberastasunak pilatzen ari zara besteentzat, baina zu zeu gose zara». Gero Yan'an- ez hitz egin zidan. 1938ko otsaila zen.

Aitarekin hitz egin nuen orduan, eta erabaki genuen ni Yan'an-era joango nintzela, esaten zutena egia ote zen ikustera; alegia, pobre-jendea lurra ematen ziotela eta gobernua ona zela. Gau batean Yan'an-era joan nintzen. (...) Gero ikusi nuen ondo egoten zela han eta esaten zutena ere egia zela». (*CHING CHUNG-YING, 1962*)

Iturria: Intxausti, J. (1987): *Mendez Mende. Aro Garaikidea*, Elkar-UZEI, Donostia, 366. or.

1952, PRODUKZIO-SISTEMEN ALDAKUNTZA (1952-1956)

Guomidang-aren okupazio-garaia zen (1948). Berehala hil zen semea, eta gero alaba bat izan genuen. Lehenengo urtean mendian aritu nintzen lurberritzen. Aitzindari izan nintzen. Gero, bakarrik lan egin nuen bi urtean. 1950ean idi bat erosteko modua izan nuen eta arinagoa izan zen lana. Hurrengo urtean, 1951n, astoa erosi nuen. 1952ko urtearen lehenengo erdian, lana elkarrekin trukatzeko talde bat antolatu zen eta ni aukeratu ninduten buru. Batak besteari laguntzen genion, baina inoiz ez genuen jakiten jendea etorriko zen ala ez; agian bai agian ez izaten zen pixka bat dena. Urtearen bigarren erdialdean, talde hartatik beste berri bat egin genuen, produkzioko eta elkarri laguntzeko taldea, alegia. Hobeto antolatu genuen eta denak konprometitu ziren puntualki etortzera eta beren kontzientzia osoarekin lan egitera.

1953an, gure taldekoak ziren herriko laborari gehienak. Hainbat iritzi izan ziren eta eztabaida larriak ere bai gai honetaz. Lana trukatzeko taldean aukera zitekeen zein pertsonarekin egingo zen lan-trukea, eta langilerik onena aukera zitekeen laguntzat. Produkzioko eta elkarri laguntzeko taldean, ordea, bakoitzaren lana puntu jakin batzuen bidez balioesten zen, 1etik 10era. Hasieran, langile onek ez zuten ezer jakin nahi izaten elkarri laguntzeko ekipo iraunkorki antolatu bati buruz. «Gure lana langile txar batenaren truke ematen baldin badugu, galtzen ateratzen gara» esaten zuten. Eztabaidatu genuen haiekin arazoa, eta azaldu genien, puntu batzuen bidez balioetsiko zela bakoitzaren lana, demokratikoki, inork bere lana beste batenaren truke ematean ezer galdu ez zezan eta berebat norberaren alferkeriaz edo ezgaitasun fisikoaz inork aprobetxatzerik izan ez zezan. «Ondo lan egiten duenak puntu asko izango ditu; gaizki lan egiten duenak gutxiago izango ditu» esan genien. Niri hasiera-hasieratik iruditu zitzaidan beharrezkoa eraldaketa hura. Batak besteari laguntzen bagenion mundu guztia hobeto biziko zela pentsatzen nuen nik. Baina hori ondo antolatuta dago egin beharra.

1953ko abendutik 1954ko urtarrilera bitartean eztabaidan aritu ginen, ea gure produkzio-taldea nekazari kooperatibetara aldatu behar ote genuen ala ez. Oro har, lur txarrak zeuzkatenak alde zeuden eta lur onak zituztenak kontra. Adibidez, Chao Thao-pe nere etxekona eztabaidan altxatu, eta esan zuen: «Nik ez dut mendira joan nahi, han gogor lan egitera». Frogatu genuen burutsuagoa zela sail handiak lantzea, taldean lan eginez, eta irabazi ere gehiago egingo zela nekazari-kooperatiba batean sartuz. «Eskulana akuratuko dut» esan zuen orduan. Erantzun genion, seguraski ez zela hain erraza izango. Orduan, nekazaritza-kolektibo harekin, ez zegoela jornalari eta morroirik. Nahiago zutela denek nor bere kontura nekazari-kooperatiban lan egin, ez nekazari individual batentzat aritu. Azkenik, frogatu genion ale eta diru gehiago jasoko zuela bere lanagatik, kooperatibarekin batzen bazen. (...)

Hurrengo neguan, 1955-1956koan, gure lurraldeko familia guztiak Wangchiakouko nekazari-kooperatibarekin batu ziren, eta orduan eztabaidatu zen gure nekazari-kooperatiba ez ote zen nekazari-kooperatiba aurreratuetara aldatu behar. (...) Lehen aldi hartan, baten batzuek ez zuten aldaketa hori onartu nahi. Lur onak eta ganadu asko zituztenak ziren, beti ere. Beren ustez, galtzen aterako ziren. (...) Frogatu genien ekonomikoki ez zutela ezer galduko. Kooperatibak erosiko ziela ganadua eta, urte batzuen buruan, ordainduta egongo zela.

(FENC CRANC-YER, 1962) (38 urteko nekazaria)

Iturria: Intxausti, J. (1987): *Mendez Mende. Aro Garaikidea*, Elkar-UZEI, Donostia, 370. or.

1966, IRAULTZA KULTURALA. LAN-SISTEMAREN KRITIKA

Kontatzeko metodoetan, kontaezin ahala zio izaten zen puntuak kentzeko. Egiten zena egiten zela, puntuak kentzen zitzaizkigun. Komunera joategatik ere puntuak kentzen zitzaizkigun. Hona, adibidez, arau batzuk: «Langile batek bere lanpostua 5 minutu baino gehiago uzten badu, lanaldi erdi bakoitzeko, 5 puntu kenduko zaizkio». «Lanaldi bakoitzeko bere lanpostua 10 minutu baino gehiago uzten duen langileari, lanaldiko puntu guztiak kenduko zaizkio». Bide kapitalistari jarraitzen zioten partidu barneko «agintariak» modu honetako araudiak eratu zituzten: «Langileek ez dute komunera joaterik izango egunean bi aldiz baino gehiago; behin goizean eta beste behin arratsaldean. Aldiko ez dute han 5 minutu baino gehiago egiterik izango». «Luzeago egoten direnei puntu guztiak kenduko zaizkie». Langileak gogor jarri ziren prima-sistema horren kontra. Baina bide kapitalistari jarraitzen zioten partidu barneko «agintariak» usurpatutako boterea erabiltzen zuten langileak zapaltzeko, eta basatiro adierazten zuten: «bai, halaxe da».

Goardia Gorriak

Iturria: Intxausti, J. (1987): *Mendez Mende. Aro Garaikidea*, Elkar-UZEI, Donostia, 374-375.

1984, TXINAKO ERREFORMA EKONOMIKOA

Erreformaren helburua da bizitasunez betetako egitura ekonomiko sozialista ezartzea.

Enpresen bizitasuna indartzea da egitura ekonomikoaren erreformaren kate-maila nagusia.

Prezioen sistema arrazionala ezartzea eta eragile ekonomikoei behar adinako garrantzia ematea.

Gobernuaren eta enpresaren eskumenak bereiztea eta kudeaketa ekonomikoan Estatuko erakundeek duten jokabide zuzenaz baliatzea.

Erantzukizun ekonomikoko sistema hainbat modutara ezartzea, eta baita honako printzipio hau ere: bakoitzari bere lanaren araberako ordaina ematea.

Modu ekonomiko anitzak bizitasunez garatzea eta truke teknologikoa eta ekonomikoa areagotzea, bai Txinan bai kanpoan.

Belaunaldi oso bat eragin eta ekonomia sozialistaren kudeaketa egokia egin ahal izateko, pertsona multzo handia trebatzea.

Txinako Alderdi Komunistaren Komite Zentralaren erabakia, egitura ekonomikoaren erreformari buruz, 1984ko urriaren 20an onartua.

Iturria: Villares, R. eta Bahamonde, A. (2002): *Gaur egungo munduaren historia*, Zubia Santillana, 335. or.

1989, TIANANMEN-GO GERTAERAK. DENG XIAOPINGEN IRITZIA

(...) Ekaitz hori lehenago edo geroago etorriko zen. Ekaitz hori nazioarteko makroklimak eta Txinako mikroklimak baldintzatu dute. Zalantzarik gabe, gertatu beharrean zegoen, jendearen borondatea gorabehera. Lehenago edo geroago, indar horrekin edo harekin helduko zen arazo bat besterik ez da. Orain gertatu den zalaparta horrek, neurri batean, mesede egingo digu. (...)

Gure funtsezko ideia guztiak zuzenak dira, garapenaren estrategiatik hasi eta orientabide politiko desberdinetaraino, erreforma eta kanpoko munduari irekitzea barne. Gabeziak baldin baditugu, erreforma eta irekitze bidean oraindik egiteko asko dugulako da. Arazo zailagoak aurkitu ditugu erreforman irekieran baino. Egitura politikoaren erreformari dagokionez, batzar herriko nazionalaren sistema ezartzen jarraituko dugula esan behar dut, eta ez Ipar Amerikako hiru botereen banaketa. Egia esan, Mendebaldeko estatu guztiak ez dute sistema hori erabiltzen. Estatu Batuek ikasleak zapaldu izana egozten digute, baina eurek ere ankerkeriaz zapaldu dituzte beren herrialdeko ikasleak manifestazioak eta zalapartak; poliziak eta soldaduak bidali zituzten eta hainbat pertsona atxilotu. Haiek ikasleak eta herria zapaldu zituzten; guk, aldiz, iraultzaren aurkako matxinada zapaldu dugu. Zer-nolako eskubidea dute Estatu Batuek gu kritikatzeko! Etorkizunean, antzeko arazoei aurre egin behar diegunean, beharrezkoa dugu zaintzea arazo bat agertu ondoren ez dadila gehiegi zabaldu.

Nola jokatu dugu etorkizunean? Nire iritziz, lerro nagusia, orientabideak eta dagoeneko ezarritako politikak era saiatuan aurrera eramaten jarraituko dugu. Termino jakin batzuk izan ezik, lerro, orientabide eta politika nagusia ez dira aldatuko. Zuok guztiok planteatutako arazo hori era arduratsuan aztertzea eskatzen dut.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 242. or.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Barrenetxea, N. (1985): *Mao Tse-Tung. 1936'tik 1954'ra kondaira*, Lorea, Donostia.
- Bailey, J.P. (2002): *China en el siglo XX*, Ariel, Bartzelona.
- Bianco, L. (1992): *Asia contemporánea, Historia Universal, Siglo XXI*, Madril.
- Bustelo, P. eta Fernández, J. (1996): *La economía china ante el siglo XXI: veinte años de reformas*, Síntesis, Madril.
- Bregolat, E. (2007): *La segunda revolución china*, Destino, Bartzelona.
- Chen, G. eta Chuntao, W. (2007): *Les paysans chinois aujourd'hui: trois années d'enquête au coeur de la Chine*, Bourin, Paris.
- Domenach, J.-L. eta Richer, P. (2006): *¿A dónde va China?*, Paidós, Bartzelona.
- Fairbank, J. (1990): *Historia de China: siglos XIX y XX*, Alianza Editorial, Madril.
- Fairbank, J.K. (1996): *China, una nueva historia*, Editorial Andrés Bello, Bartzelona.
- Fanjul, E. (1994): *Revolución en la revolución (China del maoísmo a la era de la reforma)*, Alianza Editorial, Madril.
- Garate, G. (1977): *Maoren Marxismoa: Maoismoa*, Gero, Bilbo.
- Gernet, J. (2005): *El mundo chino*, Crítica, Bartzelona.
- MacFarquhar, R. eta Schoenhals, M. (2009): *La Revolución Cultural china*, Crítica, Bartzelona.
- Meisner, M. (2008): *La China de Mao y después: una historia de la República Popular*, Comunicarte, Córdoba (Argentina).
- Merinero, M. J. (1994): «China después de Mao», *Cuadernos del Mundo Actual*, 74, Historia 16, Madril.
- Moreno, J. (1992): *China contemporánea, 1916-1990*, Istmo, Madril.
- Ollé, M. (2005): *Made in China : el despertar social, político y cultural de la China contemporánea*, Destino, Bartzelona.
- Poch-de-Feliu, R. (2009): *La actualidad de China. un mundo en crisis, una sociedad en gestación*, Crítica, Bartzelona.
- Roux, A. (2006): *La Chine au XX siècle*, Armand Colin, Paris.
- Skocpol, T. (1984): *Los estados y las revoluciones sociales: Un análisis comparativo de Francia, Rusia y China*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Wang, H. (2008): *El nuevo orden de China: sociedad, política y economía en transición*, Bellaterra, Bartzelona.
- Zenbaiten artean (1994): *Txina iratzartzen ari den herensugea*, Gaiak, Donostia.

7. Hirugarren Mundua: deskolonizazioa eta azpigarapena

7.1. SARRERA

1952an Alfred Sauvy frantziar demografoak erabili zuen lehen aldiz *Hirugarren Mundua* kontzeptua. Garai hartan, independentzia politikoa lortzen ari ziren Asia-ko eta Afrikako zenbait estatu, eta horiek izendatzeko erabili zuen. Bi subjektu historiko parekatu zituen Sauvyk esapide horrekin: batetik, garai hartan deskolonizatzearen ondorioz sortzen ari zen herrialde multzoa eta, bestetik, Frantziako Iraultzaren garaiko Hirugarren Estamentua. XVIII. mende-bukaeran Frantziako herri xumeak bezala, XX. mendearen erdialdean sortu berri ziren estatuak ere etorkizuneko protagonista izan nahi zutela adierazi nahi zuen Sauvyk esapide berriaz. Gerra Hotzaren testuinguruan, kutsu geopolitikoa zuen Hirugarren Munduaren kontzeptuak. Bi bloke itxi eta zurruntan banatutako munduan, deskolonizaturiko herrialdeek hirugarren talde edo indar bat osa zezaketela adierazi nahi zuen esamoldeak, superpotentzien mendean ez erortzeko. 1955. urtean, Bandungeko (Indonesia) Konferentzia egin zenean, indar handia hartu zuen *Hirugarren Mundua* izenak; izan ere, bilera hartan Asiako eta Afrikako estatu berriek ez lerrokatzearen aldeko jarrera kolektiboa aldarrikatu zuten, eta kolonialismoa tinko salatu zuten.

Gaur egun, Hirugarren Mundua kontzeptua bera ere zaharkiturik gelditu da zenbait arrazoi direla-eta. Batetik, bloke komunista desagertuta, munduaren irudi hirukoitza (Lehen Mundua edo mundu kapitalista, Bigarren Mundua edo mundu komunista eta Hirugarren Mundua) ez dator bat 1989an sortutako errealitate geopolitiko berriarekin. Horregatik, beste esamolde bat erabili ohi dugu Hirugarren Munduko herrialdeak izendatzeko: Hegoa edo Hegoaldeko herrialdeak. Kutsu ekonomikoa du kontzeptu horrek, eta munduko ekonomiaren desoreka adierazten du: herrialde aberats edo garatuen (Iparraldea) eta herrialde pobre edo azpigaratuen (Hegoa) arteko banaketa. Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko gatazka amaituta, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka izango litzateke munduaren haus-tura nagusia. Bestalde, nazioarteko harremanetan, gaur egun, Hirugarren Munduko herrialdeek ez dute talde bezala funtzionatzen eta euren arteko elkartasuna ahuldu egin da azken hamarkadetan. Interes desberdinak defendatzen dituzte kasu askotan eta, batzuetan, kontrajarriak; izan ere, Hirugarren Munduko herrialdeen artean handitu egin dira aldeak azken hamarkadetan. Esate baterako, batzuk industrializatu egin dira, beste batzuk, aldiz, pobretu.

Beraz, oso errealitate heterogeneoa dugu Hirugarren Mundua. Batetik, eskualde geokultural desberdinak ditugu (Afrika Beltza, eskualde arabiar-islamiarra, alde indostanikoa, Hego-ekialdeko Asia, Hego Amerika eta Erdialdeko Amerika) eta bakoitzak arazo, bilakaera historiko eta ezaugarri bereziak izan ditu. Bestetik, Hegoaldeko herrialdeetako garapen-mailak oso desberdinak dira. Berrogeita hamarreko edo hirurogeiko hamarkadatik aurrera, independentzia lortu zutenetik alegia, Hirugarren Munduko herrialdeak asko aldatu dira eta alde handiak agertu dira haien artean. Horregatik, garapen-mailaren arabera sailkapenak egin izan dira. Mutur batean Gutxien Garatutako Herrialdeak (PMA) ditugu, munduko herrialderik pobreenak. NBERen azken sailkapenaren arabera, egun 49 herrialdek osatzen dute taldea eta 600 milioi biztanle baino gehiago dituzte. Gehienak Sahararen hegoaldean daude, Afrikan. Beste muturrean ditugu Herrialde Industrializatu Berriak. Herrialde horien ekonomia azkar hazi da, eta industria-ekoizpena garatu dute; esportatzaile handiak dira gaur egun. Kokapen geografikoari dagokionez, *Asiako Herensugeak* (Hong Kong, Hego Korea, Taiwan, Singapur) izan ziren lehenak taldean. Geroago, Latinoamerikan Brasil eta Mexiko, eta Asian India eta Txina sartu ohi ditugu multzo horretan. Bi mutur horien artean (azpi)garapen ertaineko herrialdeak daude, Hegoaldeko herrialde gehienak, alegia. Bestalde, talde berezia osatzen dute petrolio-esportatzaileek. Hirurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik aberastu ziren eta kasu batzuetan, behintzat, errenta handikoak dira.

Hirugarren Mundua izenez ezagutu dugun errealitatea oso heterogeneoa bada ere, taldea osatzen duten herrialde gehienek bi elementu komun izan dituzte. Sorrerari dagokionez, arestian esan dugun bezala, Hirugarren Munduko herrialdeen jaiotza erabat lotuta dago deskolonizazio-prozesuari. Ekonomiari dagokionez, azpigarapena dute ezaugarri nagusi, maila desberdinetan bada ere. Bi fenomenoetara (deskolonizaziora eta azpigarapenera) ikuspegi historiografikotik hurbiltzea proposatuko dugu hurrengo orrialdeetan.

7.2. INPERIO KOLONIALAK

Industrializazioaren ondorioz, Europako potentzia nagusiek hazkunde eta garapen ekonomiko ikaragarria izan zuten XIX. mendean zehar. Prozesu horren ondorioz, asko handitu zen herrialde industrializatuen eta ez-industrializatuen arteko aldea. Europako potentziek, Ameriketako Estatu Batuekin eta Japoniarekin batera, ekonomiaren eta teknikaren arloetan munduan erabat nagusitzea lortu zuten. Egoera horretaz baliatuta, XIX. mendearen azken herenetik aurrera, mundu osoan zehar koloniak hedatzea lortu zuten Europako estatu indartsuenek. Horregatik jarri diogu *inperioalismoaren aroa* izena 1870etik 1914ra arteko garaia. Izan ere, garai hartan antolatu zuten Europako potentziek Afrikaren eta Asiaren ustiapen politiko eta ekonomiko sistematikoa, eta inperio kolonialak eratu zituzten; hau da, kontrol politiko zuzena ezarri zuten menderatutako herrietan.

7.1. 1885-1914 Afrikaren banaketa.



Iturria: http://lancefuhrer.com/partition_of_africa.htm

Hala ere, europarren kolonialismoa ez da XIX. mende-bukaeran sortutako fenomeno berria. Jakina denez, Aro Berrian ere Europako potentzia batzuk kolonietara zabaldu ziren; baina XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran, Ameriketako kolonia ingelesak eta espainolak independentzia lortu zutenean, bazirudien gelditu egin zela europarren hedapena. Baina ez zen horrela gertatu. Gainera, inperialismoaren garaiko kolonialismoak ezaugarri berriak izan zituen,

tamainari, erritmoari eta izaerari zegokienez. Sistematikoki bultzatu zuten Europako gobernuek hedapen koloniala; lurralde zabal asko hartu zituzten mendean eta oso denbora laburrean, gainera. Lasterketa kolonial horretan, lehenagoko potentzia kolonialek eta lehiakide berriek hartu zuten parte: tradizio kolonialik gabeko herrialdeek, Alemaniak, Italiak edo Belgikak, besteak beste; potentzia kolonial zaharrek, Portugalak eta Espainiak, esate baterako; eta, azkenik, estatu inperialista indartsuenek, hots, Frantziak eta Britainia Handiak. Kolonizazioaren ondorioz, 30 urtean zehar, Europako potentzia nagusiek beren artean banatu zituzten Asiako lurralde asko eta batez ere Afrikakoak.

Britainia Handiarena zen munduko inperiorik handiena eta zaharrena. Une gorenean, 31 milioi kilometro koadroko azalera kontrolatzen zuen Britainia Handiak, hau da, munduko lurraldearen % 24; eta 502 milioi biztanle zituen, ia munduko biztanleriaren laurdena. Hiru mendetan zehar hedatu zen munduan Britainia Handia, eta horregatik zen hain heterogeneoa inperioa. Mota askotako koloniak zeuden eta beren ezaugarri komun bakarra britainiar metropoliaren mendeko izatea zen. Populatzeko koloniak ziren batzuk; hau da, emigrazio zuriko koloniak (esate baterako Kanada, Lurmutur Hiria, Australia edo Zeelanda Berria). Metropoliak autogobernu-eskubidea aitortzen zien kolonia horiei eta «agindupeko lur» izena ematen zien. Kolonia zaharrak ziren beste batzuk, hots, Karibe aldean sail handiak landatzeko zituzten lurraldeak (Jamaika, Bahamak, Trinidad edo Guayana Britainiarra, besteak beste). Baina India zen inperioaren koloniarik estimatuena, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai eta politikoengatik ere. Izan ere, ekonomiari zegokionez, lehengai aberatsak eta merkatu handia zituen Indiak; eta politikari zegokionez, azalera eta biztanleria oso handiak zituenez, botere politiko eta militar itzela ematen zion metropoliari. Itsas bideak kontrolatzeko kolonia geostrategikoak ere bazituen: Mediterraneoan (Gibraltar, Malta eta Txipre); Ekialdeko Afrikaren inguruan eta Indiako Ozeanoan (Aden, Persiako golkoko protektoratuak, Maurizio eta Seychelle uharteak, Zeilan eta abar) eta Asiako Ekialdean (Singapur, Borneoko lurralde batzuk eta Hong Kong). Izan ere, Suezko kanala 1864an eraikita, Egiptok balio geostrategiko handia hartu zuen, nabarmen errazten baitzuen Indiarako itsas bidea. Britainia Handiak 1882an ezarri zuen protektoratua Egipton. Garai hartan, Egiptotik hasi eta Lurmuturreraino helduko zen koloniez osaturiko lurralde-ardatza eratzeari ekin zion: Kenia, Uganda, Somalia, Zanzibar, Sudan, Rhodesia, eta abar menderatu zituen helburu horrekin. Eta Lehen Mundu Gerraren ostean lortu zuen helburua, Tanganika (Alemaniaren kolonia ohia) eskuratu zuenean. Horrez gain, Mendebaldeko Afrikan ere koloniak zituen. Kostaldeko ezarpen-eremu zaharrak ziren (Gambia, 1783; Urrezko kosta, 1874; Sierra Leona, 1808), esklabo-trafikoan eta zenbait produktu tropikalen merkataritzan aritzeko lurraldeak. XIX. mendearen bukaeran, Afrikaren banaketa zela-eta, kostaldetik barnealderantz hedatu zuten kolonizazioa britainiarrek. Lehen Mundu Gerraren ostean bereganatu zituen Erresuma Batuak azken koloniak. Batetik, Alemaniaren kolonia ohi batzuk eskuratu zituen Afrikan (Tanganika, eta Togo eta Kamerungo alde bat), eta, bestetik, Pales-

tina, Irak eta Transjordania jarri zituen bere kontrolpean Ekialde Hurbilean, garai hartan deuseztatu zen Otomandar Inperioaren kaltetan (ikus 9. gaia). Kolonialismoaren goraldia bukatuta, «mandatu-sistema» erabili zuten bereganaturiko azken lurraldeak administratzeko, inperialismoaren itxura ezkutatu nahirik-edo. Potentzia agintariak bere gain hartzen zuen kolonien administrazioa Nazioen Elkartearen aginduz; eta, teoriarik behintzat, behin-behineko agintea zen, lurralde kolonizatuak burujabe izateko prestaturik egon artekoa.

Frantziaren Inperioa ere handia zen: 12 milioi km koadro eta 108 milioi biztanle zituen 1933an. Britainiar Inperioa bezala, hori ere sistema konplexua zen, kontinente eta garai historiko batean baino gehiagotan eratua, nahiz eta gehiena inperialismoaren garaian eskuratu izan. Ameriketako azukre-landaketarako kolonia zaharrak (Guadalupe, Martinika, Guyana) salbu, Frantziak ia ez zuen koloniarik 1815era arte. XIX. mendean zehar, batez ere 1870etik aurrera, politika kolonial espansionista bultzatu zuen eta asko zabaldu zen. Helburu ekonomikoez gain, ospe nazionala bilatu zuen Frantziak kolonizazioaren bidez. Magreb, Indotxina, eta Mendebaldeko Afrika tropikala izan ziren Frantziaren Inperioaren alde nagusiak. Magrebeko eskualdean, lehenengo Aljeria (1830) kolonizatu zuen eta, geroago, Tunisiako (1882) eta Marokoko (1912) protektoratuak ezarri zituen. Ikusten denez, lehenengoetarikoa izan zen Aljeriako kolonizazioa; Frantziako probintzia bat izan balitz bezala administratu zuen metropoliak eta kolono zuriak ere ezarri ziren bertan. Ikusiko dugun bezala, faktore horiek eragin handia izan zuten Aljeriako deskolonizazioan. Afrikaren banaketaren garaian, Magreben aspalditik kontrolatzen zuen lurraldetik abiatu zuen Frantziak Mendebaldeko Afrika tropikalaren kolonizazioa. Kolonia multzo handia eskuratu zuen: Aljeriatik hasita Kongoraino hegoaldean eta Sudaneraino ekialdean. Kolonia horiek administratzeko, bi federaziotan batu zituen: Mendebaldeko Afrika Frantziarra eta Ekuatoreko Afrika Frantziarra. Madagaskar uharte handia ere kolonizatu zuen Frantziak 1895ean. Bestalde, XIX. mendearen bigarren erdialdean Indotxinako penintsulako lurraldeak menderatzea lortu zuen: Kanputxea 1863an, Kotxintxina 1867an, eta Annameko eta Tonkinoko protektoratuak eratu zituen 1883an. 1887an federazio batean bildu zituen kolonia horiek guztiak, Indotxinaren Batasunean; 1893an Siam Erresumari kendu zion Laos, eta Indotxinaren Batasunean sartu zen. Ingalaterrak bezala, Frantziak ere Lehen Mundu Gerraren ostean Alemaniaren kolonia batzuk (Togo eta Kamerun) eta Otomandar Inperioaren mendeko lurralde batzuk (Siria eta Libano) eskuratu zituen, mandatu-sistema erabiliz.


Herbehereen Inperioaren erdigunea Indonesiako artxipelagoa zen. Holandak ez zuen parte hartu XIX. mende-bukaerako lasterketa kolonialean. Aro Berritik aurrera, Ekialdeko Indietako Konpainiaren bitartez ustiatzen zuen Indonesia eta XIX. mendean handitu egin zuen artxipelagoaren kontrola eta ustiapena. Belgikar Inperioak kolonia bakarra zuen, Kongo, baina oso zabala (2 milioi km koadro) eta aberatsa zen baliabide naturaletan. Hasiera batean, Leopoldo II.aren jabego

pribatua bazen ere, 1908. urtean Belgikako estatuaren kolonia bihurtu zen Kongo, eta bigundu egin ziren aurreko garaietan erabilitako metodo basatiak. Portugalen Inperioa izan zen zaharrena eta iraunkorrena. Metropoliak paradoxa esanguratsuak izan zituen. XIX. mende-hasieran bere koloniarik estimatuena, Brasil, galdu arren, XIX. mende-bukaeran balio handiko koloniarik eskuratu zituen Afrikan. Potentzia indartsua ez bazen ere, Europako estatu nagusien arteko lehia kolonialean parte hartzea lortu zuen, Mozambikeko eta Angolako kostaldean zituen asentamendu txikiak barnealdera hedatu zituenean. Alemaniaren Inperioa, berriz, denen artean txikiena izan zen. XIX. mendearen bukaeran hasi zen koloniarik bereganatzen, baina Lehen Mundu Gerraren ondorioz guztiak galdu zituen.

7.3. DESKOLONIZATZEAREN ALDIAK

Hirugarren Munduko herrialdeen deskolonizazio-prozesua Asian hasi zen eta Hegoaldeko Afrikan amaitu zen, Ipar eta Erdialdeko Afrika zeharkatu ondoren. Ondorengo lerroetan, deskolonizatzearen aldiak bereiziko ditugu, eta bakoitzaren ezaugarriak eta adibide esanguratsuenak azalduko ditugu.

7.2. Deskolonizazio-prozesuak.



Iturria:

<http://www.claseshistoria.com/imperialismo/imagenes/%2Bmapaimperialismo.gif>

DESKOLONIZAZIOAREN KRONOLOGIA

Aldia	Alde nagusiak	Estatu nagusiak eta independentziaren urtea
1920-1955	Ekialde Hurbila Hego Asia eta Ekialdeko Asia	1922: Egipto 1932: Irak 1946: Jordania, Libano, Siria. 1947: India, Pakistan, Bhutan 1948: Myanmar, Brunei, Sri Lanka. 1949: Indonesia 1951: Libia 1954: Kanputxea, Laos, Vietnam
1955-1975	Iparraldeko Afrika Afrika tropikala Hegoaldeko Afrika	1956: Maroko, Tunisia, Sudan 1962: Aljeria 1957: Ghana 1958: Ginea 1960: Burkina Faso, Kamerun, Txad, Kongo, Boli Kosta, Benin, Gabon, Madagaskar, Mali, Mauritania, Niger, Nigeria, Erdialdeko Afrikako Errepublikak, Senegal, Somalia, Togo, Kongoko Errepublika Demokratikoa. 1961: Sierra Leona, Tanganika (1964tik Tanzania, Zanzibarrekin batzen denean). 1962: Burundi, Ruanda, Uganda. 1963: Kenia. 1964: Malawi, Zambia 1965: Gambia. 1966: Botswana, Lesoto
1975-1990	Hegoaldeko Afrika	1975: Angola, Mozambique 1980: Zimbabwe 1990: Namibia


**7.3.1. Deskolonizatzearen lehen aldia (1920-1955):
Ekialde Hurbileko eta Asiako independentziak**

Deskolonizazioaren lehenengo garaian, Ekialde Hurbileko herrialde batzuk independentzia formalera heldu ziren: Egipto 1922an; Irak 1932an eta Siria, Jordania eta Libano 1946an. Ekialde Hurbileko lurralde horiek, Egipto izan ezik, Otomandar Inperioaren esku egon ziren XX. mendearen hasierara arte. Lehen Mundu Gerraren ondorioz deuseztatu egin zen Otomandar Inperioa eta Mendebaldeko potentzia kolonial nagusiek (Erresuma Batuak eta Frantziak) banatu egin zuten eskualdea beren artean; horrela sortu ziren gaur egungo mugak potentzien

mesedetan (ikus 9. gaia). Siria eta Libano Frantziaren mandatu bihurtu ziren, eta Irak, Transjordania eta Palestina eskuratu zituen Ingalaterrak. Britainia Handiak monarkia arabiarren esku utzi zuen kolonien administrazioa, eta independentzia formalera heldu ziren metropoliaren kontrolpean. Horrela, 1922an Ingalaterrak amaitutzat eman zuen Egiptoko Protektoratua eta independentzia aitortu zion; Fuad zen errege subiranoa, teorian behintzat. Hala ere, Erresuma Batuak bere eraginari eutsi zion, tropak, baseak, kanalaren kontrola eta esku hartzeko eskubidea mantendu baitzituen. Antzeko prozesua gertatu zen Irakeko mandatuan. 1932an Faisal erregeak bertan behera utzi zuen protektoratua, baina britainiarrek boterea (baseak eta esku hartzeko ahalmena gerra-garaian) mantendu zuten. Siriari eta Libanori dagokienez, Frantziak autonomia aitortu zien 1936an eta Bigarren Mundu Gerra amaitu bezain pronto, 1946. urtean, independentzia aldarrikatu zuten. Estatu berriak kolonialismotik neokolonialismora pasatu ziren, ezarritako erregimenak arabiar oligarkiaren eta Mendebaldeko potentzia kolonialen arteko aliantzaren emaitza baitziren. Gamal Abdel Nasser egipziar koronelak gidatutako iraultza gertatu zen 1952an eta horrekin batera hasi zen aro berria. Benetako independentzia lortzea zen haren helburua: «independentzia duintasunez» zen goiburua. Helburu hori lortzeko bideen artean, ekonomia modernizatzea, arabiar sozialismoa eta arabiarren batasuna (panarabismoa) defendatzen zituen. Nasserren iraultzaren eragina oso handia izan zen arabiar munduan. Hurrengo urteetan antzeko erregimenak ezarri ziren hainbat herrialdetan, esate baterako, Iraken (1958), Sirian (1964) edo Libian (1969).

Deskolonizazioaren lehen aldiaren beste erdigunea Hego eta Ekialdeko Asia izan ziren. India Britainiarra dugu kasurik esanguratsuena. Independentzia lortzeko prozesua oso luzea izan zen Indian. 1885ean sortu zen burujabetasunaren aldeko mugimendua gidatuko zuen Kongresuaren Alderdia, baina oso moderatuak ziren garai hartako eskakizunak. Erreformak eskatetik subiranotasuna eskatzera pasatu zen Kongresuaren Alderdia eta independentzia lortzea zela helburua aldarrikatu zuen 1928an. Mugimendu nazionalista horri aurre egiteko erreforma eta errepresioa erabili zuten britainiarrek. Alde batetik, Indiako autonomiaren bidean zenbait lege onetsi zuen metropoliak, esate baterako Montagu-Chelmsford izeneko erreforma 1919an edo Indiako Gobernuaren Legea 1935ean. Beste aldetik, mugimendu nazionalista indargabetzeko errepresioa ere erabili zuten britainiarrek, Amritsar-eko masakrea (1919an) edo buruzagi nazionalistak behin eta berriro atxilotzea izan ziren errepresioaren adierazgarri. Hala eta guztiz ere, hedatu eta indartu egin zen mugimendu nazionalista. Hasieran elite baten elkarte zena herri-masen gizarte-mugimendu bihurtu zen Lehen Mundu Gerraren ondoren. Prozesu horretan azpimarratzekoak dira Gandhi eta haren estrategia bakezalea.

7.3. 1947-1971 Indiaren banaketa.



Iturria: http://bo.kalipedia.com/historia-universal/tema/descolonizacion-asia-africa.html?x=20070717klphisuni_296.Kes&ap=2

Bestalde, hinduen eta musulmanen arteko banaketak baldintzatu zuen Indiako deskolonizazioaren izaera. 1906an gutxiengo islamiarraren interesak defendatzeko asmoz Liga Musulmana sortu zen, eta 1940ko hamarkadan musulmanentzako estatu banatua eskatu zuen. Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan, Indiako mugimendu nazionalistaren indarra ikusita, independentzia negoziatzeari ekin zion Ingalaterrako gobernu laborista berriak. 1945ean hauteskundeak egin ziren eta oso

argiak izan ziren emaitzak. Eskualde hinduetan botoen % 91 lortu zuen Kongresuaren Alderdiak, eta islamiar eskualdeetan % 90 Liga Musulmanak. Beraz, independentziaren aldeko jarrera eta koloniaren barne-zatiketa erakutsi zuten hauteskundeek. Negoziazioen ondorioz, bi estatu independente sortu ziren 1947. urtean, erlijioa irizpidetzat hartuta: Indiako Batasuna eta Pakistan musulmana. Bata bestetik oso urrun zeuden bi zatitan (mendebaldekoa eta ekialdekoa) banatuta egon zen Pakistan 1971ra arte. Urte horretan, Ekialdeko Pakistanek (egungo Bangladeshek) independentzia lortu zuen Indiaren laguntzaz. Britainiar India zatitzeak sarraskiak eragin zituen eta jendetza handiak aldatu ziren lurralde batetik bestera. Batez ere hinduak eta musulmanak elkarrekin bizi ziren eskualdeetan piztu ziren gatazkarik odoltsuenak, esate baterako Punjab-en edo Bengala-n. Gainera, India Britainiarran zeuden printzerri autonomoetan, printzearen esku utzi zen Indiako Batasunean edo Pakistanen sartzeko erabakia. Esate baterako, Kaxmir-eko printze hinduak Indiako Batasunean sartzeko erabaki zuen, nahiz eta bertako biztanle gehienak musulmanak izan. Horrek Pakistanen eta Indiaren arteko lehenengo gerra sorrarazi zuen (1947-1949) eta, azkenean, Kaxmirreko zatiketa eragin zuen. Hala ere, ez Pakistanek ez Indiak ez zuten hori onartu eta 1965ean beste gerra bat piztu zen. Su-etena ezarri bazen ere, gatazkak gaurdaino iraun du.

«Koroaren bitxiaren» independentzia eredu izan zen Asiako beste kolonia britainiarrentzat. Eta eredu horri jarraituz, Bhutan (1947), Birmania (egungo Myanmar, 1948) eta Zeilan (egungo Sri Lanka, 1948) heldu ziren burujabetasun politikora.

Garai hartan Indonesiak ere lortu zuen independentzia. Bigarren Mundu Gerrak baldintza ezin hobeak sortu zituen horretarako eta Sukarno-k gidatzen zuen mugimendu nazionalistak aprobetxatu egin zuen abagunea. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren garaian, Japoniak deuseztatu egin zuen holandar administrazio koloniala eta Indonesiako lurraldea konkistatu zuen. Indonesia Japoniaren kontrolpean egon zen garaian (1942-1945) indartu egin zen mugimendu nazionalista, eta indonesiar armada eta talde nazionalista guztiak biltzeko erakundea (PUTERA) sortu zuten. 1945ean Japonia errenditu zenean, nazionalistek bete zuten botere-hutsunea eta independentzia aldarrikatu zuten. Herbehereek Indonesia berreskuratzeko ekintza armatu eta politikoak egin bazituzten ere, azkenean 1949an independentzia onartu behar izan zuten, mugimendu nazionalistaren indarra, gerraren kostua eta nazioarteko presioak zirela-eta.

Indotxinan ere Ozeano Bareko Gerrak zabaldu zuen independentziarako bidea. Japoniak 1941ean kanporatu zituen frantziarrak eta lurraldea konkistatu zuen. Urte berean sortu zen *Vietminh* (Independentziaren aldeko Liga), Japoniaren inperialismoaren eta Frantziaren kolonialismoaren kontra borrokatzeko. Ho Chi Minh komunista zen *Vietminhen* buruzagia. 1945. urtean, Japonia errenditu zenean, Ho Chi Minhek independentzia eta Herri Errepublikak aldarrikatu zituen. Frantziak ez zuen onartu eta bederatzita urte iraun zuen gerra koloniala hasi zen. Gerran zehar, iparraldean Herri Errepublika finkatzen zen bitartean, hegoaldean frantziarrek beren

aldeko gobernua ezarri zuten. Horrela bi estatu ari ziren agintzen Vietnamen, eta bien helburua zen Vietnam osoa kontrolatzea. Azkenik, Frantziak militarki porrot egin ondoren (Dien-bien-phu-n, 1954an), bake-akordioa sinatu zuen metropoliak. Genevako Itunaren (1954) arabera, su-etena ezarri zen, tropa guztiak 17. paraleloan bilduko zirela hitzartu zen, eta herrialdearen batasuna berrezartzeko 1956. urtean hauteskundeak egingo zirela adostu zen. Urte berean, 1954an, Laosen eta Kanputxearen independentziak onartu behar izan zituen Frantziak. Baina ordurako Gerra Hotza Asiara hedatu zen eta Txinako Iraultzaren ondoren Indotxina blokeen muga bihurtu zen. AEBk ez zituen Genevako akordioak onartu, Hego Vietnam komunismoaren kontrako tapoi-estatu bihurtzeko asmoa baitzuen estatubatuar administrazioak. Gerra kolonialetik Gerra Hotzeko gatazka luzera igaro zen orduan (ikus 1. gaia).

Ikusi dugun bezala, Ekialde Hurbilean eta Hego Asian eta Ekialdeko Asian gauzatu zen deskolonizazio-prozesuaren lehenengo aldia. 1955erako eskualde horietako kolonia nagusiak estatu independente ziren. Urte hartan bildu ziren Bandungeko Konferentzian Afrikako eta Asiako estatu berriak. Nazioartean elkarrekin lan egiteko asmoa azaldu zuten, neutraltasuna izango zutela bi blokeen aurrean aldarrikatu zuten eta tinko salatu zuten kolonialismoa. Horrekin bultzada handia eman zioten deskolonizatze-prozesuari. Testuinguru horretan, kolonialismoaren aurkako mugimendu nazionalistak hedatu ziren Afrikan zehar eta, horregatik guztiarengatik, deskolonizazioaren bigarren aldiaren hasiera jar dezakegu garai horretan.

7.3.2. Deskolonizatzearen bigarren aldia: Afrikako independentzia gehienak (1955-1970)

1955etik 1970era bitarteko urteetan, independentzia politikoa lortu zuten Afrikako kolonia gehienek. Iparraldeko Afrika frantziarrean hasi zen prozesua. 1956an Marokoko eta Tunisiako protektoratu ohiek independentzia lortu zuten¹⁰. Frantziaren eta bertako mugimendu nazionalisten arteko tirabiren ondoren, metropoliak azkenik onartu egin behar izan zuen independentzia negoziatzea. Aljerian, aldiz, ez zuen horrela jokatu eta gerra kolonial krudel eta luzea (1954-1962) eragin zuen. 1830ean kolonizaturiko lurraldea zen Aljeria, frantziar kolono kopuru handia (1900. urtean populazioaren % 15 inguru) ezarri zen bertan eta, gainera, lur emankorrez jabetu ziren kolonoak. Frantziarrentzat inperioaren altxorra zen Aljeria eta frantziar probintzia bat izan balitz bezala administratzen zuten. Gerrak oso ondorio sakonak izan zituen. Batetik, metropoliaren krisi politikoa eragin zuen eta, bestetik, politika koloniala errotik aldarazi zion Frantziari. Berriro ere gerra luzeak porrot iraingarria ekarri zuen Frantziaren Inperioarentzat. 1962an Evian-eko akor-

10. Kasu berezia dugu Libia. Italiaren kolonia zen, baina Bigarren Mundu Gerraren ostean aliatuek okupatu zuten. 1951n independentzia aitortu zioten, baina Mendebaldeko potentzien eraginpean jarraitu zuen, Gadafiren 1969. urteko iraultzara arte.

dioa hitzartu zen eta Aljeriako autodeterminazio-eskubidea onartu behar izan zuen Frantziak.

Afrika Beltzari dagokionez, Urrezko Kosta (egungo Ghana) britainiar kolonian hasi zen deskolonizazio-prozesua eta 1957. urtean lortu zuen independentzia. Kwame Nkrumah (1909-1972) izan zen mugimendu nazionalistaren buruzagia. Estatu Batuetan eta Londresen ikasi ondoren, Urrezko Kostara itzuli zen 1947an. *Convention Peoples Party* sortu zuen eta independentziaren aldeko kanpainak zein herri-mobilizazioak bultzatu zituen; atxilotu egin zuten britainiar agintariak. Hala ere, handitu egin ziren ospea eta alderdiari herriak zion atxikimendua. 1951. urtean, Nkrumah kartzelan zegoela, haren alderdiak irabazi zituen Urrezko Kostako Biltzar Legegilerako hauteskundeak eta gobernu autonomoaren buru bihurtu zen; hau da, espetxean egotetik lehen ministro izatera pasatu zen. Botere autonomoaren buruzagitzatik konstituzio berria bultzatu zuen, eta 1957an independentzia aldarrikatu zuen. Ordurako, Britainia Handiak onartua zuen Ghanako deskolonizazioa. Ez zuen prozesua eragotzi, eta kolonia ohia *Commonwealth* elkartean sartu zen. Beraz, mailaz maila lortu zuen independentzia Ghanak. Autonomiatik subiranotasun politikora igaro zen, herri-mobilizazioa, metropoliarekiko negoziazioa eta bide politikoak erabiliz.

Ghana eredu izan zen kolonialismoaren aurkako Afrika Beltzeko hainbat mugimendurentzat, eta hurrengo urteetan britainiar kolonia askotan jarraitu zioten Ghanako ereduari. Esate baterako, Mendebaldeko Afrikako britainiar koloniarik garrantzitsuenak, Nigeriak, 1960an lortu zuen independentzia. Hiru talde etniko handi hiru eskualdetan banatuta zituen Nigeriak: hausak iparraldean, igboak ekialdean eta yorubak mendebaldean. Ghanan bezala, Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi ziren suspertzen mugimendu antikolonialistak, baina talde etniko nagusi bakoitzak bere alderdi politikoa eta buruzagia zituen. 1950eko hamarkadan, Ghanako bideari jarraituz independentziarako bidea prestatu zuten. 1954an konstituzio berria onetsi zen, gobernu zentral autonomoa ezarri zen Lagos hiriburuan, eta hiru lurralde federatu eratu ziren. Azkenik, 1960an aldarrikatu zen independentzia. Hala ere, gatazka etnikoek eragin handia izan zuten hasieratik estatu berriaren bilakaeran; 1967an hasitako Biafrako Gerra izan zen gatazkaren adierazgarri. Antzeko deskolonizazio-prozesua izan zuten Sierra Leonan eta Gambian: autogobernutik abiatu, metropoliarekin negoziatu, eta ondoren independentziara heldu (1961ean eta 1965ean).

Ekialdeko Afrikako britainiar kolonia batzuetan konplexuagoa izan zen deskolonizazioa, europar kolonoak baitziren oztupo. Kenian, esate baterako, 1950eko hamarkadan, kikuyu tribukoek *mau-mau* izeneko matxinada armatua antolatu zuten kolonoen kontra, lurrik emankorrenen jabe zirelako europarrak. Metropoliak *mau-mau* mugimendua mendean hartuta, 1963an aitortu zion independentzia Keniari. Gutxiengo europarren pribilegio politikoei eta ekonomikoei euste aldera, Britainia Handiak kasu batzuetan (Erdialdeko Afrikako Federazioan, esaterako)

konstituzio arraza aniztunak proiektatu zituen. Arraza talde bakoitzak ordezkari kopuru bat hautatuko zuen eta horrela arraza talde guztiek izango zuten ordezkari-tza, leinu bakoitzaren biztanle kopurua kontuan hartu gabe. Hala ere, egitasmo politiko horiek porrot egin zuten. 1960. urte inguruan (ikus deskolonizazioaren kronologiaren taula) heldu ziren independentziara Britainiaren afrikar koloniak eta gehienetan gatazka larririk gabe; Hego Rhodesia (egungo Zimbabwe) izan zen salbuespena.

Garai berean, Sahararen Hegoaldeko Afrikako frantziar kolonia guztiek ere independentzia lortu zuten. Aljeriako Gerrak krisi politikoa eragin zuen metropoli- an. Horren ondorioz, V. Errepublika presidentzialista aldarrikatu zuten eta Charles De Gaulle jenerala itzuli zen agintera. De Gaullek indarrean jarri zuen koloniekiko politika berria eta autodeterminazio-eskubidea onartu zuen. *Frantziako Erkidegoa* sortzea zen haren helburua; hau da, estatu autonomoen erkidego batean elkartuko ziren kolonia ohiak metropoliarekin. De Gaullek bi aukera eskaini zituen koloniei: autogobernu zabala izatea Frantziako Erkidegoaren barnean, edo independentzia eskuratzea eta Frantziarekiko harreman guztiak apurtzea. Erabakitze-ko erreferendumak egin ziren kolonia guztietan. Ginean izan ezik, beste kolonia guztietan Frantziako Erkidegoan sartzea erabaki zen, baina hurrengo urteetan kolonia guztiak irten ziren erkidegotik. 1960. urterako independenteak ziren Mendebaldeko Afrikako eta Ekuatore Afrikako frantziar kolonia guztiak.

1960an, Belgikar Kongok ere independentzia aldarrikatu zuen. Kolonialismoaren aurkako mugimenduak sortu ziren 1950eko hamarkadan zehar; horietako gehienek oinarri etnikoa zuten, aniztasun etniko handiko lurraldea baitzen Belgikar Kongo. 1958an independentzia eskatu zuten, baina metropoliak ez zuen inolako urratsik eman autogobernua prestatzeko eta 1959an istiluak eta gatazkak hasi ziren. Belgikak bi aukera zituen orduan: tropak bidaltzea eta ordena ezartzea, edo independentzia negoziatu eta alde egitea. Deskolonizazioa negoziatu zuten Belgikako gobernuak eta Kongoko alderdiek. Baina independentzia aldarrikatu ostean, berehala hasi ziren gatazkak: armada matxinatu zen; etnien arteko istiluak hasi ziren; estatu berriaren egitura politikoari buruzko desadostasunak azaleratu ziren alderdi politikoen artean; Katangako eskualde aberatsak sezesioa bultzatu zuen *Union Minniere du Haut Katangaren* laguntzaz... Ikusten dugun bezala, oso gatazkatsua izan zen Kongoko deskolonizazioa. Arrazoi bat baino gehiago egon ziren gatazken atzean: batetik, metropoliak ez zuen alde zuretik ezertxo ere egin prozesua prestatzeko; bestetik, Mendebaldekoen interes ekonomikoek nahastu zuten prozesua; eta, azkenik, ez zen egon batasun edo kohesio nazionalik.

Beraz, 1960ko hamarkadarako Afrikako kolonia gehienak helduta zeuden independentzia politiko formalera. Ordurako, potentzia kolonial nagusiek onarturik zuten beren inperioak deuseztatu beharra. Inperio kolonialei eustea ezinezkoa zela ikusita-edo, behintzat, kostu ekonomiko eta politiko ikaragarria zuela onartuta, Europako potentziek deskolonizazioa negoziatzea eta bideratzea erabaki zuten;

baina kolonia ohiekiko harreman ekonomikoak eta politikoak mantentzen saiatu ziren, ahal zen neurrian. Hegoaldeko Afrikan, aldiz, hurrengo hamarkadetara luzatu zen deskolonizazio-prozesuaren kontrako erresistentzia.

7.3.3. Deskolonizatzearen hirugarren aldia: Hegoaldeko Afrika (1970-1990)

Deskolonizazioaren azken garaian, Hegoaldeko Afrikako kolonia batzuek independentzia lortu zuten. Kasu horretan, alde batetik, Portugaleko metropoliaren erresistentziagatik atzeratu zen deskolonizazioa, eta, bestetik, zuriak ezarritako oztopoengatik. Hori dela-eta, deskolonizazio-garai hori izan zen gatazkatsuen eta, kasu gehienetan, gerra luze edo gatazka larrien ostean lortu zen independentzia.

Portugalek, Europako beste potentziek ez bezala, kolonien kontrol politiko zuzena galdua, ez zuen eragin neokolonialik ezartzerik, metropolia ahula zen eta. Gainera, diktadura eskuindarra eta nazionalista zegoen agintean Portugalen. Horrek handitasun nazionala eta inperioa zeneko iragana identifikatzen zituen. 1974an, *Krabelinen Iraultzaren* ondorioz diktadura jausi zenean, zabaldu zen deskolonizazioaren bidea. Eta 1975ean lortu zuten independentzia Afrikako portugaldar koloniek (Ginea Bissauk, Cabo Verdek, Angolak eta Mozambiquek), urte askotako gerra kolonialen ondoren.

Kolono zurien erresistentziari dagokionez, Hego Rhodesia (egungo Zimbabwe) eta Hegoafrikako Errepublika dira adibide esanguratsuak. Herrialde horietan, gutxiengo zuriak eskuratu zuen botere politikoa eta *barne-kolonialismoa* ezarri zuten; hau da, boteregunea Afrikan bertan zegoen —ez Europako metropolian— estatuak independenteak zirelako; baina bertako europar kolonoek gehiago beltza baztertu eta botere politikoa kontrolatzen zuten. Hego Rhodesian (Zimbabwe), 1965ean, Ian Smith gobernuburuak, britainiar metropoliaren iritziaren kontra, alde bakarreko independentzia aldarrikatu zuen eta arraza-bereizkerian oinarrituriko erregimena ezarri zuen. 1972an hasi zen erregimenaren kontrako borroka armatua, eta nazioarteko erkidegoak ere zigor ekonomiko eta diplomatikoak ezarri zizkion. Hala ere, Portugalen eta Hegoafrikaren laguntzari esker, hamabost urte iraun zuen erregimena, 1980. urtera arte, hain zuzen. Hegoafrikako Errepublikari dagokionez, 1948tik aurrera, *apartheid* (banaketa) izeneko sistemak azken muturreraino eramatu zuen politika arrazista. 1980ko hamarraldian, aldiz, krisian sartu zen sistema zenbait faktorek bultzatuta: barne-oposizioak, nazioarteko erkidegoaren presioak, zigor ekonomikoak, Angola, Mozambique eta Zimbabweko aldaketa politikoak eta Gerra Hotzaren amaierak. Hori dela-eta, 1990eko hamarraldiaren hasieran deuseztatu egin zen *apartheid*a, gobernuaren eta oposizioaren negoziazioen ostean.

7.4. DESKOLONIZAZIOA ERAGIN ZUTEN FAKTOREAK

Orain arte ikusi dugun bezala, Bigarren Mundu Gerraren ostean hasi ziren koloniak galtzen Asian eta Afrikan. Kasu bakoitzak bere ezaugarriak izan bazituen ere, orokorra izan zen prozesua eta, beraz, faktore orokor batzuek bultzatu zituzten aldaketak, tokian tokikoez gain. Historialariok kanpoko eta barneko faktoreak bereizi ohi ditugu deskolonizazioa azaltzean; hau da, nazioarteko egoerarekin zerikusia duten faktoreak, batetik, eta kolonizaturiko herrialdeetako bilakaerarekin erlazioa dutenak, bestetik.

Kanpoko faktoreen artean, Bigarren Mundu Gerraren ondorioak aipatu behar ditugu lehenengo eta behin. Gatazkak asko ahuldu zituen Europako potentzia kolonialistak arlo ekonomikoan zein militarrean. Kasu batzuetan, Asian batez ere, kolonizatzaileak kanporatu egin ziren kolonietatik. Esate baterako, Japoniak holandarrak eta frantziarrak kanporatu zituen Indotxinatik eta Indonesiatik, Ozeano Bareko Gerran; gerra amaitutakoan ezin izan zituzten koloniak berreskuratu, saiatu arren. Horrez gain, gerra-garaian aldatu egin ziren metropoliaren eta kolonien arteko harremanak. Batzuetan, Indian esaterako, gerraren ostean metropoliak agindu zuen independentzia onartuko zuela, gatazkan indar nazionalisten laguntza lortzeko. Beste batzuetan, kolonietako soldaduak sartu ziren metropolietako armadetan, eta hor ohartu ziren bateraezinak zirela aliatuek aldarrikatzen zituzten balioak eta kolonialismoa. Adibidez, Atlantikoko Gutuneko (1941) hirugarren printzipioan aitortzen zen: *herrialde guztiek beren lurraldeetan izango duten gobernatzeko modua aukeratzeko duten eskubidea*. Kontraesan argia zegoen kolonietako politika zapaltzailearen eta printzipioaren artean. Azkenik, Bigarren Mundu Gerrak Europako hondamendia, porrota eta balio-krisia adierazten zuen. Horren guztiaren ondorioz agortuta zegoen kolonialismoari zilegitasuna ematen zion diskurtso nagusia, munduan europarrek bete beharreko eginkizun zibilizatzailea, alegia. Bestela esanda, Europako potentziek, botere ekonomikoa eta militarra ez ezik, uestzko nagusitasun sinbolikoa ere galdua zuten kolonizatuen aurrean.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren sorturiko nazioarteko sisteman ez zegoen lekurik europar kolonialismoarentzat. Europako potentziek ez zuten jadanik mundua mendean. Sobietar Batasunarentzat kapitalismo inperialistaren ondorioa baino ez ziren koloniak. AEBk ez zuen begi onez ikusten munduko lurralde zabalak Europaren esku egotea, kaltegarria baitzen AEBren interes ekonomikoetarako. Hala ere, Gerra Hotzak baldintzatu zuen AEBren jarrera, kanpo-politikaren lehenetasuna Gerra Hotza baitzen. Beraz, mugimendu nazionalistaren ideologiaren arabera ematen zuten laguntza. Herrialde kolonizatua ideologia komunistakoa bazen, metropoliari laguntza ematen zion AEBk inperioari eusteko; Vietnam, Aljeria, Angola edo Mozambique izan ziren jarrera horren erakusgarri.

Nazio Batuen Erakundea ere deskolonizazioaren alde azaldu zen. Erakundearen Gutunean konpromisozko jarrera hitzartu bazen ere, 1960ko 1.514. ebazpenak

kolonialismoaren kontrako jarrera tinkoa aldarrikatu zuen. Ordurako independentzia lortua zuten kolonia askok eta 1955ean, Bandungeko Konferentzian bilduta, estatu berrietako batzuek kolonialismoa salatu zuten nazioartean. Are gehiago, eskarmentu hori adibide izan zen artean kolonialismoaren mendean zeuden herrientzat. Independentzia lortu ahala, herrialde berriak sartu ziren Nazio Batuen Erakundearen, eta Batzar Nagusiko gehiengoak aldatu egiten zen. Horrela, kide berrien bitartez sartu zen, neurri batean behintzat, Bandungeko espirtua Nazio Batuen Erakundearen. Horren guztiaren ondorioz, era tinkoan gaitzetsi zen kolonialismoa nazioarteko erakundeetan, eta kolonien autodeterminazio-eskubidea aldarrikatu zen.

Kolonietako barne-faktoreei dagokienez, kolonialismoak berak bultzaturiko aldaketek ahalbidetu zuten nazionalismo antikolonialistaren sorrera eta garapena. Esate baterako, kasu batzuetan, behintzat, kolonizatzaileek sortu zituzten egitura politikoa, administrazio-egitura eta estatu kolonialaren mugak. Oinarri horien gainean eskatuko zuten gero independentzia kolonialismoaren aurkako mugimenduek. Arlo ekonomikoan, Mendebaldeko garapen ekonomikoarekin harremanetan sartu ziren herrialde kolonizatuak kolonialismoaren ondorioz, mendeko egoeran bazen ere. Ekonomiak eta gizarteak aldatu zituen kolonialismoak: hazkunde demografikoa, hiritartze-prozesua, jarduera ekonomiko berriak (merkataritza, eta abar), garraio-azpiegiturak, gizarte-talde berriak eta abar garatu ziren. Testuinguru horretan, mugimendu kultural eta ideologiko berriak ere sortu eta hedatu ziren mendebaldarren eraginez. Horrela, zenbait ideologia (liberalismoa, sozialismoa edo nazionalismoa besteak beste) hedatu ziren elite mendebaldartuen artean. Kolonietako balio tradizionalekin moldatu eta uztartu ziren aipaturiko ideologiak, eta modernotasunaren eta tradizioaren arteko oreka zaila bilatu nahian aritu ziren. Azken finean, Hirugarren Munduko nazionalismoak sortu ziren sintesi horren emaitza gisa.

Kronologia eta ideologia oso ezberdinak izan zituzten kolonialismoaren aurkako nazionalismoek, baina, hala ere, ezaugarri komun batzuk bazituzten. Zuzendaritzari zegokionez, kolonietako elite mendebaldartuek sortu eta gidatu zuten nazionalismo mota berria. Independentziako buruzagi nagusien (Gandhiren, Nehru-ren, Nkrumahen, Sukarnoren, Senghor-en eta abarren) biografiari begiratzeko badiogu, profil hori dugu. Gehienek Europan edo Ameriketara ikasi zuten, eta mendebaldarren balio eta kultura politikoa bereganatu zuten atzerriko egonaldietan. Asian lehenago eta Afrikan geroago, eskakizun nazionalisten inguruan bestelako eskakizun eta mugimendu sozialak bildu ziren; eta orduan herri-masen atxikimendua lortu zuten kolonialismoaren aurkako nazionalismoek.

Bestalde, nazionalismo horietako askok nazio-identitatea eraikitzeko arazoak izan zituzten. Kasu askotan, nazio-identitate berriaren elementu nagusia atzerriarren mendekotasunari aurka egitea zen, baina oinarri hori oso ahula zen nazio-estatua eraikitzeko. Beharbada, zenbait kasutan horregatik gaudituz koloniako esparrua kolonialismoaren aurkako nazionalismoak, eta esparru zabalagoa hartu

zuen; horrela sortu ziren adierazpen zabalagoak: panarabismoa, panafrikanismoa edo panislamismoa, besteak beste.

7.5. DESKOLONIZAZIOAREN MOLDEAK

Deskolonizazio-prozesuak era askotako moldeak izan zituen. Kasu batzuetan, negoziazioaren bidea nagusitu zen independentziara iristeko; beste batzuetan, aldiz, gatazka larrien eta gerra luzeen ostean lortu zen independentzia. Zenbait faktorek baldintzatu zuten deskolonizazio-prozesua: metropoliaren jarrerak, europar kolonoen presentziak, koloniaren balioak edo mugimendu nazionalistaren ideologiak eta izaerak.

Metropoli guztiek ez zuten berdin jokatu deskolonizazio-prozesuaren aurrean. Historialariok Britainiar eta Frantziar Inperioen administrazio-sistema kolonialak eta jarrera politikoak erkatu ohi ditugu. Oro har, Britainiar Inperioaren deskolonizazioa Frantziarrarena baino lasaiagoa izan zen; Aljeriako edo Vietnamgo kasuak ditugu horren erakusgarri. Britainiar kolonien administrazio-sistema deszentralizatuagoa zen, eta horrek autogobernura mailaz maila igarotzea ahalbidetu zuen. Gainera, Britainiar Inperioak eskarmentua zuen antzeko prozesuetan. Izan ere, agindupeko lur autonomo izatetik estatu subirano izatera pasatu ziren, gatazkarik gabe, Britainiaren zenbait populatze-kolonia, Australia, Kanada edo Zeelanda Berria, besteak beste. Britainiar kolonietako administrazio-sisteman, bertakoek edo jatorrizkoek hartzen zuten parte tokian tokiko gobernuetan; hau da, banatu egiten zen boterea Londreseko ordezkarien eta sufragio bidez hautaturiko Biltzarren artean. Kasu askotan, mugimendu nazionalistak baretze aldera, kolonien autogobernua sakontzeko erreformak egin zituzten britainiarrek. Egia da erreforma horien helburua inperioa iraunaraztea zela, baina independentziarako bidea prestatu zuten, Indiako edo Ghanako kasuetan esate baterako. Gainera, 1931n *British Commonwealth of Nations* sortu zuten formalki britainiarrek. Erresuma Batuak eta Britainiar Inperiotik sortutako estatu independenteek borondatez osatutako elkartearen zen. Horri esker (kolonia ohien eta metropoliaren arteko lotura ekonomikoak, kulturalak eta bestelakoak apurto gabe) heldu ziren independentziara koloniak, deskolonizazio-prozesu errazago baten bidetik. Bestalde, aipatu beharrekoa da 1945ean eratu zen gobernu laboristaren errealismo politikoa ere. Inperioari eustea ezinezkoa zela ulertu zuen gobernu laboristak, eta negoziazioaren bideari ekin zion, berrogeiko hamarkadatik aurrera Asian eta berrogeita hamarrekotik aurrera Afrikan.

Frantziaren Inperioa, aldiz, gatazkaz eta liskarrez beterik desegin zen, eta Parisek ez zuen deskolonizazioa onartu 1950eko hamarkadaren bukaerara arte, baina ordurako gatazka bortitzak zeuden Vietnamen eta Aljerian. Frantziak itsasoz haraindiko bere lurraldetzat hartu zituen koloniak; eta inperioaren helburua koloniak *asimilatzea* zen, hau da, metropoliaren eta kolonien arteko desberdintasunak ezabatzea. Benetako asimilazioa gauzatu ez bazen ere, inperioa ulertzeko modu

horrek ondorioak izan zituen egitura politikoetan eta administratiboan. Batetik, koloniek ordezkariak bidaltzen zituzten Parisko Legebiltzarrera, oso kopuru txikia bazen ere. Bestetik, kolonietan ere metropoliko sistema zentralizatua ezarri zen, eta Parisko gobernuak administratzen zituen koloniak, kolonietako gobernadoreen bitartez. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Frantziak ere zenbait erreforma egin zituen inperioari eusteko helburuz. 1946an IV. Errepublikako Konstituzioak Frantziar Batasuna sortu zuen, eta erakunde horretan bildu behar ziren metropolia eta kolonia guztiak. Printzipio berriak aldarrikatzen zituen Frantziar Batasunak; esate baterako, eskubideei zegokienez metropoliko eta kolonietako biztanleen arteko berdintasuna eta kolonien autonomia. Hala ere, ez zen autodeterminazio-eskubidea onartzen, eta Batasuneko erakundeek gainetik zeuden metropoliko erakundeak. Dena den, porrot egin zuen Frantziar Batasunak; ez zuen balio izan gatazka kolonialak bideratzeko; Indotxinako edo Aljeriako gatazkek erakutsi zuten ezintasuna. Azkenik, metropoliaren krisi politikoa ekarri zuen Aljeriako Gerrak. 1958an Charles De Gaulle itzuli zen agintera eta V. Errepublika aldarrikatu zuen. Orduan, Frantziar Batasunaren ordeztu, Frantziar Erkidegoa sortu zen. Bi erakundeen artean zegoen desberdintasun nagusia honako hau zen: koloniek Frantziar Erkidegotik irteteko eskubidea zuten, eta 1960an erabili egin zuten eskubide hori Frantziaren kolonia gehienek.

Indonesiako deskolonizazioaren aurrean, Herbehereek Frantziaren modura jokatu zuten; hau da, hasieran oztopatu egin zuten deskolonizazio-prozesua eta gatazkak sortu ziren. Baina nazioarteko presioek eta mugimendu nazionalistak bultzatuta, onartu egin behar izan zuten artxipelagoaren independentzia politikoa 1948an. Belgikar metropoliari dagokionez, negoziazioaren bidea onartu zuen koloniei independentzia emateko, baina beranduegi, presaka eta inolako prestakuntzarik gabe. Beraz, Bigarren Mundu Gerraren ostean ere, Europako potentzia nagusiak inperioak mantentzen saiatu arren, nazioarteko baldintza berriek eta mugimendu nazionalisten indarrak eraginda, inperioak deuseztatzea onartu behar izan zuten. Metropolia batzuek, Ingalaterrak esate baterako, lehenago aitortu zuten errealtate hori eta era lasaiagoan bideratu zuten prozesua. Beste batzuek, aldiz, (Frantziak, esaterako) geroago eta porrot larrien ondoren onartu zuten ezinezkoa zela inperioari eustea. Azkenik, 1960. urterako potentzia kolonial nagusiak negoziatuzioetan ari ziren, prozesua metropolitik kontrolatu nahian, alternatiba erradikalak eragozteko eta metropoliaren eragina mantentzeko. Portugal izan zen salbuespena, batetik, ekonomiari zegokionez oso atzeratuta zegoelako, eta, bestetik, politikan diktadura zuelako. Horregatik guztiarengatik, oso gatazkatsua, berantiarra eta erradikala izan zen Portugalen Inperioaren deskolonizazioa.

Gutxiengo zuriaren presentziak ere eragin handia izan zuen deskolonizazioan. Europar kolono kopuruari zegokionez, alde handiak zeuden kolonia batzuen eta besteen artean. Afrikan, adibidez, kolonia gehienetan zurien presentzia oso eskasa bazen ere, klima epeleko gune batzuetan handia zen. Oro har, europar kolonoek ez

zuten deskolonizazioa onartu, eta gatazka larriak eragin zituzten. Aljerian, esate baterako, azken unera arte oztopatu zuten deskolonizazioa europar jatorriko kolonoek —milioi bat inguru ziren 1960an, populazioaren % 10 gutxi gorabehera—. Metropolia FLNrekin negoziazioetan 1960an hasi bazen ere, eskuin muturreko sektore politiko eta militarrek, kolonoen laguntzaz, borrokatu egin ziren independentzia eragozteko. 1962an aldarrikatu zen independentzia eta kolonoek alde egin zuten Aljeriatik. Beste kasu batzuetan (Hego Rhodesian edo Hegoafrikako Errepublikan), gutxiengo zuriak, metropoliarekiko harremanak eten ondoren, erregimen politiko arrazistak eratu zituen, eta bazterturik geratu zen gehiengo beltza.

Koloniaren balio geoestrategiko eta ekonomikoak ere eragina izan zuen deskolonizazio-prozesuetan, eta horrekin batera mugimendu nazionalistaren ideologiak ere baldintzatzen zuen prozesua. Gerra Hotzaren testuinguruan, kolonialismoaren aurkako mugimendua joera komunistakoa bazen, arriskuan jartzen ziren mendebaldarren interes estrategiko edo ekonomikoak. Kasu batzuetan, Vietnamen esaterako, gerra kolonialak bide eman zion Gerra Hotzeko gatazkari. Beste batzuetan, Angolan eta Mozambikenean esate baterako, nahasi egin ziren bi prozesuak (gerra koloniala eta Gerra Hotza) eta, independentzia lortuta ere, jarraitu egin zuten gatazkek, superpotentzien lehiaren agertoki bihurtu zirelako. Bestalde, Belgikar Kongoko kasu esanguratsua dugu. Barne-gatazkak eta potentzien interesak nahasi ziren, eta horrek handitu egin zuen estatu independente berriaren lehenengo urteetako ezegonkortasuna. Mendebaldeko potentziek babes eta laguntza eman zieten gatazkako protagonista batzuei, Kongoko aberastasun handiak kontrolatu ahal izateko. Deskolonizazio gatazkatsua izan zen horren guztiaren emaitza.

7.6. DESKOLONIZAZIOAREN ZENBAIT ONDORIO

Ikusi dugun bezala, Asiako eta Afrikako kolonia guztiak ez ziren ez era berean ez aldi berean deskolonizatu. Alde handiak izan ziren kasu batzuen eta besteen artean: kronologian, independentzia lortzeko moduan, mugimendu nazionalisten ideologian eta helburuetan. Horregatik, azterketak errazte aldera, historiografiak inperio bakar bat edo eskualde bakar bat ikertu du gehienetan, eta deskolonizazioaren analisi orokor gutxi egin dira. Hala ere, oraingoan ikuspuntu orokorretik hausnartuko dugu eta ondorioetako batzuk aipatuko ditugu. Bi maila bereiziko ditugu azterketan: nazioartekoa eta kolonietakoa.

Deskolonizazioak aldaketa politiko nabarmenak eragin zituen nazioartean. Antolamendu politiko ia unibertsal bihurtu zen nazio-estatu eta protagonista berri asko sartu ziren nazioarteko gizartean. Kolonialismoaren garaiko nazioarteko sistema duala zen. Batetik, estatu gutxi batzuk nazioarteko zuzenbidearen arabera erlantzionatzen ziren. Bestetik, periferiako lurraldeak edo koloniak estatu horien gobernu despotikoaren mende zeuden eta, beraz, nazioarteko erakundeetatik kanpo geratzen ziren. Deskolonizatu ondoren, mendeko lurraldeak estatu eta nazioarteko

gizarteko kide bihurtu ziren, juridikoki behintzat. Nazio Batuen Erakundearen islatu zen protagonista berrien presentzia eta, Batzar Nagusian zuten gehiengoa aprobetxatuz, erakunde hori erabili zuten beren eskakizunak plazaratzeko. 1945. urtean 45 estatu ziren Nazio Batuen Erakundeko kide eta 2006an, berriz, 192 estatu, batez ere Hirugarren Munduko deskolonizazioaren ondorioz.

Mundu bipolarrean jaio ziren (ikus 1. gaia) estatu berriak. Are gehiago, kasu batzuetan, Gerra Hotzak eragin handia izan zuen deskolonizazioan, eta superpotentzien lehiaren agertoki izan ziren kolonia ohiak. Hala ere, mundu komunistarekin edo kapitalistarekin lerrotatu beharrean, bestelako alternatiba kolektibo bat proposatu zuen orduan sortu berria zen Hirugarren Munduko: neutraltasuna. 1955. urtean, Bandungeko Konferentzian, Asiako eta Afrikako estatu sortu berriek ideia berriak aldarrikatu zituzten: ez lerrotatzearen aldeko jarrera kolektiboa, kolonialismoaren eta neokolonialismoaren salaketa, estatu berrien arteko elkartasuna nazioartean eta azpigarapena gainditzeko neurriak hartu beharra. 1961eko Belgradeko Konferentzian, Lerrotatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua sortu zuten formalki. Indiako Nehru, Egiptoko Nasser, Indonesiako Sukarno edo Jugoslaviako Tito izan ziren sustatzaile nagusietako batzuk. 1960ko hamarkadan izan zuen gorakadarik handiena Lerrotatu Gabekoen Mugimendua, baina harrezkero ahuldu egin zen. Herrialde berrien arteko zenbait gatazkak eta interes desberdinek kaltetu zuten elkartasuna. Gainera, kide guztiek ez zuten berdin ulertzen Lerrotatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua. Batzuek inperialismoaren aurkako jarrera azpimarratzen zuten; beste batzuek, aldiz, benetako neutralismoa defendatzen zuten; baina taldean baziren mundu komunistarekin lerrotatuak, Kuba esaterako, eta bloke kapitalistaren aliatu estuak, Filipinak adibidez. Beraz, arrazoi ideologikoak edo interes eta gatazkak tarteko, indarra galdu zuen Hirugarren Munduko herrialdeen arteko elkartasunak, eta gaur egun oso eragin eskasa du nazioarteko harremanetan.

Independentzia lortu berri zuten herrialdeek Nazio Batuen sisteman ere elkarrekin plazaratu zituzten beren eskakizun ekonomikoak, mendekotasun ekonomikoa eta azpigarapena gainditze aldera. G77 izeneko taldea sortu zuten Iparraren eta Hegoaren arteko elkarrizketa bideratzeko 1964. urtean, UNCTAD (*United Nations Conference on Trade and Development*) abian jarri zenean, hain zuzen. Esparru horretan, Hirugarren Munduko herrialdeek nazioarteko ordena ekonomiko berria eskatu zuten, batez ere munduko merkataritzaren arauak aldatzea, beren esportazioak saldu ahal izateko. Negoziazio luzeen ostean eta Iparraldeko herrialde gehienek botoen kontra, 1974. urtean NBERen Batzar Nagusiak Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berriaren aldeko adierazpena onetsi zuen. Hala ere, ez da norabide horretan urratsik eman. Aitzitik, laurogeiko hamarralditik aurrera, Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berriaren orde, egiturazko doikuntza-planak ezarri behar izan zituzten Hirugarren Munduko herrialdeek, Nazioarteko Diru Funtsak behartuta kanpo-zorraren krisiari aurre egiteko. Egoera berrian, ahuldu egin zen G77ko herrialdeen arteko elkartasuna. Konponbide kolektiboaren orde, Iparraren eta

Hegoaren arteko harreman ekonomikoak bi aldean adostasunez edo eskualde-mailan garatzeko joera izan dute azken hamarraldietan. Beraz, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako itxaropenak itxaropen, Hirugarren Munduak ez du talde gisa jokutzen nazioarteko harremanetan, ez arlo ekonomikoan ez politikoa. Susan Strange-ren hitzetan, iraganeko oroitzapena baino ez da Hirugarren Mundua gaur egun.

Eta herrialde kolonizatuentzat, nolako ondorioak izan zituen deskolonizazioak? Egia esan, interpretazio bat baino gehiago daude galderari erantzuteko. 1960ko hamarraldian, prozesuari buruzko ikuspegi baikorrak nagusitu ziren. Garai hartako historialariek eta idazleek iraganarekiko erabateko haustura gisa aurkezten zuten prozesua gehienetan. Interpretazio horien arabera, kolonien independentziak hasiera berria esan nahi zuen, hau da, mendekotasuna gainditzeko lehenengo urratsa eta tresna nagusia. Mugimendu nazionalisten eraginez, estatua bitarteko aproposa zela uste zuten kolonia ohien arazo larriak konpontzeko. Horregatik identifikatzen zituzten deskolonizazioa eta benetako askapena.

Kolonialismoaren ondorengo estatuen bilakaerak eraginda, bestelako interpretazio batzuk plazaratu dira. Horiek deskolonizazio-prozesuak izan zituen gabeziak azpimarratu dituzte. Erabateko hausturaren ordeztan, interpretazio horiek jarraitzea ikusten dute egitura kolonialen eta postkolonialen artean, arlo politiko zein ekonomikoen aldetik. Azken finean, inperialismoak eratutako estatuen oinarrien gainean eraiki ziren nazio-estatu berriak. Benetako burujabetzaren ordeztan, mendekotasunezko era berriak eta neokolonialismoa ikusi dituzte autore horiek. Dena den, itxaropenen iraultza ere izan zen deskolonizazioa. Kwame Nkrumah-ek esan zuen: «erresuma politikoa lortu, eta gero etorriko da beste guztia». Dakigun bezala, huts egin zuten neurritz kanpoko itxaropenek. Kasu askotan, areagotu egin dira nazio-estatuak eraikitzean izandako zailtasun itzelak eta jarraitu egin du azpigarapenak; deskolonizazioaren mugen adierazleetako batzuk baino ez dira.

7.7. HIRUGARREN MUNDUKO AZPIGARAPENA ETA SORRERA HISTORIKOA

Batez ere 1950eko hamarkadatik aurrera erakarri zuten adituen arreta garapenak eta azpigarapenak, hau da, deskolonizazioaren ondorioz hainbat estatu independente sortu ondoren. Orduan ikusi zen egitura ekonomiko ahula zutela estatu berriek, eta egitura horiek garai kolonialean eraikitakoak ziren. Harrezkero, areagotu egin ziren garapenaren eta azpigarapenaren inguruko eztabaidak eta interpretazioak.

Ez da erraza (azpi)garapena definitzea; hainbat ikuspuntutatik definitu da fenomeno, azpigarapena bera eta haren eragileak azaltzeko. (Azpi)garapen kontzeptua historikoa da, hots, haren esangura eta ulertzeko moduak aldatu egin dira denboran zehar. Esate baterako, 1960ko hamarkadan, garapena hazkunde eko-

nomikoarekin identifikatzeko joera zen nagusi. Horregatik, (azpi)garapena neurtzeko biztanleko errenta erabiltzen zen adierazle gisa, eta oraindik ere Munduko Bankuak adierazle hori erabiltzen jarraitzen du. Baina azken hamarkadetan plan-teamendu eta kontzeptu berriak plazaratu dira. Esate baterako, garapen iraunkorraz hitz egiten dugu, hau da, ingurumena eta etorkizuneko belaunaldien baliabide naturalak arriskuan jartzen ez dituen garapenaz. Eta batez ere giza garapenaren kontzeptua erabiltzen dugu, hots, gizabanakoen beharrak eta bizi-baldintzak kontuan hartzen dituen. Ikuspuntu horretatik, hazkunde ekonomikoa eta garapena ez dira sinonimoak. Hirugarren Munduko herrialde askotan, hazkunde ekonomikoa iraunkorra izan bada ere, pobrezia hedatu da, desberdintasun sozialak handitu egin dira eta hazi egin da langabezia. Benetako garapena izateko, hazkunde ekonomikoarekin batera beste aldaketa batzuk gertatu behar dira: ekonomiaren egitura aldatu behar da (industria hazi) eta biztanleriaren bizi-maila hobetu behar da (elikadura, bizi-itzaropena, hezkuntza, eta abar). Horregatik, gaur egun, Giza Garapenaren Indizea erabiltzen du Nazio Batuen Erakundeak (azpi)garapena neurtzeko. Indize horrek honako irizpide hauek hartzen ditu kontuan: osasun-maila (jaiotako bizi-itzaropena adierazten du); hezkuntza-maila (helduen alfabetatze-tasaren eta umeen eskolatzeko-aldiaren bitartez); eta biztanleko errenta.

Beraz, gizarte bakoitzak garapena bere erara ulertzeko joera izan du une historiko jakinean. Horrez gain, alor akademikoan badira garapena azaltzeko hainbat interpretazio, eta eztabaida ugari izan dira horren inguruan. Oro har, egindako interpretazioak bi paradigma nagusitan bil daitezke: «etapen teoria» edo interpretazio ortodoxoa eta «mendekotasunaren teoria». Lehenengoak barne-eragileak azpimarratzen ditu azpigarapena azaltzeko orduan; hots, azpigarapenaren zergatiak herrialdeko bertako egitura ekonomikoetan daudela uste dute. Etapen teoriako ekonomisten iritziz, garapenaren aurreko etapa da azpigarapena. Lasterketa bat balitz bezala ulertzen dute garapena: batzuk aurrerago doaz («herrialde garatuak») eta beste batzuk atzerago («garapen bidean dauden herrialdeak»); baina guztiak doaz bide beretik. Azalpen horren adibiderik ezagunena Walt Whitman Rostow-ek argitaratu zuen 1960an: hazkunde ekonomikoari buruzko teoria. Estatubatuar ekonomialariaren ustez, garapenerako bide bakarra dago. Garapenerako bide unibertsal horrek bost etapa ditu, eta herrialde guztiak pasatu dira edo pasatu beharko dira horietatik. Rostow-en teorian honakoak dira etapak:

1. Gizarte tradizionala. Nekazaritza da nagusi, eta txikiak dira produktibitatea eta mugikortasun soziala.
2. Ekonomiaren abialdirako aurrebaldintzak. Hobetu egiten dira garraio-azpiegiturak, handitu egiten da produktibitatea, eta teknologiako lehen aurrerapenak agertzen dira.
3. Abialdiko garaia edo *take off*. Lehen industriak sortzen dira, handitu egiten da inbertsio-tasa, burgesia garatzen da, eta horren guztiaren emaitza da hazkunde ekonomiko iraunkorra.

4. Ekonomiaren heldutasunerako bidea. Industria sail berriak sortzen dira eta igo egiten da inbertsio-tasa.
5. Masa-kontsumoko garaia. Kontsumo-ondasunen ekoizpena bideratzen da jarduera ekonomikoa, inbertsio-tasa altuari eusten zaio eta klase ertainak finkatzen dira. 1960ko hamarraldian eragin politiko handia izan bazuen ere, Rostow-en teoriak kritika ugari jaso ditu mundu akademikoan determinismo historikoagatik. Gainera, eredu hori Mendebaldeko gizarteetan oinarritzen da, Hirugarren Munduko errealitatea eta iragan koloniala kontuan hartu gabe.

Beste paradigma nagusia «mendekotasunaren teoria» dugu. Horren arabera, kanpoko faktoreetan daude azpigarapenaren zergatiak. Herrialde azpigaratueto egitura ekonomikoa kanpoko interesen arabera dago moldatuta, eta ez barne-interesen arabera. Bestela esanda, nazioarteko sistema kapitalistak mendekotasun-harremanak sortu ditu herrialde garatuen eta azpigaratuen artean. Nazioarteko ekonomia kapitalistan, Hirugarren Munduko eginkizuna herrialde aberatsei lehengaiak eta elikagaiak hornitzea da; herrialde garatuek, aldiz, industriaren ekoizpena eta finantza-baliabideak kontrolatzen dituzte. Beraz, mendekotasunaren teoriaren jarraitzaileen ustez, bata bestearekin lotuta daude garapena eta azpigarapena; edo, hobeto esanda, errealitate bakar baten bi alde dira, Iparraldearen garapenak sortu baitu Hegoaldearen azpigarapena. Kritika eta eztabaida ugari plazaratu dira interpretazio horren inguruan. Beharbada garrantzitsuena honako hau da: eragile bakar bat hartzen du kontuan azpigarapenaren fenomeno konplexu eta heterogeneoa azaltzeko, nahiz eta eragile hori oso garrantzitsua izan. Hala ere, guretzat oso interesgarria da interpretazio hori, azpigarapena prozesu historiko baten emaitzat hartzen duelako, hain zuzen. Beraz, garapenak berak sortu du azpigarapena prozesu historiko batean. Zehaztu ditzagun, bada, azpigarapenaren sustrai historikoak.

Aro Garaikidean sortu zen herrialde garatuen eta azpigaratuen arteko desoreka. Paul Bairoch historialariak dioenez, XVIII. mendera arte antzekoak ziren zibilizazio nagusien garapen-mailak, giza talde primitiboak alde batera utzita. Noiz eta zerk aldatu zuen egoera hori? Industria Iraultza izan zen prozesuaren abiapuntua. Jakina denez, asko handitu ziren Europako industria-ekoizpena eta produktibitatea XIX. mendean zehar. Horren ondorioz, herrialde industrializatuek merkatu berriak horni zitzaizketen, eta abantaila handiz lehiatu zuten beste herrialde batzuetako tradiziozko artisautzarekin. Horrela, aldatu egin ziren munduko merkataritza-harremanak. Herrialde industrializatuak saiatu ziren beren produktu manufakturatuen merkatu berrietan saltzen, eta horren truke lehengaiak eta elikagaiak inportatzen zituzten. Beraz, era berrian banatu zen nazioarteko lana: herrialde batzuek industria ekoizten zuten, eta beste batzuek lehengaiak.

Baina kolonialismoaren eskutik etorri zen prozesu horren bultzadarik handiena. Arestian esan dugun bezala, 1870etik aurrera europar potentziek Afrikaren

eta Asiaren ustiapen politikoa eta ekonomikoa antolatu zuten. Orduan, Asiako eta Afrikako lurralde asko sartu zituzten nazioarteko ekonomiaren mendeko egoeran. Europako potentzien helburu nagusietakoa kolonietatik irabaziak lortzea zen, eta koloniak ustiatzeari ekin zioten. Horretarako lehenengo baldintza garraio-azpiegitura eratzea zen: itsas portua eta trenbide-sarea eraiki zituzten oso denbora gutxian. Lehengaien esportazioa eta industria-produktuen inportazioa bultzatzea zen garraio-azpiegituren helburua, barne-merkatua eta integrazio ekonomikoa bazterrean utzita. Horren ondorioz, ekonomia dualizatua eratu zen. Batetik, mendeko egoeran bazen ere, nazioarteko ekonomian parte hartzen zuten lurraldeak zeuden: itsas portuak eta trenbidearen bitartez portuekin lotuta zeuden barneko lurraldeak. Bestetik, merkataritza-zirkuitu berrietatik kanpo gelditzen ziren eskualdeak zeuden. Horietan tradiziozko ekonomiak irauten zuen, burujabetasunean oinarrituta kasu gehienetan. Nekazaritzan ere ekonomia duala eratu zen: merkataritza-bide berrietatik kanpo gelditutako eskualdeetan iraupeneko nekazaritza lantzen jarraitzen zuten; eta beste eskualde batzuetan, potentzia kolonialek esportaziora bideratutako nekazaritza sustatu zuten produktu tropikalak metropolietan saltzeko. Horren ondorioz, monolaborantza eta mendeko ekonomiak eratu ziren, metropoliek produktu tropikal jakin baten edo baliabide mineral jakin baten produkzioa bultzatzen baitzuten. Industriari dagokionez, herrialde kolonizatuetakoa artisauen hondamendia eragin zuen kolonialismoak, ezin baitziren lehiatu Mendebaldetik inportatzen ziren produktu industrialekin. Metropolien merkatu gatibu bihurtu ziren koloniak.

Laburbilduz, kolonizazioaren ondorioz Afrikako eta Asiako hainbat lurraldetara ere hedatu zen merkatu-ekonomia eta merkataritza-harremanak garatu ziren. Koloniak metropolien eskutik eta horien mendean sartu ziren nazioarteko ekonomia kapitalistan, baina egitura ekonomiko desorekatua eta dualizatua sortu zen, metropolien behar eta interesen arabera antolatua. Orduan ezarri ziren egitura ekonomikoen ondorioek luzaroan iraun dute, eta kasu askotan azpigarapenaren jatorrian daude. Baina horrek ez du esan nahi kolonialismoa azpigarapenaren eragile bakarra denik, ezta egoera hori gaindiezina denik ere. Deskolonizazioaren ondoren, herrialde independenteek oso bilakaera desberdinak izan dituzte. Ikusi dugun bezala, batzuek industrializazioaren bidea jorratu dute, Hego-ekialdeko Asiako batzuek esate baterako; beste batzuk pobretu egin dira etengabe, Afrika Beltzeko gehienak. Beraz, kolonialismoa garrantzi handiko faktorea izan bazen ere, ez da izan azpigarapenaren gaitz guztien errudun bakarra, eta tokian tokiko beste faktore batzuk ere (geografia, gizartea, politika, kultura eta abar) kontuan hartu behar ditugu azpigarapenaren errealitate konplexua aztertzean.

TESTU-ERANSKINA

1941, HIRUGARREN MUNDUA, KONTZEPTU BATEN JAIOTZA

Sarritan egiten dugu hitz bi mundu aurkariri buruz, haien arteko gerraz, haien koexistentziaz; gehiegitan ahaztu dugu, ordea, hirugarren bat ere badela, garrantzitsuena, eta azken batean lehena kronologiaren arabera. Nazio Batuen arabera, azpigaratuak deitzen zaie herrialde horiei. (...) Gerra prestatzea izaten da kezka nagusia, eta bigarren mailako kezkek (munduko goseak, besteak beste) ez dute arretarik jasotzen, ez bada eztanda eragozteko edo, zehatzago esanda, kezka nagusia arriskuan jar lezakeen kalteren bat gerta ez dadin. (...) Bizitzaren aldeko mugimendu motel baina atzeraezin, apal baina indartsu baten aurrean, sentiberatasuna adieraz lezake Lehenengo Munduak; are gehiago, giza elkartasunezko mugimenduetatik at egin lezake hori. Azken batean, Hirugarren Mundu ahaztu, ustiatu eta mespretxatu horrek, Hirugarren Estatuak bezala, zerbait izan nahi du.

Alfred Sauvy, «Trois mondes, une planète», *L'Observateur*, 1952ko abuztuaren 14a.

Iturria: Berzosa, C.; Bustelo, P. eta Iglesia, J. (1998): *Estructura económica mundial*, Síntesis, Madril, 189. or.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA ETA DESKOLONIZAZIOA

a. LURRALDE EZ-AUTONOMOEI BURUZKO ADIERAZPENA (NAZIO BATUEN GUTUNA, 1945eko EKAINAREN 26a).

XI. KAPITULUA

Lurralde ez-autonomoei buruzko adierazpena

73. art. Oraindik gobernua erabat bereganatu ez duten herrietako lurraldeak administratzeko ardura hartu duten Nazio Batuetako kideek aitortzen dute gauza guztien gainera daudela lurralde horietako biztanleen interesak. Eginkizun sakratutzat hartzen dute ahalik eta gehien sustatzea lurralde horietako biztanleen ongizatea, Gutun honek ezartzen duen nazioarteko bake- eta segurtasun-sistemaren barnean. Era berean, beren betebehartzat hartzen dute:

- a. Herri bakoitzaren kultura errespetatuz, politikan, ekonomian, gizartean eta hezkuntzan aurrera egin dezaten ziurtatzea; herri horiekin bidezko harremanak izatea eta gehiegikeria guztien aurrean babestea.
- b. Beren gobernua garatzen laguntzea eta herrien helburu politikoak behar beste kontuan izatea; beren erakunde politiko libreek aurrera egin dezaten laguntzea, herrietako lurralde bakoitzaren baldintza bereziak eta aurrerapen-mailak aintzat harturik.
- c. Nazioarteko bakea eta segurtasuna sustatzea.
- d. Garapenerako neurri eraikitzaileak sustatzea, ikerketa bultzatzea eta guztien artean lan egitea; eta beharrezko den tokietan nazioarteko erakunde espezializatuekin lan egitea, artikulua honetan agertzen diren helburuak (gizarteari, ekonomiari eta zientziari dagozkionak) gauzatze aldera.

(...)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 296-297.

b. NBE-REN 1514 (XV) EBAZPENA: HERRI ETA HERRIALDE KOLONIALEI INDEPENDENTZIA EMATEARI BURUZKO ADIERAZPENA (1960KO ABENDUAREN 14a)

Batzar Nagusiak (...) aitortzen du:

1. Oinarritzko giza eskubideak ukatzen dira herri bat atzerritarrek menderatu, zapaldu eta ustiatzen dutenean; Nazio Batuen Gutunaren aurka doa eta jokabide horrek arriskuan jartzen ditu munduko bakea eta lankidetzeta.

2. Herri guztiek dute aske determinatzeko eskubidea; horren arabera ebazten dute askatasunean beren izaera politikoa eta ekonomia, gizartea eta kultura askatasunean garatzeko bidea.
3. Politikan, ekonomian, gizartean edo hezkuntzan trebaturik ez egotea ezin da izan inoiz independentzia atzeratzeko aitzakia.
4. Mendean dauden herriek erabat independente izateko eskubidea bakean eta askatasunean gauzatu dezaten, gelditu egin beharko dira ekintza armatu guztiak edota herrien aurkako neurri zapaltzaile guztiak, eta errespetatu egin beharko da lurralde nazional guztia, osotasunean.
5. Lurralde fideikomiso eta ez-autonomoetan, eta artean independentzia lortu ez duten gainerako lurraldeetan, berehala hartu beharko dira neurriak lurralde horietako herriei botere guztiak aldatzeko, baldintzarik eta murrizketarik gabe, beren borondatearen eta askatasunez adierazitako nahien arabera, arraza, sineskera edo kolorea kontuan hartu gabe, erabateko askatasuna eta independentzia goza dezaten.
6. Herrialde baten batasun nazionala edo lurralde-osotasuna erabat edo zatika apurtzeko saiakerak ez datoz bat Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioekin.
7. Estatu guztiek gorde beharko dituzte, zehatz eta zorrotz, berdintasunaren oinarriari buruzko xedapenak, beste estatuen barne-arazoetan ez sartzeari buruzkoak eta herri guztien eskubide subirano eta lurralde-osotasunari buruzkoak, bai Nazio Batuen Gutunekoak, bai Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko xedapenak, bai eta Adierazpen honetakoak ere.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 300-301.

1947, INDIAKO DESKOLONIZAZIOA ETA BRITAINIAKO GOBERNUAREN JARRERA. C. ATTLEE-REN HITZALDIA LEGEBILTZARREAN (1947KO OTSAILA)

1. Aspaldidanik, *self-governmenten* alde lan egitea izan da Britainiako gobernuen politika Indian. Politika horren arabera, gero eta ardura handiagoa eman zaie indiarrei —berez, eskubidez zegokiena—, eta gaur egun gehienbat indiar funtzionario eta ofizialen eskuetan daude Indiako administrazio zibila eta indar militarrek. Konstituzioari dagokionez, botere politikoaren zati handi bat eskualdatzea arautu zuten Britainiako Legebiltzarrean bozkatu ziren 1919ko eta 1935eko legeek. 1940an, koalizio-gobernuak onartu zuen indiarrek berek egin behar zutelako konstituzio berria, erabateko autonomia izango zuen India lortuko bazen; eta 1942ko «eskaintzaren» bitartez, gerra amaitu bezain laster konstituzio berria egingo zuen Biltzar Konstituziogile bat eratzea proposatu zieten.
2. Erregeren gobernuak uste du zuzena izan dela politika hori eta bat egin duela demokraziaren oinarriekin. Boterera heldu zenetik egin ahalak egin ditu horretarantz bideratzeko. Joan den martxoaren 15ean, lehenengo ministroaren adierazpenak zehaztu zuen (Legebiltzarrean eta herriaren onespenearekin batera) indiarren herriak berak aukeratu behar zituela etorkizuneko estatutua eta konstituzioa. Gobernuak uste du heldu dela Indiako gobernuaren ardura indiarren eskura pasatzeko unea.
3. Ministerioko misioak, iaz Indiara bidalitakoak, hiru hilabete baino gehiagoan egin zituen bilerak indiar buruzagiekin, Indiako etorkizuneko konstituzioa definitzeko metodarik egokiena zein izango zen eztabaidatzen, botere politikoa ahalik eta azkarren eta istilurik gabe alda dadin eskuz. Misioaren ekimenik gabe ezingo zirela ados jarri ikusi zen unean, misioak berak aurkeztu zituen proposamenak.
4. Proposamen horietan esaten zen Indiako etorkizuneko konstituzioa Biltzar Konstituziogile batek egin behar zuela, eta Biltzar horretan ordezkaturak egon behar zutelako India Britainiarreko eta estatu guztietako komunitate eta interes guztiek.
5. Misioa itzuli denean, bitarteko gobernu bat jarri da Delhin, komunitate garrantzitsuenetako buruzagi politikoek osatua; eta botere handia du gaur eguneko konstituzioaren arabera. Indiako gobernuen probintzia guztiek dituzte arduradunak erakunde lege gileetan.
6. Atekabez, Erregeren gobernuak ikusten du oraindik ere desadostasunak daudela Indiako alderdien artean, eta oztupo direla Biltzar Konstituziogileak aurreikusi bezala funtzionatzeko.
7. Erregeren gobernuaren nahia da Konstituzioak (Indiako alde guztiek onarturikoak) ezarritako agintariei ematea ardurak, misioaren planaren arabera. Zoritxarrez, gaur egun ez da garbi ikusten konstituzio hori eta agintari horiek ager

daitezkeenik. Arriskuz beterik dago gaur egungo egoera ziurgabea, eta ezin da betiko luzatu. Erregeren gobernuak garbi adierazi nahi du beharrezko neurriak hartzea dela bere behin betiko asmoa, indiar esku arduratsuetara botereak eskualda daitezen, luze jota 1948ko ekainean.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 287-289.

1954, ALJERIAKO DESKOLONOZIOA ETA FRANTZIAKO GOBERNUAREN JARRERA. F. MITTERRAND BARNE-MINISTROAREN HITZALDIA LEGBILTZARREAN

Bat-batean, ia leku guztietara zabaldu da zurrumurrua, gerra odoltsua piztu duela Aljeriak.

Marokok eta Tunisiak ere ezagutu zuten bakarkako terrorismoa hirietan eta base-
rrietan; beharrezkoa al da Aljeriak antzera egitea, eta duela bost urtetik hona
herrialde babesleen aurka matxinatzen ari den munduaren katea osatzea? Bada ez!
Ez da gertatuko horrelakorik, Aljeria Frantzia baita; izan ere, Aljeriako departa-
mentu guztiak Frantziako Errepublikarenak dira.

Flandesetik hasita Kongoraino, nahiz eta aldeak egon gure legeak indarrean
jartzean, toki guztietan ezartzen da legea, eta frantsesa da lege hori; zuek
bozkatzeko duzuen legea da; izan ere, Legebiltzar bakarra dago, nazio bakarra, bai
itsasoaz haraindiko lurretan, bai Aljeriako departamenduetan edo metropolian.

Horiek dira gure arauak, ez bakarrik Konstituzioak ezartzen dizkigulako, geure
borondatez ezarritakoak direlako baizik.

Hemen, inork ez du eskubiderik esateko Errepublikako gobernuak uneren batean
ez zuela garbi zein zen bere eginkizuna; izan ere, haren politikaren funtsarekin bat
dator izandako jokabidea.

Gaur arratsaldean esan du Kontseiluko presidentek: nola azal liteke beste era
batera, bilautasunean oinarritu gabe, arazo frantsesentzat Asian adostu behar izan
dugun irtenbidea, ez balitz onartuko batzuek eta besteek definitu, idatzi eta aldarr-
katzen ditugun printzipioen arabera jokatu dugula, Frantziaren mendeko lurraldeak
babesteko, arestian esan dudan bezala, Flandesetik hasita Kongoraino heltzen diren
lurraldeen babeserako?

Horixe da gure egia, gure politikaren ardatza. Horrexegatik ez da kontraesana
behar denean Genevan hitz egitea, eta Auresen edo beste edozein tokitan borro-
katzea; hori ere beharrezkoa baita aberriaren batasuna apurtu, suntsitu edo eraso-
tzen saiatzen direnean.

Berehalako neurriak hartu dira. Espero dut onartuko didazuela hemen ez zerrenda-
tzea. Baina ez daukat inolako eragozpenik Batzar Nazionalari esateko, barne-
saileko batzordean esan nuen bezala, Errepublikako hamasei segurtasun-konpainia
eraman direla Aljeriara hiru egunetan; eta horiekin hogeirela guztira Aljeriako
lurretan dauden era horretako konpainiak.

Hiru egunetan antolatu da dena. Galdera hau egin izan da: ordenari eusteko izan
da? Ez horretarako bakarrik. Frantziaren indarra berresteko eta gure borondatea
azpimarratzeko ere bai.

Helburua ez zen besterik gabe zapaltzea, kontraeraso militarra egitea lurralde bat berriz konkistatze aldera, inondik inora ere ez baita galdu. Aitzitik, une hartan kezkatuta egon zitezkeen herritarren aurrean, berretsi egin behar zen babesturik egongo zirela edozein unetan eta beti.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 305-306.

1961, LERROKATU GABEKOEN MUGIMENDUA. BELGRADEKO KONFERENTZIAKO ADIERAZPENA

Lerrokatu gabeko herrialdeetako gobernuburu edo estatuburuak ikusi dute mundu-mailako gatazkak eragiten dituzten krisiak sortzen direla mendekotasunean oinarrituriko ordenatik nazioen arteko lankidetzan oinarrituriko ordenara aldatzeko bidean; hau da, egoera hobetze aldera askatasunean, berdintasunean eta justizia sozialean funtsa duen ordenara aldatzeko prozesuan. Kontuan izanda gizartea aldatzeko prozesuen eta jokabide dinamikoen emaitza, sarritan, lehenagoko indarren eta indar nazionalista sortu berrien arteko gatazka izaten dela; kontuan hartuta, halaber, bake iraunkorra lortuko bada inperialismo-kolonialismoa eta kolonialismo berria nagusi diren mundua eta horien ondorio guztiak desegin behar dituela gatazkak; eta ikusita eta onartuta munduko bakea arriskuan jartzen duten egoera oso larriak daudela gatazkaz josiriko sasoi honetan, Afrikan, Asian, Europan eta Latinoamerikan; era berean, kontuan izanda ezin dela ahaztu potentzia handien arteko lehiak gerra pitz dezakeela munduan... lerrokatu gabeko herrialdeetako buruek ondokoa adierazten dute:

Gaur egun inoiz baino larriagoak izan litezke gerraren ondorioak gizateriarentzat. Bestalde, inoiz ez du izan gizonak eskura gaurkoaren moduko botere indartsurik, gerra baztertzeko nazioarteko harremanetarako tresna politikoen artetik.

Ahultzen ari da inperialismoa. Gutxika-gutxika desagertzen ari dira historiako agertokitik inperio kolonialak eta Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako herriak zapaltzeko atzeritarrek izan dituzten bestelako bideak. (...) Amaitzear dago atzeritarrek herriak zapaltzen zituzten garaia, eta horrek herrien arteko bakezko lankidetzaren eskatzen du, independentziaren printzipioetan oinarriturikoa; herrien arteko berdintasuna izateko eta herriek aurrera egin dezaten, ezinbesteko baldintza da eskubide berdinak izatea.

(...)

Adierazitakoa eta bakoitzak bere herriaren borondatea kontuan izanda, Konferentzian parte hartzen ari diren herrialdeetako gobernuek erabat ukatzen dute ezinbestekoak direla gerra edo Gerra Hotza. (...)

13. Konferentziako parte-hartzaileek berretsi egiten dute beren iritzia ondoko puntuei dagokienez:

- a. Nazio guztiek dute batasunerako, autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea, eta eskubide horren arabera erabaki dezakete beren estatutu politikoa eta jarrai dezakete askatasunean garatzen ekonomia, gizartea eta kultura, larderiarik eta eragozpenik gabe.
- b. Herri guztiek erabil ditzakete beren ondasunak eta baliabide naturalak, beren helburuetarako; eskubidea dute nola erabili erabakitzeko, betiere ahaztu gabe

nazioarteko lankidetzak ekonomikoak dituen betebeharrak, guztien onerako eta nazioartearen eskubidean oinarriturik. Ezin dakizkioke inoiz ken herri bati bere bizitzeko baliabideak.

(...)

15. Konferentziako parte-hartzaileek uste dute nahitaez armagabetu behar dela eta horixe dela gizateriak duen eginkizun premiazkoena. (...)

(...)

21. Konferentziako parte-hartzaileek uste dute ahaleginak egin behar direla kolonialismoak eta inperialismoak eragindako desoreka ekonomikoa desegiteko. Beharrezko ikusten dute berdintzea bizitza-mailan dagoen gero eta alde handiagoa, ekonomia aurreratua duten herrialde gutxi batzuen eta ez hain aurreratua duten herrialde askoren artekoa, horretarako ekonomia, industria eta nekazaritza azkar garatuz. Konferentziako parte-hartzaileek gomendatzen dute berehala sortzeko eta martxan jartzeko Nazio Batuen Garapenerako kapital funts bat. Gainera, ados jarri dira merkataritza-baldintza justuak eskatzeko herrialde ez hain garatuentzat, eta, bereziki, ahalegin eraikitzaileak egin daitezkeen gorabehera handiegiak desagertzeko premia-premiako gaien merkataritzan eta, era berean, herrialde garatu berrietan merkataritzari eta sarrerei kalte egiten dieten neurri eta jokabide murriztaileak desager daitezkeen. Oro har, eskatzen dute erabil daitezela zientziaren eta teknologiaren iraultzaren emaitzak garapen ekonomikoko arlo guztietan, nazioarteko justizia soziala bizkorrago lor dadin.

22. Herrialde parte-hartzaileek dei egiten diete garatzeko bidean dauden herrialde guztiei elkarrekin lan egin dezaten ekonomian eta merkataritzan, ekonomiaren arloan aurre egiteko alde batetik presio-politikari eta, bestetik, herrialde industrialetako bloke ekonomikoek egin ditzaketan kalteei.

(...)

24. Herrialde parte-hartzaileek funtsezkotzat hartzen dute Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Gutuna berraztertuz, irtenbide bat aurkitzea Segurtasun Kontseiluko eta Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko kideen kopurua handitzea; horrela bateratu ahal izango dira, batetik, Batzar Nagusiko bi erakunde hain garrantzitsuen egitura eta lana, eta, bestetik, erakundearen beharrianak eta Nazio Batuen kide kopuru handitua.

(...)

27. Konferentzian parte hartzen ari diren herrialdeek uste dute Alemaniaren arazoa ez dela eskualdeko arazoa beste barik, baizik eta eragin erabakigarria izan dezakeela nazioarteko harremanek izan dezaketean norabidean.

Kezkaturik daude Alemaniako eta Berlingo egoera larritu duten gertaeren aurrean, eta herrialde parte-hartzaileek dei egiten diete kaltetutako alde guztiei, ez dezaten jo indarkeriara, eta ez dezaten erabili indarkeria mehatxu gisa Alemaniako gatazkaren edo Berlingo arazoaren konponbidean. (...)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 272-276.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Arroyo, F. (1984): *Subdesarrollo y Tercer Mundo*, Cincel, Madril.
- Bairoch, P. (1986): *El Tercer Mundo en la encrucijada*, Alianza, Madril.
- Barbé, E. (2007): *Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 3. argit.
- Benz, W. eta Graml, H. (1982): *El siglo XX. Problemas mundiales entre los dos bloques de poder*, Siglo XXI, Madril.
- Betts, R. (1998): *Decolonization*, Routledge, Londres.
- Brunel, S. (2000): *El subdesarrollo*, Mensajero, Bilbo.
- Campos Serrano, A. (2000): «La aparición de los estados africanos en el sistema internacional: la descolonización de Africa», in F. J. Peñas, (argit.), *África en el sistema internacional*, Catarata, Madril, 15-49.
- Chamberlain, M.E. (1997): *La descolonización. La caída de los imperios europeos*. Ariel, Bartzelona.
- Duara, P. (argit.) (2004): *Decolonization: perspectives from now and then*, Routledge, Londres.
- Freund, B. (1998): *The making of Contemporary Africa: The Development of African Society since 1800*, Rienner, Boulder.
- Fieldhouse, D.K. (1987, 4. argit.): *Los imperios coloniales desde el siglo XVIII*, Siglo XXI, Madril.
- Grimal, H. (1989): *Historia de las descolonizaciones del siglo XX*, IEPALA, Madril.
- Hargreaves, J.D. (1996): *Decolonization in Africa*, Longman, Londres.
- Lundestad, G. (2005): *East, West, North, South. Major Developments in International Relations since 1945*, 5. argit., Sage publications, Londres.
- Martínez Carreras, J.U. (1987): *Historia de la descolonización (1919-1996). Las independencias de África y Asia*, Istmo, Madril.
- Sánchez Cervello, J. (1997): *Descolonización y surgimiento del Tercer Mundo*, Hipòtesi, Bartzelona.
- Shipway, M. (2008): *Decolonization and its impact. A comparative approach to the end of the colonial empires*, Blackwell, Malden.
- Springhall, J. (2001): *Decolonization since 1945*, Palgrave, New York.

8. Latinoamerika. Azpigarapenaren eta iraultzaren artean

8.1. SARRERA

Irakurle batek Latinoamerikako 1945eko eta 2009ko mapei begiratuko balie, eta aldaketak konparatuko balitu garai bereko beste kontinenteetakoekin, ondorio batera helduko litzateke: mugei dagokienez, oso eremu egonkorra izan dela Latinoamerika. Izan ere, ez da lurralde-aldaketarik gertatu, European edo Asian bezala; ez dago muga berririk, Afrikan bezala, eta ia ez da gerrarik egon; eta egon direnean estatuen artekoak izan dira, eta oso laburrak (El Salvadorren eta Hondurasen artean 1969an eta 1979an, Argentinaren eta Britainia Handiaren artean 1982an, eta Peruren eta Ekuadorren artean 1995ean). Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da, ezegonkortasuna izan delako Latinoamerikaren historian aldatu ez den ezaugarria, orain arte behintzat. Barne-istiluek eta Estatu Batuen esku-hartzeak (zuzenean edo estatu-kolpeen bitartez) baldintzatu dute herrialde horien ibilbidea.

Latinoamerika kontzeptua bera ere eztabaidatu izan da. Batzuen ustez ez da existitu ere egiten, oso alde handiak daudelako Mexikoko Río Grandetik Patagoniako Ushuaiara, arrazen aniztasunari, hizkuntza eta kulturen ugaritasunari, gizarte-egiturari, ekonomiaren garapenari edota egoera politikoari erreparatzen badiegu. Ez da European kopia bat eta ez da sortu gizarte berri bat. Hango bizilagunak bakoitza bere nortasuna aldarrikatzen ari da; baina, era berean, beren arteko harremanak sendotu nahi dituzte. Izenak ere aldatzen joan dira: Hispanoamerika, Iberoamerika, Latinoamerika... definitu nahi zuten errealitatearen aldaketaren ispilu. Jatorrizko biztanleekin batera, lurralde horretako giza geografia osatzen dute Europatik (ez bakarrik Iberiar penintsulatik eta Italiatik), Afrikatik (esklabo beltzak bereziki), eta Asiatik (txinatarrak eta japoniarrak) joandakoek. Ez dago garbi geografikoki Hego edo Erdialdeko Amerikako hainbat estatu (Frantziaren, Britainia Handiaren edo Herbehereen kolonia izandakoak) Latinoamerikan sartzen diren. Ezin ahaztu, azkenik, Karibe itsasoan gelditzen direla oraindik hainbat kolonia. Beraz, ez da erraza batasunari buruz hitz egitea, baina badaude hainbat ezaugarri komun: hizkuntza nagusia gaztelania izatea, kultura nagusia katolizismoan oinarritzea eta, bereziki, ekonomiari dagokionez, garapen bidean dauden mendeko herrialdeak izatea, edo lehengaien esportatzaileak izatea.

Zenbait faktorek lagun dezakete egoera horiek ulertzen. Independentzia-prozesuen ezaugarriak dira lehen arrazoia. Espainiaren mendeko kolonien indepen-

dentziak, maiz, gerra zibilaren itxura izan zuen. Gerra horietan eta estatu berrien sorreran eta sendotze-prozesuetan toki garrantzitsua izan zuten istiluek, eta gizartearen elitea bi taldetan banatu zen: kontserbadoreak eta liberalak. Gobernuan agintzeko beren arteko txandatzeak bazterrean utzi zuen gizartearen gehiengoa. Armadek zeregin garrantzitsua izan dute estatu berrietan, botere militarra heldu zen tokietan finkatu ziren mugak, eta behin eta berriz errepikatu dira azken bi mendetan muga inguruko eztabaidak; 2009. urteko Kolonbiaren eta Venezuelaren arteko eztabaidak dira horren lekuko. Armaden zeregina ez zen mugatu borroketara; herrialdeetako lurraldeak eta kultura integratzeko egin zuten lan, eta estatu berrien egituraren oinarri bilakatu ziren. Independentziek ez zituzten ezabatu arrazan, ekonomian eta estatusean oinarritutako desberdintasun handiak; orain ere lurraren jabetzan dauden aldeak, latifundioaren garrantzia bereziki, dira horren adibide deigarriena. Latinoamerikaren bilakaera ulertu ahal izateko, funtsezkoa da kanpokoen eragina ezagutzea (Britainia Handiarena XIX. mendean eta Estatu Batuena XX. mendean).

Bi egileren lanek laburbiltzen dituzte hango historiari buruzko ikuspegi nagusiak, eskuin muturrekoak alde batera uzten baditugu. 1971n Eduardo Galeanok *Las venas abiertas de América Latina* liburua kaleratu zuen. Latinoamerikaren egoera azaltzeko mendekotasunaren teoria (gaur egun azpigarapena deitzen zaiona) landu zuen; hots, Galeanoren iritzia arabera, inperialismoaren ondorioa zen Latinoamerikako egoera. Lehenengo europarrak aberastu ziren hegoamerikarren kontura; Estatu Batuak ondoren, eta, horretarako, eskura zituzten baliabide guztiak, indarkeria barne, erabili zituzten inolako gupidarik gabe. Tokian tokiko agintariak ustelak ziren eta kanpotarren zerbitzura aritu ziren. Mila adibide ematen ditu Galeanok bere lanean eta bikain idatzitako testua da, baina mundua zuria ala beltz erakusten du. Horren aurrean, iraultza zen berak ikusten zuen irtenbide bakarra.

Egile asko saiatu da Galeanoren ekarpenak kolokan jartzen, baina gutxiak lortu du. Horietako bat da Mario Vargas Llosa perutar idazlea. Gai horren inguruko lanen bilduma da *Sables y utopías* (2009) liburua. Vargas Llosak, gizarte-desberdintasunak ukatu gabe, politikan jartzen du erreferentzien gunea; askatasunaren garrantzian oinarritzen du bere diskurtsoa eta uko egiten die militarrek hain maiz gauzatutako esku-hartzeari eta iraultzaileen amesgaiztoko proposamenei. Vargas Llosaren ustez, militarrek eta iraultzaileek, bi taldeek bortxatzen dute gizakiaren askatasuna, eta garaipena bilatzeko gizakia mespretxatzen duten baliabideetara jotzen dute. Militarren ahaleginek azkeneko bi hamarkadetan garrantzia galdu dutenez, gizarte-justiziaren izenean XIX. mendeko European porrot egin zuten utopiak Amerikan gauzatzen saiatu direnek kezkatzen dute Vargas Llosa. Enrique Krauze mexikar historialariak ere Vargas Llosaren bidetik jo du, eta talde horiei leporatzen die herrialdearen zoritxarraren jatorria: hango buruzagiei, gobernari ustel eta zapaltzaileei, eraginkortasunik gabeko eliteei eta errealitatearekin zerikusirik ez duten intelektualei. Michael Reid britainiar kazetariak are gehiago esan berri du:

Latinoamerikako garapenak beste herrialde bat sortu duela, ongizatearen bidean dagoena, eta hori ulertzeko alde batera utzi behar direla orain arteko azalpen sinplistik eta orokorregiak. Reiden ustez, ezin da Latinoamerika estereotipoen (iraultzaileak eta oligarkak) bitartez azaldu, eta geu ere horretan saiatuko gara hurrengo orrialdeetan.

8.1. 1997 Latinoamerikako luraren jabetzaren banaketa.



Iturria: Smith, D. (1997): *Atlas del estado de la guerra y la paz*, Akal, Madril.

8.2. *ESTATU BATUEN NAGUSIGOA ETA ESKU-HARTZEA*

Estatu Batuen nagusigoak eta esku-hartzeak baldintzatu dute neurri handian Latinoamerikako historia garaikidea. Nagusigo eta interbentzionismo horiek ez ziren Gerra Hotzaren garaian hasi; XIX. mendean baizik. Hegemonia horren lehen adibidea Monroe presidentearen 1823ko adierazpen bat izan zen: «Amerika amerikarrentzat»; Monroe doktrina moduan ezagutzen da. Lelo horren bitartez azaldu ziren europarrei ez zuela onartuko kolonia gehiago Amerikan, ez eta Europak esku hartzea ere independentzia lortu berri zuten lurraldeetan. Aitzitik, XIX. mende-bukaerarako, ordea, Monroe doktrinak Estatu Batuen esku-hartze zuzena zuritu zuen. 1898ko gerran, AEBk mendean hartu zituen Kuba, Puerto Rico eta Karibe itsasoko hainbat uharte. Politika interbentzionista horren beste urrats bat Erdialdeko Amerikan egin zen, 1903. urtean. AEBren laguntzaz, Panamak independentzia lortu zuen (ordura arte Kolonbiako lurraldea zen) eta, berehala, Panamak eta AEBk kanala egitea erabaki zuten. Hay-Bunau Varilla Hitzarmenari esker, AEBk kanalaren inguruko 10 milia zabaleko lurraldearen kontrola lortu zuen; era berean, Panaman esku hartzeko eskubidea, betiere kanaleko zirkulazioa babesteko edo barneko ordena publikoa bermatzeko. Garai hartan, Roosevelt presidentearen korolarioarekin (1904) osatu zen Monroe doktrina. Ikuspuntu berriaren arabera, Latinoamerikako herrialderen batean estatubatuarren interesak edota jabetzak arriskuan baldin bazeuden, Estatu Batuetako gobernu behartuta zegoen esku hartzera interes horiek babesteko.

Monroe doktrinan eta Rooseveltten korolarioan oinarrituz, 1905etik 1930era bitartean «big stick» (makila handia) izeneko politikari jarraitu zion AEBk Latinoamerikan: maiz esku hartu zuten, batez ere Erdialdeko Amerikan eta Karibe aldean, beren interes ekonomiko eta politikoen alde. 1930eko hamarkadan «auzotasun oneko» politika jarri zen indarrean, eta bigundu egin zuten aurreko politika gogorra.

II. Mundu Gerraren ostean, AEBk eutsi egin zion bere hegemoniari Iberoamerikan, eta baldintza berrietara (blokeen politikara, Gerra Hotzera, komunismoaren aurkako borrokara) egokitu zuten. Nazioarteko erakunde berriak sortu ziren moldatze-prozesu horretan: TIAR (Tratado Interamericano de Asistencia Recíproca) 1947an, defentsa kolektiboa arautzen zuen hitzarmena; eta OEA (Organización de los Estados Americanos) 1948. urtean. OEAk Ameriketako lurraldeen arteko harremanak bideratu eta koordinatu behar zituen; bestalde, Latinoamerikako garapen ekonomikoa bultzatzeko ardura hartu zuten Estatu Batuek. AEBk prozesu iraultzaileen kontra borrokatzeko erabili zuen erakunde berria. Gerra Hotzaren testuinguruan, AEBren ekimenez, nazioarteko komunismoa gaitzetsi zuen OEAk; babesa eman zion AEBri Guatemalan esku hartzeko ustezko gobernu komunista baten kontra; eta 1962an Kuba erakundetik botatzea erabaki zuen. AEBren esku-hartze zuzen garrantzitsuenak Guatemalan, Kuban eta Dominikar Errepublikan gertatu ziren.

Oligarkia lurjabearen eta estatubatuarren kapitalaren (United Fruit Company-ren) esku zeuden Guatemalako baliabide ekonomiko nagusiak. Enpresa horrek kontrolatzen zituen banana-produkzioa, trenbide-sarea eta energia elektrikoa. 1952an, Jacobo Arbenz presidente zela, Guatemalako gobernuak laborantza-erreforma bultzatu zuen; erreforma horren ondorioz, United Fruit-ek landu gabe zituen lurra desjabetu behar ziren. Enpresak ez zuen onartu gobernuaren erabakia eta Estatu Batuen interbentzio militarra eskatu zuen. Hala gertatu zen 1954. urtean; Guatemalako gobernuak komunista zela argudiatuz, AEBk esku hartu eta diktadura militarra ezarri zen.

Kubako Iraultzak ere ondorioak izan zituen Iberoamerikaren eta AEBren arteko harremanetan. Fidel Castrok, boterea hartu bezain laster, estatubatuarren jabetzak nazionalizatu zituen. Presio ekonomikoa izan zen AEBren erantzuna, ez zuten Kubako azukrerik erosiko; baina ezerezean geratu zen erabakiaren eragin-kortasuna, Sobietar Batasunak bere burua eskaini baitzuen Kubako azukre guztia erosteko. Horren aurrean esku-hartze militarra prestatu zuen CIAk, kubatar exiliatuen bitartez; baina 1961eko inbaditzeko ahalegina sekulako porrota izan zen Bahia Cochinos-en. Iraultza hedatzeko arriskua zegoela-eta, Estatu Batuetako administrazioak (Kennedy presidente zela) politika berria proposatu zuen Latinoamerikarako 1961. urtean bertan: Aurrerapenerako Aliantza. Latinoamerikako garapen ekonomikoa eta soziala uztartzea zen helburua, eta horretarako laguntza ekonomikoa bideratuko zuen AEBk. Porrot egin zuen egitasmoak eta ez zuen helburua lortu, Vietnamgo Gerra zela-eta; hartan erabili baitzen Latinoamerikarako behar zen laguntza ekonomikoa.

Aurrerapenerako Aliantzaren porrotaren ostean, AEBk bestelako bitarteko batzuk erabili zituen Iberoamerikako politika baldintzatzeko. Alde batetik, Johnson presidentearen garaian, indarrean jarri zen berriro ere interbentzionismoa: 1964an Dominikar Errepublikan esku hartu zuten militar kolpistek kendutako Juan Bosch presidentearen itzulera eragozteko. Aldi berean, Estatu Batuek babesa eta sostengua eman zieten AEBren interes ekonomikoak defendatzen zituzten eskuineko gobernuari edo diktadurari (1964an estatu-kolpea eman zuten Brasilen, AEBren babesean). Bestalde, Latinoamerikako armaden gaineko kontrol handia ezarri zuten Estatu Batuek: berek hornitzen eta entrenatzen zituzten, batez ere ezkerreko gerrillen kontra borrokatzeko prestatuz. Azkenik, presio ekonomikoa ere erabiltzen zen Iberoamerikako herrialdeen politika baldintzatzeko.

J. Carterren garaian, bigundu egin zen Estatu Batuen Iberoamerikarako politika. Presidente berriak bi printzipio aldarrikatu zituen: giza eskubideen defentsa eta nazioen subiranotasuna. Ondorioz, diktadurari emandako babesa murriztu egin zen kasu batzuetan. Bestalde, Panamarekin hasi ziren elkarrizketan, herrialde horrek kanalaren gaineko subiranotasuna berreskura zezan. Baina Reagan eta Bush presidenteen garaian bertan behera utzi ziren saiakera horiek, eta berriro jarri zen

indarrean esku-hartze militarra: 1983an Karibeko Grenada uharte txikia okupatu zuten estatubatuarrek, Kubaren mende geratzeko arriskuan zegoelako. 1989an Panama inbaditu zuten, hango presidentea, Noriega jenerala, narkotrafikoan nahasirik zegoelakoan; baina kanalaren kontrola ziurtatzea zen atzean zegoen asmoa. Zuzenean parte hartu ez arren, Estatu Batuek trebatu eta diruz hornitu zituzten Nikaraguan gobernu sandinistaren kontra aritu ziren gerrillariak, 1980ko hamarkadaren bukaeran.

8.3. LATINOAMERIKAKO EGOERA XX. MENDEAREN ERDIALDERA

XX. mendearen hasieran, Latinoamerikako herrialde gehienetan, egitura ekonomikoa lehengaien esportazioan oinarritzen zen. Honako hauek esportatzen ziren: mineralak, klima epeleko nekazaritza-produktuak (zerealak eta haragia) eta klima tropikalekoak (azukrea, kafea, kakaoa, kotoia, tabakoa eta abar). Hego Amerikako ekonomiak mundu-merkatu irekita zeuden eta, beraz, muga-zerga eta neurri protekzionista gutxi zituzten. Zenbait herrialdetan, barne-merkatua hornituko zuen industria arina ere garatu zen. Estatuaren esku-hartze eskasa izan zen garai hartako latinoamerikar ekonomiaren beste ezaugarri bat. Beraz, ekonomia zeharo integratuta zegoen nazioarteko merkataritzan; kostaldeko hirien hazkundera dugu egoera horren lekuko nabarmena. Baina, edozein kasutan, deigarria da nekazaritzak zer pisu zuen herrialde guztietan.

1930eko hamarkadan, aldatzen hasi zen eredu ekonomikoa. Mundu-merkatu irekirik zeuden ekonomiak izanik, kanpo-merkatuaren gorabeherak eragin handia zuten barne-ekonomiaren bilakaeran. Horregatik, 1929ko munduko krisi ekonomikoa eragin handia izan zuen Latinoamerikako herrialdeetan: Depresio Handiaren ondorioz, behera egin zuen nazioarteko merkataritzak, jaitsi egin ziren prezioak (batez ere lehengaienak), eta ikaragarri gutxitu ziren esportazioaren bidez heltzen ziren dibisak. Horren guztiaren ondorioz, inportatzeko ahalmena ere gutxitu egin zen eta kapital- eta finantza-mugimenduak eten egin ziren (ia ezinezkoa zen nazioarteko merkatuetan finantzaketa lortzea). Testuinguru horretan, Bigarren Mundu Gerrak aldaketa ekarri zuen: murriztu egin ziren herri industrializatuetatik Hirugarren Mundura bideratutako esportazioak. Beraz, batetik, 1929ko *krakaren* ondorioz gutxitu egin zen inportatzeko gaitasuna eta, bestetik, produktu manufakturatuen eskaintzak ere behera egin zuen Bigarren Mundu Gerraren eraginez.

Egoera hartan, aldatzen hasi ziren Latinoamerikako herrialdeetako politika ekonomikoa eta beste garapen-eredu bat jarri zuten indarrean: «barneranzko hazkundera». Hego Amerikako ekonomiak «itxi» egin ziren, herrialde horiek industrializatzeko asmoz. Honako hauek izan ziren eredu berriaren ezaugarriak: estatuaren parte-hartze ekonomikoa (erakunde ofizialak sortu ziren barne-produkzio industrialia bultzatzeko); protekzionismoa, barne-produkzioa babesteko asmoz, eta kontsumo-ondasunetan oinarritutako inportazioen ordeztiko industrializazioa.

Era paradoxikoan, Estatu Batuen eragina biderkatu egin zuen politika horrek, estatubatuarrak zirelako esportazio gehienen hartzaile Europak huts egin ondoren, berek bultzatu zutelako industrializazioaren zati bat, faxismotik hurbil zeuden hainbat herrialde beren aldera erakartzeko eta, bereziki, berek finantzatu zutelako aldaketa, mailegu eta inbertsio pribatuen bitartez. Ondorioz, asko igo zen Latinoamerikaren kanpo-zorra eta handitu egin zen mendekotasuna urte horietan.

Garaiko gizarteari dagokionez, hiru ezaugarri nabarmenduko ditugu. Lehena, biztanleriaren hazkunde handia: 1900. urtean 61.871.000 biztanle zituen Latinoamerikak eta 165.000.000 1950. urtean. 1929tik aurrera, herrialde gehienek ateak itxi zizkioten emigrazioari, baina, hala ere, asko igo zen biztanleria, oso handia baitzen hazkunde begetatiboa (hilkortasun-tasa jaitsi egin zen eta oso goran mantendu zen jaiotza-tasa). 1930. urtea baino lehen % 1,8 zen hazkundera, eta 1940ko hamarkadan % 2,3. Ikusiko dugunez, hazkunde hori XX. mende osoan mantendu da eta murriztu egin ditu bilakaera ekonomikoaren ondorio onuragarriak populazioaren bizi-mailan.

Hiriek hartu zuten garrantzia izan zen bigarren ezaugarria. Latinoamerika nekazari-inguruekin lotzen badugu ere, 1951rako biztanleriaren % 41 hirietan bizi zen, besteak beste landa-exodoa gertatu zelako. Gehiegizko hazkundearen ondorioz, era desorekatuan urbanizatu ziren hiriak eta hiri-inguruak, hirietako produkzio- eta zerbitzu-egiturek ezin zutelako hartu landa-mundutik heltzen zen migrazioa. Biztanle berriek arazoak zituzten etxebizitza eta lana aurkitzeko, eta hirien kanpoko aldeetan txabolaz osatutako auzo baztertuak sortu ziren. Hirien eraldaketa horretan, hirugarren sektoreak aurrea hartu zion industriako langileriarri. Baina «azpigaratua» zen hirugarren sektore hori: produktibitate gutxiko lanbideek, araurik gabeko jarduerak, saltzaile ibiltariak eta abarrek osatzen zuten.

Aldaketa kuantitatiboa gorabehera, egitura sozialak mantentzea izan zen hirugarren ezaugarria. Oro har, gizarte heterogeneoak ditugu latinoamerikarrak, kideen arteko aldeak oso handiak direnez kohesio gutxikoak eta, ondorioz, gizarte eze-gonkorak eta gatazkatsuak. Oligarkia tradizionala dugu hierarkizazio sozialaren maila gorenean: lurjabe handiak eta jarduera ekonomiko berrietako (kanpomerkataritzako, industriako eta finantzen munduko) buruzagiak. Burgesia handi horrek, kasu gehienetan, estatuaren egiturak kontrolatzen zituen. Klase ertainak ditugu bigarren mailan: industrializazioaren, hiri-garapenaren eta estatuaren administrazioa handitzearen ondorioz indartutako taldea zen. Oso talde heterogeneoa zen, askotariko kategoria sozioprofesionalak sartzen baitziren talde horretan: teknikariak, merkataria, funtzionarioak, hirugarren sektorean aritzen diren profesionalak, langile kualifikatuak, armadako kideak, eta abar. Talde horren eragin politiko eta soziala hirietan azaldu zen. Zenbait kasutan, klase ertainak indarra hartu zuen herrialdeetan (Argentinan, Txilen, Uruguain, Mexikon eta Brasilen), 1930eko eta 1940ko hamarkadetan egitismo populistei aurrera egiten lagundu zieten.

8.2. 2001 Latinoamerikako klase ertainaren proportzioa.



Iturria: Overy, R. (2001): *Atlas Ilustrado de Historia Mundial*, Reader's Digest, Mexiko.

Industriako eta merkataritzako soldatapekoak eta laborariak zeuden gizarte-egituraren oinarrian. Soldatapekoek hazkunde nabaria izan zuten garapen ekonomikoaren ondorioz eta, hirietan bizi zirenez, errazago plazara zitzaketen beren eskakizunak. Nekazarien masak (gizarteko talde handienak) zituen bizi-baldintza txarrenak eta, kasu askotan, legedi sozialek ez zuten kolektibo hori babesten, ez zirelako landara iristen hirietako zenbait zerbitzu, edo legeetan ez zelako haiei buruzko erreferentziarik agertzen.

Politikari dagokionez, aniztasuna da latinoamerikar herrialdeen ezaugarri esanguratsua, denetik baitzegoen: diktadurak, sistema liberalak eta demokraziak. Dena den, mugatuta zuten boto-eskubidea herrialde gehienek, irakurtzen jakitea ezinbesteko baldintza zelako eta, gainera, zenbait tokitan, herrialdean jaiotakoek bakarrik zutelako eskubide hori. Horrela, sistema politiko araututik kanpo gelditzen ziren atzerritarrak. Dena den, garaiko berrikuntza izan zen alderdi politiko berriak sortzea eta talde sozialen jarduerak indartzea. Horren adibide dugu, Argentinan, Unión Civica Radical ezkerreko alderdiak irabaztea 1916ko hauteskundeak. Baina Mexikoko Iraultza izan zen gertakizun garrantzitsuenak; izan ere, 1911tik 1917ra bitartean hango sistema politikoa eraldatu zuen eta, hurrengo urteetan, hainbat aldaketa bultzatu zituen: lursail asko banatu zuten agintari berriek eta lur azpiko baliabideak, petrolioa bereziki, estatuaren esku utzi zituzten 1938. urtean. Mexikoko Iraultzak sona handia izan zuen, baina jarraitzaile gutxi: ezkerreko taldeak hirietako langileen artean indartu ziren, eta ez zieten arretarik eskaini ez nekazariei, ezta indioei ere.

1930etik aurrera, krisi ekonomikoak aldaketak eragin zituen, ordura arteko eliteak ezin baitzion aurre egin, eta gizarte-gatazkak sortzeko beldurra zabaldu zen. Egoera horretan, ugaritu egin zen militarren esku-hartzea (batzuetan erreformistena, bestetan kontserbadoreena). Oro har, aurreko liberalismoaren aurrean, estatu esku-hartzailea nagusitu zen, barne-garapena bultzatzeko, industria garatzeko eta eskari nazionalistak asetzeko. Italiako faxismoak eta irtenbide korporatiboek jarraitzaile bat baino gehiago izan zuten Latinoamerikan.

8.4. LATINOAMERIKAKO BILAKAERA EKONOMIKO ETA SOZIALA 1945ETIK 1980RA BITARTEAN

Era kontrajarrian definitu izan da garai hau bilakaera ekonomikoa izendatzeko orduan. Ikertzaile batzuek «aukera galdua»ren garaitzat hartu dute; beste batzuek, aldiz, une arrakastatsutzat hartzen dute. Lehenengoen egiturazko arazoak ez desagertzeari erreparatzen diote, bigarrenen BPGren hazkunderari. Bilakaera horretan eragin handia izan zuten Latinoamerikako baldintzek (barne-egoerak, alegia) eta nazioarteko egoerak. Aurreko urteetako joerak indartu ziren, besteak beste, estatuaren esku-hartzea ekonomian: industria bultzatu, protekzionismoa sustatu, maileguak eman eta enpresa publikoak sortu. Desarrollismoa (herrialde garatuak

berdintzeko ahalegina) zen garaiko pentsamendu ekonomikoaren muina, eta horretan bat egiten zuten estatuko eliteek, enpresa handiek eta tokian tokiko burgesiek. Hazkundera bermatzeaz gain, joera berriek klase herritarren kontrola ahalbidetuko zuten. Aurreko garaian bezala, kanpo-inbertsioak onartu ziren industrializazioaren abiadura bizkortzeko, eta zor horrek makina bat arazo sorrarazi zituen etorkizunearan.

Politika ekonomiko berriaren lehen emaitza Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarkadetako hazkunde ekonomiko nabaria izan zen: BPGren hazkunde-tasa % 5,5 izan zen 1946tik 1973ra bitartean, eta industrializazioa izan zen hazkunderaren faktorerik garrantzitsuenak. Baina industrializazio hori, batetik, mugatua izan zen eta, bestetik, eskualdeen arteko desorekak areagotu zituen. Bestalde, gehiegi hazi zen biztanleria, eta horrek hazkunde ekonomikoaren ondorio sozialak mugatu zituen. Edozein modutan, nahiz eta gorabeherak izan, 1970eko hamarkadara arte iraun zuen hazkunde ekonomikoak.

Honako hauek izan ziren hazkunde edo garapen-eredu horren ezaugarriak: merkatu gatibu bat edukitzea, maiz tamaina txikikoa, eta horren ondorioz enpresen lehiakortasuna ahultzea. Kasu askotan, gainera, gehiegizkoa zen babesak eta, gainera, kanpoko kapitalarekin sortutako industria babestu zen. Enpresa horiek politika protekzionistatik lortzen zuten etekina, nahiz eta produkzio-sistema eta erabiltzen zuten teknologia zaharkiturik egon. Barne-merkatua oso mugatua zenez, hazkundera ere bai. Atzeratuta zegoen ekipo-ondasunen industria eta oso gutxi garatuta; egoera horretan, ez ziren gai izan ez inportazioak ordezkatzeko, ez eta beren produktuak esportatzeko ere. Horregatik, ezinbestekoak ziren inportazioak sektore horretan, batez ere makinariaren eta teknologiaren alorretan. Dibisak behar ziren inportazioak ordaintzeko eta 1970eko hamarkadan, esportazioek behera egin zutenean, krisia sortu zen ordainketa-balantzan. Beste mailegu batzuk eskatu behar izan zituzten. Enpresa pribatuak ahulegiak ziren eta ustelkeria eta espekulazioa non-nahi agertzen ziren. 1980ko hamarkadan, garapen eta hazkunde horren kontraesan guztiak nahasirik lehertu ziren krisi gogorrean.

Gizarteari zegokionez, aurreko hamarkadetako joerak mantendu ziren, batzuk ahuldu arren. Hazkunde demografikoak gorantz jarraitu zuen, besteak beste, haurhilkortasunak behera egin zuelako. 1950eko hamarkadan, hazkunde tasa % 2,8 zen, eta 1960koan % 3,2, munduko hazkunde-tasarik handiena. Horrela iritsi ziren 1970ean 285 milioi biztanle izatera Latinoamerikan. Handitu egin zen hirien pisua eta, 1980an, hirietan bizi zen biztanleriaren % 65. Lehenago esan dugun bezala, nekazari-guneetatik hirira alde egin zuten Hego Amerikako eta Erdialdeko Amerikako biztanleek, eta migrazio horiek larritu egin zituzten hirietako arazoak: etxebizitza falta, zerbitzuen eskasia, langabezia altua eta gizarteko ezinegona. Klase ertain zabala agertu zen lehen aldiz eta, haiekin batera, kontsumo-eredu berriak. 1960ko hamarkadan, talde horretako zenbait sektorek kontserbadorismorantz jo

zuten, iraultzaren beldur. Biztanleria aktiboaren estatistiketan, handitu egin zen industriaren eta zerbitzuen pisua eta, 1980an, langileen % 25,9 eta % 42,3 ari ziren sektore horietan, hurrenez hurren, kontinente osoan. Sindikatuak ere hazi egin ziren, baina kasu gehienetan, era batera edo bestera, estatuak kontrolatu zuen haien jarduera.

Ezaugarri orokor horien azpian, herrialdeen eta eskualdeen arteko alde nabariak daude. Garapen-mailaren arabera, hiru gizarte mota bereiz daitezke: herrialde garatuak, azpigaratuak eta egitura dualekoak. Herrialde garatuek egitura sozial homogeneoagoak zituzten: baserri-mundu urria da eta hiritartze handia, % 80 ingurukoa; Txile, Argentina eta Uruguai ziren eredu horren ordezkari nabarmenak. Beste herrialdeekin konparatuta, hobea zen bizi-maila, goserik ez zegoen, analfabetismoa ia desagertu egin zen, eta jaiotza-tasa eta haurren hilkortasun-tasa hurbil zeuden Europako herrialdeen mailatik. Herrialde azpigaratuetan, aldiz, gehienak indigenak edota nekazariak ziren, eta bizimodu tradizionalak pisu handia izaten jarraitzen zuen. Europar jatorriko populazioak kontrolatzen zituen bitarteko ekonomikoak eta egitura politiko garrantzitsuenak. Klase ertainak oso ahulak ziren, eta errenta per capita oso eskasa. Arrunta zen gaizki elikaturik egotea eta oso altua zen hazkunde demografikoa. Bolivia, Ekuador eta Erdialdeko Amerikako herrialdeak sartzen ziren multzo horretan. Egitura dualeko herrialdeetan, berriz, aurreko bi ereduak elkartzen ziren, gehienetan geografikoki banatuta, baina batzuetan bata bestearen ondoan. Brasilek, Venezuelak eta Mexikok zuten egitura duala, eta hiri nagusiak (Sao Paulo, Caracas eta Mexiko DF) izan ziren bi eredu hurbiltasunaren erreferentziak.

Gizarte-aldaketen artean, Eliza Katolikoaren bilakaera dugu aipagai. 1960ko hamarkadara arte, kontserbadorismoaren beste zutabe bat izan zen. Harrezkero, Elizaren sektore batzuk desberdintasun eta injustizia sozialak salatzen hasi ziren Vatikanoko II. Kontzilioko irakaspenen bidetik. Latinoamerikan sortu zen «askapenaren teologia» eta garai batean jarraitzaile asko izan zituen, Joan Paulo II.a Aita Santua kontuak eskatzen hasi zen arte. Ez zen harritzekoa urte horietan erlijioso ugari gerrilla taldeetan ikustea edo marxismoaren doktrinekin bat eginda aritzea. Askapenaren teologia bultzatzen zutenen artean (Leonardo Boff da ezagunena) galdera bat nagusitu zen: nola iragarri Jesusen berria zurien gaixotasunen eta ustiakuntzaren ondorioz hiltzen ari ziren indigenei eta behartsuei? Muturreko pobrezia eta bazterketa kulturalak eraman zituzten erlijioso horiek Elizaren balizko edo ustezko neutraltasun politikoa salatzeraz eta askapenaren teologiara hurbiltzera, teologoaren neutraltasun soziala alde batera utzita. Garai bertsuan hasi zen orain garrantzia hartzen ari den beste fenomeno erlijioso bat: eliza protestante pentekostalisten zabalkundea.

8.5. 1945ETIK 1980RA ARTEKO BILAKAERA POLITIKOA: POPULISTAK, MILITARRAK ETA GERRILLARIAK

Ezagonkortasuna da Latinoamerikako politikaren ezaugarri nagusia 1945etik 1980ra bitartean. Herrialde bakoitzak bere bidea izan bazuen ere, gehienetan gertatu ziren eliteen arteko borrokak, herri-klaseen mobilizazioak eta militarren presentzia bizitza publikoan. Hiru izan ziren orduko fenomeno nagusiak: populismoa, iraultza eta gerrilla-mugimenduak, eta militarren esku-hartzea.

8.5.1. Populismoa

Era askotako herrietan sortu bada ere, Latinoamerikan eragin nabaria izan du fenomeno politiko horrek. Ez da erraza definitzea, ezaugarri kontrajarriak biltzen baititu, baina eman daiteke argibide bat. Populismoak herriari egiten dio dei, estatua elite edo buruzagi berri batek bereganatzeko edo estatua sendotzeko. Trantsizio-uneetan azaldu ohi da, industrializazioa eta hiritartzea gertatzen ari direnean esate baterako, eta gizarte-taldeak ondo definitu gabe daudenean. Ohiko bitartekari politikoak desagertzea eskatzen du populismoak, eta harreman zuzena izatea herriaren eta buruzagiaren artean. Harreman hori ez da metafisikoa, mesede-trukean oinarritzen da: buruzagiak babes politikoak aurkitzen du, jarraitzaileek gutxieneko ongizatea bermatuta dute eta bizitza politikoan ordura arte izan ez zuten tokia bereganatzeko aukera ere bai. Hori izan zen Latinoamerikako kasua.

XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran Hego Amerikako sistema politikoak oligarkikoak ziren eta bi alderdi politikotan oinarritzen ziren: liberalak eta kontserbadoreak txandakatzen ziren agintean. Herri-masak ez zeuden bizitza politiko nazionalen sartuta, ezin zutelako parte hartu, erroldatik kanpo zeudelako edota hauteskunde-iruzurra nagusitzen zelako. 1930eko hamarkadatik aurrerako al-daketa sozioekonomikoez berrikuntzak eragin zituzten eremu politikoan. Industrializazioak eta urbanizazioak talde sozial berriak zabaldu zituzten, langileria eta hirietako klase ertainak batez ere, eta horien eskakizunen artean zegoen sistema oligarkiko zaharkituak berritzatzeko eskaera. Talde horiek protagonismo berriak hartu zituzten bizitza politikoan, eta sufragio unibertsala ezartzeak politikan integrazteko bide berriak ireki zituen. Testuinguru horretan, mugimendu populistak sortu ziren, gizarte-talde berrien atxikimendua bereganatuz kasu askotan. Askotarikoz eskakizunak eta ezaugarriak zituzten, baina honako hauek nabarmendu ziren: mugimendu nazionalistak ziren eta inperialismoaren aurkakoak, hots AEBren kontrakoak; herri osoaren interesen defendatzaile gisa agertzen zuten beren burua, baina klase eta klase-borrokak kontzeptuak alboratzen zituzten; justizia soziala aldarrikatzen zuten eta gizarte-erreformarako politika bultzatzen zuten; buruzagitza karismatikoa zeukaten eta kaudillismoarako joera eta estatuaren esku-hartze politiko eta soziala bultzatzen zuten.

Eragin nabaria izan zuen populismoak 1930eko, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan Brasilen (Getulio Vargas presidentearekin), Ekuadorren (Velasco Ibarra-rekin), Mexikon (Cardenasekin), Bolivian (Paz Estensororekin), besteak beste. Baina Argentinako peronismoa izan zen adibiderik finena. Juan Domingo Perón militarrek 1943ko estatu-kolpean hartu zuen parte, eta lan-ministro kargura heldu zen; erreforma sozialaren aldeko politika bultzatu zuenez, langileriaren atxikimendua lortu zuen. 1946. urteko hauteskundeetan garaipena lortu zuen eta 1955. urtera arte egon zen agintean. Perónen garaipena azaltzeko, langile-mugimenduaren laguntza eta sostengua izan zen faktore nagusietako bat. Hala ere, oso sektore sozial desberdinek babestu zuten peronismoa, baita eskuineko sektore nazionalistak berak ere, hots, Armadak eta Elizak. Peronismoaren politika gauzatzeko, metodo autoritarioak (komunikabideen kontrola, garbiketa administrazioan, unibertsitatearen eta justiziaren kontrola) erabili zituzten agintari berriek, baina modernizazioa bultzatu zuten, nazionalismo ekonomikoak estatuaren esku-hartze ekonomikoa indartu zuelako, eta horrela industrializazioa sustatu. Estatu Batuekin harreman txarra izan zuten, horrek sentimendu nazionalista indartu zuen argentinarren artean, eta inperialismoaren aurkako itxura hartu zuen agintarien jarrerak. Espainiarekin, aldiz, harreman onak izan zituen Argentinak garai hartan.

Gizartea berrizatzera ere bideratu zen Perónen lana, eta herritarren lan- eta bizi-baldintzak hobetu zituzten. Herri-masak erakartzeko eta Perónen politikarekin bat egiteko, protagonismo handia izan zuen haren emazteak, Evitak, behartsuen aldeko babes sozialeko jarduera ugari bultzatu baitzituen (1952. urtean hil zenean, mugimendu peronistaren ikur eta Argentinako mito bihurtu zen). 1950eko hamarkadan, arazo ekonomikoak pilatu egin ziren, gobernuak ez zuelako modernizatzen bideratzeko eta politika soziala bultzatzeko behar zen kapitalik, eta estatuaren zorra eta inflazioa handitu egin ziren. Ondorioz, tentsio sozialak areagotu ziren eta Perónen kontrako oposizioa indartu zen. Testuinguru horretan, Armadaren babes bere galdu egin zuen Perónek. 1955ean, estatu-kolpe baten ondorioz, Perónek —behartuta— dimisioa aurkeztu zuen eta atzerrira alde egin zuen. 1973an aukeratu zuten berriro presidente, baina handik urtebetera hil zen.

8.5.2. Iraultza eta gerrilla-mugimenduak

Independentzia-garaitik aurrera, indarkeria politikoa eragile garrantzitsua izan da Latinoamerikako ia herrialde guztietan aldaketa politikoak eragiteko; baina estatuaren garapenak, armadak sendotzeak eta parte-hartze politikorako aukerak murriztu egin zuten indarkeriaren eragina. Langileen eta nekazarien protesta askotan indarkeriak presentzia nabarmena izan zuen, baina kasu gehienetan estatuak eta enpresariak erabilitakoaren erantzuna baino ez zen. Bigarren Mundu Gerraren ostean, ordea, berriro azaldu ziren botere politikoa eskuratu nahi zuten talde armatuak. Horien artean lehenengoa, eta oraindik (2009ko abenduan) bizirik dagoena,

Kolonbiako FARC (*Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia*) taldea dugu. 1948an sortu zen, alderdi liberaleko buruzagia hil ostean, eta bultzatzaileek matxinadarako bidea hartu zuten, beste era batera boterea aldatzea ezinezkoa zelakoan. FARCen eta ondoren sortutako lehenengo taldeen ezaugarri nagusiak ziren nazionalista izatea, ezkerreko agertzea, eta Estatu Batuen politikaren aurka egotea. Bide propioa garatu zuten, ez baitziren marxistak, hasieran behintzat. Izan ere, garai hartan alderdi komunistak matxinadaren bidearen aurka azaldu ziren Latinoamerikan. Gerrilla horiek azpigarapenetik ateratzeko aukera moduan aurkeztu baziren ere, faktore politikoa da haiek agertzearen funtsezko arrazoia; hala gertatu zen Kuban, Batistaren diktaduraren kontrola ezabatzeko sortu baitzen «Movimiento 26 de Julio» taldea edo El Salvadorren, 1972ko eta 1977ko hauteskundeetako iruzurren ostean, FMLN, «Frente Farabundo Martí de Liberación Nacional» sortu zenean.

Kuba izan zen horrelako ekintzek arrakasta izan zuten toki bakarra, denbora luzez. Independentziako Gerraz geroztik, Kuba AEBren mendean zegoen arlo guztietan: baliabide ekonomikoen kontrola AEBk zuen (meategien % 90, tabakoaren produkzioaren % 80, azukre-industriaren % 40, eta abar), eta botere politikoa ere zeharka kontrolatzen zuen. Iraultzaren aurreko azken agintariak, Batista jeneralak, estatubatuar interesekiko lotura estua zuen. Erregimen horren kontra, oposizioak askatasun publikoak eta duintasun nazionalaren defentsa eskatu zituen. Eta oposizio horretan hasi zen nabarmentzen Fidel Castro 1950eko hamarkadan. 1953an porrot egin zuen Moncadako kuartelaren kontrako erasoak eta Castro atxilotu zuten; 1955ean amnistiatu zuten eta Mexikora erbesteratu zen; han, Che Guevararekin batera, Uztailaren 26ko Mugimendua antolatu zuen. 1956an, Kubara itzuli ziren, eta Batistaren kontrako gerrilla-gerra hasi zuten; egitasmu nazionalista (inperialismoaren aurkakoa) eta erreformista aurkeztu zuten. Errepresioa areagotu ahala, komunistek ere bat egin zuten Castroren taldearekin. Estatu Batuek ere babesa kendu zioten diktadoreari. 1959ko urtarrilaren 1ean Batistak ihes egin zuen, eta Castroren gerrillak lortu zuen boterea.

Castrok uko egin zion hauteskundeak deitzeari, eta gero eta jarrera autoritarioagoa hartu zuen, Iraultzaren norabidea bere esku izateko eta izaera sozialista mantendu ahal izateko. Horrekin batera, Castroren gobernuak hainbat neurri hartu zituen, besteak beste, enpresa eta jabetza handiak nazionalizatzea, hirietako alokairuak jaistea, alfabetatze-kanpainak egitea eta osasun-sarea eratzea. Neurri horien bitartez herritarren babesa jaso zuen. Estatu Batuetako sektore asko zeuden kaltetuen artean eta, beren interesak babeste aldera, Etxe Zuriak esku hartzeko eskatu zuten. Iparramerikarrek azukrearen kuota kenduko zutela mehatxatu zuten, 1960ko otsailean, Sobietar Batasunak eskaini zuen bere burua azukre guztia erosteko. Erabaki horrek, Latinoamerikaren eta Estatu Batuen arteko harremanak aldatzeko Kubak egindako eskariak, eta hainbat lagun fusilatzeak, Kubaren eta Estatu Batuen arteko harremanak gaiztotu ez ezik, Castro bere tokitik kentzera bul-

tzatu zuten AEB. 1961eko apirilean, erbestera talde bat Kubako kostaldera (Bahia Cochinosera) iritsi zen CIAren laguntzarekin, baina inbaditzeko asmoak porrot egin zuen eta indartu egin zen Castroren boterea. Harrezkero, gobernu iraultzaileak honela definitu zuen bere burua: inperialismoaren aurkakoa eta nazionalista; marxista-leninista eta sobietar blokean integratua; eta berdintasun soziala lortzeko estatuaren politika sozioekonomikoaren aldekoa. Castroren buruzagitza karismatikoa oinarritu zen erregimena; askatasun politikoak ezabatu zituzten, eta disidentek baztertu, kartzelatu edo herrialdetik kanporatu zituzten.

Ezaugarri horiek gorabehera, Castroren garaipenak sekulako oihartzuna izan zuen Latinoamerika guztian, eta gerrilla-mugimenduak suspertu zituen. Gizarte-sektore batzuentzat eredu eta adibide bihurtu zen Kuba, bai sozialismoa ezarri zuelako, bai eta iraultzaren metodoei zegokienez ere. Baina, aldi berean, Kubako adibidea uxatu beharreko mehatxua zen, beste sektore sozial batzuentzat. Bestalde, Kubako agintariak beren iraultza-eredua hedatzen saiatu ziren, eta estrategia iraultzailea (borroka armatua eta *fokismoa*) esportatu zuten Afrikara eta Amerikara, baita gerrilla-mugimendua garatzeko baldintzarik betetzen ez zuten herrialdeetara ere. Uruguai da azken eredu horren paradigma: herrialdea lautada bat izanik, ez dago non ezkutatu gerrillen eran jokatzeko; eta, gainera, demokrazia zegoen Tupamaroen Mugimenduak ekintza armatuak hasi zituenean. Estrategia horrek porrot egin zuen herrialde guztietan, eta bultzatzaile nagusia, Ernesto Che Guevara, Bolivian hil zuten 1967ko urrian. Nikaragua izan zen salbuespen bakarra, han 1979an lortu baitzuen boterea gerrillak. Iberoamerika bete-betean sartu zen nazioarteko tentsioetan, eta Gerra Hotzaren agertoki bihurtu zen. Testuinguru horretan, AEBk eta Latinoamerikako armadak «Segurtasun Nazionaleko Doktrina» azaldu zuten, eta armaden esku-hartze politikoa bultzatu zuten saiakera iraultzaileak zapaltzeko helburuarekin.

8.5.3. Militarren pisua

Latinoamerikako armadak oligarkia gobernarien euskarri izan ziren tradizionalki, eta protagonismo handia izan zuten bizitza politikoan. Horren arrazoiak independentziaren garaian sortu ziren, nazioak eraikitzean pisu handia izan baitzuten armadak. XX. mendean, profesionalizatzeko eta teknokraziak indartu egin zuten armaden izaera eta autonomia, eta komunismoaren aurkako jarrerak barneetsaia birrindu beharra zabaldu zuen. Militar guztiak ez ziren pentsamendu bakarrekoak eta diktadura guztiek ez zuten norabide bakarra. Batzuek erregimen pertsonalak sortu zituzten: Somozak Nikaraguan, Duvalier-ek Haitin, Trujillok Dominikar Errepublikan eta Alfredo Stroessner-ek Paraguan; beste batzuek, Brasilgoek adibidez, erregimen burokratikoak sortu zituzten, baina ez ziren falta erregimen militar erreformistak: Perun Velasco Alvaradok zuzendutakoa eta Panaman Torrijos jeneralak, esaterako. Indarra erabiltzea eta arerioak zapaltzea izan ziren guztien ezaugarri komuna.

1960ko hamarkadan, iraultza-mehatxuaren aurrean eta Gerra Hotzaren testuinguruan, armadaren esku-hartze politikoa areagotu egin zen, eskuineko diktadura militarren bitartez. Diktadura horien helburu nagusia iraultzaren eta talde iraultzaileen kontra borrokatzea zen. Horretarako «Segurtasun Nazionaleko Doktrina» edo «barne-gerra» kontzeptua sortu ziren: estatuaren etsaia ez zen kanpoko potentzia bat, barneko etsai subertsibo eta marxista baizik; gerra zenez, armada zen esku hartu behar zuen erakundea eta, beraz, doktrina horrek bizitza politikoaren parte bihurtu zuen armadaren esku-hartze sistematikoa.

Fenomeno hori ulertzeko, testuingurua hartu behar dugu kontuan: Gerra Hotza nazioartean eta Kubako adibide iraultzailea Latinoamerikan. Egoera horretan, AEBk beste politika bat bultzatu zuen «arrisku gorria» uxatzeko: batetik, garapenerako laguntza (*Alianza para el Progreso*), baina bestetik errepresioa, batez ere armada nazionalen bidez. Horrez gain, garai hartan hainbat gizarte-mugimendu ere mobilizatu ziren ordena sozial bidegabearen kontra: ikasle-mugimendua (Mexiko, 1968); mugimendu armatuak (montoneroak Argentinan, tupamaroak Uruguain, sandinistak Nikaraguan, eta abar); edota askapenaren teologia. Baina, Txilen izan ezik, talde horiek ez zuten izan gaitasun edo ahalmenik boterea eskuratzeko. Testuinguru horretan ulertu behar dugu militarrek 1960ko eta 1970eko hamarraldietan hartu zuten protagonismoa bizitza politikoan. Herrialde gehienetan diktadura militarrek ezarri ziren: Erdialdeko Amerikan (El Salvadorren, 1961ean; Hondurasen, 1963an; Dominikar Errepublikan hainbat alditan); Brasilen, 1964an; Bolivian, 1971n; Txilen eta Uruguain, 1973an; eta Argentinan, 1976an. Salbuespen esanguratsuenak Venezuela, Costa Rica eta Mexiko izan ziren. Guztiek erabili zuten bortxa oposizioaren aurka. Guatemala eta Argentinako diktadurak nabarmendu ziren indarkeriaren erabileran. Lehen kasuan, 45.000 lagun desagertu omen ziren gerrillaren aurkako errepresioaren ondorioz, eta beste 100.000 laguneren heriotza baieztatu da. Argentinan, iturrien arabera, 13.000 eta 30.000 artekoa izan zen hildakoen eta desagertuen kopurua. Txilen 3.000 lagun hil zituzten eta, Brasilen, 20.000 lagun inguru torturatu eta 400 desagertu ziren. Edozein metodo erabil zitekeen etsaia menderatzeko, estatu-terrorismoa, giza eskubideen bortxaketa sistematikoa eta hildakoak desagerraraztea, besteak beste.

Diktadura militar horietan, kasurik gehienetan, armada korporazio gisa altxatzen zen «aberria salbatzeko»; arrisku marxistatik salbatzeko, alegia. AEBren laguntza edo oniritzia izan zuten estatu-kolpe horiek eta ondoren ezarritako erregimenek. Babes sozial desberdina izan zuten herrialdearen arabera, baina oro har armada osoaren, botere ekonomikoaren eta enpresa multinazionalen babesa izan zuten. Zenbait tokitan klase ertainen babesa ere bereganatu zuten, ezkerreko politiken beldur baitziren. Diktadura militarrek, ezkerreko edo zentroko oposizioa zapaltzeaz gain, askotan hurrengo urteetako politika neoliberalak ere gauzatu zituzten.

8.3. 1962-1976 Latinoamerikako estatu-kolpeak.



Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 448.

8.6. EREDU DEMOKRATIKOEN ITZULERA

1980an beste etapa bat hasi zen Latinoamerikako historia ekonomikoan, krisi luzea eta sakona hasi baitzen urte hartan. Horregatik deitu izan zaio «hamarkada galdua» hamarkada horri. Eten egin zen aurreko urteetako hazkunde ekonomikoa; baina hazkunde demografikoa mantendu egin zen, eta oso gogorrak izan ziren ondorio sozialak. Biztanleko errenta jaitsi egin zen, haurren hilkortasun-tasa igo, langabeziak asko egin zuen gora, eta murriztu egin ziren gastu sozialak krisi ekonomikoaren eta doikuntza-planen ondorioz.

Krisiaren sakontasunak zerikusi zuzena izan zuen lehen azaldutako garapen-ereduarekin, hau da, eredu autarkikoa eta desorekatua izatearekin (merkataritza-balantzaren defizita, estatuaren defizita eta gehiegizko zorpetzea industrializazioa bultzatzeko, industriaren lehiakortasun falta, inportazioei eustea eta esportatzeko zailtasunak, eta abar). Konponbidea, arestian ikusi dugunez, mailegu gehiago eskatzea izan zen nazioarteko banku pribatuen eskutik, interes-tasa baxuak aprobeztatuz. Baina 1980ko hamarkadaren hasieran, bat-batean, laukoiztu egin ziren interes-tasak, petrolioaren bigarren krisiak Estatu Batuetara bideratu baitzuen dirukorrontea. Egoera berriak inflazioa, krisi fiskala eta finantza-kolapsoa ekarri zituen. Are gehiago, munduko krisi ekonomikoaren ondorioz, lehengaien prezioak jaitsi egin ziren eta kalte zuzena eragin zien Latinoamerika guztiko merkataritza-balantzei eta, batez ere, kanpo-zorrari.

Egoera hartan, albo batera utzi zen lehengo garapen-eredua («barneranzko hazkunde»). 1989. eta 1990. urteetan osatu zen ortodoxia berria, «Washingtoneko kontsentsua» izenekoa, nahiz eta atzean ez egon ez erabaki trinkorik, ez bilerarik. Nazioarteko finantza-erakundeek zorra murriztuko zuten eta ordainketa arinduko, baina trukean berriro ireki egin behar ziren Latinoamerikako ekonomiak mundumerkatara, murriztu egin behar zen estatuaren parte-hartzea ekonomian, eta aurrekontu orekatuak aurkeztu behar zituzten. Horrekin batera, integrazio ekonomikoa eta herrialdeen arteko merkataritza librea bultzatu zen: Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Hitzarmena sinatu zuten AEBk, Kanadak eta Mexikok; Mercosur (Brasilek, Paraguaik, Uruguai eta Argentinak); eta Andeetako Ituna (Boliviak, Peruk, Kolonbiak, Venezuelak eta Ekuadorrek 1969an sinatua izan arren, jarduera eskasa izan zuen 1990eko hamarkadara arte). 1991n merkantzien eta pertsonen zirkulazio libreko eskualdea sortu zen, merkatu batu bat sortzeko. Ildo berekoa da ALCAREN (*Área de Libre Comercio de las Américas*) egitasmoa, AEB barne hartzen duena. Dena den, asmo horiek ibilbide laburra izan dute oraindik, estatuen interes politiko eta ekonomiko kontrajarriak direla medio.

Neurri horiek guztiek epe ertainera egoera hobetzea lortu zuten; aurrena Txilen eta Brasilen, eta polikiago beste herrialdeetan. Baina toki gehienetan gizarteko desberdintasunak areagotu zituzten, eta aspaldi ikusi gabeko irudiak agertu ziren berriz; baita ustez hiriburu garatuen inguruetan ere. Buenos Airesen, adibidez,

gosea, pobrezia eta bazterkeria zabaldu ziren eta ume asko hil ziren janari faltaren eta gaixotasun kutsakorren ondorioz. Horren aurrean, indarra hartu zuten gizarte-protestek eta, azken urteetan, ezkerreko gobernu askok zalantzan jarri dute «Washingtoneko kontsentsua»ren baliagarritasuna. Lehengaien prezioa igotzeak, energia-iturrienak bereziki, sendotu egin dute Latinoamerikaren posizioa arlo batzuetan, eta baliteke hurrengo urteetan beste aldaketa batzuk gertatzea politika ekonomiko orokorretan.

Latinoamerikaren makrodatuen norabidea aldatzen ari da azken urteotan, baina pixkanaka-pixkanaka. 1950ean 165 milioi biztanle ziren bertan, 1990ean 421 milioi eta 2008an 580 milioi. Hala ere, moteltzen hasi da hazkundera azken urteotan, baina oraindik oso altua da. Tasarik altuenak Erdialdeko Amerikakoak izaten dira, eta baxuenak Hego Amerikakoak eta Karibekoak. Hazkunde demografikoaren ondorioz, oso gaztea da biztanleria (1990ean % 38 ziren 15 urte baino gutxiagokoak) eta oso kontzentratuta dago hirietan. Klase ertain indartsua azaldu da zenbait herrialdetan eta industrializazio berriak lanpostu asko sortu ditu, Brasilen edo Mexikon besteak beste; baina gizarteko aldeek handiak izaten jarraitzen dute. Muturreko aberastasuna eta miseria non-nahi daude, Erdialdeko Amerikan bereziki. 2004an pobrezia-indizeek biztanleriaren % 42,9 biltzen zuten. Landa-eremuaren eta hirien arteko aldea oso handia da; izan ere, pobrezia % 61 nekazarien eremuan dago eta % 38 hirietan. Bestalde, konpondu gabe dago indigenen arazoa eta herrialde gehienetan indigena hitzak pobrezia eta bazterketa ere esan nahi du. Egoera ekonomiko kaskarrak emigrazioa bultzatu du. Mende askotan Latinoamerikak kanpotarrak hartu baditu ere, orain hango seme-alabek jo behar dute atzerrira, nagusiki Estatu Batuetara eta Europara. 2005. urtean 25 milioi lagun zeuden beren herrialdetik kanpo, % 60 AEBn, % 20 Latinoamerikako beste herrialde batean, eta % 20 Europan (Espainian bereziki), Kanadan edo Japonian. Herrialde batzuen diru-iturri garrantzitsua da emigrazioa, barne-produktu gordinaren % 10 inguru; orain arte, biztanleria ugaria dela medio, emigrazioa ez da arazo bilakatu irteerako herrialdeetan, baina Latinoamerikako egoera okerraren ikurra da.

1990eko hamarkadan garai berri bat hasi zen Latinoamerikako politikan, herrialde gehienentzat aldaketa askoko unea izan baitzen. Aldaketa horien artean nabarmenena sistema demokratikoak itzultzea eta sendotzea izan zen, urte batzuk lehenago hasitako prozesua, hain zuzen. Hainbat faktore aldatzeak izan zuen eragina prozesu horietan. Lehendabizikoa diktadura militarrek amaitzea izan zen, eta bi arrazoi egon ziren horretarako. Bata AEBren politika berria izan zen; Estatu Batuetako presidentek ezin zuten mundu guztian demokrazia zabaltzea defendatu, etxe ondoan diktadurak izanda. Gainera, Gerra Hotza amaitzen ari zen eta horrelako diktadurak ez ziren jadanik beharrezkoak Ameriketako Estatu Batuen interesak defendatzeko. Bestea, garrantzitsuena, diktaduren barneko prestigio-galera izan zen krisi ekonomiko larriaren testuinguruan, hasierako urteetako beldurra gainditu zelako edota herritarrek militarren kudeatzeko gaitasun eza eta ustelkeria

ikusi zituztelako. Prestigio-galera horren adibide deigarria Argentinakoa izan zen: biztanle zibilen aurka odoltsu aritu ondoren, agintari militarrek, herritarren babes falta sumatu zutenean, Malvina uharteak berreskuratzeari ekin zioten 1982ko apirilean, ekintza horrekin argentinar nazionalismoa beren mesedetan erabiltzeko asmoarekin. Baina Britainia Handiaren erantzun irmoak eta eraginkorrak (uharteen jabe zen 1833tik), Argentinaren porrotaz gain, militarren botere-galera ekarri zuen. 1983. urtean, Raul Alfonsín aukeratu zuten argentinarrek presidente. Uruguain eta Brasilen 1985ean gertatu zen txanda-aldaketa; 1989an Paraguain eta 1990. urtean Txilen. Haitin Jean Claude Duvalier hil zen 1986. urtean, baina oso egoera nahasia utzi zuen eta militarrek agindu zuten 1990. urtera arte. Harrezkero, behin eta berriz gertatu dira estatu-kolpe berriak Karibeko estatu horretan.

Herralde horietan militarrek bere kontrolatu zuten trantsizio-prozesua eta boterearen zati handi bat gorde zuten berentzat. Horren ondorioz, botere zibilaren eta militarren arteko harremanak tirabiratsuak izan ziren hasierako urteetan. Argentinan, adibidez, hainbat estatu-kolpe saio izan ziren 1987tik 1990era bitartean. Militarrek lasaitzeko gobernu bakoitzak hainbat neurri hartu zituen, eta kasu gehienetan amnistia eman zitzaion diktadura garaian zibilak atxilotu, torturatu eta hil zituzten militarrei. Argentinan, 1986an, *Ley de Punto Final* izenekoak onartu zen, eta hurrengo urtean *Ley de Obediencia Debida*. Sistema demokratiko ahula sendotzea zen legeen helburua, baina kritika gogorak jaso zituzten, bereziki diktadura garaian familiartekoak galdu eta desagertuen berririk izan ez zutenen aldetik. Hainbat urte iraun zuen egoerak bere horretan, baina belaunaldi gazteagoak hasi ziren oroimenaren arazoa azaleratzen, eta zenbait tokitan gobernuak indargabetu egin dituzte iragana ezabatzeko legeak (2005. urtean Argentinan) edo batzorde bereziak sortu dituzte diktadura-garaian gertatutakoa argitzeko. Egoeraren zailtasunen erakusle dugu 2009. urtean Uruguako herritarrek, presidente ezkertiarra aukeratu arren, 1986ko amnistia-legea bertan behera uztearen aurka bozkatu izana. Eraitza horren atzean oraindik militarrei zaien beldurra dago batetik, eta garai hura ahaztu eta atzean uzteko borondatea bestetik.

Demokrazia zabaltzeko bigarren faktorea gerrillak desagertzea edo ahultzea izan zen. 1990eko hamarkadaren lehenengo urteetan, Latinoamerikako gerrillari-mugimenduek atzerakada nabarmena izan zuten eta talde gehienak desagertu egin ziren. Kasu batzuetan gobernuarekin negoziatzeko gai izan ziren, Kolonbiako *M-19*, El Salvadorreko *Frente Farabundo Martí de Liberación Nacional* eta Guatemala-lako *Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca* esaterako; eta, beste batzuetan, porrot militarrek ahuldu zituen, Peruko *Sendero Luminoso*ren kasua izan zen hori. Ahultze horren atzean hainbat arrazoi bildu ziren: gerrillari taldeen antolaketa eta estrategia-gaitasuna higitzea, armada hobeto prestatzea, eta gizarteko indarrak gobernuen alde aldatzea, besteak beste. Nazioartean gertatutako aldaketak ere funtsezkoak izan ziren: Reaganen garaiko Estatu Batuak ez zeuden prest, Carterrekin ez bezala, komunista izan zitekeen inongo erregimenik onartzeko, eta oparo hor-

nituz zituzten herrialde bakoitzeko armadak gerrilla mendean har zezaten; bestalde, sozialismoa erortzean galdu egin zuten babes logistikoa Ekialdeko Europan, eta horrekin batera ospea galdu zuen iraultzaren ideiak ere. Kubako erregimenaren arazoek (125.000 lagunek utzi zuten uhartea 1980. urtean) makaldu egin zuten Castroren erreferentzialtasuna. Arestian aipatu dugun demokratizatzeko-prozesuek beste aukera batzuk ireki zituzten lehia politikoan aritzeko, eta hainbat taldek armak utzi eta bide politikoetatik bizitza zibilera itzultzeko ahalegina egin zuten. El Salvadorren, esate baterako, 2009ko hauteskundeak irabazi zituen FMLNk. Zenbait tokitan, Egiaren eta Berradiskidetzearen Batzordeak sortu ziren indarkeriagaraiaren alde biek (armadak eta gerrillariek) egindako sarraskiak argitzeko.

Hiru salbuespen egon ziren bilakaera horretan: Peru, Kolonbia eta Mexiko. Perun, Sendero Luminoso talde maoistak 1980an hasitako kanpainak 70.000 heriotza baino gehiago utzi zituen; gerrillariek eta militarrek biztanleria zibilaren aurka egindako ekintzetan hil ziren gehienak. 1992an atxilotu zuten Abigail Guzmán buruzagia eta handik aurrera mugimenduak indarra galdu zuen, nahiz eta zenbait unetan berragertzeko ahalegina egin. Kolonbian indarkeria ez da amaitu, FARC taldeak (*Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia*) ez baitzuen onartu bake-negoziazioetan gobernuak egindako eskaintza. Herrialde horretan, oso zabaldua dago bortxakeria; uste gehien arabera, gerrilla finantzatzeko FARCEk harreman estua izan du droga-trafikoarekin, eta horrek bermatu du bere iraupena; gainera, gobernuaren tropez gain, indar paramilitarrek ere neurri gabeko indarkeria erabili zuten gerrillaren eta nekazari pobreen aurka, lurjabe handien interesak babesteko.

Mexikon, azkenik, mugimendu berria sortu zen 1994. urtean: Armada Zapatista. Sobietar sozialismoaren gainbeheraren ondoren sortutako lehenengo taldea izan zen erakunde hori eta ezaugarri bereziak zituen: indarkeriaren erabilera oso mugatua; komunikabideen konplizitatea bilatu zuten beren eragina zabaltzeko; nazioarteko elkartasuna eskatu zuten; eta, deigarriena, aurrekariak kontuan hartuz gero, taldearen oinarri sozialaren jatorria ez zen izan ezker iraultzaile hiritar klasikoa, Mexikoko hegoaldeko Chiapas estatuko indigena maiak baino. Mugimenduak oihartzun handia lortu zuen mundu guztian eta Amerikako indigenen egoera tamalgarria bistaratu zuten; baina emaitza praktikoa gutxi lortu zuten. Mexikoko politika baldintzatzeko ahalegina ezerezean geratu zen eta, oraindik zapatismoa bizirik dagoen arren, oso eragin mugatua du.

Diktadura militarrek amaitzeak eta gerrillak desagertzeak beste etapa bat ireki zuten Latinoamerikako historian: ia herrialde guztiek, Kubak eta Haitik izan ezik, gobernu demokratikoak zituzten. Tradizio demokratikoa zuten herrialdeetan ere aldaketak gertatu ziren. Kasurik nabarmenena Mexikokoa izan zen: 1934tik 1994ra bitarteko hamar presidenteak alderdi berekoak izan ziren, PRI alderdikoak, eta haien boterea erabatekoa zen. 1995ean Ernesto Zedillo presidenteak automugaketa-prozesua hasi zuen, eta 2000. urtean Vicente Fox kontserbadoreak irabazi zituen hauteskundeak. Orduko gobernu gehienak zentro-eskuinekoak ziren, eta garai

hartako erregimen gehienek bi ezaugarri nagusi izan zituzten: politika moderatuak indarrean jartzea, zalapartak eta muturreko neurriak alde batera utzita, eta arku politikoa irekitzea. Era horretan, zabaldu egin zen aukera politikoen eskaintza eta hurrengo urteetako aldaketarako abiapuntua ezarri zen. Azkeneko urteotan, toki gehienetan ezkerre edo zentro-ezkerre nagusitu da, Kolonbian eta Mexikon izan ezik. Dena den, ezin da batasun ideologiko bati buruz hitz egin, estatu-interes ezberdinez gain, era askotakoa delako Latinoamerikako ezkerre; hau da, sozial-demokraziatik hasi eta populismo autoritarioetara edo komunismora zabaltzen da herrialdearen arabera.

Brasilgo presidentea, Luiz Inácio Lula, da garai berrien ikurretako bat. Sindikalista porrokatua izan zen gaztetan, preso ere egon zen diktadura-garaian, baina gobernura heldu zenean aurreko gobernuen antzeko politika moderatuei jarraitu zien, hazkunde ekonomikoa bermatzeko eta ongizatea talde guztietara heldu ahal izateko. Lularen lanak munduko potentzia handienen artean kokatu du Brasil (Latinoamerikako herrialde handiena eta biztanle gehien duena) eta ezinbesteko erreferentzia bihurtu du Latinoamerikako politikarako, ekonomiarako eta gizarterako.

Arazo handiak daude demokrazia egonkortzeko, eta faktore politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hartu behar dira kontuan haren gabeziak ulertzeko. Estatuaren ahulezia historikoa dugu horietako bat eta, horren ondorioz, gobernu berriek ez zuten nahikoa baliabide politika eraginkorrek gauzatzeko —onartutako lege berriak ezin ziren maiz indarrean jarri—. Talde politiko nagusiek (batzuk diktadura militarren inguruan sortutakoak, besteak klandestinitatean eta oposizio-sareetan trebatutakoak) ez zuten bat egiten oinarritzko kontsentsua finkatzeko orduan. Botere betearazlea zuena berea indartzen saiatzen zen, botere legegilearen kaltean, gizartearen presioari aurre egiteko. 1990eko hamarkadaren hasieran, faktore horiei, elite ekonomikoaren eta sozialen nagusitasunari, eta gobernari berri askoren ustelkeriari (Perun Alberto Fujimori presidentearenari, Argentinan Carlos Menemenari), krisi ekonomikoa gehitu zitzaizen; demokratizatze-prozesuak oztopatu zituen horrek guztiak. Beste toki askotan bezala, Espainia da adibide esanguratsua: egoera ekonomikoa okertzearekin bat egin zuen demokraziaren etorrerak. Egoera horiek erakunde demokratikoak berriz aztertzea eskatzen zuten (justizia eta administrazioa berriz aztertzea, besteak beste) eta gobernagarritasuna ziurtatzeko neurriak hartzea (gizarte-politikak eta zerbitzu publikoak garatzea, adibidez). Hutsune horiek handitu egin zuten politika demokratikoekiko mesfidantza, eta ez da harritzekoa zenbait herrialdetan Latinoamerikako tradizio politikoan aurkitu nahi izatea konponbideak.

Giro horretan ulertu behar da populismo berriaren agerpena. Venezuelako Hugo Chavez militarra izan zen lehen ordezkari arrakastatsua. 1992. urtean estatu-kolpea ematen saiatu, eta amnistiatu egin zuten; berak irabazi zituen 1998. urteko

hauteskundeak. Chavez eta antzeko buruzagien garaipenak ulertzeko lau faktore hartu behar ditugu kontuan: Latinoamerikako gizartean dauden desberdintasun handiak —erregimen demokratikoez ezabatzea lortu ez zituztenak—; ohiko alderdien ustelkeria eta ezintasuna ongizatea ekartzeko; populismoaren tradizio politikoa; eta populista berrien gaitasuna eta abilezia herritarrak erakartzeko. Esanguratsua da, aurreko garaietan ez bezala, 1990eko hamarkadako populistek hauteskunderen bitartez lortu izana agintea eta ez bestelako indar-ekintzen bitartez.

8.4. 2010 Latinoamerikako banaketa politikoa.



Iturria: Norberak egina.

Chavezen programa politikoa bolivarismoan oinarritzen da. Kontzeptu zabala da, baina Latinoamerikaren burujabetasuna du abiapuntu, Estatu Batuen nagusitasunaren aurrean. Ezkertiarra eta autoritarioa, Venezuelan ugari den petrolioaren salmentaren etekinetatik lortutako dirua erabili du ongizatea zabaltzeko, baina baita boterea kontrolatzeko ere. Haren jardunak barne- eta kanpo-tentsioak areagotu ditu, erabilitako formen eta buruzagiaren hitz-aspertuen ondorioz. Venezuelako arazoak konpondu ez baditu ere —Chavezen agintepean pobreak nabarmen egin du gora—, herritarren babesa ozta-ozta mantendu du. Hala, bere agintaldiaren jarraipena berresteko lehen erreferenduma galdu ondoren, bigarrena irabaztea lortu zuen. Chavezek kanpo-politika berria gauzatu du: Kubarengana hurbildu da eta Estatu Batuen aurkako frontea antolatu du Latinoamerikako beste herrialde batzuekin batera; eta ez du erreparorik izan Iranekin biltzeko edo Errusiari armak erosteko.

Chavezen inguruan kokatu izan dira Bolivia eta Ekuadorren kasuak, harreman estuak sortu direlako hiru herrialdeen artean, politika komunak dituztelako eta nazioartean eragiteko borondatea azaldu dutelako; baina aldeak ere nabariak dira. Garrantzitsuena bi herrialde horietan biztanleria indigenak duen pisu demografikoa eta politikoa (azkeneko urteetan) dugu. Amerikako indigenak baztertuta egon dira kolonizazio-garaitik, eta independentzia-prozesuek areagotu baino ez zuten egin bazterketa hori, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik. Herrialde gehienek hauteskunde-sistemak izan arren, batzuetan legeen bitartez eta beste batzuetan eguneroko praktiken bitartez, indigenek —baliabide ekonomikorik gabe, heziketa arauturik gabe eta gizarte-harremanak beren inguru hurbilera mugatuta— ez zuten sisteman parte hartzeko eta, bereziki, etekinak lortzeko aukerarik. Egoera hori are nabarmenagoa da zenbait herrialdetan, Guatemalan, Ekuadorren edo Bolivian, besteak beste, lurralde horietan biztanleriaren % 40 baino gehiago baita indigena. Venezuelan, aldiz, % 2 zen.

Bolivian, Evo Moralesek zuzendu zuen indigenen mugimenduaren garaipena. Koka-landatzaileen sindikatuko burua ezagun egin zen gobernu landaketak desagerrarazten saiatu zenean. *Movimiento al Socialismo* (MAS) alderdia sortzen lagundu zuen, eta protagonismo berezia izan zuen 2002tik 2005era, gobernuen politika fiskalen aurka. Azkenean, 2005eko abenduan presidentzia lortu zuen botoen % 54 bereganatuta. Haren gobernu-programak hiru puntu nagusi zituen, eta hirurek sortu zuten tentsio handia: lehena, gasaren eta hidrokarburoen nazionalizazioa zen; bigarrena indigenen eskubideen aitorpena; eta, hirugarrena, bigarrena-ekin lotuta, Konstituzioaren aldaketa. Azkeneko bi neurriek zenbait eskualdetako oposizioa indartu zuten, hain zuzen eskualde aberatsenetakoa, eta autonomia gehiago eskatu zuten Bolivia barnean. Dena den, Moralesek bere politikak mantendu zituen eta igo egin zen herritarren babesa. 2009ko abenduko hauteskundeetan botoen % 63 eskuratu zuen.

Hondurasen 2009an Celaya presidentek, Konstituzioaren aurka, karguan jarraitzeko asmoa eragozteko militarrek izandako esku-hartzea gorabehera, badi-rudi demokrazia egonkortu egin dela Latinoamerikan. Alderdi tradizionalak indarra galdu dute, baina talde eta koalizio berriak gai izan dira hautesleak bereganatzeko. Herritarren borondatearekin batera, gizarteko desberdintasunak leunduko lituzkeen ongizate ekonomikoa sendotzeak indartu egingo luke egonkortasunerantzko bidea. Estatu Batuen politikek ere gauza bera adierazten dute, Bill Clintonek Latinoamerikaren demokratizazioa bultzatu baitzuen. Bushen garaian, aldiz, bestelako kezka bat zabaldu zen; presidente berriak kontrakoa esan arren, oso arreta gutxi eskaini baitzuen hegoaldeko lurraldeei. Latinoamerikak garrantzia galtzearen ondorioa izan ote zen? Michael Reid kazetariaren arabera, Latinoamerikak kontinente ahaztua bilakatzeko arriskua dauka; izan ere, erronka handiak ditu, baina Afrikako porrotaren parekorik pairatu ez badu ere, ez du lortu Txinaren hazkunderik.

TESTU-ERANSKINA

1946, PERON-EN POPULISMOA A. TOURAINEN ARABERA

Argentina da estatu nazional-popularren adibiderik garbiena. (...) Batetik, boterea eskuratzeko herritarren mugimendu zabalaren laguntza izan zuelako Peronek; hau da, gainerako militarrek desegin zuten lan-estatu gaztearen itzulera eskatzen zuen mugimenduaren laguntza, hain zuzen ere. (...) 1946an hautatu zuten presidente, nazionalismoari eta populismoari esker eta, gainera, hedatzen ari zen langile-mugimenduekin bat egiten jakin zuen. Haren emazteak, Evak, populismoa popularrago eta errebindikazio-izaera handiagoko bihurtu zuen. Populismoak ohiz kanpoko testuinguru ekonomiko onaz baliatu nahi izan zuen industria nazional indartsua sortzeko: batetik, gobernuaren laguntzarekin, eta bestetik, CGT sindikatua-
ren eta CGEren inguruan elkartutako enpresa nazionalistetako buruzagien laguntzarekin.

Iturria: Villares, R. eta Bahamonde, A. (2002): *Gaur egungo munduaren historia*, Zubia Santillana, 359. or.

1954, GETULIO VARGASEK BRASILDARREI UTZITAKO MEZUA, BERE BURUAZ BESTE EGIN AURRETIK

Berriz ere herriaren kontrako indarra eta interesa elkartu dira nire aurka. Ez naute akusatzen, iraindu egiten naute; ez naute aintzakotzat hartzen, kalumniatu egiten naute. Ez didate nire burua defendatzeko eskubiderik ematen, isilarazi egin nahi dute nire ahotsa, eta ez didate herria eta batez ere apalenak defendatzen utzi nahi, nik beti egin izan dudana bezala.

Talde ekonomiko eta finantzario internazionalen mendean eta lapurretapean urteak eta urteak egin ondoren, iraultza baten buru egin naiz eta garaitzeko modua izan dut; askatasungintzako lanari ekin nion, baina utzi egin behar izan nuen; gero, herriaren besotik itzuli nintzen boterera. Nazioarteko taldeen azpikanpainari talde nazionalena batu zaio, langileei bermeak ematen zizkien erregimen baten kontra altxatu baitira.

Hilero-hilero borrokatu dut, egunero, orduro, etengabeko eta atergabeko presio bati gogor eginez, dena isilik eramanez, dena ahaztuz, neure buruari uko eginez, orain babesik gabe dagoen herri bat defendatzeko. Horiek ez dute langilea libre izaterik nahi, ez dute herria independente izaterik nahi.

Nik ez daukat zuei ezer ematerik, nire odola izan ezik. Gaur askatzen naiz ni betiko bizitzarako. Baina esklabo ninduen herri hau ez da edozeinen esklabo izango gehiago. Nire sakrifizioa betiko geldituko da haren bihotzean, eta nire odola izango da haren askatasunaren ordainsari. Brasilen esplotazioaren kontra borrokatu dut, nire herriaren alde borrokatu dut, nire bizia eman dizuet; orain, nire heriotza eskaintzen dizuet. Orain ez dut ezeren beldurrik; lasaitasunez beterik emango dut nire lehen pausoa, betikotasunerako bidean historian sartzeko.

Iturria: Intxausti, J. (1987): *Mendez Mende. Aro Garaikidea*, Donostia: Elkar-UZEI, 333. or.

1954, GUATEMALAKO ESTATU-KOLPEA, TULIO DONGHI HISTORIALA-RIAREN ARABERA

Arévaloren ondoretzak drama ilun bat sortu zuen armadaren barruan; Aranda koronela, hautagairik seguruentzat agertzen ari zena, eta joeraz moderatua, misteriotsuki erail zuten; haren arerioa, Arbenz koronela, 1950ean hautatu zuten. Laster hasi zen larritzen AEBrekiko tentsioa: alde batetik, gobernu errepublikanoa aurrekoa baino ere sentikorragoa zen United Fruit Company-ren interesentzat (bere banana-lurraldeek mehatxupean baitziruditen), Guatemalako gobernu aurrera eramaten ari zen lur-erreforma zela medio.

Bestalde, lehen ikusi denez, prest zegoen gobernu hori Latinoamerika Gerra Hotzean mobilizatzeko, eta gero eta armatuago ageri zen, komunismoak Guatemalako gobernuaren gain zuen itzalaren aurrean. Mehatxu horren kontra Caracasen ia ahobatezko arbuioa antolatu ondoren, inbasio militar bat prestatu zuen Honduraseko lurraldetik hegazkin-laguntza eta guzti; horren kontra, berriz, adore eskaseko erresistentzia erakutsi zuen Guatemalako Armadak. Arbenzek erbestera alde egin behar izan zuen; Castillo Armas, inbaditzaileen burua, lehendakari egin zuten eta diktadura zorrotza ezarri zuen. Guatemalako Iraultza bukatu zen; arazoa azkenburu horretara ekarri zuten gorabehera eskandaluzkoek adierazten zuten elementu berri batek esku hartu zuela, oreka soziopolitiko berria bilatzea oraindik zailagoa izateko: Gerra Hotzak, alegia. Izan ere, horrek pisu erabakigarriez bultzatzen zuen Latinoamerika, bidea desorekan eta borrokan barna bilatzera, gero eta gehiago.

Iturria: Intxausti, J. (1988): *Mendez Mende. Historia Agiritegia*, Donostia: Elkar, 1988, HA 5: 302.

1960, HABANAKO LEHENENGO ADIERAZPENA

Kubako Herriko Batzar Nagusi Nazionalak bete-betean uste du demokrazia ez dela botoa ematea bakarrik (latifundistek eta politiko profesionalek ia beti nahierara erabiltzen baitute botoa), baizik eta nork bere helmuga erabakitzeko eskubidea izatea. (...) Latinoamerikan ez da benetako demokraziarik izango, harik eta herriak aukeratzeko libre izan arte eta behekoiei ezer egiteko gaitasuna kentzen dieten gosea, analfabetismoa eta sistema juridikoa amaitu arte.

Horregatik, Kubako Herriko Batzar Nagusi Nazionalak honako hauek gaitzesten ditu: latifundioa; gosea dakarten soldatak eta esplotazio bidegabea; zahartzarorako babesik eza; beltzaren eta indiarraren diskriminazioa (...); Washingtonen esanak egitearren, euren herrien sentimenduari ez-entzun egiten dioten herriak.

Iturria: Prats, J. eta beste (1997): *Mundu Garaikidearen Historia. Praktika koaderno*, Anaya Haritza, Madril, 141. or.

1971, SALVADOR ALLENDE, LATINOAMERIKARAKO BATZORDE EKONOMIKOAREN AURREAN

Mendekotasun ekonomikoa eta teknologikoa batera joan dira eredu tradizionalen eta, eurekin batera, bazterkeria, herritarrak, milioika pertsona kolektibitateko zereginetatik alboratzea. Nahikoa dugu gogoratzea 15 milioi latinoamerikarrek baino gehiagok ez dutela txanpona ezagutzen trukerako tresna gisa. Horrexek erakusten du, argi eta garbi, gure kontinentearen eredu historikoa. (...)

Barru-barruko egiturak aldatuz gero (esaterako, Nekazaritzaren Erreforma egin, oinarrizko aberastasunak eta bankua nazionalizatu, erakunde politikoak eraberritu eta industria berregituratu), horrela bakarrik lortuko da soberakin ekonomikoak hartu eta mugimenduan jartzea, biztanle guztien oinarrizko beharrianak betetzeko garapen planifikaturantz eramanez. (...) Txilek urtean 200 milioi dolarretik gora gastatzen du elikagaiak inportatzen; nekazaritza goitik behera aldatu ezik, mende amaierarako mila milioitik gora erosi beharko dugu, behar beste lur, ur eta nekazaritzarako eta abelazkuntzarako baliabide eduki arren. Bestalde, herria etengabe oinarrizko aberastasunak galtzen joan da atzerriko kapitalaren eskutik. Egunero milioi bat eta hirurehun mila dolar ateratzen da herri honetatik. Milioi bat langileren eguneko soldata da. (...)

Nazionalizatu egin behar dugu. Herrien interesak partikularrenen gainetik daude. Autodeterminatzeko eskubidea eta ez esku hartzeko eskubidea errespetatzeko eskatzen dugu. Herrien osotasuna ez da per capita sarreraren arabera neurtzen.

Iturria: Prats, J. eta beste (1997): *Mundu Garaikidearen Historia. Praktika koaderno*, Anaya Haritza, Madril, 139. or.

1976, WASHINGTONEN IKUSPUNTUA, HENRY KISSINGER-EN ARABERA

Hutsegiteak atzerritarren azpijokoei eta gehiegikeriei egotzi nahi izatea aspalditik dator, herriak eurak bezain aspalditik. Latinoamerikak behin eta berriro ikusi nahi izaten du bere independentzia eta batasuna Estatu Batuei aurre egitetik datozkiola. Ez dugu espero denak (latinoamerikarrak) gurekin bat etortzea, baina guk ezin dugu onartu paternalismo modu berri hori; hau da, betebeharrak dituztenek eskubiderik ez edukitzea eta eskubide eske dabiltzanek betebeharrak onartu gura ez izatea. Estatu Batuetarako alternatiba ez da nagusitasuna edo axolagabekeria. Latinoamerikarako alternatiba ez da mendekotasuna edo borroka. (...) Zenbait hamarkadatan hegemonia edo utzikeria leporatu izan badigute ere, heldu zaigu elkarrekin lan egiteko unea, bakean eta borroka barik, gure zibilizazio komuna lantzeko.

Iturria: Prats, J. eta beste (1997): *Mundu Garaikidearen Historia. Praktika koaderno*, Anaya Haritza, Madril, 139. or.

1992, LATINOAMERIKAKO EKONOMIA

Latinoamerika, tradizioz, lehengaien esportatzailea eta langile merke eta prestakuntzarik gabekoen hornitzailea izan da. Hori dela-eta, kalte handia egin diezaioke material sintetikoaz eta automatizazioz betetako munduak. Hala ere, herri batzuek leku berria lortu dute munduko merkatuetan. Laurogeiko hamarkadan egindako ahaleginari esker izan da hori, egonkortasunaren eta egokitze ekonomikoaren alde egin delako pobrezia-aren aurka borrokatu aurretik. Politika ekonomiko horren ondorioz, Latinoamerikako biztanleen % 40 pobrezian bizi da.

Dena dela, ekonomia egokitzeko planek emaitza ona izan dute: batez besteko inflazioa jaitsi egin da, 1989an eta 1990ean % 1200 izatetik 1991n % 200 izatera. Biztanleriaren hazkundera % 4,5 izan da, 1980tik izandako handiena, alde batera utzita egokitzapeneko aldirik gogorrenean dauden herriak (Brasil, Peru eta Dominikar Errepublika, esaterako). Venezuela, Mexiko, Txile eta Argentina hazi dira gehien.

Beste gertakari onuragarri bat da atzerriko kapitalaren inbertsioa handitu izana. Nazioarteko Finantza Korporazioko txosten batek aipatu berri ditugun lau herriak dakartza 1991. urtean kanpoko diru gehien hartu duten munduko merkatuen artean. Eta urte horretan, gutxienez, zazpi herrik gutxitu dute kanpoko zorra.

Iturria: Prats, J. eta beste (1997): *Mundu Garaikidearen Historia. Praktika koaderno*, Anaya Haritza, Madril, 139. or.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Alcántara Sáez, M. (2008): *La democracia brasileña. Balance y perspectivas para el siglo XXI*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca.
- Anderson, J.L. (2009): *El dictador, los demonios y otras crónicas*, Anagrama, Bartzelona.
- Aristi, P. (2000): *Venezuela. Iraultza isilaren hitzak*, Txalaparta, Tafalla.
- Arzalluz, A. eta Txueka, T. (2006): *Ilimani. Boliviako izpiak eta hizkiak*, Argia, Lasarte-Oria.
- Bethell, L. (1991): *Historia de América Latina*, Crítica, Bartzelona.
- Dabene, O. (2000): *América Latina en el siglo XX*, Síntesis, Madril.
- Galeano, E. (1971): *Las venas abiertas de América Latina*, Siglo XXI, Mexiko.
- Halperin-Dongui, T. (1986): *Historia Contemporánea de América Latina*, Alianza Editorial, Madril.
- Krauze, E. (2008): *El poder y el delirio*, Tusquets, Bartzelona.
- Lucena, M. (2007): *Breve historia de Latinoamérica. De la independencia de Haití (1804) a los caminos de la socialdemocracia*, Cátedra, Madril.
- Malamud, C. (2005): *Historia de América*, Alianza Editorial, Madril.
- Oppenheimer, A. (2006): *Cuentos chinos*, Debate, Bartzelona.
- Reid, M. (2009): *El continente olvidado*, Belacqva, Bartzelona.
- Skidmore, T.E.; Smith, P.H. (1999): *Historia Contemporánea de América Latina. América Latina en el siglo XX*, Crítica, Bartzelona.
- Touraine, A. (1989): *América Latina. Política y sociedad*, Espasa-Calpé, Madril.
- Vargas Llosa, M. (2009): *Sables y utopías. Visiones de América Latina*, Aguilar, Madril.
- Zamora Rodríguez, A. (2008): *Ensayos sobre el subdesarrollo. Latinoamérica, 200 años después*, Foca, Madril.

9. Ekialde Hurbila, amaierarik gabeko gatazka

9.1. *SARRERA: EKIALDE HURBILA, MUNDUKO ESKUALDERIK GATAZKATSUENA*

Ekialde Hurbilean hainbat gerra eta gatazka bortitz gertatu dira azken sei hamarkadetan: Israelen eta arabiar estatuen arteko lau gerra; bi *Intifada* Israelek 1967tik okupaturiko lurraldeetan (Zisjordanian eta Gazan, alegia); Libanoko gerrak; Iranen eta Iraken arteko gerra luzea laurogeiko hamarraldian; Golkoko Gerra 1991n eta Iraken inbasioa 2003an. Dakigun bezala, tentsioak gaur egun ere jarraitu egiten du, tamalez. Horregatik diogu munduko eskualderik gatazkatsuena izan dela Ekialde Hurbila, azken hirurogei urteotan.

Zenbait faktore hartu behar ditugu kontuan zergatik diren hain lurralde gatazkatsuak ulertzeko. Ekialde Hurbila balio handiko eskualdea da. Alde batetik, balio geoestrategikoa du, ekialdeko Mediterraneoan eragiteko; bestetik, balio ekonomikoa du, munduko petrolio-erreserbarik handienak bertan dituztelako. Hori dela-eta, XX. mende-hasieratik gaurdaino munduko potentzia indartsuenak eragina izaten saiatu dira lurralde horietan. Lehen Mundu Gerra amaitu eta berehala, garai hartako potentzia kolonial nagusiek (Erresuma Batuak eta Frantziak), koloniak bereganatu zituzten Ekialde Hurbilean. Gerra Hotzaren garaian, berriz, superpotentzia berriek (Ameriketako Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak) Europako potentziek utzitako hutsunea bete zuten, eta dialektika bipolarrean sartu zen eskualdea. Gerra Hotza amaituta, AEBk eskualdea bere interesen arabera berrantolatze ahaleginak egin ditu, eta gatazka berriak eragin ditu ahalegin horretan. Kanpoko potentzien esku-hartzeaz gain, eskualdean bertan ere badaude ezeگونkortasunerako arrazoiak. Ugari dira tentsio etnikoak, tirabira erlijiosoak edo lurraldeengatik desadostasunak. Gainera, Ekialde Hurbilak balio sinboliko handia du, hiru erlijio monoteista handien jaioterria baita; esangura erlijioso berezia du juduentzat, islamiarrentzat eta kristaudentzat. Horren ondorioz, piztu diren gatazketako batzuk lur santuen aldeko borroka bihurtu dira gizarteko talde batzuentzat. Egoera korapilatsu horretan, Palestinako auzia dugu XX. mendeko gatazkarik luzeena, eta ezeگونkortasun handiena eragin duena eskualdean. Garai kolonialean ditu aurrekariak gatazka horrek: 1948an piztu zen, Israeleko estatua sortu zenean. Bipolarizatu egin zen Gerra Hotzaren garaian eta Gerra Hotza amaituta ere iraun egin du, XXI. mendera arte.

Palestinako gatazka oso konplexua da, eta hainbat maila bereizi behar dira auzian. Batetik, bi egitasmo nazionalak (sionista eta Palestinako arabiarrena) elkarren kontra borrokatu dira, Palestinako lurraldea kontrolatzeko. Bestetik, inguruko estatuetara hedatu da gatazka eta eskualde-mailako auzi bihurtu da. Arabiar estatuak esku hartu dute gatazkan, Israel arabiar lurraldean ezarritako gune koloniala dela uste baitute. Azkenik, Ekialde Hurbileko auzia mundu-mailako gatazka ere izan da: balio handiko eskualde horretan, potentzia nagusiek, beren eragina zabaldu nahian, gatazkaren protagonista batzuei edo besteei eman diete laguntza ekonomikoa eta militarra. Palestinako gatazkaren sorburua, arrazoiak eta denboran zehar izan duen bilakaera azalduko ditugu hurrengo lerroetan, eta kontuan hartuko ditugu Ekialde Hurbilean zein nazioartean izan duen esanahia eta ondorio historikoak.

9.2. GATAZKAREN AURREKARIAK: EKIALDE HURBILA, OTOMANDAR INPERIOTIK EUROPAR KOLONIALISMOAREN MENDEKOTASUNERA



Lehen Mundu Gerrara arte, Otomandar Inperioaren mendeko lurraldea zen Ekialde Hurbila. Egitura politiko konplexua eta malgua zen Otomandar Inperioa eta hainbat etnia eta erlijio zituen barnean. Bere goraldian, XVI. eta XVII. mendeetan alegia, hiru kontinentetako lurrak hartzen zituen: Iparraldeko Afrika, Hego-ekialdeko Europa eta Asiako Ekialde Hurbila. Aro Berrian, lehian ibili ziren Europa kristaua eta Otomandar Inperioa Mediterraneo itsasoa kontrolatu nahian. XIX. mendean zehar, berriz, Inperioaren gainbehera hasi zen, eta Europako zein Ipar Afrikako lurraldeak galdu zituen. Ekialde Hurbileko lurraldeak, aldiz, XX. mende-hasierara arte egon ziren otomandarren mendean. XX. mendearen hasieran arabiar nazionalismoa sortu zen eta lehenengo urratsak eman zituen; ideia horiekin batera, Otomandar Inperioaren mendetik alde egin nahia hedatu zen zenbait gizarte-sekto- retan. Gauzak horrela, Lehen Mundu Gerrak eragin handia izan zuen Ekialde Hurbilean, eta erabat aldatu ziren alde horretako egoera eta mapa politikoa.

Jakina denez, Otomandar Inperioak parte hartu zuen Lehen Mundu Gerran, Alemania eta Austria-Hungariako Inperioarekin batera, potentzia aliatuen aurka. Egoera horretan, Ekialde Hurbileko lurraldeetan ere gatazka belikoak gertatu ziren. Ekialde Hurbileko etorkizunerako egitasmo eta interes kontrajarriak planteatu ziren orduan. Britainiarrek, Otomandar Inperioaren kontrako borrokan, arabiarren laguntza lortzeko helburuz, arabiar erresuma independentea sortzen lagunduko zutela agindu zien. 1915ean, Henry McMahon britainiar ordezkariak eta Hussein Mekako jerifeak¹¹, haxemi dinastiakoak, negoziatu zuten akordioa. Horregatik, 1916an Otomandar Inperioaren kontra matxinatu ziren arabiar indarrak, eta Da-

11. Jerife edo sharif Mahomaren ondorengoetakoa da, eta zenbait dinastiak dute ohore hori. Horien artean haxemiak ditugu, XX. mende-hasieran Arabiako Hijaz eskualdea kontrolatzen zuen dinastiakoak. Familiaburua, Hussein, Mekako jerifea zen eta hiri santua zaintzeko ardura zuen.

masko hartu zuten Faysal emirraren (Mekako Husseinen semearen) gidaritzapean 1918an. Baina 1916an Britainiako eta Frantziako agintariek Sykes-Picot izeneko akordio sekretua hitzartu zuten. Akordioak, Hussein jerifeari esandakoari muzin eginez, bi potentzien artean banatzen zituen Ekialde Hurbileko lurraldeak¹². Gauzak gehiago nahasteko, britainiarrek Balfour Adierazpena eman zuten aditzera 1917an. Horren bitartez, Arthur James Balfour Ingalaterrako Kanpo Arazoetarako ministroak, Britainiako gobernuaren izenean, Palestinan juduentzako «egoitza nazionala» sortzeko laguntza eskaini zion mugimendu sionistari. Beraz, Ekialde Hurbileko lurraldeetarako egitasmo, interes eta konpromiso kontrajarriak azaldu ziren Lehen Mundu Gerraren garaian: arabiar erresuma, juduentzako «etxe nazionala», eta banaketa koloniala.

9.1. 1914 Otomandar Inperioa eta galdutako lurraldeak.




GEOATLAS®

Iturria: P. Rekaewicz: "The Middel East in 1914"
(<http://mondediplo.com/maps/middleeast1914>)

12. Mark Sykes britainiar diputatuak eta Charles-Georges Picot Frantziako kontsul ohiak negoziatu eta sinatu zuten akordioa. Hango lurralde batzuk potentzien kontrol zuzenaren mende gelditu ziren (Frantziarentzat egungo Libano eta Ingalaterrarentzat Bagdad eta Basora), beste batzuk eragin-esparrutan banatu ziren (Frantziarentzat egungo Siria, eta Ingalaterrarentzat Mosul eta egungo Jordania) eta, azkenik, Palestinak nazioarteko administrazioa izango zuen akordioaren arabera.

9.2. 1916 Palestinaren banaketa Sykes-Picot hitzarmenaren arabera.



Iturria: <http://www.jewishvirtuallibrary.org/jsourc/History/sykesmap.html>

Lehen Mundu Gerra amaitu zenean erabaki zen Ekialde Hurbileko etorkizuna. 1920an Sèvresko Ituna sinatu zuten Otomandar Inperioak eta potentzia aliatuek; hitzarmenaren arabera, Ekialde Hurbileko lurraldeak galdu zituen Inperioak. Kalifatoaren ordezt, Turkiako Errepublikak sortu zen 1923an, Anatoliako penintsulako lurraldera mugatuta Asian. Ekialde Hurbileko lurraldeak Britainiaren eta Frantziaren *agintepeko* bihurtu ziren, hau da, Nazioen Elkartearen aginduz administraturiko lurraldeak izango ziren aurrerantzean burujabe izateko prestatu egon arte, teoriar behintzat. Muga eta unitate politiko berriak asmatu zituzten potentzia kolonialistek, beren interesen mesedetan. Palestina, Irak eta Transjordania Britainiaren agintepeko izango ziren; Siria eta Libano Frantziarenak. Horrela sortu zen Ekialde Hurbil garaikidea. Mediterraneoetik Persiaraino muga zehatzik gabeko lurraldearen ordezt, eremu politiko zatitua eratu zen orduan. Harrezkero, elkarren aurkako nazionalismoak borrokatu dira eskualde horretan, eta munduko potentzia indartsuenak beren eragina zabaltzen saiatu dira etengabe.

9.3. SIONISMOA

Mugimendu nazionalista judua da sionismoa. Theodor Herzl (Budapest, 1860 - Viena, 1904) austriar kazetari eta idazlea izan zen sortzaile nagusia. *Estatu Judua* liburua idatzi zuen 1896an Herzlek. Garai hartan, batetik, kultura juduaren pizkundea gertatu zen eta, bestetik, semitismoaren aurkako adierazpenak azaldu ziren, batez ere Errusian eta Polonian. Bestalde, mugimendu nazionalistak hedatu ziren Europa osoan eta horietako bat izan zen sionismoa. Baina juduak munduan zehar sakabanaturik egoteak eta lurralde zehatzik ez izateak ezaugarri berezia eman zion mugimendu nazionalista sionistari. Juduak gutxiengoa ziren bizi ziren herrialde guztietan. Beraz, lurralde bat behar zuen sionismoak «etxe nazionala» eraikitzeko. XIX. mendearen bukaeran, kolonialismoaren garaian alegia, Europako potentziak kolonizatzen ari ziren eskualdeetan bilatu zuten balizko lurraldea. Laburbilduz, garaiko emaitza izan zen sionismoa, Europako semitismoaren aurkako mugimenduen, nazionalismoen eta kolonialismoaren garaiko emaitza, alegia.

Theodor Herzlen tesi nagusiaren arabera, herri judua jazarria izan zen historian zehar eta estatu judua sortzea zen antisemitismoa gainditzeko bide bakarra. Estatu hori eraikitzeko juduek lurralde zehatz batera emigratu behar zuten, eta bertan kolono gisa ezarri behar ziren. Lurralde horren kolonizazioa bideratzeko, bi elkarte sortzea proposatu zuen Herzlek. Batetik, *Society of Jews*: estatu berriaren oinarri politikoak eta kulturalak ezarri behar zituen elkartea. Eta, bestetik, *Jewish Company*: finantza-baliabideak eraman behar zituena. Horrez gain, egitasmoa aurrera ateratzeko, Herzlek behar-beharrezkotzat jo zuen nazioarteko potentzien babesa, eta horren alde egin zuen lan berak. Estatu juduaren kokapenari zegokionez, hainbat aukera planteatu baziren ere (Uganda, Argentina, eta abar), 1897an Lehen Biltzar Sionistak Palestinan kokatzea erabaki zuen, juduen lurralde biblikoan, hain zuzen.

XIX. mendearen bukaeran hasi zen sionismoa bere politika garatzen. Bere egitura politikoa eta finantza-elkarteak erabiliz, juduen migrazioa bultzatu zuen Palestinara. Lehen Mundu Gerra baino lehen bi *aliya*¹³ izan ziren: lehenengoan, 1882tik 1890era, 25.000 juduk emigratu zuten Palestinara; bigarrenean, 1904tik 1914ra, 40.000 kolono judu ezarri ziren bertan. Aldi berean, sionismoak lan diplomatikoari ekin zion nazioarteko potentzien babesari lortzeko. Lehen aipaturiko Balfour Adierazpena izan zen estrategia horren emaitza eta sionismoaren lorpen nagusietakoa. Lehen Mundu Gerra amaitzean zegoela, 100.000 biztanle inguruko komunitate judua ezarria zen Palestinan, bertako populazioaren % 12, gutxi gorabehera. Juduen artean bi talde bereizten ziren: batetik, bertako sefardiak, hau da, sionismoak bultzaturiko emigrazioaren aurretik Palestinan bizi zen gutxiengo judua eta, bestetik, askenaziak, hots, Ekialdeko Europatik emigratuak. Azken horiek lurra erosi zituzten, nekazaritzarako lur kolektiboak —*kibbutzak*— eratu zituzten, erakundeak sortu eta beren komunitatea antolatu zuten arlo guztietan. Ikusten dugun bezala, nazionalismo berezia zen sionismoa, estatu nazionala eraiki nahi baitzuen judu herria bizi ez zen lurralde batean, Palestinan, alegia. Are gehiago, lurralde horretan beste herri bat bizi zen, Palestinako arabiarrek hain zuzen, eta horrek kolonialismoaren kutsua eman zion sionismoari. Bestela esanda, sionismoaren lelo nagusietako bat «Herririk gabeko lurralde bat, lurralderik gabeko herri batentzat» ez zetorren bat Palestinako errealitatearekin, eta geroago piztu ziren gatazkak izan ziren ondorioa.

9.4. PALESTINA, BRITAINIARREN AGINTEPEAN (1922-1948)

1922an Nazioen Elkarteak ofizialki eman zion Palestinako agintea Erresuma Batuari. Agintearen agiriak zioenaren arabera, Ingalaterrak bere gain hartzen zuen juduentzako «etxe nazionala» sortzen laguntzeko ardura, Palestinako arabiarren eskubide erlijioso eta zibilak urratu barik. Beraz, britainiarren agintepean (1922-1948), Europako judu askok Palestinara emigratzea onartu zen. Aurreko migrazioak bezala, garai horretako aliyak ere Juduen Agentziak bultzatu zituen eta Palestinako nekazaritzarako lurra erostea eta kolonizazioa antolatu zituen. Palestinako lurraldea judu bihurtzea zen helburua. Hori lortze aldera, zenbait arau jarri ziren indarrean; adibidez, juduek erositako lursailak berek bakarrik landu zituzketen, eta debekatuta zegoen judu ez zirenei lurra saltzea; horrela, bazterturik geratu ziren arabiar biztanleak.

¹³ *Aliya* hitzak igoera esan nahi du hebreeraz, eta hitz horrekin izendatzen du sionismoak juduen Palestinarako emigrazioa.

Juduen migrazioa Palestinara, Israelgo estatua sortu aurretik.

URTEA	BIZTANLERIA JUDUA	ARABIAZ BIZTANLERIA
1880	24.000 (% 4,5)	525.000 (% 95)
1915	90.000 (% 13)	590.000 (% 86)
1931	174.000 (% 18)	837.000 (% 81)
1947	608.000 (% 31)	1.237.002 (% 69)

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 511.

Britainiarren agintepean bi komunitate banandu eratu ziren Palestinan, judua eta arabiarra, eta etengabe areagotu zen haien arteko tentsioa. Sionistek beren erakunde politikoak garatu zituzten, britainiarren baimenarekin: hezkuntzarako, justiziarako, segurtasunerako edo ekonomiarako erakundeak. Era autonomoan gobernatu zuten, hau da, protoestatu bat sortu zuten. Arabiarrak, beren aldetik, Biltzar Musulman Gorenaren inguruan antolatu ziren. Egoera horretan, arabiarren eta juduen arteko gatazka ugari sortu ziren, eta hogeita hamarreko hamarkadan areagotu egin ziren tentsioa, erasoak eta indarkeria. 1936an Palestinako arabiarren matxinada handia hasi zen eta 1939. urtera arte iraun zuen. Borroka armatua erabili zuten arabiarrek egitasmo sionisten kontra, baina britainiarrek mendean hartu zuten mugimendua. Matxinadaren porrotaren ondorioz, Palestinako elite nazionalistak ere porrot egin zuen eta buruzagitzan geratu zen hutsunea arabiar estatuek bete zuten Israelgo estatua sortutakoan. Talde sionistek erakunde armatuak sortu zituzten. Batetik, *Irgun* eta *Lehi* muturreko erakundeek atentatuak egin zituzten, arabiarren zein britainiarren aurka. Bestetik, *Hagana* sionismo ofizialaren segurtasuneko erakundea zen. Bi herrien arteko gatazkak ikusita, britainiarrek aldatu egin zuten politika. Palestina banatzea proposatu zuten 1937. urtean. *Peel Batzordearen* planaren arabera, Transjordaniak Palestinako lurralde gehiena anexionatu egin behar zuen eta lurralde txiki bat utzi behar zuen juduen estatua sortzeko, baina Palestinako arabiarrek ez zuten onartu plana. Bestalde, liskarren gorakada ekiditeko, Erresuma Batuak juduen migrazioa eta lurren erosketak murriztea erabaki zuen 1939an (*Liburu Zuria*).

Testuinguru horretan, Bigarren Mundu Gerran gertaturiko holokaustoak ondorio garrantzitsuak izan zituen Israelgo estatuaren sorrera-prozesuan. Palestinarako migrazioa areagotu zuen, hainbat eta hainbat juduk babesgunea aurkitu baitzuten Palestinan. Azken batean, bazirudien juduen genozidioak arrazoia ematen ziola T. Herzli, hots, juduek babestoki bat behar zutela, estatu bat, antisemismotik eta jazarpenetik ihes egiteko. Une historiko hartan, sei milioi judu hildakoren berri eman zenean, juduen eskakizunen aldeko mugimendua sortu zen nazioartean, eta testuinguru horretan kokatu behar da NBERen 1947ko jarrera palestinar auzian.

Bigarren Mundu Gerra amaituta, Erresuma Batuak Nazio Batuen esku utzi zuen Palestinako auzia. 1947an Palestina bi estatutan banatzeko plana onartu zuen NBEk. Juduen estatua Palestinako lurraldearen % 55 izango zuen; arabiarra zen lurralde horretako biztanleen % 40 inguru. Arabiar estatua izango zen Palestinako gainerako lurraldea, eta hor ia ez zegoen biztanle judurik. Nazioarteko hiria izango zen Jerusalem, NBEren planaren arabera. Jakina denez, arabiarrek ez zuten banaketa-plana onartu. Aldi berean, areagotu egin ziren bi komunitateen arteko gatazkak eta erasoak. Egoera horretan, Britainia Handiak amaitutzat eman zuen bere agintea, eta sionismoaren buruzagi nagusiak, David Ben Gurion-ek, Israelgo estatua aldarrikatu zuen 1948ko maiatzaren 15ean. Orduan lehertu zen arabiarren eta Israelen arteko borroka, eta harrezkero ez du konponbiderik izan.

Palestinako biztanleria 1947an

	Juduak	Arabiarrak	Guztira
Juduen estatua	498.000	407.002	905.002
Arabiar estatua	10.000	725.000	735.000
Jerusalem	10.000	105.000	205.000
Guztira	608.000	1.237.002	1.845.002

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 511. or.

9.5. ISRAELEN ETA ARABIARREN ARTEKO GATAZKEN BILAKAERA (1948-1973)

NBEren planaren ondoren, arabiarren eta juduen arteko indarkeriak eta erasoek gora egin zuten. Israelgo estatua aldarrikatu zenean, inguruko arabiar estatuen oposizioa eta erreakzioa azaldu zen. Egipto, Siria, Transjordania, Irak, Libano eta Saudi Arabiak Israelen kontrako koalizioa osatu zuten, eta arabiarren eta israeldarren arteko lehenengo gerra piztu zen 1948an. Arabiarren Armadak gaizki koordinatuta eta gaizki hornituta zeuden. Armada judua, ordea, ondo antolatua eta armatua¹⁴. Egoera horretan, Israel nagusitu zen. Horregatik deitzen diote sionistek *Independenzia Gerra*. Garaipenaren ondorioz, Israelek bere lurraldea asko handitzea lortu zuen, 14.000 km koadrotik 20.700era; Gaza Egiptoren administraziopean gelditu zen, eta Zisjordania Jordaniaren esku. Beraz, desagertu egin ziren NBEren planak aurreikusitako palestinar estatuarentzako lurraldeak, Israelen eta auzoko arabiar estatuen mesedetan. Gainera, Israelgo estatuaren aldarrikapen eta gerraren ondorioz, palestinar errefuxiatuen arazoa sortu zen. Ilan Pape israeldar historialariak


14. Israelek bloke komunistaren laguntza militarra jaso zuen 1948an. Garai hartan, Ekialde Hurbilean mendebaldarren babesa zuten arabiar monarkia kontserbadoreak ziren nagusi (Egipto, Irak, Jordania...) eta oreka hori aldatzeko abagunea ikusi zuten sobietarrek Israelgo estatuaren sorreran. Hori ere beste arrazoi bat izan zen 1947an NBEk banaketa-plana bultzatzeko.

dioenez, Israelgo estatuak garbiketa etnikoari ekin zion eta kanporatu egin zituen¹⁵ bere lurraldean bizi ziren arabiarrek. Beste autore batzuek, berriz, arabiarrek beren borondatez alde egin zutela diote. Indarrez kanporatuta edo beldurrez alde eginda, 750.000 palestinar inguruk egin zuten ihes Israeldik. 1948an NBEk 194. Ebazpena onetsi zuen, non palestinar horiek itzultzeko eskubidea zutela aitortzen baitzen. Hala ere, errefuxiatuak eta haien itzultzeko eskubidea da gaur egun ere palestinarren eta israeldarren arteko eztabaidagai nagusietakoa. Milioika palestinar errefuxiatu bizi dira Gazan, Zisjordanian eta auzoko arabiar estatuetakoa errefuxiatuen zelaietan, oso bizi-baldintza penagarrietan.

Hurrengo hamarkadetan gerra gehiago piztu ziren arabiar estatuen eta Israelen artean. Bazirudien bakealdiak gerra prestatzeko garaiak zirela, 1970eko hamarraldira arte behintzat. Eta gerra horien bitartez, batetik Ekialde Hurbileko herrialdeen arteko oreka aldatu zen eta, bestetik, Israelgo estatua finkatu zen. Aldi berean, nazioarteko potentzien esku-hartzea Gerra Hotzera mugatu zen. 1956. urtean piztu zen arabiarren eta israeldarren arteko bigarren gerra: Suezko krisia (ikus lehen kapitulua). Gamal Abdel Nasserrek, Egiptoko panarabiar lider sozialistak, Suezko kanala nazionalizatzea erabaki zuen 1956an, europar potentzien interesen kaltean. Hori dela-eta, Israelek, Frantziak eta Erresuma Batuak eraso egin zioten Egiptori. SESBren mehatxuek, AEBren presioek eta NBEren ekintza diplomatikoak lortu zuten su-etena ezartzea eta tropek atzera egitea. Nasser eta haren egitasmo politikoa (arabiar nazionalismo sozialista laiko eta modernizatzailea) izan ziren gatazko irabazle politiko nagusiak. Azken finean, Israelek, Frantziak eta Ingalaterrak ez zuten Egipto menderatzea lortu. Porrot itzela izan zen gerra hura europar potentzia kolonialentzat eta agerian gelditu zen Ekialde Hurbilean europar kolonialismo zaharraren amaiera. Ordutik aurrera, europar potentziek utzitako hutsunea Gerra Hotzeko bi superpotentziek bete zuten eta *bipolarizatu* egin ziren Ekialde Hurbileko eta Palestinako gatazkak. Gerra Hotzaren dinamikan sartuta, arabiar herrialde sozialistek sobietarren laguntza izan zuten eta Estatu Batuek, aldiz, Israeli eta Mendebaldekoen aldeko monarkiei eman zieten babesa.

15. Pappe, I. (2008): *La limpieza étnica de Palestina*, Crítica, Bartzelona.

9.3. Israelen lurralde-bilakaera.



Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II. 517.

1967. urtean *Sei Eguneko Gerra* gertatu zen. Berriro ere, arabiar estatuaren koalizioa (Egipto, Siria, Jordania eta Irak) eta Israel elkarren kontra borrokatu ziren. 1967. urtearen hasieran etengabe hasi zen igotzen arabiar herrialdeen eta Israelen arteko tentsioa. Lehenengo, Israelen eta Siriaren arteko tirabira militarrek izan ziren. Geroago, Nasserrek eskatu zuen Sinaiko penintsulan zeuden NBERen

tropek alde egiteko; eta Tiranako itsasartea (Israelen itsasorako irteeretako bat) ixtea erabaki zuen maiatzean. Azkenik, ekainaren bostean, Israeliek ustekabean egin zien eraso arabiar estatuei, eta garaipen azkarra lortu zuen. Sei Eguneko Gerrak ondorio erabakigarriak izan zituen, bai Palestinako auzian, bai Ekialde Hurbileko egoera orokorrean. Palestinako gatazkari zegokionez, mapa berria ekarri zuen gerrak. Egiptoren Sinaiko penintsula eta Siriaren Golan-eko gainak eskuratu zituen Israeliek. Horrez gain, lehenagoko Palestinako lurralde guztiak kontrolatzea lortu zuen: ekialdeko Jerusalem, Zisjordania eta Gaza. Ekialdeko Jerusalem anexionatu zuen Israeliek, NBek hori legez kanpokoak zela ebatzi arren. Gaza eta Zisjordania, berriz, ez zituen anexionatu, horrek haietako arabiar biztanleria Israelgo herritar bihurtuko baitzuen; eta egoera horrek zalantzan jarriko zuen estatuaren izaera judua. Beraz, Gaza eta Zisjordania militarki okupaturiko lurralde bihurtu ziren, eta Israeliek harreman koloniala ezarri zuen haiekin; hau da, Israelgo ekonomiarako merkatu eta lan-indar merkearen iturri bihurtu ziren. Baina denborak aurrera egin ahala, bi hamarkadatan okupazio militarra pairatu ostean, lurralde okupatuetao biztanleriak protagonismo handia hartu zuen gatazkan: 1987an piztu zen lehen *Intifada*. NBEren 242. Ebazpenak Israeliek lurralde okupatuetaatik atzera egin behar zuela agindu bazuen ere, Israeliek ez zuen bete agindua, eta azken berrogei urteetan juduen ezarpen-eremu ugari sortu ditu lurralde okupatueta. Bestalde, Sei Eguneko Gerraren porrotak arabiar sozialismoaren eta panarabismoaren krisia eragin zuen. Horrekin batera, ahuldu egin zen Sobietar Batasunaren eragina Ekialde Hurbilean, eta indartu, aldiz, Estatu Batuen eta haren aliatuena (Israelena, Saudi Arabiarena).

Sei Eguneko Gerra porrot handia izan zen herrialde arabiarrentzat, eta batez ere Egiptorentzat, lurralde zati handi bat, Sinaiko penintsula, galdu baitzuen. Egiptok ezin zuen *statu quo* hori onartu eta berehala hasi zen beste gerra bat prestatzen. 1973ko urriaren 6an, *Yom Kippur* egunean, hau da «juduen barkamen-egunean», Egiptok eta Siriak ustekabean egin zioten eraso Israeli. Garaipenik gabe amaitu zen gerra eta horrek erakutsi zuen Israel ez zela erasoezina. Garailerik ez izateak bultzatu zituen bi etsai, Egipto eta Israel, negoziazioaren bideari ekitera. Horren emaitza Camp Davideoko Itunak izan ziren 1978an. Egiptok bakea sinatu zuen eta Israelgo estatua onartu zuen; horren truke Sinaiko penintsula berreskuratu zuen. Beste arabiar herrialdeek gaitzetsi egin zuten Egiptoren politika, eta bakartu egin zuten mundu arabiarrean. Gainera, palestinar auzia konpontzeko akordioak ez zuen ondoriorik izan.

9.6. PALESTINARREN ERRESISTENTZIAK

Ikusi dugunez, hasieran arabiar estatuen esku gelditu zen Israelen kontrako borroka. Baina gatazkaren bilakaerak agerian utzi zuen palestinarrek beren erakunde bat behar zutela palestinarren interesen alde egiteko, arabiar estatuen interesen mende egon gabe. 1964an sortu zen Palestina Askatzeko Erakundea (PAE),

Arabiar Ligak bultzatuta. Hala ere, lehenengo urteetan, arabiar estatuen tresna izan zen PAE. 1969an, hau da Sei Eguneko Gerraren porrotaren ondoren, Jassir Arafatek hartu zuen bere gain erakundearen buruzagitza, eta orduan hasi zen benetako autonomiaz jokatzeko PAE. Erakundeak ez zituen onartzen ez Palestinaren banaketa ez Israelgo estatua. Palestinar estatu independentea sortzea zen helburua, eta sionismoaren kontrako borroka armatua erabiltzen zuen xede hori lortzeko. Milizia antolatzen zituzten Israelen inguruko errefuxiatuen zelaietan eta Israelen kontrako erasoak egiten zituzten. Horrez gain, PAEk atentatu ugari egin zituen, mundu osoan palestinarren auzia iritzi publikoari ezagutarazteko eta gogorarazteko. Ekintza diplomatikoa ere landu zuen Arafatek, eta 1974an Nazio Batuek PAE hartu zuten palestinarren ordezkariatzat.

1970era arte Jordanian izan zuen PAEk egoitza nagusia. Hantxe sortu zituen egitura politikoa, militarra eta agintaritzarako erakunde autonomoak. Jordaniako Hussein erregeak, bere boterea arriskuan egon zitekeela ikusita, 1970eko irailean PAEren kontrako eraso agindu zuen, eta milaka hildako izan ziren; horregatik deitzen diote *Irail Beltza* palestinarrak gertakari hari. Jordaniatik kanporatuta, Libanora aldatu zen PAE; PAEren presentziak kalte egin zion Libanoko oreka politiko-erlijioso ahulari. Horren ondorioa izan zen 1975ean hasitako gerra zibila. Hegoaldeko Libanotik Israel erasotzen zuten palestinarrak miliziek. 1982an Libano inbaditzea erabaki zuen Israelek eta PAE Libanotik kanporatzea lortu zuen. Orduan gertatu zen Sabra-ko eta Shatila-ko —Beirut inguruan— palestinarrak errefuxiatuen zelaietako sarraskia: Israelgo Armadak babesturiko Libanoko milizia kristau batek 3.000 milatik gora palestinarrak zibil hil zituen.

1987an palestinarren beste erresistentzia mota bat azaldu zen: *Intifada*. PAEko *fedayinen* ekintzen ordez, lurralde okupatuetako biztanle zibilak ziren matxinada horren protagonista. Munduko iritzi publikoaren begi-bistan, Zisjordia eta Gazako armarik gabeko populazioaren kontra egin zuen eraso israeldarren Armada ahaltuak, eta 4.700 hildako inguru izan zen emaitza. Hala ere, ezin izan zuen matxinada indargabetu. Azken finean, *Intifadak* aldatu egin zituen palestinarrak auziaren ezaugarriak eta negoziazio-bideari ekiteko faktoreetako bat izan zen. 1993ra arte luzatu zen *Intifada*, hau da, Osloko akordioak sinatu arte.

1987. urtean HAMAS (*Erresistentzia Islamikoaren Mugimendua*) sortu zen. Palestinar estatu islamiarra eraikitzea zen helburua, pentsamolde nazionalista eta erlijiosoa (islamiarra) uztartuz. Hasieran, HAMASen sorrerak PAE ahuldu zeza keela uste zuen Israelek, eta horregatik ez zuen legez kanpo utzi 1989ra arte. Borroka armatua eta ekintza sozialak uztartu ditu HAMASek. Gizarteko behartsuenen mesedetan aritzeak lagundu dio HAMASi hedatzen eta, bereziki, Gazako gizartearen atxikimendu handia lortu du. Ez du Israelgo estatua onartzen eta, beraz, negoziazio-bidea ere ez. Hori dela-eta, Osloko akordioen ondoren ere israeldarren kontrako atentatuak egiten jarraitu du. Testuinguru horretan, erabat zatitu da palestinarren erresistentzia HAMASen eta Palestina Askatzeko Erakundearen artean.

9.7. BAKE-PROZESUA ETA HAREN PORROTA

Laurogeiko hamarraldiko azken urteetan nazioartean zein Ekialde Hurbilean izandako zenbait aldaketak eraginda, konponbide negoziatuaren bila hasi ziren. Arestian esan bezala, *Intifadak* agerian utzi zuen Israelek ezingo zuela luzatu Zisjordanian eta Gazako okupazio militarra gatazka larririk gabe. Beraz, Israelgo estatuari komeni zitzaion konponbideren bat aurkitzea, eta negoziazioaren bidez bakarrik lor zitekeen hori. Palestina Askatzeko Erakundeak, bere aldetik, urte askotako borroka armatuaren ondoren, ezer gutxi lortu zuen. Jordaniatik eta Libanotik kanporatuta, Tunisian zuen egoitza. Palestinatik urrun zegoenez, gero eta ahulagoa zen PAEren eragin politikoa eta militarra. Egoera horretan, pragmatismoa eta negoziazioa nagusitu ziren PAEren zuzendaritzaren estrategian. Gerra Hotzaren bukaerak ere lagundu zuen elkarrizketaren bidean. Palestinar erresistentziaren aliatu nagusietakoa izan zen SESB aurreko hamarraldietan, baina *perestroikaren* garaian bake-prozesu baten alde azaldu zen Gorbaxov. Egoera berrian, sobietarren injerentziaren beldurrik gabe, Estatu Batuek ere ikusi zuten Ekialde Hurbilari egonkortasuna emateko abagunea eta, horretarako, Palestinako auzia konpondu beharra zegoen. Xede horrekin, «bakea lurraldearen truke» esamoldeak laburtzen zuen irtenbidea proposatu zen. Gauzak horrela, 1990ean Irakek Kuwait inbaditu zuen eta Golkoko Gerra piztu zen (ikus 11. gaia). Nazioarteko armada batek, AEBren gidaritzapean eta Nazio Batuen aginduz, esku hartu zuen Irakeko Armada Kuwaitetik kanporatzeko. Saddam Hussein-ek Palestinako auzia eta Kuwaiteko krisia uztartu zituen, eta emirerrietik alde egiteko baldintza bat jarri zuen: Israelek ere erretiratu egin behar zuen lurralde okupatuetatik. Horrela, nazioarteko erkidegoaren jarrera —Iraki zegokionez eta Israeli zegokionez— salatu zuen. Mezu horrek arabiarren eta PAEren atxikimendua lortu bazuen ere, arabiar gobernuek Iraken kontra eraturiko nazioarteko koalizioan hartu zuten parte, baina AEBri eskatu zioten palestinar auzia konpontzen laguntzeko konpromisoa. 1991ko urtarrilean, nazioarteko koalizioak Irakeko Armada menderatu eta Kuwaitetik kanporatu zuen.

Golkoko Gerra amaituta hasi zen bake-prozesua. 1991n Madrilen egin zen Ekialde Hurbileko Bake Konferentzian egin zen lehenengo urratsa; Estatu Batuek egin zuten deialdia eta ez NBEk. Arabiar herrialde nagusien ordezkariak eta Israelek hartu zuten parte. Jordaniako ordezkarietan integratu ziren palestinarrek, artean Israelek ez baitzuen ofizialki PAE onartzen. Aldi berean, Israelgo gobernu laboristak eta PAEk negoziazio sekretuak izan zituzten. 1993an sinaturiko Osloko Hitzarmena izan zen emaitza. Baina Osloko Hitzarmenak ez zuen bakea ekarri, helmuga horretara ailegatzeko bide bat baino ez zen izan. Bide horretan egin beharreko lehenengo urratsa palestinarrek eta israeldarrek elkar onartzea zen, eta horixe aitortu zen, hain zuzen, Osloko adierazpenaren hitzaurrean. Osloko akordioak behin-behineko bost urteko epea ezarri zuen. Urte horietan, batetik, aldi baterako palestinar autonomia ezarriko zen, Palestinar Aginte Nazionala (PAN) alegia,

hasieran Jerikora eta Gazara mugatuta. Eta, bestetik, Palestinar Aginte Nazionalak eta Israelek gai korapilatsuenak negoziatzeko hitza eman zuten: palestinar erre-fuxiatuen itzultzeko eskubidea, juduen koloniak lurralde okupatueta, Jerusalemgo etorkizuna, Palestinaren izaera politikoa eta haren mugak, eta abar.

1993ko adierazpenaren ondoren, Oslo II izeneko akordioa sinatu zen 1995ean. Horren arabera, Palestinar Aginte Nazionalak administratuko zituen Zisjordaniako hiri nagusiak. Biztanleria palestinarra zuten nekazaritzako landetan PANek izango zuen aginte zibila eta Israelek kontrol militarra. Zisjordaniako gainerako lurraldea Israelen kontrolpean gelditu zen. Beraz, Israel prest zegoen palestinar biztanleen kontrola uzteko; lurralde gehiena, aldiz, erabat kontrolatzen jarraitzen zuen, % 60 inguru, 1999an.

Osloko akordioek proposaturiko bideak oztopo ugari izan zituen eta, azkenean, porrot egin zuen. Palestinarren aldetik, HAMASEk ez zituen inoiz onartu eta Israelen kontrako erasoak egiten jarraitu zuen. Israelgo muturreko sektoreek ere ez zuten bake-prozesua ontzat eman. 1995eko azaroaren 4an gertaturiko atentatua dugu horren froga. Judu ultraortodoxo batek Isaac Rabin lehen ministroa hil zuen, Arafatekin Osloko akordioa sinatu zuen agintari laborista. Gainera, 1996an laboristek galdu egin zituzten Israelgo hauteskundeak. Ondorioz, Benjamin Netanyahu, *Likud* alderdi ultrasestuindarreko buruzagia, izendatu zuten gobernuburu. Lehen ministro berriak etengabe oztopatu zuen bake-prozesua: ez zituen bete sinaturiko akordioak eta Zisjordanian eta ekialdeko Jerusalemen juduen ezarpen-eremuak ugaritzen jarraitu zuen. Jokabide horrekin oztopoak baino ez zizkion jartzen Palestinako estatuaren etorkizunari. Osloko itzaropenak zapuzten ziren neurrian, indarkeriak gora egin zuen eta bake-prozesuari traba gehiago jarri zitzaizkion.

Juduen kokalekuak lurralde okupatueta.

	1972	1983	1993	2002
Kolono kopurua Zisjordanian eta Gazan	1.500	20.090	109.784	213.672
Ekialdeko Jerusalemeko juduak	6.900		141.000	170.000

Iturria: I. Barreñada: "El proceso de paz, historia de un fracaso anunciado", CSCAweb (www.nodo50.org/casca).

1999. urtean, berriro ere hauteskundeak egin ziren Israelen. Laboristak nagusi ziren eta Ehud Barak izendatu zuten lehen ministro. Gobernu berria palestinarrekin negoziatzen hasi zen, baina ez zuen akordiorik lortu. Testuinguru horretan, 2001. urtean, Ariel Sharon *Likud* alderdiaren buruzagiak, ehunka poliziek babesturik, ekialdeko Jerusalemgo musulmanen toki santuetara (Mezkiten Zabalgunera) egin zuen ibilaldi bat; nahikoa izan zen palestinarrek zirikatzeke. Bigarren *Intifadarako* txinparta izan zen ibilalditxo. Ehud Baraken gobernua eta bake-prozesua

krisi larrian sartu ziren. Horixe zen, hain zuzen, Ariel Sharonek nahi zuena. 2001ean hauteskundeak deitu zituzten, *Likud* alderdiak irabazi zituen eta Sharon bera jarri zuten lehen ministro. Harrezkero bake-prozesua etenda dago, eta eten-gabe egin dute gora indarkeriak eta errepresioak. Gainera, 2001eko irailaren 11ko atentatuaren ondoren, G. Bushek «terrorismoaren kontrako gerra» izendatu zuena aprobe txatu zuen Israelgo gobernuak palestinar erresistentziak zapaldu eta jazartzeko.

XXI. mendeko lehenengo urteetan okerrera egin zuen palestinar auziak. AEBk bultzaturiko bake-prozesuak porrot eginda, nazioarteko erkidegoak tresna berriak bilatu zituen gatazka konpontzeko. Horrela Errusiar Federakundeak, Europar Batasunak, Estatu Batuek eta Nazio Batuek osaturiko *lauko nagusia* sortu zen; eta *ibilbide-orria* proposatu zuen laukoteak 2003an. Plangintza horren azken urratsa Palestinako estatua sortzea zen 2005ean, baina plan horrek ere huts egin zuen; porrotaren erakusgarri dira harresia eraikitzea, 2006ko Libanoko Gerra eta 2008ko Gazaren kontrako eraso militarrek. Bien bitartean, Palestinar Aginte Nazionalean 2006. urtean egindako hauteskundeetan HAMAS nagusitu zen; baina Israelek, AEBk eta Europar Batasunak ez zuten HAMASen gobernu onartu; talde terroristak zela argudiatu zuten eta blokeo ekonomikoa ezarri zuten. Aldi berean, Al Fatah-ren eta HAMASen arteko distantzia handitu egin zen, haien arteko liskarrak ugaltu egin ziren eta, azkenik, erabateko haustura gertatu zen. Talde bakoitzak Palestinako lurralde zati txiki bat zuen kontrolpean: Al Fatah-k Zisjordanian eta HAMASek Gazan.

Laburbilduz, azken hamabost urteotan bake-prozesua bideratzen saiatu badira ere, erabateko porrota izan du zenbait arrazoi direla-eta. Batetik, Israelek ez du bakearen «prezioa» (lurraldeak) ordaindu nahi izan. Lurralde okupatuetan, kontrol militarren ordez, bestelako kontrola ezartzen saiatu da, eta ez du benetako palestinar estaturik onartu. Horregatik, lurralde horiek kolonizatzen jarraitu du gaur arte. Bestetik, Osloko akordioetan ezarritako prozedurak ez du ongi funtzionatu; izan ere, negoziatzaileen (PAE eta Israel) indarrak oso desorekatuak ziren, eta prozesuan ez zitzairen ahalmenik eman kanpoko eragile edo erakunde neutralei indarren desoreka berdintzeko. Gainera, ez zen akordioak betearazteko eperik zehaztu. Bake-prozesua agortuta, bakea bilatzen jarraitu beharra dago beste oinarri batzuen gainean. Palestinan bake justua lortuko bada, nazioarteko erkidegoa, haren legedia (NBERen ebazpenak) eta erakundeak (NBE batez ere) bakarrik izan daitezke oinarri berriak.

9.4. Lurralde palestinarren egoera XXI. mendearen hasieran.



Iturria: Veiga, F. (2009): *El desequilibrio como orden. Una historia de la posguerra fría 1990-2008*, Alianza Editorial, Madril, 31. or.

TESTU-ERANSKINA**BALFOUR ADIERAZPENA (1917)**

Erregeren Gobernuaren izenean, atseginez adierazten dizut honako kidesun-adierazpena, kabineteak aztertua eta hark onartua:

Herri juduarentzat Palestinan egoitza nazionala ezartzearen alde dago Erregeren Gobernua, eta bere esku dagoen guztia egingo du helburua gauza dadin; garbi geratzen da ez dela ezer egingo Palestinan dauden elkarte ez-juduen eskubide zibil eta erlijiosoen aurka, edo beste herrialde batzuetan juduek dituzten eskubide eta estatus politikoaren aurka.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 508-509.

1896, SIONISMOA. T. HERZL-EN *ESTATU JUDUA* LIBURUKO PASARTE BATZUK

Horrelakoak gara eta horrela jarraituko dugu, nahi eta nahi ez; kidekotasun garbiko talde historikoa gara.

Herri bat gara —etsaiak egiten gaitu guk nahi gabe— eta horrela gertatu da historia guztian zehar. Larrialdian bat eginda gaude guztiok eta hortxe aurkitzen dugu bat-batean gure indarra. Bai, estatu bat eratzeko indarra dugu, eta egia esan, estatu eredugarri bat eraikitzekoa.

Beharrezko baliabide guztiak ditugu, bai giza baliabideak, bai eta baliabide materialak ere. Hau izango litzateke giza baliabideez hitz egiteko toki egokia, esapideak berak dioena bere horretan hartuta. Baina, lehenago planaren ezaugarri nagusiak ezagutarazi behar dira, horren inguruan eraikiko baita dena.

Plana

Oso soila da plan guztiaren funtsezko egitura, eta horrelakoa izan behar da gizaki guztiak ulertuko badute.

Lurreko lurrazal zati baten gaineko subiranotasuna emango balitzaigu, herri gisa ditugun premiak asetzeko adinakoa, geu arduratuko ginateteke gainerako guztiaz.

Ez da oso erraza subiranotasun bat sortzea, baina ezinezkoa ere ez da. Beste herrialde batzuetan bizi izan dugu prozesu hori gure garaiotan, eta ez ziren erdi-mailako herriak; pobreak, kulturarik gabeak eta ahulak baizik. Benetan interesatzen zaie guri subiranotasuna eskaintzea semitismoaren aurkako jarrera dagoen herrialdeetako gobernuei.

Zeregin horretarako (erraza lehen begiradan, konplikatu gauczeko), bi organo sortu behar dira: *Society of Jews* eta *Jewish Company*. *Society of Jews* erakundeak zientifikoki eta politikoki prestatzen duena gauzatu beharko du *Jewish Company* erakundeak.

Judu etorkin guztien kapitalen interesen likidazioaz arduratuko da *Jewish Company* erakundea eta mugimendu ekonomikoa antolatuko du herrialde berrian.

Esan den bezala, judu guztiak ez dute bat-batean emigratuko. Gutxika-gutxika joango dira, eta hamarkadak iraungo du. Pobrenek egingo dute alde lehenik, eta horiek prestatuko dute lantzeko lurra. Egindako plan baten arabera, errepideak, zubiak, trenbideak eta telefonoak eraikiko dituzte; ibaiak erregulatuko dituzte eta beren etxeak egingo dituzte. Trafikoa ekarriko du haien lanak, trafikoak merkatuak, eta merkatuek kolono berriak erakarriko dituzte. Izan ere, denak etorriko dira askatasunez, bere gain eta galorde. Orain lurrari eskaintako lanak handitu egingo du herrialdearen balioa. Laster ikusiko dute juduek eskualde oparo bat zabaldu duela ordura arte gutxietsi eta arbuatutako saiakerak.

(...)

Society of Jews erakundearen inguruan elkartu behar dira estatuari buruz dugun ideiarekin bat datozen juduak. Horrela, juduen izenean gobernuekin hitz egiteko autoritatea bereganatuko du erakundeak. *Society*ri aitortuko diote, nazioarteko analogia juridiko batez baliatuz, estatu baten botere sortzailea dela. Horrekin, estatua osatuko dute...

Herri juduari lurralde neutral baten gaineko subiranotasuna aitortzeko prest badaude potentziak, orduan *Society*k aztertu egingo du onartzekoa den lurraldea. Bi herrialde daude gogoan: Palestina eta Argentina.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 505-507.

1967, NBE-REN 242. EBAZPENA

Segurtasun Kontseiluak Ekialde Hurbileko egoera larriaren aurrean etengabeko kezka adierazten du.

Azpmarratzen du ezin direla lurraldeak gerraren bitartez eskuratu, eta bake justu eta iraunkorraren alde egin behar dela lan, bake horretan eskualdeko estatu guztiak seguru bizi daitezen.

Gainera, azpmarratzen du Nazio Batuen Gutuna onartu dutenean estatu kide guztiak hartu dutela konpromisoa Gutuneko 2. artikularen arabera lan egiteko.

1. Baieztatzen du Gutuneko printzipioei men egiteak Ekialde Hurbilean bake justu eta iraunkorra ezartzea eskatzen duela; eta horrek ondoko bi printzipioak gauzatzea eskatzen du:

I. Israelen indar armatuak erretiratzea, arestiko gatazkan okupaturiko lurraldeetatik*.

II. Gerra-egoera guztiak edota gerraren aldeko adierazpen guztiak desagertzea, eta eskualdeko estatu guztien subiranotasuna, lurralde-osotasuna eta independentzia politikoa aitortzea; era berean, muga seguru eta onartuen artean bakean bizitzeko eskubidea aitortzea, mehatxurik eta indarkeriarik gabe.

2. Gainera, baieztatzen du beharrezkoa dela:

- a. Eskualdeko nazioarteko nabigazio-bideetatik nabigatzeko askatasuna bermatzea.
- b. Errefuxiatuen arazoari irtenbide justua aurkitzea.
- c. Eskualdeko estatu guztien independentzia politikoa eta lurraldeak errespetatzea, eta horretarako neurriak hartzea (eskualde desmilitarizatuak sortzea, besteak beste).

3. Idazkari nagusiari eskatzen dio Ekialde Hurbilera joango den ordezkari berezi bat izendatzeko. Helburu hau izango du ordezkariak: estatu interesatuekin harremanetan hastea eta jartzea, batetik, hitzarmen bat sustatze aldera, eta, bestetik, irtenbide baketsu eta onetsi bat lortzeko ahaleginetan laguntzeko, betiere ebazpen honen xedapen eta printzipioen arabera.

4. Idazkari nagusiari eskatzen dio ordezkari bereziaren ahaleginen aurrerabideari buruzko berri emateko ahalik eta lasterren Segurtasun Kontseiluari.

*Bertsio ingelesak «from territories occupied» jartzen du eta frantsesak «des territoires occupés». Hitz horren itzulpenak ebazpenaren bi interpretazio eragin ditu: palestinarrak ulertzen dute okupatutako lurralde guztietatik erretiratu behar direla; sionisten ustez, aldiz, okupaturiko lurralde batzuetatik bakarrik erretiratu behar dira.

Iturria: Martínez Rueda, F. eta Urquijo, M. (2006): *Materiales para la historia del mundo actual*, Istmo, Madril, II., 518-519.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Álvarez-Ossorio, I. (2001): *El miedo a la paz: de la guerra de los Seis Días a la segunda Intifada*, Catarata, Madril.
- Álvarez-Ossorio, I. (2005): *¿Por qué ha fracasado la paz? Claves para entender el conflicto palestino israelí*, Catarata, Madril.
- Ben-Ami, S. (1999): *Israel, entre la guerra y la paz*, Ediciones B, Bartzelona.
- Culla, J.B. (2005): *La tierra más disputada: el sionismo, Israel y el conflicto de Palestina*, Alianza, Madril.
- Faure, C. (zuz.) (2005) *Dictionary of the Israeli-Palestinian conflict. Culture, history and politics*, Thomson Gale, Detroit.
- Finkelstein, N.G. (2004): *Imagen y realidad del conflicto palestino-israelí*, Akal, Madril.
- Gelvin, J.L. (2007): *The israel-palestine conflict: one hundred years of war*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Gilbert, M. (2008): *The Routledge Atlas of the Arab-israeli conflict*, Routledge, Londres.
- Martín Muñoz, G. eta Moure, L. (arg.) (2006): *El mundo árabe e islámico. Experiencia histórica, realidad política y evolución socio-económica*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Pappe, I. (2007): *Historia de la Palestina moderna: un territorio, dos pueblos*, Akal, Madril.
- Pappe, I. (2008): *La limpieza étnica de Palestina*, Crítica, Bartzelona.
- Said, E.W. (2001): *Crónicas palestinas: árabes e israelíes ante el nuevo milenio*, Mondadori, Bartzelona.
- Said, E.W. (2002): *Nuevas crónicas palestinas: el fin del proceso de paz*, Mondadori, Bartzelona, 2002.
- Segura, A. (2001): *Más allá del Islam: política y conflictos actuales en el mundo musulmán*, Alianza, Madril.
- Naciones Unidas: *Conflicto en el Oriente Medio*, <<http://www.cinu.org.mx/temas/palestina.htm>> [Kontsulta: 2010-12-28].
- Palestina en mapas*, <<http://www.palestina.int.ar/mapas.html>> [Kontsulta: 2010-12-28].

10. Afrika, krisian murgilduta

10.1. SARRERA

Nahikoa dugu edozein egunkarik astebukaeretan berriak laburtzeko ateratzen dituen munduko mapei erreparatzea Afrikaren ikusezintasunaz jabetzeko, ez baldin bada gerra edo antzeko hondamendiren bat gertatu. Lehen ikusmiran, beraz, badirudi nazioarteko ordenatik baztertuta dagoen kontinente bat dela Afrikakoa, eta 1960ko hamarkadatik hona, hau da, hango herrialde gehienek independentzia politikoa lortu zutenetik, ezer garrantzitsu gutxi edo ezer on gutxi gertatu dela han. Afrikako eskualde askok jasan dituzten hondamendiek toki nabarmena izango dute atal honetan, baina ez genuke nahi afrikarren historia garaikidea zorigaiztoaren sinonimo bilakatzea. Kontinente horretan bisitari izan diren askok, bibliografian aipatzen diren Kapuscinski kazetari poloniarrek eta Juanjo Olasagarre idazle euskaldunak besteak beste, alaitasuna, erritmoa eta argitasuna aipatzen dituzte Afrikaren berezitasunen artean. Estatu askok porrot egin baldin badute ere, zenbait tokitan herritarrek jakin izan dute egoera txarrei aurre egiten, elkartasun- eta babes-sareak antolatzen, bizi ahal izateko estrategiak garatzen eta gizarte paraleloak osatzen; hitz gutxitan esanda, jakin dute beren bizitzan agente aktibo bilakatzen.

Itxaropen handia jarri zuten askok Afrika burujabe berrian, blokeen arteko lehiatik kanpo ikusi nahi zuten, Europa zaharreko ajeetatik libre eta baliabide mineralen (diamante, kobalto, uranio, bauxita, petrolio eta abarren) ondorioz aberastasunaren bidean. Alta, ez zen horrelakorik gertatu. Aberastasun horiek gorabehera, desoreka handiak sumatzen dira Afrikan eta maiz lurralderik aberatsenak, Kongo eta Hegoafrikako Errepublika lekuko, dira arazo gehien izan dutenak. Azken berrogeita hamar urteetako historian, bestetik, jakien autoaskitasuna lortzea izan da afrikar askoren kezka nagusia. 1960ko hamarkadan, independentzia politikoa emantzipazioaren lehenengo urratsa zela pentsatzen zuten elite afrikarrek, estatua xede hori lortzeko tresna zelakoan. Aitzitik, independentzia lortu zutenetik bost hamarkada igarota, kasu gehienetan, itxaropenen iraultza hura zapuztu egin da zalantzarik gabe.

Eztabaida asko dago egungo Afrikako arazo larrien iturburuen inguruan. Europarekiko mendekotasuna da gehien aipatzen dena. Ondorio asko utzi zituen kolonialismoak Afrikan, 7. gaian ikusi dugunez: modernizazio ekonomiko desorekatuak, ekonomia dependenteak, egitura ekonomiko bikoitzak, estatuen muga artifizialak eta, besteak beste, nazio-estatuak eraikitzeke kohesio falta. Era desber-

dinetan lortu zuten afrikarrek independentzia, eta desberdina da, era berean, metropoli ohiarekiko harremana. Batzuetan nabaria izan da apurketa politikoa, ez hainbeste kulturaren edota ekonomiaren arlokoa. Loturari eutsi ziotenek, Frantziaren mende zeuden Afrika Beltzeko herrialde askok esate baterako, eredu kapitalistari eutsi zioten. Beste batzuetan, aldiz, herrialde arabiar batzuetan (adibidez, Aljerian edo Nasserren Egipton) edo hego-ekialdeko Afrikan (esaterako Tanzanian), eredu sozialistak nagusitu ziren. Aurrerapenaren eredu europarra lortzea zen guztien helburua, baina porrot egin zuten ahalegin gehienek. Beharbada, mimetismo horretan dago —mendekotasunaz gain— porrot horren faktoreetako bat, hots, Europako garapen-eredua ezartzeko ahalegina oso egitura ekonomiko eta sozial desberdinak zituzten herrialdeetan. Bestetik, ia berrogeita hamar urte igaro dira Afrikako herrialde gehienek burujabetza politikoa lortu zutenetik, eta ez da zuzena Afrikako estatu askok bizi duten egoera penagarriaren erru oso eta bakarra kolonia menderatzaileen itzalari leporatzea. Ondorengo ataletan, beraz, deskolonizazioaren ondorioak aztertzeaz gain, Afrikako estatu independenteetako kudeaketa berezia izango dugu hizpide, eta horretarako kanpoko eta herrialdeko bertako faktoreen garrantzia azaltzen saiatuko gara.

Aniztasuna da Afrikaren ezaugarria, beste kontinente guztietan gertatzen den moduan; Europa baino zabalagoa da eta 2008ko datuen arabera, 972.752.377 lagun bizi dira han, Amerika guztian baino jende gehiago. Basamortu lehorrena eta oihan aberatsena aurki daitezke bertan, teknologia garatuena eta Harri Arotik atera berri diren giza taldeak, oso pertsona aberatsak eta munduko herrialderik txiroena. Kolonialismoaren aurretik dozenaka estatu zeuden bertan, eta kolonialismoaren garaian metropoliek ez zituzten berdin kudeatu beren koloniak. Gainera, britainiarrek, adibide bat jartzearen, ez ziren modu berean aritu Sudanen edo Kenian. Are nabarmenagoa izan da aniztasun hori independentzia ostean.

Aniztasunak ezin ditu ezkutatu Afrikako herri askok komunean dituzten hainbat puntu: iragan koloniala dugu horietako bat, egungo mendekotasun-egoera bigarrena eta batasun kulturala hirugarrena. Izan ere, hizkuntza ugari dago Afrikan, 1.300dik gora, eta asko dira talde etnikoak, bakoitzak bere ezaugarriak dituela, baina hainbat elementu daude haien kulturetan, bereziki Afrikako erdialdean, kolonien aurreko garaitik datozenak eta talde batean zein bestean errepikatzen direnak, indar gehiago edo gutxiagorekin: ahozketasunaren garrantzia, tradizioen eta ohituren pisua, espiritualtasunaren eta sineskerien presentzia, gizartea eta erlijioa antolatzeke ereduak, bizitza komunitarioari eta familiari, zentzurik zabalenean, emandako lehentasuna, arbasoei eskainitako gurtza, jainkoen eta naturaren indarretan sinestea eta abar. Bizitza modernoaren eta kristautasunaren eta Islamaren higadura jaso dute balio horiek, baina pisu handia dute oraindik Afrikako bizitzan eta funtsezkoak dira hainbat gizarte-prozesu ulertu ahal izateko.

Normalean bi Afrika bereizten dira, Mediterraneora begira dagoena eta Saharaz hegoaldekoa. Baina banaketa horrekin batera eskualde geografiko mugatuagoak hartu beharko genituzke kontuan, baita tradizio kolonialek sortutako loturak ere eta herrialde bakoitzaren egoera. Iparraldeko Afrikan hizkuntza arabiarren nagusitasunak, Islamaren garrantziak, eta Inperio otomandarraren zati izan izanak (Maroko da salbuespena) batzen ditu batzuk eta besteak. Bigarren Mundu Gerraren osteko hainbat esperientzia politiko ere, ikusiko dugunez, antzekoak dira. Aitzitik, ez dago adostasunik ikertzaileen artean Afrikako beste eskualdeak izendatzeko orduan. Askok erabiltzen dute «Saharaz hegoaldeko Afrika» terminoa, baina zabalegia da eta oso errealtate desberdinak biltzen ditu. 2005eko *Afrika Yearbook* liburuak, bere aldetik, lau eskualde bereizten ditu Saharako basamortutik hasi eta Esperantza Onaren lurmuturrerainoko tartean: Mendebaldeko Afrika (Saharatik Ozeano Atlantikoari begira dagoena), Erdialdekoa (Kongo ibaiaren arroa hartzen duena), Ekialdekoa (Indiako ozeanoaren itsas bazterrean zabaltzen dena Sudandik Tanzaniaraino) eta Hegoaldekoa (Angolatik hasi eta Mozambikerekin batera hegoaldeko kolonia britainiarrak hartzen dituena). Datozen orrialdeetan ez dugu banaketa garbia jarraituko, irizpide kronologikoa izango baita nagusi, baina bost eskualde horien erreferentziak ezinbestekoak izango dira hainbat kasutan Afrikaren aniztasuna eta konplexutasuna ulertu ahal izateko.

10.2. KOLONIEN OSTEKO ESTATUEN EKONOMIA ETA GIZARTEA 1980KO HAMARKADARA ARTE

Bigarren Mundu Gerraren osteko urteak baikortasunezko garaia izan ziren Afrikako Historian, askatasun nahia ez ezik, hango nekazaritzako eta industriako produktuen eskaera ere handitu egin baitzuen gerra amaitzeak. Arlo desberdinetara zabaldu ziren berrikuntza eta garapena: meategietara, industriara eta nekazaritzara. Gizarte modernoagoa sortu zuten aldaketek; ongizatea, aldiz, mugatua izan zen. Agintari zuriak ahalegindu ziren beltzak nortasun tradizional berritura makur zitezten, baina ezin izan zituzten deskolonizazio-prozesuak eragotzi.

Independentziaren ondoren, desberdina izan zen egoera; izan ere, estatu berrietako gobernu gehienek hazkunde ekonomikoren ardura zuzena hartu zuten, garapen-planen bitartez edota nazionalizatzeko politiken bitartez. Aurrerapen ekonomikoaren abiadura zen, haien ustez, erregimen politikoak sendotzeko tresna. Abiapuntu desberdina zuten independentzia borrokaren bidez lortu zuten estatuak eta metropoliarekin hartutako konpromisoen bitartez lortu zutenek. Lehen taldekoek eragozpen gutxiago zituzten gauzatu nahi zituzten erreforma politiko, sozial eta ekonomikoak gauzatzeko, baina epe ertainean herrialde guztiek egin behar izan zieten aurre arazo berberei, eta eskura izan zituzten baliabideak ere antzekoak izan ziren: merkataritzara zuzendutako landaketak, mineralak eta industria. Hiru sektoreek, bereziki lehengaiak eta mineralak, itxuraz hazkunde esanguratsua izan

10.1. 2001 Afrikako biztanleria.



Iturria: Overy, R. (2001): *Atlas Ilustrado de Historia Mundial*, Reader's Digest, Mexiko.

zuten 1970eko hamarkadaren amaierako krisia heldu arte, handitu egin baitzen herrialde garatuen eskaera. Baina, zenbait egileren arabera, estatistikoa izan zen hazkundera: batetik, kudeaketarako gaitasun mugatua erakutsi zuten gobernuek eta, bestetik, agintariak eta ingurukoak aberasteko erabili zen hazkundera. Saharaz hegoaldeko herrialdeetan, 1960. urtean 475 dolar zen batez besteko Barne Produktu Gordina eta 1975ean 600. Biztanleriaren hazkunderak laguntzen du azaltzen zergatik hazi zen hain gutxi. 1973tik aurrera krisia nagusitu zen eta begi-bistan geratu ziren eredu horien gabeziak: inbertsio antzuak, egitura ekonomiko egokien falta, komunikazio-sareen urritasuna, eskulangile gaituen eskasia, energia-iturrien mugak, ekonomia irekien ahultasuna nazioarteko merkatuetan eta abar. 1995ean 525 dolarrera jaitsi zen batez besteko Barne Produktu Gordina.

Diskurtso politikoak gorabehera, independentziaren osteko lehen etapan, hazkunde ekonomikoa bultzatzea zen helburua, eta, gehienek ustez, estatua zen tresnarik eraginkorrena horretarako. Potentzia kolonialen garaian bezala, garrantzi gutxi zuen herritarren iritziak eginkizunen ildo nagusiak finkatzeko orduan. Tanzanian —Afrikako herrialde sozialisten eredu— nekazaritza modernoa bultzatu zuen Julius Nyere-ren gobernuak, eta hori lortze aldera, batu egin zituen etxaldeak, handiagoak eta eraginkorragoak izan zitezkeen; ondorioz, milaka nekazarik landako beren etxeak utzi eta hirietara jo behar izan zuten. Hitz gutxitan esanda, emaitza txarrak izan zituen politika horrek. Eredu kapitalistari eutsi zioten tokietan, aurreko enpresa handiek jarraitu zuten erabakitzen zer produzitu eta nola; batetik, gobernuaren adostasunarekin, eta, bestetik, tokian tokiko politikariei ordaindu ondoren. Laster geratu ziren agerian bi eredu mugak.

Lehengaiak ziren Afrikako produktu garrantzitsuenak, eta horrek mendekotasuna sorrarazi zion. Industria-produktuen salneurria lehengaiena baino altuagoa izateaz gain ia etengabe igotzen da; lehengaiena, aldiz, askoz ere aldakorragoa da, eta gora eta behera egiten du nazioarteko merkatuetako eskariaren eta espekulazioaren arabera. Afrikako herrialde askok produktu gutxi batzuk baino esportatzen ez zituztenez, oso larria izan zitekeen mendekotasuna. Egoera horretan, nazioarteko merkatuen mendeko ekonomiak ziren. Nazioarteko merkataritzaren gorakadaz baliatu zen Afrika 1970eko hamarkadara arte; baina ordutik aurrera Afrikak zuzenean pairatu zituen Mendebaldean sortutako krisien eraginak. Kalte egin zioten Afrikari Gerra Hotzaren ondorioek, petrolioaren prezioaren gorakadak eta lehengaien salneurrien beherakadak eragindako krisiak. Ghanak, adibidez, independentzia eskuratu ondoren, gobernuaren kontrolpean zegoen konpainia baten esku utzi zuen kakaoaren merkataritza. Baina kakaoaren prezioa erdira jaitsi zen 1979tik 1982ra bitartean, eta Ghanaren esportazioen zati handiena produktu horrek betetzen zuenez, gertaera horrek eragin handia izan zuen hango ekonomian. Garai horretan, Afrikako beste herrialde askotan ere antzeko egoerak bizi izan zituzten, eta hondamendia zabaldu zen.

Zenbait estatu, Nigeria, Aljeria eta Egipto besteak beste, saiatu ziren industrializazioa bultzatzen eta horretara zuzendu zuten nekazaritzaren etekinen zati handi bat. Aljerian, nazionalizatu egin zen ekonomia, eta hazkundera bultzatzeko garapen-planak egin ziren, baina industria astunera zuzendu zen ahalegina, bereziki, petrokimikara eta gas naturalaren ekoizpenera; nekazaritza, aldiz, bigarren mailan geratu zen. Dena den, proiektu asko ez ziren benetan gauzatu edo erdibidean geratu ziren. Independentzia lortutako estatu askok Nasserrek irekitako biderei jarraitu zioten hurrengo urteetan, baina ez ziren konturatu Egipton bertan ere zor publikoa asko handitu zela eta beharrezkoa zela jakiak inportatzea. Kasarrak izan ziren emaitzak, bereziki epe ertainean: diru asko xurgatu zuten azpiegitura-lanek eta, kasurik onenean, luzera baino ez ziren ikusi etekinak; handiegiak ziren lantegiak eta txikiegiak zen eraginkortasuna. Horrez gainera, zergek eta ustelkeriak eragotzi egin zuten garapena hainbat arlotan.

Aurreko guztia gutxi ez izan eta asko hazi zen biztanleria independentziaren ondorengo garaian. 1955. urtean 246 milioi lagun bizi ziren Afrika osoan, 1970ean 357 milioi ziren eta 469 milioi 1980. urtean. Hazkunde horren atzean hainbat arrazoï zeuden: medikuntzaren aurrerapenak eta osasun-zerbitzuak zabaltzea izan ziren garrantzitsuenak. Ia-ia desagertu egin ziren gaixotasun asko eta asko luzatu zen jaiotako umeen bizi-itxaropena. Horretaz gain, emakumeen antzutasuna murriztu zuten sendagaiek. Bestalde, hirietako emakumeek denbora gutxiago ematen zieten bularra jaioberriei, ohiko sexu-abstinentzia ere laburtu egin zen. Gainera ume asko izateak senarraren gizentasuna frogatzeaz gain, familiaren aukera ekonomikoak zabaltzen zituen askoren ustez. Baina biztanleriaren gorakadak ez zuen garapen ekonomikoa bultzatu; are gehiago, kontrako faktorea izan zen.

Independentziak kolonien garaiko hainbat prozesu areagotu zituen, baina oinarritzko arazoak ez ziren askorik aldatu: administrari zurien ordez burokrazia zaharberritua nagusitu zen; txarrak ziren nekazari-guneetako bizi-baldintzak; eta handitu egin zen lurren gaineko presioa leherketa demografikoaren ondorioz. Egoera horretan, askok jarraitu zuten hirietara alde egiten soldata altuagoak eskuratzeko asmotan eta jendearen mugimenduak areagotu egin zuen hiritartze-prozesua. 1960. urtean biztanleriaren % 15 inguru bizi zen hirietan, 1995ean, aldiz, bikoitza, % 30. Biztanleriaren mugimenduak ez ziren mugatu nekazari-guneetatik hirietara; herrialde batetik beste batera ere zuzendu ziren. Kasu batzuetan borondatez aldatu ziren bizilekuz, egoera hobetze aldera edo miseriatik ateratzeko; beste batzuetan, berriz, agintariak bultzatu zituzten nazio-estatuaren eraikuntzaren edo modernizazio ekonomikoaren dinamiken mesedetan; eta, maiz, gerrek behartuta aldatu zuten herrialdea, errefuxiatu moduan. Gainera, kontuan izan behar da hirietan gutxi batzuek baino ez zutelana lan egiten jarduera ekonomiko arautuetan; gehienak jarduera informaletan aritzen baitziren, «azoka-ekonomia» delako esparruan. Beste alde batetik, eremu hori are garrantzitsuagoa bilakatu zen ekonomia arautuak porrot egin zuenean.

Gazteak eta emakumeak izan ziren gehien aldatu ziren giza taldeak. Gazteei zegokienez, asko handitu zen kopurua eta paper politiko garrantzitsua zutenez, gobernu berriek arretaz zaindu zituzten. Eskolaratzea zabaltzea izan zen ondorioetako bat: 1960. urtean umeen % 43,2 joaten zen eskolara, 1997an, aldiz, % 76,8. Irakaskuntza ertainari zegokionez, are handiagoa izan zen aldea: % 3,1etik % 26,2ra.

Hirietako emakumeek ere, toki nabarmena izan zuten askatasun-prozesuetan zenbait tokitan, eta independentzia eskuratu ostean saritu egin zen parte-hartzea: atzeratu egin zen legez ezkontzeko adina, mugatu egin zen andregaiaren dotea edota poligamia debekatu zen. Beste herrialde batzuetan, ordea, ez zen emakumeen egoera hobetu. Hirietara alde egiten zuten lehenak gizonezkoak zirenez, eta haien diru-ekarpena ezinbestekoa zenez, ahulagoa zen emakumeen posizioa. Beste toki askotan, gizarte tradizionala zenez nagusi, ohiko lanak eta rolak betetzen jarraitu zuten emakumeek. Ezinbesteko zeregina zuten familia aurrera ateratzeko, emakumearen ardura baitziren nekazaritza-lanak eta etxea uraz hornitzea kasuen % 90 inguruan. Aitzitik, gerra pizten zenean, emakumeak eta umeak ziren lehen kaltetuak.

10.3. ESTATU POSTKOLONIALEN BILAKAERA POLITIKOA GERRA HOTZAREN AMAIERARA ARTE

Independentzia lortu ondoren, estatua eta nazioa eraikitzea izan zen egitura politiko berrien zeregin nagusia. Prozesu horretako agenteak antzekoak izan ziren kasu gehienetan: buruzagi karismatikoak, armada (berria edo kolonialismoak sortutakoa), metropoliaren eta metropoliaren zerbitzura hezitako burokrazia eta sortu berri ziren alderdi politikoak. Kontuan izan behar da kolonialismoaren bilakaerak eragotzi egin zuela burgesia nazionalaren eta langile-klase indartsuen sorrera eta, aldiz, atek ireki zizkiola arestian aipatu ditugun taldeek boterea kontrolatzeari. Toki gehienetan, bi fase izan zituen bilakaera politikoak. Lehenengoan, independentziaren ostean Mendebaldeko eredu jarraituz erregimen parlamentarioak ezarri ziren. Bigarrenean, berehala, sistema horiek desagertu egin ziren, estatu-kolpeen bidez edo alderdi bakarreko sistemak ezarri zirelako. Ez ditugu kasu guztiak aztertuko, baina bai esanguratsuenak.

Gamal Abdel Nasser koronela izan zen Egiptoko buruzagi berrien burua; berak bete zuen presidentearen aulkia 1956 eta 1970 urteen bitartean, hil arte, alegia. Nasserren politikak eragin sakona izan zuen Asiako herrialde arabiarretan eta Afrikako herrialde askotan. Herrialdea atzerapenetik ateratzea zen asmoa, eta horretarako bide sozialista propioa garatu zuen: marxismoari uko egin zion, baina 1955etik aurrera Sobiet Batasunarekiko harremanak estutu zituen, potentzia inperialistei aurre egiteko baliabide gisa. Horretaz gain, gobernuaren aldeko alderdi politikoa sortu zuen eta islamista erradikalenak erreprimitu zituen. Suezeko kanalaren nazionalizazioarekin batera (1956) Assuaneko urtegi erraldoiaren eraikuntza (1960-

1964) izan zen erregimenaren ikur nabarmenena, ingurumenean sortutako arazoak gorabehera. Nekazaritzaren erreformak jabe txikien klasea indartu zuen eta industria ere bultzatu zuten nazionalista egiptoarrek. Afrikako estatu askotara zabaldu zen estatuaren interbentzionismo ekonomikoa, era batera edo bestera.

Aljeriako kasuan, independentzia-prozesua zuzendu zuen FLN mugimenduak monopolizatu zuen boterea, askatasun-gosea eta iraultza-nahia elkartuta. Dena den, independentziak frantziarren ihesa eragiteaz gain, erabat banatu zuen gizarte aljeriarra. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan isilpean egon ondoren, 1980ko hamarkadaren amaieran azalera zuen banaketa hura, bizitza politikoaren bide estua apur bat ireki zenean. Izan ere, independentziaren ostean, 1962an, FLN estatu sozialista bat eraikitzen saiatu zen, ongizatearen eta justiziaren izenean: erregimen autoritarioa osatu zuen, FLN zen legezko alderdi bakarra, eta presidentearen esku zeuden botere gehienak Kontseilu Militarren babesean. Ahmed Ben Bella-k, bigarren presidentea, ez zuen denbora asko iraun herrialdearen buruzagitzan. 1965ean, armadaren botere politikoa mugatzen saiatu zenean, haren laguntzaileek eta kide ohiek estatu-kolpe bat eman zuten eta Houari Boumedienne-k hartu zuen presidentetza 1978ra arte eta Chadli Bendjedid-ek 1992ra arte, beste estatu-kolpe batek boteretik kendu arte hain zuzen. Egiptoren moduan, Sobiet Batasunarekin harreman estuak izan arren, Herrialde Ez Lerrokaturen Mugimenduko kide esanguratsu bilakatu zen Aljeria.

Afrikako lurralde gehienetan, buruzagiek garapena estatuaren eskutik etorriko zela pentsatzeaz gain, izaera zentralizatuko egiturak aukeratu zituzten nazioa eraikitzen hobeto lagunduko zutelakoan, eta boterea segurtatzeko tresna eraginkorrena zirelakoan. Alde batera utzi zuten eskura zuten beste aukera, bateragarriak egitea errealtate etnikoaren aniztasuna eta estatuaren eraikuntza. Independentziak askatu zituen indarrak kontrolatu nahian, autoritarismoa izan zen nagusi nonahi, eta goitik markatu zen jarraitu beharreko bidea. Pentsatzen zuten nahikoa zela legeen eta gobernuaren kontrola izatea sistema soziopolitikoak eta ekonomikoak aldatzeko. Buruzagi berriek, asko eta asko metropoliaren eskoletan ikasitako enplegatuak eta funtzionarioak, alderdi bakarrek sistemak jarri zituzten martxan nazioaren kontsentsua lortzeko eta berezitasun etnikoak gainditzeko. Beste aukera politikoak baztertu eta herri xehearekiko mespretxua erakutsi zuten, alderdi bakarra diktadurarako ibilbidearen hasiera baita. Agintariek beren ingurua (familiarra, soziala, politikoa) zaintzen zuten eta, gehiago edo gutxiago, ustelkeria eta bezeria politikoak zabaldu ziren; horretan oinarriturik, Afrikako estatu (neo)patrimonialei buruz hitz egiten dute aditu askok. Kasurik onenean, hirietako biztanleriari erreparatzen zioten, hura zelako ekintza politiko baldintzatzaileak aurrera eramateko gai zen gizarte-talde bakarra. Izan ere, independentziaren ostean buruzagitza politikoa bereganatu zutenek zailtasun asko izan zuten gizartearen gehiengoa erakartzeko; herritarrek ez zekitelako zer zen alderdi politiko bat edo ez zutelako bat egiten

buruzagien programekin. Bi datu baino ez ditugu emango, Kongon, 1960. urtean, lehenengo hauteskundeetan, Patrice Lumunba lehen ministroak legebiltzarreko aulkien % 30 baino ez zuen eskuratu. Ghanan, Nkrumah presidentearen alderdiak erroldaren % 15 baino ez zuen lortu independentziaren aurreko hauteskundeetan. Babes faltaren atzean beste bi faktore zeuden: Afrikako gizarteak uste baino asko-tarikoagoak ziren sozialki eta banaketa sakonak zeuden, etniari edo erlijioari errepaturaz gero.

Erregimen berriek zailtasun asko izan zuten aurrean nazio-estatuak eraikitzeke prozesuan. Tokian tokiko tradizioaren indarrak eta talde etnikoen pisuak osatzen zuten zailtasun-multzo bat; izan ere, agintari berriak nazio modernoa eraikitzen saiatu zirenean, herritar askok ez zuten haiekin bat egin, ez baitzituzten ikusten eredu berriaren abantailak eta, bai, aldiz, beren bizimoduarentzat, sinesmenentzat eta egiturentzat balizko kaltea. Kasu askotan, independentziaren ostean talde etniko bakar baten esku geratu zen kolonialismoaren aurka sortutako nazionalismoa, eta gainerakoak baztertuta geratu ziren. Mendekotasun ekonomikoaren ondorioak (aurreko atalean ikusi ditugu: egitura ekonomikoa, komunikazio-sarearen urritasuna, alfabetatze mugatua, biztanleriaren banaketa desorekatua) ere nazio-estatuak eraikitzeke zailtasuna izan ziren. Egoera horiek aldatzen saiatu ziren agintariak, baina herritarren protestei aurre egin behar izan zieten, ez baitzuten ohiko bizimoduak aldatu nahi. Erregimen politikoak homogeneizazioa lortzen saiatu zirenean gertatu ziren istilu larrienak. Errealitate sozial berriek ez zuten lagundu prozesua gauzatzeko: aberatsen eta pobreen arteko lehia, biztanleriaren hazkunderaren ondorioz baliabide gehiagoren beharra, hiri berrien egonkortasun eza eta gizarte-ordena berria izan ziren eragozpen. Gainera, larriagotu egin ziren arazoak deskolonizazio-prozesuaren abiadura azkarraren ondorioz eta buruzagi batzuen idealismoaren ondorioz. Izan ere, eredu sozial berriak sortzen saiatu ziren, aurrean zituzten erresistentziak kontuan hartu gabe edo horiek menderatu beharraz erabat jabetuta zeudelako, kostuak kostu, horretarako indarkeriara jo behar bazen ere.

Azkenik, estatu berrien eraikuntzarako eragozpenen artean arazo politikoak hartu behar dira kontuan, eta hor bi multzo bereiz daitezke. Nazioarteko mugen artifizialtasuna eta eskualdeen arteko norgehiagoka dugu aurrenekoa eta estatueta-ko agintaritza osatzeko arazoak bigarrena. 1950etik 1990era bitartean, 49 estatu berri sortu ziren Afrikan, betiere muga kolonialen arabera. Aurretik beste hiru ziren independenteak: Etiopia, Hegoafrika eta Liberia. Harrezkero estatu berri bakarra sortu da kontinente horretan: 1993an eratu zen Eritrea, kolonia izan gabeko Afrikako herrialde bakarrean, Etiopian hain zuzen. Espainiak Afrikan zituen kolonietako bat, Sahara, Marokoren mende geratu zen 1975ean, eta hogeita hamar urte geroago herrialdearen etorkizuna oraindik erabaki gabe dago. Tentsio asko izan dira, baina orduko mugak ez dira aldatu. Oso esanguratsua da datu hori, eta zuzenean erakusten du deskolonizazioarekiko morrontza. Mugen aldatetekin zerikusi

zuzena ez duen arren, ezin dugu utzi aipatu gabe, metropoli ohiek, Frantziak bereziki, esku-hartze zuzena izan zutela hainbat herrialdetan eta han gertatutako aldaketa politikoen erantzule nagusiak izan zirela.

Arestian esan dugunez estatuen zuzendaritzekin lotuta dago arazo politikoen bigarren multzoa. Alderdi politikoez oso tradizioa ahula zuten Afrikako historian; koloniek sortutako eta finkatutako armadak eta burokraziak, beraien ahultasunean, askoz ere sendoagoak ziren; eta, beraz, ez zen harritzekoa bi talde horiek, batera edo elkarren aurka, izatea estatu berrien bizkarrezurra. Talde bietakoek (militarrek eta funtzionarioek) pentsatzen zuten postuak beraienak zirela, eta familiakoei eta lagunei babes eta laguntza ematea izan zen hartu zuten lehen eginkizuna. Kasu askotan, estatu-kolpeen bidetik heldu ziren aldaketa politikoak: lehena Togon gertatu zen 1963an, eta boterea lortu zuen buruzagi militarren eta haren etniako kideen esku geratu zen hegemonia politikoa. Horrela, alderdi bakarrek erregimen bilakatu ziren Afrikako herrialde gehienak, aukera ekonomikoa gorabehera. Bazi-rudien nazioa eraikitzeko tresna egokia zela alderdi bakarra; izan ere, jendearen mobilizazio-nahia bideratzen laguntzen zuen eta kontrol soziala errazten zuen. Gainera, ezkerreko masen alderdiaren ereduak oso eraginkorra zirudien hierarkizazioa eta zentralismoa bultzatzen baitzituen. Era berean, buruzagi bakarraren eredia babesten zuen. Egia da herrialde gehienetan, baita Europakoetan ere, gero eta indar handiagoa dutela buruzagi karismatikoek, baina Afrikan oso goiztiarra izan zen prozesu hori. Aditu batzuen ustez, Afrikako tradizio politikoan aurkitu behar da fenomeno horren azalpena. Emaitzak oso ezagunak dira: autoritarismoa, oinarriko askatasunak desagertzea, giza eskubideak ukatzea, ustelkeria eta nepotismoa. 1989an, Saharaz hegoaldeko 45 herrialdeetatik zazpi baino ez ziren politikoki alderdi bat baino gehiagokoak.

Independentziaren osteko Afrikak berehala erakutsi zituen modernizazioaren ezintasunak: balio afrikarrak berreskuratzea proposatu zen eta kritikatu egin zen modernizazio koloniala. Baina, kasu askotan, tokian tokiko tradizioei bizkar eman zitzairen eta Europako garapen-bideak bultzatu ziren: industriaren lehentasuna azpimarratu zen eta nekazaritza errotik aldatzeko proposamenak egin ziren. Eredugarria da Tanzaniako kasua. Nyerere presidentek gaitasun mugatua erakutsi zuen garapenaren bidean eta zailtasunak izan zituen langile eta nekazari pobreak erakartzeko, nahiz eta eredu sozialistak onartu. Bitxia izan zen Afrikako sozialismoa, elite mugatua arduratu baitzen gobernuaz eta, kontrako esan arren, agerian zegoen ahulak zirela estatu eta erakunde publikoak. Askotan, soldata altuak zituzten funtzionarioen kopuru esanguratsua izan zen sozialismoaren adierazle ia bakarra. Dena den, gobernuen politikak gutxienean ongizatea edo lasaitasuna eskaintzen zuten, ahulak ziren barne-liskarrak eta ez zegoen gerra zibilak pizteko arrisku handirik. 1990etik aurrera, aldiz, estatuen kontrola ahuldu zenean, tentsioek eztanda egin zuten hainbat tokitan.

Lehenago ere gertatu ziren muturreko egoerak, bereziki Gerra Hotzaren testuinguruan «alde kapitalista» aukeratu zuten zenbait herrialdetan. Aipatu ditugun erregimen demokratikoak ezartzeko zailtasunez gain, buruzagi batzuek ez zituzten errespetatu oinarri-oinarrizko eskubideak ere. Erdialdeko Afrikan gertatu ziren kasurik ezagunenak: Afrika Erdiko Errepublikan, Ugandan eta Kongon. Jean-Denel Bokassa militarra izan zen Afrika Erdiko Errepublikako bigarren presidentea, 1966tik 1979ra bitartean. Indarrez eskuratu zuen boterea eta hala jarraitu zuen kanporatu zuten arte. Herrialdea pobrezian bizi zen arren, luxuz inguraturik bizi zen Bokassa, eta enperadore izendatu zuen bere burua 1977an. Mundu guztiko prentsan azaldu zen ekitaldia, ospakizunen handitasunak erakarrita, baina bi urte geroago, Frantziako tropek boteretik kendu zuten, egindako gehiegikeriek, torturek, hilketek eta lapurretek kolokan jartzen zutelako herrialdearen egonkortasuna. Handik gutxira jakin zen urte batzuk lehenago Bokassak diamanteak oparitu zizkiola Frantziako Valery Giscard d'Estaing presidenteari bere adiskidetasuna erosteko asmoarekin.

Ugandan, antzeko bideari jarraitu zion beste militar batek, Idi Amin Dada-k: 1971n boteretik kendu zuen Milton Obote kolpe militarren bitartez. Giza eskubi-deen bortxaketek egin zuten ezagun haren diktadura: errepresio politikoa, jazarpen etnikoa eta asiar etorkinen kanporatzea bultzatu zituen. Hainbat iturriren arabera, 100.000 eta 300.000ren artean egon zen Aminek eragindako hildakoen kopurua boterean egon zen bitartean, 1979an Ugandatik ihes egin arte.

Kongoko diktadoreak, Mobutu Sese Seko-k, 1965etik 1997ra izan zuen agintea bere esku. Mobutuk Kasavubu presidentea babestu zuen, Lumunba lehen ministro ezkertiarren aurrean (hil egin zuten 1961eko urtarrilean), baina bost urte geroago boterea bereganatu zuen. Mobutuk izen berria jarri zion herrialdeari 1971n, Zaire, eta bere jabetza pribatu bilakatu zuen: atzerriko enpresak nazionalizatu zituen eta kanporatu egin zituen atzerriko inbertsoreak. Bere patrika gizentzeko erabili zituen ondasun horiek eta herrialdekoak. 4.000 milioi dolarren jabe omen zen 1984an. Militarren kontrolak, oposizioa zatitzeko gaitasunak eta norberaren harrotasunak eta handinahiak mantendu zuten boterean hogeita hamabi urtez.

Nola azaldu fenomeno horiek eta ospe gutxiago izan arren Afrika osoan zehar gertatu ziren beste batzuk? Hiru arrazoi aipatuko ditugu. Afrikan estatuak harturiko eginkizuna dugu horietako bat: baliabideak eskuratzeko tresna bilakatu zituen patrimonializatzeko-prozesuak, eta horregatik sortu ziren horrenbeste gatazka eta tirabira. Bigarrenik, buruzagi tradizionalak bezala, agintari berriek ere norberaren aberastasuna handitzeko eta erakusteko erabili zuten boterea. Independentziaren ondoren, zuzendari berri askoren gabeziek eta boterea kontrolatzeko gaitasun ezak ausartenen eta bortitzenen esku utzi zuten boterearen kontrola. Hirugarrenik, Gerra Hotzaren dinamika eta neokolonialismoak babestu egin zuten buruzagi horien jarduerari; izan ere, Estatu Batuek, Sobiet Batasunak eta Frantziak garrantzi handia-

goa eman zioten nazioarteko orekari, biztanleriaren ongizateari baino. Kontrol ekonomikoa, politikoa, kulturala eta militarra izan ziren potentzia handiek erabili zituzten tresnak lurralde haiek beren mende izateko.

Estatu sortu berriek ez zuten barne-kohesiorik eta ez zioten errespeturik barneko aniztasunari. Hala ere, arestian aipatu dugunez, mugak ez dira aldatu, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, eta lehen bezala jarraitzen dute herrialdeen mugen barnean bizi diren etniek, baita estatuen mugen artean bereizirik daudenek ere. Gerren kontinente gisa ezagutzen badugu ere, gerra zibilak izan dira Afrikako gerra gehienak, azken hamarkadetan bereziki. Batzuetan lurraldearen edo baliabideen kontrola izan zen gatazkaren abiapuntua, beste batzuetan sezesio-gerrak ziren. Kategoria horretan sartzen dira, besteak beste, Sudango hegoaldeko herrien matxinada iparraldeko musulmanen aurka (1955etik aurrera), Kongoko Katanga probintziaren banatzeko ahalegina (1961-1965), Txadeko musulmanena hegoaldeko agintari kristauen aurka (1965etik 1979ra bitartean), Biafrako gerra odoltsua Nigerian (1967-1970) eta Eritreako Etiopian (1961-1991). Gerra horiek ez ziren izan etnien arteko borroka hutsak, desadostasun politikoaren ondorio baino, kolonialismoak eta estatua sortu berriek ezarritako irtenbide ekonomikoaren eta zentralizazioaren aurka zeudenek bultzatuta. Gerra zibilen eremua ez zen mugatu herrialde horietara. Angolak independentzia lortu zuenean, MPLA talde marxistari aurre egin zion UNITA taldea babestu zuten Estatu Batuek eta Hegoafrikak urte luzeetan. 1975etik 2002ra bitartean gertatu ziren borrokak, eta milioi bat hildako utzi zuten. Baina hasierako arrazoiak alde batera geratu zirenean, baliabide naturalen kontrola izan zen gatazken zioa, hau da, gobernuaren esku zegoen petrolioak eta gerrillaren esku zeuden diamanteek eragin zuten borroka.

Baina lehen esan den bezala, liskarren ondorioz ez zen mugarik aldatu. Emai-tza horretan garrantzitsua izan zen Afrikako estatuek bakoitzak bere bidea lantzeko egindako ahalegina eta Panafrikartasunaren eragina. 1963. urtean sortu zuten Addis Abeba Etiopiako hiriburuan Afrikar Batasunerako Erakundea (OUA). Esparru ekonomiko berriak ere sortu ziren: Erdialdeko Afrikako Estatu Aduana Batasuna (UDAC, 1964), Ekialdeko Afrikaren Elkarte (EAE, 1967), Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomia Erkidegoa (ECOWAS, 1975). Itxaropen handiak jarri ziren erakunde horien sorreran, deskolonizazioak sorrarazitako baikortasunak bultzatuta; izan ere, OUAk laguntza garrantzitsua eman zien oraindik kolonialismoaren menpe zeuden lurraldeei. Baina hasierako anaitasuna ahazturik, hainbat interesek indargabetu zituzten erakundearen balizko ahalmenak: 50 estatu-tako bakoitzak bere nazio-estatuari eskainitako lehentasunak, garapenaren estrategia nazionalisten garrantziak, partaideen arteko istiluek eta blokeen politikek. Ezintasunaren adibide dira ezin egitea aurre neokolonialismoaren esku-hartzeari, *apartheid*aren aurkako politikaren ahulezia edota Afrikako herrialdeen arteko gerreren bakea ezartzeko ahalmen eza. Beste kontinente edota herrialde askotan gertatzen zen bezala, Afrikak ere kontraesan nabarmena bizi zuen: alde batetik

beltz izatearen harrotasuna aldarrikatzen zen, eta, bestetik, Mendebaldeko joerak ari ziren nagusitzen.

Nazioarteko politikari zegokienez, Afrikako herrialde gehienek bi aldeko harreman zuzenak izan zituzten aurreko metropoliekin eta Europako Erkidegoarekin eta, gutxitan saiatu ziren osotasun moduan aritzen. Bestalde, Gerra Hotzaren dinamika mesede egin zien Afrikako agintariei; izan ere, kanpoko laguntzak lortu zituzten eta armak eta laguntza militarra eskuratu zituzten; eta *status quo*ak aldaketa gutxi izan zituen, buruzagien gaitasun eza gorabehera. Gainera, dinamika horren ondorioz, iraupen luzeagoa izan zuten kolonialismoaren azken arrastoek, Hegoafrikan, Angolan, edo Mozambiken, besteak beste. Afrikako estatu asko Herrialde Ez Lerrokatuen Mugimenduko kideak ziren eta harreman onak izan zituzten Ekialdeko Europako herrialdeekin, baina ez ziren beti Bloke Sobietarraren alde azaldu. Maiz kontraesan nabariak sortzen ziren Afrikako barne-politiken eta kanpo-politiken artean, bereziki nazioarteko politikari zegokionez. Nazio Batuen Batzar Nagusia erabili zuten estatu berriek beren eskakizunak (nazioarteko ordena ekonomiko berria) aurkezteko eta beren salaketak (*apartheida*, kolonialismoaren jarraipena...) plazaratzeko.

Lehenengo gaian ikusi dugunez, Afrika izan zen Gerra Hotzaren agertokia 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, Kongo, Angola, Mozambique eta Etiopia bereziki. Azken herrialde horretan, militar ezkertiarrek Haile Selassie enperadorea kendu zuten kargutik 1974an eta erregimen sozialista ezarri zuten, Sobiet Batasunaren babesean. Gosetea izan zen iraultzaren emaitza; izan ere, indarrez bultzatutako aldatetekin batera gertatu zen lehenagotik zetorren lehorrea. Kubatik heldutako milaka aholkulari militarren laguntzari esker, 1991ra arte iraun zuen erregimenak.

Aipamen berezia merezi dute *apartheid*ak eta Hegoafrikako Errepublikak. Bigarren Mundu Gerraren ostean aldarrikaturiko deskolonizazio-eskariei emandako erantzuna izan zen *apartheida* (banaketa). Toki gehienetan gutxiengo zuriak bere pribilegio juridikoak bertan behera utzi bazituen ere, kontrakoa gertatu zen Hegoafrikako Batasunean. Herrialdearen aberastasunak, biztanle zurien proportzio altuak (beste herrialde batzuetakoa baino handiagoa, 1951n biztanleriaren % 21) eta horien gogorkeriak ekarri zuten *apartheida*. Alderdi Nazionala eta horko sektore arrazista gogorrena (Malan presidentea eta Verwoerd auzi natiboetarako ministroa) nagusitu ziren 1948an, eta *apartheid* izeneko politika jarri zuten martxan. Bestela esanda, azken muturreraino eramane zuten politika arrazista. Teorian, arraza-irizpideen arabera Hegoafrikako Batasuna geografikoki banatzea proposatu zuten: alde batzuk beltzentzat, eta beste batzuk zurientzat. Baina *apartheid*ak arrazen arteko banaketa aldarrikatzeaz gain, arrazen hierarkia ere defendatzen zuen, baita zurien nagusitasuna ere. Errealitatean arraza-bereizkeria areagotzen zuten legeetan gauzatu ziren aipaturiko planteamenduak: ezkontza mistoak debekatu ziren (1949), arraza desberdinetakoen arteko sexu-harremanak moraletik kanpoko-


tzat hartu ziren (1950), kontzeptu juridiko bilakatu zen arraza (1950), lurralde batetik bestera joateko baimena beharko zuten derrigorrean beltzek (1952), eskualde batzuetan, bertan behera utzi zuten beltzek botoa emateko zuten eskubidea (1959) eta *bantustanak* sortu zituzten (1959). Afrikar beltzentzat gordetako erreserbak ziren *bantustanak*, errepublikaren azaleraren %18 hartu zuten eta beltzen talde etniko edo linguistikoei zati bana eman zieten. 10 *bantustan* sortu ziren, eta, hala ere, praktikan zurien kontrolpean jarraitu zuten. Baina beltz asko *bantustanetatik* kanpo bizi ziren, hirien inguruetan, hor bizitzeko baimenik gabe; gainera, auzo horiek behin-behineko izaera zuten, ez zituzten oinarri-oinarrizko bizi-baldintzak betetzen.

1960. urtean, Commonwealth-etik irten zen Hegoafrikako Batasuna eta Hegoafrikako Errepublika izena hartu zuen. Birbataiatze horrek, nolabait, gutxiengo afrikaner arrazistaren ibilbidea berresten zela adierazi nahi zuen. Beste herrialde batzuetan, kolonizazio aurretik zurien nagusitasuna begi-bistakoa izan bazen ere, Hegoafrikako Errepublikan aurrera jarraitzen zuen norgehiagokak: legez banatu ziren zurien, beltzen eta tarteko taldeen eskubideak, betebeharrak eta bizi-eremuak. Berrogei urtez, guztiz zapalduta egon ziren beltzak, auzo berezietan bizitzen, zurien mesedetan lan egiten, eskubide politikoak gutxituta, lur gehienak galduta eta soldata merkeen truke. Horrela lortutako eskulanak eta gobernuaren politika egokiak Hegoafrikako Errepublikaren industrializazioa bultzatu zuten.

1923an sortu zen Afrikako Kongresu Nazionala beltzen eskubideak defendatzeko. Hasieran, mugatuak izan ziren protestak eta asko kostatzen zitzaizkien beltzen artean leinu-jatorrian oinarrituta zeuden ezberdintasunak gainditzea. 1950eko hamarkadan, erresistentzia pasiboa bultzatu zuen AKNk lege diskriminatzaileen kontra, baina gobernuaren erantzuna neurri errepresiboak areagotzea izan zen: manifestazioen kontrako tiroketak (Sharpeville-n, 72 hildako), oposizioko buruzagiak atxilotzea, eta haien erakundeak legez kanporatzea. Bide baketsuak itxita, borroka armatuaren bidea nagusitu zen oposizioan; baina indarraren erabilerak ere (1961etik aurrera) ez zuen emaitza praktikorik lortu.

*Apartheid*a ez zen Hegoafrikako Errepublikaren ezaugarri berezi bakarra. Oso eragin handia zuen inguruko herrialdeetan: Hegoafrikako tropek esku hartu zuten inguruko gatazketan, zeharka Zinbawuen eta zuzenean Angolako eta Mozambikeko gerra zibiletan eta, bereziki, Namibian. Nazioen Elkarteak Alemaniaren kolonia ohia, Namibia, Hegoafrikako Batasunaren esku utzi zuen burujabetasunaren bidean presta zedin. Baina gobernu zuriak kontrolpean hartu zuen auzoko lurraldea, eta ez zien jaramonik egin, ez Nazio Batuen, ez eta OUAren eskariei ere. Independentziaren aldeko mugimenduak ere ez zuen arrakastarik izan 1990era arte, Hegoafrikako egoera politikoa aldatzen hasi arte, hain zuzen.

10.2. 1994 Afrikako zorpetzea eta egiturazko planen ezarpena.



Iturria: Lemarchand, P. (2000 (1994)): *Atlas de África*, Acento, Madril, 94. or.

**10.4. ESTATU POSTKOLONIALAREN KRISIA.
ALDAKETAREN FAKTOREAK**

1980ko hamarkadatik aurrera, hondamendiak eta aldaketak nagusitu ziren Afrikan herrialde askotan. Toki gehienetan mota guztietako arazoak areagotu ziren eta egoera horrek aldaketa politikoak edo anabasa erraztu zituen. Nazioarteko ordena ekonomiko berriaz eta geldialdi ekonomikoaz gain, aldaketen bultzagile nagusiak,

hazkunde demografikoa eta estatu modernoaren ezintasuna eta kudeaketa txarra izan ziren. Hurrengo orrialdeetan ikusiko ditugu xehetasun gehiagorekin.

Energia-iturriak zituzten herrialdeetan (Aljeriakoa da kasurik aipatuena) 1973ko petrolioaren eta gasaren prezioaren igoerak mesede erlatiboa egin zien. Izan ere, urte batzuetan diru-iturri garrantzitsua izan ziren eta lana sortzeko irtenbidea izan zen, baina, aldi berean txanponaren balioa eta salneurriak igoarazi zituzten. Bat-bateko aberastasunak atzeratu egin zuen berregituratze ekonomikoa, eta 1980ko hamarkadan, energia-iturrien prezioek behera egin zutenean kanpoko diru-laguntza eskatu beharrean izan ziren. Beste herrialdeetan, aldiz, petrolioaren prezioaren igoera izan zen galga astuna ekonomientzat.

Ekonomia nekazaritzan eta beste lehengai batzuen esportazioan oinarritzen zuten tokietan nagusitu zen krisia. Hiru dira fenomeno horren atzean dauden faktoreak. Alde batetik, herrialde horietako ekonomiak kanpo-merkataritzaren mende zeuden eta oso ahulak ziren. Herrialde garatuek lehengai gutxiago eskatzen hasi zirenean, lehengaien salneurriak jaitsi egin ziren eta krisia nagusitu zen Afrika osoan.

Bigarrenik, ingurumen-arazoez ez zuten lagundu egoera hobetzen; izan ere, Saharaz hegoaldeko herrialde asko lehortearen ondorioak pairatzen ari ziren. Milioi bat lagun baino gehiago hil ziren 1984-1985 urteetan Etiopian, eta beste hainbeste Saheleko herrietan eta Somaliako kostaldean. Ingurumen-arazoez (basamortua zabaltzeak eta oihanak desagertzeak) iturri desberdinak izan dituzte: batzuk naturalak eta beste batzuk gizakiak eragindakoak. Hasiera batean, lehortea bera izan zen faktore erabakigarria, baina gero eta nabarmenagoa izan da giza eragina: basoen ustiaketa (afrikarren kontsumorako eta, bereziki, esportaziorako), neurri gabeko arrantza, petrolioak sortutako hondakinak, gehiegizko hiritartzea eta berotegi-efektua. Horiek guztiak batuta, handia izan da egin den kaltea.

Hirugarrenik, independentziaren ondorengo gobernu askoren politika ekonomikoa desagokiek eragin zuten krisia Afrikan. Gobernu gehienek industrializazioa zuten helburu eta arreta gutxi eskaini zioten nekazaritzari. Are gehiago, zenbait kasutan, nekazariari prezio baxuak ordaintzen zizkieten hirietako biztanleak errazago hornitzeko. Birmoldatze-plan gehienek ez zuten funtsezko aldaketarik eragin, eta lurjabe handien kopurua ere ez zen gehiegi aldatu independentziaren ostean, herrialde batzuek beren burua sozialista moduan aurkeztu arren. Nekazariaren egoera ere ez zen gehiegi hobetu, lurraren gaineko presioa handia zelako eta penagarriak bizi-baldintzak. Askok hirietara jo zuten, irtenbide indibiduala edo kolektiboa nekazaritzan bertan bilatu ordez. Azpiegituretan egindako inbertsioak ere urritu egin ziren 1980ko hamarkadan. Horrez gainera, gobernu gehienek armak erostera eta handinahiko gastuetara bideratu zuten sarreren zati esanguratsu bat. Boli Kostako San Pedroko basilika, Vatikanokoa baino handiagoa, esate baterako, izan daiteke azken horien lekuko nabarmenena.

Bilakaera demografikoa oso garrantzitsua da Afrikaren bilakaera ulertzeko, biztanleriaren hazkundeak hutsean utzi baititu beste arlo batzuetan gerta zitezkeen hobekuntzak. 1960. urtean 450 milioi ziren afrikarrak; 1985. urtean 541 milioi lagun bizi ziren bertan; 2000. urtean 795 milioira heldu zen kopurua, eta 972 milioira 2008an. Egia da hazkundearen abiadura moteldu egin dela azkeneko urteetan, emakumeak geroago ezkontzen direlako eta antisorgailuen eta familia-planifikazioaren aldeko neurriei esker, baina, hala ere, kopuru altuak eta biztanleriaren gaztetasunak hogeitertan ia-ia bikoiztu egin du afrikar kopurua. Ezinezkoa zen nekazaritza tradizionalak, ezta estatuak bultzatutakoak ere, biztanle guztiak elikatzea eta, ondorioz, milioika lagunek landa utzi eta hirietara jo zuten. Azpigarapenak eta krisiek areagotu egin zuten prozesua.

Asko hazi ziren hiriak, bereziki kostaldekoak, baina ez horiek bakarrik. Horren erakusgarri dira zenbait hiri: Kairo (15.000.000 biztanle 2010ean), Lagos (11.000.000), Kinshasa (8.900.000) eta Addis Abeba (3.500.000). Mendebaldean 1960ko hamarkadan gertatu zen moduan, baina neurri guztiak gaindituta, inolako plangintzak ezin zion aurre egin jende-uholdeari, eta horietako gehienak txaboletan edo etxebizitza kaskarretan bizitzen geratu ziren hirien kanpoko aldeetan. Etxebizitzen baldintza txarrek kalera bultzatzen dituzte egoiliarrak, eta horrek ematen die Afrikako hiri gehienei duten bizitasuna. Gainera, hiri handietan bizi diren gehienak immigranteak, estatuko beste lurraldeetakoak edo atzerritarrak direnez, errorik gabeko talde bilakatu dira gehienetan. Baina, sarritan, hirietan bizitzeak ez du esan nahi biztanle berrien bizimodua eta pentsaera, bereziki, errotik aldatu direnik; izan ere, arbasoen oroitzapenek eta ohitura tribalek jarraitzen dute askotan erreferentziagune garrantzitsuenak izaten. Kasu horietan, familia zabala, klana, izaten da harreman-iturri nagusi, bai lana bilatzeko, bai eta etxekoekin lotura mantentzeko ere. Elkartasun-sare hori falta denean bakarturik gelditzen da norbanakoa ezbeharraren aurrean, eta horren ondorio dira Afrikako hirietako kaleetako hainbeste eskale eta umezurtz. Hainbat eta hainbat biztanlek, gazteek bereziki, nekez lortzen dute lanpostu bat, eta nazioarteko laguntzari esker bizi dira horietako asko. Gero eta toki garrantzitsuagoa dute hiri askotan arautu gabeko jarduerak, kaleko merkataritzak eta kontrabandoak. Ugandan —beharbada muturreko adibidea—, 1981. urtean, Barne Produktu Gordinaren bi heren betetzen zuten era horretako jarduera ekonomikoek.

Lehengaien salneurriek hondoa jo zutenean, kanpoko maileguetan bilatu zuten konponbidea. Berez, ez zen irtenbide berria, 1970eko hamarkadan ere handitu egin baitzen maileguak lortzeko erraztasuna. Mendebaldeko potentziak eta finantza-erakundeak izan ziren mailegu-emaile nagusiak, Afrikako herrialdeetako erregimenak nolakoak ziren kontuan hartu gabe. 1980ko hamarkadan asko hazi zen kanpo-zorra eta tipoen igoerak bete-betean harrapatu zituen Afrikako estatu asko. Hego Amerikako antzeko fenomenoak gertatu zen. Finantzen ikuspegitik, Hego Amerikak garrantzi handiagoa zuen, baina Afrikari ere kanpo-zorrenaren igoerak sekulako

danbatekoa eman zion, eta horren ondorioz gosea zabaldu zen toki askotan. Arazoari aurre egiteko, ezinbestekoak izan ziren nazioartearen laguntzak.

Baina ekarpen horiek gaizki erabili ziren maiz, eta, zenbait kasutan, mende-kotasuna indartu zuten. Janaritan eta dirutan bideratu ziren laguntzak, eta bakoi-tzak bere ondorioak utzi zituen. Unean uneko gosea berdinu zuten janariak, baina laguntza gaizki antolatu zen kasuetan, inguruko nekazarien galbidea ere ekarri zuen; izan ere, dohainik banatutako elikagaiek tokiko nekazariak saltzen zituzten produktuei kendu zieten merkatua. Azken urteetan, Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta erakunde publikoek hausnarketa ugari egin dituzte laguntzak era egokian nola bideratu argitzeko, lehenago egindako akatsak saihesteko.

Diru asko heldu zen Afrikara urte horietan, Marshall planean baino askoz ere gehiago, behartsuei eskua luzatu nahian, baina zati handi bat ustelkeria-sareetan desagertu zen, eta, beste alde batetik, azpigarapena indartu zuten laguntzek. Izan ere, emailen enpresei produktuak eta zerbitzuak erostera bideratu ziren laguntza asko eta, gainera, itzuli egin behar ziren. Oro har, herrialde askotan, laguntzen ondorioz, Barne Produktu Gordinaren zati esanguratsu bat, %10etik gora, eta gastu publikoa-ren erdia baino gehiago, Mendebaldetik bidalitako diruaren mende geratu ziren.


Laguntzen eta maileguen truke, estatuak hitz eman zuten politika ekonomiko berria landuko zutela: Munduko Bankuaren planak eta Nazioarteko Diru Funtsak proposatutako Egiturazko Egokitze Planak aplikatu ziren. Afrikako estatuak oreka finantzarioa lortu behar zuten, ekonomiaren hazkunde iraunkorra bermatuko bazen: estatuaren gastua murriztu behar zen, bai eta gastu soziala ere, behar izanez gero; txanpon nazionalak devaluatu behar ziren ekonomia irekitzeko atzerriko inbertsioei; merkatuak liberalizatu; estatuaren esku-hartzea murriztu; sektore pribatua indartu; ondasun publikoak esku pribatuetan utzi; eta aurreko hamarkadetan bazterturiko nekazaritzari baliabide eta arreta gehiago eskaini. Nazioarteko kreditu-erakundeek Mendebaldekoen antzera berreraiki nahi zituzten Afrikako egitura politikoak, hango berezitasunak eta ohiturak kontuan hartu gabe eta, gainera, sarritan, agindutako laguntza guztiak benetan bideratu gabe.

Politika horiek emaitza ekonomiko eta politiko desberdinak izan zituzten herrialdearen arabera. Oro har, ez dirudi egoerak hobera egin zuenik, baina gune batzuetan mailakako aldaketarako ateak ireki zituzten. Proposamen berriak bereganatzeko gaitasuna erakutsi du Afrikak, eta zenbait tokitan jakin du uztartzen esportaziorako ekonomia kaleko azokako ekonomiarekin; Benin, Ghana edo Tunisia dira horren adibide.

Baikortasunerako bidea ireki zuten zenbait datu ekonomikok: 2007an, % 7 hazi zen Afrikako ekonomia. Bestalde, lehengaien eskaerak berriz gora egiteak eta petrolio- eta gas-hobiak aurkitzeak areagotu egin zuten itxaropena; izan ere, lehengaien esportazioarekin lotuta zegoen hazkundearen ehuneko zati handi bat. Po-

brezia desagertu ez arren, murriztu egin zen eta eskolaratzeak ere hazkunde nabaria izan zuen urte gutxitan. Etxeen % 65era heldu zen edateko ura 2.000. urtean eta argindarra % 23ra. Telefono mugikorren kopurua beste inon baino gehiago ari da hazten, telefono-sare tradizionalen hutsuneak betetzeko eta beste era batera egin ezin daitezkeen tramiteak egiteko, diru-transferentziak egiteko edota medikuarekin harremanetan jartzeko, besteak beste.

10.3. 1994 Afrikako herrialdeen errenta per capita.



Iturria: Lemarchand, P. (2000 (1994)): *Atlas de África*, Acento, Madril.

Aitzitik, gehienen ikuspegiaren arabera, politika neoliberalak hondamendia handitu baino ez zuten egin. Murriztu egin zen Afrikak munduko ekonomian zuen parte-hartzea: % 7 zen 1950ean eta % 2 2007an. Dena den, datu horrek ez zuen esan nahi, halaberharrez, Afrikak atzera egin zuenik, beste herrialde batzuek askoz ere gehiago aurreratu zutela baino. Afrikan inbertitzea ez zen onuragarria, ez atzerritarrentzat, ez bertakoentzat. 1994an Afrikako 54 estatuetatik munduko estatu pobreenen artean zeuden 41 eta bost baino ez erdi mailakoen artean. Uharte txikiak ziren horietariko bi; beste bi, Gabon eta Libia (petrolio-esportatzaileak) eta Hegoafrikako Errepublika zen bosgarrena. Inflazioa ere nahiko altua zen. Ekuatore-Ginean, esate baterako, % 7,9 hazi zen ekonomia 2006an, petrolio-esportazioei esker, baina % 5eko inflazioa zuten eta pobrezia biztanleriaren % 65 hartzen zuen. Malawin, % 5 hazi zen ekonomia, baina inflazioa % 10 izan zen.

Egiturazko Egokitze Planen ondorioz murriztu egin zituzten gastuak estatuak: gutxitu egin zituzten langile publikoak, baita eskaintzen zituzten zerbitzuak ere; pobrezia gora egin zuen eta handitu egin zen gizarteko polarizazioa, hau da, aberatsenen eta pobreenen arteko aldea. Oro har, 1985era arte, bizi-itzaropena luzatu egin bazen ere, eta hortik aurrera mantendu, oso deigarria da toki batzuetan gertatu zen beherakada. Larritu egin ziren arazoak HIESA zabaltzen hasi zenean: Botswanan, esate baterako, gerrarik gabeko herrialdea izaki, HIESAren ondorioz 60 urtetik 49ra jaitsi zen bizi-itzaropena 1990eko hamarkadatik aurrera, eta Ugandan, 45etik 37ra jaitsi zen garai bertsuan. Estatu gehientzat ezinezkoa izan zen «izurriteari» aurre egitea; batetik, aurkako sendagaiak asmatu zirenean oso garestiak zirelako eta, bestetik, afrikarren ohitura sexuak gaixotasuna zabaltzen laguntzen zutelako. HIESAk eragin handia izan zuen emakumeengan: Mendebaldean, gaixoen % 20 zen emakumezkoa, Afrikan, aldiz, % 55. Malariak ere oraindik kalte handia egiten jarraitzen du. Gaixotasun horiek, hurrengo puntuan ikusiko ditugun istiluek eta gatazkek baino gehiago lagundu zuten hilkortasun-tasa igotzen, baina, hala ere, ez zuten eragotzi biztanleriaren hazkundera.

Emigrazioari dagokionez, laukoiztu egin da azken hamarkadan, eta ohiko metropolietara bideratzeaz gain (Frantziara, Britainia Handira edo Belgikara), helmuga berriak bilatu ditu, Espainia, Italia edo Estatu Batuak besteak beste. Saharako basamortua, itsasoa eta Europako mugak zeharkatzeko ahaleginek milaka hildako eta zenbait ezin den sufrimendua utzi dute. Uste denaren kontra, Afrikako eliteak, ikasketadun gazteak, dira emigratzen duten gehienak, eta kontinenteak belaunaldi berriei eskaintzen dizkien aukera urrien lekukoak dira. Gertaera horiek guztiek ondorio politiko zuzenak izan dituzte —hurrengo atalean ikusiko ditugunak—.

10.5. AFRIKAKO ALDAKETA POLITIKOAK ETA GATAZKA GARRANTZITSUENAK

Aldaketa ekonomikoekin batera krisi politikoak heldu ziren eta kolonien osteko estatuek eraldaketa sakonak bizi izan zituzten. Kanpo- eta barne-faktoreek lagundu zuten horretan. Kanpo-faktoreen artean lehenengoari «Ekialdeko haizea» dei geniezaioke. Ekialdeko Europako trantsizio-prozesuek erakutsi zuten alde batetik erraza izan zitekeela aldaketa eta, bestetik, edozein kasutan ere, zilegitasunik ez zuela alderdi bakarraren sistemak. Sobiet Batasuna desagertzeak ahuldu egin zituen Afrikan zituen lagunak, eta gauza bera gertatu zen Gerra Hotzaren dinamika desagertzean, Mendebaldeko potentzien babesa galdu baitzuten Afrikako eskuineko diktadorek. Egiturazko Egokitze Planen eragina izan zen bigarren kanpo-faktorea: mundu globalizatuan Afrikak bizi zuen bazterketarekin nahasten zen. Plan horiek sorrarazitako gizarteko ezinegonak herri-matxinadak bultzatu zituen eta, kasurik gehienetan, gobernuek indarkeria erabiliz matxinadak kontrolatu bazituzten ere, agerian geratu zen aldatu beharra zegoela. Gainera, laguntzak ematen zituzten estatuek eta erakundeek ere aldaketa politikoak eskatzen zituzten.

Lau multzotan bil daitezke barne-faktore garrantzitsuena. Lehenengo hirurek krisia mamitzen lagundu zuten, eta laugarrena agertzeak eragin zuen aldaketa. Kolonien garaitik mantendu ziren estatu-egiturak izan ziren aurreneko faktorea. Independentziaren ostean, buruzagi berriek nahiago izan zuten koloniek eraturiko egiturei eustea, berriak sortzea baino. Erakunde horiek artifizialak izateaz gain, tokiko banaketa etnikoak edo erlijiosoak ustiatzeko sortu ziren eta ez herritarren ongizatea bilatzeko. Bigarren barne-faktorea Afrikako elite politikoaren boterearen ikuspegia da: pertsonalista eta patrimonialista (pertsonekin jakinetan eta haien ondasun-metaketan oinarriturikoa). Eredu hori lortze aldera, botere politikoa eta ekonomikoa zentralizatu zituzten eta aniztasun politikoa ezabatu. Agintarien zilegitasuna ez zetzan botoetan, agintariak sorturiko edo mantendutako bezero-sareei ondasunak eta ospea transferitzeko gaitasunean baizik. Sare horien iturburua hurbiltasun etnikoan, geografikoan edo erlijiosoan zegoen. Kanpoarekiko mendekotasuna izan zen krisia eragin zuen hirugarren barne-faktorea. Izan ere, agintariak beren nagusitasunari eusteko, neurririk gabe ustiatu zituzten baliabide naturalak, eta mozkinak beren patriketan gorde zituzten. Aurreko faktoreak kolokan geratu zirenean, agerian geratu zelako haien eragin kaltegarria, faktore multzo berri bat agertu zen, benetako aldaketa aldarrikatu eta eragingo zuena: kolonialismoaren garaia ezagutu ez zuten belaunaldi gazteen agerpena. Talde horrek egoera aldatu beharra aldarrikatu zuen; buruzagi berriak agertu ziren; eta ordura arteko isiltasuna apurto eta egoera salatu zuten erlijio-liderrek. Krisi ekonomikoaren eta sozialaren tamainak agerian utzi zuen agintari politikoaren zilegitasun eza eta mota guztietako protestei eman zitzaizen bidea.

Afrikak bizi zuen aldaketaren adibide esanguratsuen Hegoafrikako Errepublikako *apartheid*aren amaiera izan zen. Lau baldintza uztartu ziren *apartheid*a indargabetzeko: hiritartzea, beltzen kontzientzia politikoa handitzea, krisi ekonomikoa eta nazioartean presioa. Beltzen hazkunde demografikoak (1986an zuriak %14 baino ez ziren) hiritartzea bultzatu zuen. 1979an 9 milioi afrikar bizi ziren *bantustan*etatik kanpo, alde zurietan (biztanleria zuriaren bikoitza). Horietatik 5 milioi hirietan bizi ziren, bizi-baldintza txarretan eta guztiz diskriminaturik: inflazioa, pobrezia, kriminalitatea, biolentzia eta *bantustan*erako deportazioaren mehatxupear. Soweto hirigunea egin zen ezagunen: Johannesburgoko auzo beltz horretan 1.600.000 lagun bizi ziren 1980. urtean —600.000 lagunentzako sortua zen—. Egoera horretan bizi beharrak eta lan-baldintza eskasek indartu egin zuten beltzen erresistentzia. Eta, azkenean, 1976. urtean, eztanda egin zuen zurien kontrako erresistentzia berriak, batez ere gazteek piztuta. Errepresioa izan zen gobernuaren erantzuna eta ehunka hildako eragin zituen poliziak manifestarien artean. Horrez gain, aldatetarik gertatu ziren inguruko herrialdeetan (Angolan, Mozambiken, Rhodesia-Zimbabwe eta Namibian) eta Hegoafrikako Errepublikari garesti atera zitzaion gerra horietan esku hartzea. Urteak pasatu ahala, gero eta nabarmenagoa zen ezin zela politika hari eutsi: alde batetik, handiegia zelako errepresioaren kostua; eta bestetik, 1980ko krisi ekonomikoa eragin zuzena izan zuelako langabeziaren hazkundera eta finantzetan Hegoafrikako Errepublikan. Bestalde, giza eskubideak etengabe bortxatzeak isolatu egin zuen erregimen zuria nazioartean, eta *apartheid*aren kontrako kanpainen ondorioz boikot ekonomikoa ezarri zion nazioartek. Sobiet Batasuna erortzeak aukera berriak ireki zituen negoziatu ahal izateko.

Beste saio batzuek porrot egin ostean, egoera berrian gobernu zuriko eta Afrikako Kontseilu Nazionalako buruzagien arteko elkarrizketak hasi ziren. Lan horietan toki berezia izan zuten Nelson Mandela AKNko buruzagiak eta De Klerk presidente zuriak. Preso egon zen Mandela 1962tik 1990era bitartean, baina kartzelatik atera zutenean hegoafrikar guztiak, zuriak eta beltzak, zuluak edo shoxak, batuko zuen nazioa defendatu zuen. 1991 eta 1994. urteen artean amaitu zen *apartheid*a, eta lehen hauteskunde libreak egin ziren 1994an. AKNk botoen % 65 eskuratu zituen eta Mandela izan zen presidentea 1999ra arte. Arrazen arteko akordioak beltzen nagusitasun politikoa ekarri zuen, baina zurien aberastasuna eta botere ekonomikoa kolokan jarri gabe; estatuaren ardura zen aberastasuna birbanatzea. Hegoafrikako Errepublika, Afrikako beste herrialdeekin alderatuz gero, potentzia ekonomiko handia izan arren, gobernu berriaren arazoak beste herrialdeetako antzekoak ziren: pobrezia ezabatzeko ahalegina eta gobernu zuzena ezartzeko zailtasunak. AKNren tradizio jakobinoaren aurka, federalismoa izan da Hegoafrikako Errepublikako aniztasuna onartzeko moduetako bat. Hasieran Mandelaren ospeak kontinente osoaren buruzagitza bereganatuko zuela ematen bazuen ere, barne-arazok izan dute lehentasuna azken hamabost urteetako gobernuentzat.

Baina aldaketa esanguratsuak ez ziren Hegoafrikako Errepublikan bakarrik gertatu. Are gehiago, «Mandela efektuak» eragin handia izan zuen Afrikako toki askotan, eta agintarien aurkako protestak suspertu ziren. 1990etik aurrera, arestian aipatu ditugun kanpo-presioak eta barne-presioak uztarturik, demokratizazio-prozesuak bultzatu zituzten herrialde askotan. Kontuan izan behar da 1989an hiru baino ez zirela demokratikotzat har zitezkeen estatu afrikarrak: Botswana, Maurizio Uhartera eta Gambia. Era desberdinetan gertatu ziren aldaketak, baina kasu askotan antzeko ibilbideari jarraitu zioten: agintariak alderdi politiko berriak sortzeko askatasuna eman zuten, konferentzia nazionalak eratu zituzten eta indar sozialekin bildu ziren. Toki gehienetan, agintariak kontrolatu zuten trantsizio-prozesua, baina hauteskunde libreak egin zirenean batek baino gehiagok galdu zuten urte luzeetan izandako postua. Benin, Cabo Verde, Afrika Erdiko Errepublika, Kongoko Errepublika, Ginea-Bissau, Lesotho, Madagaskar, Malawi, Mali, Mozambique, Namibia, Niger, Sao Tomé eta Príncipe, Seychelleak eta Zambia dira norabide berriaren hainbat lekuko. Beste batzuetan, nahiz eta hauteskundeak egin, betiko buruek jarraitu zuten agintean, Gabonen, esate baterako, Omar Bongok 1967tik 2009ra bete zuen presidentetza, hil arte, eta haren semeak hartu zuen postua hauteskundeak irabazi ondoren.

Kolonien osteko estatuen porrotek aldaketa apalagoa, neurtuagoa, baina beharbada onuragarriagoa ekarriko zutela pentsatu zuten askok; trantsizio patxada-tsuetan estatua, gizarte zibila eta tokiko erakundeak era eraginkorragoan uztartuko zirela uste zuten aldaketen bultzatzaileek. Ez ziren konturatu Gerra Hotzaren amaierarekin batera, superpotentziek murriztu egin zituztela «estatu bezeroak» sostengatzeko ematen zituzten laguntzak eta politika neoliberalen ondorioz estatuaren baliabideak murriztean, agintariak gero eta tresna gutxiago zituztela oinarri sozialari eusteko. Gizarte zibila bera ere, neurri batean, kontzeptu arrotza da Afrikan. Ekintza kolektiboak aurpegi asko ditu eta era askotakoa da helburuei, bitartekoei eta muga moralei dagokienez; gainera, sarritan, elkarren aurka daude erakundeak. Berez, gizarte zibilak borondatez esku hartzea eskatzen du, era irekian eta askean; zeharkako sareak eratu behar ditu eta burgesian eta soldatapeko langilerian oinarritzen da. Baina, baldintza horiek eta gizarte-talde horiek garatu gabe daude oraindik Afrikan; goitik behera antolatzen dira gizarte asko, gizonezko nagusien zuzendaritzapean. Egoera horietan, liberalismoak eskatzen zuen demokratizazioak oztopo asko zuen kontinente beltzean.

Horren ondorioz, aurreko buruzagi askok edo ondorengoek —lepo beretik burua—, botereari eustea lortu zuten, edo agintari berrien jardunak sorrarazitako nahigabeaz baliaturik itzuli ziren denbora gutxiren buruan. Beste batzuetan, estatu-kolpeek kendu dituzte azken urteetan aukeratutako buruzagiak (Gambian, 1994an, Nigerren 1996an). Egonkortasun ezak buruzagi berriak ere bilatu zituen, Kenyak edo Senegalek bizi dituzten barne-tentsioak dira horren lekuko. Errealitate horiek

dirrela-eta, egile batek baino gehiagok esan izan du Afrikan ez dagoela herrialde demokratiko bakar bat ere, ez direlako oinarritzko askatasunak errespetatzen eta boterea dutenek ez dutelako uzteko inongo borondaterik. Lehen baino gehiago egiten dira itxura demokratikoak, baina benetan diktadura izaera galdu gabe.

Are gehiago, egile batzuen ustez, Afrikako tradizio historikoen aurkakoa da estatu demokratikoa eta liberala; eta egonkortasuna nahi bada, Europako eta kontinente beltzeko ekarpenak uztartuz bilatu behar dira eredu berriak. Izan ere, herrialde askotan, egonkortasun falta nabaria soma daiteke eta hainbat faktorek mugatzen dute demokratizazioaren aldeko prozesua: erabat zabalduta dagoen pobrezia, herritarren gehiengoa hezkuntza-saretik bazterturik bititzeak, informazioa lortzeko zailtasunak, burgesia sendorik ez egoteak, integrazio nazionalak huts egiteak eta lehen aipatu dugun nazioarteko erakundeen programen eraginak.

Estaturen atzerakadarekin batera sortu ziren premia berriak, eta agintariak ez ziren gai izan erantzukizun berriei aurre egiteko. Askotan, nahikoa lan zuten boterea kontrolatzen, ordena mantentzen eta hondamendi ekonomikoa eragozten. Zenbait kasutan, gizarteak hartu zuen bere gain hutsunea betetzeko eginkizuna, baina beste batzuetan ezinezkoa izan zen, eta oso larriak izan ziren ondorioak. Hezkuntzari zegokionez, esate baterako, eskola kristauek edo musulmanek estali zuten estatuaren ahultasuna, baina osasun-kontuetan ez zen horrelakorik gertatu eta berriz agertu ziren zenbait gaixotasun, tuberkulosia edo paludismoa, besteak beste. Testuinguru horretan, gizarte-talde batzuk –gehienetan erlijioen, tribuen edo etnia-nortasunen inguruan antolatutak– lehian hasi ziren estatuaren hondarrak eskuratu nahian eta esportaziorako baliabidetan aberats ziren lurraldeak kontrolatu nahian. Handitu egin zen etnien pisua Afrikan; izan ere, estatuak atzera egin zutenean edo egokitzen saiatu zirenean, indartu egin ziren etniak eta berriz agertu ziren klanak. Afrikako errealitate politikoan, sozialean eta kulturean txertatuta dago etnikotasuna. Aurreko erregimen autoritarioek ez zuten konpondu etnien auzia: batzuetan ukatu egin zuten arazoa, eta, beste batzuetan, norberaren mesedetan erabili zuten. 1990eko trantsizioak bat egin zuen mobilizazio etnikoen hazkundearekin, estaturen ahuleziak sortutako hutsunea betetzen baitzuten. Egoera horretan, eraginkorrak dirudite mobilizazio etnikoak, baina elkartasun etnikoaren kontzeptuaren izenean arazo politikoak eta sozialak estali dituzte zenbait azterketa politiko errazegik. Toki batzuetan, Ugandan adibidez, era berrian definitu ziren estatuaren eginkizunak, herrialdeen aniztasuna onartu zen eta egitura modernoaren presentziarekin batera, iraganekoei, afrikar tradiziokoei, ere beren balioa eta presentzia aitortu zitzaizen.

Oso zalapartatsua izan zen 1980ko hamarkadatik aurrerako giroa. F. Veigaren hitzetan, deskolonizazioaren ondoren sorturiko ordena politikoak *inplasioa* izan zuen Afrikan. Egoera gehiago zailtzeko, zenbait tokitan, hainbat fase bizi izan zituzten oso denbora gutxian. Demokratizazio-prozesuan, buruzagi berriek aurreko

agintarien jarrerak errepikatu zituzten eta horien aurkako erresistentziak anabasa sortu zuen. Borroka horietan, atzerriko estatuek edo nazioz haraindiko aktoreek eta interesek hartu zuten parte, ardura eta interes ugari bilduta. Zaireren (Kongoko Errepublikako Demokratikoa gaur egun) bilakaera da deskribatu ditugun prozesu horien adibide ezin hobea.

1990eko maiatzean, Zaireko arazo ekonomikoak eta sozialak saihesteko Mobutu presidenteak alderdi politikoak eratzeko baimena eman zuen eta oposizioko kideak onartu zituen bere gobernuan. Baina egoerak okertzen jarraitu zuen eta are gehiago konplikatu zen Ruandatik ihesi heldutako tutsiak, Zaireko biztanle askoren babesakin, Mobuturen aurka matxinatu zirenean. 1997an, *Alliance des Forces Démocratiques pour la Libération du Congo-Zaïre* taldeak Kinshasa hiriburua hartu zuen, Mobutuk ihes egin zuen eta Laurent-Désiré Kabila, Che Guevararekin batera aritutako gerrillari ohia eta kontrabandista ezaguna, bilakatu zen presidente berri. Baina Kabilak, sozialdemokrazia aitortu arren eta hitz onak esan arren, ez zuen benetako aldaketarik bultzatu. Bere klaneko kideak jarri zituen gobernuan, alderdi politikoen aurkako errepresioa bultzatu zuen eta berriz nagusitu zen ustelkeria. 1998an gerra hasi zen Kabilaren aurreko aliatuen eta Kabilaren artean. Azkenean, besteak beste, Angolaren, Sudanen eta Zimbabweren laguntzari esker lortu zuen botereari eustea, baina hil egin zuten 2001ean. Joseph (Kabilaren semea) izendatu zuten presidente, eta nahiz eta egoera baretu, istiluak ez ziren amaitu, talde berriek ekin baitzioten borrokari beste helburu batzuekin. Borrokan aritu ziren talde guztiek erabili zituzten Kongoko baliabide naturalak gerra finantzatzeko eta boterea ziurtatzeko; eta erraztasun handiz jo zuten indarkeriara, lapurretara eta biztanleria zibilaren aurka. Beste gerra askotan bezala, haur-soldaduak erabili zituzten eta emakume ugari bortxatu zituzten. 3 eta 4 milioiren artean daude Kongon azkeneko hamabost urteetako gatazketan bizia galdu dutenak. Tamaina berekoak izan ez arren, Sierra Leonako eta Liberiako gerra zibilek ere antzeko ezaugarriak izan zituzten (70.000 hildako 1991-2001ean Sierra Leonan; 150.000 hildako, 1989-1996 eta 2002-2003an Liberian) eta maila txikiagoan Boli Kosta-koak (2002-2007 bitartean).

Ruandako gertakizunetan izan zuten iturburua Kongoko borrokek. Izan ere, herrialde txiki horretan Afrikak bizi izan duen sarraskirik handiena (proportzioan) gertatu zen 1994. urtean. Ruandako biztanle gehienak banyaruanda etniakoak ziren, baina bi taldetan banatuta zeuden, tutsiak (abeltzain eta gerlariak) eta hutuak (nekazariak). Belgikak 1962an independentzia eman arte, tutsiak izan ziren nagusi Ruandan, baina independentzia eskuratu ostean, hutuek, hots, ordura arte zapalduta egon zen biztanleriaren gehiengoak, hartu zuten boterea eta milaka tutsi hil zituzten. Hogeita hamar urte geroago, tutsiek agintea berreskuratzeko ahalegina egin zutenean, hutu talde baten *Interahamwe* miliziak presidente hutua hil zuen, epelegia zelakoan, eta tutsien aurkako genozidioa hasi zuen. Milioi erdi lagunetik gora hil zituzten egun gutxitan matxeteekin edo aihotzekin. Hala ere, kanpoan bizi ziren

tutsien laguntzari esker, ondorengo gerra galdu zuten hutuek eta tutsiek aspaldi galdutako agintea berreskuratu zuten.

Ruandatik ez oso urruti, Sudaneko mendebaldean gertatu da azken urteetako gertakizunik larriena, Darfur-en. Sudaneko gobernu islamiarrak hegoaldeko taldeekin sinatu zuen bakea eta urte luzeetako borrokak (1983-2005) amaitzea lortu ondoren, mendebaldera zuzendu zituen begiak, Txadeko mugetan dagoen Darfur eskualdera. Politikoki Sudan izan arren, Darfur (Fur herriaren lurra esan nahi du Darfur hitzak) geografikoki Txadeko aintziraren isurialdean dago eta biztanle gehienak ez dira arabiarak. 2003an gobernuaren aurka oldartu ziren hango bi talde, autonomia eta dirua eskatzeko eta gerra piztu zen. Jartum-eko gobernuak inguruko arabiarak armatu zituen eta sarraski handiak egin zituzten Darfurreko biztanle beltz eta animisten aurka. Txadeko agintariek, beren aldetik, matxinoak babestu zituzten eta armaz hornitu zituzten. Nazioarteak tropak bidali arren, egoera ez da erabat baretu, talde ugari ari direlako bertan eta bandoz aldatzen direlako sarritan. Datuak ez dira oso zehatzak, baina bi milioi pertsona omen daude errefuxiatuak eta tokiz aldatuta, eta 300.000 lagunetik gora hil dira borroketan. 2008an Sudaneko presidenteari genozidioa bultzatzea leporatu zion Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak eta haren atxilotzea eskatu zuen. Baina oraindik ez da gauzatu agindua.

Afrikako ohiko koktela erakusten du Darfurrek: baliabide naturaletan aberatsa izanik, (petrolio asko, urrea, uranioa eta ura), horiek guztiak kontrolatu nahia; basamortuak eta lehorreak aurrera egin dutenez, azkeneko urteetan ingurumena hondatzen ari da; asko hazi da biztanleria; eta, horietaz gainera, estatu bakarrean bildutako etnia edo herrien arteko diferentzia historikoak, sozialak, erlijiosoak eta arerioaren aurkako grina eta indarkeria basatia. Nazioartearen babes bilatu dute bi aldeek: errefuxiatuen eta Txadeko alde agertu dira Estatu Batuak eta Europar Batasuna; eta Sudaneko gobernuak Txinaren babes du, berak ustiatzen baititu Sudaneko petrolio-putzu gehienak. Horrela, interes-sare baten ondorioa da gerra, eta nazioarteko faktoreak eta hangoak bertakoak nahasten dira gatazketan.

Herrialde islamiarra da Sudan, eta erlijioak Afrikan hartu duen garrantzia da azken urteetako egoera ulertzeko elementu esanguratsuetako bat. Askok ari dira hazten kontinente osoan kristautasunaren zenbait adar eta Islama. Erlijio berria onartzeak ez du erabat aldatzen lehengo sinesmena (praktika animistak mantentzen dituzten musulmanak daude, kristau poligamoak, Islamen oinarritutako kofradiak, herrietako ezaugarrietara egokitutako talde protestanteak...), baina gero eta nabariagoa izan da talde horien eragina. Estatuak ahultzeak are gehiago indartu zuen erlijio-taldeen lana: babes-taldeak, garapen-egitasmoak, hezkuntza-sistemak, osasun-zerbitzuak eta abar. Oposizioa gorpuzten lagundu zuten harreman-sare horiek; izan ere, hirietako biztanle pobreak ahulegiak ziren eta sakabanatuegi zeuden agintariei aurre egiteko, janariaren prezioa baxu mantentzen bazen gutxienez.

Zenbait tokitan, eragin handia izan dute gizartea gorpuzten Afrikan bertan sortu-tako eliza protestanteek, baina kontrako kasuak ere egon dira. Ugandan, adibidez, LRA taldeak sekulako bortizkeria erabili zuen Jainkoaren Hamar Aginduak indarrean jartzeko ahaleginean. Beste zenbait tokitan ere, sarraski handiak ekarri ditu erlijio bat inposatzeko ahaleginak.

10.4. 1975-2005 Afrikako gatazka garrantzitsuenak.



Iturria: Veiga, F. (2009): *El desequilibrio como orden. Una historia de la posguerra fría 1990-2008*, Alianza Editorial, Madrid, 35. or.

Afrikako iparraldean, independentziaren ostean, erregimen laikoak ezarri zituzten, baina agintariak zilegatasuna galdu zuten neurrian, Islamak bete zuen hutsune hori, kasu batzuetan gobernuek bultzatuta, beste batzuetan, aldiz, herritarren artean sortutako taldeen eskutik. Azken horietako batzuk, gainera, botere politikoa hartzen saiatu ziren, indarraren edota hauteskunderen bitartez. Lehen kasuaren adibide dira Egipto eta Sudan. Egipton porrot egin zuten, baina 1981. urtean, Muhammad Anwar El *Sadat* presidentea hil zuten, *Anai musulmanen* erakunde islamiarraren errepresioaren eta Estatu Batuen aldeko politikaren aurkako mendeku moduan. Sudanen, aldiz, El Nimeiri presidentek *sharia*, lege islamiarra, jarri zuen indarrean 1983an, baina hala ere, 1989an agintetik kendu zuen estatu-kolpe batek eta gobernu erabat islamiarra osatu zuten matxinatuek.

Aljerian gertaturikoa izan zen kasurik deigarriena. Krisi ekonomikoak irekitze politikoa eragin zuen, eta gobernuaren sinesgarritasun faltaren aurrean, herritarrek FIS talde islamista moderatua babestu zuten. 1992an, FIS hauteskunderak irabazteko zorian zegoela, armadako buruzagitzak, bere pribilegioak kolokan ikusita, estatu-kolpea eman zuen eta gerra zibilari ireki zizkion atak, islamista erradikalen esku utzi baitzuen mugimenduen gidaritza. Oso bortitzak izan ziren borrokak, eta milaka hildako egon ziren, bi aldeek hartu baitzuten helburutzat biztanleria zibila. Salaketa askoren arabera, gobernu militarrek berak antolatu zituen gerrillari faltsuen taldeak, islamisten eremuetan sarraskiak burutu ahal izateko eta horrela biztanleriaren aurrean islamistak hiltzaile gisa aurkeztu ahal izateko. Urte luzeetako borroken ondoren, egoera kontrolatzea lortu zuen gobernuak, baina erasoak ez dira erabat amaitu. Saharako Sahel-eko hainbat eskualdetan *Al Qaeda*ekin lotura omen duten taldeak agertu dira XXI. mendeko lehenengo urteetan, eta terrorismoaren mehatxuak Estatu Batuen interesa piztu du eskualdean. Laguntza militarra eskaintzen diete bertako gobernuei, eta, horrela, gainera, petrolio-hornikuntza berrmatzea lortzen dute. Dena den, ez dirudi, islamismo fundamentalistak erraztasunik duenik Saharaz hegoaldeko Afrikan txertatzeko, bertako erlijio-praktikak lotuegi daudelako hango gizartera eta horrek oztopo egiten diolako *Al Qaeda*ren ideologia garbizaleari.

Somaliako egoera ez da islamismoaren ondorioa, nahiz eta herrialde musulman batean gertatu eta, batzuen ustez, aukera eman hura garatzeko. Erraza da azaltzea Somalian gertatutakoa, baina ia ezinezkoa konponbidea aurkitzea. Britainia Handiaren eta Italiaren menpe zeuden bi lurraldeen batuketatik sortu zen Somalia 1960. urtean. Biztanle gehienak artzain nomadak ziren eta harreman gutxi zuten beren artean. 1964an, Ogaden-eko basamortuko mugak zirela-eta, gerra piztu zen Etiopiarekin eta horrela jarraitu zuen, tarteka, 1987. urtera arte. Herrialde batua sortzen ahalegindu zen Mohamed Siad Barre presidentea, nazionalismoa, Korana eta marxismoa uztarturik, baina kontrakoa lortu zuen. Gobernuaren kontra matxinatu ziren eskualdeetako klanak eta 1991. urtean agintetik kendu zuten Barre. Ez zuten lortu ordezkorik aukeratzea eta praktikan desagertu egin zen estatua. Tropak

bidali zituzten Nazio Batuek (Estatu Batuetakoak tarteko), baina ez ziren ordena jartzeko gai izan eta anabasa zabaldu zen. Harrezkero, Somaliak ez dauka nazioartean onartutako agintaririk eta eskualde bakoitza bere erara antolatu da. Ez da harrizkoa giro horretan kostaldean pirateria azaltzea eta makina bat itsasontzi, tartean *Alakrana* euskalduna, bahitzea. Arautzeko gobernurik ez zegoenez, atzerriko arrantzaleek zenbaitetan neurririk gabe arrantzan aritzeko aprobe txatu zuten. Egoera horretan, bertako arrantzaleei arraina gutxitu zitzaizen eta horietako batzuk miliziekin edota lapurrekin elkartuta pirata bilakatu ziren.

Azken orrialdeetan ikusi ditugun adibideek toki gutxi uzten dute itxaropenerako. Gerra zibilik izan gabe ere, ugari dira liskarrak bizi dituzten herrialdeak edota aldaketa mugatua bizi izan dutenak. Zimbabwe da horietako bat: Robert Mugabe-k irabazi zituen 1980an lehen hauteskundeak, eta harrezkero lurraldea gobernatu du oposizioa zapalduz eta hauteskunde demokratikoak eragotziz, nahiz eta bere burua ezkertiarzat hartu. Azken urteetan, krisi ekonomiko larria jasan du herrialdeak (% 100.000tik gorakoa izan omen zen inflazioa 2008ko martxoan) eta nazioarteko presioa gero eta handiagoa izan da. Faktore horien ondorioz, hauteskundeak deitu zituen Mugabek 2008ko udaberrian, eta lehenengo aldiz oposizioak ez zuen arazorik izan aurkezteko. Morgan Tsvangirai-k irabazi zituen hauteskundeak lehen itzulia, baina bigarrena heldu bitartean Mugaberen jarraitzaileak indarkeria handiaz aritu ziren oposizioaren aurka eta Tsvangirai ez aurkeztea erabaki zuen. Nazioarteko presioak Zimbabweco buruzagien arteko negoziazioa eragin zuen, baina ez dirudi Mugabek jaramon handirik egin dionik egoera berriari.

Kontinenteko errealitatearen zati garrantzitsua da deskribatu dugun Afrika, baina ez luke ezkutatu behar errealitate horren beste aurpegia. Ez genuke ahaztu behar, halaber, Europak 200 urte gatazkatsu behar izan zituela demokraziara heltzeko eta herritarren gehingoari ongizatea bermatu ahal izateko. Afrikako trantsizio-prozesuak amaitu gabe daude, eta itxaropentsuak dira azken urteetako hainbat ibilbide. Gero eta gatazka gutxiago daude, eta Afrikako estatuak berek zerikusi garrantzitsua izan dute murrizketa horretan. Arestian aipatu dugu gizarte zibil ahula zegoela Afrikan; baina zenbait tokitan zeregin garrantzitsua izan du gatazken ondoren berradiskidetze-kanpainak bultzatzeko orduan, errefuxiatuei babesa emateko garaian, garbiketa etnikoen egiak eta arrazoiak argitzeko orduan, pertsonen aurkako minen biktimei babesa eskaintzeko edota gobernuen ustelkeriak eta gehiegikeriak salatzen. Estatuak ere indartu egin da, kanpoko eta bertako agenteak konturatu baitira anabasarako bidea dela estatu ahula, eta oreka fiskalaz gain, osasuna, hezkuntza eta bakea bermatuko dituzten erakunde politiko sendoak behar dituela ongizateak. Garapen ekonomikoak ere gora egin du eta biztanleriaren zati esanguratsu bat (% 25 inguru) pobrezia latzean baldin badago ere, egoera hobetzen lagundu dute kanpoko laguntzek eta bertakoen lanek. 2001. urtean OUA Afrikan Batasuna bilakatu zen, kontinenteak bizi zuen baikortasunaren ondorioz. Bertan bildu ziren Afrikako estatu guztiak, Maroko izan ezik, erakunde berriak Sahararen

independentzia-eskubidea babestu zuelako. Kideen integrazio ekonomikoa eta politikoa bultzatzea eta haien arteko lankidetzak indartzea dira Batasunaren zereginak.

Abagune berriaren lekuko izan daiteke 2007ko abenduan Afrikako herrialdeen eta Europar Batasunaren artean egindako gailurra. Txinaren presentzia dugu atzean. Txinako enpresek lehengaiak erosten dituzte Afrikan, produktu merkeak saldu, azpiegiturak eraiki, lantegiak sortu eta ez diete gobernuei demokratikoak diren ala ez galdetzen. Zenbait tokitan, Txinatik bertatik eramane dituzte langileak Afrikan aritzeko. Txinaren esku-hartzea mugatua izan arren kezka piztu zuen Europako potentzien artean (2006. urtean Afrikarekin zuen merkataritzak 30.000 milioi euro mugitu zituen, Europar Batasunak 215.000 milioi trukatu zituen epe berean). Kezka hori gehiago areagotu zen bileran Afrikako herrialde askok Europarekin zituzten hitzarmen komertzialen bidegabekeria salatu zutenean: Afrikak lehengaiak Europara esportatzearen truke, ez zuten arazorik izan behar Europako produktu landuak kontinente beltzean sartzeko. Berdinen arteko harremana aldarrikatu zuten afrikarrek eta bidezko salneurriak eskatu zituzten beren produktuentzat. Afrika indartsuagoa eta bere nortasunaren jabeagoa erakutsi zuen jarrera horrek.

Edozein kasutan, batzuk zein besteak izan prozesu horien emaitzak, ezinbesteko erreferentziagunea izango dute Afrikaren historia, hango tradizioak eta kolonialismoak utzitakoak. Eta ez dira bat-batean desagertuko gure ikuspegiarako ulertezinak diren hainbat elementu: estatua buruzagien eta inguruko jabetza gisa hartzeko joera; indarkeriaren balioa eta eragina; kanpoko agenteen (governuen, gobernu kanpoko erakundeen eta enpresa multinazionalen) esku-hartzea; mundua eta gizarte osotasun moduan ikustea; erlijioen presentzia eraginkorra eguneroko bizitzan eta osparean eta hierarkiaren garrantzia gizarte-antolaketan. Elementu berriak azalduko dira, baina Afrikak ez dio, oraingoz behintzat, uko egingo bere iraganari.

TESTU-ERANSKINA

1961, PANAFRIKARTASUNAREN AMETSA: AFRIKAKO ESTATU BATUAK

Gizaldietan zehar menderatu dute kontinente afrikarra europarrek. Gizon zuriak bere egin zuen gobernatzeko eta ez-zuriak beren esanetara izateko eskubidea; Afrika «zibilizatzea» zen haren misioa —hori esaten zuen, behintzat—. Estalgai horretaz baliaturik, aberastasun handiak kendu zizkioten kontinenteari, eta izu-garrizko sufrimendua eragin zioten herri afrikarrari.

Horrek guztiak triste bihurtzen du historia, baina orain prest egon behar dugu iragana eta orduko oroitzapen samingarriak hobiratzeko eta etorkizunera begiratzeko. Lehengo kolonietako boteredunei hau baino ez diegu eskatzen: akatsak eta injustiziak zuzentzeko borondate ona eta lankidetzeta, eta Afrikako kolonia guztiei independentzia ematea. [...]

Garbi dago irtenbide afrikarra aurkitu behar diegula gure arazoei, eta hori afrikarren arteko batasunean baino ezin dela aurkitu. Bakoitza bere aldetik ahulak gara; elkaturik, aldiz, munduko indar handienetarikoa izan daiteke Afrika.

Afrikar gehienak pobreak badira ere, gure kontinentea oso aberatsa izan liteke. Atzerriko inbertsoreak aberasteko bakarrik ustiatzen dira gure baliabide mineralak atzerriko kapitalarekin, hasi urre eta diamanteetatik, uranio eta petroliora arte. Gure basoetan daude gaur egun aurki daitezkeen egurrik onenetako batzuk. Kakaoa, kafea, kautxua, tabakoa eta kotoia hartzen dira gure lurretan. Energiari dagokionez —oso faktore garrantzitsua da garapen ekonomikorako—, mundu guztiko balizko energia hidraulikoaren % 40 ekoitz lezake Afrikak, Europak % 10 eta Ipar Amerikak % 13. Baina, hala ere, orain arte % 1 baino gutxiago garatu da. Horretan datza pobreak eta eskasiak aberastasunaren erdian osatzen duten paradoxaren arrazoietariko bat.

Inoiz ez du izan herri batek eskura hainbeste aukera aberastasunez beteriko kontinente bat garatzeko. Afrikako estatu independenteek, batzuk pobreak, besteak balizko aberatsak, bakoitzak bere aldetik gutxi egin dezakete beren herrien alde. Elkaturik, elkarri lagunduz asko lor dezakete. Baina planifikatu egin behar da kontinentearen garapen ekonomikoa, eta era globalean gauzatu behar da. Lotura eskasez osaturiko konfederazioak, lankidetzeta ekonomikorako soilik pentsatutakoak, ez du lortuko dauden helburuak betetzeko behar den batasuna. Batasun politiko sendoak baino ezin du lortu gure baliabide naturalen erabateko garapen eraginkorra, gure herriaren onerako izango dena.

Iturria: Nkrumah, K. (1961:) *I Speak of Freedom: A Statement of African Ideology*, William Heinemann Ltd., Londres, XI-XIV, *Internet Modern History Sourcebooken* hartua.

1967, NIGERIA ETA BIAFRAKO GERRA

Ipar Nigeria eta Hego Nigeria 1914an batu zirenetik egindako ahaleginak ahalegin, Nigeriak ez du inola ere herrialde batu baten izaerarik, fikzio hutsezko batasuna da. Izan ere, batasunaz geroztik Ipar Nigeriako buruzagiek beti kondenatu dute publikoan ekintza hura, eta orain ere hala egiten jarraitzen dute, akatsa izan zela aldarrikatzen. Oinarrizko ezaugarri batzuek adierazten dute herrialde bat baturik dagoen ala ez. Honako hauek dira ezaugarri horietako batzuk:

1. Gizarte-sistema eta kultura komuna edo antzekoa.
2. Herritartasun komuna, eskubide eta pribilegio berdinekin herrialdeko herritar guztientzat.
3. Legedi eta justizia-sistema komunak.
4. Hauteskunde-sistema komuna.
5. Herritar guztiak eskubide berdinak izatea legearen aurrean.
6. Herrialdeko edozein tokitan ondasunak eskuratzeko eta bizimodua ateratzeko eskubidea.
7. Lan egiteko eskubide berdinak herrialdeko toki guztietan.
8. Bizitza eta ondasunak babesteko eskubide berdinak.

Nigeriako iparraldeko eta hegoaldeko herrien artean ez da ezaugarri horietako bat ere betetzen, eta beste batzuk ere ez. Alde batetik, hegoaldeko herriak ahalegin handiak egin zituen Nigeria batzeko, baina iparraldekoak bereak eta bi egin zituen batasunaren aldeko guztia desegiteko, hiltzeraino heldu ziren.

Nigeriaren batasunerako ez zegoela oinarririk inplizituki onartzea besterik ez zen izan gobernari britainiarrek Nigeriako herriari konstituzio-akordioak ezartzea. [...] Nigeriako Konstituzio Federala batez ere nigeriarrek aurreratzeko egin zitzaketen ahalegin guztiak eragozteko pentsatu zen. Inperioko ugazaba erretiratu ostean ere, inperioko esplotazioak jarraipena izan zezan giro egokia sortzea zen Konstituzioaren helburua. Beraz, independentzia eskuratu ostean, neokolonialismoaren arazoei egin behar izan zien aurre Nigeriak, Afrikako herri guztiak pairatu dituzten arazoei independentzia lortu ondoren.

Iturria: Minogue, M. eta Molloy, J. (ed.) (1974): *African aims and attitudes. Selected documents*, Cambridge University Press, Londres, 356-358.

1991, *APARTHEIDAREN BUKAERA: AFRIKAKO KONGRESU NAZIONALEKO BATZORDE ERAGILEAREN ALDARRIKAPENA, NELSON MANDELAK IRAKURRIA 1991KO URTARRILAREN 8AN*

Apartheidaren nagusikeriaren mendetik askatzeko gure herriak duen borrokan, erabateko aldaketa ekarri zuen iazko urteak. Gure herri heroikoaren borroketan izandako garaipenei esker, askapen nazionalaren alderantz okertu da gure herriko indarren arteko oreka, orobat, demokraziaren, bakearen eta aurrerapen sozialaren alde, eta ezin da lehengotara itzuli.

Hegoafrikan koloniak ezarri zirenetik, hasiera-hasieratik, gutxiengo zuriaren eskuetan zeuden erregimenek hartu zuten boterea, eta zapalkuntza arrazista eta kolonialaren alde besterik ez zuten egin. Iaz, aginteko zuriak onartu behar izan zuten ezin ziotela gehiago aurka egin deskolonizatzeko-prozesu historikoaren korronteari, zeinaren bitartez milioika lagunek lortu zuten independentzia eta autodeterminazio eskubidea.

Aginteko zuriak onartu beharra izan zuten gure herrialdearen etorkizuna elkarrekin erabakitzea Hegoafrikako herri guztiaren eskubidea zela, zuriena eta beltzena.

Horixe da Alderdi Nazionalaren Gobernuak hartu behar izan zituen erabakien benetako esanahia, AKN eta beste elkarte batzuk legeztatzeari dagokionez, eta, era berean, gure herrialdearen arazoei irtenbide negoziatua eman beharrari dagokionez.

Bestalde, AKNk ulertu zuen herritarren garaipenak zuen garrantzi erabakigarria. Horretan oinarriturik hartu zuen aurreranzko bidea AKNk, gure herrialdeko arazoak era bakezalean konpontzeko prozesua hasiko zela ziurtatzeko.

Ulertzen dugu herriak irabazteak duen garrantzia, hamarkadetan zehar aritu baikara borrokan konprometiturik. AKNk, horrek ordezkatzeko dituen pertsona gehienek eta berarekin bat datozenek ez dute nahikoa izan borrokari buruz hitz egiteaz. Aitzitik, gupidarik gabe egin diogu eraso etsai arrazistari, eta borroka horretan eginkizun erabakigarria izan zuten Herri Armadak, *Umkhonto we Sizwe*-k eta herritarren masen ekintzek.

Iturria: *África Internacional* 9 (1991), 112-114.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Alcalde, A. R. eta Ortíz, J. A. (2007): *Democracia y buen gobierno en África subsahariana*, Siglo XXI-Fundación Carolina, Madril.
- Campos Serrano, A. (2005): *Ayuda, mercado y buen gobierno. Los lenguajes del desarrollo en África en el cambio de milenio*, Icaria, Bartzelona.
- Carlin, J. (2004): *Heroica tierra cruel*, Seix Barral, Bartzelona.
- Cooper, F. (2002): *Africa since 1940. The past of the present*, University Press, Cambridge.
- Echart Muño, E. eta Santamaría, A. (koord.) (2006): *África en el horizonte: introducción a la realidad socioeconómica del África subsahariana*, Los Libros de la Catarata, Madril.
- Huband, M. (2004): *África después de la guerra fría*, Paidós, Bartzelona.
- Ilfie, J. (1998): *África. Historia de un continente*, Cambridge University Press, Madril.
- Iniesta, F. (1992): *El planeta negro: aproximación histórica a las culturas africanas*, Los libros de la Catarata, Madril.
- Kabunda Badi, M. (2005): *Etnias, estado y poder en África*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.
- Kapuscinski, R. (2001): *Ébano*, Anagrama, Bartzelona.
- Mandela, N. (1995): *El largo camino hacia la libertad*, Aguilar, Madril.
- Mehler, A.; Melber, H. eta Walraven, K.V. (2006): *Africa Yearbook. Politics, Economy and Society South of the Sahara in 2005*, Brill, Leiden-Boston.
- Olasagarre, J. J. (1998): *Mandelaren Afrika*, Susa, Zarautz.
- Peñas, F.J. (arg.) (2000): *África en el sistema internacional*, Catarata, Madril.
- Reverte, J.M. (1998): *El sueño de África*, Anaya/Muchnik, Madril.
- Roca Álvarez, A. (arg.). (2005): *La revolución pendiente: el cambio político en el África negra*, Edicions de la Universitat de Lleida, Lleida.
- Sebastián, L. de (2006): *África, pecado de Europa*, Trotta, Valentzia.
- Sodupe, K.; Kabunda, M. eta Moure, L. (arg.) (2009): *África subsahariana. Perspectivas sobre un continente en un mundo global*, EHU, Bilbao.
- Vela, M.E. (2003): «Bibliografía aleatoria. Historiografía del África subsahariana: Corrientes, tendencias y debates actuales», *Istor*, **14**.

11. Globalizazioaren garaia (1991-2009), itxaropenak eta arriskuak

11.1. SARRERA. 1991, GARAI HISTORIKO BERRIAREN HASIERA


Eric H. Hobsbawm historialari ezagunak dioenez, 1991. urtean XX. mende laburra amaitu eta aro historiko berria hasi zen. Izan ere, *sozialismo errearen* porrotak eta Sobietar Batasuna desagiteak errotik aldatu zuten ordura arteko egoera; benetako haustura historikoa gertatu zen, alegia. Bukatu egin zen II. Mundu Gerraren ostean sortutako mundu bipolarra. Agortu egin zen superpotentzien arteko lehia eta bi eredu sozioekonomiko eta politikoren arteko borroka —komunismoa *versus* kapitalismoa—. Kapitalismoa nagusitu zen, eta bazirudien Ameriketako Estatu Batuak zirela munduko superpotentzia bakarra orduan. 1991. urtean hasi eta gaur arte luzatu den garai historiko horretako eraldaketa nagusiak dira aztergai kapitulu honetan.

Berlingo harresia erori zenetik hogeitaz hamar urte igaro badira ere, zaila da zehaztea zein diren aro historiko berriaren ezaugarriak. Zalantza, ziurgabetasuna, ezegonkortasuna eta aldaketa etengabea dira nagusi egungo munduan. Mundu bipolarra bukatu bazen ere, haren ordezkari ordena egonkorrik ez da finkatu azken hamarkadotan. Jakin badakigu mundu bat amaitu zela, baina oraindik ez dakigu ongi nolakoa den aro berria eta nola izendatu, oraindik eratzten ari baita. Hori dela-eta, «ondoren» hitza erabiltzen dugu maiz egungo mundua adierazteko: «Gerra Hotzaren ondorengoa», «Modernotasunaren ondorengoa», eta abar.

Hala ere, hurrengo lerroetan garatuko dugun analisisan azalduko dugunez, bi prozesu historiko nagusik egituratzen dute aro historiko berria: batetik, nazioarteko ordena berria eraikitzeke egin diren ahaleginek; eta, bestetik, globalizazio-prozesuak. Kapitalismo neoliberalak hedatzearekin eta iraultza teknologikoarekin lotuta dago globalizazioa, baina arlo politikoan, sozialean eta kulturean ere ondorio sakonak ditu. Kontraesana dirudien arren, mundu globalizatu honetan, ekonomia eta kultura elkarri gero eta lotuago dauden errealitate honetan, ugaltu egin dira nortasunean oinarrituriko erreakzioak —erlijiosoak zein nazionalistak—, eta diferentziak eta nortasun desberdinak aldarrikatzen dira. Geostrategiari dagokionez, eratzten ari da gaur egungo mundua, eta aurrerantz egin du globalizazioak. Tesuinguru horretan, gatazka mota berriak sortu dira eta ezaugarri bereziak dituzte. Horiexek ere aztergai izango ditugu kapitulu honetan.

1991. urtean, aro historiko berria hasi zenean, baikortasunezko eta itxaropenezko adierazpen ugari egin ziren. Gerra Hotza amaituta eta munduko hondamendi nuklearraren arriskua gaindituta, baketsuagoa izango zela mundua iragartzen zen orduan. Superpotentzien lehiaren ordeztuz, Nazio Batuen esparruan nazioarteko lankidetzaz aurreikusten zuten garai hartan. Komunismoak porrot eginda, erabateko konfiantza zegoen merkatu libreko ekonomian eta kapitalismo neoliberalak hedatuz gauzatu zen konfiantza hori. Testuinguru horretan, F. Fukuyama adituak «historiaren amaiera» ere aldarrikatu zuen; hau da, kapitalismoaren bitartez gizadia helmugara heldu zela zioen. Gaur egun, berriz, garai hartako baikortasuna eta itxaropanak ezkortasun eta ziurgabetasun bihurtu dira. Ugaritu egin dira krisiaren zantzuak eta gero eta gehiago hautematen da porrota azken urteotan. Gerra Hotzaren ondorengo munduan, AEBk ez du lortu bere erabateko nagusitasunean oinarrituriko nazioarteko ordena berria eraikitzerik, horretan ahalegindu bada ere. Bitartean, ekonomia kapitalista globalizatuak inoiz izan den krisi ekonomiko larrienetakoari egin behar izan dio aurre. Porrot geopolitikoa eta ekonomikoa nagusi direlarik, amaitzen ari da 1991. urtean hasi zen ziklo historikoa.

11.1. 2002 Mundua worldmapperren arabera biztanleria irizpidetzat hartuta.



Iturria: <http://www.worldmapper.org>

© Copyright SASI Group (University of Sheffield) and Mark Newman (University of Michigan).

11.2. NAZIOARTEKO (DES)ORDENA BERRIA

Arestian esan dugun bezala, nazioarteko ordena bipolarra orain hogeitau urte bukatu bazen ere, ez da oraindik nazioarteko ordena egonkorrik eratu. Horregatik hitz egiten dugu «nazioarteko desordena berriaz». George H.W. Bushen Nazioarteko Ordena Berriaren Aldarrikapenetik (1991), Barack Obamaren aldeaniztasunaren

aldeko mezuetera heldu gara (2009), eta bien bitartean, Ameriketako Estatu Batuak —munduko superpotentzia bakarra bilakatuta— saiatu dira garatzen aldebakarreko egitasmo hegemonikoa, baina alferrik. Ondorioz, egungo nazioarteko gizartean ez da eratu potentzia gehienek onartzeko moduko akordiorik edo joko-araudirik. Hamarkadotan, areagotu egin da Nazio Batuen Erakundearen krisia, eta horrek ere islatzen ditu nazioarteko ezezgonkortasuna eta ordenarik eza.

Berlingo harresia erori ondoren, eta Gorbatxoven kanpo-politika berriaren ondorioz, 1989rako (ikus 1. gaia) amaitu zen Gerra Hotza. Hurrengo urtean, 1990ean agerian gelditu zen nazioarteko egoera berria, Irakek Kuwait inbaditu zuenean. Sadam Hussein-en helburua emirerri txikiaren petrolio-erreserba aberatsak kontrolatzea zen, Mendebaldekoen interesen kaltetan. Krisiaren aurrean, nazioarteko buruzagitza hartu zuten beren gain Ameriketako Estatu Batuek, eta hala onartu zuen Sobietar Batasunak (Iraken aliatu ohiak). George H. W. Bush presidenteak errefusatu egin zuen Kuwaiten inbasioa eta Irak emirretik kanporatzeko ekintzen buruzagitza bereganatu zuen. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onartu egin zuen indarra erabiltzea Iraken kontra (678. Ebazpena), eta Estatu Batuek nazioarteko armada bat eratu eta gidatu zuten (750.000 soldadutik 500.000 estatubatuarra ziren) helburu horrekin. Gerra laburra (*Basamortuko Ekaitza* operazioa) izan zen, iparramerikarren ahalmen militarren eta teknologikoaren erakusketa. 1991ko urtarrilean hasi ziren lehenengo aireko erasoak eta otsailaren 27an errenditu zen Sadam Hussein. Golkoko Gerrak agerian utzi zuen AEBren buruzagitza eztabaida ezina nazioarteko gizartean, eta orduan iragarri zuten aditu batzuek mundu polobakarraren sorrera. Horrez gain, prozedurari zegokionez, nazioarteko legedia errespetatuz jokatu zuen AEBk gatazkan (NBERen 678. Ebazpena), eta estrategia aldean zuzena erabili zuten, 32 estaturen nazioarteko armada osatu baitzen iparramerikarren buruzagitzapean. Golkoko Gerra amaitu berri zela, 1991ko martxoaren 6an, Kongresuaren aurrean egindako hitzaldian, George H. W. Bush presidenteak Nazioarteko Ordena Berriaren sorrera aldarrikatu zuen aipaturiko printzipioetan oinarrituta (nazioarteko legedian, Nazio Batuen Erakundearen protagonismoan eta aldean zuzen). Une hartako baikortasuna islatu zuen hitzaldi hark, baina bilakaera historikoak ezeztatu egin zuen orduko mezua.

George H.W. Bushen kanpo-politikan arrakasta handia lortu bazuen ere, Bill Clinton politikari demokrata nagusitu zen 1992ko hauteskundeetan, eta 2001eko urtarrilerako arte egon zen Etxe Zurian. Clintonen egitasmo politikoan, barne-politikak zuen lehentasuna kanpo-politikaren gainetik. Hala ere, Clintonen garaian, AEBk nazioarteko superpotentzia bakarraren ardurak hartu zituen bere gain, eta munduko hainbat gatazkatan hartu zuen esku. Esate baterako, Ekialde Hurbileko gatazkan, Camp David-eko Itunak (2000) bultzatu zituen Clintonek Ehud Barak Israelgo lehen ministroaren eta Jassir Arafaten artean, baina elkarriketak porrot egin zuen. Jugoslaviako Gerretan ere esku hartu zuen, 1995ean Bosnian eta 1999an Kosovon, baina oraingoan NATOren bitartez eta ez Nazio Batuen aginduz. Aitzitik, beste

gatazka batzuetan, esate baterako Somalian (1993) edo Ruandan (1994), Clintonek berak mugak ezarri zizkion bere eginkizunari nazioarteko buruzagi gisa. Dena dela, Clintonen garaian, aldebakartasunaren eta aldeaniztasunaren arteko dinamikan mugitu zen AEBren kanpo-politika. Gainerako potentziek inlankidetzan aritzea aldarrikatzen bazuen ere, AEBren jokabidea ez zen beti bat etorri ideia horrekin; izan ere, uzkur azaldu zen alde anitzeko zenbait akordio gauzatzeko edota gobernantza globaleko erakundeen itunak berresteko: ez zuen Kiotoko Protokoloa (1997) berretsi, ez zuen Nazioarteko Epaitegi Penaleko Erromako Estatutua (1998) onartu eta ez zituen armeei buruzko zenbait nazioarteko akordio babestu; esate baterako, proba nuklearrak debekatzeko hitzarmena (1996) edo Ottawako Hitzarmena (1997) pertsonen kontrako minak debekatzeko.


Aldeaniztasunaren eta aldebakartasunaren arteko zalantzak erabat erabakita gelditu ziren George W. Bush presidentearen garaian (2001-2008), lehen aipaturiko George H.W. Bushen semearen sasoian alegia. AEBren kanpo-politika aldebakarra nagusitu zen garai hartan eta azken muturreraino eraman zen 2001eko irailaren 11ko atentatuen ondoren. George W. Bushen administrazioak «gaitzaren ardatza» osatzen zuten hiru estatu identifikatu zituen (Iran, Irak eta Ipar Korea) eta AEBko lurraldea erasotzeko gaitasuna leporatu zien. Argudio horrekin, aurrekontu militarrek handitu zituzten eta ABM¹⁶ hitzarmena salatu zuten. Horrela, bertan behera gelditu zen aurreko hamarkadetan potentzia handiek armeei zegokienez hitzarturiko oreka. Beraz, Estatu Batuek ez zituzten onartzen nazioarteko hitzarmenek, legediek edota erakundeek beren botereari eta nagusitasunari ezartzen zizkieten mugak. Horregatik, Nazio Batuekin zuen zorra ordaintzeari utzi zion AEBk eta Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe erabaki zuen Irak inbaditzea 2003. urtean, terrorismoaren kontrako gerraren izenean. 2002. urtean onetsi zuen ofizialki bere segurtasun nazionalaren estrategia berria. Horren arabera, nazioarteko terrorismoa —batzuetan botere-hutsunedun estatu ahuletan babestua— eta suntsipen handiko armak zituzten erregimen tiranikoak jotzen ziren mehatxu nagusizat, eta horien kontrako prebentziozko erasoak egitea defendatzen zen, Irakekoa (2003) besteak beste.

Beraz, George W. Bushen administrazioaren garaian, nazioarteko ordena berria eraikitzen saiatu ziren Ameriketako Estatu Batuak. Sistema horren giltzarria Estatu Batuen nagusitasun aldebakarra zen. Baina 2008. urterako garbi zegoen nazioarteko politika horrek porrot egin zuela. Afganistanen eta Iraken, esku hartu zutenean indarrean zeuden botereak deuseztatu bazituzten ere, estatubatuarrek ez ziren gauza izan estatu-egitura egonkor berririk eratzeko. Nazioarteko terrorismoaren mehatxuak jarraitzen zuen artean eta erronka berriei egin behar zien aurre AEBk, esate baterako Iranen egitasmo nuklearrei. Eta bien bitartean beste poten-

16 Richard Nixon Estatu Batuetako presidentea eta Leonid Breznev sobietar agintariak sinatu zuten 1972an ABM hitzarmena, eta 2002. urtera arte egon zen indarrean. Garai nuklearreko disuasioaren giltzarri izan zen eta misilen aurkako misilak ekoiztea mugatzen zuen.

tzia batzuk, hala Errusia nola Txina, estatubatuarren nagusigoa ahultzen saiatu ziren. Testuinguru horretan, diskurtso politiko berriari ekin zion Barack Obamak, 2008. urtean hautaturiko presidentea: aldebakartasunaren ordez aldeaniztasunaren alde, eta nazioartekotasunaren alde legediei eta erakundeei zegokienez. Horrela, aurrera jarraitzen zuen Gerra Hotzaren ondorengo Nazioarteko Ordena Berria eraikitzeko prozesuak.

11.2. 2002 Mundua worldmapperren arabera heriotz bortitzak irizpidetzat hartuta.



Iturria: <http://www.worldmapper.org>

© Copyright SASI Group (University of Sheffield) and Mark Newman (University of Michigan).

Azken hamarkadetan eratu den oreka geopolitiko berriaz gogoeta egitera bultzatzen gaitu Ameriketako Estatu Batuen egitismo neoinperialaren porrotak. Nolakoa da Gerra Hotzaren ondoren eratzen ari den mundua? Polobakarra ala polo anitzekoa? Bestela esanda, superpotentzia bakarrak kontrolatzen ditu botere-iturriak eta bere balioak ezartzen ditu, ala potentzia bat baino gehiagoren arteko orekan oinarritzen da nazioarteko sistema? Munduko bipolartasuna desegin zenean, Ameriketako Estatu Batuak superpotentzia bakar gisa geratu ziren eta botere handia erakusten zuten arlo guztietan. Erabatekoa zen AEBren nagusitasun militarra: 2005. urtean, Estatu Batuen munduko gastu militarren erdia. Ekonomiari zegokionez ere, potentzia nagusia zen: batetik, 1990eko hazkunde ekonomikoak handitu egin zuen AEBren ahalmen ekonomikoa eta, bestetik, aurea hartu zuen *ekonomia berriaren* garapenean. Arlo kulturean eta ideologikoan ere —*soft power*, J. Nye-ren hitzetan— nabaria zen AEBren indarra sozialismo erreala erori zenetik. Gainera, azken hamarkadetan, beren eragina zenbait lurraldetara hedatzea lortu dute Ameriketako Estatu Batuek, esate baterako, Ekialdeko Europako herrialdeetara —NATOn sartu dira— edo Sobietar Errepublika izandako batzuetara,

Georgia dugu adibiderik ezagunena. Testuinguru horretan, XXI. mendearen hasieran estrategia aldebakarra jarri zuten indarrean Ameriketako Estatu Batuek, baina, esan dugun bezala, ez zuten lortu inperialismo berriaren bitartez mundua menderatzea, besteak beste, munduko beste potentzia handiek haien kontra jo zutelako. Eta zein ziren beste potentziak?

Batetik, Europar Batasuna dugu: superpotentzia ekonomikoa zen munduan, baina ez zuten lortu kanpo- eta segurtasun-politika sendorik garatzea. AEBren alde bakarreko politikaren aurrean, areagotu egin ziren barneko desadostasunak Europar Batasunean. Batzuek, Erresuma Batuak edo Ekialdeko Europako estatuek esaterako, onartu egin zuten AEBren buruzagitza; beste batzuek, aldiz (Frantziak, besteak beste) buruzagitza horren kontrako erresistentziak azaldu zituzten. Bestetik Errusia dugu. 1990eko hamarkadan, ezegonkortasuna zen nagusi Errusiako politikan eta krisia, aldiz, ekonomian; egoera horretan, atzera egin zuten nazioartean. Baina XXI. mendearen hasieran, Vladimir Putinen agintalditik aurrera alegia, berriro ere nazioarteko potentzia handiaren *statusa* berreskuratu nahi izan du, eta saiatu da mugatzen Mendebaldekoen eragina sobietarrenak izandako eremuetan; Georgiako Gerra (2008) izan zen saioetariko bat. Europar Batasunaz eta Errusiaz gainera, Asiako potentzia berriak ditugu: aurreikuspen batzuen arabera, India eta batez ere Txina munduko potentzia ekonomikoa nagusi bihurtu daitezke 2025. urterako. Oro har, potentzia horiek guztiek bultzatu dute AEBren nagusitasuna ahuldu duen poloan aniztasuna. Egoera horretan, XX. mende-bukaeran eta XXI. mende-hasieran garatuz joan da polobakartasunetik poloaniztasunerako joera.

Edonola ere, egungo mundu globalizatuan, oso konplexua da nazioarteko boterearen banaketa. J. Nye politologo ospetsuak xakeko hiru dimentsioko taularen metafora erabili du errealitate konplexu hori azaltzeko. Botere militarri dagokio goiko taula: polobakarra da boterea Gerra Hotzaren ondorengo munduan, erabatekoa baita AEBren nagusigoa. Botere ekonomikoarena da tarteko taula: poloaniztuna da mundua eta Estatu Batuak, Europa, Japonia eta Txina dira potentzia nagusiak. Beheko taulan estatuaz haraindiko harremanak garatzen dira, hau da, gobernuen kontroletik at geratzen diren harreman, jarduera eta erronkak (finantza-mugimenduak, nazioarteko kriminalitatea, klima-aldaketa eta abar). J. Nyeren ustez, beheko taula horretan, oso sakabanaturik dago boterea, eta ez du zentzurik polobakartasunaz, poloaniztasunaz edo hegemoniaz hitz egitea mundu globalizatuan.


11.3. GLOBALIZAZIOA ETA HORREN ONDORIOETAKO BATZUK

1990eko hamarkadatik aurrera, sarri askotan erabili da globalizazio hitza mundu akademikoan, eztabaida politikoetan edota komunikabideetan. Arrakasta handia izan du kontzeptuak eta batzuetan egungo aldaketa ekonomiko, sozial, kultural eta politiko guztiak azaltzeko balio duela ematen du. Izan ere, gehiegi erabili izan da globalizazio kontzeptua, larregi zabaldu da haren esanahia, eta zehaztugabe eta

polisemiko bihurtu da hitza. Beraz, globalizazio-prozesua aztertzeke, kontzeptua bera argitzea eta zehaztea dugu lehenengo eginkizuna. Baina, ez da zeregin erraza, eztabaida bizia baitago gizarte-zientzietan globalizazio-prozesuaren inguruan —izaera, jatorria, hedadura, ondorioak eta abar aztertzen dira—, nahiz eta, egia esan, historiografiak parte eskasa hartu duen gogoeta horietan.

Globalizazio-prozesuaren definizio asko dago. Hala ere, gure ustez, bi joera nagusitan bil daitezke kontzeptua ulertzeko moduak. Batetik, globalizazioa prozesu ekonomikotzat hartzen duten adituak ditugu. Esate baterako, J. Adda-ren ustez, sistema kapitalistaren hedapenean datza prozesua mundu osoan zehar. Beste batzuek, P. Krugman-ek besteak beste, munduko merkatuen integrazioa azpimarratzen dute. J. Estefanía bat dator ikuspegi ekonomiko horrekin, baina haren ondorio politikoak ere azpimarratzen ditu. Estefaníaren aburuz, ekonomia nazionalak nazioarteko ekonomian integratzeko jarraitzen duten prozesua da globalizazioa; eta, horren ondorioz, nazioarteko merkatuen mende gelditzen da ekonomia nazionalen bilakaera eta ez gobernuen kontrolpean. Beste autore batzuen arabera, berriz, globalizazioa alde anitzeko fenomeno da, arlo guztietan ditu adierazpenak eta, azken finean, erabateko prozesua da. Oro har, aditu horien ustez, mundu mailako «elkarren arteko lotura» da kontzeptu giltzarria prozesu honetan eta, beraz, mundu-mailako elkarren arteko konexioak hedatzean, sakontzean eta azkartzean datza globalizazioa, ekonomian ez ezik, arlo guztietan.

11.3. 2006 Munduko herrialdeen Barne Produktu Gordina biztanleko.



Iturria: *Berria*, 2007-11-25.

Interpretazio desberdinen sintesia egin daitekeela uste dugu; horixe izango da gure proposamena, baina horrekin batera ñabardura batzuk erantsiko dizkiogu globalizazio kontzeptuari. Gure ustez, elkarri loturik dauden zenbait prozesuk hartzen dute parte globalizazioan. Beste arlo batzuetan baino nabarmenagoa da globalizazioa ekonomian; eta, aldi berean, prozesu orokorraren eragileetako bat da ekonomiaren globalizazioa. Baina prozesu orokorra da globalizazioa eta ez da arlo ekonomikora mugatzen, esparru guztietan ditu adierazpenak eta ondorioak. Kulturari, gizartean zein politikan, esparru horietan guztietan da gero eta nabarmenagoa munduko eskualdeen artean dagoen lotura. Baina, ez ditu ondorio berdinak eskualde guztietan eta gizarte-talde guztietan, hau da, globalizazioa ez da prozesu homogeneoa ez ikuspuntu geografikotik, ez eta sozialetik ere. Gainera, prozesutik baztertuta gelditzen ari dira batzuk. Bestalde, globalizazioa eten gabe garatzen ari den prozesu historikoa dugu eta ez da inola ere prozesu bukatua.

Ikuspuntu historikotik begiraturik gero, globalizazioa ez da fenomeno erabat berria eta aurrekariak ditu. Ekonomiari dagokionez, aspalditik dator merkatu nazionalak eta estatuetako mugak gainditzeko joera. XV. mendearen bukaera eta XVI. mendearen hasiera hartzen duen garaia izan zen mugari nagusietako bat; izan ere, Amerika aurkitu ondoren hasi zen *mundu-mailako ekonomia* —I. Wallerstein-en hitzetan— garatzen, nazioarteko merkataritzaren goraldiarekin batera. Aro garaikidean, une historiko batzuetan, aurrerapausoak egin zituen ekonomia kapitalistak nazioaren esparrua gainditu eta munduan zehar hedatzeko. Esate baterako, 1890etik 1914ra bitartean, inperialismoaren garaian alegia, nazioarteko ekonomian integratu ziren Afrikako eta Asiako lurralde asko, europar kolonialismoak behartuta eta mendekotasun-egoeran izan bazen ere. Garai hartan, ikaragarri handitu zen munduan zehar merkantzien eta kapitalen zirkulazioa. Beste une historiko batzuetan, berriz, ekonomia nazionalak bakartzeko joerak nagusitu ziren. Hala gertatu zen 1914tik 1945era bitartean, 1929. urteko krisiaren eta bi mundugerren testuinguruan. 1945etik aurrera, aldiz, nazioarteko harreman ekonomikoak suspertu ziren, eta bizkortu egin ziren ekonomia nazionalak nazioarteko ekonomian integratzeko prozesuak. Hala ere, 1980ko hamarkadatik aurrera prozesu horrek aldaketa kuantitatiboa eta kualitatiboa izan zuen eta horrexegatik dagokio garai horri globalizazio kontzeptua, eta orduan hasi zen hitza adiera horretan erabiltzen.

Hiru faktorek bultzatu zuten 1980ko hamarkadatik aurrera globalizazio-prozesuaren gorakada: neoliberalismoak, komunismoa erortzeak eta iraultza teknologikoak. 1980ko hamarkadan, Erresuma Batuan Margaret Thatcherrek eta Ameriketako Estatu Batuetan Ronald Reaganek indarrean jarritako politika ekonomiko neoliberalak bihurtu zen pentsamolde ekonomiko nagusi 1990eko hamarkadatik aurrera, eta Keynesen pentsaeraren tokia hartu zuen (ikus 2. gaia). Neoliberalismoaren arabera, estatua ez zen ekonomiaren konponbidea, arazoa baizik; bestela esanda, estatuak ez zuen ekonomian esku hartu behar eta erabat liberalizatu egin

behar zen ekonomia. Besteak beste, inbertsioen, finantza-mugimenduen eta kanpo-merkataritzaren askatasuna defendatzen zuen neoliberalismoak, eta horrek baldintza ezin hobeak eskaintzen zituen globalizazioa gara zedin. Azken finean, globalizazioaren oinarri ideologikoa eta politika ekonomikoa izan zen neoliberalismoa. Hori dela-eta, prozesuari «globalizazio neoliberala» ere deitu ohi zaio.


Bestalde, «sozialismo errearen» krisiaren ondorioz, nazioarteko ekonomia kapitalistan integratu ziren herrialde komunista ohiak. Ordura arte esparru ekonomiko bakartuan egondako hainbat eta hainbat herrialdek kapitalismorako igarobideari ekin zioten, eta lurralde eta merkatu horiek ere globalizazio neoliberalaren agertoki bihurtu ziren. Ondorioz, ia unibertso guztia hartu zuen kapitalismoak eta desagertu egin ziren beste aukera batzuk, epe motzean behintzat.

Iraultza teknologikoa aipatu dugu 1980ko hamarkadatik aurrera globalizazioaren garapena ahalbidetu zuten faktoreen artean. Egundokoak izan dira azken hamarkadetako berrikuntza teknologikoak garraiobidearen, komunikazioaren eta informazioaren mugikortasunaren alorretan. Iraultza *digital* horren aurrekariak 1950eko hamarkadan kokatzen dira, orduan hasi baitzen garatzen elektronika. Hurrengo hamarkadetan, aurrerapauso garrantzitsuak egin ziren: zirkuitu integratua asmatu zen 1950eko hamarkadaren bukaeran edo mikroprozesadorea 1970eko hamarraldian. Oinarri horien gainean hasi zen iraultza teknologikoa XX. mendeko azken bi hamarkadetan. Informatikaren alorrean gertatu zen aurrerapen garrantzitsuena eta haren aplikazioak beste arlo asko eraldatu zituen: ekoizpena, antolaketa, kontrola eta komunikazioa, besteak beste. Beharbada, prozesu horren bi ikur nagusiak ordenagailu pertsonala (PC ospetsua), 1980ko hamarkadan hedatzen hasi zena, eta 1990eko hamarraldian garaturiko *Internet* sarea izan ziren. Gaur egun, oraindik ere jarraitzen du orduan hasitako prozesuak eta harrezkero etengabeko aldaketa teknologikoaren aroan sartu gara. Komunikabideen, automatizazioaren eta informatikaren industriek garapen handia izan dute azken urteetan eta gaur egun ere aurrerantz jarraitzen dute, batez ere IKTren (informazioaren eta komunikazioaren teknologien) sektoreak.

Aldaketa teknologikoa ez ezik, eraldaketa ekonomikoa, soziala eta kulturala ere izan da iraultza digitala. Hori dela-eta, iraultza teknologikoarekin batera, gizarte mota berri bat sortu dela diote aditu batzuek. Aurreko garaiko industria-gizartearen ordeztu, *informazio-gizartea* —M. Castells soziologoaren hitzetan— edo *ezagutzaren gizartea* sortu dela diogu. Lehenengo eta bigarren industria-iraultzek sortutako transformazioekin pareka daitezke iraultza digitalak eragindako eraldaketaren tamaina eta sakontasuna. Hala ere, oraingo iraultzaren abiadura eta hedapen handiek bereizten dute prozesua aurreko iraultza teknologikoetatik. Egungo iraultza teknologikoaren ondorioz, txikitu egin da mundua eta gutxitu edo ia desagertu egin da harremanetan jartzeko behar den denbora; baldintza horietan, estutu egin da munduko eskualdeen arteko lotura. Berehala mugi daitezke munduan zehar

finantzak eta informazioa, eta mundu-mailan kudea daitezke enpresak. Laburrean esanda, iraultza teknologikoak bultzaturik egin du aurrera globalizazio-prozesuak, munduko gizarteen zein ekonomien interkonexioa ahalbidetu baitu.

11.4. 2002 Mundua worldmapperren arabera Interneten erabilera irizpidetzat hartuta.



Iturria: <http://www.worldmapper.org>

© Copyright SASI Group (University of Sheffield) and Mark Newman (University of Michigan).

Arestian esan dugun bezala, beste arlo batzuetan baino nabariagoa da globalizazioa ekonomian. Merkantzien eta kapitalen zirkulazio librea oztopatzen zuten trabak, fisikoak zein legediei zegozkienak, murriztuz joan dira azken hamarkadetan. Liberalizazio ekonomikoari esker sortu da merkantzien eta kapitalen merkatu globala. Horren adierazle dugu azken hamarkadetan nazioarteko merkataritzak izan duen gorakada; izan ere, produkzioa bera baino gehiago hazi da kanpoko merkatuetan saltzeko ekoitzi dena ehunekotan. Zuzeneko inbertsio atzerritarren igoera handiak ere adierazten du globalizazio ekonomikoaren garapena. Datu bakar bat eskaintzearen, 1976. urtean, 55.000 milioi dolar ingurukoa izan zen zuzeneko inbertsio atzerritarra, hogeitun urte geroago laukoiztu egin zen kopurua eta, harrezkero, igotzen jarraitu du.

Fenomeno asimetrikoa da globalizazio ekonomikoa; hau da, esparru batzuetan oso garaturik dago mugimendu-askatasuna munduan zehar, beste batzuetan, berriz, askoz mugatuagoa da globalizazioa. Lan-indarra eta finantzak izan daitezke bi muturren adibideak. Ez dago askatasunik lan-indarraren zirkulazioan. Produkzio-faktore horren mugimendu-askatasunaren kontrako neurriak hartu dituzte behin eta berriro herrialde garatuenetako gobernuak. Aitzitik, finantzen arloan azken hamarkadetan izan den araudi faltaren ondorioz, finantzen eta dibisen merkatu globala sortu da. Teknologia berriak erabiliz, denbora errealean milaka milioi dolar


mugitzen dira egunero munduan zehar, eta, beraz, nazioarteko finantza-fluxuak ikaragarri handitu dira. Hain zuzen ere, finantzak mundu mailako bihurtzea izan da globalizazio neoliberalaren ezaugarri nagusia. Eta prozesu horrekin batera ugaltu egin dira finantza-krisiak 1990eko hamarkadatik aurrera: lehenengo Latinoamerikan, gero Errusian eta Hego-ekialdeko Asian eta, azkenik, 2008. urtean, Estatu Batuetan sortu eta mundu osora zabaltu zen krisi ekonomiko larria. Beraz, globalizazio neoliberalak nazioarteko ekonomiaren ezegonkortasuna ere ekarri du.

Enpresa transnazionalak izan dira globalizazio ekonomikoaren eragile nagusietako bat. Jakina denez, gero eta handiagoa izan da transnazionalen garrantzia eta protagonismoa munduko ekonomian. UNCTADen (*United Nations Conference on Trade and Development*) datuen arabera, 1960. urtean 7.000 transnazional inguru zeuden eta 1996an 44.000 baino gehiago. Mundu-mailakoak dira enpresa horien merkatuak, finantzaketa eta erabakiak. Garraioen eta komunikazioen iraultzari esker, ekoizpen-esparru globala sortu dute. Zatitu eta geografian zehar bana dezakete produkzio-prozesua, leku bakoitzeko abantailak aprobetxatu ahal izateko. Horrela garatu da deslokalizazio izenaz ezagutzen dugun fenomeno; hau da, kasu batzuetan, enpresa transnazionalak lan-indar eta bestelako lan-kostu merkeenak eskaini dituzten herrialdeetara eraman dituzte lantegiak. Horren ondorioz, aldatu egin dira kapitalaren eta lanaren arteko harremanak herrialde garatuetan, lan-indarraren kaltetan. Langileriak ez duenez kapitalak duen mugikortasunik, deslokalizazioaren aukera eta mehatxuak direla-eta, okerrera egin dute lan-baldintzek edo iraitzen masiboak gertatu dira sektore batzuetan. Prozesu horren ondorioz, *Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko* (OCDE gaztelaniaz) herrialdeetan indarra galdu dute industriako jarduerak eta Hegoaldeko herrialde batzuek, hau da «eskualde semiperiferikoek» (Hego Amerikak eta Asiako herrialde batzuek edo Ekialdeko Europak), erakarri egin dituzte industriako jarduerak. Ekoizpen-sare transnazonaletan integratuta, *Ekonomia Industrial Berri* horietako batzuk (NIE, *New Industrial Economics*) esportatzaile handi bihurtu dira. Ondorioz, globalizazio-prozesuak aldatu egin du Iparraren eta Hegoaren arteko lan-banaketa. Nazioarteko ekonomia globalizatuan integratu dira garatzeko bidean diren herrialde batzuk, eta nabarmen hobetu da haien egoera (Brasil edota Txina dira horien adibide); beste batzuk, aldiz, gero eta baztertuago gelditu dira, Saharaz hegoaldeko Afrika esaterako. Dena dela, kasurik gehienetan Iparraldeko herrialde garatuetan gelditu da enpresa transnazionalen kontrola eta kudeaketa (jabegoa, finantzaketa, diseinua edota marketineko jarduerak).

Globalizazioak areagotu egin du kapitalaren autonomia, lan-indarraren eta sindikatuen aurrean ez ezik, estatuaren aurrean ere. Gobernuetara txikiagoa geratu zaie politika ekonomiko nazionalak ezartzeko eta, oro har, ekonomia nazionalak arautzeko. Bestela esanda, gobernuen erabakiak eta politikak nazioarteko kapitalen gustukoak ez badira, alde egiten dute inbertsioek, eta egoera horrek krisi ekonomikoa eragin dezake eta, beharbada, krisi politikoa ere bai. Nazioarteko

merkatuek beren kapitalen mugimenduen bitartez baldintzatu ditzakete politika ekonomiko nazionalak, politika horiek beren interesekin bat etor daitezten. Horregatik, azken hamarkadetan, diru publikoaren bilketan pisua galdu du kapitalen gaineko zergak; lanaren gainekoak eta zeharkakoak, ordea, irabazi egin dute, errentaren birbanaketa-politiken kaltetan.

11.5. 2002 Mundua worldmapperren arabera haur-langileen kopurua irizpidetzat hartuta.



Iturria: <http://www.worldmapper.org>

© Copyright SASI Group (University of Sheffield) and Mark Newman (University of Michigan).

Hori dela-eta, estatuaren ahalmenei buruzko eztabaida sortu da gizarte-zientzietan. Estatuak subiranotasuna galdu ote du globalizazioaren ondorioz? Adu batzuen ustez, estatuak jadanik ez dira nazioarteko politikako aktore nagusiak. Beste batzuen aburuz, berriz, gaur egun ere nazio-estuetan oinarritzen da nazioarteko politika. Ikuspuntu historiografikotik azterturik, jarraitutasunaren eta eraldaketaren arteko oreka sumatzen dugu. Batetik, 1980ko hamarkadatik aurrera, estatuak galdu egin du ekonomia kontrolatzeko eragina, zalantzarik gabe. Estatuaren ahalmen ekonomikoari dagokionez, oso desberdinak dira egungo egoera eta 1960ko hamarkadakoa, keynesianismoren goraldiaren garaikoa alegia. Bestalde, globalizazioaren garaian estatuak ez da gauza izan hainbat arazo globali aurre egiteko, esate baterako aldaketa klimatikoari, nazioarteko kriminalitateari edo munduko pandemiei. Ahultasun horri erantzuteko, gero eta ugariagoak dira *governantza globaleko* erakundeak munduko hainbat auziri aurre egiteko. Hala ere, estatuak gaur egun ere jarraitzen du izaten nazioarteko politikaren aktore nagusietako bat. Baina, globalizazioaren garaian, estatuarekin batera, gero eta protagonismo handiagoa hartu dute nazioarteko politikan gobernuen arteko erakundeek edo nazioz gaindikoez (Europar Batasunak, adibidez), indar transnazionalak (korporazio

multinazionalek, esaterako) eta gizarte-mugimendu globalek, (ATTACen —*Association pour la taxation des transactions financières et pour l'action citoyenne*— modukoak edo 1999ko Seattle-eko protestak eragin zituztenen modukoak). Azken finean, globalizazioak, ekonomia ez ezik, munduko politika ere aldatu du eta aldatzen ari da.

11.4. MUNDUKO GATAZKAK GLOBALIZAZIOAREN GARAIAN

Gerra Hotza amaitu berritan eta munduko gatazka nuklearraren mehatxua gaindituta, mundua leku baketsuagoa izan zitekeen itxaropena piztu zen 1990eko hamarkadaren hasieran. Berlingo harresia erori zenetik hogeit hamar urte igarota, orain azter dezakegu ea esperantza haiek bete diren.

Oso gatazkatsua izan da Gerra Hotzaren ondorengo mundua. Zapuztu egin dira arestian aipaturiko itxaropenak. Kegley eta Wittkopf-en datuen arabera, 1989tik 2008ra bitartean 122 gatazka armatu izan dira munduan. Beste iturri batzuek ere gatazka kopuru handia ematen dute, honako koadro honek erakusten digunez.

Munduko gatazka armatuen kopurua eta kokapena (1985-2006).

	1985-1994	1995-1996	1997-2006
Afrika	30 (% 29,4)	36 (% 45,0)	43 (% 43)
Asia	43 (% 42,2)	27 (% 33,7)	40 (% 40)
Amerika	14 (% 13,7)	11 (% 13,7)	11 (% 11)
Europa	15 (% 14,7)	6 (% 7,5)	6 (% 6)
Mundua	102	80	100

Iturria: *Encyclopedia of violence, peace and conflict*, Academic Press, San Diego, 2008, 2.270.-2.371. or.


Mundu bipolarra deuseztatzearen ondorioz, ezegonkortasuna, anarkia edo aurreko aginteen hutsuneek eta gehiegikeriek eragindako egoerak sortu dira munduko zenbait eskualdetan. Horixe gertatu da, esate baterako, Balkanetan eta Sobietar Errepublikak ohi batzuetan, SESB eta Jugoslaviako estatu federalak desegin direnean, eta baita Afrika Beltzeko zenbait lurraldetan ere. Azken finean, Gerra Hotzak tentsioa eragiten bazuen ere, egonkortasuna ematen zien superpotentziek kontrolaturiko herrialdeei, sostengua eta babesia ematen baitzitzaizen aliatuei. Nazio Batuen bakea ezartzeko misioak ugalduta badira ere, NBEk ez du lortu gatazkak saihesterik, eta agerian geratu dira Gerra Hotzaren ondorengo munduak dituen gabeziak eta mugak.

Globalizazioaren garaiko gerra gehienetan ez dira estatuak eta beren armadak elkarren kontra borrokatu. Gatazka zibilak edo estatuaren barneko gerrak izan dira gerra gehienak. Kegley eta Wittkopf-en datuak berriro erabiliz, 1989tik 2008ra bi-

tartean izandako 122 gatazka armatuetatik, zazpi bakarrik izan ziren estatuen artekoak. Baina egun ez dago batere garbi zein den estatuen barneko eta nazioarteko gerren arteko bereizketa, gatazka gehienetan kanpoko estatu batek edo nazioarteko aktore batek hartzen baitu esku, indar gerragile bati edo besteari laguntza militarra, armak edo finantza-bideak emanez.

Globalizazio-prozesuak baldintzatu du gaur egungo munduko gerren izaera. Nahiz eta gerra gehienak estatuen barnekoak izan diren, gero eta nabariagoa izan da nazioz haraindiko aktoreen eta interesen presentzia: hainbat eta hainbat GKE; atzerriko mertzenario-armadak; Nazio Batuen Erakundearen baketze-indarrak; *Al Qaeda* bezalako sare armatu transnazionalak; enpresa, interes eta jarduera ekonomiko transnazionalak (arma, droga, diamante edo bestelako baliabide naturalen trafikoan ari direnak). Interes eta jarduera ekonomiko horiek direla-eta, Mary Kaldor aditua *gerra endekatuez* mintzatzen zaigu, hots, aitzakia eta negozioa egiteko edo baliabideak eskuratzeko abagune bihurtu da gerra, kasu askotan. Eta hori ere bada arrazoia horrelako gatazka armatuetan populazio zibila izateko gerraren biktima eta objektu nagusia, eta biztanleria zibilak ondorio ikaragarriak pairatzeko: milioika zibil hiltzea eta indarrez mugitu eta errefuxiatu beharra izatea. Giza eskubideen bortxaketa masibo eta sistematikoa dugu globalizazioaren garaiko gerren ezaugarrietako bat.

11.6. 2002 Mundua worldmapperren arabera petrolio-esportazioa irizpidetzat hartuta.



Iturria: <http://www.worldmapper.org>

© Copyright SASI Group (University of Sheffield) and Mark Newman (University of Michigan).

Bestalde, globalizazioaren aroko gerrak gatazka *asimetrikoak* izan dira, hots, etsaiek oso indar desberdina izan dute. Kasu batzuetan oso indar handiko nazioarteko koalizio batek egin dio aurka estatu «ahul» bati, Serbian Kosovoko auzia zela eta 1999an, Afganistanen 2001ean edo Iraken 2003an gertatu zen bezala. Beste batzuetan, nazioz haraindiko sare armatu batek populazio zibilaren kontrako atentatuen bitartez egin die aurka munduko potentzia nagusiei. 2001eko irailaren 11ko erasoak izan zenetik aurrera garatu dira horrelako gatazka asimetrikoak. Dena den, badirudi egungo munduan desagertu egin direla pareko indarra duten estatuen arteko gerrak.

Mundu bipolarreko gerren sorburu nagusiak superpotentzien interes geostrategikoak, arrazoi ideologikoak edo deskolonizazio-prozesuak izan ziren. Gerra Hotzaren ondorengo gerretan, berriz, bi eratako arrazoiak ditugu nagusi. Batetik, arazo etnikoak, nazionalistak edo erlijiosoak ikusten ditugu hainbat eta hainbat gatazkatan, hau da, lehenagoko helburu geopolitikoaren edo ideologikoaren ordez, nortasunaren inguruko auziak eta politikak. Bestetik, gatazka askoren jatorrian baliabide naturalak (petrolio eta gas naturala batez ere) eskuratzeko interesak daude. Dena den, gatazka gehienetan nahasirik egon dira bi eratako faktoreak.

Gatazken geografari dagokionez, azpimarratzekoa da berriro ere Europa izan dela gerraren agertoki. Ikusi genuen bezala, Gerra Hotzaren hasiera Europan izan bazen ere, Hirugarren Mundura hedatu zen berehala eta bertan gertatu ziren gatazka belikoak, Europatik urrun (ikus 1. gaia). Egungo munduan ere Hegoaldean pizten dira gatazka gehienak, baina Europako lurraldera ere itzuli da gerra azken hamarkadetan. Eredutik komunismaren krisiaren ondorioz, Jugoslaviaren eta Sobietar Batasunaren kasuetan, sistema ekonomikoa eta politikoa ez ezik, estatu federala bera ere deuseztatu egin zen. Aditu batzuen ustez, nazionalismoak bete zuen orduan komunismoak utzitako zilegitasun-hutsunea, eta agintari komunista ohi batzuek identitate nazionalak edo etnikoak erabili eta manipulatu zituzten boterean jarraitu ahal izateko. Jugoslaviako kasuan prozesua oso bortitza izan zen, eta horren erakusgarri ditugu Kroaziako Gerra (1991-1992), Bosniakoa (1992-1995) eta Kosovokoa (1999). Jugoslaviako Estatu Federalaren ordez, Eslovenia, Kroazia, Bosnia, Mazedonia, Montenegro, Serbia eta Kosovoko estatu independenteak sortu dira (ikus 5. gaia).

Sobietar Batasuneko lurralde ohian ere gatazka nazionalistak piztu dira, gehienak Kaukaso aldean: Txetxeniako Gerrak (1994-1996 eta 1999-2002) Errusiako Federazioan, Abjasia eta Hego Osetiako gatazka Georgian, eta Armeniaren eta Azerbaijanen arteko Gerra (1988-1994) Nagorno-Karabakh kontrolatzeko, izan dira gatazka nagusiak. Beste eskualde askotan gertatu den bezala, Kaukasoko gatazketan ere nahasi egin dira botere-borrokak, auzi etniko eta nazionalistak, eta petrolio-erreserbak eta oliobideak kontrolatzeko potentzien interesak. Aipatzekoa da, adibidez, Azerbaijanen aurkitu den petrolio-erreserba. Tentsio horien ondorioz,

Errusiako lurraldetik ez pasatzeko, oliobidea eraiki da Baku-ren (Azerbaijaneko Kaspiar itsasoko kostaldean) eta Ceyhan-en (Turkian, Mediterraneo itsasoan) artean. Dena den, horren atzean Mendebaldekoen eta errusiarren arteko tirabirak ezkututzen dira eremu postsobietikoan eragina izateko, batez ere hidrokarburoak eta oliobideak kontrolatzeko.

Gerra Hotzaren ondorengo munduan Afrika izan da kontinenterik gatazka-tsuenena. Azken hamarkadetan, kontinente beltzean porrot egin dute deskolonizazioaren ondoren eraikitako estatu-egiturek eta herrialde batzuetan deuseztatu ere egin dira. Horrela, hainbat botere-hutsunedun estatu sortu dira; hau da, herrialde horietan, gobernuak galdu egin ditu lurraldearen gaineko kontrola eta indarraren monopolioa, neurri batean edo bestean, bestelako talde armatu batzuen (gerrako jaunen, talde paramilitarren, gerrilla erlijioso edo etnikoen, eta abarren) mesedetan. Somalia edo Kongoko Errepublika Demokratikoa izan dira egoera horren adibiderik ezagunenak.

Baina zelan eta zergatik heldu da egoera larri horretara? Lehenik, kolonialismoaren herentzia astuna gogoratu beharko genuke: metropoliek beren mesedetan eraikitako egitura artifizialak ziren Afrikako koloniak. Bigarrenik, deskolonizazio-prozesuak kontinente beltzean izan zituen gabeziak ere kontuan hartu beharko genituzke (ikus 7. gaia): inperialismoak eratutako estatu kolonialen oinarrien gainean eraiki ziren nazio-estatu berriak, eta iraun egin zuten mendekotasunezko egitura politiko zein ekonomikoek, nahiz eta estatuaren kontrola afrikar eliteen esku egon. Eta kasu batzuetan behintzat elite horiek estatu-egitura berriez jabetu ziren. Prozesu horretan erlijio-, tribu- edo etnia-identitateak erabili zituzten segiziozaleen sareak eraikitzeko, horrela agintarien aldeko oinarri soziala erakarriz. 1980ko hamarralditik arazo larriei egin behar izan zieten aurre afrikar estatu horiek: krisi ekonomikoa, kanpo-zorra eta egiturazko doikuntzako politikak. Gainera, Gerra Hotzaren amaieraren ondorioz, murriztu egin dituzte superpotentziek ematen zituzten laguntzak «estatu segiziozaleak» sostengatzeko. Azken finean, afrikar estatu postkolonialak gero eta baliabide gutxiago izan ditu eta, beraz, gero eta arazo gehiago bere oinarri soziala mantentzeko. Testuinguru horretan, zenbait gizarte-talde —gehienetan erlijio, tribu edo etnia-identitateen inguruan antolatuak— lehian hasi dira estatuaren hondarrak eskuratzeko eta esportaziorako baliabide aberatseko lurraldeak kontrolatzeko. Eta borroka horietan parte hartu dute atzerriko estatuak edo nazioz haraindiko aktoreek eta interesek ere kasu askotan. F. Veigak dioen bezala, deskolonizazioaren ondoren sorturiko ordena politikoak inplosio bat izan du azken hamarkadotan Afrikan. Inplosio horren adibide ugari ditugu, beheko koadroak erakusten digunez.

Sahararen hegoaldeko gatazka armatuak 2005ean.

Gatazka armatua (hasiera)	Aktore armatuak	Zioak edo eragileak	Hildako kopurua
Burundi (1993)	Trantsizioko Gobernua Forces Nationales de Libération	Estatuaren kontrola Gatazka etnikoa	300.000
Kongoko Errepublika Demokratikoa (1998)	Trantsizioko Gobernua Talde armatu ugari	Estatuaren kontrola Baliabide naturalen kontrola	3,5 milioi
Somalia (1988)	Talde armatu ugari	Eskualdeko boterearen kontrola Federazioa/Konfederazioa	400.000
Uganda (1986)	Gobernua Lord Resistance Army	Estatuaren kontrola Erljio-mesianismoa	150.000
Sudan (Darfur) (2003)	Gobernua eta bere miliziak Sudan Liberation Army Justice Equality Movement National Movement for Reform and Development	Eskualdeko bazterketa	180.000
Boli Kosta (2002)	Gobernua eta bere miliziak Forces Nouvelles	Eskualde batzuen bazterketa Bazterketa politikoa Erljioa	-
Nigeria (Niger-eko Delta) (2003)	Gobernua Ijaw, Itsekere eta Urhobo komunitateen miliziak	Estatuaren kontrola Baliabideen kontrola Eskualdeko bazterketa	-
Nigeria (Iparraldea) (2003)	Gobernua Miliziak: kristauak, musulmanak.	Baliabide naturalen kontrola Erljioa	10.000

Iturria: Mateos Martin, O. (2005): *Africa, el continente maltratado*, Bartzelona, 15-16.

Afrikako gatazka armatu bortitzen artean honako hauek izan dira larrienak: Ruandako genozidio etnikoa (1994), milioi bat inguru hildako eragin zuena; Sierra Leonako gerra zibila (1991-2002), baliabide naturalak (diamanteak) eskuratzeko gerra alegia; Liberiako Gerrak (1989-2003) 200.000 hildako inguru eragin zituen; Angolako gerra zibil luzea (1975-2002), Gerra Hotzeko gatazka izan zen sorreran baina, mundu bipolarra amaituta, baliabideak (diamanteak eta petrolioak) eskuratzeko gatazka bihurtu zen; Kongoko Errepublika Demokratikoko gerretan (1996-) ere gatazka etnikoak, inguruko herrialdeen esku-sartzea eta baliabide naturalak eskuratzeko interesak nahastu dira (lau milioi hildako eta bost milioi errefuxiatu eragin ditu gerra horrek); Sudanen, azkenik, Darfur eskualdean milaka hildako eta desplazatu egon dira gobernuaren eta gutxiengoaren arteko borroka gogorretan. Lehen esan dugun bezala, gatazka horiek barne-gerrak diruditen arren, nazioarteko indarrak (estatuarenak zein pribatuak) nahasi egin dira elkarren kontra borrokatzen duten talde etniko, erlijioso eta tribalei laguntza emanez.

Asiari dagokionez, Ekialde Hurbilak munduko eskualderik garrantzitsuena izaten jarraitu du Gerra Hotzaren ondorengo munduan ere. Palestinako gatazkaren eta eskualdean dituen ondorioez gain (ikus 9. gaia), Persiar golkoko Gerra (1991n) eta Iraken inbasioa (2003an) izan dira eskualdeko gerra nagusiak. Adibide horiek ondo baino hobeto erakusten digute faktore ekonomikoak duen garrantzia globa-

lizazioaren garaiko gatazketan. Nahiz eta nazioarteko terrorismoaren kontrako borrokaren izenean aritu, Persiar Golkoko petrolioaren kontrolatzea eta, oro har, haren eragina Ekialde Erdiko eskualde aberatsean finkatzea ziren AEBren beste helburuak, Irak inbaditu zuenean. Erdialdeko Asia ere eskualdeko interes geoekonomikoek (petrolioak, gas naturalaren erreserbak, gas-bideak eta oliobideak) piztu dute potentzien arteko lehia, batez ere AEBren, Errusiaren eta Txinaren artekoa. Afganistango Gerrak (2001-) aukera eman zien Estatu Batuei haren eragina ezartzeko eskualde horretan; horren erakusgarri dira Tadjikistaneko, Uzbekistaneko eta Kirgizianeko base militarrik. Bestalde, Asian oraindik badiraute deskolonizazio-prozesuan sorburua duten gatazka batzuek. Indiaren eta Pakistanen arteko Kaxmirreko auzia dugu garrantzitsua, baina badaude beste batzuk ere, Sri Lankan bertako gobernu eta gutxiengo tamila aurrez aurre duena edota Myanmar-eko agintari militarren eta biztanleria zibil eta talde etnikoen artekoa. Laburbilduz, globalizazioaren aroan aldatu egin da gatazka armatuen izaera, baina mundua ez da Gerra Hotzaren garaikoa baino baketsuagoa. Berlingo harresiaren erorketaren garaiko itxaropenak ez dira inola ere bete azken hamarkadetan.

TESTU-ERANSKINA

1991, NAZIOARTEKO ORDENA BERRIAREN ALDARRIKAPENA, GEORGE H.W. BUSH

Aurrez aurre dugu, geuretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat, Nazioarteko Ordena Berri bat sortzeko aukera. Mundu berri bat non legeak arautuko duen nazioen jokabidea, eta ez oihaneko legeak. Arrakasta dugunean —eta izango dugu—, benetako aukera izango dugu Nazioarteko Ordena Berri horretan, NBĖk (Nazio Batuen Erakundeak) bere eginkizuna gauza dezan bakea mantentze aldera, Nazio Batuen sortzaileek agindutakoa eta aurreikusitakoa bete dadin.

Iturria: <http://elproyectomatriz.wordpress.com/2008/10/11/el-nuevo-orden-mundial/>

2002, ESTATU BATUEN SEGURTASUN NAZIONALERAKO ESTRATEGIA

Gaur egun Estatu Batuek inoizko indar militarrik handiena dute eta inoizko eragin handiena politikan eta ekonomian. Gure iraganarekin eta printzipioekin zintzo izanda, ez dugu geure indarra erabiltzen alde bakarrarentzako abantailak lortze aldera. Aitzitik, giza askatasunaren mesederako izango den indarren oreka bilatzen dugu. [...] Arriskurik gabeko mundu batean, jendeak bizitza hobetu ahal izango du. Bakearen alde egingo dugu, terroristen eta tiranoen aurka borrokatzean. Bakea babestuko dugu, potentzia handien arteko harreman onak sorraraztean. Bakea zabalduko dugu, kontinente guztietan gizarte libreak eta irekiak bultzatzean.

Arerioengandik gure nazioa defendatzea da gobernu federalaren lehenengo funtsezko konpromisoa. Gaur egun, erabat aldatu da eginbehar hori. Lehen, gure etsaiek armada handiak eta gaitasun industrial handia behar zuten Ipar Amerika arriskuan jartzeko. Gaur egun, aldiz, gizabanakoen sare ilunek anabasa eta samina ekar diezazkigukete gure kostaldera, tanke batek balio duena baino gutxiago kostatuta. Antolatuta daude terroristak gizarte irekietan sartzeko eta teknologia modernoaren boterea geure kontra bideratzeko.

Mehatxu hori gainditzeko, gure armategiko tresna guztiak erabili behar ditugu: botere militarra, gure lurralde nazionalaren defentsa hobetu, legea aplikatu, inteligentzia bildu eta kudeaketa indartsuak egin terroristei finantza-bideak eteteko. Nazioarteko zeregina da maila orokorreko terrorismoaren aurkako gerra, eta ez du iraupen mugaturik. [...]

Gure nazioak aurrez aurre duen arriskurik larriena erradikalismoaren eta teknologiaren arteko bidegurutzean dago. Gure arerioek argi eta garbi adierazi zuten masak suntsitzeko armak bereganatzen dituztela, eta horretan erabakitazunez ari direla erakusten duten frogak daude. Estatu Batuek ez dute utziko gestio horiek arrakastarik izan dezaten. Misilen aurkako misilen eta beste garraiobide batzuen kontrako defentsak sortuko ditugu. Beste herrialde batzuekin arituko gara lankidetzan, gure etsaiek teknologia arriskutsuak bereganatzeko egindako ahaleginak gutxitu, ahuldu eta desegin daitezten. Eta sen onak eta norberaren defentsak agintzen dutenez, Estatu Batuek sortzean dauden mehatxuen aurka joko dute, gauzatzea lortu baino lehen. [...] Sartu garen mundu berri honetan, ekintza da bakeranzko eta segurtasuneranzko bide bakarra. [...]

Gaur egun, etsai horien guztien aurka askatasuna irabazteko aukera du gizateriak. Estatu Batuek onespenez hartzen dute misio handi horretan buru izateko erantzukizuna.

Iturria: Barbe, E. (2007): *Relaciones Internacionales*, 3. argit., Tecnos, Madril, 334. or.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Adda, J. (2004): *Ekonomiaren globalizazioa: sorrera eta arazoak*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Arostegui, J. (2004): *La historia vivida. Sobre la historia del presente*, Alianza, Madril.
- Barbé, E. (2007): *Relaciones Internacionales*, 3. argit., Tecnos, Madril.
- Baylis, J. eta Smith, S (argit.) (2007, 4. argit.): *The Globalization of World Politics. An introduction to International Relations*, Oxford University Press, Oxford.
- Bidaurrezaga, E. (1999): «Globalizazioaren inguruko zenbait gogoeta», in *Uztaro*, **28**, 3-35.
- Castells, M. (1998): *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura*, Alianza, Madril.
- Dehesa, G. de la (2001): *Comprender la globalización*, Alianza, Madril.
- Durand, M-F., et al (2008): *Atlas de la globalización. Comprender el espacio mundial contemporáneo*, PUV, Valentzia.
- García Segura, C. (1999): «La globalización en la sociedad internacional contemporánea: dimensiones y problemas desde la perspectiva de las relaciones internacionales», in *Cursos de Derecho internacional de Vitoria-Gasteiz 1998*, Tecnos-UPV, Madril.
- Held, D.; McGrew, A.; Goldblatt, D.; Perraton, D. (2002): *Transformaciones globales: política, economía y cultura*, Oxford University Press, Oxford.
- Held, D. eta McGrew, A. (2003): *Globalización/Antiglobalización. Sobre la reconstrucción del orden mundial*, Paidós, Bartzelona.
- Hobsbawm, E. (2006): *Guerra y paz en el siglo XXI*, Crítica, Bartzelona.
- Kaldor, M. (2001): *Las nuevas guerras. Violencia organizada en la era global*, Tusquets, Bartzelona.
- Kegley, Ch. W., Wittkopf, E. R. (2008, 7. argit.): *World Politics. Trend and Transformation*, Wadsworth, Belmont.
- Klare, M.T. (2003): *Guerras por los recursos. El futuro escenario del conflicto global*, Urano, Bartzelona.
- Lacoste, Y. (2009): *Geopolítica. La larga historia del presente*, Síntesis, Madril.
- Pereira, J.C. (koord.) (2009): *Historia de las relaciones internacionales contemporáneas*, 2. argit., Ariel, Bartzelona.
- Segura, A. (2004): *Señores y vasallos del siglo XXI. Una explicación de los conflictos internacionales*, Alianza, Madril.
- Taibo, C. (2008): *150 preguntas sobre el nuevo desorden*, Catarata, Madril.
- Veiga, F. (2009): *El desequilibrio como orden. Una historia de la posguerra fría 1990-2008*, Alianza, Madril.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon

Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta

Pruden Garzia eta Iban Zaldia
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan

Karmele Artetxe (arg.)
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-016-5

Ikerketa berriak Euskal Herriko historian

Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe (arg.)
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-027-0

Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984

Mikel Aizpuru Murua
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-041-6

Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafikoaren iruzkin-ereduak

Amanda Ruiz eta Jaione Agirre
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-080-7

Debarroko oasi liberala

Gotzon Iparragirre Burgoa
2008an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-171-6

1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria

Mikel Errazkin eta Juantxo Agirre (argk.)

2009an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-237-9

Lurralde-antolamendua Euskal Herrian: gaur egungo egoera, gatazkak eta erronkak

Joseba K. Arbaiza Alvarez eta Peio Lozano Valencia (koord.)

2010ean argitaratua

ISBN: 978-84-8438-330-7

Lau Haizetara. Gerra Zibilaren ondorengo erbestez

Josu Chueca, Iñaki Goiogana, Xabier Irujo, Emilio Lopez Adan «Beltza», Patri Urkizu

2010ean argitaratua

ISBN: 978-84-8438-232-1

Historia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikulua

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* **24**, 29-47.

Aditzaren aspektuaz edo gaztelaniazko orainaldi historikoaren baliagarritasuna euskaraz
Agirre, Jaione, *Uztaro* **41**, 15-26.

Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jelkideak XX. mendearen lehen herenean
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **39**, 53-61.

Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **67**, 33-56.

XXI. mendearen hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa
Aizpuru, Mikel, *Uztaro* **75**, 49-66.

Aro Berriko Euskal Herriko itsas ekonomiaren historiaren egoera
Alberdi Lonbide, Xabier, *Uztaro* **52**, 9-32.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* **0**, 21-35.

Albert Goienetxe (1847-1900) politikari euskaltzale ia ezezagunaren barri laburra
Altonaga, Kepa, *Uztaro* **66**, 43-73.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat. (1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **13**, 69-86.

Euskal hezkuntza ikastolak sortu baino lehen: Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmoen eta errealitatearen artean (XVIII-XX)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **69**, 5-22.

Esklabo iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte gatazken eredu bat
Alvarez Pérez-Sostoa, Denis, *Uztaro* **36**, 25-39.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* **28**, 37-58.

Makiak Euskal Herrian
Apaolaza, Urko, *Uztaro* **37**, 105-118.

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana, Jose Antonio, *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **29**, 28-38.

Enirio-Aralar mendietako abereen eta basoen ustiapena aro berrian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **38**, 19-32.

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625
Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, Xipri, *Uztaro* **2**, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, Joseba, *Uztaro* **15**, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro* **1**, 53-75.

Psikologiako artikuluen azterketa *Uztaro* aldizkari oinarri harturik
Artetxe, Karmele, *Uztaro* **56**, 31-50.

«Kristau-elizak, kristau-herriarenak»: ikerketa zail baten oinarriak
Azkoaga Lasheras, Iñazio, Larrambeber Zabala, Migel, *Uztaro* **71**, 31-42.

Txabolismoa. XII. mendearen erdialdeko auzo autogestionatuak
Castrillo, Ianire, *Uztaro* **60**, 37-64.

Frantziako kexu-koadernoaren azterketa bat
Chueca, Josu, *Uztaro* **2**, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, Josu, *Uztaro* **6**, 77-87.

Norena da herriaren ondarea?
Esparza Zabalegi, Jose Mari, *Uztaro* **71**, 17-29.

Faxismoa frantzian: 1918-1930
Gartzia, Pruden, *Uztaro* **5**, 31-45.

Manex Goihenetxeren oroitzapenetan
Gartzia, Pruden, *Uztaro* **72**, 59-77.

Meataritza nekazari-herri batean. 1844-1982
Gorrotxategi, Aitziber, *Uztaro* **45**, 3-27.

Europako langile-mugimenduen protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-
elkarteak Erregimen Zaharren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro* **7**, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro* **14**, 3-20.

Bigarren Aintzina
Hernández, Amelia, *Uztaro* **15**, 37-53.

Erlijio eta politika Hego Europna Ikerketarako sei (adi)bide
Itzaina, Xabier, *Uztaro* **49**, 23-42.

Zuzenbide penalaren bilakaera historiko-doktrinala: Hamurabiren kodetik Hurgo
Grtius-en teoriara
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **51**, 25-43.

Nafarroako erlijio-erainiken jabetza: ikuspegi historiko-juridiko bat
Jimeno, Roldan, *Uztaro* **71**, 71-85.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **25**, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **30**, 61-84.

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)
Kintana, Jurgi; Alfaro, Iñaki, *Uztaro* **40**, 37-62.

'Irurac Bat' Konferentzien hezkuntza- eta kultura-proiektuak Artikulu osoa
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **55**, 31-46.

Ba al zekien Sabiono Aranak euskaraz mintzatzen?
Kintana, Jurgi, *Uztaro* **63**, 21-29.

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai oparoa eta eztabaidagarria
Kortadi Olano, Kepa, *Uztaro* **71**, 109-121.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* **33**, 21-41.

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios,
1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* **10**, 33-59.

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua
Lopez Abasolo, Patxi, *Uztaro* **46**, 11-39.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* **23**, 45-63.

Bigarren globalizazioa: amaieraren hasiera?
Manjon Lozoya, Roberto, *Uztaro* **74**, 21-41.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera
eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* **1**, 77-103.

1610. urtea. Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurri buruz
Paul Arzak, Juaninas, *Uztaro* **43**, 17-51.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* **8**, 35-52.

Ideologia eta gatazka Montevideoko euskal etxeen eraketetan
Sanz Goikoetxea, Eneko, *Uztaro* **69**, 25-49.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* **4**, 25-31.

Euskal Herrian gizartea eta eliza

Uriarte, Luzio, *Uztaro* **71**, 87-107.

Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–

Zabalo, Julen, *Uztaro* **26**, 27-46.

Nafarroako sorginkeria berriro eztabaidagai

Zabala, Mikel, *Uztaro* **39**, 39-52.

Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterketa eta erresistentzia
aurrez aurre

Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **47**, 41-54.

Goi Aro Berriko Bizkaiko Jaurerriko Gobernuari buruzko hurbilketa

Zabala Montoya, Mikel, *Uztaro* **53**, 9-29.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat

Zaldua, Iban, *Uztaro* **6**, 59-75.